Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Aretxabaleta

Aurkibidea

Udalerria: Aretxabaleta

Sarrera

Debagoieneko udalerria. Leintz bailarako beste herriekin (Arrasate, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga) hartu-eman handia izan du mendeetan zehar, eta hizkeraz ere bat eginik daude. Aramaioko hizkera ere ez dago urrun. Azken urteotan indar handia egin da herriko hizkera eta ahozko ondarea jasotzeko.

- **Biztanleak**: 6.725
- **Euskaldunak**: %63,1

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **64**
- Zintak: **83**
- Pasarteak: **583**
- Transkribatutakoak: **516**
- Audioak: **161**
- Bideoak: **356**

Proiektuak

- AED elkartea
- Aretxabaletan hika
- Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Gazte gara gazte
- Gipuzkoako zuhaizti motzak
- Leintz bailarako ahozko ondarea
- Loramendi Euskara Elkartea

Hizlariak

Rosario -

Larriño auzokoa. Antzinako bizimoduari buruz hitz egiten du.

Patxi Abasolo Askasibar (1921-2014)

Areantza auzoko Etxeberri baserrian jaio zen, zortzi anai-arrebatatik zaharrena. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Elgetako Angiozar auzoko Goimendi auzuneko Zulueta baserrikoa zen (gaur egun Angiozar Bergaran dago). Aretxabaletako Goroeta ("Korueta") auzo-eskolan ikasi zuen bi urtez, euskaraz. Gero beste bi Aozaratza ("Azatza") auzoko eskolan, eta azken biak Maristetan. Koruetako eskolak bakarrik jaso zituen euskaraz. 13 urterekin Gasteizera joan zen erdaraz ikastera, ortu sail handidun etxe batera, morroi. Bost urtez jardun zuen bertan, ortua zaintzen, eta egunero barazkiak Gasteizko azokara eramaten zituen. Etxera itzuli eta gutxira soldaduskara joan zen. Gero etxean geratu zen, soro eta ganaduak zaintzen. Oilo eta oilasko askoko granja bat ere izan zuten etxean hamar urte inguruan. Hiztun ona da eta lehenagoko bizimoduaz gain, etnografia gaiez ere azalpen zehatzak ematen ditu. Elgetako Angiozar auzoko Goimendi auzuneko Gontzarri baserriko Maria Gallastegirekin ezkondu zen. Zortzi seme-alaba dituzte.

Julen Abasolo Gallastegi (1963)

Resu Abasolo Gallastegi (1958)

Angelita Altuna

Patxi Ametza

Ana Mari Arbulo

Balentina Arbulo

Zezilia Arenaza Altuna (1922)

Azatza (Aozaratza) auzoko Zelaikua baserrian jaio zen, zortzi anai-arrebatatik laugarrena. Ama bertakoa zen, eta aita berriz Areantza auzoko Txikinakua baserrikoa. Zazpi urtetik hamarrera Aozaratzako auzo-eskolan ibili zen, eta gero hilabete batzutan kalean mojekin. Umetatik joaten zen egunero Arrasatera etxeko esnea saltzera. Aretxabaletako Taberna Berrin kamarera jardun zuen ugazaba senideari laguntzen. Baserriko lanak eta ingurua oso ongi ezagutzen ditu, eta lehenagoko bizimoduaz azalpen zehatzak ematen ditu. Bere senarra izango zenaren etxera, Perunanera, josten ikastera joan zen garai batean. Baserri honetara ezkondu zen, etxeko Andres Anduagarekin. Sei seme-alaba izan zituzten.

Maurizia Arenaza Garaitonandia (1929)

Eskoriatzako Mendiola auzoko Atxurdin baserrian jaio zen, zortzi anai-arrebatatik zaharrena. Aita bertakoa zen eta ama, berriz, Aramaioko Zabola auzoko Arrieta baserrikoa. Eskoriatzako mojen eskolan hasi zen gerraostean. Baina gaixotu egin zen eta harrezkero Aretxabaletan arratsaldeko eskola partikularrak jaso zituen. 16 urterekin neskame jardun zuen urtebetez, Aretxabaletan bizi zen oñatiar baten etxean. Artabe baserrira ezkondu zen, etxeko Alberto Lasagabasterrekin. Hiru seme-alaba izan zituzten. Umeak hazi eta gero, Arrasateko Euskadiko Kutxan jardun zuen lanean 18 urtez, erretiroa hartu zuen arte.

Feliziana Arenaza Lasagabaster (1916-2014)

Txikiñekue baserrian jaioa (Areantza elizatean, Aretxabaleta), eta gerora Matiku baserrira bizitzera joandakoa (Aozaratza elizatea). Aita Txikiñekue baserrikoa zuen eta ama Itturralde baserrikoa. Baserrian eta tabernan lan egindako emakumea. Elkarrizketa egin zitzaionean, 86 urte zituen.

Jose Benito Ayastuy Elorza (1934)

1934ko martxoaren 21ean jaio zen Aretxabaletako Aozaratza auzoko Otalazelai baserrian. Aita, Paulo Ayastuy, Otalazelaikoa zen eta ama, Maria Elorza, Aramaioko Arrixola auzoko Ereduena baserrikoa. Baserritarra eta 21 urte arte bertan baserrian lan egindakoa da. Gero Union Cerrajeran, Urssan, Copreci eta Fagor Arrasaten egin zuen lan soldatzaile bezala gehienbat.

Pilar Azkarretazabal Bengoa (1924-2018)

Santi Bengoa Eskibel (1924-2012)

Arrasateko Zarugalde kalean jaio zen, hamar anai-arrebatatik hirugarrena. Aita Bedoña auzoko (orduan Bedoña auzoa Aretxabaleta udalerrian zegoen; gaur Arrasaten dago) Zabale (Zabala) baserrikoa zen eta ama auzo bereko Urkimendi (Urkamendi) baserrikoa. Lautik zazpi urtera bitartean Arrasateko ospitalean zegoen eskolaurrean ikasi zuen. Gero udaletxean zegoen eskolara pasatu zen. 1936. urtean, aitak Aretxabaletan “Cerrajera del Valle de Leniz” sortu zuen, eta familiarekin bertara joan zen bizitzera. Berehala gerra hasi zen, eta hilabete batzuez gurasoen jaiotetxeetara joan behar izan zuten babes bila. Arrasaten ezagutu zuen auzotasun goxoa azaltzen du, eta baita Aretxabaletan bizitako gerraren miseriak ere. Juli Elorzarekin ezkondu eta alaba bi izan zituzten. Ezkondu zen arte aitarekin jardun zuen lanean, baina gero bere tailerra sortu zuen, “Santi Bengoa S. L.”, eta azkoinak (tuerka) egiten zituzten. Gerraosteko industriaren garapenari buruzko hainbat azalpen ematen ditu. Santirekin batera bere bi alabak egon ziren elkarrizketan.

Karmelo Bengoa Ortega (1929-2018)

Balmasedako txapel lantegiaren ondoko bere amaren jaiotetxean jaio zen Karmelo ere. Aita Aretxabaletako Larriño auzoko Urzabal baserrikoa zen, eta Bilbora erdara ikastera joan zenean ezagutu zuen ama. Aitak Bilbon igeltsero ere ikasi zuen, eta familiarekin batera Bergarara etorri zen eta bertako pilotalekua eraikitzen jardun zuen. Handik Aretxabaletara itzuli ziren, eta bertan eskolatu zen Karmelo, Portasolen bizi zirela. Gerratik ihesi Bilbora joan ziren. Hemen aita Burdinazko Gerrikoa eraikitzen parte hartu zuen. Bilboko bonbardaketaren oroimenak azaltzen ditu. Karmelo, beste 4000 inguru umerekin batera, Ingalaterrara bidali zuten gerratik babes bila “La Habana” izeneko itsasontzian. Bidaian eta gero Ingalaterran urte betez gertatutakoak azaltzen ditu. Aretxabaletan Zubia lantegian eta tarteka morroi, (baita Bergaran ere), egin zuen lan. Agustina San Migelekin ezkondu zen. Lau seme-alaba dituzte.

Leandra Elizburu Bilbao (1923)

Galartza auzoko Etxezuri baserrian jaio zen 1923an. Gurasoak biak zituen Aretxabaletakoak, baina aitaren aldeko aitita Soraluzetik etorria zen. Eskolan urtebetez bakarrik ibili zen, oso gustukoa zuen arren. Gerra garaian ama eta biak Aramaioko Untzilla auzoan egon ziren, izebaren etxean; aita eta anaia, berriz, Zuatzubizkar baserri inguruan morroi. Ondo gogoan ditu orduko bizipenak. Eibarrera ezkondu zen eta ezkonduz geroztik Eibarren bizi izan da beti.

Jose Luis Eraña

Josefa Errasti Bolinaga *Joxepa Burgalesena*
(1911-2015)

<body><p>Eskoriatzako Zarimutz auzoko Altamira baserrian jaio zen, zazpi anai-arrebatatik laugarrena. Aita Goroeta auzoko Aretxu baserrikoa (gaur desagertuta) zen, eta ama, berriz, hospiziokoa. Eskoriatzako Zarimutz auzoko Altamira baserrira ezkondu ziren. Zarimutzeko eskolan ikasi zuen, euskaraz, hamar urterekin hasi eta hamabostera arte. Eskolok bukatu eta Bergarako abadetxera joan zen neskame bi urterako. Gero, beste hiru urtez, uda partean Donostiako Hotel Floridan (Hotel España izena ere izan zuena) jardun zuen lanean. Aretxabaletako Bixente Arzerekin ezkondu zen eta hiru ume izan zituzten. Senarraren aita hamar urterekin Burgosko Ontomin herritik etorritakoa zen eta Burgalesena taberna-jatetxea ireki zuen. Umeak hazi eta gero, Josefak hartu zuen Burgalesenaren ardura, eta inguruko herrietatik etortzen zen jendea Josefaren sukalde bikaina dastatzera.

Kepa Errasti Gorroño (1981)

Ama Aretxabaletakoa dauka eta aita Eskoriatzakoa. Guraso biak lanean zebiltzanez, amonaren etxean denbora asko igarotzen zuen Kepak umetan. Kurtzebarri ikastetxean ikasi zuen, eta hantxe hartu zuen parte lehenengo antzezlanetan, 12 urte ingururekin. Gaztetxotatik zeukan antzezteko griña, eta 14rekin antzerki tailer batean hartu zuen parte, Arrasaten. Kazetaritza ikasi zuen Leioan, eta ondoren antzerkigintza Donostian, TAEn. Goenkalen hasi zen lanean, lehenengo aktore moduan eta gero gidoilari. TAEko irakasle ere izan da hainbat urtean. Antzerkian jardun du batez ere. 2015ean Xake Produkzioak sortu zuten Xabier Ormazabalek eta biek, eta hainbat lan taularatu dituzte. Telebistan ere ibili da, besteak beste "Barre librea" saioan. "Erlauntza" antzezlanaren (gero film ere bihurtua) gidoilaria da.

Tomasa Erromaratezabala Faido (1917)

Ume-umea zela Apotza-Etxebarritik Leizabal baserrira joandakoa, gerora bertan bizi izan da. Elkarrizketa egin zitzaionean, 85 urte zituen.

Bixente Etxeandia Arregi (1931)

Aretxabaletako Durana kalean jaio zen 1931n. Aita ere aretxabaletarra zen; ama, berriz, Arrasatetik neskame etorritakoa. Bost anai-arreba ziren. 15 urtera arte Aretxabaletako eskola nazionaletan ikasi zuen eta geroago Deustuko Salesiarren Eskola Profesionalean ibili zen lau urtez. Eskola utzi eta futbola hartu zuen ogibide. UDA taldearekin jokatu zuen hiru denboralditan; handik Alavesera lehenengo mailara igo eta 7 urte egin zituen bertan. Gerora Granada, Huelva, Sestao, Mirandes eta Vitoria taldeetan jokatu zuen. UDA taldeko entrenatzaile gisa ere aritu zen lau urtez. Futbola utzi zuenean sarraila-lantegi bat jarri zuen, baina 15 urte geroago itxi egin zuten. Aretxabaletako Eskola Profesionaleko gimnasiako irakaslea izan zen beste 15 urtez, erretiratu arte. Bere emazte Rosario Garziaetxaberekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Maria Etxeberria Ugalde (1919-2010)

Isurieta auzoko Aurrekoa baserrian jaio zen. Aita bertakoa zen, eta ama berriz auzo bereko Ametzaga baserrikoa. Aretxabaletako eskola publikoan ikasi zuen. Maistrarekin euskaraz berba egiten zuten, baina ikasketak erdaraz jaso zituen. Hamalau urterekin kalera joan zen neskame, parrokia aurreko Santixena gozotegi-dendara (gaur galduta). Hemen zegoela, elizako garbiketak eta apainketak ere egunero egiten zituen. Handik Gasteizera joan zen neskame, eta handik Venezuelako Caracasera, euskaldun batzuen etxera, neskame beti ere. Hamabi urte Caracasen eman eta gero, Aretxabaletara itzuli zen, bertan etxe bat erosi zuen eta apopiloak izan zituen urteetan.

Pilar Etxeberriarteu Agiriano (1937)

Aretxabaletako Azatza (Aozaratza) auzoko Otalora Azpi baserrian jaio zen. Sei anai-arrebatatik zaharrena zen bera. Aita etxekoa eta ama Eskoriatzako Bolibar auzoko Otzaibe baserrikoa zen. Auzoko eskolan hasi zen bost urterekin. Bederatzi zituela ama hil zitzaion, eta bi urtez egon zen eskolara joan gabe. Aretxabaletako Portasolen josten ikasi zuen. Donostiako “Clínica Mercedes”en egin zuen lan urte eta erdiz, garbitzen eta gaixoei laguntzen. Handik herrira itzuli zenean, ezkondu egin zen. Eskoriatzako Mendiola auzoko Atxurdin baserrira ezkondu zen, etxeko Juan Arenazarekin. Bost seme-alaba izan zituzten.

Paulo Ezpeleta (1923)

"Taberna berrikoak" deitzen zieten, taberna eta harategia zituzten eta. 4 anaiek mutikotatik lagundu behar izaten zuten bai tabernan eta bai harategian. Jesuita ikasketak egitera joatekotan egon zen, baina azkenean beldurtu eta etxean geratu zen. Hala ere, mutikotako denbora elizari lotuta pasa zuen, lehenbizi meza-mutil lanetan ibili baitzen gerrara arte, eta geroago, "presidente de los tarsicios" beste hiru urtean. 14 urterekin Arrasaten hasi zen lanean "Unión Cerrajeran", baina aitak eta aitonak zerra jarri zutenean bera ere hara joan zen. Pilota txapelketetan ibilia da eta kanpoan ere asko jokatu zuen (Errioxa, Salamanca, Valladolid...). Ehizarako zaletasuna ere mutikotatik izan du.

Catalina Gabilondo (1915)

Aretxabaletako Azatza auzoan jaioa

Maria Gallastegi Lamarain (1926)

Angiozarko Goimendi auzoko Gontzarribekoa baserrian jaio zen, Angiozar Elgetan zegoen garaian. Bera jaio eta gutxira, Angiozarrek Elgeta utzi eta Bergarako udalerrian sartu zen. Hamar anai-arrebatatik bederatzigarrena izan zen. Zazpi urtetik gerra hasi zen arte, Angiozarko eskolan ibili zen. Gerran etxeko emakumeak Arrasatera joan ziren, eta gizonek Bergarara ihes egin zuten geroago. Gontzarrira itzuli zirenean, etxea teilaturik gabe aurkitu zuten. Gerraoste gogorra bizi izan zuten etxea berreraikitzen. Baserriko lanak eta bizimodua oso ongi ezagutzen ditu. Hiztun ona da eta etnografia gaiez azalpen zehatzak ematen ditu. Aretxabaletako Areantza auzoko Etxeberri baserrira ezkondu zen, bertako Patxi Abasolorekin. Zortzi seme-alaba izan zituzten.

Itziar Garate

Polonia Garziaetxabe Ugarte (1925)

Durana kalean jaio zen, zortzi anai-arrebatatik zaharrena. Aita "Barrenderokua"koa zen, kantari ezaguna. Ama berriz Legutiotik Aretxabaletara neskame etorritakoa. Bost urtetik hamalau arte Aretxabaletan eskolatu zen. Eskola bukatu eta Elkoro lantegian hasi zen lanean, giltzagintzan. Lan hori utzi eta neskame joan zen Eibarrera, Unzuetarren etxera. Eibartik Donostiara joan zen neskame. Familiak Aretxabaletako “Centro Católico”ren taberna-jatetxearen ardura hartu zuenean, Poloni etxera itzuli eta Mendikurtza lantegian hasi zen lanean, bertan egiten zituzten komun-estalkiak bernizatzen. Aretxabaletako Joakin Lizarralderekin ezkondu eta hiru ume izan zituzten. Umeak izan eta gero, herrian Eroskik jarri zuen dendako frutategian ekin zion lanean. Bertan jardun zuen jubilatu zen arte.

Rosario Garziaetxabe Ugarte (1931)

Aretxabaletan jaioa 1931n. Aita "Barrenderokua"koa zen, kantari ezaguna; ama, berriz, Legutiotik Aretxabaletara neskame etorritakoa. Zortzi anai-arreba ziren. 14 urtera arte Aretxabaletako eskola nazionalean ikasi zuen. Bere familiak "Centro Católicoren" ardura hartu zuen eta bertan egin zuen lan Rosariok tabernari modura 11 urtean. Bixente "Etxeandia" futbolariarekin ezkondu zen eta zazpi seme-alaba izan zituzten. Senarrarekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Mari Karmen Gastiasoro Arenaza (1932)

Boliñaga baserrian jaio zen. Sei anai-arrebatatik bigarrena izan zen. Aita etxekoa eta ama Arientza (Areantza) auzoko Txikinakua baserrikoa zen. Etxeko umeak zaindu behar izaten zuen, eta eskolara lau urtez bakarrik joan zen. Gero Aretxabaletan goizez josten, eta arratsaldez Bergaran sukaldaritza ikasi zuen, Lasa jatetxean. 26 urterekin Ulgor kooperatibako sukaldean hasi zen lanean, eta denborarekin bertako arduraduna bilakatu zen. Ulgorretik jubilatu zen.

Benito Gaztañaga (1926-2005)

Gaztetan okatzarekin lan egindakoa, ikatza banatzen. 9 anai-arrebatatik bera zen nagusiena. Gero fabrikan ere lan egin zuen.

Daniel Gaztañaga Heriz (1915-2010)

Aretxabaletako Izurieta ("Uzitte") elizateko Ametzagoikoa baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama Galartza elizateko Azkotixa baserrikoa. Elkarrizketa egin zitzaionean, 87 urte zituen. Baserritarra, Zerrajeran eta Fagorren lan egindakoa. Gerran ibili zen eta bi hatz moztu zizkioten Nafarroan gerran zebilela. Patxi Gaztañagaren anaia.

Patxi Gaztañaga Heriz (1924)

Aretxabaletako Izurieta ("Uzitte") elizateko Ametzagoikoa baserrian jaioa, baina gerora Ametzabekora bizi izatera joandakoa. Aita bertakoa zuen eta ama Galartza elizateko Azkotixa baserrikoa. Elkarrizketa egin zitzaionean, 78 urte zituen. Daniel Gaztañagaren anaia.

Purificacion Gaztañaga Iriarte

Galartza auzoko Askotixa baserrikoa.

Jasone Gorroño Aldai (1954)

Esteban Gorroño Arregi (1920-2004)

Aretxabaletan jaioa, Otalora kaleko 8an. Bere ama, Rita Arregi, Arrasateko Musakola auzoko Altzibar baserritik Aretxabaletara etorritakoa zen eta aita, Lorenzo Gorroño, Bizkaiko Berriotik. Aretxabaletako herriko eskolan ibili zen (orduko eskola nazionalean). Gerra zela eta, 18 urte bete aurretik soldadutzara eraman zuten, eta zazpi urtean soldadu egon zen. Geroztik saltsa askotako perrexila izan zen.

ARE-044 Hizlari ezezaguna

ARE-073 Hizlari ezezaguna

Pedro Kortabarria Okaranza (1917-2002)

Josu Lasagabaster Altube (1980)

Jesusa Lasagabaster Billar (1926)

Aozaratza auzoko Artabe baserrian jaio zen 1926an. Aita bertakoa zen eta ama Mazmela auzoko Etxenagusi baserrikoa. 11 anai-arreba ziren. Aozaratzako auzo-eskolan ikasi zuen 14 urtera arte eta gero hilabete batzuk egin zituen Eskoriatzako mojetan. Aretxabaletako dentista-kontsulta batean egin zuen lan urtebetez. Geroago, Aretxabaletako Lasagabaster dendan ibili zen Argentinara joan zen arte. 11 urte egin zituen Buenos Airesen adineko pertsonak zaintzen. Handik itzultzean, Arrasateko Lasagabaster dendan egin zuen lan jubilatu arte.

Joakin Lizarralde (1923-2009)

Eulali Madinabeitia (1924-2008)

Apotzaga elizatean jaiotakoa, ezkondu eta Aozaratza auzoko Zelaikua baserrira joan zen bizitzera. Elkarrizketan Juanito Arenaza ere agertzen da.

Maxima Madinabeitia Elorza (1930)

Mendiola auzoko Aria (Areao) baserrian jaio zen. Hamabi anai-arrebatatik bosgarrena izan zen bera. Aita etxekoa eta ama Oñatiko Araotz auzoko Agerre baserrikoa zen. Osaba abadea eta izeba bere amakasaren etxera joan zen Elgetara eskola denboran. Bertan bizpahiru urte ikasi eta gero, senideekin Urretxura joan zen beste bi-hiru urtetarako. Etxera itzuli eta azken eskola urtea Eskoriatzan eman zuen mojekin. Aretxabaletan josten ikasi zuen, eta beste urtebetez Oñatiko Milagrosa mojekin brodatzen ikasi zuen. Arrasaten sukaldaritza ikasi zuen, Oduli sukaldariarekin. Boliñaga baserrira ezkondu zen, etxeko Jose Mari Gastiazororekin.

Joxe Mari Makazaga Agirregabiria (1916-2014)

Arkarazo auzoko Aurrekua (Joanatxokoa Aurrekoa) baserrian jaio zen, zazpi anai-arrebatatik gazteena. Aita bertakoa zen, eta ama berriz Eskoriatzako Marulanda auzoko Ingelesena baserrikoa. Kaleko maristen eskolan ikasi zuen sei urtetik hamabira arte. Eskolak bukatu eta Mendiola auzoko Bolinaga Garaikoan hiru urtez morroi egon eta gero, Bergarara ezkondutako arreba baten etxera joan zen morroi, San Juan auzoko Aibar baserrira. Bertan ortu-landareak hazten zituzten azoketan saltzeko. Gerra hasi zenean soldaduska egokitu zitzaion, eta nazionalekin batera borrokatu behar izan zuen Espainian zehar. Aretxabaletatik Gijoneraino oinez joan omen ziren, Elorriotik eta Gernikatik pasatuz, gorrien atzetik. Gerraostean Beroa lantegian hasi zen lanean, sukalderako ontzigintzan. Eskoriatzako Mendiola auzoko Arretxena baserriko Karmen Arriolarekin ezkondu zen. Seme-alaba bi izan zituzten. Joxe Mariren alaba ere egon zen elkarrizketan.

Jeronimo Olaziregi Lasa (1927-2002)

Errenterian jaio zen 1926ko uztailaren 22an. 14 urte zituela etorri zen Aretxabaletara, Oro auzoko Iturralde baserrira. 18 urte bete zituen arte baserriko lanetan aritu zen. Horren ondoren lantegian hasi zen. Jeronimoren zaletasunik handiena mendia zen, sarri joaten zen "Degurixara" ehizara, nahiz perretxiko bila. Grabazio honetan sagardoa egiteko prozesuari buruzko azalpenak ematen ditu.

Miguel San Juan Garai (1924-2003)

Anizeta Uribeetxebarria Isasisasmendi (1915)

Urkuluko errotan jaio zen 1915. urtean, beste hainbat etxerekin batera urpean gelditu zena. Gurasoak Goroetakoak zituen. Zazpi neba-arrebatatik laugarrena izan zen, lehen alaba; ondorioz, laster hartu behar izan zuen etxeko martxa. Hamar urterekin utzi zuen abadea maisutzat zuen eskola, eta 13 urterekin Aretxabaleta bertako kale bateko etxera joan zen umezain. Oso ondo gogoratzen ditu Gerra Zibileko kontuak, neba bat bertan galdu baitzuen. Jostun eta sukaldari trebea, 27 urtez Almen kolegioan eta bederatzi urtez Etxabe tabernan sukaldari aritua.

Mireia Uribetxebarria

Antonio Urkia Ugarte

Aretxabaletako Goroeta auzoko Ugaztegi auzunekoa.

Juan Urreta Zubia (1924)

1924an jaio zen Durana kalean. Aita Marulandakoa zen eta ama Aramaion jaiotakoa.

Miren Gaztelu Urreta Zubia (1932)

Aretxabaletan jaio zen 1932an. Aita Marulanda auzokoa zenez, Leintz Gatzagako amabirjinaren izena jarri zion euskaratuta: Miren Gaztelu. Ama aramaioarra zen. Gerra garaian 3-4 hilabete egin zituzten Goroeta auzoko baserri batean beste familia batzuekin batera. Bere izenaren gaineko gorabeherak eta beste hainbat kontu azaltzen ditu.

Pedro Urteaga Arregi (1931-2010)

Koruetako (Goroeta auzoa) Mendikurutze baserrian jaio zen 1931n. Birraitona Gabiriatik ezkondu zen Mendikurutzera. Pedroren aita bertakoa zen eta ama Araotzeko Enparantzakoa baserrikoa. 10 anai-arreba ziren. Koruetako auzo-eskolan hasi zen eskolan, don Jenaro Unda eta don Bonifacio Arenaza apaizak irakasle zituela. Gero Aozaratzakora pasatu zen, eta han don Fermin Olas izan zuen maisu. Eskoriatzako maristetan eta Aretxabaletako nazionaletan bukatu zituen eskolak 14 urterekin. Urkuluko urtegiak urperatu zuen baserrietako bat izan zen Pedrorena. Orduan gorago eraiki zuten Mendikurutze berria. 27 urte zituela etorri zen kalera bizitzera eta jubilatu arte Zerrajeran egin zuen lan. Koruetako Errotazar baserriko Albiñarekin ezkondu zen.

Pilar Urteaga Arregi

Jabier Zaloña

Duni Zuazabeitia Herrasti (1919-2007)

Eibarren jaiotakoa 1919an. Aita Aretxabaletakoa eta ama Marin auzokoa zituen. Aretxabaletan Andra Mari kooperatiban jardun eta gero, Eroskiko bazkide langilea izan zen, kooperatiba horretako lehenengo erretiratua.

Miren Zuazabeitia Herrasti (1930-2018)

Gasteizen jaiotakoa, 1930ean. Aita Aretxabaletakoa eta ama Marin auzokoa zituen. 14 urterekin eskola amaitu eta lanean hasi zen Aretxabaletako lantegi batean. Handik urte batzuetara, kooperatiban sartu zen.

Antonio Zuazua Urrutia (1928-2019)

Galartza elizateko Egileor baserrian jaioa eta bertan bizi izandakoa. Aita bertakoa zuen eta ama Eskoriatzako Iturbe baserrikoa (Gellao elizatea). Baserrian eta Aretxabaletako lantegietan lan egin zuen: Elkoron, Tubo fabrikan eta Coprecin. Elkarrizketa egin zitzaionean, 74 urte zituen.

Timoteo Zuazua Urrutia (1922-2007)

Galartza elizateko Egileor baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama Eskoriatzako Iturbe baserrikoa (Gellao elizatea). Baserria kaletik gertu zuten, hortaz baserriko lanez gain, kaleko bizimodua eta kaletarrak ongi ezagutzen zituen.

Antonio Zubizarreta Berraondo (1921)

Izurieta auzoko Olabena baserrian jaio zen 1921ean. Euren etxea eliza ondoan zegoen eta beraiek egiten zuten sakristau lana. Auzoan bertan ibili zen eskolan, baina oinarri-oinarrizko gauzak besterik ez zituen ikasi. Soldadutza Afrikan egin zuen. Harrobian lan egina da, baita peoi lanetan ere. 34 urte ingururekin Aramaioko Untzila auzoko Palazio baserrira ezkondu zen eta bertan bizi da ordutik.

Xabier Zubizarreta Lasagabaster *Txiron* (1944)

Aretxabaletako Durana kalean jaio zen 1944an. Aitak, Izurieta auzoko Olabenekoa, harrobi bat ustiatu zuen urteetan; ama, berriz, Aozaratza auzoko Artabe baserrikoa zen. Xabier 3 urtetik 8ra bitartean Artabe baserrian bizi izan zen. Auzoko eskolan ikasi zuen kalera etorri zen arte. Eskoriatzako maristetan urtebete, Donostiako "Misioneras del Sagrado Corazóneko" mojekin beste urtebete, lau urte Eskoriatzako marianistekin eta Logroñokoekin beste urtebete ikasi zuen. Elorrion nobiziatua egiten hasi eta urtebeterako botoak hartu zituen. Handik Zaragozara joan zen eta han erabaki zuen fraidegaitza etetea. Gero Arrasaten ezkondu zen, Intxausti baserriko alaba batekin. Bi seme-alaba dituzte. Arrasateko alkate izana da urte askoan.

Patxi Zubizarreta Okina (1926)

Mendiola auzoko Bolinaga Azpikoa baserrian jaio zen, zazpi anai-arrebatatik gazteena. Aita bertakoa zen eta ama Areantza auzoko Garaikoa baserrikoa. Aretxabaletako maristetan ikasi zuen zazpitik hamabi urtera bitartean. Gerran, Somorrostroko frontean anaia bat hil zitzaion. Berak hamalau urte zituela baserria oñatiar batzuei saldu eta kalera joan ziren bizitzera. Anaia batek kalean jarritako “Cerrajera Illargui” lantegian jardun zuen lanean. Patxiren iloba bat egon zen elkarrizketan.

Mila Zubizarreta Unanue (1948)

Aitor Zubizarreta Zubia (1979)

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Lihoak (linuak) ehun lan

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/001
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:43
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Lihoaren lanak. Lihoari azala trangan kentzen zitzaion.

Transkripzioa
- ...hona, ta hortik horra. Ta hamen be bai, hola. Ta hamen zuluetatik sartzen jakon ziri bat. Ta gero [...], ez dakitzu? Hor liñua [...], hemen liñua ifintzen zan ta dana, azal dana, kendu eitten eutsen. Bai, horixe da trangioi.
- Gordeta eukotzun hori, e?
- Hau Patxik emun osten. Horrek [hirurek] euken ta hau atzenengo [pasadakua] da. Ta horrek beste bi dauko. Bai. Lehenengokua, bigarrena ta hirugarrena. Hau hirugarrena da. Honek ya fin isten euen.

1.2. Ehunezko arropak

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/003
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:03:01. **Bukatu**: 00:04:24
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Ehunezko arropa. "Txarrantxa"; "kirrue"; "amelue".

Transkripzioa
- [...] be bai, ta zerak be bai. Ta esnie ekarten euen. Lehen be esan dot, esnie ekarten eben harek. Ta haik txarrantxakin etorten zien, ta [...], ta hari apartaten eutsenak kirrue eitten euen, kopetie eitten euen.
- Kopetak, kopetak, kopetak.
- Ta hari apartaten eutsena zan amelue; ha zan bastotxuaue kirrue baiño.
- Bai, hor e.. Klasifikazi... klasifika... Bai. Ta gero, harekin [ipurdi harek] bastuekin harekin frakak eta horreik [...]. Frakak lehenengotan...
- Gogorrak?
- Gogorrak eta busti ezkero, barrez... Nik entzunde deuket...
- Ze ein ezkero?
- Busti ezkero, jo-ta [...] moduen.
- A, bai, e?
- Nik entzunde deuket Kurtzebarrin zaparradiek harrapau, ta frakak, ehunezko fraka barrixek, jo-ta... Klaro, [pintxuek-eta...] gaiñera, zerak. Han [harra] moduen eukitzen zittuen haik, ta han [harra] moduen, ez dakitzu? Ta gogortutakuen horrek dana urretu biher, ta frakak kendu ta harrixekin kargau ta tarrasien frakak bigunketan. [...]. Entzunda dauket nik hori. Bai. Gero [zahartu ha] ta bigundu.
- Ibilixan...
- [Harek] garbittu ta [ibili] ta zera ta. Izerak be, izerak be lehenengotan, ba...
- Joe, gogorrak izeten zien lehelengotan, barrittan. Enee...!
- Gogorrak!
- Ibilixen ta ibilixen puruen, ez dakitzu?

1.3. Jatekoa baserrian

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/011
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:16:42. **Bukatu**: 00:17:44
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Jatekoa baserrian. Astegunetan, baba gorriak eta urdaia. Igandetan, salda egiten zen okela eta garbantzuekin. Egun berezietan, oilaskoa. Jai egunetan (Kontsezio egunean) oiloa.

Transkripzioa
- Eta orduen baserrixen-ta bazkaldu-ta ze eitten zauien? Ze jaten zauien holan etxian?
- Euena. Babak eta ba...
- Jeneralien baba-gorrixe; baba-gorrixe ta urdaixe jeneralien. Domeketan

garbantzue eta okela apur bat ekartzen zan saldie eitteko, garbantzuen nahasi. Oillaskue-ta noizbaitten. Oillaskue-ta bodan-ta orduen... joe... bodie auenien oillaskue. Joe, inportantie!
- Bai, bai, oillaskue. Ta oillue kontzesiño egunien-ta oillue egositta ta. Baiña oilluek onak izeten zien oingo kaleko oillaskuek baiño [horrek], e!
- Bai, kanpuen ibiltten zien ta.
- Onbre! Onak, e! Ta oillue holako... kontzesiño eguna ta holako jai haundixetan ta holako zerak. Bueno...!
- Eta arrautzaik-eta?
- Arrautzak saldu ein biher! Dirue... Orduen arrautzie karu saltzen... karue izeten zan!
- Ta niri arrautzie gustaten jaten asko. Ta ni oillo-zalie beti izen naz! Bueno! Umetatik. Oilluei jarraittu nik? Ez dakit noraiño!
- Eske oilluek lehenao hamen kanpuen ibiltten zien.

1.4. Oiloak; arrautzak

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/012
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:17:44. **Bukatu**: 00:19:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Arrautzak oso gutxitan jaten zituzten. Oiloak kanpoan hazten zituzten.

Transkripzioa
- Ta oillo batek kanpuen arrautzak eitten otsen. Ta Rufina orduaintxe ezkondu-barri, ta ni Mondrauen [Artzamendixenien] nabillen lanien. Ta etorri nitzen, ta oillo-zaiñien ei euen zer guztie.
- Goiz guztie.
- Bazkalostien jare ein ta, zeroi, bazkalosterarte euki otzarapien oilluoi.
- Bai. Ta gero aguro fan [zaitten] bere afixara, ez dakitzu? Hor, kanpuen afixie, kanpuen arrautzak eindde, ta ez zakixien nun euken. Eta, orduen, han preso euki ta gero ha aguro fan zan ta gero atzetik ha...
- Ta gatza sartzen otsien, gatz apur bat sartu ipurdixen.
- Ta hak inddargurie emuten dotsola.
- Eta holaxe topau arrautzak?
- Ez. Ta oilluek eurek zainketan zittuen. Eurek oillo-zain ta oilluek be euren zain. Ta kantsau zienien etorri zien etxea.
- Bai.
- Ta niri arrautza prijidue-ta gustaten jaten orduen... Enee! Rufina hamen euen, ezkonbarri zan ta [hamen] egunen batzuk pasetan etorritta euen. Amak esan eusten: "Hor ibili gaittuk arrautzak topetan oillo-zain, ta ez dutseu topau. Topetan badok, arrautza bat emungo dostat prijidute". "Joño! Banoia". Hortxe auken bat. Hor hortikaldien, kamarien gaiñien bedarra egoten zan, bedar iharra.
- Bedar iharra kamaran.
- Bedar iharra. "Horrek hortxe jaukek, ba, horrek". Faten naz, "di-da!" atioi

zabalketan dot eta hamabost arrautza. Ha batek... batek indda ez euezen haik; batek baiño gehixaok indda euezen haik. Hamabost arrautza. Hartu arrautzok eta [...]. Rufina: "Ja, ja, ja, ja -- haren barriek!-- Ifini arrautzie oin prijidute". Bai, ni oillo-zain oso zera...

1.5. Gaztaina-zuriketa

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/013
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:19:40. **Bukatu**: 00:21:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Gaztainak. Domu Santu Egunera arte, egosiak jaten zituzten. Hortik aurrera, erreta. Gaztaina-zuritzea, lan nekeza. Gaztainak koskol eta guzti gordetzen ziren. Urtean behin eragin egiten ziren, lizundu ez zitezen. Gaztainak eta berakatz-salda.

Transkripzioa
- Eta gaztaiña-denporan gaztaiñak be jango zittuen, ez?
- Pu! Gaztaiñak?
- Gaztaiñak?
- Asko?
- Gaztaiñak Domu Santuek artien egositte, ta handik gero erreta [gaztan-berdie].
- Domu Santuek allegetako desietan gaztaiñak ez zuriketaarren; bestela haik gaztaiñak hagiñekin zuriketan gittuen.
- Hagiñekin zuriketan gittuen, ta hak ahuen zera...
- Latza...
- Latza izeten zan. Ta [...], ba, mordue zurittu bihar. Ta mutikuek-eta, ba, gaztaiña-zuriketan; [...] gabien afaittarako-ta holakotxe lanak. Ta ahue dana zertute. Joe, gaztaiñie...! Ta, gaiñera, gaztaiñie zenbat eta sikuau ta gatxau zuriketako. Freskue lehelengotan, ba, samurrao, ta "da!", baiñe gero apur bat siket...
- Bueno, gero, gerora be egoten zien gaztaiñie ha koskolien ekarten zana...
- Ha [holan] hor eukitta [...]...
- Barrura sartzen zan.
- Barrun sartzen auen. Ta, hola, holakotxe maillie egoten zan.
- Zera, holakotxie.
- Koskol ta guzti?
- Koskol ta guzti, klaro!
- Koskolak konserbau eitten zittuen.
- Freskurie, bestela gaztaiñie segiduen siketen da.
- Ta urtien behin-edo buelta be emuten otsien, e!
- A! Bai, zertu deixen... Lizundu ez dain edo.
- Lizundu ez dain edo.
- Bai. Eta, klaro, egunien biher zauena, egunien biher zauena, ba, [han eskuariaz] fan ta "da-da-da!", [eskuariaz] jo ta alia atara, ta egunien biher zauena hartzen zauen, ta gero gaztaiña-koskola [horra, larriñea]. Hor,

larrien hor egoten zien gero sahatsa eitteko edo [kortako...] esaten jakona-ta eitteko ta... Horra atara koskola. Ta egunien biher zan gaztaiñie apartau koskoletik eta... Ta Domu Santurarte egositte ta gero erreta jo-ta tiro baten!
- Gaiñien berakatz zera, berakatz-saldie.
- Berakatz-saldie.
- Esnie saldu eitten zan ta!
- Onbre! Esnie ta arrautzak saldu!
- Klaro...
- Ta mutikuek, mehiek mutikuek!

1.6. Sagarrak saltzera kalera

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/014
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:21:32. **Bukatu**: 00:22:26
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Sagarrak. Sagar-arbolak mentatu egiten zituzten. Kalera saltzera.

Transkripzioa
- Bai, bai, bai, eta sagarrak be eukiko zittuen etxien, ez?
- Orduen gutxi.
- Gutxi?
- Gero amak, amak...
- Amak ipini zittuen asko. Aittejaune amorratue zan sagarrak jaten, e! Ta frutie jaten. Ta berak sekula afeziñoik be ez ipintteko. Baiña amak, ama ezkondu zanian, amak, Juane euken aittek izena ta: "Juane, hauxe, horixe sagarroi mentau bihar dou". Sartzen zittuen ta aittei mentau ereitten otsen ta gero bai, gero sagar asko. Gero Santa Agedara-ta eruten zittuen honek; astokadak eruten zittuen.
- Bai, han beheko... han zera... honen... hemen barrenetik? Ba! Sagarrak? Sasoie bai! Haik... orduntxe inddarrien ta pof! Sagarrak? Astokadak eruten gittuen!
- Bai, Santa Agedako mojetara. Ba, esnie eruten geuen hara ta esniekin [...] mojak...
- Han saltzeko?
- Dana hartzen euen mojak. Hor, gerra-ostetxuen, gerra-ostetxuen ta...

1.7. Arropa garbitzearen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/015

- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:22:26. **Bukatu**: 00:24:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Euskara » Lexikoa
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Arropa garbitzearen inguruko azalpenak. Tina batean arropa sartu, sutako-hautsa bota eta irakiten zegoen ura bertara botatzen zen. "Lixi-potue", harrizkoa izaten zen. Arropa garbitutakoan, iturrira joan behar izaten ziren "pujetie" egitera. Alberga handi batean, baserri bakoitzak bere harria izaten zuen arropa jotzeko.

Transkripzioa
- [...] garbittu... gero pujetia-ta eitten zan. [Ta beti, badakizu zer dan]...
- Tinan, tinan, tinan sartuta.
- Tiñan sartu ta gaiñien...
- Izera bat bota.
- ... izera bat bota ta haren gaiñien gero zera...
- Suteko hautse.
- ... suteko hautse. Ta suteko hautsek lejie edo ez dakit zer eukitten euen. Itxuria, harek, hak... ha gero botaten jakon, sutako hautsa bota ta beti be...
- Ur irekiñe...
- ... ur irekiña gaiñera bota. Ta hak tiniek behien txorrue eukitten euen, ta hara pasau ta apurke-apurke ha erropa dana pasetan lejie edo suteko hautsen zerakin. [Harek] suteko hautsek lejie-edo dauke itxurie. Ta hola eitten euen. Ta gero, ba, harekin ez dakit zenbat denporan, egun erdi edo, ta ur irekiñe bota ta ur irekiñe bota ta ur irekiñe bota ta...
- Bai, ta zeretik atara... Handik...Lehen esan dotsuet...
- A! Lixi-potue!
- Lixi-potue, bai. Handik atara eitten euen ure...
- Ha ze zan? Ze zan?
- Lixi-potue zan holako... Tinatik botaten jakon ure...
- Lezie eitten zan.
- ... hara fan.
- Ha e... Ha goittik batzen jakon zera, ure, zan lezixe.
- Hola deiketan jakon?
- Lezixe deiketan jakon. Ta ha ure... ha tiñien txorruen han zerien egoten zan lexi-potue, harrizko holako...
- Harrizko potxolo bat indde, holaxe, holakotxe alturako zera.
- Ta hara jausten zan.
- Bai.
- Lezixe tiñatik jausten zana hara faten zan.
- Bai, lezixe. Ta lexi-potue deiketan jakon hari. Ta handik goittik batzen zan. Ta gero, ba, bueno, hango zeroi eitten jakonien, gero atara zerok, erropok eta izerok eta danok eta gero...
- Gero itturrire fan ta han pujetie eitten euen, han garbittu.
- Han pujetie. Garbittu jaboiekin ta zerakin ta...
- Hemen, han itturrixe handikaldien dao ta alberge haundixe dao, e! Ta bakotxak bere zerak, harrixek zerak joteko...
- Bakotxak bere...
- ...erropak joteko.
- [Hola doiez] zerak, harrixek, holan. Hiru zera, hiru beziño zela zien, ba, bakutxak [banko] bana: hor bat, hamen beste bat ta han beste bat. Hirurek be suertau ezkero batera, ez dakitzu? Bueno, aurretik bat euen bakarrik, aska bat. Harrizko aska bate euen bakarrik, e! Bai, ondion han dau...

1.8. Arrasatera esne-saltzen

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/016
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:24:45. **Bukatu**: 00:25:47
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Gerra aurretik Arrasatera joaten ziren esne-saltzen astoan.

Transkripzioa
- Gerra aurretik Mondraure eruten geuen esnie.
- Bai, Mondrauera.
- Bai. Honek be bai ta ni atzenengo neu ibili nitzen gerra-aurretik. Gerrie urten auenien neu nebillen.
- Astuen esnie eruten?
- Astuen.
- Astuen bai.
- Bai, astuen, gaiñera, ba... ba [ez zien] orduen oin beste, oingo beste, zera... Oin ehun litro ta berrehun litro ta; orduan, ba, lau behi edo [gura auena], eta orduen esne gutxiao emuten euen.
- Bai, ba, bataz beste astien, bataz beste, ba, hamasei bat litro etxe bakotxeko, inguru horixe ibiltzen zan. Hamasei, hogei...
- Etxe bakotxeko. Ta, klaro, etxekuek eta aldamenekuek eta bestienak, ba... Ta eruen ta erute alde zeozer bestiek pagetan [deutsu]. Ez dakit ze, gauza haundirik ez zan pagauko, baiñe. Ta gero, han bezeruek, bezerixek egoten zien. Ta han errepartidu ta... Ta horixe. Gero ez. Gero mojetara [...] han ez; [harekin] lek batera "braust!" hustu ta trote! Ha, bueno! Bihe... lan gutxiao.

1.9. Gosaltzeko zer jaten zuten

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/017
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:25:47. **Bukatu**: 00:26:38
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Gosaltzeko, berakatz-salda. Tomate sasoian, tomateari azala kendu eta zartaginean olio pixka batekin egiten zuten.

Transkripzioa
- Ta goixien armozetan ze jaten zauien armozetan?
- Berakatz-saldie.
- Berakatz-saldie armozetako be?
- Bai, onbre! Ta tomate denporan tomatie.
- A! tomatie indde.
- A! Tomatie? Zelan?
- Kazuelan indde.
- Kazuelan indde.
- Kazuelan indde?
- Amak holan... han orduen, [esan dotsut], txingarrak-eta, ez dakitzu?
- Bai...
- Han parrille [...], parrille. Ta bestie treberie izeten zan; beste bat, treberie. Hori be entzun barik daukotzu...
- Bai, entzun barik.

- Honek hiru hanka eukitten zittun, ta honek lau.
- Bai.
- Ta hamen gaiñien ifintten zittun amak tomatiek ta beroketan, klaro, honi azala dana soltau eitten jakon. Ta dana kentzen otsen, ta gero zartakiñian ifintten zittun olixo apur bateaz, ta bueno...! Ha gauza edarra!
- Ha gozue egongo zan...
- Onbre!
- [Hala be, beti be], arrautza bat bota ta nahasketan baeuen... bueno...!
- [Arrautza...]
- Bai, bai.

1.10. Arrautzak saltzera kalera

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/020
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:30:58. **Bukatu**: 00:31:28
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Baserritik kalera arrautzak saltzera.

Transkripzioa
- Bai, ba, batzuk ez zauen saltzen, ta arrautzak [eukitten] zittuen saltzen ez auenak. Baiñe, ba, guk... ja! txakur haundi bi hartzeko saldu ein bihar. Ta orduen arrautzie karu egoten zan, e! Karu, e! Dozenie, dozenie [...] bederatzi erriel, hiru pezeta ta...
- Errielka itten zan asko, e!
- Bai?
- Bai.
- Bai, karu! Arrautzie oso karu. Onbre! Oin, arrautzie ona bai, kanpuen ibiltzen zien beti oilluek eta.

1.11. Arto-zuriketa eta arrosarioa

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/021
- **Iraupena**: 0:44:04. **Hasi**: 00:31:28. **Bukatu**: 01:15:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Artoa
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena**: Arto-zuriketa. Arrosarioa errezatu eta kontu kontaketan. Aitak kontatzen zuen txiste bat gogora ekartzen du, erdara jakitearen inguruan. Hilean behin, 15 misterioko arrosarioa errezatu beharra.

Transkripzioa
- Kamaran ta... errosarixue-ta errezetan zauien?
- Hamen makiña bat arto zurittute gaz. Burdikadak, e! Gabe... Gabe bakotxien iguel bi burdi ta, e!
- Bai.
- Hori danon artien eitten zauien?
- Danon artien.
- Hemen etxien [geozen] danak, biheko! Gabez, gabez gaiñera!
- Gabeko lana...
- Gabeko lana. [...] ta erresarixue.
- Afal-aurretxuen edo afaldu ta gero?
- Afal-ostien.
- Afal-ostien?
- Zer afal-ostien?
- Afal-ostien arto-zuriketan?
- Arto-zuriketan.
- Afal-ostien? Afal-aurretik igual, afal-aurretik igual. Afal-ostien normalien. Ta afaixe be... [...] berakatza-saldie ta [gero sagar bana]. Ta...
- Ta aittek txiste batzuk esan ta...
- Ipuiñek aittek...
- A! Ipuiñek?
- Kontau eitten zittuen, e?
- Onbre! Asko [eukitten] euen hak!
- Bai, e?
- Asko, asko.
- Zeuek be jakingo dittuzue, orduen, ipuiñek-eta?
- Nik batzuk badakit harenak.
- Bai? Batzuk akordetan jatzue?
- Behin esan auen: <<Araozko bat... Araozko hiru mutiko fan zien Arabara erderaz ikesten. Ta fan zien erderaz ikesten, ta egon zien ta badatoz buelta eindde atzera Araotzera --Araotz [hor dao]. Ta "Hi, ze ikesi dok?" eta "Nosotros", "Nosotros? Ta hik?" eta "Por dinero", "Por dinero?", ta "Bai". "Ta hik?", eta "Usted tiene razón". Ta gizon bat topau dabe hillde mutikuok. Ta aiba! Badaoz mutikuok gizonai beire ta allegetan jakue Goardia Zibillek. Ta "¿Quién ha matado esto?", "Nosotros", "¿Por qué?" y "Por dinero", "Todos a la cárcel", "Usted tiene razón">>.
- Eurek ez akixen ze esaten auen...
- Horixe bakarrik jakingo auien ta...
- Jakin, baiñe...
- Ze esaten dauien ezebez.
- ... ez akixen. Bueno, hori, hori barritxuaue izengo da, baiñe gure aittek zaharrauek kontetan zituen, e! Harek e...
- Hori be harek kontetan euen, e!
- Bai?
- Bai, bai, harek kontauta dakit nik hori.
- Harek [...] txistiek...
- Asko kontetan zittuen harek.
- Edarto pasauko zuaien orduen arto-zuriketan... [Ipuiñek]-eta entzun ta...
- Arto-zuriketan, bai...
- Ba, ha be distraidutearren ibiltten zan ta!
- Bai. Ta otzarakadak zerak, iguel --kamarie goixen--, iguel hogei

otzarakada arto zurittu biher afal-ostien, e! Hogei otzarakada iguel, e!
- Kamarie holaxe beteta artoz, e!
- Sendatute kamarie.
- Bai, bai. Eta errosarixue-eta ez zauien errezetan?
- Erresarixue arto-zuriketan gabitzela amak.
- Bai? Amak?
- Eta erresarixue akabetako desietan gu [...], leporaiño eindda errosarixuakin ta... Ta, gaiñera, hillien behin hamabost misterixokue.
- A! Bai!
- [Ez jakixat] ze [izen izeten zan]... Hamabost. Jesus...!
- Ez dakit zertzuk...
- ... ha izeten zuan palizie! Gero [...] gaiñetik santueri, ez dakit ze santu ta ama birjiña ta [ostixa] guztiok... bueno...! Ha [hamabost misterixo], ha zan...
- Erregalue...
- Buo! Errosarixue ez auenien, ba, bueno, bata, bestie, aittek txistie ta hau ta bestie ta zarramarrien, ba, bueno...
- Artua zeiñek aguruau zurittu ta...
- Bai?
- Bai.
- Ta karrerie, arto-karrerie. Otzarak aurrekaldien ta... Baiñe [...] ta zera ta aittek aldamenien ta ta! Burdikada bat eta... Berak zurittu ta nik ta! Artuek kontau ta...

1.12. Errotak itxita

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/004
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:08:30. **Bukatu**: 00:11:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Errotak itxita, baina isilean lan egiten zuten. Astean behin egiten zen labeko-sua.

Transkripzioa
- Garixe eukiagatik errotak zerrauta edo ze izeten zan?
- Bai, errotak zerraute, baiñe jentiek eitten euen zelabait. Etxeko makinillakin edo zelabait baserrittarrak eitten euen. Hemen artue-ta zerraute ta hemendik [Aratzera] faten zan jentia [Aratzen] errotie, ta han artue jo eitten euen, ta gabez hara fan errotara.
- Orduan, errotak isilixan be lan eitten euen?
- Bai, bai, bai. Arantzazutik be, gerrie akabau ta gero, etorten zien garixekin udazkenien hona. Ta hona etorten zan, ba, Arrasateko zera, panaderuek zien, ta harek eruten zittun ta urune ekarten otsen. Zeretik, e! Arantzazutik eta [Urzolatik] eta etortzen zien. Artien han errotie zerraute. Holakotxe bihelekuek egoten zien.
- Orduan, bide-sailla errotara fateko be...
- Bai. Eta gero, ba, [... jentie].

- Zuek hemen errotara nora faten zitzien?
- Gu? [Boliñatera]. Baiña, ba, gero, denporie alleaten zanien, zerrau eitten auen. Ta aurrez arduria hartuta euki biher [...]. Horrek gerra-ostien, e! Baiña gerra-ostien be txarto egoten zan jentie.
- Baiña uruna einda be, ba, bueno, tarte bat... Esan gura dot...
- Uruna [luzaro eukitzeko ez da jare], baiña, behintzat, gordeta eukitzen zan paraje sikuen ta hiru-lau zakuatik eta... Holaxe.
- Aldiko zenbat eruten zan errotara?
- Errotara? Ba, noberak gure euena, errotie euenien. Bai. Euki ezkero... Baiña ha gastau eitten zan, ta...
- Ta, askotan, astian behin baiño gehixaotan fan bihar?
- Ez, ez, ez. Astian baserrixan eitten zan, ba, laba-sua aste baterako eitten zan. Zapatuen edo ein ta hurrengo zapatura arte edo [ixe]. Oingo moduen ogi biguna ez zan jaten, e! Baiña basarriko ogixe ondo egoten zan.
- Zenbat ogi lez?
- Dozena bat edo gehixao eitten zien ogixek. Ta kalien [batez]. Razionamentue emuten zan, ta artue lakotxe halakotxe bollotxo bana emoten [otsen] kalien. Dana arto [...] ta ogixe. Oso ogi txarra emoten otsen kalien. Gaiñera, holakotxe bat: bollo txiki-txikitxo bat, [bollotxo] bana.
- Orduan, kaleko jentie baserrittara etorriko zan eske, ala?
- Baserrittara eske etorten zan, baiña baserrixan be zenbat emuten [eben]? Baserrixan be nahikua lan etxerako!

1.13. Gerran bizitakoak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/005
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:11:30. **Bukatu**: 00:14:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Kaleko jendea baserrietara joaten zen jatekoa eskatzera. Garia neurtzeko ontziak. Etxearen errenta ere anegaka ordaintzen zen.

Transkripzioa
- Orduan, kaleko jentie baserrittara etorriko zan eske, ala?
- Baserrittara eske etorten zan, baiña baserrixan be zenbat emuten [eben]? Baserrixan be nahikua lan etxerako! Artien [...] gosie pasau biher. Danien, basarrixan be bai, ta danien. Bueno, basarrixen gosie ez, baiña behintzat zerik ez. Baserrixan be egoten zan, ba, esnie ta arrautzia be bazan ta, ba, patatie bazan ta danak, baiñe biher dan gauzaik ez. Olixue eta holakuek [...] falta. Ez zan egoten.
- Ta entregau zertzuk eitten zien garittik aparte?
- Garixe ta aparte, ta esnie be bai eruten gauen aiuntamenture. Egunien, ez dakit zenbana izeten zan, kuartillo bana ala ez dakit. [Ha] ifini ta baserriko etxe guztietakuak [pillatu] ta gero [marmittakada] bat [egoten zan] astien batek edo. Kalekuek [hartzen euen].
- Garixa neurtu... ze neurri egoten ziran? Neurrixak... Ontzi batzuk ez

zeozen garixa neurri eitteko?
- A! Kuartie, anegie ta anega-erdixe [esaten zan]. Anega-erdixe [izeten zan]. Horixe.
- Bai, hola, ontzi batzuk dakot ikusitta...
- Bai.
- Imiñia edo...
- Bai. Hola, orduen horrek, zerak egoten zien asko, ba, errenteruek [...] anegaka etxien errentia [pagau]. Anegaka, edo hola esaten eben batzuk. Batzuk hogei anega pagau biher errentia ta, ba, hola izeten zan. Etxia eurena ez auenak... Guk geurie geuken ta.
- A! Zuena be... errentero ziñien zuek be?
- Gurie ez zan errenterue.
- A! Ez? Zeuena zeuena zan...
- Anegaka pagau biher izeten zan. Bai. Hemen Oñeti... Zu Oñetierra [...]? Oñetierrak askok auken hemen baserrixek, e? Bai. Oin danak dauke erositte, baiñe Oñetin... Oñeti aberatsa zan. Aberatsa edo, behintzet, errenteruek edo [ipini etxiek] edo...

1.14. Gariaren inguruko lanak

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/004
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:03:45. **Bukatu**: 00:05:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Gariaren inguruko lanak. Zemendian (azaroan) ereiten zen eta San Pedro ostean edo batzen zen. Auzolana.

Transkripzioa
- Ta garixe ereittetik eta jasotera bittartien ze ein biher izeten zan? Lehenengo erein. Nos ereitten zan edo?
- Hori zemendixen. Zemendixe esaten jakon, ba…
- Ointxe…
- E? Ointxe saso´ [hona ezkero] akabauta egoten zien. Zemendixe esaten jakon… zemendixe deiketan jakon… Hor, Domu Santuetatik [haseran] eraitten zan. Ta gero ebai, ba, segun [egualdixa be gozua zan] edo hemen […] aldien be goxau, baiña hemen San Pedro oste inguruen edo hola heltzen zan hemen garixe. Eta gari-ebaten ibili gintzen, gaiñera… Beste gauza bat, guk [Leten] tiua geuken. Oin be badaukou prim… parientiak han, ezta? Primuek. Baiñe, ba… Ta lehenengo […] hemen baiño lehenao heltzen zan [Lete…] Lete, Lete aldien. Ta hara faten gintzen, ba, ebaten lehenengo hara. Ta hangue akabautakuen hemen geurera be etorten zien hona. Eta gero Untzillara faten gintzen, Untzillan be [palaziuen], e, geuken tia bat geuken, aitten arreba bat, ta hara be gero faten gintzen. Han beranduao, ostera. Hola ibiltten gintzen.
- Bai, alkarri lagunduaz…
- Bai, bueno! Alkarri asko lagunketan jakon, e! Oin baiño gehixao.
- Bai?

- Oin [hala be] ihes eitten dou [...] ikusi ezkero. Ihesi ez dou eitten, baiña enfin, entendiduten da, ezta?
- Bai, bai.

1.15. Auzolana

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/005
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:06:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Auzolana noiz eta zertarako. Aitarekin askotan lan egindakoa.

Transkripzioa
- Ta alkarri zetan... gari-lanetan ta gero aparte ze beste lanetan [lagunketan] zan?
- Bueno, aparte ez zan hainbeste lagun... bedarra ebaten-ta be bai iños falta eitten badau, ba, bedarra ebatera iños faten nitzen batera ta bestera. Ta ni jornaltxue [txupetan] be asko ibili nitzen. [Teillanda] badakizu zein dan, ezta?
- [Teillanda]? Han behien?
- Han behien, bai.
- Han Untzillan zuluen?
- Bai. Ni han askotan ibilitta nao bedarra ebaten, e! Ta beste leku askotan be bai. Hemen etxien egon nitzen denporan, e! Ta gero be bai. Ni ta beste asko, e! Baiñe normalien, jeneralien, izeten zan lagunketan, ba —ze esango dotsut, ba, nik—, ba, gari-eraitteko denporie. Eraitten be bai, e! Nire ama Itturbekue zan. Badakizu nun daon, ezta, Itturbe? Nere ama hangue zan, ta gari-eraitten be, ba, iños faten zien [udarako lagunak]. Ganauak [makal...] eukenien edo priseka ebizenien edo iños faten nitzen hara be. Bai, gari-eraitten be bai, baiña bestela ez [...] beste [lanik], normalien ez zan eitten. Bai, basuen egurren bat bota [biher bada], egurren batzuk bota bihar badie edo ekarri edo erun edo...

1.16. Gariaren inguruko lanak

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/007
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:08:15. **Bukatu**: 00:11:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Gariaren inguruko lanak. Gari-lasto azaoak argia emateko. Gari-jotzea larrainean egiten zuten. Gari-jotzeko eta gari-garbitzeko makinak.

Transkripzioa
- Ta garixe gero larriñien esan dozu…
- Larriñien.
- Ta han ze eitten zauien larriñien?
- Larriñien, garixe ekarten geuen ta garixe erdittik moztu itten zan. [Han] aparatua —ondion badao kamaran ondio— [trango] baten ebaten zan ta ha lastue, lasto sikue, lasto erretxistue deiketan jakon hari.
- Zelan?
- Erretxistue.
- Erretxistue…?
- Erretxistue deiketan jakon hari. Euki goguen ondo, e!
- Bai…
- Hari deiketan jakon. Bai? Ta ha kamarara eruten zan. […] siku-sikue [osuen], e, lastue. Ta haikin lastuekin jende asko kalera bajaketan zan hor goittik gabien illundutakuen ta [goixetarra] ta, jende asko illuna auenien haikin lastuekin ibiltten zan, [haik goixen] hartu [dobla] antxien —klaro, […] eitten badozu, noberana etorten da, baiña— pixkat hola zera antxien hartu ta haikin kalera jantie. Hemen bidien jente asko faten zan, e! Linternak be nahikue ez auezen ta…
- Sue emunde…
- Sue emunde.
- Antortxa moduan.
- Bai, e?
- Bai, bai antortxa moduen. Bai, bai, bai. Horixe. Hemen guretik, hemen guretik kalera fateko guk ez geuen usetan, ezta? Baiña bai. Ta gero bestie larriñien zabaldu itten zan bestie. Larriñien zabaltzen zan ta trilluaz ganauekin, ba, hari harixe… aliek atara, aliek atara hari [ein biher jako]. Larriñe esaten jakon hari, geuk larriñen zera deiketan gontsen; beste batzuk […] deiketan otsien, larriñe. Ta gero [makiña]… pillatu eitten zien harek garixek danak pillatu eitten zien gero. Guk makiña txiki bat bageuken. Guk bakarrik ez, e! […] eta sozio geuken makiña bat. Eskuekin ebai ta, ba, batek gaiñera bota lastuok —klaro, alkotzak [deiketan jakon hari]— ta alkotzak, lastue, alde batera ta gari-alie bestera garbi [urteteko]. Baiñe ikusitte dauket [Billerlen]. San Inazio egunetan gu faten gitzen, urtero faten nitzen, ba, Billerlera —bueno, [hemen etxien, fabrikan ez nebillen denporan emoten osten jai]. Faten nitzen, bai, ta Billerlen ikusitta dauket [larriñek in] bai, e? Ta [haxetan] sardie sartu ta [jo…] ta alkotza noberaana ta alie bestera. Ikusitta dauket neuk!
- Orduen makiñaik ez auken haik…
- Haik ez euken makiñaik! Han ez euen makiñaik. Haik behintzet ez, e! Han etxien. […] eukiko euen. Guk bageuken makiñie, […] bat, hola, polea bat euken ta [polea hari erein noberak]. Ta gero etorri zien garixe joteko makiñak gero etorri zien. Ebatekuek be bai. Ni soldautzatik etorri ezkero ya euki dou makiñie. [Hirun artien euki geuen]: […go] Julianek, [Basarraldek] eta geuk euki geuen makiñie euki geuen. Joe! Ha [gozau] itten zan! Ha zan…Bueno…! Ha zan…!
- Haikin samur, e?
- Ta harekin metaik be ez zan itten harekin. Sueltuen, ha lotu be ez zan eitten. Sueltuen etxera ekarri, pixkat siketan zanien kaja baten ipini ta

gero, ba, horreik gero... gero joteko makiñie, [...] makiñie, [...] makiñie... Ta lehenengotan beste [makinari] txiki batzuk etorri zien, lehenengo, haik ez euen lastue kamarara jasoten. Baiñe gero etorri zien haundixauek, haundixek, ta haik makiñak tubuekin lastue kamarara jasoten euen. Ha "coser y cantar" zan!
- "Coser y cantar", e?
- Berak jasoten euen dana!

1.17. Ogia egitearen inguruko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/008
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:11:35. **Bukatu**: 00:13:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Ogia nola egiten zuten. Errotak. Errotan sozio ziren. "Labako sua" zapatuetan egiten zen. Ogia egiterik ez zegoenean, aldameneko baserrikoei eskatzen zitzaien.

Transkripzioa
- Eta gero, ogixe, etxien bertan eitten zabien, edo?
- Bai, etxien. Bai, ogixa betik in zan etxien. Etxien ogixe... Errotabarrira eruen. Guk [...] hemen auzuetako jentiak eta [Tellaldera] faten zien. Baiña [hemen], Errotabarrin be baeuen, oin Errotabarri badakizue nun dauen?
- Bai.
- Hor be baeuen errota bat baeuen, baiña gu sozio gitzen, 40 lagun edo gintzen sozio, [Boliñarten], oin hori dauen lekuen, oin Fagorra dauen lekuen euen errota bat. Gu sozio gitzen. [...] astuakin mutikuak eruen ta han errotarixa euen, han bertan etxien zer bat euen, etxien bizi zien, ta Paulo [...], Juanito [...] eta tio zan, [...] aittajunen anaia zan, Paulo. Bai, Paulo errotarixa. Harek joten oskun ta berak karrietan oskun eta gu etxera!
- Uruna kargau ta etxera.
- Pagau biherrik ez geuen eukitten, sozio gintzen, ta aurretik etxera [ekarri]. Ta ogixa etxien, jeneralien, ba, zapatutan itten zan laba-sua, laba-sua deiketan jako.
- Aste osorako edo zela itten zauien?
- E?
- Zapatuen in, ogixe?
- Bai, aste guztireko.
- Aste guztireko.
- Aste guztireko jeneralien. Eta, eta aillegetan ez bazan zerbaitteatik, faltetan bazan, bezinuana faten nitzen eske. Uste dot hori [...] Apotzagan be hori uste [juat], e? Uste dot behin entzunda daukat Pedro [...] Apotzagan be itten zala hori, e! Falta zanien...
- Beziñuana.
- Bezinuana fan. Ta ogi bat edo, ogi bat ekarri eta gero, ba, [bezinuek...]. Ta ogixa ekarri, ta, ba, gero itten zanien, noberak itten euenian, ba, hartu eta

entregau barriro beste ogi bat, antzerako bat, pisau eta ezebez, antzerako bat. Ta igual hareatik edo honeatik, zeozeatik igual, ba, ezin in izaten zan [hurrengo] zapatuan, in eziña […] zan, ta aillegetan ez zanien, ba, […] fan biher, bezinuana fan bihar dok. Eurak be etorten zien, geu be bai, ba, normal.
- Bai, bai.

1.18. Esne-saltzera kalera

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/010
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:16:25. **Bukatu**: 00:18:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena**: Esnea Arrasaten saltzen zuten. Arrasateko merkatura arrautzak, barazkiak eramaten zituzten.

Transkripzioa
- Eta esnie bai, esnie asko eukitten zeuein etxian?
- Esnie bai, bai, esnie asko, esnie saldu be itten euen. Esniek orduen denporetan lehenengotan Mondrauera saltzen euen, […], bai.
- Astuan.
- E? Astuan, klaro, mutikua asto gaiñian ta ama… ama oiñezien! Amak beste berdura batzuk edo zertzu batzuk eruaten zittun, plazie itten zan orduan Mondrauen, plazie itten zan bai? Eta plazara eruaten zittuan holako trastetxo… zer batzuk eta… […]. Holaxe bizi gitzen gu.
- Eta arrautzarik, arrautzarik...?
- Arrautzak be bai, bai, etxian jan baiño gehixau saldu! Oilluak libre ibiltten zien, libre ibiltten zien oilluek. Kortan eukien otia deiketan jakona, holako, ba… egur batzuekin, makilla batzuekin eindde ta han lo itten auien. Eta gero zulo bat aukien, sarterie deiketan jakon, kanpora urteteko.
- Sarterie?
- Sarterie, sarterie. Ta gero handik holako eskillara bat eukitten euen eurendako, holako… egur baten gaiñien, ba, ifiñitte, […] egurre. [Gura baeuen] bajau itten zien, ta handik gora igoten euen.
- Gura euenian urten eta gura euenian sartu.
- Gura euenian sartu, hori ba.
- Arrautzak ederrak orduan.
- Arrautzak, e, banasta batzuk eukitten zittun, […] batzuk eukitten zittun arrautzak itteko, ta... Jan, noberak […] ezin jan arrautzak, saldu in bihar.
- Saldu in bihar.
- […] Zuek hori ez dozue ezautu, e!
- Ez.
- Hoba ez, gaiñera!

1.19. Txerri-haztea

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/031
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:59:25. **Bukatu**: 01:01:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena**: Txerri-hiltzea zegoenean, banatu egiten zen senide eta auzokoen artean. Txerria gaztea zen bitartean, kanpoan ibiltzen zen pagatxa jaten. Aretxabaletan hilean behin feria egiten zen; Arrasaten 15 egunean behin.

Transkripzioa
-Txarrixa hiltzen zanian emuten jakon parteik edo?
-Batzuk erueten zeuen, guk ez. Guk ez gauken kostunbreik. Txarrixa hiltten zanien partiduten neu ibiltten nintzen. Hamen auzora Zaloñako hirurei, Zubillagara, gure tio bat han euen, Itturbera, eta Leetera, eta kalera beste tio bati. (...)
-Urtian bat hiltten zan txarrixa?
-Bat. Guk bai. Leku batzutan bi be hillten zittuen baiñe gurien bat hiltten zan.
-Txarrixe barruen egoten zan beti ala ataraten zan?
-E, gaztetan bai. Paatxie egoten zan lehenau, bedar bat, bedar klase bat da paatxie. Gero lora gorri bat eitten jakon zaharketan danien, lora gorrixe eitten jakon. Hori maiatzien kentzen zan eta gero paatxian onduen artue sartzen zan. Paatxie ba txikiñek zienien. Jeneralien hor Gabon inguruen edo lehentxuao hiltten zan, baiñe bat hil orduko beste bat ekarri eitten zan berrido. Eta paatxie aguro etorten zana zan, e, bedar bat aguro. Agostuan ereitten zan, agostu inguruen ereitten zan, eta gero ba han txarrixai jaraitten jakon txikixa zan artian da. Bi (...) eta bat saldu be bai. Atxabaletan ni eonda nau txarri salketan aittagaz fanda, burdixan hartu ta txarrixa. Etxien be jango gauen baiña, diruek falta eitten euen da, eruen ein biher. Atxabaletan ferixie eitten zan hemen. Neu eonda nau ferixan. Mondrauen be haundixa eitten zan, baiña lehen eitten zan hamen be ferixia.
-Zenbatian behin eitten zan?
-Uste dot hillien hirugarrenien eitten zala, uste dot, zapatuen. Hillian behiñ itten zan hemen. Mondrauen hamabostien behin.

1.20. Jatekoa baserrian

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/032
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 01:01:45. **Bukatu**: 01:05:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- **Laburpena**: Zer bazkaltzen zuten. Baba gorria egunero; garizuman bijilia egunetan baba zuria. Bijilia urte guztian zehar egin behar ez izateko, bulak hartu behar izaten ziren. Domeketan garbantzuak jaten ziren. Afaltzeko zer jaten zuten. Gaztainak.

Transkripzioa
-Bazkaldu ta ze eitten zeuen, babagorrixe?
-Aste guztien babie, babagorrixe.
-Beti babagorrixe, hasi astelehenien eta zapatura arte?
-Bai ba, babie. Bijili..., Garizuman bijili-egunetan babazurixe. Hari txorixoik pe ezin sartu. Bijili-egunetan.
-Hori errespetau eitten zan.
-Bai, bai. Honbre!, hoixe errespetatzen zala (ardura) haundixaz. Eta bijilixek urte guztien zera eitteko, bulaak hartu bihar izeten zien.
-Bulak?
-Bulak, bai, bulak.
-Eta zer izeten zien horrek?
-Papel batzuk. Nire denporan arzobispue edo, Pla i Daniel firmetan zittuen horrek. Eztakit zer zan, obispua edo kardenala edo. Pla i Daniel. Bulak hartu biher izeten zien. Da baten bat hiltten zanien be bulak erueten zien, harek aparte izeten zien. Orduantxe ekarri, pagau bulok eta gero jentiek gura euenak ba diru apurtxo bat itxi ta hillekue bota kajara. Baiña bestela bulak hartu biher urdaixe jateko. Urdaixe edo okelie jateko. Bai ba. Eta domeketan jeneralien garbantzuek.
-Aziakin edo?
-Aziakin edo okela apur bategaz ifinitte edo; lelengo saldie eta gero. Baiñe aste guztien babia.
-Eta afaitteko?
-Afaitteko patatak edo izeten zien, porru-patatak, leka-patatak edo makarroin batzuk be bai noizbaitten edo gure dana.
-Eta gero gaztaiña-denporan gaztaiñia asko jango zan?
-Gaztaiñak, honbre! Gaztaiña asko. Boo, makiña bat gaztaiña batuta gaz gu. Domu Santuek artien gurien zurittute, egositta jaten zien. Zuriketan lana, lana eukitten euen zuriketan. Domu Santuek aillegetan zienien erreta handik aurrera, ha poza! Zurittu biharrik ez.
-Gaztaiñak hartu eta kamarara jaso?
-Ez, ez gittuen kamarara jasotzen, behien eukitten gittun, tejabanan eukitten gittun. Hori tejabanioi, oin dauen hori idiaz egoten zan kanpotik, horma bat, idie asko ibiltten zan, horma bat, eta hor gaztaiñak egoten zien. Baiña haik gero apartau, haik azal da guzti, koskol da guzti etorten zien, eta harek koskolak apartau ein biher izeten zien, xehetxuek eta ba bota ganauei edo txarrixei edo. Gaztaiñak eta gaiñien esnia (...). Etzan egoten besteik eta.

1.21. Gabonak baserrian

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/035
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 01:11:13. **Bukatu**: 01:14:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Gabonetako janaria. Intxaur-saltsa; konpota; azak. Ahuntzak izaten zituzten. Toponimia.

Transkripzioa
-Gabonetan eukiko zeuien janari espeziala zuek be, ezta?
-Bai, egoten zan, egoten zan, betik egoten zan espeziala.
-Ze ohittura euen lehen Gabonetan, ze jaten zan edo?
-Intxaur-saltsie, intxaur-saltsie, eta konpota. Konpota be bai. Eta azak. Azak be bai. Asko ez baiña apurtxo batzuk. Azak be bai. Nik oin be jateittut azak, e! Hemen bestek eztau jaten, baiñe neri gustau eitten jat eta. Eta gero ba bueno, oilaskon bat edo konejon bat edo enfin, zerbait, dauena. Okela apurren bat edo. Ahuntzek be eukitten gittuen, eta ahuntzen bat hiltten zan eta okela apurren bat geldiketan bazan edo zerbait, bai. Baiñe intxaur-saltsie falta barik.
-Hori falta barik, hori urtero-urtero. Eta konpotie be bai.
-Konpotie be bai.
-Ahuntzek Kurtzebarri aldien edo.
-Bai, hor ibiltten gittuen ahuntzek. Ura partien Kurtzebarrin eta gero neguen ba hemen, etxe inguruen ibiltten gittun, zelaixen baten bat lotute eta besten bat haren inguruen edo bestie ta ba gero ahuntzek eukitten gittuen ba pastoriekin. Ardixek ibiltten zittuen baiñe guk ardirik ez geuen eukitten. Eta Domu Santutarako bat eta Santa Lutzietarako ba beste bat hiltten zan. Ahuntze edo (...) edo ardixe edo. Oingo moduen neguen etzien antxumak jaixoten. Oiñ bildotxak be neguen igual jaixoten die. Orduen etzien jaixoten. Eta gero ba Gabonetarako ardi hondarren batzuk egoten zien, zeziña apurren bat eiñ; eta ondio hondarrak egoten zien. Halaxe.

1.22. Garia entregatu beharra gerra ostean

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/007
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:12:17. **Bukatu**: 00:13:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Garia entregatu behar izaten zuten, besterik ez. Abereak zituzten gerra ostean: txerriak, eta abar.

Transkripzioa
- Beste ze jenero emun bihar zan? Garixa eta beste zer?
- Geuk ez geuen eruen besteik ezer. Garixe, orduan. Beste batzuk erungo auien beste zeozer be. Ortura-ta asko dediketan dienak; guk etxerako edo ortuen erabiltten geuen-eta, bestela ez geuen eukitten saltzeko-ta ezer. Etxerako, artue be bai, etxien txarrixei-te emuteko-ta; erremolatxak asko,

txarrixendako-ta, txarrixek be eukitta gaz-ta, ganauek be eukitta gaz-ta; ardixek be bai apur batzuk, gutxi, e, ezkiñak garbittu edo ein deixen, bedarrak, e, ganauak kendu, behixak kendu ein gittuen gero-ta. Oin ez dauku animalixaik, bapez; ez dosku faltaik be eitten-ta.

1.23. Baserriko lanaren inguruan eman den aldaketa

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/009
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:13:45. **Bukatu**: 00:16:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Baserriko bizimodua asko aldatu da: makinak sartu dira, esaterako. Belarra moztu, batu; lan astuna.

Transkripzioa
- Asko aldatu da basarriko bizimodue?
- Bai, oiñ asko aldatu da, e, oin makinarixie eta ganauek asko daukenak, danak makinerixie daukie-ta, bedarrak eta gauzak erretiretako-ta; diferentzia edarra. Lehenau, e, segiekin ebai, saillak galantak ebaten zien, ganau asko euan-ta, gero zer horregaz, eskuerie-ero esaten otsen haregaz batu-ta; orduen fardoik be ez zan itten oiñ itten daben moduen zerak-eta; bedarra sueltuen kargau burdixen-ta. Ha etzan edarra izeten. Kargauta gero ganbarara sartzeko be etzan edarra izeten. Handik sardiakin hartuta botaten euen sasoia eukenak. Ha nik ezin neuen eiñ, baiña batzen-ta bai bedarra.
- Ebaten bakarrik denpora asko biharko zan, ez.
- Saillak ebateko bai. Juntau itten zien, e, bi edo hiru lagun igual-ta.
- Auzokuak?
- Etxekuek be bai. Etxian be famelixia gare gu, batzuk […] ebaten zittuen bedarrok. Makiña bat ebaitta dago hori semioi bedarrok. Ebai in bihar ahal zanian zelabaitt. Orduan segiaz, eta gero segadoria ekarri euen; ha zan ona. Eta orduan ebaten zien…, bueno! Ondo! Gero zabaldu ein biher izeten zien apur bat sikeketako, ta ba gero atzera batu in bihar da, Siketuta erdi batuta dauenian e egunen baten tormentie igual da, dana busti tta. Gero atzera. Zenbat lan ingo ete zan! Oin, e, makinekin eta eitten dittuenak aguro eitteittue; harrapaten eutsie, bai, deskuidaute-eta. Hemen be apur bat itxi euien, hor Larriñoko batzuk erueten daue bedarra hemendik-eta, ixe akabaute eukien, ez euen asko falta itteko,[…]. Etorri zen eurixe ta busti.. eta itxi ein biher. Gero hurrengoko egunien, atzera siketute dauenien... Bihelekue egoten da, e, biheleku txarra. Apur bategatik hantxe geratu.

1.24. Baserritik kalera astoarekin

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/018
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:28:30. **Bukatu**: 00:29:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Kalera asto gainean. Astoak non lotzen zituzten.

Transkripzioa
- Zuek bai oiñez ibilittakuak, garai baten.
- Buenooo, orduen, e, astuekin-ta, kalera astuez faten gintzen, errekauak ekarteko-eta, hortik Irizarretik edo. Asko ekarri biher bazan, "fin de semana"-edo zapatuen-edo, ardaua-edo, orduen botillatan be ez zan egoten-ta, garrajoien ekarteko ardaue-edo, astuukin, da bestela ba, ez euenien errekau asko, ba eskuetan; makiña bat bider geu be asto igual, astuen moduen.
-Gaurko aparkamentuen moduan orduan astuendako aparkamentua, plazuela haundi bat, eta han egoten zien astuek illaran, lotuta.
-Bai, han taberna aurrekaldian, oin etxan tabernia baiña. Oin astoik be ez dau asko, banakan batzuk bada... leku batzuetan, baiña. Hemen inguran ez dakit asto asko dauen. Oin astuekin ezin leike kalera fan-ta.

1.25. Auzolana; laietan nola egiten zen

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/025
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:42:45. **Bukatu**: 00:44:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Baserriko lan batzuk auzolanean egiten ziren. Laietan nola egiten zen.

Transkripzioa
- Lehen baserriko lanetan eta, elkarri lagunketan jakon? Baserri batekuak beste batekuei-ta?
- Bai, zeozer bai, batzuk. Lehenau hala be gehitxuau. Bai gu gaztiek gintzela ero, lagunketan auen. Zera eitten be faten zien, laixan eitten be. Akordetan naz ni, laixak, horrek, e, hola sartu ta eitten zienak; sailla preparau, ta arbixa kendutakuen ha laixatu, gero artue ereitteko. Lehenau, ordun, golda haundixa eta ez auenien, e, laixatu-ta itten zittuen. Ha be lan urrixe zan. Lan asko eta hainbeste denpora biher hareik itten.

- Zenbat lagun illaran?
- Ilaran ba, juntetan zienien bastante, xei ero, zortzi ero. Juntauko zien batzuetan. Beste batzuetan gutxiao, ez baeuen fateko moduen edo zerik.

1.26. Ehunezko arropak; "pujetie"

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/027
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:46:35. **Bukatu**: 00:48:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Lehenagoko andrek haria egiten zuten. Ehunezko arropak garbitzeko "pujetie" egiten zuten. Bidean gauez ibiltzeko farola erabiltzen zuten.

Transkripzioa
- Aurreti bai, harixe ta indda, lehenagoko andrak, harixe ta dana ia itten euen. Bola batzuk baeuzen, lehenagokuek, amandriek edo zerak-eta einddakuek gurien. Gero bolak eindda harixek. Illuna egoten da lenengo, eta gero garbiketan edo zuriketan lan asko eukitten dau, e, lixibia-edo esaten utsena-edo, pujetie-edo. Hemen pujetie esaten gutsen; ta han egosi ure berue botata-ta, han zurittu biher izeten zien hareik. Kostaten zan hareik zuriketan, asko, e, kosta. Nik neuk ba ez dot asko ikusi. Han euzen indda. Hareik be lehenaukuek, hareik be makiña bat lan in bihako euen. Ha itten, goru itten, faten zala zerera, hor beste etxe batera, gabien, neguen ba, Larriñora faten i zittunan, Tellerixara, faten ziela, zera itten, gorue esate utsien, eta ha itten fan hara, han juntau eta han ein, ta gero zeozer eruen etxetik edo, zera ta, gabien esnie edo beste zeozertzuk, eta gero etxeruzkuen, e ... hartu ha eta etxera. Nire gizona faten zonan, lagunketan harei, andrei, goruun itteko. Eta orduun argirik be zela ez euen ba, suen argixaz ta, su ein ta suen argixaz.
- Bista ona biharko eben.
- Holakotxe gauzak lehenau be. Hori lana atrasaua izandakue da. Hareik be zeozer…
- Eta gabaz bidetan ibiltteko, ze argi?
- Farola erungo euen, illun baeuen. Farol batzuk baeuzen, kandelie ipiñi barruen-ta.

1.27. Labako sua nola eta noiz egiten zuen

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/030
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:52:05. **Bukatu**: 00:54:20

- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Labako sua astean behin egiten zuen. "Ipixkixarekin" garbitzen zen labea. Ogia egiteko eman behar ziren urratsak.

Transkripzioa
- Laban sua sarri itten zan?
- Astero. Hemen be astero in bihar izaten neuen nik. Han be, etxien be itten zan, etxien amak itten eban, e, ni orduen gaztie nitzen; lagundu itten nutsen, baiña. Hemen astero in bihar. Labe-sue. Lan asko eukitten dau hak be, e. Labie, hari egurra kargau, hari ipiñi, erre hareik egurrok, eta gero ha zabaldu apur bat eta, danien egon dain ondo-ta. Eta gero zerakin batu, "ipizkixa" edo esaten gutsen, trapu bat ifinitta egoten zan makilla luze baten, mango zer baten. Harekin garbittu labioi, ta gero ogixak preparau ta sartu.
- Aldiko ogi mordue eitten zeuen zuk orduen.
- Dozena bat ero gehixao. Gehixao be bai batzutan. Hamabost... Opillek be itten nittuen batzuk, lenengo zertzeko, opillek eta. Bueno, labe-suek neke asko eukitten dau, e. Masie eitten be bai, makiñeik ez euen orduan, eskuukin in bihar masioi. Dana baten itten asko izeten zan eta nik bi zatittan itten neuen. Bestela ereitten eta masie zertzen, gozaketan neke haundixa euen. Bi zatittan, lehenengo bat eta gero beste bat, eta han ipiñi, eta ur berua ta biha dan moduan botata. Lebadurie-ta harrotu dadin, ta gero tapaute euki biher izeten zan arropa batekin, manta... han egoten zien hartarakotxe prepareutako manta, izara... Hotzittu ez dadin ein masie, bestela hozketan bazan ogixa txarra urteten euen, e. Lurran mudukue, ogixa, pesaue. Harrotu barik.

1.28. Ogia, taloa, artoa eta abar nola egiten ziren

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/031
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:54:20. **Bukatu**: 00:57:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Baserria » Baserriko lanak » Artoa
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Hazgarria noiz, nola botatzen zen. Artoa. Taloak nola egiten zituen.

Transkripzioa
- Hazkarrixa, zela eitten zeuen azkarrixa?
- Hakarrixa bertati itxi itten zan lehenau. Bertatik zati bat itxi katxarro baten, katilluak-edo taza halako haundi baten itxi, ta gero gaiñetik tapauta,

piku-orrixaz igual, ta aza-orrixaz igual ta tapetan geuen.
- Hori gure lana zan ta, ekarri in bihar aza-orri bat edo, piku-orri bat edo…
- Ha gordeten zan eta gero ha izeten zan. Ha nahastu biher izeten zan, uretan ondo nahastu biher zan. Bestela ez euen harek be bardin urteten gero. Ondo nahastu. Eta ure be ba, tamaiñuen, berugixa be ez, bestela azkarrixe erre itten zala berue bota ezkero. Tamaiñuen, berue biher zan, e. Bestela hotzaz be, ba, hotzittu ezkero ogixa ez da harroketan. Makiña bat indda gaz!
- Artoik itten zeuen; ogixa bakarrik ala artua be bai?
- Artue iñoiz in neuen, baiña gero labia atzera barriztau in euen eta ez euen ipiñi hain ona ta, artuek erreteko ezin zan, e, su asko in bihera zan /bizan/. Ez neuen itten gero artoik. Itten nittuen ogixek; eta gero, e, zerak, taluek. Oin itten dittue ba palan-ta; zenbat talo indda nauen... Puf! Esniikin jateko-ta, artozko taluek, asko. Bueno! Han mahi txiki gaiñien makiña bat indda nago ni… Pla!, pla!, pla! jo eta… Zenbat talo. Eta edarrak egoten ziren han, e. Zer barik eindde be majo harroketan zien, hazkarrixa bota barik be. Lelengo palan pasada bat, eta gero prasie apur bat atara atzera, ta gero parrillan ipiñi apurtxo bat, eta harro-harro itten zien. Ordun edarrak egoten zien. Orduen gustora jaten neuen, sasoe ona neukan euki be eta. Esniikin jateko izeten zan gehixen be e, esniikin. Berua euela ba bestela jateko be… Batzuk gustora jaten euen, sasoie eukenak. Neuk ez neuen hutsik jaten, baiña. Jaten euen bestela be. Dauen moduen esne barik be jan, babaakin eguerdixan ta, urdaixekin edo.
- Ogixan lekuen e…
- Bai, ogixan lekuan artua.

1.29. Artoa erretzeko su handia behar izaten zen

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/032
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:57:15. **Bukatu**: 00:58:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Baserria » Baserriko lanak » Artoa
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Artoa erretzeko su handiagoa egin behar izaten zen. Ogia.

Transkripzioa
- Eta artuak orduan sua beruagoa bihar dau?
- Bai, haundixak eta eiñ ezkero hala be ba. Sua bihe dau, dezente bihe dau.
- Lehenago zulo berian sua, eta ogixa bertan sartzen zan, ezta?
- Su itten zan lekuan. Garbittu zeragaz-ta. Kostetan zan ha garbiketan; baztarrok harrapeu ezinka-ta. Lan ona egoten zan han. Makiña bat holako indda nago.
- Baiña ogixa edarra urteten auen…
- Ona urteten euen, bai.
- Epel-epela. Ezizue jan berue, txarra da-ta…!
- Handik masatik hartu zati bat, arteien labie be zertzeko ta. Zati bat hartu

handi, eta ipini talue indda, sartu laban... Hareik edarrak egoten zien, ogixekin inddakuek be. Artien preparau barik ogixa sartzeko ta ba talue iñ da afaitteko ero. Talue edarra. Hori lanoi ikesitta neuen eta.
- Astero itten bazan biheko ikesi.
- Hoixe. Derrigor.

1.30. Bertsopaperak

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/020
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:18:05. **Bukatu**: 00:19:05
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Aisia » Kultura » Bertsolaritza
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Bertsotarako zaletasuna. Bertso asko ahaztuta ditu. Ganadu-zain ibiltzen zenean ikasten zituen bertsopaperak. Ferietan saltzen zituzten bertsopaperak.

Transkripzioa
-Bersuak eta gustaitten xatzu zuri, ezta? Hori Garmendia hori bersolarixa da, ezta?
-Bai, bersolarixa da hori be.
-Bersuak buruz be batzuk ikasitta eukitten zittuan da.
-Bai, asko ikasi nittuan baiña aztuta daukat asko. Oin, kantetan badaue hor radixuan igual, zertzen egoten naz. Bixkaiko Txarrixana ta Markesaren Alabaana ta, eztakit zenbatena, ganauzaiñian nabillela ikesten nittuan bersuak orduan. Ganauak zainketan nabillela.
-A bai? Zela, berso-papeletik ala?
-Papelak, bai. Papeletatik.
-Lenau fama haundixa auken berso-papelak. Ferixara fanda ferixalekuan be berso-papelak saltzen ibiltten zien.
-Bai. Erosten zittuen da. Ni asko ikasitta nao. Batzuetan akordetan jat baiña beste batzuetan...

1.31. Garai bateko baserriko bizimodua

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/022
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:22:50. **Bukatu**: 00:24:40
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

- **Laburpena**: Baserrietan lehenago ontzi bakar batetik jaten zen. Emakumeak soroan lan egiteko agudo prestatu eta dena jaso beharra; platerak garbitzeko ur-korronterik ez gainera.

Transkripzioa
-Etxietan be orduan ontzi batetik jango zan, ala?
-Bai, etxietan be bai. Jate zan lenau-lenau bai. Hemen eztou jan ontzi batetik sekula, baiña lenau bai.
-Nire akorduan ya ez, baiña nik ikusitta daukat fuente haundi bat eta babalapikua ra! emun buelta ta koillarak bueltan da. Beste fuente batera ero kazuela batera bota babalapikuoi tta. Urdaixa han egoten zan da ha urdaixa sartu bertan atzera lapikora hotzittu eztain, ha ipiñi su onduan, da babok jan da gero urdaixe. Partiduteko ta urdaixe. Dauena, txorixua ero baeuen be.
-Holakotxe zati bana ogi gaiñien hartu ta bertan untau ta..., aide!
-Platoik ez zauenian [ogi gaiñien]. Orduen ontzixek garbiketan lan gutxio eukitten auela esaten auen. Solora fateko androk aguro preparaten ziela ero. Koillarak eta lapiko bat ero, eta besteik ezer ez euan. Kazuela zer bat.
-Orduan urik pe ez zan egoten etxien.
-Hoixe. Oiñ hainbeste traste ipiñi bihar izeten die. Askotan esaten dotena nik, gu bi lagun bakarrik eta zenbat traste mahaixan ifintten dien. [...] Lenau batetik jaten auenak ez auen eukiko horrenbeste.

1.32. Familia giroa

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/023
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:24:40. **Bukatu**: 00:26:10
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Bakoitzak bere tokia izaten zuen mahaian. "Hormako-mahaixe".

Transkripzioa
-Mahixen bakotxak bere lekua eukitten euen izentaute?
-Bai. Gehixen baten bai.
-Gu kuadrilla galanta egoten gintzen, baiña bakotxak bere lekua eukitten gauen.
-Punta batetan atalka holaxe, handikaldien aitta, hemendikaldien ama. Gero hurrengo aittan onduen neu, gero nire aiztie bestie, ta gero zuek Jexus da.
-Leheno zarriien egoten gintzenian...
-Eztakit nik. Ni etorri aurretik eztakit zela egoten zien.
-Han mahai txikixan da han eskiñan zutik.
-Ha txikixaua zan da.
-Hormako mahixa bahau ta.
-Batzuk hormako mahixan eta bestiek beste mahi txikitxo bat, eta txikixak han. Sukaldeko maillia, sutan mailla bat euan bastante zera.
-Holako mailla bat euen altuau, sua eitten zan zerian.

-Suen txapie ta gero gaiñien luziauen alde batetik besteraiño, ta han maillan jarri tta beste mahi txiki bat han. Han jarrita bat ero bi ero. Bat maillan eta beste bat balkoi txikin baten aulkitxue ero esaten utsien da, jarri tta han.
-Ta zenbat persona juntatzen ziñeten?
-Dozena bat lagun ero gehixao. Hamalau be egong gintzen noizbaitten.

1.33. Gerra osteko egoera; baserriko ekonomia

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/025
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:29:00. **Bukatu**: 00:30:05
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Gerra osteko bizimodua. Errazionamendua: Baserrian hartzen zen gariaren zati bat udalera entregatu behar izaten zen; garia jotzea debekatuta; errotak prezintatuta...

Transkripzioa
-Orduen be pasetan zan, razionamentue ta garixe kamaran da eziñ jo.
-Joten be itxi ez eta ha entregau in bi zala.
-Errotie prezintauta egoten zan, errotie zabaldu artian, eta errotie zabalketan auenien kartillie etorri artian; permisua, kartillia, aintamentutik etorten zan. Ha barik ezin geikien garirik eruan.
-Da entregau mordo bat garixa, burdikaria. Garixa Arrasatera, etxakixat hi akordetan haizen ala lenau zan.
-Akordetan naz zela, ni neurritten regliaz mutikua, ha pasau raust eta. Bardinddu ta benga. Kargau burdixa ta. Eztakitt zenbat eraitten gauela ta.
-Errentie pagetako be garixaz pagetan zan, da miau!

1.34. Etxe-jabea baserriak eta lurrak saltzen noiz hasi zen

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/028
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:35:50. **Bukatu**: 00:37:45
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Etxe-jabearen familia, diruduna. Poliki-poliki etxeak, lurrak saldu zituzten. Errentero izatetik etxe-jabe izatera pasatu ziren. Aurreko belaunaldiak.

Transkripzioa
-Iñudiak eta eukitteko dirua euken familixia.

-Harek badakitzu zenbat basarri eukiko zittuen.
-Basarri asko. Da gero saldu zittuen danak hemen saldu zittuen da eztakit baten bat geratu zan erosi barik, etxakixat geratu zan iñor. Baten batek ez auela erosteik gure, etxaixat zer.
-Etxezurikuek eztakitt erositta daukien be.
-Danak etxakixat erosi auen be. Baten bat geratu zala...
-Bestela beste gaiñetiko danak hemen erosi auen. Apur bat gauzie mejorau zanien ba ikusten auen ba, (...) erosten bozu fango nok pagauaz.
-Haik Otazu eta zuek haindako "jotasu".
-Hori, hori, ointxe esan dozu.
-Bai. Alkilerrian dazenak hoixe pasatzen da.
-(...) Hau ze kostata dauden! Aittajaune, aitte da ni. Da gero gaiñetikuek danok ixa (akabau?) gare lanien hau zertu orduko. Zenbat denpora pasau dan.
-Hona etorri zuen aittajuna ein zan. Zuen aitta mutikua zala. Bai.
-Bai, aitta mutikotxua zala. Lau urtegaz ero esaten auen. Apotzati hona.
-Errentero.
-Errentero.
-Ba horrek len esan douna. Gero fabrikie ta ifiñi euenien fan zienien ba. Haik fan zien, bizimoduik atara ezinke hemen, kalien montau euien eta ondo fan jakuen. Gero guriek basarrittarrak zien da ba horrek hobetuau basarrixoi.

1.35. Aitajauna, ikazkina

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/029
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:37:45. **Bukatu**: 00:39:45
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Aitajauna ikazkin ibilitakoa. "Burdi-bolantea", gurdi handiagoa, zama eramateko egokia. Arrasaten ere "burdi-bolantea" zegoen. Aitajaunaren ibilerak.

Transkripzioa
-Gure aittajauna be ikezgiñan hor mendixan, Kurtzebarri onduan, horra iketza ekartzen ibiltten zan irixekin.
-Kargalekun?
-Kargalekun, bai. Kargalekuti Basabera ekarten auen iketza. Oin barianteko zubixen azpikaldien dagon basarrixa. Hortxe, hamen goitti bera. Horraiño ekarten auen da hor euen beste gizon bat burdi haundixaaz.
-Gero beste batek eruan. Bolantia ero.
-Burdi-bolante haundixaaz. Hortik Elgoibarrera erueten auen. Handik ekarten zittuen hiru biaje edo lau baten hemendi Elgoibarrera.
-Kurtzebarritti, orduen egongo zien bidiekin. Etorri in bihe zan, e.
-Trango edarrak eongo zittunan.
-Eta hori burdi-bolante hori zer da, diferentia?
-Burdi haundixaue da eta erruberak haundixauek dauko, zabalauek, burdiñazkuek die baiña zabalauek die apur bat. Burdiñazkue daukie zera,

petriñia. Gero daukie radiuak. Bestia osue dan moduan. Hemen eztau hola, Araban daz asko. Hemen burdi-bolantie ez euen, hemen txatxilipurdi eitten auen burdibolantiek, haundixe zan da.
-Harek bidie zabala bihako eben.
-Bai. Lautadatarako ta.
-Burdibolantie ikusitta daukot. Mondrauen ikusten naixuan Axerikua ero burdi-bolantiaz.
-Ba holakotxen batek ibilliko-ban zeatik hak karretero eitten euen asko. Egurra ataraten-da; eurek eukien basua asko.
-Orduen ba haretxekin, gomazkoik zerik ez eta. Kamiñuok majo mejorauko jittuan. Kamiñuok eztakitt zela ipiñiko zittuen harek burdixek, dana burdiñazkue, da halako errubera zarrak. Aiketa gomazkuek zertu artian burdixak, e. Hemengue be uhela estu-estue ta.
-Zorrotz-zorrotzak. Haik bigun dauenien sartzen die kutxilluen letxe barrure.

1.36. Garotara Asentzio aldera

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/030
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:39:45. **Bukatu**: 00:41:40
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Aitajaunaren ibilerak. Asentziora joaten zen "iri-ekarten". Burdia nola kargatu behar izaten zen. Atzealdean egur luze bat jartzen zitzaion burdiari, freno antzera.

Transkripzioa
-Harekin faten gintzonan Asentziora idie ekarten be. Asentziora idi-ekarten. Ekarritta nao beu be handi. Bai. Behixan aurrien, pentsaizu. Idia handi. Pentsaizu. Oiñ ate onduen daukenak eztittu hartzen iñok, handik eta.
-Orduen estimau euen da.
-Orduan dana estimau.
-Ya lo kreo.
-Goitti bera, abixada baten goitti bera, eta itxultzen ezpazan burdixoi pozik. Bide erdixan muna batian hooola ta, bestian bestekaldera botata ta. Eneee!
-Noz jausiko ete dan larri.
-Irixok ero behixok labankara baten da.
-Bueno! Goittik bera erdi tarrasien ixa burdixa ekarri bihar arripan. Bestela behixak eta danak aurrian pasau. Dragie orduen berriz (ipinttten) jakonan, draga bat egurrezkue. Sartu han alanbre bittartian zera ta, lotu sokia bestekaldeti zera ein da kataiekin ero zeozekin da. Estutu ero eitteko zera.
-Kargie sujetetako?
-Eusteko apur bat, frenue.
-Lurrien arrastaka, ezta?
-Ez, ez. Arrastaka ipintten jakonan egur haundi bat ero atzeti tarrasien; frenau deixen, hori be itten jakon, baiña berai erruberiai itten jakon zer bategaz, egur bat sartu; eukitten auen azpixen alanbre bategaz ifinitta.

Han sartu eta gero erruberien kontrara-ta sokiaz lotu atzekaldera, da harek rrrrre, erruberiai eutsi eitten utsen. Baiña etxera orduko ebai igual itten eban egurroi. (...) ha rozien, bakitzu?
-Ha tarraskua atzetik ifiñi ezkero, euzen harri guztiok eta danok ataraten zittuen lurrien da, haren inguruen ezin zan fan be iñ, e.

1.37. Basotik karga handiak nola ekartzen zituzten

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/031
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:41:40. **Bukatu**: 00:44:15
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena**: Tomasa, Bergarako baserri batean egon zen gaztetan eta han ere "tarraskuak" erabiltzen zituzten, basotik karga handiak ekartzeko. Umetako, gaztetako kontuak. Baserrietako ekonomia; idi gazteak erosi, hasi, hezi eta handitutakoan saldu egiten zituzten. Esaldi indartsua.

Transkripzioa
-Bergako zerien ibiltzen zan hola. Ni egon nintzen lekuan da. Primie ero gizon horrek. Tarraskuek. Harek ifintten otsan han goittik bera. Jooo. Hango zaratia, jota harri guztiak jota aurrian da. Etxaafleruen moduan. Harek ifintten otsan asko hori. Topetan jittunan harrixok.
-Erripan euan basarrixoia, ala? Erripan basarrixa?
-Erripan ez, etxaonan erripan baiña fan itten zonan basora, handik ekarteko. Basora faten zanien handik goittik bera. Burdixa kargau abar, egur, zerokin da gero atzien ha ifiñi tarrasien da, ala!, beste zati bat. Ai Jesus!
-Zelabaitt.
-Zelabaitt orduen be. Ha be han ibiltzen zan iri txikitxo batzukin, beti kanbixetan zittuenien txikiñauak hartzen zittuen da; apur hezittakuan haik saldu ta kanbixau ta txikiñauak hartu. Ta dirua hartzeko; "Onak hartu ezkero emun in bihar izeten da". Gaztetxuak hartuta ta hezi ezindda han ibiltzen zan. Buenoo!
-Urte pare baten euki etxien, apur bat iri eiñ artien, hezi, (...) ifiñi eta gero saldu. Gero txikitxo batzuk hartu...
-Dirua, beti dirua.
-Dirua geratu barik, baiña gero beti sufriduten ibilli biher.
-Katuan moduan, txakurran moduan saltoka, zera. Muna puntatik bera igual salto itten eben. Bestela ez zien apurten. Harekin landu eziñ auen asko eiñ. Beste koiñatuek esate auen moduen behiñ: "Katue erpeka moduen lanketan jok horrek zera." Harek eziñ eiñ asko, azaleti ibilli biher lurrien. Inddarrik ez eukien da. Gaztiek. Dana holaxen. Makiña bat holako. Oiñ beste modu baten. Oin be zeoze esaten dou baiña.

1.38. Baserriko bizimodua

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/032
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:44:15. **Bukatu**: 00:45:20
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Baserriko bizimodua. Astoarekin, idiekin ura nola ekartzen zuten.

Transkripzioa
-Telebisiñuan erakusteittue ure ekarten da, eztakit nundi astuaz-da faten diela ta. Ondio eztie urte asko geuk astuaz ura ekarri gauela. Irixekin da.
-Ur eskaxidadie haundixa egon zuan hemen da. Eskuan be makiña bat ekarritta najak nik. Makiña bat bieja. Hori jaixoteko auala be, hor, hortikaldeko aska bateti hor zelaittik harutzao fanda ekarten. Ta marmin bi esku baten, da bestien beste kaldara bat. Enda hori be han ibili zan lanien neurekin batera. Hori esaten dot nik, jaixo baiño len hasitta daola lanien da. Honezkero (....) egoteko moduan dao. Orduen be sikutia haundixa euen, da ez euen etxe onduen urik. Hemendik urok beera faten zien, hanka itte-auen. Hor euki gauen posu haundi bat pe, zulo haundi bat hola bera ta. Baiña...

1.39. Baserriko tresnak

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/034
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:46:25. **Bukatu**: 00:49:10
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Baserriko tresnak. Aitajaunak lehenengo goldea noiz ekarri zuen. Aurretik laietan egin behar izaten zen. Burdinarea. Goldea auzoko beste baserri batzuetan ere erabiltzen zen.

Transkripzioa
-Aittajaunek hemen lelengo goldie aittajaunek. Aittajaunek hor ikazgiñen ibilli. Urabarrixen fanda Gabonak artien. Urabarrixen denporie apur bat mejoretan hasten zanien hasi tta urte dana. Da bostehun pezeta. Irixekin lana indde. Burdi tta iri. Bostehun pezeta. Eta goldie orduentxe hemen lurra lanketako. Aurretik laixiaz, e.
-Laixia ta golda txikixe ero ta.
-Beste holako haga luze bategaz golda txikitxo bat egoten zan. Haregaz be bai tta, gero burdiñariaz. Da hola lanketan zan. Goldia.
-Bai, esate auen orduan, goldia ekarri auenien esaten juen batzun-batzuk esaten auela: "laster fangoittuk horregaz hasten baittuk goldan bueltaka;

Deban behera lurrok danok bialdukoittuk." Lur barik geratuko ete zien billurtuta.
-Billurra auken lurrak danok bera fango zien.
-Deban behera lurrak laster botako jittuk.
-Ba gorutza be majo botaten auen harek lurre, e. Jakiñ in bi zan lanien beraaz. Goldie ekarri auen eta goldie edarra gaiñea, e.
-Indarra euki ezkeo.
-Nik haregaz goldiaz ibili naz goldan. Niretzako astune zan ni artien mutikue nitzen da. Baiña gastauta euen jota goldan ibiltten. Gero ekarri gauen barrixe. Aittajaunek bostehun pezeta irabazi.
-Gutxi izengo da hori.
-Bostehun pezeta? Keba. Orduan etzeuen edozeiñek irabaziko bostehun pezeta, e. Goldiek balixo zittuen hirurehun pezeta ero zeoze gutxitxuau. Holako bat balixo auen. Goldie ekarri tta ondio dirue sobrau jakon. Da hemen goldaik ez auen. Da beste golda bat auen Koruetan, (Mendikutzan?). Holaxe kontauta euzen goldaak, lanketa goldaak. Gero goldie ekarri auen da gero bera faten zan ikazgiñen da ondio goldie ibiltten auen, diru bat kobrau ta beste batzui ixten etsen. (...) Geratu be in barik goldioi. Batek ixten utsenien bestiek.
-Betik martxan.
-Hartu burdixan goldioi eta beste traste batzuk pe bai tta, kalera be faten zan ha.

1.40. Asto-esnea; ardi-esnea

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/037
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:55:40. **Bukatu**: 00:59:05
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Eibarren astoaren esnea ere saltzen zen. Asto-esnea; ardi-esnea.

Transkripzioa
-Eibarren astuaz kalien esnia saltzen ibiltten ei zittunan berriz. Aittak esaten jonan. Astuan esnia be zeozetako ona zonan. Etxakiñat zerendako zan be. Ona ei zan. Da astua eruen etxe parera da bertan batu ta hari be...
-Jentiak sinistu daixen astuan esnia dala. Bestela jentiek, e...
-Propiedadiek pe momentuen batute ba betik zer gehixao eukiko euen.
-Hemen eztait egongo zan baiña Eibarren ibiltten zala, egon zala hori. Hemen astuanik etzonan, baiña han bai. Etxakiñat astuana zelakua izango dan.
-Ha be txarra ezta izengo.
-Lenao, bueno!, harrapatzen zana. Makiña batek ahuntzek eukitten zittuen etxien da esnie hartzeko. Ahuntzek esnie asko eukitten dau. Ahuntzek euki da esnie.
-Ahuntzak batzuk esnie dezente daukenak pe izateittuk eta.
-Apurtxo bat gobernau ezkero ahuntz batzuk esnia mordua eukitten daue ta. Etxerako esnia. Oiñ horrek gauzok pa gastau eiñ die, fan die.

-Ahuntzak (behiak) baiño mantentzeko merkiao ta.
-Esnia gutxiao be bai baiña.
-Proporziñuen bastante esne jaukek ahuntzek apur bat gobernau ezkeo. Ardixan moduko fuertie gaiñera eztok, ardixan moduko fuertie eztok.
-Ez, meiaue.
-Espumosue dok, baiña dok esne más behixen estilora, esnie.
-Gustua be eukiko jok diferentie. Neuk etxuat aprobau.
-Bai. Gustua ezta iguala izengo.
-Klaro. Bakotxak bere zera.
-Karmenek jakingo jok, akordetan bajako.
-Hari gustetan jakon.
-Gustau bai. Behin fan zonan tiuen etxera bai, eta harek ahuntzak eukitten jittunan asko. Harek etxaukan ganaurik han. Han Altos Hornos onduen, fabrikie dauken lekuen hor eiñ euen etxe bat, eta etorri zien horti zeeti, Elkoroti ero horti, San Prudentzioti hara. Ta biñ artien etxie eiñ auen han da ortuek eta. Gero ahuntzek eta erlie ta, basuan topauta erlak eta eukitten zittuen asko, da gero fan zan ba Karmen haren famelixako zera zan, da tio zittuen haik, eta fan zan ba bisittetan egunen baten baten batekin fan zan, eta gero honutzien esnie emutsiela, kafesnie ero esnie zera, goxien ero fan zanien. Da "kotxiños!, behin fango bisittetan da, kotxiños, txarrixe, ahuntzen esnie".
-Haintzako normala, (...)
-Amorro ona euken harek. Ahuntzen esnia...
-Baiña behin hiru-lau bider hartu ezkero. Ahuntzan esniak txarrik eztauka ezebe.

1.41. Baserrian ur-korronterik ez umetan

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-008/002
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:02:25. **Bukatu**: 00:03:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Eulali, Apotzaga auzokoa, Zelaikua baserrian jaiotakoa da. Umea zela etxean urik ez eta putzutik atera behar izaten zuten.

Transkripzioa
- Zu, berez, Eulali, nungua zara?
- Ni Apotzakue.
- Apotzakua…
- Bai.
- Eta basarrixan izena?
- Zelaikua.
- Zelaikua baitta?
- Bai, halaxe koinzididu zan! Zelaikotik Zelaikora etorri nitzan. Horixe da rarue, ezta? Bai, halaxe tokau zan.
- Eta zeuen basarrixan be, zeure akorduan, urik-eta bazeuan?
- Urik, holan, fregaderan? Gero, ni txikiñe nitzenien jarri zan. Baiñe bestela pozaderan. Pozaderie euen ta gero pozaderatik ataratzen zan holan “ra!”, holan, ez dakitzu? Erain, erain katxarro bateri ta “ra!” urteten euen. Ta

gero ha, ha estropiau zan eta gero pozalakin. Pozalakin ibiltten gitzen. Gero jar…
- Eta pozala zer da? Pozala zeri esaten detsazu?
- Hiztuna 2: Pozala da “balde”, “balde”.
- Bai.
- Hiztuna 2: Balde bat, balde bat.
- Bai, hori da, pozal bat, bai.
- Hiztuna 2: Hemen pozala esaten […].
- Bai, pozala esaten zan, bai. Ba, pozal batekin…
- Eta, orduan, erainda urtetzen zan ura…
- Bai, bai.
- Hiztuna 2: Hori ez dozu ikusi…
- Pelikula… bai, telebisiñuan edo.
- Hiztuna 2: … Oesteko pelikuletan?
- Bai, hori da, hori da. Bai, bai, bai, bai.
- Hiztuna 2: Bonbie, bonbie. Bonbie da, eskuzko bonbie.
- Bai. Eta gero, ba, ni neskatillie nintzela, ba, apurtu zan, estropiau zan ta gero… diruik be baeuen, ba, ifintteko? Ba! Ordun ez euen diruik be ifintteko. Aurretik ifinitta, ez dakit, dios sabe nos ifinitta egongo zan! Eta ha apurtu zan eta gero pozalakin ataraten geuen. Gero jarri zan, ezta? Itturrixek-eta ifini zittuen, baiñe… Bai.

1.42. Gaztetako ibilerak; auzoetako jaietan gonbidautzak egoten ziren

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-009/001
- **Iraupena**: 0:04:40. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:04:40
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena**: Gonbidatuak etxera. Zer jaten zuten: salda, aza-garbantzuak, okela, flana... Salda hartu eta meza nagusira joaten ziren. Alaitasuna nagusi denon artean. Lehenago gazteek asko disfrutatzen zuten horrelako jai egunetan. Batzuetan eurenera, bestetan beraiek senideen etxera joaten ziren. Gaztetako ibilerak; oso oroitzapen onak ditu orduko bizimoduaz. Baserriko ekonomia; zorrik ez baina dirurik ere ez.

Transkripzioa
-Saldia. Eta konbidauek etorten zienerako ba egoten zan salda ona eindde, porrue ta perejilla sartu, eta kriston perolakadak, zerak eindda egoten zien etorten zienien konbidauek, meza aurretik jeneralien. gero meza nausittara fateko. Ta ataraten jaten ba saldie, etorten zienien, saldie, euren baso ardaotxuekin, eta ogixe, eta gure ebanak zatitxuek ein eta hartzen euen saldie ta gero meza nausittara faten zien danak. Meza nausi ostien ba egoten zan jeneralien orduen garbantzue izeten zan. Aza-garbantzuek haxe nahikua. Azak eta garbantzua. Okeliakin. Ifiñi morduek okela gaiñien. Okela egosixe ta hola ifiñi ta txorixue ta holan gaiñien ifiñi ta ataraten

zeuen bi edo hiru fuentetan, ze jente asko juntetan zan eta. Eta gero gaiñien ba oillaskue. Oillaskue patata erriekin, edo ensaladiakin, edo holaxe ataraten zan. Eta gero arrozkoletxie edo flana. Gure amak itten zittuen flanak ederrak. Beste postregintzaik ez dakit asko jakingo euen. Arrozkoletxie ta zerak eitten zittuen ederrak, e, flanak. Eta ha izeten zan jaixetako zera, postria. Flana edp arrozkoletxia. Ba horixe izeten zan. Gero alegre, kantau ta, jentia alegre egoten zan, e. Alegre baiña, e. Kontuak esan eta kantau ta tiuak eta. Gero holakotxen baten ardaue be eraten zan eta gero ardauakin piñ-pil ein, eta gero, bueno!, dana alegría izeten zan, alegría. Eneee! Gero beste leku batzutatik be, gurien gazte jentie euen ba asko; beste leku batzutatik, Arozteittik-eta?, Bedoñakuek, Arozteikuek be baeuken bere zera, parientiek han, eta haik be etorten zien. Danak azkenien Zelaikora. Zelaikuen bueltia eitten euen eta euken, salie euken haundixe, haundixe euken salia, ta hango triki-traka-triki-traka, eta hango dantzia eta. "Botako ete joskuk guri paretok? Botako ete jittuek hemengo ormok, zera?" Hango dantzia eta..., ene! Baiña pasetan zan elegante, e! pasetan zan ondo. Haxe, disfrutau. Horregatik esaten dotsut. Gaur... gaurko gaiztiei esaixoxone hori, eta zuen modukuei. Esaiozue hori bai, eta puf! Baiña orduen ez zaon besteik. Eta horrexegaz disfrutetan zeuen; horrexegaz disfrutetan zan. bai.
-Gonbidautzia zanian batzuetan tokauko zan alde batera joatia eta beste batzuetan bestera.
-Klaro! Geu be holaxe faten giñan Bedoñara-ta. Bedoñera, Zubillagara. Zubillagan be han geuken tiuek. Bedoñera, Bedoñan be bi etxetan geuken, eta bedoñera fatie asko gustetan jakun, hotzak haundixak eitten zittuen eta bertan geratzen giñen lo itten. Eta tiak ifintten oskun han ohie, baiña, enee!, izotza lakotxe hotza egoten zan. Bi aizta edo sartzen giñen barruan, bai, eta hala be ezin berotu, ezin berotu. Ez oskun ardura, ez oskun bape ardura, hala ta guzti be ondo pasatzen gauen. "Ondo in dozue lo?" tiak jagiten giñanian, "ondo in dozue lo?", eta. "Ai, hotz puxkat" Ene!, hotz euki dozue?". Hementxe ladrillue, hementxe don ladrillue eruen zeikien" eta. "mentxe don ba ladrillue", ... Ez zoskun guri inporta. Kustiñue da ondo pasetia. Ondo pasatzen zan. Nik esaten dot oin askotan [entzuten dot]: "Ai, gazte-denporia geizki!". Nik esaten dot: "gaste denporia geizki?". Nik ez juat /etxuat/ ba geizki pasau sekule. Guk ez geuen diruik. Gurian ez euen diruik. Nik horreatik esaten dotsut: ez euen diruik. Zorrik be ez, horixe ez. Zorrik be ez baiña diruik be ez. Gure gurasuek ez zien /etxien/ zorrik ixtekuak, hoixe ez. baeuen ekarriko zan, eta ez baeuen barriz euenakin pasau. Baiña zorrik ez. baiña diruik be ez, e! Nundik egongo zan dirua?

1.43. Gurasoen jatorria

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-009/002
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:04:40. **Bukatu**: 00:05:50
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Gurasoak ez ziren baserritarrak. Ama, Donostian jaiotakoa eta Azkoitian hazitakoa. Aita, Eskoriatzan jaiotakoa. Ama neskame joan zen Eskoriatzara eta bertan ezagutu ziren.

Transkripzioa
-Zure aitta-ta basarritik bizi zien?
-Gure aitta ta, nire ama ta ez zien bata be baserrittarrak. Bixek zien kaletarrak, bai aitta ta bai ama.
-Eta zela ba?
-Ba denpora haretan ba kalien ez zan eongo ezebez, kalien be ez zan eongo ezebez. Nire ama Donostian jaixua zan eta Axkoitin hazittakue, eta aitta, barriz, Eskoitzan jaixo eta Eskoitzan bizi, eta Eskoitzatik ama etorri zan Bergarara, eta Bergaratik ba, hor ezautu zien, eta ez dakit beste etxen batera etorri krieda eta hemen asentau zien. Eta ezkondu zien ba, pentsaizu ze eukiko euen. Batak be ez txakur txikirik be ez. Batak be ez. Asi ke horregatik esaten dotsut, nahikue ein euen hamar seme-alaba atara euen bestien; bata baiño tantai haundixauek, bata baiño bestie haundixauek.

1.44. Baserriko ekonomia noiz hasi zen hobetzen

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-009/004
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:07:30. **Bukatu**: 00:11:20
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena**: Baserriko ekonomia. Ezin baserrian obrarik egin, dirurik ez zegoen eta. Pinudiak sartzen hasi zirenean; edo kalean lanean hasi zirenean, orduan hasi zen dirua sartzen baserrietan. Ahizpa nagusienak lantegian lanean hasi ziren. Irabazten zuten diru guztia amari ematen zioten.

Transkripzioa
- Eta ez euen ezebez, ez euen diruik.
-Esaten dozu ez euala dirurik eta zorrik eta be ez. Baiña orduan familixa artian-eta entzunda daukat, obraren bat egin bihar zanian tio-tiari edo prestamo txikixak...
-Baiña obrak, nundik eingo zittuen ba obrak, ez euen diruik eta. Baiña zuk pentsau bihar zauen zuk eskaketan bazauen dirua, orduan ez euen prestamoik bankuetan. Zuk prestamon bat eskatu bihar bazeuen, zuk konturatu biher zauen aurretik ezin bozu aurreratu, zu zela aurreratu biher zauen gero ha pagetako? Keba! Ni ez naz akordetan gure etxien... Akordetan naz txikitxue nitzenien, ni gaztetxue nitzenien ifiñi zan ekonomikia. Sukalde bajue kendu eta ekonomikia. Akordetan naz su bajuekin be. Su bajuekin akordetan naz. Zazpi-zortzi bat urte edo hola eukiko nittuen ifiñi zanien gurien ekonomikia. Baiña ekonomikia ifintteko ez dot uste iñora diruik eske fan zanik. Orduen zuk kosta be zer? Auzoko gizon bat, Arozteikuek, Ximon: "Joño, ekonomikie? ekarri ekonomikie", berak kolokau. Ekonomikie hantxe kolokau eta ya esta. Ez azulejuek eta ez besteik. Keba! Di-da!, ixepuekin emon zera, zurittu ixepuekin eta ya esta. Ez euen, keba! Orduen ezin leikien obraik ein be ein! Ze obra eingo zeuen, ez euen diruik eta. Dirue noix ein zan segittuan agertu da, segittuan. Piñuek eta. Baserrixak piñuek ein daue. Bestela baserrixa hundidu... Edo

seme-alabak hazi dienian fabrikan, orduentxe. Zegatik ni akordetan naz gure, nire bi ahizpak, nausixenak gerra denporan hor fabrikan eitten euen Beroan, ba dana eitten zan gerrarako jenerua, eztakitzu? Gerrarako eitten zan. Eta orduen ba, jolin, ordureko nahiko ondo pagetan euen. Nahiko ondo pagetan euen eta jentie biher euen lana eitteko, destaju itten zan lana; eta nire aiztei esan utsien, eta aiztak fan in zien, aizta bixak nausixenak etorri ein zien. Eta, jolin, eztakitzu zelako ilusiñuakin pagetan utsenien amai, zelako ilusiñuekin, da!, e, txakur txiki bat be itxi barik, eta zelako ilusiñuekin amai entregetan utsen dirua. Txakur txiki bat beretzako barik, e! Ez oingo moruen, a, erosten..., irabazten dana noberentzako? Keba! Txakur txik bat be itxi barik beretzako, haxe ilusiñue amai entregetan. Amai entregau, e. Diru danak. Eta ba holaxe itten zan. Eta ama pozik. Haxe amak apurtxo ba ezpada be gorde, apurtxo bat ezpada be gorde, eta holaxen, harexek hasi zienien lanien, bi nausixenak, gerra denporakuek harexek zien, nausixen bixek, nik neuken hamabi urte, hamahiru gerra-denporan. Ni artien gaztia; Felix gero, nire aurrekua zan, ta gerotxuao hasi zan ha be lanien, hamalau urtekin fabrikara lanera. Eta ordurako ba irabazi itten zan. Eta harexek hazi apurtxo bat, eztakitzu?, ze bestela ez euen basarrixan ezebe.

1.45. Baserriko ekonomia: esne-saltzea; pinudiak; lantegiko lana

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-009/005
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:11:20. **Bukatu**: 00:12:55
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena**: Aita oso ganaduzalea zen. Esnea saltzen zuten kalean (ospitalera ere eramaten zuten). Horrela hasi ziren diru pixka bat irabazten; gerora etorriko ziren pinuak; lantegiko lana; eta abar. Orduan hasi zen baserriko ekonomia sendotzen; ordura arte lana eta umeak besterik ez zeuden. Erlijioaren indarra eta eragina baserritarrengan.

Transkripzioa
-Ez euan baserrixan ezebe! Ezebez! Ez euan piñu bat, ez euan... Ganauekin in bihar zauen in bihar zana. Gurien afeziño haundixe aittek euken ganauetara. Esnie saltzen geuen. Esnia. Ganau onak eukitten zittuen. Eta esnie batzen euen eta esnie saltzen zan. Ospittalera guk urte askuen eruen geuen, Eskoitzako ospittalera esnia. Eta gero geuken hareaz geiñera beste bezero batzuk. Eta eskerrak horri, esniekin. Hillen azkenien, batzuk hillien kobretan zien, ospittalekuei hillien behin kobretan zan; beste batzuna ba astien behin, hamabostian behin. Eta ha izeten zan ba diru feskotxue. Gero ganauentzako pentsue erosi edo etxera ekarteko pentsue, ez dakitzu? Ganauei be pentsue emun biher izeten jate eurak emungo badaue. Klaro, pentsu apurtxo bat ekarri edo. Ba handixik hasi zan baserrixa apurtxo bat, eta gero piñuek, hasi zirenien piñuek ba orduentxe baserrixa hasi zan apurtxo bat baserri eitten, e. Aurretik zer? Zer aurretik? Lana besteik ez euen eta. Lana! Umiek eta lana! Bakitzu zenbat ume egoten zan orduen? Dana pekatua zan, dana pekatua. Ez zan ebitau bihar umeik, ez zan ebitau

bihar umeik. Jangoikuak emuten zittuenak danak. Eta bakitzu zenbat ume etxietan? Horregaz abadiek be ez euen euki kulpa gutxi, e! Abadiek be ez euen kulpa gutxi euki. Nik askotan esaten dot abadiek be ez euela kulpa gutxi euki. Abadiek be batetik bestera baezen diferentziak egoten zienak.

1.46. Ezkondu aurretik amak emandako kontseilua

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-009/012
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:33:00. **Bukatu**: 00:36:13
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Cecilia ezkontzekotan zegoela, amak eman zion kontseilua.

Transkripzioa
-Nire amak ezkondu nintzenien badakizu ze esan usten? "Bueno, ezkondu biher zariela diñozu, ta gauza bat esan biher dotsut: askotan gizonak beste jenixo bat eukitten daue, eta nahiz ta zeuk errazoie euki, zuk ixilik apurtxo baten, zuk ixildu apurtxo baten, segiran pasauko jako. Eta pasetan danien, esatekue bada, orduantxe esan. Ez esateko, inportantzia bakue bada, itxi hor konpon; eta orduen zuk gure dozuna ingo dozu". Amak. Amak esan usten hori. " Orduan zuk gure dozuna. Gizonai itxi apurxo baten ixilik. Nahiz ta arrazoie euki, itxi apurtxo baten ixilik. Pasetan jakonian, orduan esatekue bada, esan. Bestela berriz hor konpon, Zeuk gurozuna eingo dozu hori eitten badozu". Eta errezoie ikaragarrixe eukan! Ikaragarrixe! Ikaragarrixa!
-Arrazoia orduan amak?
-Ikaragarrixa euken arrazoia. Baiña askok ez daki hori eitten.
-Zailla da eta.
-Zailla da?
- [...] Lehenago andrak beste modu baten hasten ziala.
-Bai. Eske pasetan dana, oingo gaztiak ez dakixe lehengo moduen andrak erueten, aguentetan. Ez dakixe, aguentetan ez dakixe lehenauko moruen. Nik ez dot esaten larregi aguentau biher dala. Ba hori be ez da komeni gauza danak gaiñ hartzia. Ez. Baiña gauza askota, iguel, ba!, hor konpon ein eta zeuk urtengo dozu hobeto. Hor konpon, aaa!, hor konpon! esan bai ta...
-Eta orduan normala izaten zan ezkontzeko orduan amak konsejuak emutia ta?
-Ni neuri emun usten; oin, beste batzuei emuten utsen ez dakit. Neuri hoixe esan usten. Eta askotan [esan dot], euken errezoia... Eneee!, zelako errezoie euken. Ikeragarrizko errezoia. Zuk gizonak ekitten dotsu: "Bai, horreatik...!" Hasarre askotan, badakitzu ,lanagatik edo horregatik hasarre. Hasarre-ta, zuk oinddio geiñetik ekitten badutsazu pues sanseacabó! Zuk oinddio geiñetik. Gizona hasarre eta zuk oinddio geiñetik ulu haundixauak ataraten ekitten badutsazu, ba kitto! Oin, danak ez dauela eukitten hori pazientzioi... Hoixe egoten da. Niri jangoikuek horixe emun usten, pazientzie haundixa. Baiñe ba..., ta biherra izen dot, biherra izen dot.

1.47. Dotea, baserriaren garrantziaren araberakoa

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-009/013
- **Iraupena**: 0:04:01. **Hasi**: 00:36:13. **Bukatu**: 00:40:14
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Ezkontzak; arreoak nolakoak izaten ziren. Maiorazgo etxeak; linajeak. Dotea baserriaren araberakoa izaten zen; zenbat eta baserri handiagoa, arreoa ere dotoreagoa izan behar zen. Arreoan zer eramaten zen. Lihozko (linozko) arropak.

Transkripzioa
-Zuk ezautu zenduzen arriuak-eta burdixakin eruatia batetik bestera?
-Ez, ez neuen ezautu.
-Zure aurrekuak izengo zien.
-Bai, aurrekue zan, ez. Ez neuen ezautu. Arriuekin-eta kontu hori ez neuen ezautu. Oin, erueten zala eta bai. Zelako arriuek eta gurien papel zaharrak badaz, ezta, eta ba horrek han ifintten dau zelako arriuek-eta erueten zien eta, zenbat izera eta zenbat...
-Dokumentuetan jasota dauz?
-Bai. De aquellos tiempos, e. Eta han ifintten dau honenbeste izera, hainbeste sobrekama, hainbeste almueda-azal, koltxoie... Gero kaldara kobrezkuek, kobrezko kaldarak, almaize.
-Almaize zer da?
Gizona: Almireza.
-Almaize, txaka-txaka-txaka joteko hori, ez dakitzu? Brontzezkuak izaten die. Bai. [...] Badao gurien oinddion. Eta holako...
-Gizona: Dotie.
-Hori zan dotia
-Eta segun ze basarrittara joan, dotia altuagua ala?
-Honbre! Bazan, porrejenplo, maiorazkue faten bazan, maiorazko etxeko bat faten bazan beste maiorazko etxe batera, ba zuk dotie betik gehixao eruen biher zeuen. Ez zan errenteruen moduen. Horregatik errenterue beti sobrauta egoten zan. Errenterue ezin leikien eruen ez eukelako... Askotan zerak be ez, zela da?; horreik be diruz antzera egoten zien errenteru etxian eta maiorazko etxien antzera egoten zan diruoi, baiñe hori famioi, ez dakitzu, hori maiorazko famioi, maiorazko famioi. Putz eitten dutset nik horri maiorazko famiorri! Lehenao hor egoten zan "liñajie", esaten zan, "liñajie".
-Eta liñajekuek liñajekuekin?
-Liñajekuek liñajekue bihar izeten zan. Eta maiorazkue ezkonketan bazan beste maiorazko batekin, ba, zu, ha distingidu ein biher zauen zerien be, arriuan be. Distingidu in biher zauen. Honenbeste izra, honenbeste sobrekama, honenbeste koltxoi, hainbeste... laixak, laixak. Eta honek...
-Gorutan eitteko...
-Hori da. Goruetan, zela esaten jako hari, goruetan eittekuai?
-Ardatzak eta...
-Bai. Ardatzak, horreik. Eta, ez jata /etxata/ akordetan [goruetan eitten zana], traka-traka-traka erain eta. Ezautu neuen nik geure etxian hola

hankiaz zelan eraitten jakon eta itten zan hori batu. Ez naz akordetan zera. Akordauko naz gero, baiña momentuan ez naz akordaten.
-Zure akorduan linurik ez, ezta?
-Ez. Liñoik ez dot ezautu.
-Eta ehunezko erropak?
-Ehunezko erropak bai. Oindio be egongo die gurian ehunezko erropak, ez die usetan baiña. Holaxe itxitta rekurdo moduen edo.
-Zure gurasuak-eta erabiltzen zittuen?
-Gurasuek bai, inddakuek zien, e. Nire gurasuek inddakuek zien. Neu ez naz akordetan. Nire akorduen ez, hori gerra aurretik. Ze ni akordauko nitzen izen balitze gerra ezkero edo gerra denporan izan balitze. Baiña horrek gerra aurretik zien. Nire akorduen ez.

1.48. Antzinako arropak

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-009/014
- **Iraupena**: 0:04:26. **Hasi**: 00:40:14. **Bukatu**: 00:44:40
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Antzinako arropak. Gurasoak nola janzten ziren. Buruko zapia; "monterie". Buruko zapia nola ipintzen zuten.

Transkripzioa
-Gurasuak-eta zelan jazten zian? Ez dakitt, ama eta gona luziekin?
-Klaro. Nire ama-eta ez neuen ezautu gona luziekin. Ama ez neuen ezautu. Ez. Ama geure moduko... Hemen erretratuen ikusten da. Amak geure moduko abriguekin. Edo zapatak bere takoitxuekin. Edo, bai. Hortxe daz nere ama-ta, ekarri bixek, aitta-ta ama bixek. Bixetakuek. Ez, nire amak ez euen eruen buruko paiñolorik sekula be ez. Eta hemengo amak be ez. Eta ostera amandriek bai. Amandriek buruko paiñelue dotore ifinitta.
-Eta buruko paiñeluena ze izaten zan? Behin ezkondu ezkero buruko paiñelua ipintzen zan edo?
-Bai, aurretik be bai esaten dauenez. Aurretik be bai.
-Ezkondu aurretik be buruko paiñelua eruaten zan?
-Aurretik be bai. Hori da nire aittan-eta, Jesus..., nire gizonen aitte ta ama; Santiago eta Bibiana.
-Ze guapia!
-Oso guapie zan e, ma, e! Jolin! Menudos ojos! Jolin! Oso guapie zan. Ta aitta be gizon majue zan, formala-ta, bueno! "Más majo...". Oso. Eta hemen gure aittek eta amak hamaika urten aldie eukien -[...]
-[...] Porejenplo honen amandire, honen aman ama betik ezautu neban holaxe txanbriaz. Txanbrie ifintten euen eta txanbrien gaiñetik amantala. Ifintten euen monterie ibiltten euen betik. Dotorie, altie ta zera zan honen amandrie, Apotzakua.
-Monterie zeri esaten detsazu?
-Monterie? Buruko paiñoluai monterie esaten jako. Bai. Monterie dotore ifinitta, e.
-Eta esaten dozu orduan ezkondu aurretik be buruko paiñolua ibiltzen zala?
-Bai. Lehenao erueten ei euen ezkondu aurretik, ezkondu aurretik. Ezkondu

aurretik. Gaztiekifintten ei zittuen buruko paioluek. Honein amandrie, "Amandrie Txikiñe" esaten gutsen [...] Bat zan txikitxue ta bestie zan altia. Eta horregatik esaten utsen, bisabueliai esaten gutsen "Amandria Txikiña". Eta bestiei amandrie, baiña bestiai "amandria txikiña". Ha zan txikitxuaue. Gizona: txikitxue zalako.
-Buruko paiñelua bi puntakin edo zela ipintzen zan?
-Dotore ifinitta, e! Dotore eitten euen amandriek. Nik makiña bat bider orraztu neben hemengo amandrie; orrazketan neuen eta hemen eitten euen berak moiñotxo bat. Eta gero ifintten euen buruko paiñelue dotore, e. Hola atzeratu, hemen apurtxo bat hola harro ifintten euen, eta holaxe bi punta, ifintten euen lotu, korapilla ein, eta ra! tiraketan utsen hola; ifintten euen hemen bi hola, bi hegotxogaz, eta hemen, hemen ifintten zittuen holaxen. Dotore itten euen, dotore. Bera be dotoria zan, e, bera be oso pizpi(r)ittia zan.
-Orduan abarkarik-eta zeuk sekula ez dozu erabili, ez?
-Nik ez neuen sekula ezautu amandrie (amaren argazkia agertzen da) Horixe da, horixe da Amandrie txikiña.
-Ikusten dotsat ulia dakala bistan, ikusi eitten jako.
-Bai, ulie. Eske harek ez euen hemetik ifintten sekule; harek hemetik ifintten euen, hemetik.
-Baiña zeren modu diferentia, batzuk ya gero tapau eitten zeben edo?
-Ez, ez, ez. Ulie ez euen sekula tapetan. Harek ulie hemen, eta gero hemetik. Eta gero sartzen euen orratza, holan orratz-burubaltza, hori afiel burubaltza. Sartzen zittuen hemen bi, han eutsin deixen, joan ez dakixon atzera.

1.49. Oinetakoak: abarkak; zapatak

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-009/015
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:44:40. **Bukatu**: 00:46:15
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Oinetakoak nolakoak. Abarkak oso gutxitan erabili ditu. Narruzko abarkak; gomazkoak. Gerra osteko gomazko abarkak, oso kalitate txarrekoak.

Transkripzioa
-Orduan zuek abarkarik eta sekula ez dozuez jantzi.
-Neuk abarka gutxi ibili dot.
-Zapatak edo botiñak edo?
-Bai. Honek Txirukak edo honeik. Txirukak esaten utsena ibiltten gittuen baiñe gutxi, gutxi [...].
- [...].
-Haretaikoik sekule ez dot ibilli.
-Gomazkuak gehixao?
Gizona: Bai. Gero gomia egon zan txarra hor gerra ostien eta.
-Bai, gogorrak zien, oso goma gogorrak, gerra ostien eta. Orduan gauza onik ezebe ez euen eta! Ezebe ez euen. Francon letxe dana txarra. Dana txarra euen.

1.50. Buzkantzak

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-009/022
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:57:30. **Bukatu**: 00:59:35
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Familiari ez zaio ardi-odolez egindako buzkantzik gustatzen. Ganadu-odolez egin ohi dituzte eta suabeagoak irizten diete.

Transkripzioa
-Hau ardi-parajia da hau?
-Ez. [...]. Ardixek hor beste zeretan eta badaz.
-Leku batzutan estimaziño haundixa euktitzen dabe buzkantzak. Hemen inguruan bai?
-Bai. geuri ez jaku /etxaku/ gustetan. Egixa esanda, geurien ez da gustau sekule ardixekin eindako buzkentzik. Guk buzkentzak eitten dittugu, baiña ez ardixenakin.
Gizona: Kuaretaiunuan egon baliez...
-Gure seme-alabei ardixez eindakuek etxate gustetan. Larreiko fuertiek irizten dutse. Eta guk ein izan dittugu, urtero eitten dogu, baiñe erositte ganauen odola. Ez ardixena, ezpadabe ganauena, eta sebue be ganauena. Urteten daue asko be suabiauek. Geuretzako gozuauek, suabiauek. Ardixenak larreiko fuertiek.
-Paraje batetik bestera ba aldatu eitten die gauzak.
-Bai, guk ez dittugu ezautu, neuk ez dittut ezautu sekule etxien ardiik eta ez jat /etxat/ gustau izen, sekule ez jat /etxat/ gustau izen. Eta honei gure alabiei ta berriz, e, puf!, horrek entzuteik be ez daue gure. Entzuteik be ez, ardi kontuik?, enee! Eztaa... Ezta okelaik be ez, e. Ez, ez, ez. Gurien Rosa Marik nausixenai, hemen etxien bizi danai, buenooo!, eziozu esan. Ezta..! Beste edozein gauza eingo dotsu baiña ardi konturik-eta ez, e. Juanitok billotxak be hil izan dittu baiña ez horrek hestiek garbiketie eta hori be ez, e. Beste erozein gauza eingo dau, baiña holako gauzaik ez. Txarrixenak bai berak bere konture, eta beste gura dozune, baiña hori ez, ardi konturik ez.

1.51. Aretxabaletako buztargilea

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-009/023
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:59:35. **Bukatu**: 01:02:20
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Lanbideak » Arotzak
  Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Garai batean auzoko baserri guztietan izaten zituzten idiak. Buztargilea Aretxabaletan. "Pagua laurendu".

Transkripzioa
-Eta idirik hemen?
Joanito: Oin ez dao, baiña lehen baserri danetan.
[...]
-Baserri danetan zer?
-Irixak.
Joanito: Hemen auzuan bezino danak sasoi baten. Oin iririk ez dao Atxabaletako herri barruan iñun; Ez dao iririk.
-[...]
-Iñor bizi be ez da baserrittik eta. Ez da iñor bizi. Egixa esanda, gaztiak daozen lekuan be ez daz /eztaz/. Gazte asko ez dau baiña. Badaukie ganauak baiña zelaixe garbi eukittiagatik edo ba. Baiñe bestela ez. Ez da iñor bizi.
-Eta hemen inguruan irixak eta zekazuezenian, uztargilerik inguruan bazeuan edo?
Joanito:Hemen Atxabaletan egon zan uztargillia, bai. Baiñe uztargilliak asko egoten die, uztarrixa eitten dakixenak gutxi. Ez da igual uztarri bat eittie adornuak itteko edo irixeri azertetie, iri bixei ondo. Eta Atxabaletakue ez zan, e...
-Ez zan ona?
-Ez. uztarrixak oso polittak itten zittuen baiña irixei asentau ez. "A medida" itten [...] ez zekixen.
-Eta hori zer izaten zan, bera etortzen zan basarrira eta?
-Bai. Neurrixek hartu, pagueekarritta biher izeten geuen aurretik. Pague izeten zan, "laurendu", eta pago laurenaz itten zan.
-Eta egun batian eitten zeban edo?
-Bai, bai, egun baten itten eben, goxien etorri ta.
-Artia, ez, bihar dau.
-Bai. Bi itten zittuena be antzuelar bat, e, egunien bi itten zittuena; eta ondo itten zittuena. Oñatin be baeuen beste bat, hari "Uztarri" esaten utsen. Harek inddako uztarrixe ikusitta dauket; bera gurien uztarrigiñan ez. Azkenengue Bergarakur zan. "Bergarakúa" azkenengo ein ebena.

1.52. Kobrezko galdarak; ganajatekoa egosi egiten zen

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/002
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:00:30. **Bukatu**: 00:02:30

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Kobrezko galdarak zertarako erabiltzen ziren. Batzuk ganajatekoa prestatzeko izaten ziren; arbia egosi egiten zen abereei emateko. Beste batzuk, morokila prestatzeko erabiltzen zituzten. Ganajatekoa nora botatzen zitzaien behiei.

Transkripzioa
- Maria: Bestela, horreik eukiko dittu iguel berrehun urte iguel.
- Horrek galdarok zetako erabiltzen zian?
- M: Horreik, ba…
- Patxi: Horreik usau gutxi.
- M: Usau gutxi, baiña [batzunbatzuk] bai.
- Ze zian dekoratzeko gehixao?
- M: Baiña arbixa egosi ta holako gauzak eitteko.
- P: Arbixa egosi ganauendako, pentsue eitten zan. Arbixe…
- M: Ta ure berotu ta…
- P: Arbixe da ganauendako, guretako azie edo porrue, ba, berdura bat. Botatzen jako zahixe edo urune edo bota ta… Beste pentsurik ez auen.
- M: Oin urtiokin… ba… nik berrogeta hamahiru urte daroiet eta nik hola garbittu nittuen ta, ba, hor adorno daz.
- Eta, orduan, galdara horrek erabiltzen zian, hori, ganaujatekua preparatzeko?
- M: Bai, bai. Edo morokilla eitteko. Ha txikixaue. Morokilla eitteko.
- P: Bai, edozein zerbiziño itten euen horreik.
- Baiña noberan bazkaixa preparatzeko ez?
- M: Ez.
- P: Bazkaixa preparatzeko ez, haundixek die bazkaixa preparatzeko.
- Horretarako lapikuak?
- P: Bai, lapikuak.
- M: Ure beroketako bai. Orduen lehengusue zela euen bakarrik, hor gelatxuen ixei ta ure berotu ta itten zan. Ta arbixa egosi be hola itten zan.
- Eta ganauari arbixa egosi eta gero nora botatzen jakon?
- M: Askara.
- P: Askari ganauei. Izeten zien kamelak edo beste holako kajoi txiki batzuk…
- M: Kamelatan ipintten jaten.
- P: … eta han ifintten zan erraziñue ta botaten jakon…
- M: Arturun pixkatekin edo nahastu ta…
- P: … urune euena-ta nahastu ta ha zan…
- Eta esaten detsazue, kamela?
- Guk kamelie esaten gutsen, bai.

1.53. Bidegintza; lehenengo autoa baserrira noiz ekarritakoa

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/005
- **Iraupena**: 0:04:10. **Hasi**: 00:05:30. **Bukatu**: 00:09:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena**: Bidea ere asko hobetu da azken urteotan. Bidegintza kontuak; hasiera batean eskuz eta auzolanean egindako lana. Poliki-poliki bideak hobetuz joan ziren. Lehenengo autoa noiz eta nondik ekarri zuen. Gasteiztik Aretxabaleratako bidaia.

Transkripzioa
- Kamiñua lehen ze zan?
- M: Bidia, bide zaharra.
- Burdibide edo halako…?
- P: Bai.
- M: Pixkat konpondu ta hola todounokin ta, ba, kotxiek ibiltten giñuzen…
- P: Beti ibili ga´ geruao hobetuao guran. Bidegiñen lehenengo eskuz [ein giñuen]. [Irabandi] Arientzaraiño eskuz. Apur bat zabaldu ta todouno puskat bota paliaz ta kotxie pasetako bestien, justo samar. Gero gehitxuao, gero Boliñaraiño zeoze. Baiñe eskabadoraik eta ez euen ta dana eskuz. Ta hori danoi auzolanien, e! [Auzoko dana]… auzoko jentie juntauta.
- Eta gitxi gorabehera akordatzen jatzu ze urtetan ein zenduen bidia?
- M: Hau kamiñuau?
- Bai. Bueno, edo lehelengo…
- M: A! Lehelengo horrek bidiek? Ba… horrek ein zien berrogeta…
- P: Bai, urte askotxo da.
- M: Berrogeta hamar urte.
- P: Urte askotxo da!
- M: Berrogeta hamar urte.
- P: Automobillek pasau ezin euen…
- M: Bai, […] zanien, […] zanien.
- P: Bai.
- M: Orduentxe ein eben.
- P: Bai. Automobillik ezin zan etorri artien ezelakoik be. Ta ordueintxe hasi giñen pixkatxo bat zabaldu eta apurtxo bat hobetzen.
- Eta ordura arte, bueno, ba, plazara edo nunbaittera jeisteko?
- M: Astuen.
- P: Ba, plazara… bai, bai.
- Astuakin, ta bidia zer? Neguan eta, lokatza ta…
- P: Bai, bai, bai, ba, euen moduen, ahal zan moduen. Ez auen orduen kotxien amesik be ez auen. Ez eueken ez alkatiek ta ez [alkatetxuek] kotxeik. Ta…
- M: Hori bidioi pixkat konpondu zanien ekarri giñuan, ba…
- P: Geuk be bai ta beste batzuk be bai. Ta oin, berriz, badakiu, danok bana.
- M: Zitroen furgonetatxo bat.
- P: Bai, makiña bat ibili giñan.
- M: Pagau giñun larogei milla pezeta.
- P: Larogei milla pezeta.
- Eta orduan…
- M: Ha zan diru pillua
- P: Bai.
- M: Larogei milla pezeta.
- P: Halaxe da, ba. Vittorixetik ekarri neuen. Hemen euki neuen lagun bat […] lana sortu zanien Telleria zan apur bat jefioi ta harek lagun ein osten.

Hemen ez auken kotxe batek be ajenziaik. Hemen Vittorixetik behera, Bergarara bittartien, ez dot uste euenik bat be. Ta haintxe Zitroenan haintxe horrek esan osten [...] horrek haintxe erosi leikiela. Ta berak lagun ein osten ta kotxia hartu nauen. Eta kotxia... Nik karneta atarata baneuken, baiña atrebidu ondiok... ta bieldu osten bere lagun bat kotxie ekarteko etxera, ba, Vittorixen hartu ta etxeraiño ekarteko. Zera zan, [Bedoñako Errastiko] Timoteo. Ta hartu geuen kotxioi, Timoteok hartu euen kotxioi, ta Vittorixatik apurtxo bat urten geuen ta "Bueno, oin, ba, heuk erungo dok?" esan osten, ta "Ba, bai". Nik bolantie, ba, ikesitte neuken. Bueno, ba, banatorrek. Ta kamioi bat etorren aurrien ta "Hi, beraana ez fan gero, e!" bera bilddurrez, ta "Ez, ez, ondo fango nok". Eta [trankil] etorri nitzen. Gero berak be ekarri euen zati baten barriro, baiña Mondraura, bera Mondraura fan biher zan ta. Ta Mondrautik Atxabaltaa primeran ekarri nauen, ta baiñe ezebe ikutu be ein barik eta ondo. Ha exitue zan; ya ondo ta ya esta. Gaur arte.
- Oseake, lehelengo autuak istorixia daka...
- Bai, bai, bai.

1.54. Baserriaren historiaren nondik norakoak

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/007
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:10:45. **Bukatu**: 00:13:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Baserriaren historiaren gorabeherak. Badirudi aitajaunak erositakoa dela; gerora basoak eta lur berriak gehitzen joan dira. Etxezahar; Etxebarri. Laietan ibiltzen zenean umetan, teila zatiak agertzen ziren Etxezahar izeneko parajean; esaten dutenez baliteke jatorrizko etxea bertan egon izana eta gerora tokiz aldatu izana.

Transkripzioa
- Basarrixan historixia badakizue, aittari edo amari entzunda?
- Noizkua danik eztakitt.
- Betidanik egon da zuren familixia bizi izaten?
- Nire aittek esaten euen gure aittajaunek Joxe Leonek erositta euela hau etxiau, hogeta hamabi errialien, haizenda, etxe eta dana. Baiña dirue ba, norberak eukena baiño aurretxauao fanda, dirue topau in biher. Eztakit nungo abariek emun utsela milla erriel ero-ta. Hola, holaxe topeutako diruaz erosi euen gure aittejaunak. Eta harrezkero geurie da. Gure aitten sasoien erosi zan hor baso zati bat. Eta ni barriz harrezkero ibilli naz ... terreno barrixek, oiñ honek mutillok hartu daue beste zati bat granjie eitteko, beste zati bat, kanpokue zan [...].
- Maria: Lehenago esaten ei euen hau etxiau han behian zala. Granjie dauen lekuan. Etxezar dauko harek izena. Eta Etxebarri hemen. Itxuria handik hona etxioi ganbixau zan. Oiñ bostehun urte-ero.
- Han labretan ibiltten gintzenien, laixen-eta, teille apurtxuek-eta agerketan zien lurrien. Eta teillie ezta..., Kurtzeberrin ezta teillarik. Teillie hemen, e, nunbaitt teillatun bat egongo zan; danoi be izengo zan txabola

morukon bat, ezta inporta, haxe etxia.
- Ha Etxezar eta?
- Eta Etxebarri hau. Hau da azkenengua.

1.55. Azken urteotan errenteroek baserria erosi dute

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/008
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:13:10. **Bukatu**: 00:14:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Baserri gehienak errentan hartutakoak ziren. Azken urteotan erosi dira gehienak.

Transkripzioa
- Sasoi baten hemen norbera zan basarrixan jabia, ala errenteruak ziren asko?
- Errenteruek gehixenak. Oinddio zenbat urte da ba honek Azatzako Urrutikue-ta saldu ziela be?
- Maria: Berrogeta hamar urtetik honutz etxe asko erosi daue basarrittarrak. Hemen auzuen bertan be Ardantza, Andikue… Eta [...] orduen ez zalako erosi hor dabitz, e, oinddio errenterue badago hor.
- Eta orduan etxejabe haundirik bazeuan?
- Hemen Txikiñekue bat. Horreik, e, terrenoik gehixen eukiko daue, mendixen be sail haundixek, ez dakit mugarrixek be nondik nora dien jakingo dittuen danak.
- Maria: Oin hori bardindduta dau.
- Bueno, guk oin be ez dauku baso asko, e.
- Maria: Baiña esan gura dot hori jauntxo izete hori bardindduta dagola oin. Lehen jauntxuek zienak oin erak igual atzerago.

1.56. Baserriaren errenta garitan

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/009
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:14:35. **Bukatu**: 00:15:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Etxe-jabeari garai batean baserriaren errenta garitan ordaintzen zitzaion.

Transkripzioa
- Etxe-jabiari errentia zela pagatzen jakon, garixakin edo diruakin?
- Garixakin, esaten daue, garixakin. Neuk errentaik ez dot pagau.

- Maria: Sarrittan familixa galantak, garixa entregau biher eta etxerako ogixa falta.
- Artue, zela-hala artue janda bizi.

1.57. Natura; arrano eta putreak

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/019
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:35:10. **Bukatu**: 00:37:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Natura » Fauna
- **Laburpena**: Txori-klasea aldatuta dago. Lehen ikusten ziren txori asko gutxitu egin dira; beste batzuk berriz ugaritu egin dira. Arranoak; putreak, eta abar.

Transkripzioa
- Lehen esan dozu txori klasia aldatuta dauala?
- Maria: Bai, lehen txantxangorrixa-ta lehenao gehixao pentsetan dot zala.
- Bai, txori klase bat dao, lehena txikixak asko zien baiña hareik kastau ein dia, baiña puxkat haunditxuaua, zozuen tamaiñu ingurukua ugerittu ein da.
- Maria: Txepetxa eta txantxangorrixa-ta eta horreik txikitxuok.
- Bateon bat ikusten dot…
- Maria: Horrek gutxittu ein diela pentsetan dot.
- Bai, gure ittoe inguruen bateon bat ikusi dot nik joan dan neguen be, baiña ez, e…
- Eta bestela txori haundixak, horrek arranuak edo?
- Horrek belak eta horrek?
- Maria: Arranuek be, lehen ganau bat akabatzen zan, ba, zelai ezkiñan-edo itxi eitten zan, ezta. Eta horra arranuek etorten zien, e, bandarie igual. Oin berriz ganau bat akabatzen da, eta zuk abixua emun biher dozu /bihozu/, eta eruen eitten dotsue. Zeuk pagau biher dozu /bihozu/, e, baiña eruen eitten dabe. Horrek arranua asko gutxittu, gutxitxuau… pentsatzen dot ein dabela. Oin be ardi banakan batzuk mendixen akabetan dienak…
- Horrek jango dittue, klaro.
- Maria: Eta gero Bitorixako parke haundixetara-ta lehen ganau akabauok apropos horreinddako eruen eitten zittuen. Oin ez dakit erueten dotsen janoi, horrek be zeozetarako…
- Putriendako?
- Maria: Zeozetarako. Bizi biheko daue horrek be! Baiña horrek die terribliek, terribliek, e! Puff! Iez edo noiz zan? Baiña bandarie geratuta, e. Eta horrek behetik gora-ta ezin dabe hegan ein, alturatxua bihe daue hegaz … hasteko.
- Alturatxura faten die, e, tauka!, tauka!, tauka! Aldiko salto bat, tauka!, heguek narras dittuela. Alturatxure ailegatzen danien jarten da behera begire ta, laaa! Hartzen dau buelua.
- Maria: Horreik be ba lehen ganaue hola ixten zanien… oin ganau dana jaixotzen danetik daukozu apuntaute.
- Oin identifikaziño haundixe dauko.
- M: Akabatzen danien zuk derrior parte emun bihozu. Ha numerue

daukena ba akabau ein dala-edo, etorten die eta erueten daue. Hori be alde batera ona da, garbittasune.
- Bai, bai.

1.58. Garai bateko basoak nolakoak ziren; belar-klaseak eta hauen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/021
- **Iraupena**: 0:04:50. **Hasi**: 00:40:35. **Bukatu**: 00:45:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
  Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Basoak nolakoak: gaztainadi handiak; haritza. Haritz-motza. Belarra ere segarekin ebagi eta baserrira eramaten zuten. Albitza. Belarra noiz ebagi behar den. Pagatxa erein egiten zen; hazia ere batzen zitzaion. Belar-beltza (sekula-belarra), igitaiarekin mozten zen. "Idaurre".

Transkripzioa
- Eta hemen inguruan zer izaten zan? Pagadixak izeten zien?
- Hemen? Gaztaiñie. Hemen piñu... dana gaztaiñie. Eta aretxa. Aretxa zakarra, gaiñera, halako... Aretx motza, aretx motza da, tantai itten ez jako ixten. Ebai ha egurra, sutarako...
- M: Baiña hemen gaztaiñia asko, itxuria. Baiña Gontzarrin gaztaiñia ez...
- Eta hola bedarra, klarue euen lekuen, bedarra segiaz ebagi eta ekarri etxera sikatute, e. Hori be sarri ein dot. Hor mendire fan segie bixkarrien hartute, oiñez, ebai bedarra, eta denporia ona eitten baeuen, laster igerketan zan, baiña bestela, bueno! Gaixki ibiltten zan.
- Eta gero zer eitten zenduan, burdixakin ekarri?
- Bai, burdixakin. Eta udazkenien, hau parajiau aiñube antzekue da, eta hor mendixen nekez igertzen zan. Ekarri hona ta larriñien zabaldu eta gero kamarara sartu. Ez euen harek be esne asko eukiko, baiña... Enfin.
- Bedarra esaten dozu basuan. Baiña gero zeuek ereitten zenduen bedarra?
- Maria: Keba. Berez urteten dau.
- Berez urteten dau. Albitze jeneralien. Basuen be badau bedar fiña. Mendi ostien "por ejemplo" bedar fiñe dau. Ardixek motz-motz eitten dauen lekuen fiñe, bai, hareik haundi eitten ez dutse ixten. Hareik ez dutse ixten, klaro, ardixe gaiñien dago-ta.
- Orduan albitza?
- Albitza da graminea bat. Leguminosa esaten dutsie honei, e, txidarra-ta. Garixen tipue dauko. Bedar bastuena esaten dabe baiña. Bere sasoian ebai ezkero danak bardiñek ei die. Hantxe bere sasoie hartu biher, berde-berde bururutze datorrenien, orduentxe; ez e burue urten eta han siketutekuen ia... puxkat pasaute.
- Eta bestela pagotxa edo?
- Pagotxia bai. Hori be zan forraje bat erein eitten zana.
- Baiña zeuek ez zenduen ereitten?

- Bai, eta hazixa hartu be bai.
- Maria: Pagatxie zan ona esnie emuteko.
- Pagatxia eta bedar baltza.
- Maria: Hazixa ataratzen, Mondragora ferixara fanda ibilitta gaz.
- Bedar baltza?
- Maria: Sekula bedarra. Hemen bedar baltza esaten jakon, guk sekula bedarra esaten guntsan.
- Bedar baltza ebai orduan igeteixaz eitten zan asko. Nik segiaz be ebaitte daukat, nire aittajaunek igeteixaz ebaitten euen. Eta Zuazubixkarreko Benitto egon ei zan gurien kriaua, eta gure aittajaunek erakutsi ei eutsen ipurdittik baiño apurtxo bat goragotik ebaten, hurrengoko kortie etorten ei da asko hobeto. Gure aittajaunen kontsejue kriauei emuteko.
- Orduan erein egiten ziren bedar baltza eta pagatxia?
- Pagatxie ez dau brotetan. Behin ebai ezkero fuera, e. Han artue erain bihe da berriro.
- Maria: Korte bat bakarrik. Baiña bedar baltzak badauko kortie.
- Bedar baltzari etorten jako hiru korte, lau, segun zelakuak.
- Maria: Itxi buruketan, orduen lorie ebai eta hazixa.
- Eta hazixari zeozer eitten jakon?
- Maria: Gorde, siketu, zakutan sartu eta gero biher zanien hantxe egoten zan.
- Ha bere forrajiaz egoten zan. Eta jo bihar dozu /bihozu/, idaegurre esaten jakon. Jo bedarran moduen... eta hazixe geraketan zan.
- Idaegurre zer da?
- Idaegurrek die bi makilla...
- Maria: Hortxe eskapeien esegitta dau.
- Esegitte bistan dau.
- Maria: Bi makilla, narru bategaz, holaxe zertuta, harek jiran buelta ein deixela. Koltxoiek eta be hola joten zien.
- Eta horrek dauka izena?
- Idaegurre.

1.59. Belar-ondoa eta haziak

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/022
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:45:25. **Bukatu**: 00:47:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Pagatxaren eta belar-beltzaren haziak saldu egiten ziren. Pagatxaren hazia eskuz batzen zen. Igitaia eta sega.

Transkripzioa
- Eta hazixa esaten dozue estimaua zala?
- Bai.
- Maria: Eta pagatxian hazixe eskuz batzen giñuen.
- Bai, hori be eitten geuen. Ha karua izeten zan, karutxuaua.
- M: Heldu-heldu eindda euenien, eskuaz tarras!, tarras! batzen zan.
- Harekin kilue eitten be ez zan samurre izeten.

- M: Baina hazi puruaue zan bedar latzana baiño. Ha pagatxia jeneralmente etxerako lain batzen zan. Bedar baltza ez.
- Eta klaro, han tartien beste bedar klase batzuk be egoten zien. Eta idaegurrez jota dana batzen da, baiña eskuz ona bakarrik batzen da.
- Garixa zela mozten da?
- Garixa igeteixekin. Azkenerako segiaz be bai baiña, baiña segiaz hasi zanerako hasi zien makiñek zela-halakuek ganauekin, ganauekin ibilttekuak. Eta gero garixa ereittiari itxi.
- M: Gure gazte-denpora guztie, eta gero be bai, ni hona etorri ta gero be, igeteixakin ebaten zan.
- Garixa inportantia zan, eta orduan igeteixakin?
- Bai, honbre!
- Eta ostera bedarra eta garua?
- Bedarra segiaz.
- M: Idie igeteixaz be bai. Segun ze sail. Sail onian segiaz ondo. Baiña han […] igeteixaz. Hemen batzuk, harutzatxuao beste batzuk. Ez euelako…, illarie be bai, eta ez euelako saillien ebateik.
- Honek han ide-leku onak eukien. Guk hemen urrin, otak-eta… "En fin".
- M: Holakoxe bizimodutik pasaute gaz.

1.60. Igitaiak eta baserriko tresnak. Errementari eta perratzaileak

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/024
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:50:15. **Bukatu**: 00:54:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena**: Igitai-klase desberdinak. Hagindunak, garia ebateko. Hagin gabekoak, arbia zatitzeko. Baserriko tresnak Aretxabaletako errementariak egiten zituen. Errementariaren lanaren inguruko azalpenak: burdien gurpilak; baserriko tresnak; abereak perratu, etab. egiten zituen. Arrasateko errementaria ere oso ezaguna zen. Perratzaileen lana egun ia guztiz desagertu da.

Transkripzioa
- Orduan igetei klase diferentiak zeren?
- Maria: Bai, agindunak eta agin bakuak. Garixa ebateko-ta bihe zien aginddunak. Eta arbixe zatiketako ganauei, agin bakuak.
- Igetei ojia.
- Zelan?
- Maria: Agiñik ez eukena.
- Igeteixak non erosten zian, zeiñek egitten zittuen erreminttak?
- Errementarixek Atxabaletan. Mondrauen hil da Mentu…
- M: Ointxe hil da Mentu.
- Ene, zenbat ein ete euen. Hemen errementarixek eitten zittuen. Eta burdixak be, burdi-txirrinkak be, oin gomazkuak die.
- M: Azkenien gomazkuek zien, oin haretxeik be ez. Baiña azkenien zien burdi-txirrinkak, hola mehiek, burdiña aro bat eta egurre barruan, hor gure

eskapeian daz lehengo burdi-txirrinkak.
- Eta errementarixa zer?
- Errementarixe? Burdiñie manejetan euen, eitten euen sue, prasatxo hola hauspo zer bategaz, han berotu, emuten utsen, berak gura zittuen figurak-eta, haxe ofiziue daukan gizona da errementarixa.
- M: Atxabaletan be bai, Baiña Mondrauen famosua.
- Atxabaletan euen, Lutxin tabernia egon zan hurrengo atie, bigarren atie. Ganauak perrau-eta, perrak eiñ, eta perrak eittie be...
- Ganauren bat perrau biher ziñuenian, hara eruen bihar?
- Harek euken ganauek altzetako katxarrue, guk oin etxien dauku geuk be, eta beste batzuk be bai, baiña, oin hori kastau zan kalian, baiña orduan hantxe euan.
- Maria: Hemen ezta behirik-eta.
- Orduan basuen euen zeozer.
- Maria: Probatara-ta dabitzenak-ero.
- Horretxek. Horrek perratokixa seguramente etxien dauke, seguru.
- M: Edozeiñek eztaki perretan.
- Probarixak jakingo daue.
- M: Eztot pentsetan. Horrek errementariren bat eukiko daue.
- Orduan erreminttak-eta erostera errementarixana joten ziñuen? Konpontzera be bai? Gauza batzuk etxian konponduko zenduezen.
- Bai, eztauke horreik, aberixa gutxi daukie. Amotzak darenien zorroztu.
- Eta atxurran kertena edo?
- Horrek etxien ein biher.
- M: Eta atxurrak eta gauzak Patrizio Etxeberriai.
- Hari erosi. Eta noizbaitten errementarixek zorroztu be bai. Lehenago burdiñare-hortzak be, burdiñarie zan erremintta bat solue labretakue, hareik be apur bat zorroztu ein bihe zien. Are-hortzak be bai. Ermentarixek itten utsen burdiña-hortza berotu, burdiña-hortza porejenplo eta ha hankatxue mailluaz da!, da!, ha zabal-zabal ifiñi puntie, hobeto labrau deixen, bedarrak hobeto aztertu daixen-ero. Enfin, lehenagoko adelantuok...

1.61. Erromerien beherakada

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/024
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:29:05. **Bukatu**: 00:30:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Erromeriak noiz hasi ziren galtzen.

Transkripzioa
-Orduan sasoi baten hemen erromerixak indar haundixa eukiko zeben. Gitxi gora behera ze urtetan hasi ziren indarra galtzen?
-Segun ze sasoittakue zan. Porejenplo San Kristobalak ba...
-San Kristobal sasoi txarrena da. Baiña hemen, e...
-Hemen udazkenekuak eta eukiko eben zer gehixen.
-Ba Koruetakue juliuen da, Koruetakue famosue izeten zan. Bolalekue ta

euken Koruetak ona. Golibar aldeti, hemen Lehete, Arkarazo, Mendiola. Okaranakin ikusitta dauket Antxustegiko andrie, Okaranak, Klaudi-okaranekin astuen ekarri ta saltzen. Hori ikusitte daukat.
-Elgetara be Bixkai aldetik honek makatz saltzaillak eta faten zien.
-Bai, oiñ leku danetara erroskillak faten die edo.
-Len Andramaixak eta San Rokiak izeten zien Elgetan be famosuenak, baiña oiñ pixkat uste dot San Pedro ferixara daukiela kanbixauta Elgetan be.

1.62. Auzo-eskolak; eskola kontuak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-012/003
- **Iraupena**: 0:04:20. **Hasi**: 00:04:30. **Bukatu**: 00:08:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Umetako bizimodua Azatza auzoan. Auzoan eskola txiki bat ere bazegoen. Abadeak ematen zuen eskola Koruetan. Auzoan egon ziren abadeen izenak. Azkenengo urteetan maistra bat ere izan zen. Azatzako eskolan, maistrua egon zen. Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren.

Transkripzioa
- Umetan, orduan, Azatza auzuan, ez dakit, zelan izaten zan zeuen bizimodua? Nun jolasten zenduen edo…?
- Ba, jolastu eskolara faten gitzenien, bestela […].
- Han elixa kanpokaldian edo…?
- Azatzara. Gu Azatzan.
- Bai, hori da.
- Ta Koruetan, ba, abadiek emuten [eben] gure txiki denporan, auzoko abadiek emuten e[b]en eskolioi.
- Zeuek eskolara nora juaten ziñazien?
- Azatzara.
- Bertan…?
- Bai.
- Ze zan, abade-etxian edo…?
- Ez, eskolia…
- Eskolia?
- Bai, eskolia euen.
- Auzo guztietan zeuan eskolia?
- Ez, hemen ez euen. Ez abadiek eta ez iñok ez [eben] emoten hemen. Hemenguek, parte, Koruetara faten zien abadiana; Azatzara be bai batzuk.
- Orduan, Azatzan eta Koruetan zeuan eskolia?
- Bai.
- Eta zeiñek emoten zeban? Abadiak?
- Abadiek. Don Genaro euen gure denporan eta gero don Boni. Ha fan zan gerra denporan, ba, ez dakit bere zerera fan zan. Bizkeikue zan. Ta gero, hoixe, [ez zan argittu] ta gero beste bat jarri zan ta […]. Ta gero, atzenien,

beste maistra bat be egon zan. Baiña [ha] Francon aldekua, e?
- Eta gerra aurreko, bueno, zuk ezautu zenduzen abadiak ze zian bertakuak, hemen ingurukuak, edo…?
- Ez dakit. Azatzan nire txiki-denporan edo, bueno, eskola-denporan euena gerra denporan hil zan, Bizkeikue zan. Hor Bizkeiko auzo batekue zan. Gero beste bat egon zan Gatagakue. Bai. Bai, [… ikusten zan] etorri zanien be, ya zera zan, […]. Beste urte batzuk ein zittuen harek be. Gero haren hurrengo beste bat egon zan Arrasatekua, San Pedro. [Fraille] famosua [hori], San Pedruok. San Pedro.
- Eta abadiak emoten zeben beti eskolia, ez?
- Ez, ez, ez. Azatzan ez, e? Azatzan ez eben emoten eskolaik abadiek.
- A, ta zeiñek emoten zeban eskolia, orduan?
- Ba, maistro batzuk. Nire zerien, denporan… Gero zerak be egon zien, maistrak be egon zien, baiña ya guk alde ein ta gero.
- Orduan, Azatzan eskolia zekazuen. Maistruak be kanpotik etorrittakuak izaten zian edo hemen ingurukuak?
- Bai… Ez, hemen ingurukoik hor ez zan egon. Maistro bat, maistro bat guk euki geena aragonesa zan. Aragonesa.
- Eta ze ein zeban denpora asko hemen?
- Bai, bastante ein eben, bastante denpora; urte batzuk ein zittuen.
- Eta nun… ez dakit, nun bizi zan hemen zeuanian?
- Ba, gure aldameneko baserrixen euen apopillo.
- Apopillo?
- Bai.
- Eta eskolara zenbat urtekin edo juan ziñan lehelengoz?
- Sei bat edo eukiko nittuen, behintzat, sei-zazpi bat bai.
- Orduan auzo guztiko umiak juango ziñazien eskolara, ez?
- Bai, bai. Bai.
- Edade diferentietakuak, neskak eta mutil… danak batera…
- Danak, danak, danak. Ez zan egoten zerik. Gero maistrak be egon zien, baiña maistrak be danak.
- Danak batera…
- Danak batera.

1.63. Gurasoen jatorria; baserri izenak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-012/012
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:21:15. **Bukatu**: 00:22:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Gurasoak nongoak ziren. Aita "Txikiñekue" baserrikoa. Ama, Zelaikue" baserrikoa. Amandrea bertakoa; aitajauna, San Prudentzio auzokoa.

Transkripzioa
- Basarrixan historixia badakizu? Aitta bertakua zan?
- Ez, aitta hemengotxe etxekua zan. Gure aitta.
- Nungua?

- Hemen azpikaldeko etxekua, basarrikua.
- Zer izen zeukan basarrixak?
- Txikiñekua.
- Eta ama?
- Ama bertakua. Aittajauna zan San Prudentziokua. Barrena.
- Bergara aldekua?
- Bai, Bergara jota. Amandria etxekua. Bertako-bertakua.

1.64. Baserriaren inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-012/017
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:30:45. **Bukatu**: 00:34:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Baserri handia. Sukaldea nolakoa zen. Beheko sua; txapa. Ur-depositua nork eta noiz egindakoa. Garai hartan baserri askotan oraindik urik ez etxe barruan. Komuna nolakoa zuten. Argi elektrikoa ere betidanik ezagutu du etxean.

Transkripzioa
- Sukaldia zelakua zan?
- Sukaldie, orduen ez euen butanorik eta zerik. Txapia, txapia ona.
- Zure akorduan?
- Bai. Nire akordu guztian txapia. Gero beheko sua euan aparte. Ogixa eitten zan labian, e, zerian, euan beheko sua; eta beste sukalde bat, ha aparte.
- Zuek kozinau nun eitten zenduen, txapan?
- Txapan, txapan.
- Beheko sua ez geben ixoketan. Neguan, neguan hotz haundixekin, e, ba. Baiña bi egunetan, e. Gogaitt eraitten otsen beheko sua eitten […] Hurrengoko egunien ez geben eitten. Umiekatik. Han endreguan suagaz-eta.
- Ur korrienterik bazeunken?
- Bai, bai, Ure, depositue ein eben gure..., Ameriketan euen tio bat etorri zan, eta guk posaderatik bonbiaz ataraten geben, posaderia geukan, ura, etxeonduan, holaxe. Eta fregaderan bageuken ura aurretik be. Akordetan naz, e; horregaz justo-justuen akordetan naz. Baiña fregaderan-eta bageuken ura. Eta hak ein oskun lau zegaz teillatuan gora zer bat, depositua, lau hanken gaiñien. Eta gero handik habitaziño danetara, komunera eta danera ura.
- Beste baserrittan bazeuken ur korrienterik?
- Leku batzutan deposituek-eta bai, baiñe ez, askotan ez. Ez. Komunera-eta be askok ez. Ur korrientia.
- Eta komuna zelakua zan? Egurrezkua?
- Ez, oingotxien moduko zerak, komunak.
- Umetan be bai?
- Bai. Oin, beste batzuk ur barik, goittik behera, […]-
- Eta argixa?
- Argixe oingue modukue ez. Baiña elektrizidadie bai. Baiña ursalto txiki

batetik erunda hara, buf! Gaurkua moduko denporiaz-eta, batien zera bota dauela, besteko eztakitt zer zala, erdixetan argi barik.

1.65. Lihoaren inguruko lanak; ehulea

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-012/018
- **Iraupena**: 0:05:15. **Hasi**: 00:34:20. **Bukatu**: 00:39:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Lihoa (linua). Amak lihoarekin haria egiten zuen etxean. Eskoriatzan zegoen ehuleari haria eraman eta hark tela-pieza egiten zuen. Gauetan kandelarekin lan egiten zuten. Lihozko arropak, izarak. Kirruzko izarak. Gorua, txarrantxa. Lexiko interesgarria.

Transkripzioa
- Lehenao farolak-eta. Hori zera eitteko, liñuak-eta. Hemen erropak be etxien eitten zien. Arropa zurixe, e.
- Eta zuk hori ikusitta ez dakazu?
- Ez, zela itten dan-eta ez.
- Baiña entzunda?
- Entzunda, Bueno! Bueno! Guk geure amai entzunda. "Guk euki baginxon hau argixau, geldittu be ez gintzonan eingo". Kandeliaz, gabetan kandeliaz lanien, e. Harixa eitten euen.
- Eta liñua zeuek ereitten zenduen?
- Bai, guk ereitten geuen liñua.
- Eta badakizu zela zan prozesua? Landaria zelakua zan edo?
- Ez. Hazixa ikusitta neukan, baiña landaraik ez dot ikusi liñuanik.
- Bihar asko zeukan liñuak, ezta?
- Asko, asko esaten dabe. Ama josten hasi zanien, diru apur bat atarako eben jostekuekin-eta, itxi eutsiela esaten euen, eruen zera, harixe, ez dakit Eskoritzan edo non euen eulioi edo eitten zittuenoi, telie itten ebenoi, eta gure amandria zera baiño fiñaue zan, eta eruen harixe, eta gero harixe trukau. Ein zen zeroi, izerok-edo eitteko telioi basto-basto-bastua. […]. Eta orduantxe zertu ziela, desengaiñau ziela, eta amak esan ebela telok izengo ziela erosteko-ta. Baiña ikusitta bai. Gurien izerak-eta […]
- Orduan zer zeren, hari klase diferentiak? Batzuk fiñaguak eta beste batzuk bastuaguak?
- Bai. Bueno, diferentzia haundixa, haundixa. Nik, e, hemendik aittek eruenikuek ikusitte neuken izerak. Ez dakit ze in gutsen. Gero han egon zien estreiñeu barik. Oin ez dakit ze in gutsen. Dozena bat izera. Amak esaten euen motzegixak ziela, uherako motzegixak ziela. Eta egozen estreiñeu barik, komodan egoten zien. Eta haik zien kaleko harixa lakotxiak, mehe-mehiek, eta bardiñek! Fiñek! Batetik bestera diferentzie eukitten euen. Zela itten zan harixe.
- Entzunda daukazu kirrua? Hori takarraua ala fiñaua da?
- Ez, kirrue bastuaue. Gero horrek kirru horrek… holako zer baten pasau, eta nik ez dakit zertzuk esaten zittuen.

- Orduan amak harixa eitten zeban, amandriakin batera?
- Bai. Behin josten hasi zanien asko ez eben eingo, baiña gabetan ibiltten ziela esaten eben.
- Goruetan guruakin?
- Bai. Goruekin, eta txarrantxie esaten dutse, beste holako zer batzuk eukitten zittuen, burdiña batzuk. Eta haregaz pasau eta nik ez dakit zenbat... "Honeik argixok euki baginttun, geldittu be ez gintzonan eingo". "Hemen daukotzu oin".
- Beste basarri batzuetan be berdin egingo eben sasoi baten?
- Bai. Oin iñok be ez. Hortxe, hortikaldeko etxe baten oiñurrengo eingo euen, e, hori harixoi-edo. Hemen bestek iñok be ez. Hemen be ez, ez Azatzan, han be ez, hemengo basarrixetan iñok be ez.
- Esan dozu eulia Eskoriatzan zeuala?
- Bai.
- Orduan hara harixa eruan eta berak egin?
- Bai. Berak piezia ein-eta.

1.66. Baserriko sukaldea

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-012/020
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:41:25. **Bukatu**: 00:44:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Euskara » Lexikoa
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Sukaldean egoten ziren armairu eta bestelakoak. Kobrezko galdarak; "edarria". Txerria hiltzen zenean, odolosteak egiteko, ura kobrezko galdaratan berotzen zuten. "Gelatzue". Harrizko platerak.

Transkripzioa
- Sukaldian argi elektrikua, bonbilla txikiren bat bai. Sukaldian bestela zer gehixago egoten zan? Mueblerik edo aparadorerik?
- Bai. Armaixua. […]. Egoten zien bi armaixo. Eta gero suen gaiñien euen zer bat eindda, txapien gaiñien, han galdaraak, kobrezkuek eta, laruek, edarrie-ta, ure karrietako zer bat, ontzi bat, ez dakit ikusitta eukiko dozun.
- Zelakua zan edarria? Zabala behian eta estua goixan?
- Bai, goittik estua eta behera hola zabal. Eta ha zan metalezkua.
- Baiña ha zuk ez zenduan erabiliko?
- Ez. Aurretik, aurretik. Aurretik, bueno. Ez, gure amak eta ez.
- Kobrezko galdarak zertarako erabiltzen ziren, dekoratzeko?
- Bai, azkenien garbiketako bakarrik. Garbixek ikusi biher. Hantxe. Hamabostien behin edo garbittu ein biher hantxe eukitteko.
- Eta sasoi baten zetarako erabiltzen ziren?
- Ba ni akordau-akordau eitten naz, e, mortzillek-eta eitten zienien txarrixa hiltten zanien, gurien ure beroketako, beheko suen ure beroketako. Txintxiliz egoten zan, ez dakit akordauko jaten, holako katai bategaz egoten zan zera…
- Gelatzua?.
- Bai, gelatzue. Zeuk gehixao dakitzu nik baiño, hemen ez dot ikusi-ta.

Baiña zerien, neure etxien ikusitta nao. Eta hori, txarrixa hiltten zanien ibiltten zan ha. Zela astie-ta zela euken.
- Zela bazkaltzen zan, mahaixan jarri eta erdittik jaten zan, ala bakoitzak bere platera zeukan?
- Hori leku batzuetan bai, baiña geurien ez. Gure amandriek jan be ez eben eingo, ez eben jango. Hola, batetik? Ez, ez, bakotxak bere platotik.
- Orduan zer izeten zien, porzelanazkoak?
- Harrizkuak-edo izengo die, oingotxe modukuek eozen. Esaten eben porzelanazkuak be, baiña kaskau eitten ziela eta ez dakit zer eitten ziela; ez, gurien harrizkuek egoten zien.

1.67. Umetako arropak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-012/023
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:55:00. **Bukatu**: 00:57:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Umetako arropak. Asteguneko eta jaiegunetako aropak. Mutilak 12-13 urte ingurura arte, fraka motzak erabiltzen zituzten. Neguan botak eta udan sandaliak erabiltzen zituzten.

Transkripzioa
- Erropia behintzat amak egindakua. Zer arropa?
- Bataak esaten guntsan guk. Eta gero domeketarako beste zeren bat hobatxuaua jazteko.
- Eta mutillak?
- Hamabi edo hamahiru urte artien fraka motzak.
- Uda eta negu?
- Bai. Esporten batzukin, galtza esporten batzukin.
- Eta oiñetakuak?
- Oiñetakuek, e. Lelengo, gure aitta zanai ez jakon gustetan, gomazkuak.
- Abarkak?
- Abarkak gomazkuak. Umientzako ez jakon gustetan. Berak ibiltten zittuen, baiña umientzako izardixa eukiela, ez jakon gustetan. Eta guk neguen botaak, eta udan sandalia batzuk, edo telazko zapatillan batzuk. Neguen botaak. Arrabixue botairi, ikusi be ez gittuen egin gure, takarraran eitteko-eta, bueno! Zer bat eitten oskun... Eta danak ikusten gittuen abarkakin.
- Abarkak narruzkuak?
- Narruzkuek? Gure aurretikuek narruzkuek esaten euen, guk ez gittuen horrek narruzkuek ikusi.
- Orduan zuek narruzko botak.
- Bai, narruzko botaak. Hoba biherrez eitten oskuen, baiña guk abarkak gurago takarraran eitteko-ta. Zegatik harek labanduta edo zertu eitten zien botaak, e. Botak zien danak materixalezkuek, ez euken gomaik-eta azpixan-eta be, eta labandu eitten zien, hola edozein zeretan labandu, eta ez gittuen gura ikusi be egin, bueno. Hareikin zazpi-zortzi bat urte arte. Gero honeik oingo abarkok zertu zienien, e, bueno, konbenzidu gittuen hobiek ziela eta. Pozik abarka honek zuzendu gittuenien.

1.68. Amandrearen arropak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-012/024
- **Iraupena**: 0:04:35. **Hasi**: 00:57:55. **Bukatu**: 01:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Amandrea nola janzten zen: gona luzea eta txanbrea. Buruko zapia; amantala. "Meriñue". Buruko zapia nola ipintzen zuen. Jaiegunetako arropak.

Transkripzioa
- Amandria eta aittajauna zela jazten zien? Amandria zelan gogoratzen dozu?
- Amandrie, honaiñoko gonaak.
- Ixa lurreraiñokuak?
- Bai. Eta gonie, e, gonie; bataik-eta ez nutsen ezautu; gonie eta txanbrie.
- Txanbria zeri esaten dotsazu?
- Telazko..., holaxe bataakixe, trajien moduen eukitten eben, goikue eta behekue iguala, mediolutoko tantodune, holako zerak. Eta gero buruko paiñolue iguala.
- Amantalik edo usatzen zeban?
- Bai, beti amantala.
- Soruan edo ortuan lanerako?
- Bai, eta etxerako; eta zererako be bai, jaixetarako be bai.
- Baiña orduan diferentia izango zan?
- Bai.
- Dotoriagua?
- Bai, dotoria. Buruko paiñolue be bai. Meriñozkue, meriñozkue, meriñozkue.
- Zer da hori?
- Zer apartekue izeten zan. Fiñe, e, estanbrien moduko..., meriñue esaten utsen. Buruko paiñolue holakua.
- Eta buruko paiñolua zela ipintzen zan? Bi puntakin?
- Puntaakin, puntaakin. Goixen bi punta tente, eta beste bi hemen ataraten utsen; ez, hemen bat, hola alde batera, eta goixen bi.
- Eta ule guztia tapauta?
- Ez, apur bat bistan. Bera dotore ibiltten zan. Iñok be ez utsen ifintten, e, laogeita hamahiru urte ein jakon, baiña paiñoloik ez utsen iñok jantzi. Berak.
- Buruko paiñolua gaztetan ez zan eruaten?
- Gaztetatik ibiliko eben harek, harek gaztetatik ibiliko eben.
- Ezkonduta gero jazten zan?
- Ez, ez. Harek uste dot lelengotik ibiliko ebela. Hoixe ez dakit sano esateko baiña. Ha behintzet ezkondu zaneko fotografixan be paiñoluagaz dau.
- Amak erabiltzen zeban buruko paiñolua?
- Ez, gure amak sekula ez eben jantziko buruko paiñoloik. Ez dot uste. Ez dakit neskatan edo...
- Orduan hasi ziren ohitturak aldatzen, eta poliki-poliki joan die...

- Bai, bai.
- Eta mutillak txapelik erabiltzen zeben?
- Eta gero kolorezko zerik be ez sekula be. Betik mediolutua edo baltza.
- Eta hori lutuan zerelako edo betidanik?
- Betidanik. Nik ez nutsen..., beti ez eben eukiko lutua. Baiña nik ez nutsen ikusi beste erropaik. Eukitten zittuen jakiñeko zerak: trajia; orduen astegunetan be ba ahal zanien mezetara fan itten zan; lan gutxitxo edo; zela mezie egunero egoten zan, mezetara faten zan. Baiña harako ifintten eben mediolutoko trajia, mediolutoko paiñolua. Harek ez zien izeten lanazkuek, harek izeten zien tela korrientiak. Perkalak-edo ez dakit zer esaten utsen, tomanak (?) edo, gure dana. Baiña ha zertxue, trajetxue, jantziko eben mezetarako.

1.69. Antzinako lanbideak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/032
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:45:35. **Bukatu**: 00:47:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Antzinako lanbideak: errementaria, perratzailea; esneduna... Baserritarrak herrira etortzen zirenean esnea saltzera, astoak non lagatzen zituzten kontatzen du. Antzinako bizimoduari buruzko iritzia.

Transkripzioa
- Zesterua, errementarixa edo halakorik ezagutu zenduan?
- Errementerixak orduen ez naz akordetan euenik. Orduen ez naz akorden. Gero bai, baiña orduen ez naz akordetan.
- Eta gogoratzen dozu gero ya gerraosteko...?
- Bai, honetxek Galparsoronak, horretxek. Horren aitta; guk ezautu geuen horren aitta.
- Eta zer egitten zeban, lan kalian?
- Eta zerai, ganauei ta horrek ferrak ifini hanka azpixetan-eta. Hori be eitten auen.
- Eta non zeuan?
- Nun, ze lekuten? Oin Pagaldaixeneko, erregalu denda… ez, bestaldin, tabernie egon zan ba, Pagaldaixena, ba hantxe behien; harutzatxuao, e. Oin soziedadie dauke han eurak einda etxekuek.
- Eta ganauak ekartzen zittuen bertara?
- Bai, eta esnedunak etorten zien, esneduna esaten jakuen, astuen, zeretan, euren otzaretan marmittak sartuta. Eta harek astuak eurak juaten zien kalien zuzen-zuzen lotu in biher euen lekura. Arbolak euzen, eta han lotuta egoten zien arbolak, eta astuek ezebe zertu barik, taka!, hantxe geraketan zien. Eta elixa onduen be auen beste bi edo, arbola bi, eta hor Galartzatik-eta etozen basarrittarrenak, handikaldien.
- Arboletan lotzen zittuen?
- Lotu, eta handik hartu marmittak eta etxietara repardiduten euen esnia.

- Orduan kaleko girua zer zan, ba hori, danak etxekuak, danak ezagunak?
- Bueno, hain ezaunak. Kalegoixeneko bat gaixoketan bazan, Kalebarrenien ekixien danak, eta danak preguntien etxekuei zelan dauen, eta... Famelixa haundi bat moduen.

1.70. Antzinako bizimodua; ume ugari etxe guztietan

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Timoteo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-016/003
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:02:25. **Bukatu**: 00:04:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Antxia Uribe-etxebarria, Jon
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Antzinako bizimodua baserrian. Ume asko familia guztietan; jaio eta berehala bataiatzen zuten. Lehenago ume asko hiltzen ziren; aingeru kanpaia. Medikuak eta abadeak.

Transkripzioa
- Akordatzen naiz, gaiñera, lehengunian aittatu zenduala, orduan, baserrixetan ume asko egoten ziala.
- Bai.
- Eta osasuna zekanak, bueno, tira…
- Bai, tira. Baiña osasunik ez eukena, “al saco”. Osasunik ez eukena, ba orduen, egun guztietan, egun guztiek, umien kanpaiek, umien kanpaiek diferente joten zittuen orduen, “aingeruen kapaiek” esaten jaten. Umiok jaio ta bigarren, hurrengoko egunien, bautizau ein biher izeten zan hiltten bazan be, bestela zerura be ez zan juaten umioi, ta ez dakigu, ba, zer, linbora edo juaten ei zan ha. Esaten euen linbora faten zala, ta neu ez naz egon oinddio leku… umioi linbora faten zan lehelengo-lehelengo. Orduen, garai hartan, persona bat jausi eitten bazan be, jausi, ezta?, min eindda jausi, hazurrak apurtu edo, hiltten baeuen be, lehelengo abadiaana faten zan jentie; medikuaana gero. Holaxe bizi gintzen, halaxe zala ba. Abadie biher zan bertan ta. Zuk ez dozu hori ezautu. Entzunda eukiko dozu, lehelengo abadiaana. Abadiek “Ene! Abadie! Abadie!”… Ba bialdu deixen eskilleretan gora izengo zan abadioi. Neuk ez dot ikusi bat be faten oinddio, baiña ez dakit.
- Orduan, abadiagana lehelengo.
- Lehelengo, medikuana baiño lehenau. Edo etxien persona bati atakiak, atake batek, holaxe da!, zeindde… zer bat, edozer gauza etxien, ez dakitzu?, pasetan jakola, lehelengo abadiana. Takarraran abadiana; medikuana gero. Ta nik uste dot lehelengo medikue edo sendagillie biheko dala, uste dot neuk. Neuk hala. Lehelengo ha izengo da ta gero bestie etorten bada ta lagun eitten badau ondo egongo da, baiñe biherrezkue mundu hontan bizitteko ha izengo da. Neuri pentsau. Iñok ez dost esan. Neuri pentsau.

1.71. Familia handiak baserri guztietan

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Timoteo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-016/005
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:06:50. **Bukatu**: 00:08:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Antxia Uribe-etxebarria, Jon
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- **Laburpena**: Familia handiak etxe guztietan. Erditzeko garaian arazoak sortzen zirenean, ospitalera eramaten zen ama. Parterarik ez zegoen; auzoko emakumeak izaten ziren laguntzen zutenak.

Transkripzioa
-Bestela, andrak, esan dozu, umiak-eta baserrixetan-eta edo etxian bertan eukitzen zittuen, ez?
-Umiek? Bai, bateonbati trabau eitten bajakon bidien umioi kanpora datorrela, ba, gizon pillo baten artien nunbaitten hartu bixkerrien eta kalera ekarri eta gero Gasteizera edo norabait erueten euen. Geuri ez jakun tokau holako gauzaik, ezta? geure etxien-eta, baiña nun edo nun izeten zan beti ondo etorri ez umia, eta kanpora, klinikan batera, norabait erueten euen andrioi. Norabait. Nik ez dakit nora.
-Eta bestela, medikua esan dozu ibiltzen zala basarriz basarri; parterarik-eta egoten zan?
-Parterak? Ba holako baserrixetan apur bat ohittute dauzenen batzuk edo. Holako... ba, esku fiñekon batzuk. Betik egoten da persona egogitxuaue, eta medikuek ya esanda zuk atendidu iozu hari, edo neuk ezin bada, zeu fan. Oseake, medikuek emundako libertadiaz, autorizaziñuaz bateonbat egoten zan, bateonbat egoten zan. Ba bat han eta besten bat beste nunbaitten, edo... andran bat. Baiña titulurik-eta ezta-ezta-ezta ezebez. Orduen be umiok jaixoten zien.
- Hori da, ez? Asko gaiñera.
- Asko gaiñera.

1.72. Maulandako azkenengo idiak

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-019/001
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Marulanda auzoan azkenengo idiak izan zituen baserritarra ezagutu zuen.

Transkripzioa
-Nik ezautu nauen azkenengo irixak euki euena.

-Maulandan?
-Maulandan, bai. Deiketan utsen "Apolin".
-Beranak zien irixak?
-Bai. Eztakitt bixak zien, bat behintzet bai. Apolinar. Eta Apolin. Ha ezautu neuen ia agure zaharra zanerako; orduen ez auen diligentziarik, diligentziarik ez euen ia. Baiña nire aitta zan Maulandakua, eta berak esan usten zelan itten zan, eta horretxegatik dakit nik horrek kontuok, Maulandakua zelan zan aitte ba, harek kontautakua.

1.73. Lurra lantzearen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Ayastuy Elorza, Jose Benito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Loidi, Ane
- **Erref**: ARE-024/009
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:20:55. **Bukatu**: 00:22:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Lurra lantzearen inguruko azalpenak. Laixatzerakoan azpiko lurra gainera ateratzen da. Lurrari buelta ematea ona da lurra oxigenatzeko. Gaur egungo aurrerapenak.

Transkripzioa
-Baiña horreik makiñokin lurre segittuen egitten dok baiña. Neguen emuten dutsek pasada bat, bedarrak, zerak, galtzeko, eta gero zertu biher danien, erein biher danien satsa bota eta lanketan dok lurre [...]
- [...] horrek makiñok, holako baten eitten juek horrek txikiñok, haundixen aldien asko eitten juek.
-Haundixen aldien horrek barrura sartzen dittuk. [...] ixten butsek, lurre ein... bueno! Orkatilletan goraiñok.
-Horrek ez jaukek laixatu biharrik. "Lo que pasa" [...] hemengue dok, pentsau, gure amak be hoixe eitten juan.
-Azpiko lurra gaiñea atara. Horrek ataraten juek.
-Hori aldrebeskerixie izango dok, azpiko lur hotza gaiñera ataratie... Igual bedar zarramarrie ez jaixoteko, igual izan leikek bentajagarrixa baiña.
-Bueno, klaro, bentaja eukitten jok, gero urtero laixaketan badok, gero bedar gutxiao etortzen dok. Hori ona dok, ona dok lurrai buelta emutie lurra oxijenetako. Hori ona dok, urte baten bai eta bestien ez, hori ona dok, baiñe gaur dazen makiñekin ez. Klaro, lehenao gauza asko ez zuan eitten, ez zuan satsik egoten, sail haundixak izeten zittuan, eta gero euzen erreminttekin ezin zuan, gaur besteko moduan ez zuan lanik eitten.
-Han gradiaz lanketan-eta [...] ha lurra gogorra egoten zuan, hola atzeratute gradia, azaltxue ein eta ...
-Ez, gaur dazen makiñekin ez jok merezi hola ibiltteik.

1.74. Berak egindako lana besteen sabelak betetzeko eta beraiek gose

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

- **Erref**: ARE-027/008
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:19:56. **Bukatu**: 00:22:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena**: "Gorriei" ahari zikiratu bat saldu behar izan zien eta orduan hil zuen lehendabizikoz animalia bat; nola hil zuen kontatzen du. Besteek jan zuten, baina beraiek ez. Esnea ere animalientzat-eta behar zuten, eta beraientzat, antza, ez zuten; goseak zeuden. Orduan kantina ez zuten osorik betetzen, betetzeko falta zen zatia errekako urarekin betetzen zuten, beraientzat ere esne pixka bat izateko.

Transkripzioa
-Beste behin geuk saldutako zera gorrixei, arai kapau bat etorri jakun kuadrillara. Eta kuadrillara etorri zanien e, boooo! eindda etorri zan eta. Ene ba!, araixe etorri jaku ardi kuadrillara; eta tioi esan gutsen: "Ze in biher dutseu /bietsau/ hari?", eta, "ha? Hil eta ekarri". Nik lelengoko krimena orduentxe ein neuen. Bai. Aurretik ikusitte, ta bueno. Arai kapau horri sartu nutsen kutxillue, narrutu nauen, erdibittu eta lehengusuek eta bixok txorroki zerien... Txorrokixe jakingo dozu zer dan, ezta? Arte-orrixe, eta haretxen zerien, erdixen sartu ta erdibittu ta etxera ekarri gauen zeera, tian etxera. Ta ekarri gauen eta, ene!, geu jan barik, guri ez oskuen probatzeko emon eta eurak jan zeuen. Ederra! Hori goguan neure bizi guztien, e. Bizi guztien!
-Zuk ekarri eta eurak jan.
-Eurak jan. Eta gabian kipula apartatzen, gabien biharra eitten gauen. Eta gero beti eukitzen gauen, eta gero gure tiok euken geu jan barik gero ardixek, billotxak esnie bihar izaten daue hazteko, eta beti esnie biher izeten zeuen gure tiok. Eta geuretako esneik ez, eta zerandako be ez. Eta amak esan usten: "Horrek kantiñie beteta eruan ezkero konforme dao". "Eta zer eingo dotsau?" Geuk egositte laga gaozen etxien, Parraixeko etxe baten gengozen eta ardixek be hantxe gauken. Batu ardixek eta ze itten gutsen? Ba kantiñ hola zatitxo bat bete barik euen eta fan Urketxerrekako errekara, beteten gutsen eta gizona konforme. Eta geuretako esnie lagatzen gauen eta billotsendako be bai. Eta gizona ya! Bestela eruten ez bagauen beteta... Esaten gauen baiña, geu gosiek eta horrei eruen dana-ta, ze in biher dogu /biou/ ba. Eta haxe akordau jaten. "Ama, ze in biher dutseun bakitzu? Hoixe". Ta konforme gizona.
-Ura bota?
-Bai. Ya está.

1.75. Gazta egiten

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-027/012
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:27:50. **Bukatu**: 00:30:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Bere amak gazta egiten zuen: eskuz egiten zuen, ez makinekin, gaur egun bezala. Eibarrera joaten zen gaztak saltzera. Gazta zelan egiten zuen kontatzen du eta Eibarrera zelan joaten zen. Oraindik, 62 urte geroago, harremana mantentzen dute bertako dendari batekin.

Transkripzioa
-Egiten zuenduen gaztairik?
-Gaztaiek eitten zittuen amak. Amak eitten zittuek. Haik eskuetan. Horreik makiñiakin eta zerakin eitten dittuen moruan, haik eskuetan eitten zittuen, eta nik Eibarren zela urte asko daroieten, ha holako besuen sartute kotzariakin faten zan Eibarrera berak inddako gaztaiekin. Berak eskutan inddako gaztaiekin faten zan. Ba harek bastante beranduen be bai, gaiñera.
-Eta zelan itten zeban gaztaia?
-Eskuetan epeldu zera, gatzagixe emon, traputxo baten ifiñi gatzagixe, eta emon harekin gatzagixe eta euki apur bat epeldute, tenplaute zertzen zeuen, eta gero batu eskuekin eta gaztanontzixetan sartu ta ya geratzen zan, eta hurrengo egunera artien han euki eta han etara. Eta trapu gaintxuetan ipiñi zerien, mahi gaiñien edo zerien, eta. Horreik ez, horreik frigorifikua dauke. Horreik ya modernuak die.
-Lehen trapu gaiñian, ezta?
-Lehen trapu gaiñien egoten zien, bentanan ifinitte eta holan. Zela ez euan zerik.
-Eta gero Eibarrera saltzen zittuan?
-Bai, Eibarrera. Eibarrera faten zan.
-Eta zelan etortzen zan Eibarrera?
-Trenien. Hartu otzaratxue, berak sartu zerien eta gure basarrittik hiru ordu laren daoz zeera, eta ez euen ez kamiñoik eta ez kotxerik orduen. Ha etortzen zan sasoien oiñez Atxabaletara. Ta gero trena hartu eta zeera, Eibarrera. Eta gu faten gitzen dendara, gu ezkondu gitzenien hasi gitzen. Oinddio be ama hil zan baiñe haren zerien. Ezkondu gitzenien hasi hantxe dendan eta oinddio haren alabiakin tratatzen dou. Bai. Ezkondu gitzela pasauko zien hirurogeta bi urte edo pasauko zien. Asi ke... Tratue luzie, je-je.

1.76. Aita, baserriko lanetan

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-028/002
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:03:02. **Bukatu**: 00:04:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
  Lanbideak » Neskameak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- **Laburpena**: Ama neskame ibili zen, eta aita baserriko lanetan. Auzoetan laguntzen zuen: mendian, iratan... asto beharrak. Artoa, garia, gaztainak batu... Amak erakutsi zion neskame non egon zen, nor zen ugazaba zaharra.

Transkripzioa
- Ama neskame lanetan ibilittakua eta aittak ze bihar eitten zeban?
- Aittak basarrixen, basarrixen. Lehenao ba auzuetan laguntzen eta holan. Idie eta ekarri bihar zanien, eta mendixetatik eta. Hola laguntzen beti. Albiñatik idie burdixen hartuta idetan Albiñatik, auzokuei laguntzen, eta holakotxe biharrak, holakotxe asto-biharrak. Ba beste biharrik ez euen. Eta gero etxeko zerak, artue ta garixe eta lagundu ba auzoko zerai. Eta holaxe. Beste bihar zerik ez. Gero gaztaiñak-eta egoten zien, gaztaiña batzie, eta gaztaiña batzie zanian nire gizonan etxeti be faten zien, eta gaztaiñak batu eta gero lagundu gaztaiñak batzen eta haik hartute erueten zittuen gaztaiñak eta hurrengo ez dakit zer ekartzen zeuen eurak handikaldetik honutze. Eta holan ibiltzen gitzen. Baiñe beti ama egon zan lekuti beti. Anditzera be faten zana, bera, hori kriada egon zan lekura faten zan. Neu be erueten nindduen. Nahiz de gure Jaunik emon ez abadiek. Hori gripe zar haundixoi pasau, geruau be neu be erueten nindduen zeera, bera krieda egon zan lekura. Erakutsi usten uezaba zaharra.

1.77. Gariaren lanak: ebaki eta jo

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-028/003
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:04:50. **Bukatu**: 00:07:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Baratzean zer zuten: tipula, porruak, patata... Soroan garia, artoa eta babarruna. Gariaren lanak. Beheko auzoetan lehenago heltzen zen, eta hara joaten ziren igitaiarekin, ebakitzen laguntzera. Urte batean denak usteldu ziren, euriarekin. Noiz ebakitzen den garia toki bakoitzean. Auzolana. Gari jotzea nola egiten zen, larrainean. Trangan jo.

Transkripzioa
-Zer eukitzen zenduen basarrixan ortuan eta?
-Ortuan eta ba zerak, kipulak, porruek, eta holakotxe..., patatie, kipulak porruek...
-Soruan? Garixa ta?
-Garixe ta, artua ta babie. Eta holan egoten zan.
-Garixak eta ze lan eukitzen zeban?
-[...] Garixe lehenao egoten zan ba, heltzen zan ba beheko zerien, auzuetan lehenao; ta gari ebatera, harei laguntzera, ta gure auzuetan ba gurien gorao etxiek bazeuan ba lehenao, eta gari ebaten laguntzen faten zien igeteixakin. Lehenao makinaik ez euen, igeteixekin. Eta urte baten

danak usteldu zien. Bai. Eurixe ta eurixe ta eurixe... Hori zerien, neu ezkondu ezkerio. Gero garixe ereittiai laga ein etsen. Gero laga in jakon.
-Ze sasoittan ebaten da garixa?
-[...] Santiago-San Pedro, hortxe. Ba gorao zera baeuen, baserrixe gora baeuen ba. Behera bauen ba beherakue lehenao. Gero goraokuek gerotxuao, San Inazio... Zela dauen, basarrixa zela dauen. Beheko partian badao ba beherao dauana lehentxuao. Ta goikua ba berandutxuao. Gurie beti berandutxuao, gorengo zeuen eta. Murugaingo atxen azpi-azpixen. Bai, hola dao.
-Auzolanian eitten zan orduan gari ebatia?
-Bai, auzolanian eitten zan.
-Eta gero garijotia?
-Garijotia zerien, larriñien. Larriñien zertu, ifiñi lelengo pekotzakin ifiñi zera, ha sikatu, gero larriñien zerakin. Eta bestela berriz trangan, zerien ifiñi harrixe ta zerien eta han jo eitten zan.
-Lan nekeza izango zan, ezta, gogorra.
-Bueno. Halaxe zalakuan. besterik zela ez euen. Halaxe zalakuan. Halaxe zalakuan.

1.78. Astoarekin errotara

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-028/006
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:10:06. **Bukatu**: 00:12:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Baserria » Baserriko lanak » Artoa
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Astoarekin joaten ziren errotara, zorroa lotuta. Asto txatxarrarekin. Asto gainean joatea gustatzen zitzaion, baina ez zioten uzten; ezkutuan igotzen zen. Bidea luzea zen Uribarrira. Errepide ondoan zegoen errota. Auto gutxi pasatzen zen orduan. Garia eta artoa eramaten zituzten errotara. Gari gutxi izaten zuten. Maizterrak ziren, eta nagusiari ematen zioten garia.

Transkripzioa
- Orduan astuakin errotara?
- Honbre. Astuakin, hoixe, ifiñi zorrue astuen gaiñien zr barik eta sokiakin lotu albardiakin azpittik eta ala! Bai, astuakin, asto txatxarra baeuan txatxarrakin eta. Oin bihorrakin baiña lehenao asto txatxarrakin. Asto txiki-txiki bat eukitzen gauen eta haretxekin; jota leña! Arre! esan eta. Eta asto txatxarra izanda be egoten zan bistan Zaloñatik Galartzara a han ezkutuan. Eta niri asto gaiñien gustaten jaten eta handik pasatzen nitzenien ezkutau... jarri asto gaiñien. Bestela asto gaiñien ez usten lagatzen. Hurrengo agirixa zertzen zanien salto asto gaiñetik eta astua hutsik, eta hurrengo ezkutura aillegatzen nitzenien asto gaiñien atzera. (Barreak). Eta Mondrauera, Uribarrir errotara, ezta? Bide luzia eukiko zenduen zuen basarritik?

- Bai, luziaua. Zeera hartu bihar, ba Mondrauera biharrien ba Baztargaidik... behra, ze erripatik behera zer barik, Mondrauera fan barik, erripa batetik behera faten zan, bidie zeuan, ta karreterara urtetzen zan, Uribarriko karreterara urtetzen zan. Beste errota bat pasatzen zan karreterie baiño lehenao eta hori karretera-karreteratik. Ondo-ondotik pasatzen zan. Egon bihar izeten zan ba, orduan kotxe gutxi pasatzen zan, baiña bertan ba tretxo gutxikin ba kotxiek pastzen zien. "Kontuz, ume, kontuz" esaten oskuen. Eta astue hartu sokatik eta handik ziher.
- Eta zer eruaten zenduen, garixa? Ala artua?
- Artue. garixe be bai batzutan. Gariik asko ez jakun /etxakun/ sobratzen eta artue gehixao. Gari gutxi zertzen zan, eta gero uezabai eruen biher izeten jakon garixe, errenterueke ez dakit zenbat.
-Errenteruak ziñazien zuek?
-Bai, errenteruak, esan dotsut ba.

1.79. Idiak, ardiak eta txerriak

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-028/011
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:18:39. **Bukatu**: 00:20:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena**: Idiak zituzten, behiak eta ardiak. 50 bat ardi. Oiloak. Txerria ere bai, beti bat edo bi. Etxean hiltzen zuten. Odolosteak eta txorizoak. Koipetan edo oliotan kontserbatzen ziren.

Transkripzioa
-Etxian ganauak, ardixak eta zekazuezen?
-Irixek, gehixen irixek. Gero behixek. Hiru bat behi ta ardixek. Ardixek oin beste ez, e. Berrogeta hamarrren bat ardi edo holakon bat izeten zien. Ardixek gutxiao. Bai. Irixek eta hiru bat behi. -Gero txarrixak eta oiluak eta zer gehixao eukitzen zenduen?
-Oilluek eta; paittak be bai batzuek eta holako animalixe zer batzuek.
-Txarrixa?
-Txarrixe beti. Txarrixa bai. Txarrixa bat edo bi beti, beti.
-Gero etxian hiltzen zenduen txarrixa?
-Bai. Txarrixa etxien. Saldu nekez txarrixa. Txarrixa etxian. Haundixa bazan, txikixa bazan, txarrixa etxian.
-Gero txarrixa hildakuan txorixuak eta urdaixa eta.
-Bai, bai. Lelengo odolostiek, mortzillek eta horreik, eta gero txorixuek eta. Gero haik zerien sartzen zien, koipetan sartzen [...]
-Konserbatzeko?
-Bai, olixotan edo koipetan sartzen zien eta. Han sartu ezkerio lantzian bat. Gero babai be sartu biher izeten jakon baten bat, eta hola.

1.80. 88 urteko gizona

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-031/002
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:00:07. **Bukatu**: 00:02:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Antonio Zubizarreta Berraondo Aretxabaletako Isurieta auzoko Olabe baserrian jaio zen, duela 88 urte, 1921eko apirilaren 18an. Entzumena apur bat gogortuta duela eta medikura joan zen, ezko-tapoiak izango zituelakoan. Ez zirela tapoiak, zahartzaroa baino, esan zion medikuak.

Transkripzioa
- Antonio Zubizarreta Berraondo Mujika Garai. Hemen gaoz aspaldixan, larogeta zortzi urte indda, eta hiltteko gogo gutxi. Eta hemen be aidamen haundirik ez, belaunak astunak eta hazurrak astunaguak; badakitzu hori zela dan?
- Baiña itxuria ez dakotzu bapebe txarra.
- Txarra, txarra… guk berez hil bihar dogu. Pertsoniak horixe dako txarra, sikiera ganaua aprobetxau itten da, eta gu lurpera.
- Nun jaixo ziñan, Antonio?
- Ni Atxabaltan, baserritxua, Atxabaltatik bi kilometrora, Isurieta.
-Zela da baserrixen izena?
- Isurieta, “barrio” Isurieta.
- A, auzua. Etxia?
- Etxia Olabe, “caserio” Olabe.
- Eta ze egunetan jaixo ziñan?
- Ni “dieziocho de abril de mil novezientos veinti uno”.
- Urtiak bete barri (di)ttozu orduen. Zuk igual ezagutuko dozu Gregori, han Urezaundin bizi dana. Urezaundira ezkonduta.
- Gregori?
- Gregori Bengoa.
- Hori Azatzagakua, ezta?
- Ez, Eskoriatzakua, e? Hori bizi da Urezaundi baserrixan; Mazmela da izatez, eta harek bete zittun fan zan hogeta lauan, fan zan ebaikutzian bete zittun larogeta hemezortzi.
- Ha be ez dau asko hobeto.
- Entzuteko eukan problemak, baiña burua argi.
- Hori aldian daukat neuk be, honek beronek gura dauenian entzuten dau.
- Hori ona da.
- (Loba): Komeni danian, horrek komeni danian entzuten dotsu.
- Hau astunduta dauket apur bat, aspalditxuan behintzet. Fan nintzuan medikuana eta zaharzarua neukala. Tapoiak neukelako fan nitzan medikuana eta tapoirik ez daukala, zaharzarua daukala. […] edarrak.

1.81. Aretxabaletako semea

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa

- **Erref**: ARE-033/002
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:01:10. **Bukatu**: 00:03:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Xabier Zubizarreta Lasagabaster Aretxabaletan jaio zen 1944ko urriaren 18an. Aita Isurieta auzoko Olabeaga baserrikoa eta ama Aozaratzako Artabe baserrikoak zituen. Artabe izenaren historia apur bat egiten du.

Transkripzioa
- Xabier Zubizarreta Lasagabaster.
- Nun eta noiz jaixo ziñan?
- Jaixo ba Atxabaletan, hamentxe Durana kalian hogeta hamahiruan, milla bederatzirehun eta berrogeta lauan, berrogeta lauko urrixan, urrixan hamazortzixan.
- Aitta-amak nunguak zittuan?
- Aitta ta ama bixak atxabaletarrak.
- Kalekuak?
- Ez, bata bez. Aitte hemengo Usittakue (Izurieta) Usittako Olabenekue.
- Usittakua?
- Bai, Izurieta da jatorrizko izena baiña guk Usitta betik esaten dou. Usittako Olabenekue aitta. Eta ama Lorentxa Lasagabaster Billar. Ama Azatzako (Azaoraza) Artabekue.
- Artabe. Horrek badauko zerikusirik etxe honen izenakin?
- Ba zerbait dirudienez bai. Artabe, Arratabe moruen. Ha be seguru asko jatorriz Arratabe izango zan. Nunbait hori ez dakit, e, hor kantu bat badau, sasoi baten billa ibilli nintzen honek Azkuek bildutako “Cancionero” zera horretan, eta hor agertzen da Otalako emakume bati, ez dakit, Maritxu euken izena, kantu bat jaso utsen hari, bat edo bat baiño gehixau, eta kantu baten erreferentzia bat eitten dau Arratabeko ez dakit norena, eta dirudienez Artabeko etxie be eurena zan. Otalakuek badakizu zera zien, jauntxo edo.
- Han torria eta...
- Hori da. Horretxek die, oin Kaja Laboralak dauken etxe hori. Eta erreferentzia bat eitten dau Arratabera. Osea ke garai baten igual seguru asko izengo zan, zerikusixa euko eben. Gero ez dakit apelliduekin lotura hori zela eingo zan edo ez zan, baiña bueno.

1.82. Baserriko lanak eta jakiak

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-033/013
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 00:32:07. **Bukatu**: 00:35:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

- **Laburpena**: Eskolako jolas-orduetako jolasak. Eskola bukatu bezain laster, antxintxika joaten zen bakoitza bere baserriko lanetara. Indabak, barazkiak, esnea, taloa eta morokila eta honelako janariak ziren egunerokoak. Txerrikiak ere izaten zituzten; igandetan garbantzuak jaten zituzten okelarekin. Gose kontuak entzun egin zituen, baina berak ez zuen halakorik ezagutu. Ezta errazionamendurik ere.

Transkripzioa
- Eta jolas horreitan eitten zeben eskolan ala eskolan beste jolas batzuk egoten zien?
- Eskola barruen? Eskolan jolasik ez. Eskolan...
- Errekreotan eta?
- Horrek gehixenok errekreotan eitten gittuen, e. Gero errekreo ostien ia eskola amaitzen zanien, normalian bakotxa aide etxera. Klaro, beti izeten gauen ba ganauzain ein biharra edo ittaurren ein biharra edo eztakit nora fan biharra edo. Beti, ordurako ia goxien esanda edo eguardixen esanda: “Gero etorri aguro ze hau ta hau ein bihok eta”. Orduen eskola ostien normalien ez.
- Lehen esan dozu zure ume garaian eskasidadie ezagutu zeuela baiña goserik ez.
- Bueno, eskasidadie esan gurot, beti eukitten gauen ba janarixe edo, egunero errepikatu eitten zan janarixe. Guk babagorrixek jaten gittuen urtien eztakit zenbat denporatan, ezta. Eta gero tenporadie etorten zanien porru-patatak edo leka-patatak edo holako gauzak bai egoten zien, ezta. Baiñe gehixen be guk babagorrixek jaten gauen, babagorrixek txorixo-mutur bategaz eta urdai apur bat eta esnie ta morokille eta taluek eta halako gauzak. Ba hoixe, etxien txarrixe hiltten zan, noizien behin oillon bat hola zahar samarra euenien ha likidau eta haxe jateko, edo altuena holaxe. Domeketan garbatzuek eta okeliaz, okela gixauaz, okela gixaue tomatiaz be bai. Ni akordetan naz janarixakin okelia jaten oso txarra nintzela eta sobre todo filetiek jaten. Nik filetiek tragetako eziñezkue zan niretako. Jota sike-sike eindde ixten nauen ahuen filete zatixe, eta nik uste dot zuku guztiek kentsen nutsela baiñe gero iruntsi ezin eiñ, eziñ iruntsi. Mizkiñe izen nintzen oso umetan. Gero ikasi nauen jaten baiñe umetan mizkiña. Eta bueno, nik esan neike goserik ezta hurrik be gosianik, e. Jan ondo, kantidadia nahikua.
- Zeuen aldekorik edo kaleko jenterik goguen daukotzu estu ibilittakuak eta...
- Ez, nik neuk eztauket goguan. Entzunde bai, entzunde kalien ez euela eta basierrixetara etorten ziela eskien eta famelixa artekuei lagundu eta horrek gauzok entzunde sarri baiñe neu akordau enaz eitten hola . Honbre, nik badakitt gure aitta ta amak eurak be justo-justuan ebizela, klaro. Ez eukien, e..., egon be gauza gutxie euen ta hori aitta ta ama ziela Atxabaletan euen janari-denda ixe bakarreko langilliek izen zien bixek. Eta gaiñera etxien azpixen euen etxie ta bueno. Esan gurot erreztasun gehitxuao igual eukiela lortzeko.
- Razionamentua euen hor?
- Nire denporan ia ez. Ni ia enaz akordetan razionamentuaz.

1.83. Kalean lanean

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa

- **Erref**: ARE-033/014
- **Iraupena**: 0:03:51. **Hasi**: 00:35:06. **Bukatu**: 00:38:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Xabierren gurasoek Lasagabaster dendan lanean ezagutu zuten elkar. Ama dendaren ugazabaren ahizpa zen. Ezkondu zirenean, aitak harrobia jarri zuen. Harrobiko orduko lan egiteko era bitxiak azaltzen dizkigu Xabierrek. Bere aitak min hartu zuen behin, berandututako kartutxo bat bere aurrealdean lehertu zenean.

Transkripzioa

-Zer eukiela esan dozu zure aitta-amak?
-Ez, eurak ibilitta euzen lanian. Eske Atxabaletan euen oin Pagaldaixena deiketan dana garai baten izen zan nire, gure tio baten dendie. Gure Meltxor Lasagabaster, gero Arrasateko Lasagabaster dendia, denda horretako semien da aitte, ezkondu zan nire amaren aizta zarrenakin, tia Mariakin. Nik enauen ezautu be ze nik urtebete neukela hil ein zan. Hola kontatu ustien. Ta kalro, ba orduen ba ezkonduta euzen eta ba nire ama aizta bat gaztiaue, hamahiru urte, hamalau urteaz ero ba lanera, eruen euen dendara. Eta aitte be beste baserrittik dendara fan zan morroi moduen, eta harek eitten auen bat mutikuen lanak, mutillen lanak. Eta ama ba zerbiduten, mostradorien edo gure dana. Eta hantxe ezautu zien aitte ta ama. Eta gero urtietan ibilli zien ba lanien denda hortan, ezkondu zien arte ta. Eta gero aittek ifiñi auen ba kanterie.
-Eta kanteran min haruta gero ze eiñ eben?
-Gero osatu zan eta jarraittu euen lanien. Baiñe geratu jakon ba eztakit, bi edo hiru hazur apurtuta. Garai hortan ba badakizu, operaziñuek eta eitten zien gaurko aldien zelebre eta.
-Lanian segurtasuna be izango zan halakotxia.
-Ezelakoik be ez, klaro. Ezelekoik be ez. Han ibiltten zien ba horman goittik piñu arbola, adarren baten lotu soka bat, sokatik gerrire edo nunbaittera lotu ta goittik behera jatxi eta barrenuaz, eskuzko barrenuaz zulua eitten horman han. Eta igual zortzi-hamar metroko alturatan eta hola, ez. Eta jausi hola bestela berez eztot uste sekula iñor ein zanik, baiña desde luego seguridadia ezelakorik be ez. Eta hori pasau zanian izan zan orduan metxa, ifintten zan zan metxa bat, luzie, metro bikue edo. Ba zulue eitten auen, han sartze auen (kartutxua), sartzen auen, ha atakau eitten zan goittik, itxi eitten jakon zulue, buztiñekin eta eztakit zerekin, eta gero ataraten zan kanpora metxie; eta hori metxioi izeten zan ba len horrek tsiskeruok bazien ba putz eindde..., ba holakotxe estiloko metxa bat izeten zan. Metxie ixotu eta astixe emuten otsen alde eitteko eta hori, ez. Eta ni behin baiño gehixotan akordetan naz ba guk han txabola haundi bat geuken eindde zemento armauaz da txabola barrure sartu ta leherketa noiz eiñ arte hantxe zaiñ, ez. Da joten auen danbarrarie ta txabola gaiñien porrrrrrrr, harri pillue, hola harri txikixak, urrin faten zienak, da behien euan kamiñue, euan bakarra orduan, eta kamiñue moztu ein biher izeten zan, klaro, leherketa hori eitteko.
-Kotxeik eta ibiltzen zan?
-Banakie bai, banakie ibiltzen zan, eta baezpada be moztu ein bihar, eta orduan ba langille bat alde batera faten zan eta bestie bestera, eta gure aittek holako tronpeta bat eukan, tronpetatxo bat eta ti-tiii!, joten auen ha tronpetia leherketa ein bihar zanien, eta gero faten zan eta ixoketan auen

metxia eta danok txabola azpira. Joten auen eta. Behin hori pasau jakon. Metxiori eztakit ba, denpora gehixao tardau normala baiño, eta ia aittek pentsau auen itxungi eingo zala eta ez auela funtzionauko, fan zan eta justo hasi zanien baunba! Geratu jakon ba eztakit zenbat hazur apurtute ta gero gorputz guztien harritxuek. Danak barrure sartute.
-Metraillia.
-Operaziñuan danak ez utsien atara, gaiñera. Akordetan naz gerora ondiok agertu ein jakola azal azpixen harri txiki-txiki-txikitxuek, eta bateon bat berakin eruen auen.

1.84. Lasagabaster dendak

- **Hizlaria(k)**: Lasagabaster Billar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-035/011
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 00:30:10. **Bukatu**: 00:33:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Eskola bukatu eta baserrian geratu zen, 36 urte ingurura arte. Ahizpa guztiek egin zuten lan dendari bezala. Zaharrena Lasagabasterrenera ezkondu zen, hauek Aretxabaletan janari-denda bat eta oihal-denda bat zituzten. Beste lokal bat erosi eta arropa-denda ere jarri zuten. Gero Arrasatera etorri ziren. Erdiko kaleko "Txikixena" denda izandako lokala hartu zuten. Hortik etorri ziren gaur egun Lasagabaster denda dagoen lekura.

Transkripzioa
- Eta hango eskolak akabo ziranien, gero zer?
- Gero kitto, gero etxera, gero etxera ya. Gero baserrixen.
- Zu betik bizi izan zara baserrixen?
- Bai.
- Zenbat urte arte?
- Ba hogeta hamasei inguru arte kasik, bueno, apur bat lehenau ibili nitzen, nik, eske guk, aizta danak dendan ibili gare, danok e? Nere aiztarik zaharrena zela ezkondu zan Lasagabasterrenera, hau Lasagabaster dendia, denda honetara, eta honeik bizi ziren...
- Esan dozu denda hori hasi zala Atxabaletan.
- Horreik bizi ziren Atxabaletan, orduen bizi ziren Atxabaletan, eta Atxabaletan eukien komestiblie eta gaiñera eukien tela dendie, horreik bixok eukien. Eta gero hartu euen gero zerekue, zela esaten otsien hari dendiari? Han Erdiko kalien bertan euen beste denda bat, oin ez naz akordetan, zapaterixia eta eukena, zapaterixa eukien fabrikan zapatak edo zeozer itten zittuen. Zela esaten otsien horri dendiorri, bueno, lokala zan ezta? Ta eurak zarrau in euen hori, ta gero hori hartu auen koiñatuek ta ifiñi auen hor erropa gauzie gehixago ifiñi auen.
- Baiña bestia gordeta?
- Bai, bestie komestiblie eta dana, eta gero ifini euen hor eta hor in zittuen bastante urte, zeatik gero etorri ziren hortik Mondrauera etorri ziren,

bizitten ya Mondrauera. Lobie eta nere koiñatue; nere aiztie hil in zan, hogeta hamazortzi, hogeta hamazazpikin hil zan nere aiztie. Eta euken ba bi seme eta alaba bat, alabia artien gaztetxue zan, geixotu eta hil in zan. Eta gero etorri ziren Mondrauera bizitten etorri ziren. Etxie erosi euen hemen eta Erdiko Kalien, 'Txikixena' esaten otsien denda bat, euen orduen libre, eta hartu auen ha lokala Erdiko Kalien. Eta gero hortik pasau ziren oin dendie dauen lekure; badakitzu nun dauen oin Lasagabaster?
- Bai uste dot.
- Bueno ba, azkeneko hori hartu auen. Atxabaltakue egon zan bastante denporan Mondrauekue eguela be bai, e? Atxabaltakue be egon zan. Eta gero Mondrauekuaz be segidu, bixakin batera be segidu auen denpora askuen. Baiña gero azkenera, oin dana daukie kale baten, Erdiko Kalekua be saldu in euen eta bestie... haundie, oin dauke hori haundixori, eta hori haundixori bakarrik ez, aurrekaldien beste denda bat dau, muebliak eta dauzena, eta gero beste bat dau, "Moda Joven" edo honutzau. Hor kale hortan hiru lokal daz eurenak oin. Azkenien etorri ziren horra.

1.85. Aitaren jatorria

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/003
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:04:13. **Bukatu**: 00:06:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Pedroren aitaren aitajauna Gabiriatik Goroetara ezkondu zen. Gazte hil zen eta bere alarguna Itxasmendiko Joakin Errastirekin ezkondu zen berriro. Hauen semea Emeterio Arabako Hermura joan zen.

Transkripzioa
- Eta zeure aitta-amak nunguak ziran?
- Nire aitta Koruetakue, nire aitten aittona zan Gabiritik ezkondu zan Koruetara, ez dakit zela kristo ezkonduko ziren orduen, urte hareittan. Eta orduen egon zan...
- Zeure aittajuna edo aittaren aittajuna?
- Aitten aittajuna, bai. Eta Gabiritik ezkondu zan Koruetara, orduen ba ez dakit zela, orduen bizikletan be ez ziren etoriko eta trenien be ez, eta ez dakit zela itten zittuein horreik ezkontzaok eta horreik tratuok. Gabirikue, e? Eta hil zan hogeta ez dakit zenbat urteaz, hogeta hamar urteaz azpitik, bi seme...
- Gazte hil gaiñera?
- Bai, bai, bi seme, seme-alabak itxi zittun, seme-alaba nik ez neben ezagutu aittajuna be ez, nire aittajuna be haren semiori nik ez neben ezagutu. Hil zan, bera hil zan ume biaz zera amaori itxi eta hil zan zeori.
- Hareittako, bi ume hareittako bat, zure aittajuna?
- Bai, nire aittajuna, baiña nire aittajuna hil zan ni oktubrien jaixo eta ha Santixau egunian hil egin zan zerien, nik ez neben ezagutu ha be. Eta bestia, aittajunaren arrebia be ez, ha mojia be ez neben ezagutu. Bestaia hil zan, holako birusen bat edo zeren bat egon zan eta orduen jente pillo bat hil bihar izan euen hemen, baiña kantidadia.

- Ez zan izango gripe espaiñola edo hori?
- Nik ez dakit zer izango zan, zeatik pentsaizu zenbat urte diren.
- Zu zeu jaixo eta hurringo egunien, hurringo egunetan hil zan.
- Ez, ez, nire aittajune hil zan beste geixon bateaz, beste zeren bateaz, baiña ha bestia, aittajunen aitta hil zan, Gabiritik etorritta euen hori, hil zan ume txikiñakin-ta, ume txiki biaz itxitta, eta gero biudiori gero ezkondu zan Koruetako Itxasmendi edo hango zer bateaz, Joakin Errasti, eta seme bat euki euen hareik eukieuen biudiorreaz ta ha zan gure tio Emeterio, esaten gotsan guk hari. Hortik ezkondu zan Arabara, Hermura, eta hareik Errasti apellidua eukien, ezta? Amandrien bigarren gizon horrek eta ha zan Emeterio Errasti, Araban Hermun Errastixak hor daz Hermun eta Larrean ta zerak, hango, hemengo jatorrikuok, zeozer zerikusixa eukena gurekin.

1.86. Ama araoztarra zuen

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/004
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:06:47. **Bukatu**: 00:09:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Ama Araotzeko Enparantza baserritik etorri zen Goroetara. Tio Bittor, Oñatiko "Juanitosiena" dendakoaren kontu batzuk azaltzen ditu, gerra denborakoak barne.

Transkripzioa
- Eta zure ama nundik etorri zan?
- Ama Araozko Enparantzatik, bai, Juanitosien Bittor ezagutu zeben?
- Bittor bai.
- Ba Bittor tio zan nire amana.
- Bittor Juanitosena, Pedron aitta, ezta?
- Pedrona ez, ha Inazio zan Pedron aitta.
- A, Iñaxio, nik Iñaxio ezagutu neben. Klaro, Bittor ez.
- Bittor zan Iñazion aitta. Santixautan etorten zan gurera zaldi gaiñien. Zera tio Bittorrori, eta hor izten eben San Mielak artien zaldixori. Gero nik jarri zaldi gaiñien eta Urrusula Garaittik, Lamiategittik tak, sartzen nitzen oin han hareik ortuek eta zerak aukien lekuen, euken zaldixorrentzako itxabolia eta bera piñudixak eta basuak eta zerak be beukien, eta basora fan ta asko ibiltten zan zeori, tio Bittorrori.
- Hari, Bittor hari...
- Ha zan nere aman aitta eta ha anaiek ziren. Enparatzakua Segundo eta hori Bittor anaiek ziren horreik.
- Bittor horri ya esaten xako Juanitosa edo onddiok ez?
- Juanitosiena? Juanitosiena esaten jakon orduen.
- Orduen be bai?
- Bai, bai, Juanitosiena esaten jakuen, gure bizi guztien Juanitosiena esaten jakuen.
- Eta ordurako beukein dendia-edo?
- Bai, dendia aurretik. Gerra denporan kartzelan sartu euen frankistok-eta, gero alabia Rosa edo euken zerbat, eta hareik dendan han egon ziren baiña Leonardo hango zera hartu eta apenas gauzak halako ondo eruen

zittuen behintzet zerien, etorri zanien apenas topau zittun, famelixie ez eukena zan alabiori Rosa, eta horreik ba istorixa batzuk ba, bueno. Eta ni han egoten nitzen ba San Mieletan zaldixori eruen eta Miel Usako ta tio Bittorren lagun haundixak ziren, bata Ameriketan egon zan hanka egindda hemendik, eta bestia kartzelan, eta han bazkaitten geontzela orduko kontuei buelta emun eta zerien, eta ni mutikuak ba entzun itten nittun zertzuk esaten zittun orduen. Eta gero zera etorritta hemen komerziuen batak eta bestiak be fabrikantia edo zera eta bestie, Madrillera fan zirela egun baten, entzunda daukat beari edo zeari. Ta Madrillen preguntau otse zeren bat, aguazillen bateri, "¿aquí para ir a calle Toledo?" "Ahí tienen ustedes el metro." El metro, el metro hemen xakuau poltsikuan baiña zeozer itten xuau honeaz.

1.87. Ikatz garraioa

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/011
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:24:36. **Bukatu**: 00:27:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Mendikurutza baserri handia zen. 18 ganadu buru egoten ziren etxean eta idiak ere bai. Ugaztegitik ikatz garraiorako nahitaezkoak ziren idiak. Kaleko lantegietan ikatz eskaera handia zegoen. Bost pezeta ordaintzen zuten Ugaztegitik ekartzen zen ikatz zaku bakoitzeko.

Transkripzioa
- Baserrixan zenbat ganau, ganauak-eta euko zittuein, ezta?
- Ganau asko. Orduen hamazortzi, baserrixa haundixa zan ha, terreno asko euken. Oin be badako ondiok ardixak eta ganauak be bai.
- Hamazortzi ganau eukitten zeuein?
- Hamazortzi, hori gutxienien.
- Idixak be bai?
- Idixak? Honbre! Idixak fuertiek gaiñera, e? Gero idixak derrigor biher be orduen, gero pezetie be, gero gerra ostien hemen ikatzak in zirenien hasi Gatzagatik Otzaurteraiño horreik baso danok, hareik bajetako, ikatza bajetako, idixakin Koruetatik fan zaittez Ugastegira behetik gora, goiko Andartoraiño ta, han dazen aldatzakin behetik gora, eta handik ikatzetan, eta nik gure tio batek esaten oskun, han Ziondokuak, gure aitten arrebia euken andria, piñu sartzen-ta gu beragaz gaztia gitzela asko iblli nitzan ta orduko kontuak, ta gu orduan aberasketan gebintzenlakotan ibili gitzuan ba, zerien, ikatzetan. Orduen hemengo fabrika guztiak gasojenuakin ta zerakin ibili ziren, ez euen beste zerik, inddarrik be ez beste zerik eta kriston problemak, eta Orbegozo eta Altos Hornos eta honeik danok ikatzakin, ez dakit zela kristo itten zittuen, nehiko millagro itten euen. Gasojenuek be hemen zeakin ifiñi kotxiek eta danak gasojenuakin ibiltten ziren. Eta ikatza Ugastegittik, han Ugastegi ingurutik bost pezeta zakuko, eta hogeta bi zaku ekarten zittun.
- Bost pezeta, durua, orduan diru pillatxua izango zan, ezta?

- Diru asko orduen! Eta goratxuagotik sei pezeta edo. Kriston diruak itten ibili zirela orduen, orduko denporan.
- Eta zu zeu ibilli ziñan karretero?
- Ez, ez, ni artian mutikua nitzen; aitta ta tio eta horreik beste zer batzuk. Gure aittak ziren horreik, aittak. Orduen hainbeste diru…
- Horrek gasojeno horrek zela funtzionaitten eben ba?
- Ba ikatza botaten otsien eta kotxiai be baitta ikatza bota ta zera. Eibar-Vitoria be gasojenuakin ezagutute daukat nik, gu maristetan eskolan gebitzela.
- Autobusa?
- Autobusa, bai. Zela ba… zela funzionauten euen, hori…
- Lokomotoran antzera izango zan, ezta?
- Bai, bai, lokomotoren, trenen antzera.
- Lurrunakin.
- Kriston lurruna, lurruna zan, hainbeste lurruna ez euen ataraten zerak; atzekaldien erueten euen zeori kargauta eta gero motor horrek zela pistoiari eragitten otsen, hango gasakin mobiuten zan motorra, handik urteten eben gasakin. Hemen ezagutu gittuen bueno, ondiok bizi da, hemen Larrubixarren lagunketan otsana eta hemen zer bat, larogetaka urtiak euko (di)ttu baiña ha mutikotia ta ha lagun ebela faten zan Beroako ugezabaz sasue bateko bera.

1.88. Ikazkintzan lantegian baino diru gehiago; ardiak

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/013
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:27:56. **Bukatu**: 00:30:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
  Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- **Laburpena**: Legazpiko lantegiko lana utzi eta ikazkintzan hasi ziren ugaztegitar eta araoztar batzuk, diru gehiago irabazte aldera. Untzillako Zeraingo Paskualek ekarri zituen ardiak Mendikurutzara gerra denboran. Ardi batzuk erosi egin zizkioten, eta harrez gero izan dituzte ardiak etxean.

Transkripzioa
- Ha izaten zan bueno orduen diru asko. Orduen ikazgiñan hor ibilli ziren hemendik Legazpira lanera fan, ta jente pillo bat Araozkuak, Etxebarri Txikiñeku edo Etxebarri Haundiku edo hanguak, Aratzurtikuak bi anai Madiñakuk, Madiñako Azpiko Txikiñekuk, beste hanguk be bai, ta jente pillo bat hor juntauta Ugastegiko Beheko Etxekuk be bai, zerekuk Santi hor Zumarragan edo Legazpin edo Zumarragan.
- Beheko Etxekua Juane eta honeik?
- Juanen anai bat.
- Juane bera ibilli zan umetan ikazkin.
- Bai, eurok be bai ibilli ziren, baiña horreik geroko ikazkiña, beste mailla batekuak gero. Hareik aurrekuak ziren Legazpira lanera fan eta beratzi pezeta ta erdi jornala irabazi, eta patroniari beratzi pezeta pagau ta gosiak akabo bihar, esaten euen. Eta hola etorri ziren horra ikazgiñen. Gero

horreik atzera Legazpin hartu zittun. Gero bata, hori Araozkuori ibiltten zan, hango ekonomatua euken hemendik ardi zaharrak udazkenien eruen ta salketan; Tomas eta bestiak ez dakit zela ziren, beste anai, bi anai ziren hareik.
- Esan dozu hemezortzi ganau eta gero…
- Ba, hamazortzi-hemeretzi edo auskalo.
- Eta ardixak be bai?
- Ardixak, gerra denporan, ondiok bizi da hemen, larogeta hamabi edo larogeta hamahiru urte ointxe in bihar (di)ttu, hori mutikua ondiok gaztia, Untzillako Zeraingua, hemen aiuntamientuen horren, hori beori hospizianua da baiña, horren etxeko zera, Zillaurren hemen dauen aguazil bat. Antxiñako Zeraingua zan hori, Paskual. Hori hor Araba aldetik edo nunbaittetik etorri zan ardixokin, ta gurien egon zan, lehenengo ardixak orduentxe egon ziren gurien gerra denporan. Ta horren ardixak, oin be esaten dutset beorri, hola adarra joten ta iñoiz, hau Zubiak, Joxe Zubia eta horreik danok han egozen Zubia famelixok, hiru-lau famelixe, e? Batak apartetako ta honek Josek Zubiak bat hor ardi gorri bat ederra, kriston errapeiaz, eta bestiorrek ardi ipurtestu kaxkar bat eta bera tuertia gaiñera, ardixa ona zan izan, ez dakitzu? Bi ardi eta gero besten bat edo beste batenbateri erosi eta orduentxe hasi ziren gurien ardixak. Eta ondiok segiuten daue.

1.89. Mendian ardi eta txerriekin

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/014
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:30:26. **Bukatu**: 00:33:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Kurtzebarrin edo Deguria mendian egoten ziren ardiak. Gazta bertan egiten zuten, eta gazurarekin txerri ederrak hazi ere bai. Arabako tratanteek erosten zizkieten gero txerriok. Pedro bera ibili zen gaztagintzan. Mezara joateko ibilaldi luzeak egin behar izaten zituzten mendiko artzainek.

Transkripzioa
- Nun eukitten zeuein ardixa uda partien-ta?
- Kurtzabarrin, Kurtzabarrittik hortxe zerien. Oin Degurixan ibiltten dira. Itxabolia in euen ni soldau fan aurreko urtien-edo, aurreko urte bat edo bi lehenau, ni soldau fan baiño. Etxabolia Araozko zerak Leontzio, ointxe hil da haren semia, ‘Amandria’ esaten utsien Araotzen, Elkorobarrutia-edo, ointxe Gabonak ezkero.
- Ardixak jaitzi eta gaztaia han goixan itten zeuein-edo?
- Gaztaia orduen goixen, niretako lanik onena izaten zan orduen, eskolatik akabauta eta aitta ferixara fateko, bestela be etorten zan eguaikotxetan behera, eta gaztaiak in ta gustora. Etxien hango aldien lan asko in bihar zan; eta txarrixak be eukitten gittun, orduen txarrixakin be dirua hartzen zan. Bost txarri.
- Han etxabolan?

- Etxabolatik aparte txarritegixa egindda.
- Bai, gatzuriakin gobernaitteko.
- Gatzuriakin ta asunek edo orrixak edo gure dana; hareik irakin bat emun eta gero gazuria bota eta kriston txarrixak hazten ziren. Han bakarrik ez, Degurixan eta Alabittan ta danien. Ta danak tratantiari erueten utsien Arabara txarri haundixak, orduen ez euen granjarik eta ezer.
- A, baiña zuek txarri horreik gero ez zittuein kalera ekarten, txorixuak eta egitteko?
- Ez, txarrixak etxien egoten ziren besten bat edo bi. Horreik Santixautan edo inguru artien batzen ziren ardixok zera arte, billotsak be geruago jaixoten ziren oin baiño orduen. Arabara erueten zittun eta tratantiak han zertuta eta ondo pagaute, dirue hartzen zan orduen txarrixakin, orduko diru asko.
- Eta gaiñera gazuria aprobetxau.
- Eta gazuria aprobetxau eta kriston txarrixak itten ziren.
- Zeu be faten ziñan ardixak jaiztera.
- Ardixak jaitzi, gaztaiak in eta danak itten nittuen nik, eta mezetarako hamar ta erdittarako Koruetara etorri, goittik behera, “echando leches” ordun.
- Ba Degurixatik Araotzera faten ziren mezetara.
- Muxibar nire koiñatua ta, horreik Araotzera.
- Hau Juane eta be bai.
- Ugastegittik faten ziren Araotzera, Ugastegi Koruetakua zan baiña horreik mezetan Araotzera faten ziren. Eta Degurixatik be faten ziren pastoriek be mezetara Araotzera.

1.90. Aramaioko "Tuberoa"

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/017
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:37:45. **Bukatu**: 00:41:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena**: Etxean ura beti ezagutu du. Hodiak itxi egiten ziren eta Aramaioko "Tuberoa" ekarri zuten arazoa konpontzera. Urak berak uzten zuen "troskie"k ixten zituen hodiak.

Transkripzioa
- Eta etxe barruen ura?
- Bai, etxe barruen ura, bueno, akordaten naiz etxe barruan gurien betik egonda ura, han goittik ifiñitta, onddiok depositua han dau.
- A, teillatuko urakin…
- Ez, itturri batetik goittik. Geure esparruan urtenda, urteten dau itturri batek eta hango ura euen etxien. Baiña euken troskie, han bidien pasaten zan holako zerien baten ta akordatan naz goiko depositotik behera zera euen, tubo hola estu samarrakin ifinitta eta troskiakin zarrau, gu mutikuak gintzala.
- Metala?
- Metala ez, bestie, troskie da beste…

- Zikiña?
- Holako, oin be Ugastegin han troskie esaten jakona badago, holakotxe maillak egoten dira zertuta, egindda, zerien. Izaten da hori gauze zer bat, harrixe be ez, baiña harrixen moduen gogor samarra, ta hori troskie da, bueno, hori, rarue ez jakittia zuek, troskie. Tubuak zerrau itten zittuen, enkanbio plomun ez zan pegetan, baiña beste tubuetan be pegau. Zementozko tubuak ziren honeik, eta…
- Uralitazko lehengo tubo zaharrak, ezta?
- Porlanezko tubuak ziren hareik zerak, ta hareik zulua be holakua eukein ta hari zulua zerrau in jakon, eta gero gu mutikuak gintzala Aramaixoko “tuberua” edo esaten otsen, Aramaixotik etorritta, holako zabalerako tubuak sartu zittuen zerien, eta hareikin ya bastante, haundixak ziren eta zerretako hareik, dana zerretako urte asko biher. Baiña gero ha troskie bidien euen harri zerien, goittik behera errekatxo moduen etorten euen hori. Berak urteten euen lekuen ez euken, ta gero goittik hartu euen ta gero troskiori eliminau zan.
- Hori zer da, urak berak erueten dauen zerbait?
- Bai, urak berak eukitten dau, Ugastegin be badau hori, Ugastegin han Ugastegittik […] aldera gatozela, troskie esaten jako hari, troska, eta han gure errekan bertan jausten dan lekuan zerien, bertako harrixen, haitxen gaiñien, holakotxe maillie egindda dauko urek.
- Guk metalakin Arantzazun...
- Metala, metal ure, baiña metal ure, ha bigunagua eta zeragua da baiña bestie gogor-gogor egitten da, ha […] masie letxe pegetan da hori, troskiori.
- Nik Lurgorrittan aldatuta dakot tubuak ziharo zarrauta metalakin, e? Gorri-gorri.
- Bai, hori gorrixa da, baiña bestia ez da gorrixa, bestia zela esango dotsut nik, honen kolore antzekue edo, honako ze bat, honetxen kolore antzekue. Bai, hori da, eta holakotxe maillak egitten dira goittik behera. Ugastegira faten bazara Juaneri esaiozu troskie nun dauen, fan eta harek erakutsiko dotsu, Juaneri, Juane Urkiari.
- (…)

1.91. Estraperlo kontuak

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/019
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:44:10. **Bukatu**: 00:47:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Martzel "Marroko" Aozaratza auzoan izandako Marroko baserrian jaio zen. Goroetan eta Araotzen bizi izan zen eta Arabako Ozaetara ezkondu zen azkenean. Estraperlo garaiko pasadizo batzuk kontatzen ditu Pedrok, "Mordo Motz" eta beste pertsonaia batzuenak.

Transkripzioa
- Gero beste zer bat be egon zan orduen gerraostien, kontrabanduan pasaten nitzen Arabara.

- Estraperlua.
- Estraperlua eta etxerako falta zanak eta zerak ekartera, ardaua be bai, ekartera akordaten naiz ni, zeretik, Larreatik-eta, hemen Ozaeta-eta, gero kostunbre bat egon zan egunduko zera, atzera-aurreria astuakin, hor paatxa hazixa be zetik, zeatik Ozaetatik ekarritta nau neu be, bai, eta onddiok goguan daukat, holako diabru samar bat zan, Ezkurra Joxe, eta Ozaetara banoie goittik behera, ta agostua zan, ta esan osten horrek Mantxuen Teodoron andrien aitta, Mantxuen Teodoron andrien aitta, Martzel Marroko esaten otsen baiña Oñatiko sekretarixuak etxia eginddako lekuen han bizittakua izandakua edo zan, hori neri esan nostenerako ya gizon nagusixa zan, ez dakit orduen zenbat urte euko zittuen, ta Ozaetara ezkonduta euen, eta esan osten “de dónde es el vasco”, eta nik idixak erosten eta asko etorten ziren Arabarrak orduen zera, hona, ta “ni Koruetakua”, nik ezaguketan neben bera, eta “Koruetakua nungua haiz ba?”, “Mendikurtzakua”. “Joxe Uzarko bizi dok?” Eta “bai”, oin ez jakixat…
- Joxe zein?
- Joxe Uzarkue, Koruetakua, zerekua, baserrikua, eta “bizi dok?” Eta “bai, oin ez jakiat zelakua dan baiña lehenau kaskajua galanta zuan ba!” Eta hori tiori esan notsan, gure zeari, Ziondoko Koruetako zeorri eta bai, bizimodua inposiblia itten otsan harek zera mutikotan zeorri, betik jugadak itten, betik zerak itten, eta Mordomotz izena ifiñitta eki ien zeori, Martzelori, Joxek, eta Martzelen ama bizkaittara izan bera. “Mordomotz? Heuk euko dok hik morduori luzia!” Zeorrek Martzelen ama horrek Joxiorri. Holako txistiak eta […]
- Heuk euko dok hik mordua?
- Morduori luzia, Mordomotz esaten otsen zeari eta; “heuk euko dok hik morduori luzia!” Haren zera, horren esaten doten horren zera, Martzel Marroko horren aitta, Joxe Miel ieuken izena, eta ordun Oñatin ospittala euen orduko denporetan be, eta han hil ei zan, eta hori guri tiok esandakua piñu sartzen eta gabitzela. Hil ei zan han eta Koruetan han Errekabitartera edo beste etxe batera, han Julian, ha ezagutu neben neuk be, ha zahartuta euen orduen mutikuak gintzanerako be. Baiña hara fan eta esan ei otzen: “Julian, badakitzu zer pasau dan gurien? Joxe Miel hil jakula Oñatiko ospittalien”. Eta Oñatiko ospittalien hil zan zeori, horren Martzel horren aitta. Orduko, ez dakitzu, istorixak.
- Martzelo horren aitta, eta Martzelo hori zan Teodoron andrien aitta?
- Martzelo da Teodoron andrien aitta, zan, bai, Martzel Marroko esaten otsen. Marroko Azatzan jaixota euen ha, jaixota euen Azatzan, baiña guk ha etxia ez geben ezagutu, Azatzako Zelaiko etxien aurrekaldien, han Marroko bidekurtzia esaten otsen, eta han etxeren bat egonda euen baiña gure denporan ez.
- Handik Arabara fanda?
- Handik Koruetan, eta gero Araotzen be bizi izan ziren, Agerre azpiko han Saratxo han be. Ta gero hemen ikazgiñen eta ebillela, hori neskiori aurrera, han be astuakin eta bihorrakin eta ikatzak ataraten han, Degurixatik gora be. Eta han nobixiori edo tratua-edo in eta Ozaetara ezkondu zan hori Martzelori. Teodoron andrien…
- Teodoron andria ez da euskalduna.
- Arabarra, Ozaetakua.
- Esan dozunien Araotzen bizi zirala…
- Bizi bai, bizi izan zan baiña amakin Martzel, soltero euela. Gero ezkondu zan Ozaetara, eta Ozaetan jaixotakua da hori, zeori…
- Teodoron andria.
- Bai.

1.92. Arabatik estraperloa

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/021
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:50:30. **Bukatu**: 00:52:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gari gutxi ereiten zen inguruan, eta bai garia eta bai patata estraperloan ekartzen zuten Arabatik. Pedro bera ere joaten zen astoarekin Arabara. Hirusta hazia ere ekartzen zuten. Gariak ematen zituen lanak eta aurrerapen berriek lanok nola erraztu zituzten azaltzen du.

Transkripzioa
- Eta estraperlu garai hortan zu zeu ibillittakua zara astuakin-ta?
- Bai, astuakin faten nitzan ni aittakin be bai eta zerien be bai, eta gero…
- Ze ekarten zeuen gehixen?
- Batzuetan garixa eta hurrengo beste zerbait, eta patatia be ekarritta gaz.
- Patatia zer, hazittarako edo jateko?
- Jateko be bai, akordatan naz zeretik…
- Eta hori zeatik zan, zeuen… ez zeukein nehikua zeuen…?
- Gero ereitten eta hasi zan jentia gehixau, eta gero ez zan ekarten, gero kanbixau in zan bizimodua konpletamente.
- A, orduan ez zan hazten patatarik?
- Artien… orduen denporan guk ekarten ibiltten gintzan denporan bai, zeozer bai baiña…
- Gutxi.
- Gero bai, gero patatia eta danak.
- Garixa eta patatia eta beste zer gehixao?
- Esaten dotsut, paatxa hazixa be handik ekarritta gazela, ba holakotxe gauza zer batzuk, patatia…
- Eta olixo eta holako gauzarik ez? Ez zeuen ekarten handik?
- Olixorik ez.
- Hori izango zan razionamento garaixan, ezta?
- Bai, olixorik ez.
- Jatekua.
- Jatekua besteri ez.
- Zeuek Mendikurtzen, (…), Mendikurtzan garixa esan dozu eukitten zeuela.
- Gero bai, gari asko hartzen zan.
- A, baiña gero.
- Garixa, bueno! Aurretik garirik ez dakit bape hartuko zan be, itxitta igual egongo zan, ogixa […] eta gero artua moduko holako zer batzuk, bal-baltzak egitten ziren, gosiak jentia. Gero garixa ereitten zan ta gero garixa erain eta igeitexakin ebagi, gero lotu zerok, azpelok, gero metak egin, gero garijoten atzera matxaka zahar bateaz, gero garbiketan be lana txarra eukitten eben garixak, gero ekarri zan zera, Bittorixan Ajurianien egindda, lastua kamarara eta garixori garbittuta, eta makiñiori ekarri zan, ha zan adelantua!

1.93. Belarra ebakitzeko makina

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/022
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:52:29. **Bukatu**: 00:55:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Belarra ebakitzeko garaia oso neketsua izaten zen. Idiekin tiratutako belarra ebakitzeko lehenengo makina Mendikurutza baserriak ekarri zuen 1944 inguruan. Garia jotzeko makina (trilladora) ere aurrerapen handia izan zen. Belarra ebakitzeko makina beste baserri batzuek ere ekarri zuten gerora.

Transkripzioa
- Eta aurretik segan, jo ta bedar zaillak kristonak, hainbeste ganau eta kristo, ta jota errebentauta jentia betik e? Ibiltten zan e? Zenbat astolan? Harik eta makiñia agertu zanien eta makiñia geurian egon zan leheningo, bedarra ebateko makiñia, eta idixakin ibiltten zan. Bape be makiñiaz ibiltteko lekuen deskantsu ederra hartu euen jentiak. Gero hari makiñiari…
- Idixakin tiratutako bedarra ebateko makiñia?
- Ha idixakin tiratuta bedarra ebateko makiñia, bai. Eta hari gero ifini etsien zer bat, ha gizona majua zan Ajurianetik etorten zana, beste holako tablazko zer bat, eta gaiñian asientua ifini erruedien gaiñian eta idixakin hartu makiñiori eta eskuaria da, hola in, eta martxan doiala ebagi eta zerak lurrian illaran itxi eta faten zan zeori, garixori ebagitta, atzetik kentzen samur baiña aguro be bai, eta bestia igeitexakin aldian aguro, eta azpelak izten zittuen oso kurioso eta harekin kriston fazilidadia izan zan, eta gero trilladoriori ekarri euenien el sumun. Juntau kuadrillia eta bost edo sei lagunen artien, makiniori edo trilladoriori ekarri euen eta lastua kamarara tubotik ta garixa garbi-garbi egindda zakura, eta handik troxkara. Garixa asko hartzen zan, urte batzutan hala be, bueno!
- Goguen dakotzu gutxi gorabehera ze urte izango zan, edo zeuk zenbat urte izango zittuen hori, leheningo bedar ebateko makiña hori ekarri zeuenien?
- Ba, hortxe, “cuarenta y…”, orduen kriau euen hemen Felipe Txantxiku, Oñatittik etorrittako batzuk ziren, gurien urtietan egon zan, ointxe onddiok urte gutxi dala hil zan, larogeta beratzi-hamar urteaz-edo. Gu ibiltten gintzan ni mutikua eta hareik bedar ebaten, orduentxe ekarri euen makiñiori, izango zan “cuarenta y tres-cuatro” holako baten.
- Gero makiña hori beste baserri batzutan be egon zan?
- Gero beste batzuek be ekarri zittuen makiñak, zerak, bedar ebateko makiñok beste etxe batzutan be…
- Baiña idixakin tiratutakuak.
- Idixakun tiratutakuak, bai.
- Eta horreik aldatz goran eta aldatz beheran ondo ibiltten ziren makiña horreik?
- Aldatz beheran tiraketako aldatzien, aldatz haundixak egozen lekuen segiaz ebagi biher, baiña terreno patxadazkuak egozen, hori pantanua in dauen lekuan-ta. Horreik danok zeraz…

- Sekula entzun barik neuken. Hori Oñatin ez dakit ezagutu dan.
- Ba hemen bai, gurien egon zan ta beste leku batzutan be politto-politto hasi ziren.

1.94. Belarra kablez etxeetara eramatean gertatutako istripua

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/023
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 00:55:15. **Bukatu**: 00:58:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Idiak euren pausoan joanda, makinak belarra ebakitzen zuen. Hala ere, belardi maldatsuetan segaz ebakitzen jarraitu zuten. Toki maldatsuetan belar iharra kablez bidaltzen zen etxeetara. Belar-sendorra kablean gelditzen zenean, harriz betetako zorroa bidaltzen zioten bultza egin ziezaion. Horietako zorro bultzalari batek Goroetako Uriarte baserriko belartegian lanean ziharduen gizona hil zuen istripuz.

Transkripzioa
- Zenbateko kortia hartzen eben? Segiak baiño zabalaua?
- Holako peini bat euken, holako zabalerako peine bat.
- Segiak igual gehitxuau korte baikotzien?
- Zabalau bai baiña, segiak ebagi orduko ha baztarrien egoten zan e? Idixak euren pausuan faten ziren eta, aide. Ha adelantu haundixa zan e? Ha zera, ordurako. Diferentzia ederra, gero segiaz ebaten ziren horreik beste terreno aldrebesauak, han daz zeretik, pantanotik Ursula Garai aldera, hareik be han be zail haundixak egozen, eta hareik segiaz ebaten ziren artien.
- Hara igual idirik eruen ezin, ezta?
- Idixak burdixa kargauta-eta faten ziren, baiña norberak bizkarrakin eutsitta eta burdixa kargauta […] atara bihar. Aldapak, bai.
- Arantzazun…
- Arantzazun, eta Urrusulan? Urrusulan hemendik Urrusula Garaitik ifini, oin dana piñua dau baiña dana zelaixa zana, danak kabliak ifintten zittuen etxera sendorrak botateko.
- Neuk be ezagututa dakot hori.
- Nik Koruetan ezagututa dauket han goittik, Kurtzebarri aldetik Koruetako Uxartekuk, etxia be han dau baserrixa ona, etxia ona. […] edo zerak, goittik kablia ifinitta eta etxeraiño aillau baiño lehenau geratu sendorra, askotan haiziek eutsi itten otsen, kabliak hola egin, atzetik harrixa bota zakun baten sartuta, ta Urtitxeko Anizeto, han bertakue, hemen aiuntamientuan dabil hango zer bat, horren aitten tio bat zana, hemen lana itten dauen horren aitten tio bat. Bedarrok kentzen beziñuanera fanda ta jo harrixori goittik behera kargauta bota daue zakun baten harrixori, jo eta sendor eta harri eta kristo guztia eta jota garbi gizonori bertan kamaran.
- Gizona garbittu?
- Eta ni etxeburuen nebillen ganau zain, eta amak esan nosten kanpaiak entzuten dittunien, hamabixetako kanpaia joten euen ordun eguardixen, eta illunkaran be bai aramaittekua, eta…

- Anjelusa edo ez zan hori?
- Anjelusa edo ez dakit, eta entzuten dotenien erueteko ganauak etxera. Eta nik kanpaia entzun nebenien hil-kanpaia, mutikua, artien gaztia nintzan ta, kanpaia ta onddiok zer eta, gero zera, kanpaia, hil-kanpaia Uxarten jo zeorrek zeori. Harrixak sendorra trabatik kentzeko harrixak bota atzetik, eta harrixak pixua zela euken harek, haiziak ez otsan hari eusten eta goittik behera abixara haundixa hartuta eta jo eta sendor eta guzti barrura, hemendik atetik barrura sartuko balitza letxe eta barruen euena zeori, gizonori, mutilzahar hori jota garbi bertan. Bai gizona.

1.95. Kale-baserrian jaioa

- **Hizlaria(k)**: Azkarretazabal Bengoa, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-041/008
- **Iraupena**: 0:03:08. **Hasi**: 00:18:27. **Bukatu**: 00:21:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Kale-baserri batean jaiotakoa da Pilar. Bera umea zenean, arropak garbitzera errekara joaten ziren. Aretxabaletan ez omen zegoen garbitokirik.

Transkripzioa
- Gu bizi gintzen han, korroria (?), etxe, etxe-basarrixa zan, etxia, eta kale-kalian gaukun, ezta, baiña trena pasetan zan...
- Kale-baserri baten bizi ziñen zu?
- Gehixenak eukien, guk ganau bi bakarrik eukitten gauen. Baiña etxerako, ez dakitzu?, etxerako.
- Etxerako?
- Eta Andra Maixetan urteten gauen korroera ta, "Tia Petra!, tia Petra!" Danak hantxe holan, ez dakitzu? "Badatoz, badatoz", da jentia ba, "Ebe!, badatoz!", eta Eibartik kuadrillia. (Argazkiak ikusiz). Hori Andra Maixetan atarata dau, e. Hauxe zan Eibarresa (...). Geuk pe geuriek eitten gauen.
- Bai, ikusten dot.
- Guk ez gauen in dirurik baiña ondo pasetan gauen. Oin baiño hobetuau
- Bai?
- Neuretako bai.
- Ze ba?
- Oinguek gabez ibiltten die eta gu egunez. Oinguek xaguxarrak letxe dabitz hor.
- Otalazelai esan dostazu dagola pantanuan onduan. Pantanua noiz ein zeben?
- Semea: Hogei bat urte edo hola?
- Gehixao eukiko dau.
- Semea: hogeta hamar? Hogeta bost, hogeta hamar, hola.
- Ordurako zu ya ama izanda ta guzti.
- Bai, bai.
- Lehenao sekiak eta egoten ziran? Ur barik eta egoten ziñan?
-Ur barik? Lehenau bai, lehenau-lehenau amanien, neu neskatillie nintzenien orduan errekara joaten zien jabonaduria hori eitteko, baiña ya nik ura (...)

- Erropia garbitzeko eta errekara?
- Bai. Etxien igual garbittu batzuk iñ da gero errekan han aklaretako. Jentie asko hor errekan.
- Labaderuak?
- Semea: Ez, labaderua ez. Hortxe, hementxe bertan, elixa ostian. Ez euen labaderoik beste herri batzutan (moduan).
- Hemen ez euen labaderoik, hemen errekara. Ezkailuak eta hantxe ta. Oin errekan paittak eta bakarrik dabitz. Eta len paittaiketa ikusi bez errekan.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Doktrina ikastearen garrantzia

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/002
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:00:43. **Bukatu**: 00:03:01
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Baserriko lanak umetan. Eskolara gutxi joaten ziren, etxean lagundu behar izaten zen eta. Doktrina ikastearen garrantzia. Abadeak galderak egiten zituen eta ondo erantzun beharra zegoen txartela lortzeko, bestela kalabaza ematen zuen. Jaunartzea egiteko ere txartela behar izaten zen. Pazkoa garaian, abadea eta sakristaua txartel batzen ibiltzen ziren baserriz baserri.

Transkripzioa
- Eta eskolatik bueltan etorri ta gero eitten [zittuen] horrek lanok, ala eskolara fan barik? Zelan egitten [zittien]?
- Ez, ez, ez. Ganaua, jeneralien, goixien ibiltten zan ta!
- Goixien?
- Goixetik, goixetik.
- Ba! Eskolie, zera... Eskolie... dotriñie bai! Hamen... jo! Azkoittiko abadiek-eta dotriñie? Dotriñien proporziñuen ikesi [bahu] zera, ingenierotik gorakue [hitzen]. Jo! Dotriñie? Puf! Buruz!
- Ta atzo edo lehengunien esan notsuen nire anaie-ta, ni hareaz faten nitzen beti txarteloi hartzen. Txartela be...
- Jo!
- Bai. Aber, txartelan kontuek, kontau. Kontau!
- Ba esaten neutsen: "Guezan txartela hartzen", ta, ba, [han] fan egin biher txarteloi...
- Pazkuetan, garizumie pasaute.
- Ta faten gitzen sankristixara faten gitzen beraana. Ta preguntetan uskun "Ta hau ze?", ta "Hau zer?" ta ni isilik. Dana harek kontetan auen! Harek dana ekixen. Kartilla dana ekixen harek; buruz dana! Ta pregunta bat ein etsen beren buruz, abadiorrek, ein uskun ta "hori dotriña kartillan ez dau". "Ez dauela?", "Ez, ez dau hori dotriña kartillan, ez dauko hori". [...] hartu ta begiketan dusku ta "Ez jaukek, ez. Ez jaukek".
- Harek bai jakin, e?

- Dana jakin! Ni hareaz faten nitzen. Nik ez nekixen, bueno, ezebez nik, "Kredue" ta "Aitta Gurie" ta holako batzuk.
- Bai, [...] dotriñie, ene!
- Ta, ze zan? Ondo erantzun ezkero txartela emoten otsuen?
- Ba txartela izeten zan, hori, e... Bestela kalabazak emoten zittuen. Kalabazak, ba... Txartela? Bai, ta dotriñia ikesi ta berriro fan bihar ha txartela hartzera. Dotriñie [ikusi]... ta ez badaukek dotriña, zera, galderak ez baeuen zerketan, ez baekixen, "Aber, ha ikesi ta etorri gero!" Ta ha ikesi ta barriro fan. Ta barriro zertu biher. Neuri ez jate suertau, baiña...
- Ba, izeten zan txartel bat izeten zan dotriñakue. Ta beste bat izeten zan, gero ha kanbixau eitten euen komuniua hartzen zauenien , gurejauna hartzen zauenien, ha kanbixau eitten zan.
- Pazkuak, garizumia pasau ta gero. Pazkuetan.
- Ha kumuniokue izeten zan. Ya ha sakristauek kanbixau eitten euen. Sakristaua faten zan abadiaz komunio emuten ta zeraaz. Ta sakristauek lehengo txartela kendu ta komuniokue emun...
- Dotriñakue kendu ta...
- Ta gero ha txartela etxera ekarten zauen ta Pazkutan edo noix etorten zien, sakristauaz ta arrautzak batuaz [...] bat ein ta [zerok, txartel batzuk]...
- Bai, zerok, [...], [zerketan], bedeinkaketan abadia etorten zan, ta zestuaz ta sakristaua, monagillue ta arrautzak. Ta txartela...
- Txartela entregau bihar orduen.
- Bai.
- Bueno! Gaur balitz, e...
- Eta arrautzak, zerien...?
- Berak erueten zittuen!
- Berak eruaten zittuen?
- Bueno, dozena bat [edo zer], ta, ba, etxe bakotxeko... Kriston zestuaz ibiltten zien ta [harek] arrautzek hartu ta...
- Eurendako gero?
- Onbre! Beretako! Klaro! Beretako!

2.2. Doktrina euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/008
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:09:37. **Bukatu**: 00:10:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Doktrina abadearekin ikasten zuten. Eskolan ematen zen eta beraiek euskaraz ikasi zuten.

Transkripzioa
- Ta dotriñie-ta zeiñek erakusten zotsuen?
- Abadiek!
- Abadiek berak?

- Onbre!
- Eskolan barruan? Eskolan bertan edo aparte?
- Eskolan. Eskolan, eskolan. Dotriñie, ha zan lehenengoko zera, e!
- Lehelengoko zera zan?
- Bai. Ha... ha jakin biher zan lehelengo.
- Erderaz, klaro...
- Ez! Euskeraz, euskeraz.
- Euskeraz erakusten otsuen? A! dotriñie euskeraz?
- Dotriñie? Nik neuk euskeraz ikesi [nauen], e!
- Bai, e?
- ... erderaz ez.
- Ta ze ikasten zauen kantauaz-kantauaz?
- Ez, ez.
- ... edo memorizau edo...?
- Ez, dotriñe-kartillie edo [hori] emun, ta handik estudixau ta...
- Ba, noberak ikesi preguntak, galderak, handik.Ta gero, ba, gero berak galderak eitten zittuen "Bueno, hauxe ta hauxe ta aber". Berak ipintzen zittuen "Bueno, honenbeste galdera hamen. Honek ikesteko, e!" , leziñuek. Ta, bueno, preguntaten otsun ta ondo [...] kontestau [...], zertu ezkero, ba, paso. Ta gero, ba, gero bestiek.

2.3. Eskola kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/009
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:10:32. **Bukatu**: 00:13:04
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Eskolan zer ikasi zuten. Irakasle gogorra izan zuten. Zigorrak.

Transkripzioa
- Ta Garagartzan zertzuk ikesten zittuen han eskolan?
- Zertzuk ikesi?
- Bai. Han problemak-eta zueik be?
- Bai, bai, bai. Bai. Problemak eta. Ona zan, e! Gu ikesten baiño hobie. Bai. Ha... lehelengotik hasi ta zera. Joe, ni bederatzi urteaz fan nitzen ta katonien hasi, edo kartillan. Kartillaik-eta ez dozu jakingo... Lehenengo liburua: a-e-i-o-u. Ez dakitzu? Ordura arte batien esnie eruen Mondraura ta hola ibilitte.
- Ganau-zain ta...
- Bai, ganau-zain ta hola. Ta faten naz ta [honei Santa Agedakuoi] tokau umetatik [Arantzakua] bertako jentia umetatik fanda, ta haik holako mutikotxuek ta ni holako mutikotzarra ta kartillan a-e-i-o-u. Ekixok handik gero! Ba, hangotxe eskolie ikesi geuen, besteik ezebez. Ta han ibili gitzen.
- Baiña ya maistro... ha... esaten euen ona zala.
- Joe, gogorra zan, e!

- Bai? Gogorra zan?
- Bai, baiñe erakutsi be bai, e! Dio!
- Erakusten ona zala. Bueno, onbre!
- Baiñe partidu be bai, e!
- Partidu be bai?
- Partiduten zittuen.
- Bai, e?
- Ta jentie be bai okerra, e! [...] Santa Agedarrok eta Garagartzarrok majadero batzuk...! Ta ipini belaunbiko ta liburu pare bat edo hiru bat ifini hola, ta hola jaso ta hola eukiten zittuen hak, e! Ha egon ein biher zan hola, e! "Más arriba" esanda.
- Harek han kantsaute, e! "Gorao" ta benga ta...
- Ta partidu zelakuek? Letxe! Ha ona ha!
- Baiña ha euskalduna zuan!
- Joder euskalduna, hemengotxie; Larriñoko edo... izetez Jauregi horkue da, nunbaittekue horkue da Larriñokue edo...
- Jauregi zuan ha, e?
- Jauregi da bai, Jauregi.
- A! [Ama] Atxabaltako alkate egon zanan zera orduan...
- Aitte!
- Aitte!
- Pedro Mari ta...
- A! Ya, ya, ya... Gerra aurretik alkate egon zanan aitte.
- Aitte bai, Pedro, porterue izen zan Atxabaltakue.
- Joño!
- Bai.
- Ta semie be zeueaz eskolan, ez?
- E?
- Semie be han abillen eskolan zeuekin?
- Semiek bi, bi, ta alaba bi be bai.
- Alaba bi be bai?
- Bai. Ta Modesto gerra-denporan hil zan. Modesto zan, ni baiño urte bi zaharraue zan. [...] zerien, problema bat ipini otsen tablerue izeten zan zer baten, horman, horman baltza, ez dakitzu?
- Tablan. Tabla bat baltza, ez dakitzu? Ta han tiziaz...
- Bai, tiziaz, klarionaz.
- Klarionaz, harekin...
- Ta dda! Ez utsen ataraten; [fan ta] hari emun otsen emutekuek semie izanda! Holakotxe belarrixek gorri-gorri-gorri eindde. Partidu? Bai, horixe!

2.4. Hilarrien inguruko ohiturak

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/010
- **Iraupena**: 0:03:38. **Hasi**: 00:13:04. **Bukatu**: 00:16:42
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

- **Laburpena**: Elizkizun eta hilarriekin lotutako ohiturak. "Labako-sua" egiten zenean, "olatak" ere egiten ziren. Hilarriko trapu zuria, kandelak eta olatak. Hilarriak. "Bonetie".

Transkripzioa
- [Hari bota biher izeten zien] olatak badakitzu zer dan? Entzunda badaukotzu olatie zer dan?
- Ez, olatie ez.
- Holaxe da, holaxe.
- Bueno, olatak kalien diferente eitten zittuen. Hamen hola, holako triangular, hola.
- Bai, holaxe, holaxe, holaxe. Holaxe. Olatak izeten zien.
- Laba-sue eitten zanien eitten zien olatak.
- Astero eitten zan laba-sue ta astero... hillerrixe zan zera, bakotxak berak eukitten euen nobere silliekin ta holako zer zuri bat ifinitte ta...
- Trapu bat, hillerriko trapue esaten jakona, zuri bat, hola...
- Ta kandelakin ta han egoten zan meza-denporan ha ixotuta egoten zien.
- Horreik zuek ez zarie akordetan? Eske, klaro, hillarrixa [...] zenbat urte dittuk, ba, ondion?
- Bastante izengo da, e?
- Bai, [ondion] gaztiak dittuk eta.
- Hillerrixak ze die, silla batzuk die?
- Silla batzuk eta gero...
- Silla baju batzuk?
- Bai, emakumandako.
- Emakumandako.
- [...] egoten zan hilerrixek, ba, bakotxe bere zeraz. Zela esaten jakuan hari? ... Aa! Almidonauta egoten zan zera, ta gero, puntillakin-ta ingurue ta han lurrien...
- Bai, zera, hillarriko...
- Hillarriko trapua esaten jakuan.
- Hillarriko trapue, bai. Ta han, ha geoten zan hola ta gero hor puntan eukitten euen hola, puskat doblaute gora. Trapu horrek... ha almidoiaz edo zertuta egoten zan.
- Almidonaute egoten zan ta gogorra!
- Gogorra, gogorra. Ta hamen egoten zien bi kandela. Ta hemen silla bat edo bi edo...
- Bai, batzutan, gaiñera, hori, zera be bai, holako... joe, zela esaten jakuan hari! [... zuluek...], [oholezko] zera...
- A! Bai! Zera... Ez dakit hari zela... Hari zela esaten otsien? Ez dakit zela esaten otsien...
- Kandelak ipinttekue bertan?
- Bai, zulue eukitten [zeuen] kandelandako ta holako [tablazko] zer bat izeten zan...
- Kandela-lekue. Kandela-lekue edo ez dakit zela esaten otsien.
- Bai. Ta harek zuluek [eukitten] zittuen. Ta hori, ba... Horreik normalien izeten zien [...] kandela asko [ipintten] zienien, ba, hilbarrixe zanien. Lehelengo urtien-ta, ba, han kandelak-eta asko.
- Han bete-bete eindde.
- Bete-bete eindde, su baten.
- Ta han eitten euen, "Pater noster"-a botaten euen, ta "Aitta gurie" bat errezau ta txakur txikixe botaten eutsien ta txakur haundixa, gura auena.
- Bonetara, bonetara.
- Bonetara. Ta...
- Bonetia hari.

- Ta mutikuek bonetiai eutsitte, ta zeroi han, abadioi, "Pater noster"-a errezetan. Ta gastetan jakonien-edo, androi gastetan jakuenien txakur haundixok, txakur txikixok, beste batera.
- Beste hillarri batera.
- Baiña han, hori olatie be zerak, ez, aurretik ez, zerak, damakasiek, batzen euen olatak.
- Bai, holako zaku zuri bat eukitten euen ta olatak hara botaten zien ta ha eurendako.
- Eurendako. Arrautzak moduen, ha be...
- dana... Aste guztiko ogixe ta sobra!
- Aste atzenerako gogortuko jate olatok! Baiña berakatz-zopie eitteko edo...
- Olatak, bai.
- Eta eitten zan, olatak eitten zien, urunakin?
- Bai...
- Arto-urune edo gari-urune...?
- Gari-urunez.
- Garixaz.
- Gari-urunez. Laba-sue eitten zanien...
- Labako sue eitten zanien, ogixek eitten zienien, olatie eitten euen. Olata bat, ba, hillerrirako abadiendako.
- Bai, bai, klaro. [...] danak batzen zittuen eta danak...
- Batu ta eruen noberak!
- Noberak eruen ta noberak bota zakure!
- Bai, bai.
- [...] meza-denporan, meza akaberan edo.

2.5. Abadeekin hartu-emana nolakoa zen; "hamarrenak" zer ziren

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-002/006
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:15:57. **Bukatu**: 00:17:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Hamarrenak zer ziren. Zikinak (?): gaztainak, oiloak, arrautzak... Garia, artoa ere ematen zitzaien.

Transkripzioa
- ... lehenao "hamarrenak" edo...
- "Hamarrenak"?
- Ze izeten zan hori?
- "Hamarrenak" eta "hazikiñak". "Hazikiñak". Ba, "hamarrenak", lehenao hamarretik bat abadiei.
- Emon biher jakon?
- Emon biher jakon, bai.
- Ta "hazikiñak", "hazikiñak", bueno, zien, ba, gaztaiñak edo... Zer esango [dostat] nik?
- Arrautzak.
- Arrautzak eta...
- Arrautzak eta oillaskue eta...

- Oillaskuek eta...
- Ta gero, auzoko fiestetan-ta oillue bakotxak. Bai, oillo [mordue] etxien. Ta, ba, hiru-lau... lau-bost bat abade egoten zien, ta, ba, harendako nahikua ta sobra.
- Bai, bai. Ta orduen abadiek be asko, e!
- Abadiek?
- Oin aldien...
- Auzo bakotxian bat orduen, ez?
- Auzo bakotxien bat, baiñe zeretan, bertako jaixetan bost bat abade juntau.
- Han juntau. Konbidau, e!
- Konbidau. [...] Mezie emun, ta beste batek [sermoi... bat] ein ta... Ta gero bazkaixe.
- Bazkaixe.
- [Ama ...] txarto.
- Harek preparau biher, ezta?
- Bai, onbre!
- [Zu, ... zertzuk... zien haik]?
- Zien: egurrek, burdikada bat egur. Gero, garixe. Garixe [eren sostenimenturako] fanega bat, fanega bat, berrogeta bost kilo. Gero artue.

2.6. Eskolara neguan

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/014
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:36:00. **Bukatu**: 00:39:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Eskolara neguan joaten ziren. Eguraldi ona zegoenean, baserrian lagundu behar izaten zen. Maisuak. Adin desberdinetako umeak batera joaten ziren.

Transkripzioa
- Baiña hor be asko kanbixau da kontua…
- Bai, oin… enee! Pentsau be ez!
- Lehenao ze eskola euen, ba?
- Ez, oin, barriz, enee…! Lehen eskolara neguen faten zan, ta neguen… udan ahaztu atzera dana!
- Neguen ikesittakua…
- Bai, bai. Ba, horixe ondo. Gaiñera, orduen denpora ona baeuen edo zerien, “Ittaurran in bihar dozu gaur”. Ittaurran in biher, idixen aurrien. Oin, barriz, ez dao holakoik.
- Ha, gaiñera, zuzen ibili biher, ezta?
- Bai, ba! Ganauek bestela oker faten zien iguel ta!
- Ta ittaurran umiek izaten zien jeneralian?
- E?
- Beti umiek ibiltten zien ittaurran?

- Bai, ba! Nor ibiliko zan, ba? Nausixek bestela eukitten euen lana!
- Ta eskolie auzuen eukatzuen edo...?
- Ez, ez. Ni zortzi urtekin ekin nitzen eskolara, hemen. Maistro bat etorri zan, [holako] aragones zer bat [...]. Gero, interino egon zan, urte bi edo in zittun ta gero, ba, beste leku batera fan zan. Gero atzera beste bat be etorri zan, ta, ba, holaxen. Ta, ba, gero, Atxabaltara mojetara. Mojak [eozen]. [...] Oñetira fan zien, hemen zerik, lanik edo zerik ez edo... mojok be gutxi ta... T han ibili gitzen mojetan atzera. Ta holaxe.
- Neska ta mutil danok batera hemen?
- Bai.
- Batera?
- Bai, danok.
- Edade diferenteko jentia...
- Bai! Batzuk lau urte gehixao be iguel, beste batzuk txikixauek... Holaxe.
- Ta danok iguala ikasten?
- Bai. [Liburu bat danok] zertu ta gero haundixauek [beste...]. Holaxe ibiltzen gitzen.
- [Nahiz ta egunero fan ez ezkero, ba]... formal jarraittu ezik...
- Bai. Ta gero, barriz, ba, gero hemen maistrak-eta egon zien. Ta gero [... zan] eskolie ta gero [hamengorik ez gendun] ta, ba, kalera. Holaxen.
- Ume pillotxue juntauko zitzien igual...
- Gure denporan bai. Larriñokuek, Koruetakuek ta Azatzakuek ta Arientzakuek. Lau auzotakuek. Asko. Neguen-ta, holan, denpora txarrakin-ta, holan haunditxuauek be etorten zien ta enee! Berrogetakak iguel egoten gitzen hor. Ta maistro batek ze erakustiko euen, ba? Bai, ba. Ezin [...].
- [Haik] danak gobernetan...
- Bai, ba! Bai, ba.
- Errekreora-ta [etaraten giñun], jolaserako pilla galantak!
- Eskandalu ederra!
- Bai. Ta gero neguen-ta, denpora txarrakin-ta, haunditxuauek be etorri itten zien. Badakitzu...
- Etxian lana gutxiketan zanien...
- Bai. Uda aldera gutxiao.

2.7. Igandeetan jai

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/025
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 01:07:03. **Bukatu**: 01:07:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Igandeetan jai. Gari-ebatea egin nahi izanez gero, baimena eskatu behar abadeari.

Transkripzioa
- Lehenao domekia be jai hartu bihar izaten zan, ezta?

- Bai, orduan jai hartzen zan.
- Lanik ein ezin.
- Ez, ez, ez, ganaujatekuak eta be aurreko egunian ein ta orduen meza nausittara ta... Beste zer bat.
- Lanian ikustia geizki ikusitta euen, gaiñera, ezta, garai hartan?
- Bai, bedarra igarketan eta garixa ebaten ta, abadiari permisua eskaketan jakon garixa ebateko zerien; ha in lekien ta baietz...
-A bai? Ta emuten euen permisua?
- Bai, gari ebaterako, e? Bestela ez.

2.8. San Juanetako ohitura

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/026
- **Iraupena**: 0:04:20. **Hasi**: 01:07:50. **Bukatu**: 01:12:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena**: Auzoko mutilek San Juanetan egiten zuten ohitura. Tantaia; sua.

Transkripzioa
- Orduan hemen, San Juanetan, txopua-eta jasoten zan?
- Bai, txopua-ta bai.
- Ta zeintzuk?
- Auzoko mutillek!
- Auzoko mutil danak?
- Bai, bai, auzoko mutillek danak ibiltten zien.
- Kintuak zienak edo?
- Ez, ez, auzokuak.
- Edozein edadetakuak.
- Hoik zeoik, kinttuek kalien kalekuek egoten zien lehenau, ta basarrixen basarrittakuek eta, gaiñera, auzuen auzokuek, e?
- A, kintto batzen esan gura dozu?
- Santa Ageda batzen!
- A, Santa Ageda batzen.
- Bai, auzokuek bakarrik. Ta ni ez naz akordetan, baiña bai, akordaten naz neu be, [...] ekarten euen mutillek... zera, txopua, txopua edo tantaixa, [baiña] gabien, ha ekarten euen lapurtuta.
- Bai?
- Bai, ha ixillien edozein lekutatik, edozein lekutatik, bai. Ta txopua edo zera, harrapetan baebitzen, ba, orduan, kendu eitten otsen, ez zutsen isten, baiña, ba, horixe pasatzen zan. Ta gero kendu itten otsen ha txopua edo, jabiek! [Baiñe] gabetan, [esaten dot], nire [...] gabien ibiltten ziela eta zerien, eta harrapau ta, ba, tantaixa ez dakit nundik be ekarri mutillok eta tantaixa ipini. Goixien aziaz ta, azapuntia zeorreaz, tantaixori.
- Ze ifintten zan? Ze ifintten zan puntan?
- Ba, aza on bat edo larrosak edo ipini tantaixan, ta...
- Eta ipiñi be gabian itten abien?

- E?
- Ipiñi be...?
- Jakiñe, ba! Lapurreta itten euen ta! Bai, mutillen hori, kostunbrie, harrapau tantaixe ta, ba, [itxi]. Batzutan, ba, iñor akordau barik, ba, [...] ekarri itten euen ta, baiña beste batzuk akordau itten zien. “Joño! Geuretik ekarri juek horreik! Guretik!”, eta, ba, kendu itten otsien orduen be, esaten daue! Oingo mutillak baiño mutil fiñauek edo zerauek.
- Gabian fan ta ekarri ta...
- Aurretik pentsauta eukiko euen nundik, pentsauta eukiko euen: “hantxe jak modukue edo bestie” ta ekarri. Baiña hurrengo goixerako, San Juan goixerako, ba, tantaixa dotore!
- Zutik.
- Bai.
- Ta sua ta be eingo zan.
- A bai, sua be bai, su haundixa eta...
- Kanturik baeuen, San Juan...?
- Bai.
- Zela da? Zela zan hori?
- Ez dakit, “San Juan dala” edo kantetan euen.
- Gurian txikittan kantaitten geben, baiña oin ya total ahaztuta dakot.
- Ta leku danien eitten zien suek, e, orduen.
- Bai. Etxe danetan esan gura dozu?
- Etxe danetan.
- Oin ez?
- Oin, iñok eztau [...], baiña orduen, ba, erramu egunien, ez dakitzu? Eraiñotza bedeinketan zan sortak! Ta haik sortak eukitten zien. Ta gero, osea, [aurreko] egunien, San Juan bezperan, illunkaran, erre itten zien, eta kantau itten zan. Solo eskiñetan, danetan, soluetan edo bedeinkatuak, erreten zittuan, haik. Eta gero San Juan egunian be, sendorra itten zan, orduan. Lorak eta, ba, garixak eta herbasantakin egunduko sorta... lora... zera, eta ha be bedeinkatu eitten zan, bedeinkatu. Eta ha sortie gorde itten zan. Gorde ta, ba, gero, zerien, San Juan hurrengoko zerien, bezperan, erramu zerakin, haik bedeinkaziñuok erre itten zien, ortuen edo soluen edo zerien. [Bedeinkatuak]. Oin horreik gauzok ez die itten! Ez die itten! Baiña orduen danak eitten zien. Orduen horrenbeste malo ta ez zan ibiltten. Bai.
- Horreik garbiketan zittuen?
- Nik ez dakit, baiña orduen behintzet horreik bedeinka... zerok, haik bedeinkatuak, erre itten zien soluetan, baserrixan, danak.

2.9. Soroen bedeinkapena

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/027
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 01:12:10. **Bukatu**: 01:14:52
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Abadeak soroak bedeinkatzen zituen udaberrian. Erreguteak. Kanpaiak. Asentzio letaniak.

Transkripzioa
- Eta sorua bedeinkaketara abadia etorten zan?
- Bai, etorten zan, oin ez dao holakorik!
- Urtero-urtero, ezta?
- Urtero-urtero, udabarri ingu... Garizuma inguruan edo hola etorten zien. Garixak eta... bai, maiatzian edo etorten zien. Bai, bai. Garixak hola buruen daozen... bedeinkaketara etorten zan abadiak, bedeinkaziñua botaten. Oin hori ez da itten. Ez dakit nik fedia euen edo zien ala zela zan. Behintzet, gauze txarrik ez.
- Errogatibak eta...
- A bai! Errogatibak, e... San Markos egunekua, orduan bat itten zan errogatibia, bat, goizian bat. Eta joten zien kanpaiak hiru ekiñaldi, e? Errogatibarako. [Esaten zan]: “Han errogatibarako kanpaiak!”, ta jente dana, baserrittarrak, ba, auzokuak, faten zien errogatibera. Gero, Asentzio Letaiñak esaten zan, Asentzio badakizu zein izaten dan, oin astegun da, baiña orduan eguenian izaten zan, ta orduan be Letaiñak egoten zien. Orduan, hiru egunekuak itten zittuen errogatibak, hiru egunetan kanpaiak joten zittun, hiru ekiñaldi, “han errogatibia!” ta hiru egunekua. Asentzion Letaiñak. Oin horreik ez da itten.
- Nik uste neben ura eskaketako itten ziela errogatibak.
- Ez.
- Eurixa eskaketako eta...
- Eurixa eskaketako bai, sikutia euenian be eskaketan zan, ezta? Bai, orduan be errogatibak itten zien ura eskaketako, baiña horreik zien zerak itten zittuenak... orduan parrokixa danetan azen abadiek ta hola itten zien. Azentzio Letaiñak hiru egunetakuak izaten zien, hiru egunian illaran, goixetan, ta gero mezie. Orduen errogatibak eliza inguruan [...] bueltan egoten zien, ta oin ez da itten. San Markosenak, bat, egun baten orduan, errogatibak.

2.10. Kanpai klaseak; antzinako ohiturak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-004/001
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- **Laburpena**: Maiatzaren seitik irailaren 14ra arte kanpaiak 12etan jotzen zituzten. Larunbatetan, errepikak. Guztiz galdu dira ohitura horiek.

Transkripzioa
- Maietzien seixen ekin ta setienbrien hamalaura arte joten zittuen sankristauek. Ta oin horrek danok galdute daz. Bai, bai. Auzo danetan joten zittuen kanpaiak hamabixetan.
- Ta entzun ingo zien, gaiñera?
- Bai, bai, entzun itten zien! Hemengo sankristauek akordetan naz zela joten... Ordu batetan, ordu bat... edo... ez, hamabixetan, dangadie joten euenien erlojuek “dan-dan”, hamabixek. Ta gero errepikie joten euen. [Bai,

fin joten euen hak].
- Ta hori izaten zan abixua zeoze...?
- Ba, hamabixak ziela, hamabixek.
- Ta errezon bat itten zan hor?
- Ez.
- A! Ez. Bestela?
- Bestela, ba, [...], errepikak.
- Ta gero atsaldian be bai, ezta?
- Atsaldien ez, zapatuen joten zittuen errepikak.
- A! Zapatuetan bakarrik?
- Zapatuetan. Bai. Hurrengoko egunien domekie zala ta... Bai, kanpaiek. Leku danetan joten zittuen, e! Oin ez da kanpairik... entzun be ez da eitten! Oin ez... domeketan be... Lau... Lau hillebetetik behin toketan jaku guri hemen auzuen ta, ba... Domekan, gaiñera, errepikarik ez. “Daun, daun” jo ta, ba, aide. Baiña orduen mezetara kanpaiekin ta danakin. Beste zer bat auen orduen; ez dakit, ba, zer, usadixo horixe.

2.11. Sinesmen kontuak; Garizumako sermoiak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-004/002
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:01:30. **Bukatu**: 00:04:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- **Laburpena**: Garizuman, bederatzi eguneko sermoiak. Sermoien helburua. Aurreko belaunaldien sinesmen kontuak. Debekuak; bekatuak. Aramaittako kanpaia.

Transkripzioa
- Ta lehen misiñuek edo itten zien?
- Misiñuek?
- Misiñuak edo...
- Bai.
- ... ze zien?
- Zerien, garizuman, misiñuek. Misiñuek esaten [oskuen]. Misiñuek, ba, beratzi eguneko zerak, sermoiek esan gureko dozu. Bai. Sermoiek eta... [maietzien] ta... ba, [txandie], baten Azatzan eingo zien ta hurrengo beste auzo baten edo ta... Fraiden bat-edo ekarri ta beatzi eguneko zerak, misiñuek.
- Ta sermoiek izeten zien?
- Sermoiek izeten zien. Oin horrek ez dao, oin ez daz. Oin ez da entzuten, baiñe gu gaztiek gitzenien ta...
- Ta ze zan, beatzi egunien segido?
- Segidu! Goxien mezie edo zera emuten euen ta gero atsaldien, ba, hiruretan edo [sartu] ta sermoie galanta.
- Zeren gaiñien izeten zien?
- Ez dakit nik zeren gaiñien izeten zien.

- Edozer gauzen gaiñian?
- Bai, ba.
- Kristauek zuzenketako edo…?
- Bai, ba! Zuzenketako! Formalak izeteko edo…
- Oker ibiltten ziñein ala?
- Oker gu ez, baiñe… horrek gure aurretikuek zien. Bai. Gure denporarako jentie zertute euen asko, horrek aurrekuok. Baiña horrek, horrek misiñuok eta horrek bai, artien bai.
- Eliziak beste aginpide bat edo, ezta?
- Bai, ene! Aginpidie? Beste aginpide bat euken.
- Ta bilddurre-ta egoten zan hor orduen sermoietan ze esango edo…?
- Bai! […] orduen.
- Abadiek?
- Bai. Abadie [orduen] kanpotik ekarten euen. Fraiden bat edo jesuittie edo…
- A! Kanpokue, gaiñera?
- Kanpokue! Ta […] itten bedeatziur… zeroi itten…
- Ezezaunen bat, orduan…
- Bai. Baltsiuatik eta dantziatik eta gogor eitten euen. Oin, oin, oin dantzia… […] dantzioi.
- Ta horrek mezetan esaten zittuen?
- E?
- Baltsiuen gorabeheran ta mezetan…?
- Mezetan sermoie itten euen ta gogor itten euen. Orduen? Bai. Dantzien gaiñien ta… Nere [orduko…] dantzien gaiñien zera… aramaittakotan neska-mutillak formal-formal etxera. Baiña…
- Ta aramaittakue zer da?
- E?
- Aramaitakue?
- Aramaittakue, kanpaie joten euen, aramaittakue.
- Kanpaia zetarako?
- E?
- Etxeraketako?
- Ba, etxeraketako edo… illunkara danetan joten euen zer guztietan. Aramaittakue esaten jakon.
- Ta ze ordu inguruetan joten eban?
- Ba, illundu… illunkaran, illundute… Kalien be bai, e! Kalien be joten euen, e?
- Retiradie…
- Retiradie, bai, bai, retiradie.

2.12. Doktrina ongi ikastearen garrantzia

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-004/003
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:04:45. **Bukatu**: 00:07:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Doktrina
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- **Laburpena**: Doktrina ondo ikasi beharra. Doktrina txikia. Jaunartzea. Doktrina ondo ikasten ez zuenari zigorra.

Transkripzioa
- Doktriñak ikasi biharra ta, ezta, egoten zan?
- Bai, dotriñie, enee…! Ondo ikesten geuen. Lehelengo primera comunión eitteko dotriña txikiñe, ha dana, ta gero dotriña haundixe.
- Zelan…? A! Bi zien?
- Guk dotriñie…
- Dana…
- Buruen.
- Buruen euki biher…
- Ta komunixue itteko lehelengo bata ta gero bestie ikesi biher?
- Bai, bai.
- Dana?
- Oraziño danak eta… Oin ez da oraziño bape ez da ikesten.
- Ta dotriñie ikesten mezetara faten zitzien [beren berez] edo…?
- Mezetara?
- Edo meza ostien edo…?
- Eskolan be dotriñie emon biher izeten zan leziñue. Ta abadiak… illunkaratan abadiana neska-mutikuek eta.
- Zetara, leziñue emutera ala…?
- Leziñue edo… ba, preguntetan euen ta, ba…
- Segimentua itten eban harek?
- Bai.
- Badabil edo…
- Oin dotriñia, oin dotriñia… Oin…
- Ta ikesi ez ezkero zigorren bat ala…?
- Ba… batzuk izeten zien holako burugogor antzekuek, baiña harei emun eitten otsen abadiek makilliaz. Orduen makilliaz emoten euen, e?
- Gogorrak zien, gero!
-Ta etxien be ezin ezer esan igual, ez?
- Bai, guk ezin… abadiek [palizie emonda be] guk ez gauen esaten etxien ezer. Isilik. Baiñe pozik faten gitzen illunkaratan, abadie artien falta bazan, han jolasa eitten geuen gaztiek. Holaxe, holaxe lehengo kontuek. Ene, orduko abadiek lan gutxi eukitten euen. Beratzi etxe edo beratzi-hamar gure auzuen bazien ta abadie. Orduen leku danetan eozen abadiek. Enee! Oin akordaute… Ene, ene!
- Auzue zainddu edo…
- Bai, ezebez. Orduen, enee! Ezebez.
- Gaiñera, abadiei eruen eitten xakon generua, ezta?
- Bai.
- Obligaziñua generua emuteko abadiai, ezta? Etxe baikotzak. Edo zela zan hori?
- Bai, bai, obligaziñua.

2.13. Baserritarren eta abadearen arteko harremana

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-004/004
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:07:10. **Bukatu**: 00:09:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Baserritarrek abadearekin zuten harremana. Errezatzearren; bedeinkapenak egitearren garia ematen zitzaion apaizari.

Transkripzioa
- Enee! Oin akordaute… Ene, ene!
- Auzue zainddu edo…
- Bai, ezebez. Orduen, enee! Ezebez.
- Gaiñera, abadiei eruen eitten xakon generua, ezta?
- Bai.
- Obligaziñua generua emuteko abadiai, ezta? Etxe baikotzak. Edo zela zan hori?
- Bai, obligaziñua.
- Zertzuk?
- Abadiai eruten jakon, ba, hilleko zera… errezau eitten otsen pater nosterra, ez dakitzu? Bai. Ta orduko anega-erdi emuten otsen, anega-erdi. Ta gero, ba, beste borondatezkue anega bat gari emuten jakon. Ta holaxe. Ta gero gobiernotik be baeuken, ba, abadiek.
- A! Gobiernotik be baeuken, e, zeoze?
- Bai, gobiernotik [euken horrek] abadiek orduen. Abadie ondo bizi zan orduen.
- Garixa bakarrik emuten xakon?
- Garixe ta gero oil… San Juanak zienerako, ba, oillaskuek eta… […] ba, holaxe emuten jakon.
- Hori borondatia ala…?
- Borondatie.
- A! Borondatez…
- Borondatia, borondatia.
- Hola, obligaziñoik…
- Ez, ez, ez. Baiñe, ba, holaxe, borondatie euen ta.
- Bai, bai. Ez zien gaizki bizi…
- Zenbat eta auzo haundixaue zan, ba, abadie hobeto. Ba, gauza gehixao.
- Ta mezia egunero izaten zan ala ez?
- Mezie egunero.
- Egunero…
- Egunero.
- Ta danok derrior fan bihar?
- Ez, ez, ez.
- A ez? A, hori ez?
- Astegunetan ez gitzen faten; domeketan.
- Domeketan euen obligaziñua?
- Domeketan euen obligaziñue. Domeketan faten gitzen. Hemen egoten zan hamarretan betik gazte-denporan ta Larrinon be hamarretan [edo…]. Arientzan egoten zan zortzi t´erdixetan edo. Ta holaxen, ba, kanbixetan. Han entzun batzuk eta, ba, bestiek hamarretako mezetara.
- Ta domeketan fan ein biher izeten zan?
- Domekan faten zan, bai, ta dana faten zan hamen jentie orduen. Auzo danetan.

2.14. Lehenagoko mezak nolakoak izaten ziren

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-004/006
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:12:00. **Bukatu**: 00:14:52
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Abadeak meza jendeari bizkarra ematen egiten zuen. Sakristauaren eta monagiloaren betebeharrak. Nolakoak ziren lehenagoko kontuak.

Transkripzioa
- Ta abadiek mezie ze emuten auen jentiei begire edo jentiei bizkarra emunde?
- Bizkarra emunde orduen. Ta oin… oin ekin otsen horri, behera begire. Bai.
- Altaran bera egoten zan?
- Altaran sakristaue ta bera.
- Ta abadie...
- Sakristaue aldamenien, monagillue...
- Bat da? Sakristaua ta monagillua bat da?
- Ez, sakristaue gizona edo izeten zan.
- Ta monagilluak...
- Monagilluek mutikuek.
- Ta danak egoten zien hormara begire?
- Ba, altarara begire. Abadie egoten zan aurrera begire. Ta oin daoz, oin behera begire egoten da. Baiña lehenao, ba, gu atzekaldien, [atzera…].
- Ta sakristauen ta monagilluen lanak zein zian edo ze itten euen?
- Monagilluek? Ba, binajerie eruen ta bestie ta… [santuze] zanien zera jaso ta zerak eitten otsen, monagilluek.
- Zer zanien?
- [Santuze], ez dakitzu? […] orduen abadiek, ba, erreberentziak eitten zittuenien harek jaso eitten otsen […], ez dakitzu? Monagillue […] ta zera jo, txiliñe jo monagilluek itten euen.
- Ta sakristauak?
- Ba! Sankristauek be...
- Harek ezer ez? Egon?
- Egon harek, klaro. Monagillorik ez euenien bera [sankristau…] ta holaxe. Elixeko lanak… Holaxe zien, ba, lehenauko kontuok. Diferente.
- Bai, guztiz diferente, e!
- Oin lehendik hona… oin gaztiek-eta diferentzia ona dauke lehenaotik hona!
- Asko kanbixau da…

2.15. Baserriko lanak

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/001

- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Udazkenean, iratara joaten ziren. Eurite handiak; behin gertatutakoa.

Transkripzioa
- Ta iretan ze faten zitzien udazkenien edo...?
- Udazkenien, San Migeletatik atzera, San Migeletatik atzerao, [akabau arte]. Ta atzo esan notsen —[hori pasau jat...]—, atzo esan notsen, [...] hor etorri zien, ba, [ur] haundi batzuk, euri haundi batzuk ein zittuen, ta Malkorren be badakit zubixek-eta erun ei euen Malkorren be. Landetako zubixe be erun ei euen. Malkorren [...] ez, Landetakue. Ta bidiek arrastau ein zittuen; arrastau ta bide txarrak [ifini] zittun ta ezin etorri. Ta basuen —bi [...] daukou, ba, basue— hortik San Adrixenera [kruzia], San Adrixenera datorren bide azpixen daukou basue— bastante [...] haundixa, [...] bat hektarea-edo badauko—, ta behetik gora ekarri biaje bitten, e? Bedarra, e, burdixe, idie. Goixen kargau baten ta kamiñotik bueltan etorritta nao. [...]
- Kamiñotik? Mondraotik?
- Mondrao, Mondraotik, bai, bai, bai, bai, etorritta nao.
- Mondraotik bueltan etorritta?
- Mondraotik bueltan etorritta. Birritten etorritta nao! [Zela] samur eitten da, e!
- Bai, bai...
- Baiña etorri ein bi´ da, e? Klaro, bueno, goittik behera zan gehixena ta gero hemen etxe-onduen —[ezer ez zan eitten], baiña—, hemen etxe-onduen, ba, hemen puntekua ifini —kamiñoik ez euen, hurrik emotekoik be, ta— puntekue ifini, beste pare bat aurrekaldien, tiretu ta hor etxe-onduen aldatz haundixe euen tokixen...

2.16. Larunbata, laneguna

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/011
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:18:00. **Bukatu**: 00:19:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Zapatuetan ere eskolara joan behar. Laneguna ere izaten zen. Jaiegunak.

Transkripzioa
- Gero Mondrauen esne-errepartuen ibiltten zitzen edo...?
- Bai, bai, bai, bai. Domeketan. Zapatuetan be orduen eskolara fan biher izeten zan.
- Zapatuetan be bai? Zapatuetan eskolara faten zan iguel-iguel. Lanera be

bai fabrikara be, zapatuen lana eitten euen berdin-berdin!
- Zapatu goixetan?
- Atsaldien be bai! [Ai, ene…]
- Bai, e?
- Bai. Onbre! Atsaldien seirek arte.
- Eskolan be bai seirek arte ala lanien?
- Eskolan laurek arte.
- Laurek arte, e?
- Eskolan laurek arte, baiñe lanien seirek arte.
- Bai, bai, fin ibiltten zitzien zuek orduan…
- Biheko! Fin… gogo barik igual askotan, baiña […] ibili in biher, ainddu eitten euen ta!
- Jai egune domekia bakarrik, orduan?
- Domekie bakarrik, besterik ez euen. Ta astien beste jairen bat, ba, Domu Santu ta Corpus Christi ta San Pedro ta, ba, holako batzuk. Oin […], oin [jairik be ez]. […] Bestela aste dana lana! Onbre! Orduen puenterik be ez zan egoten.
- Bapez
- […]

2.17. Eskola kontuak

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/012
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:19:20. **Bukatu**: 00:21:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena**: Eskola kontuak. Haur hezkuntzan neska-mutilak batera. Irakasleak. Zigorrak.

Transkripzioa
- Ta eskolara nora juaten zitzien umetan? Urrin?
- Kalera.
- Kalera…
- Gu kalera hemendik.
- Kalera hemendik…
- Bai, bai.
- Ta asko zitzien orduen klasien asko, jente asko? Ala mutikuek eta neskatillak aparte edo zelan ibiltten zitzien?
- Parbuluetan batera, […] parbuluetan, […] parbuluak. Gero ez, gero aparte. Zerbait in, pekatun bat in ez deixen edo nik ez dakit zeatik. […ra] fan ta gero, gero aparte! Baiña parbuluetan batera.
- Zuek maistrue ta harek maistra edo zelan eukitten zauien?
- [Haik bestera] ta guk maistrak.
- Abadiek? Abade ta moja edo zela izeten zien? Edo ez? Zuen maistruek abadiek zien edo…?
- [Bardiñe zan], bai. Don Mateo, don Mateo, abadetzatik botatakue zan. Mezie euken bakar-bakarrik, konfesiñoik be ez euken libre. Kanpotik […]

etorri zan. Don Benito beste maistro bat euen ta haren koñetua zan hori. Bai. Haura koñetua zan ta hori etorri zan berandu etorri zan hori. Baiña horrek konfesiñuek-eta Atxabaltan ez euen itten. Mezie emoten euen justu-justu-justu, […]. Makilliaz emon be edarrak eitten zittun, [baiña].
- Bai, e?
- Makilliaz emon. Urritx makilla [harekin] edarrak bizkarrekuek edarra emoten zittun.
- Urritxakin, e?
- E?
- Urritx-makilliakin, bai. Bizkarreko edarrak emoten zittun. Don Mateo. Abadie zan, baiñe lehen esan dotena, konfesiñuek-eta, itxurie nunbaitten zeoze euken edo, [orduko …]. Pentseizu, oin ez daue kentzen. Oin makiña bat abadek kentzie mereziko daue, baiñe ez dotse kentzen ez dauelako. Oin, orduen asko [gehixa´]. Ta orduen kanpotik […] ez dakit, nungue zan ez dakit.
- Ta kastigau eta be eitten zauen orduan?
- E?
- Kastigau…
- Kastigau? Kastigau… makilkadak emun edarrak! Kastigau… makilkadak emun edarrak deskuidau ezkero. Ordukuek kastigau…
- Nahikue kastigo hori, bai.
- Bai.
- Bai, bai.
- Makilliaz bizkarreko edarrak emun. Emun, e! Ez da guzurre, e? Egixa da. Atxabaltan jendie […], bai? […] esango dotsue.
- Bai, bai, bai.
- Eta ikesi, asko ikesten zauien?
- Nik ez neuen asko ikesi. Nik ez dakit, batzuk ikesiko euen, beste batzuk ez…

2.18. Doktrina; abadearen zigorrak

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/013
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:21:40. **Bukatu**: 00:23:37
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Doktrina ikastera elizara joaten ziren. Zigortutako umeak aldarean Angelusa errezatzen, jende guztiaren aurrean. "...dotrinia beste eskola ikasi baneu...!".

Transkripzioa
- Dotriñia asko, ez?
- Dotriñia bai, dotriñia eskolan ez euen dotriñia emuten, e?
- A, eskolan ez?
- Ez, ez, dotriñia, gero elizara fan biher, elizara, saloira. Dotriñia biheko! Leziñuak emun bihar zittuen eta hurrengo egunien ikestera fan bihar, bestela —atzo esan notsan honi— altaran aurrien han, danen aurrien han egon bihar.
- Ikesi ezien hantxe, altaran?

- Bai, Anjelusa errezetako bajetan gintzen, ba, elizara. Aurretik eztakit nun egoten zien, baiña nire denporan ya saloia in euen, ezta? Eliza gaiñian, saloi bat —gero ziniek eta egoten zien hor, hor egoten zien ziniek eta— ta handik elizara. Ta [arrestautakuek], kastigua eukenak, altaran egoten zian, Anjelusa errezau bittartien, ta jente dana ikusten haik, zeintzuk dien, ta hori be ezta gustagarrixa izaten, e?
- Danen bistan.
- Danen bistan han egon biharra. Ta jentia adarra joten gero: “Ze in dok, ba? Bestia in dok eta eztakit zer ta…” […] be egoten zien.
- Ta hareik egoten zien, kastigauta, belauniko?
- Eztakit, horixe ezin neike esan, belauniko ala zutik, eztakit ezin neike esan horixe, ezin neike esan horixe. Ez, belauniko egongo zien, […] ezin neike esan baiña, bai, uste dot belauniko egongo ziela.
- Danen bistan behintzet.
- Danen bistan, aurrien! Guk… beste danak […], kanpuen, e? Ta altaran, altara aurrien, altaran […] orduan mahairik be ez euen, altaria be… mahaixe be ez zan egoten ta altaran, aurrien egoten zan altarie! Beste dana libre, ta han egoten zien. […] Neu ez nitzen sekula egon, suertia euki nauen!
- Bai, bai.
- Baiña han egon bihar! Ta ha be jentiendako… Dotriñia asko, enee! Dotriñia beste eskolia ikasi baneu… hainbeste lan in bae biziko nitzan!

2.19. Eskolatik egindako txangoak

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/015
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:25:30. **Bukatu**: 00:27:28
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskola kontuak. Irteerak egiten zituzten. Debara joan zireneko eguna ondo gogoratzen du.

Transkripzioa
- Eta eskolatik eskursiñorik edo itten zabien zueik, kanpora edo?
- Bai, bai, faten gintzen.
- Bai?
- Bai, bai, bai. Ni lehenengo fan nintzena Debara fan nintzen, lehenengo eskursiñua, Debara fan nintzen, eta gaseosie orduantxe eran neuen lehenengo aldiz Debara fanda eskursiñuan! Lehenengo aldiz, e! Lehenago [gaseosia] izeten zien botillak, hola, atzamarrakin zapaldu… […], e! Hola, bolatxo bat eukitten euen puntia baiño beheratxuauen —kof, kof, katarrua dakot eta barkatu—, ta atzamarrakin zapaldu ta “prost!” eitten euen ta gaseosia. Lehenengo aldiz limonadie, gaseosie, lehenengo aldiz Deban eran neuen nik. Eta nik ez neuken diruik ha pagateko, baiña hemen San Migelgo —hildde dao oin— San Migelgo Pablo, ni baiño bastante zahartxuaua zan eta, ba, diru apurtxo bat gehixau nik baiño. Nik ez neuken diruik. Eta eran neuen hantxe lehenengo aldiz eran neuen.
- Eta zela faten zitzien Debara?
- Autubusien!

- Autubusien danok?
- Autubusien, bai, bai, autubusien. Debara ta Donostiara eta batera eta bestera faten gitzen. Hor hortik zihar, e, bestekaldera eta […] ez, baiña hemen inguruan faten gitzen! Urtero faten gitzen!
- Urtien behin, edo?
- Honbre! Urtien behin! Klaro! Ze, hamar bider ala? […].
- Ta itsasua lehenengo aldiz noiz ikusi zeben akordetan zara?
- Orduntxe!
- Orduntxe?
- Orduntxe lehenengo aldiz itsasua!
- Jo, ha haundixa izango zan…
- Han ibilli nintzen, honbreeee… ha zer zan! Zapatak edo alpargatak edo, ez dakit zer neuken, hareik kendu eta han ibili nintzen. Artian fraka motxakin, klaro, fraka motxakin, ta han ibili nintzen uretan eta ur eskiñan ta hara eta hona, han ibili nintzen, pozik! Ha gauza haundixa izen zan!
- Bai, bai.
- Nobedade haundixe, joe.
- Honbree! Itsasora fatia? Jolin!

2.20. Kaleko, baserriko umeak eta eskola

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/017
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:29:20. **Bukatu**: 00:30:07
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena**: Eskola kontuak. Baserritarrak, kaletarrak baino gutxiago joaten ziren eskolara; baserrian lagundu behar izaten zuten. Eguraldi txarra zegoenean, eskolara joaten ziren.

Transkripzioa
- Eskolara be gehixau kalekuak fango zitzien, ezta? Baserrittarra…
- E?
- Kalekuek gehixau fango ziela eskolara, igual.
- Bai, ba.
- Ta baserrittarrak, ba, betik lan gehitxuau baserrixen.
- Lan gehitxuao eta horrexeaittik… Ni akordetan naz, hemen ni mutikua nitzela, hemen, ba, baserrittarrak, Uzittekuek (Izurietakoak) be, kalera etorten zien, […] Uzittekuek, Daniel ez, baiña Uzittekuek kalera etorten zien, ta hemen Apozetxebarrikuek (Apotzaga Etxebarrikoak) be bai, Apozetxebarrikuek be kalera etorten zien. Baiña horreik, nausitxuok, horko nausixek, edo mutil edo neska, nausixenok, udan eta lana euenien eta bestien, ez zien etorten, gutxiago etorten zien asko be kalera. Denpora txarra euenien […], denpora txarra euenian etorten zien, baiña denpora ona euenien ezin etorri, lana etxien, ittaurrera edo…

2.21. Erromeriak, jaiak

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/019
- **Iraupena**: 0:05:20. **Hasi**: 00:31:05. **Bukatu**: 00:36:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Erromeriak. Aramaio; Billerle (Legutio); Otxandio... Oinez egiten zuten joan-etorria. Inguruko herrietako jaiegunak. Ermitak.

Transkripzioa
- Orduan ondo be ibiltten zintzien erromeixetan eta?
- Bai, bai.
- Erromeixetara sarri faten zintzien?
- Bai. Erromeixetan ni Aramaixora faten nintzen askotan. Aramaixora ta Otxandixora be bai. Billarreleko jaixetan da be. Eta Marixekan euen, Marixeka dau, Billarrele baiño honutzatxuau dau, oiñ etxeik eztau baiña. Hara be bai. Hango jaixe zan setienbrien lelengo jaixen izeten zan hangua. Billarrelen bixen, bigarren jaixen. Da Otxandixon Santamaiñak. Otxandixoraiño oiñezien. Gero etorri barrido. Oiñezien, e, hemendik Otxandixoraiño fan eta etorri.
- Bidien denpora gehixao pasauko zeuen erromeixan baiño.
- Ba orduen bazkalostien gox urteten zan eta; gabien berandu etorri. Da goxien loguriek. Billarreldik autobusa egoten zan, da gu Kurtzetan geldiketan gintzen autobusien da handik ba etxera oiñezien, ba ordu terdi bat edo. Erromeixen hortik ziher asko ibilitta nao ni. Hemendik ohittura haundixe geuken erromeixara fateko, erromeixara. Oiñezien, ze erremeixo.
- Basoik baso.
- Honbre!, basoik baso. Hemendik Untzillera, Untzillatik Badajuen, eta Badajuendik behera. Fan biher eztanik pentsau bez. Pazko Bigarrenien eta. Iñox faten gintzen Bergarara be e, Pazko Bigarrenien hemendik Bergarara jente asko faten zan. Iñoz Pazko egunien Bergarara fan eta gero tren espeziala egoten zan etorteko. (...). Fateko berriz trena egoten zan, eta etorteko gabien ordun hortan bat egoten zan, espeziala egoten zan. Da Pazko Bigarrenien jeneralien Aramaixoko jaixak zela izeten zien, bigarrenien jeneralien Aramaixora. Balorie bihe zan hara oiñezien fateko, fan eta etorri.
- Gabien etorri, illunetan-da.
- Honbre.
- Illunetan ibiltten ohittute zuek.
- Begixek oin baiño argixauek eta, betaurrekoik pe ez eta. (...)
- Osea ke eukotzuen zeuen kalendarixuoi.
- Bai, bai. Eta Aramaixon leku askotan, Trinidade egunien be bai, Trinidade egunien asko. Pazkuak eta hurrengo jaixe Trinidadie izeten da. (...) jaixek izeten die (..). mendi hortikaldetik, trinidadetan faten zan. Ermitta bat euen, Letzazu euken izena ermitta horrek. (...). Ibaben Andra Maixa egunek, Ibabe han handikaldien dau, (...), Aramaixotik ikusten da, eskumetara han goixen dau Andramaixa. Badakizu andramaixa. Andramaixa Agorreko.
- Andramaixa Agorreko?

- Agorrekua, bai.
- Setienbrien?
- Setienbrien, bai. Eztakit zortzixe edo ze izeten dan.
- Bertako jaixek eztie ba izeten?
- Bai. Andramaixa Agorreko deiketan jakon.
- Gatzako jaixek eztie ba izaten?
- Gatzako jaixek, bai. Orduen Ibabera faten gintzen gu Andramaixan. Eta euen bertara (...) arandauekin edo inddako zer bat euen eta (ziri?) bat euen burdinazkue, horrek bueltaka ibiltten die ba (ziburuak. Bat sartu ta buelta, beste bat sartu eta buelta, ermittara sartzeko, ermitta ondora sartzeko. Enaz aspaldi egon baiña ez euen kenduko.
- San Adrixan ermittan be holakotxe atie dao.
- Oin, lehen ez euen. Lehen ez euen holakoik. San (Adrixan?) askotan egonda nau, San Andrixan ermittan, lehengo ermittan.
- Han be erromeixia eitten zan?
- Erromeixia eitten zan! San Juan aurreko domekie izeten zan. Oinguen egonda nau, baiñe erromeixan ez, e. Baiñe egonda nau.
- Han juntauko die atxabaletar da, aramaixoar da...
- Bueno, danak han, aramaixoarrak eta. Jente asko egoten zan. Bazkalduta urten hara eta illuntzian buelta etxera. Han illundu be lehenao eitten zan. Han erremeixie holako mendixetan lehenao akabetan zan. San Kristobalen be zenbat bider, San Kristobalen be.

2.22. Erromeriak eta abadeak

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/020
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:36:25. **Bukatu**: 00:38:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Erromerian dantza eginez gero, abadeari zer esan behar izaten zitzaion. Neska bati laztana ematea ere bekatua zen.

Transkripzioa
-Eta han baltsiuan ibiltzen zintzien?
-Bai.
-Pekatua, etzan hori pekatu?
-Baiñe abadiei ez dotela ein esan biher.
-Gero konfesau ein biher sarri-sarri.
-Bai ba. (...) gutxienez hillien behin (...) parejue, hor bealdekue zan sano-sano-sano bat eta aber dantzan eitten gauen da. Bai. Eta aber gehixao ingoten, bestela ez doiela absoluziñuik emoten. Nik ez dot gehixao ingo. Joo, orduen laztana emutie ta, Jangoikuak aparta!, elixatik bieldu. (...) Hamaika holako engaiñu euki dou, horrek merezi dittue egurkadak, horrek!
-Dana pekatu.
-Dana pekatu. Eurak ze eitten ete euen! Eurak ze eitten ete euen. Danak [...] amadekasia, nik hori badakit. [...] danetan ba amadekasak eukitten zittuen. Gazteik hartu, gero zahartu eitten jakuen, geure andriek moduen,

neuk be gaztie hartu neuen, gero zahartu. [...]. Jeneralien gaztiek hartzen zittuen, zaharrik ez euen hartzen. Don Kruzek be (...) amadekasia horra horra etorri zanien gaztie hartu euen, gaztie, [...] hartu euen, oin zahartu bada be. Danei pasetan jaku. Abare danak amadekasia eukien, nik zetarako euki dittuen ez dakit. “Ama de kasa” esaten jakon, amadekasia. Etxekoandreik ez jakon /etxakon/ esaten, amadekasie esaten jakon. “Ama de casa”, klaro. Gaztie eukitten euen. Eta bestiek, e, dantzan, baltziuen ibilttie pekatu.

2.23. Garizuma eta debekuak

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/022
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:40:20. **Bukatu**: 00:40:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Arrasatetik jende asko joaten zen Aretxabaletara garizuman sagardoa edatera. Soinujolearen alaitasuna.

Transkripzioa
-Eta sagardaua eitten eben lehen Bastarralden, sagardaua. Mondrauetik Garizuman jente asko etorten zan horra sagardaua eraten. Hemedik oiñezien, e, zarra-zarra Mondrauetik oiñezien hemen jente asko etorten zan. Eta bueno ba puxkat animetako fateko, eta fan eta hasi da soiñua joten baltsiuen da, la puñeta!, ixa (...) baltsiue joten hasi zanien. (...)

2.24. Erromeriak; soinujotzaileak

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/024
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:41:10. **Bukatu**: 00:43:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Soinuari, "infernuko hauspoa" esaten zitzaion. Erromerietan, soinu txikiarekin aritzen ziren gehienak. Soinujole ezagun baten inguruko kontuak. Ordena erlijiosoak. 3. ordena.

Transkripzioa
-Infernuko auspue deiketan utsen orduan soiñuai. Hemen bertan, eztakit infernukuek dien baiña makiña bat. (...)

-Orduan soiñujoliak onak ezen, ezta?
-Bai, onak. Soiñu txikixekin, e, jeneralien txikixekin. Gero haundixekin ibili zien hemen Itxue ta Lazkano ta. Eskoriatzan be bai, honek Osintxu (?) anaiek eta. Gero asko, danak. Baltsiua. (...).
-Esan dozu Hirugarren Ordenakua zala. Hori zer zan ba?
-Nik hirugarrengo ordenie, eztakit ba nik, frantziskotarrena edo zerbait izengo zan edo,frailiena izango zan edo. (...) goittik bera, atzera ta aurrera. Ta erdixan soka bat zuri bat eukitte euen lotuta, hirugarren ordenakuak, zan (...) hirugarren ordenakuak, eta hil zanien (...), ama Zelaakue dauko, horrek ama, Dominga, Zelaakue dauko, Zaloñakue. Fan nintzan da, nik orduko automoille baneuken da kamiñue ordurako eindda euen, eta ekarri nauen nik Mondrauera horren amamai, Mondrauera frantziskotarreana fan bai, fraillietara fan bai eta habittue eta hori tunikioi ekarri nauen. Justino eta bixon artien jantzi gauen. Hirugarren ordenakuak edo esaten jakon horri. Hirugarren domekan horregaz faten zan. Galartzan beroi bakarrik faten zan, besteik ez. Kalian be ikusitta dauket nik jentia.
-Uniformia.
-Bai, bai. Sotanie ez euen eruten, sotanaik ez, baiña jantzitta, lehen esan dotena, eskupularixo haundi bat atzera eta beste bat aurrera, eta bi tirantegaz, atzera ta aurrera, eta gerrixen sokia lotuta, soka zuri bat lotuta. Hirugarren Ordenakuak.

2.25. Gertakizuna Aretxabaletan

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/026
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:47:20. **Bukatu**: 00:50:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena**: Aretxabaletan aireplano bat jausi zen bera umea zela.

Transkripzioa
-Aurrekuan esan zeuen Atxabaletan arioplanua jausi zala.
-Bai. Jausten eneuen ikusi baiñe gero bai. Gero ikusi neuen. Abioneta txikitxo bat. Esaten euen bajutik etorri ta posteren bat edo kablie, posteren bat jo ete euen esate euen. Ikusitte dauket bai, ni eskolan nebilen.
-Nun jausi zan ba?
-Oiñ Copreci badau ba, haintxe, hemendikaldeko Copreci dauen lekuen. Horrek Etxabenak zien horrek zelaixok. Kalien euen Etxabekuek, fondie ta eukitte euen Atxabaletan, fondie, entzunda eukikozue hori. Maria Ramona zan horko jefie.
-Sagardotegixa ta?
-Sagardaue ta; sagardaue eitteko be katxarruek ointxe kenduittue mordue, oiñago kenduittue sagardue eittekuek. Eta hango sagardauen barrikak, bat edo bi dazen, Bastarralden daz hantxe eskiñan. Sagardaue eitten euen eta fondie euken horreik. Bazkaixek-eta emuten zittuen, taberna txikitxo bat, fondie deiketan utsen behintzet. Etxabeneko fondie deiketan utsen. Horretxena zan (...), horkotxie zan ha zelaixe Copreci oin dauen zelaixe. Haintxe jausi zan. Jausten enauen ikusi, gero bai, eskolatik fan nintzen

trenbidetik, gora fan gintzen. Maistriaz doña Zirilaz fan gintzen.
-Haxe ikustera.
-Bai, ha gauza handixa zan oarduan. Areoplanuak gutxi ikusten zien hemen. Atzo honi esan nutsen baiña areoplanue ikusten zanian danak ume guztiak kanpora urtenda, areoplanue!, ulu baten ibiltten gintzen. Gaur ostera, lengo egunien entzun neuen milla buelo geratu ziela egun baten. Neuk entzun nutsen, gezurre ala egixe dan. (...)
-Pentsau zenbat buelo dabitzen.
-Bai, kontuek etaraizu. (...). Gero jausi eitten diela. Jausiko eztie ba hainbeste ibilli ezkero? Derriorra jaustie.

2.26. Baserritarrek elizarekin zuten harremana

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/028
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:53:05. **Bukatu**: 00:56:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Elizan egin behar izaten ziren lanak. Urtean etxe bati tokatzen zitzaion "maiordomo" lana egitea: abadearen arropak prestatu, meza prestatu... Bezperak. Elizara joan gabe geratzea, bekatua.

Transkripzioa
- Aurrekuan komentau zeuen elixan ein biher izaten zinttuztela maiordomo lanak edo. Ze izeten zan hori?
-Bai. Obligaziñue urtien batek eukitten euen horrek maiordomo lanak eitteko. Goxien fan eta apaiz jaunandako, batzuetan sakristaue faten zan da liburutxo bat egoten zan han zein egunetan ze jantzi jantzi biha dauen. Oin be danetan bardiñe ez dittu jazten, oin be (...) Baiña orduen apaiz jaunek jaunek izeten zien, da harei erropak atara, kandelak ixotu ta gero lelengo kantuak kantetako (...) kurutzie atara biher izeten zan.
-Kurutzia?
-Bai, kandelak ixotu eta hillarrixetan be bakotxak bere sepulturie eukiko euen, hillarrixen egoten zan, eta han kandelak egoten zien, eta kurutzia atara biher izeten zan, elixa erdire ataraten zan, altare erdire ezkiñatik. Kantue akabetan zanien barriro barrura lehengo lekura. Atabakie pasau, atabakie deiketan jakon, (...), ha pasau eta etxera. Baiña arratsaldien barriro fan in bihar bezperetara. Barriro kandelak ixotu ein bihar, hainbeste (...) Kandelak ixotu. Hillarrikuei be atsaldien etxaten ixoketan. Ixotu. Gero boletan eiñ edo gure dana eiñ baiña etorri ein bihar kalera. Baiña bezperatara fatie obligaziñue izeten zan, bezperatara fatie. Gu mezetara jeneralien kalera faten gintzen. Klaro, guri toketan jakunien. Emakumiek ez, emakumiek hillarrire fan ein biher izeten zeuen. Kandela bi egoten zien, beste baltz bat azpixan ipinitte ta hara fan ein biher izeten zan. Obligaziñue egoten zan. Pekatue ez zan izengo ez fatie baiñe fan ein biher izeten zan. (...) Goxien meza ostien egoten zien illenak erdixak. Jentiek hilddakuen ba, jentiek zela pagetan auen, zelemin bat gari pagetan zan bakotxena. (...). Bezperak aurretik. Bezperak kantau eta etxera. Etxera

edo... Baiñe edozein lekutara fan biher bagintzen be, erromeixara fan biher bagintzen be, hara bezperatara fan ein biher. Obligaziñue fateko.
-Urtebeteko lana izeten zan, ez.
-Bai, urtebeteko lana.
-Urtebete osue. Ta zan lelengo etxe bati toketan jakon eta gero beste bati?
-Lenengo Naparrena izeten zan. Bakitzu nun dauen Naparrena? Gorengo azkenengoko etxie. Han ostien Mondraue aldera dauena da. Han hasten zan da gurien akabau. Eta barrido buelta hara. Goittik behera danok saillien.

2.27. Errespetu handia abadeei

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/029
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:56:55. **Bukatu**: 00:58:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Abadeari errespetu handia; berorika egin behar izaten zitzaion. Errespetu handia. "Atabakia" zelakoa izaten zen.

Transkripzioa
-Abadiek orduan jaunak izaten ziela esaten dozu, ezta? Berorika eitten jakuen?
-Honbre!! ... beroi abadiai
-Abadiai bakarrik?
-Bai, beroi abadiai eitten jakon bakarrik. Eta jarritta bazarez be elixpeien be zutittu! Eta txapela kendu daukenak.
-Firmes.
-Biheko! Bai, egixe da.
-Atabakie zelakua izaten zan?
-Erredondo bat, erredondue izeten zan, asta bat eukitten euen, holako asta bat, egurrezkue izeten zan, eta asta bat eukitte euen. Eta han eukitten zittuen dibisiñuek. Diru haundixek alde batera, txikixek bestera. Dibisiñuek eukitten zittuen. Lau dibisiño eukitzen zittuen. Erredondo bat izeten zan egurrezkue asta batekin.
-Eta pasetan zan elixan?
-Elixan, klaro, danon aurrekaldien.

2.28. Baserritarrek elizarekin zuten harremana

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/030
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:58:05. **Bukatu**: 00:59:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Abadeari urtero garia, egurra eman behar izaten zitzaion. Etxean hildakoren bat zegoenean, gari gehiago eman behar. Kontsezio egunean, arrautzak eta oiloa. Udazkenean, artoa.

Transkripzioa
-Eta gero abadiai emuten jakon eztakitt ba baserrixetatik, eztakit ba, urune, ogixe eta holako...
-Abadiei emuten jakon garixe urtero, garixe emun biher izeten jakon, eta baten bat hiltten zanien askoz be gehixao, famelixen baten bat hiltten zanien, asko, burdikarie garixe.
-Errezeuengatik edo?
-Meziengatik edo eztakit zegatik izeten zan. Nik eztakit zeatik izeten zan, hori eztakitt. Honbre! Eta gero egurre erueten jakon gaiñera. Egurre be. Azkenengo (...) burdikara bat egur.
-Urtien?
-Urtien, bai ba, erueten jakon.
-Bera berotan egon zeiñ han.
-Hemen, eztakit bestetan, baiñe hemen Kontzeziñotan eureten jakon arrautzak eta oillua. Oillue edo oillandie edo. Edo gero ura azkenien, zela ura azkenien artua hartzen zan, artue eruen biher izeten jakon. Eztakit zenbat anega, hiru edo. Anegak, artue erueten jakon.

2.29. Olentzero; Errege eguna

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/034
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 01:08:00. **Bukatu**: 01:11:13
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena**: 26 urtean Olentzero gurdian eraman izan du herrian zehar. Antzina Olentzero astoan etortzen zen. Errege eguna.

Transkripzioa
-Zu ibili zara Olentzero ekarten. Lagun itten eta.
-Ekarten. Makiña bat urtien ekarri dot. Hogetaxei bat urtien edo. Edo gehixau igual.
-Hogetaxei urte illaran?
- Bai, bai, bape galdu barik. Eta jangoikuai eskerrak emuten jatet betik lagundu dustelako. Hogetaxei urte pasau ez badie /ezpadie/, gehixau ez badie / ezpadie/.
-Iri pariekin?
-Ez, behixekin. Iririk eztauket. Behixekin.
-A, behixekin ibiltten zare.
-Orduen zuk burdixen Olentzero jarri eta herrixen ibilli.
-Plazara ekarri. Lehenao Olentzeruek astuen etorten zien. Ni gaztie nintzenien, txikiñe nintzenien burdixen ekarren baten batek ibiltten zittuen burdixaz be, batzun batzuk. Geuk astuaz. Gure astuak Olentzero asko ekarri dau. Baiñe lehenao Olentzeruek horra erueten zittuenien, [...] dauen

lekure, arrautzak eta oilluek erueten zittuen. Oinguek ez daue /eztaue/ erueten. Eta lehen pipiaz etorten zan Olentzerua. Oin pipaik be ez dau /eztau/ ekarten. Ez dakit /eztakit/ zegatik dan. Oin jente asko egoten da, ume asko eta inguruan. Bakitzu zenbat ume egoten dan! Umiek eta gurasuek eta bestiek eta; astirik ez dau euko pipie ipintteko itxurie. Edo pipak gastau edo eztakitt zer ein dien. Ez daue /eztaue/ ekarten.
-Eta lehen be eitten zan Olentzero, hori ohitturioi baeuen zu umia ziñenien?
-Bai, ni txikiñe nintzenien be bai. Bai, bai.
-Eta orduen be Olentzerue ikazgin bat edo holako...?
-Bai, ikazgiñe samur, klaro, orduen be iguala izeten zan.
-Orduen be oingo estilora.
-Bai, berdiñe zan.
-Orduen zeuenera be Gabonetan Olentzero etorten zan, Erregiek ez zien etorten?
-Ez, erregiek etorten zien. Zapatak ondo garbittuta ifiñi bihar. Bestela berakatza, iketza ipinten oskuen bestela. Zapatak ondo garbittuta ipini ezik iketza ipintten euen zapatan. Hori entzunde daukozu hori?
-Bai. Ondo garbittua ipiñi ezkero zelako erregaluak egoten zien?
-Erregaluek egoten zien.
-Polittek?
-Bai, zerbaitzuk ekartzen zien.
-Nik amai entzunda daukot behiñ berai ekarri utsela holako lurrezko edo buztiñezko muñeka bat edo. Baiñe handik pare bat egunetara burue apurtu jakola ta. Behin jausi ezkero hori ba akabo.
-Ekartzen zittuen, bai. Umiendako jolasteko gauzak.
-Gabonetako subie zuk ezautu dozu?
-Zer?
-Gabonetako subie, holako mazapan bat.
-Bai, bai.
-Hori erregiek ekarten euen, erregetako zera zan?
-Ez, panaderixan egoten zan, panaderixan egoten zan hori.
-Bai, holako bueltan-bueltan egoten zan suba bat mazapanezkue edo.

2.30. Umeen lana baserrian; eskolara joateko denbora gutxi

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/020
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:32:55. **Bukatu**: 00:35:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Eskolan oso denbora gutxi. Baserrian lan egin behar umetan. Umeen lana baserrian.

Transkripzioa
- Ze urte arte eskolan? Zenbat urte arte ibilli ziñan?
- Gutxi. Erdixetan fan bez. Hamaika urte edo hamabi... Hamabi indda eukiko nittuen baiña, ama gaixotu in zala-ta, aitte kalien errekauek eitten

edo-ta, gero ordutixik etxien geratu nitzen, ia zihero. Bestela be asko fan barik, e. Goixien esniek erueterako fan, esniokin, atsaldien igual bapez, atsaldian gehixen baten ez nitzen faten. Sekula. Atsaldian solora fan bihar, batian hau in bihar dala, bestien hori in bihar dala. Ganauokin edo, trillue edo, ez dakit zer, aurrien ibilli biher, bestien ganauak zainddu biher, eta ez dakit zer in bihar dala ta. Batzutan negar indda igual geraketan nitzen, baiña etxian geratu bihar izeten neban. Eskolara fatie gure-ta… Beziñuek etorri igual, handik bueltan etorten zien, lagunek, beziñuek-eta, etorri hareik-eta, ba ni ezin fan, han geratu bihar. Gero kontuetan-eta ezebe ez neban ikesi kasik. Atsaldien itten euen "Cuentas" edo horreik, kontuok atsaldetan. Goixien lekturie, "Lectura y Escritura", ta gero atsaldien ba "Cuentas" ta "Labores" be egoten zan, itten auen batzuk; ni galtzak itten ibili nitzen, galtzak... ikesten, apur bat faten nitzenien, denpora txarra euenien ta. "Lectura y Escritura" ta. Dana erderaz itten zan orduan. Guk erderaik ikesi ez geuen in, baiña…

2.31. Eskolan erdaraz ikasten zuten

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/021
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:35:05. **Bukatu**: 00:37:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Eskolan erdaraz ikasten zuten. Erdara gutxi ikasi zuen.

Transkripzioa
- Erderaz egin bihar izeten zan eskolan?
- Erderaz ein bihar. Prohibiduta egon zan euskeraz eittia.
- Gerra aurrian ta gerra ostian, bietan?
- Gerra aurrian hainbeste ez, baiña ordun be erderaz eitten zan gehixena. Gero barriz, e, bueno… prohibiduta euen euskeraz ittia. Bueno, guk itte geuen, baiña eskola barruan-ta, maistriakin-ta, gauzak danak erderaz. Gu geu juntetan bagintzen ba bakarrik ezkiñan baten, euskeraz eitten geuen, baiña. [...] kontuek.
- Eta erderia ikasi eskolan, ezta, ala? Ala aurretik bazekitzun erderaz?
- Nik ez nakixen aurretik asko, eta gero be asko ez dou ikesi, baiña… Zeozer. Han ibilli gitzen denpora apur bat. Gu juntetan bagitzen euskaldunek, e, nere modukon batzuk euskeraz eitten geben-ta.
- Nahikua lan maistriai entenditteko, ezta?
- Bai, hari entendidu eitten gutsen. Liburuok be danak erderaz zertuta euzen. Leiduten gittuen, ta batzuk iguel zer esan gura euen be ez geuen entendiduten. Behin egon gitzen esaten, lekturan puntutik puntura leiduten, han bueltan jarritta, zerien, ta ifiñite euen "un potro lindísimo". Eta batak bestiai esaten: "Hori, zeiñi tokauko ete jako hori leidutie…". Ez dakit zer pentsetan [...]. Zer zan be ez. Ta gero jakingo euen [...] zer zan hori. Gero barregurie emuten oskun, e, jo… Zer entendiduten ete geben orduun…

2.32. Ehunak ehun lan esaera zaharra

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/026
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:44:00. **Bukatu**: 00:46:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Lihoa (linua) osinean edukitzen zen beratzen. "Ehunak ehun lan".

Transkripzioa
- Makiña bat modutara. Liñuukin be akordauta egon naz. Liñue be euki euiela. Neure etxien be apur bat egon zan. Non egon zan ta danak akordetan naz. Liñua atara ta, han osiña esaten otsen, pozu baten itten zittuen beraketak, han bustitten euki denporaldi baten, eta gero atzera atarata zelaixan han sikatu-ta. Ez dakit zertzuk itten eutsen be. Txortatxo batzuk in. Lotuta. Guk gutxi euki geuen, ta beziñuek euki euen gehixao, harek erainda-ta, ta hara eruen geuen joteko: gero harekin mazuekin harri haundi baten mazuekin jo, ta gero beste katxarro batzukin pasau-ta, zera eitteko, hori ehune edo zera, hori senduoi, ha itteko. Zenbat lan? “Ehunek ehun lan” eukitten dauela esaten euen, bai, ta… gehixao eukitten ez bauen? Ehunek ehun lan.
- Erraminta horreik, liñuandako erramintak, etxe danetan egoten zian? Liñua etxe askotan ereiten zan, ezta?
- Askotan orduun ez. Ez, ez zan askotan, hemen behintzet, ereitten. Ni akordetan naz harek bezinuek zela euki euen, eta geurien be egon zala apur bat.
- Eta erramintak?
- Erramintak ba, batzuk eukiko zittuen, eta bestiek beste batzuk eta juntauta, ba. Txarrantxie esaten utsena, halako hortz haundi batzukin, txarrantxie, ta han pasau, rast! Harixe itteko, zera, txarrantxia hortz haundi batzukin.
- Guk ez dogu ezagutu, baiña.
- Eta beste bat hola zer batekin, han ipiñi zazpela ta harekin, danga, drank!
- Trangie.
- Trangoiñe edo ez dakit zer, trankau itten zittuen harekin. Zenbat lan ha zera itten… Hari ez dakit zer in guntsien, orduen ia ez auen gorue itteko be… zaharrik ez auen-ta. Ez dakit ze in utsien be hari.

2.33. Gerra garaian telarik ez

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/028
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:48:45. **Bukatu**: 00:49:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- **Laburpena**: Gerra garaian telarik ez. Dena errekisatuta; ehunezko arropak tindatu eta umeentzako frakak egiten zituzten.

Transkripzioa
- Eta hori ehun hori tintau edo eitten zan?
- Ez tintau ez. Zurittu. Tintau ein zien, e, gerra-denporan telie be danak rekisauta-ta, etzan egon telaik be, zertuta egon zien, telaik be ez euen, eta horreik izarok senduok baeuzen gurien eindda horreik, mutikuei frakak in jakon haretxekin ta. Haxe tintau euen, azule tintau, ta frakak eunezkuek, ehun horregaz. Zeozer in biher orduen be, telaik ez, danak rekisauta-ta, dana, e.., zarramarria.

2.34. Garizumako ohitura zaharra

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/033
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:58:50. **Bukatu**: 01:00:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena**: "Karapaixue". Ogia, arrautza eta txorizoarekin. Garizumako ohitura zaharra. Aita eta ama puntakoak besoetakoari erregalatzen zion. Aramaion, "mokotza" esaten zitzaion.

Transkripzioa
- Karapaixoik eitten zan?
- Ba, batzun batzuk eindde nau neu be. Bai. Lehenau mutikuai txikixe zanien in izan geutsen, bai. Karapaixuek eta itten zien.
- Ohitturia zela da? Garizuman?
- Aittapuntekuek ta besuetakuei.
- Eta noiz arte. Ze urte arte?
- Ez dakit. Batzuk haundi ein arte edo. Gero batzuetan panaderixan igual erosi edo.
- Baiña iguala ezta.
- Ez. Diferentie da. Etxien, e, arrautzak punta banatan, arrautzak ifini hola ta, erdixen txorixue.
- Arrautza gordiñak?
- Gordiñak ifini eta gero laban erretzen zien. Majo siketute egongo zien, baiña… Famosue izeten zen karapaixuoi-ta. Hemen karapaixue esaten guntsen.
- Gurian be hala esaten da.
- Zerien, e, Aramaixon mokotza esaten utse.

2.35. Domu Santuko ohitura zaharra

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/034
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 01:00:30. **Bukatu**: 01:02:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Domu Santu edo Santu Guztien Eguna
- **Laburpena**: Domu Santuetan olatak eramaten ziren elizara.

Transkripzioa
- Olatie be esaten jakon.
- Olatie ba, beste olatatxo batzuk izeten zittunan, horrek Domu Santuetan-ta erueten jittunen batzuk zerera, elixara be.
- A, baiña hori beste bat da?
- Bai, hori beste bat da. Elixara erueten euen orduan, Domu Santuetan edo. Batzuk erueten euen, e, basarrittar banaka batzuk. Nire akorduan askok ez. Batek, bik edo, ez dakit zeiñek erueten euen. Olatie. Beste batzuk dirue erueten euen, botaten euen. Eta beste batzuk erosittako ogixe igual; panaderixan. Gero holako moduko zer batzuk, boilluek edo, lehenao panpotak edo esaten utsien hari. Holako zer batzuk, tamaiñoko batzuk.
- Eta hori olatioi zer ixeten zan ba, elixan bertan itxitteko, abadiandako?
- Domu Santuetan usarixue. Zakuaz han ibilzen zittunan, batzen. Hillarrixak zela egoten zien han indda lehenau, han batzen. Han batzen euen hainbeste ogi, ta gero eitten euen hainbeste haragi ezingo jon jan, eta gero herriko umiei emuten utsien. Bai. Ogixe´e bai eta zeozekin. Ontza erdi txokolate edo, bestela... Behin hor Basabenien... menbrilluekin. Neu be fanda, ontza erdi txokolate emun euen denporan, neuk be hartute nau. Artien gaztie nitzan ta. Gero bestiek, Basabenien egon zienak edo, hor goixan egon zienak menbrillue emun euen, eta ni orduen hor beste... kalien krieda nenguen orduen be, ta hango umiekin fan nitzen, harei umiei emuteko ta. Eta... neri be emun ustien. Otzarakara haundi bat atara auien hara, boilluok ipinitta, ogixok, panpotok eta bestelakuok. Eurei komeni jaten... olatok edo batzuk eurek hartzen jittunen hareik, e.
- Oin be bai. Badakitzu, "el que reparte... se lleva la mejor parte."
- Zaku zuri batzukin hor ibiltzen zittunan zerok batzen.

2.36. Hilarriak elizan; argizaiolak

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/035
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 01:02:45. **Bukatu**: 01:04:00
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- **Laburpena**: Hilarriak egoten ziren elizan. Argizaiolak. Ohitura zahar honen inguruko azalpenak. Zergatik kendu ziren hilarriak.

Transkripzioa
- Esan dozu hillarrixa edo egoten zala. Elizan hilarrixa egoten zala eliza barruan.
- Elixan hilarrixa, ez dakit zenbat egon zien, alde bakotxetik lau edo.
- (Ahizpa) Igual zuk ez dozu ulertuko, hillarrixe izeten zan, esan gure dozu, han argizeixak ifiñi, eta hori izeten zen hilddakuen akordu bat moduen ba argizeixa ifinitta. Ez bertan enterrautako... hillarrixa esaten jakon, baiña egoten zan argizaixe, mezetara faten zanien ixotu, norberan sillien aurrekaldien, etxekon bat hilda bazekotzun...
- Holako zer baten batuta egoten zan, argizaixe ipintten zan hori.
- Argizaiolak.
- Batzuk hilarrixa eurek eukienak erositta moduen eukitten euen, e. Eta han beti argizeixa. Ta kandelie urtebetien edo, hilddakon batena, urtebete edo euki biher izeten zan.
- Eta etxe baikotzak bere jarlekue euken?
- (Ahizpa) Bai, batzuk bai. Norberak eruen bihar izaten zan sillie.
- Norberak eruen biher?
- Dirue eukenak erueten eben ta...
- Sillak ifinitta egon zien, bai. Guk ez geuen euki. Ez dakit zenbat zan be, urtien horrek bajuok, silla bajutxuok, horren modukuok edo, pezeta bi edo hiru pezeta edo ez dakit zer be. Eta beste horrek altuok, belaunbiko jarri eta dana eitteko (tapie eukenak gaiñien), horrek haundixok eta, horrek bi tapakuok eta, bakotxak bere preziuek eukitzen zittuen, e.

2.37. Hilarriak elizan; argizaiolak

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/036
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 01:04:00. **Bukatu**: 01:06:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Hilarriak zergatik kendu ziren.

Transkripzioa
- Lehen be diruaz...
- Kendu zittuen gero hilarrixok-eta, jentie aumentau zanien ba... hareik lekue hartzen euen asko, ta hareik kendu zien gero. Fuera. Azpixen trapu baltz bat egoten zan ifinitta, eta gero baten bat hiltten zanien, e, beste trapu zuri bat ifintten euen gaiñien. Ta han egoten zan ha be, trapu zuri bat be. Gero kandelioi-tta. Gero hareik kendu zittuen-ta. Ta gero ipini zittuen; danak kendu ta gero sillak egon zien. Ta sillatan traban, estrapozu bat harekin be... Silla danei ikara eitten. Han dirua batzen ibiltten zan bandejiaz, baiña ha gustora ibiltzen zan, beti be eraiñ hola diruai-tta. Asko

botata ezkero e... Orduan txakur haundi batzuk... Han ibiltten zan diru batzen, silla artien pasau ezinka eta bueltaka, sankristaue, haxe ofixiue eukan, Ta han ibiltten zan. Gero hareik be kendu zien sillak be ta. Bakotxak berak erretirau deixiela bakotxa beran sillak eta. Gero bankuek ifini zittuen, oiñ hobetuau dau. Zenbat sillari ikara in bihe jakon...
- Batian tapie jausi...
- Garbiketan faten zienak be mobimentue erain itte utsen, e. Ez euen egunero pasauko zera, baiña.

2.38. Inguruko ermitak; baserria ere ermita izandakoa

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/038
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 01:07:20. **Bukatu**: 01:09:15
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Baserria, ermita izandakoa. San Blas. San Juan ermita; San Lorenzo. Baserrian, harrizko gurutze bat dago horman.

Transkripzioa
- Hau etxiau be elizia edo ermittia edo zer izan zan?
- Ermittie izendakue da. San Blas euen hemen. San Blas. Eta gero hara eruen euen, ni jaixo nintzeneko etxera, Sallobentera, San Blas. Hara eruen euen. Eta Orotik beste bat, San Juan. Ta han bertakue ba San Lorentzo edo. San Lorentzo, Sallobente horregatik esaten utsie etxiei, e. Sallobente beste bat Elgoibarren edo badau, Sallobente, asko entzuten da, auzue edo dau, Elgoibarren.
- Oin hiru santu alkartu dia han.
- Oin hiru. Ez dakit lehen zela egongo zan ha santua bat bakarrik han. Haundixaue in biheko euen elixie. Ni hareikin akordetan naz. Ni bakarraz ez naz akordetan.
- Orduan aspaldiko kontua da hemen San Blas eruete hori.
- Aspaldikua da, ta bestie, noizkue izengo dan ha! San Lorentzo noiztik egongo zan ha! Ez daue... topetan daben arrastoik noizkue dan ha. Esaten euen, e, umiek bautizetan be lehenau esaten euen Gatzagatik hara etorten ziela eta. Pentsa eizu. Ha elixie noizkue izengo zan. Gatzagatik hara umie bautizetan. Edo famusue lekue izeteagatik....
- Igual, umiek eztarrikue-ta asko eukitten dabie-ta.
- Igual horregatik izengo zan.
- Orduan zuk hau beti baserri ezautu dozu. Hau ermitta ezautu ez dozu in?
- Ez, ez. Ez dou ezautu ermitta.
- Arrastuak egon bihar dabe, e, gurutziak eta?
- Hor harrizko kurtze bat badau. Kurtza zar bat, horman, ur bedeinkatu moduen, ontzixe, handikaldeko partien edo, zer baten arrastue badau. Guk ezauketako... Beste batzuk be makiña bat ahalegin eitten ibili die topetan, baiña danak ez dot pentsetan. Lehenau, badakitzu, lehenau gauzak, e, iñork ez zittuen eskribiduko-ta, ez die jakitten.

2.39. San Blas eta San Lorenzo ermitak

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/039
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 01:09:15. **Bukatu**: 01:13:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: San Blas eta San Lorenzo ermitak. Santuak. Baserria eta ermita.

Transkripzioa
- "Casualidades de la vida", hemengo santue hara erun, eta han jaixo zan andrie hona etorri... Makiña bat baserri badaz hemen inguruen, eta honaxe etorri, eta bertara ezkondu....
- […] San Blas esaten jone gehixenak, baiña San Blas baiño lehenaokue da San Lorenzo, eta hari kaso gutxiau eitten utsie. Horrek San Blasek pentsetan dot beste meritun bat daukela. San Blas. Kalien be askok esaten euen: “Bai, badator San Blaskue” esniekin faten nitzenien. San Blaskue, bai, San Blaskue... San Blas baiño lehenakue Sallobente, baiña...
- Mezie be San Blas egunien emuten da ta.
- San Lorentzo egunien, e, emun euela noizbaitten, anaiek esan usten niri. Abade gazte bat etorri zala mutiko batzukin edo, ume batzukin, ez jakiñat nundik eta. Harek emun euela San Lorentzo [egunien].
- San Blas egunien zer egitten dabe ba?
- San Lorentzoi ez deutsie hainbeste kaso eitten, San Blasi itten utsie. Erregaluek, kandeleruek-eta, gauza guztiek hari itten utsie. Harek dauko famie. Ta gero beste andre batek esan euen, danak hari eitten eutsela San Blasi-ta, San Lorentzoi ez deutsiela-ta, berak ekarriko zittuela lorak, jaboi takuen ipiñi, zera, forrau papelakin jaboi takua, eta han sartuta lorak, baiña artifizialak. Nunbaitten indda, monjetan ero, nunbaitten ibili-ta ikasitta euala bera itten-ta. Berak ekarri zittuen, ta hareik ipiñi utsen. Batzuetan neuk be erueten nutsan loran batzuk, e. Ganauzain nabillela-ta hartzen nittuen ta, bisetsak edo, bisutsak edo, lora laru batzuk eukitten dittue, egurre gogorra daukenak. Lora batzuk eitten zittuen laru-laruek, edarrak, haundixak. Bisutsak, arbolien moduen die horreik eta, edarrak egoten zien batzuetan. Hareik hartu, apurtu eta erun eta ifiñi han. Ximeldu arte.
- Zuen etxia dago onduan, elizian onduan?
- Bai, lehen pegaute ixa, pegante, teillatutxo bat-eta baeuken. Baiña oin apartau ein daue-ta.

2.40. Ermita nolakoa den

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/041

- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 01:14:25. **Bukatu**: 01:14:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Nolakoa den ermita. Antzina, lastoa gordetzen zuten alde batean.

Transkripzioa
- Lehenaukue be ha bentanatxue, teillature eukena, han daukie, baina ostera halako sa(e)teratxo bat dauko bakarrik, eta oso illune da. Han lehenau be guk zera eukitten geuen, lastue-ta, ganauentzako bedarra-ta. Hortarako zan ha.

2.41. Efemerideak; herrian gertatutako zoritxarra

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/002
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:01:40. **Bukatu**: 00:04:35
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena**: Santixau egun batean, ekaitza eta izugarrizko haize zakarra egon zen. Inguruko baserri bateko gari guztiak alferrik galdu ziren. Urkulun ere zoritxarra gertatu eta itotakoak ere egon ziren.

Transkripzioa
- Akordaten za Santixau egunian tormentia egon zanian. Hemen Itturgaraikuei garixok hartu ta beheko zerera eruen.
- Garixok-eta aurrien eruan ta [...]. Tormenta earra!
- Tormentia egon zan ta haixe indartsuekin-ta. Zuk entzunda eukiko dozu, orduan Eskoitzakuak itto zien pantanuan. [...]
- Derrepentien agertu zala eurixe ta...
- Bai, orduantxe zan.
- Haundiña Araban.
- Gu be trotien zerera.
- Izugarrizko haixie. Gurien piñuixe botata auen hor, hortikaldien.
- Egur batzuk euzen han ebaitta-ta. Otzaran ekarteko moduko zatixak, ez da, zezpalak eta. Eta fan gintzan haik ekarten-ta, hori ta. Bestie Miren be bai; ta arto artetik ziher han etorri gintzan trotien.
- Bueno! Haixiek erueten giñuen, ni, bueno.
- Zelako zakarra etorri zan orduen!
- Ze zan, agostue?
- Santixau egune. "Venticinco de julio", holakon bat izeten da.
- Hor nunbait, bai.
- Santixau Egune. Santixau Egune hogeta bostien izaten da.
- Illundu ein auen orduen, e, illundu.
- Bueno!, jarri zan...
- Jente asko akordetan da...

- Ha egune? Nik ez dakit zenbat urte eukiko nittuan orduan. Zazpi bat-edo, banauken be, e! Bostetik zazpire. Ba izengo die berrogeta zortzi bat urte... Ez, hainbeste ez. Nik xei baneuken, berrogeta lau bat urte edo holako bat. Familixia hil jakonak akordauko die exakto baiña.
- Hoixe bai akordauko diela.
- Baiña hor izengo da. Urtebete goitti-beti berrogeta lau bat-edo.
- Han jan Landan monolitua ta. Neu be ez non /enon/ urtiaz akordetan, baiña han [jan].
- Gutxi gorabehera neuk berrogeta hamar ein bihar jittuat, eta ez jakixat /etxaixat/, xei urte; altuena xei bat-edo, bost-edo. Holakon bat eukiko nauen-ta.
-Goguan eukittekua.
-Bai, goguan eukittekua da.
-Tormentak ein orduan be batzuetan edarrak.

2.42. Umetako kantak: "Txutxurrutxu jauna..."

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/005
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:07:00. **Bukatu**: 00:07:40
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Umetako kantak: "Txutxurrutxu jauna...".

Transkripzioa
Lehen kantau dozu bat
-"Txutxurrutxu".
-Hori kantaizu. Hori luzia ta

"Txutxurrutxu jauna
nun da aittajauna
zeruetan jauna
zertan zeruetan
artaletxuek, artaburutxuek, karanketan;
artaaletxuek zetako?
Oillotxuendako.
Oillotxuek zetako?
Arrautzatxuek eitteko.
Arrautzatxue zetako?
Olatiendako.
Olatie zetako?
Abadiendako.
Abadia zetako?
Mezie emoteko.
Mezie zetako?
Aingerutxo bixen erdixan
zerura joateko.

2.43. Umetako kantak: "Txilin-txilin maña..."

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/006
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:07:40. **Bukatu**: 00:08:05
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Umetako kantak: "Txilin-txilin maña...".

Transkripzioa
"Txilin-txilin maña
biher Santamaiña
etzi Domu Santu
umiek zuluan sartu.
Ama negarrez,
aitta dolorez,
abadia kantuen
errielaren pozez".

-Orduen be erriala. Pozik...

2.44. "Aitte eternue..." kanta zaharra

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/007
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:08:05. **Bukatu**: 00:08:55
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Aitte eternue..." kanta zaharra.

Transkripzioa
-Zelan zan hori?
-"Aitta eternue" ero?

"Aitta eternue
lotara nue
Iñon figuran
bizitteko esperantzan,
ni gau honetan
hiltten banaz
Kriston hille zeruetan
eta zeruko atiek zabalik".

-Hori da behiñ entzun zeuena, ezta? Behin entzun eta goguan euki.
-Bai, beiñ entzun nintzan, e. Da gero askotan errepetiduten nauen neuk zela zan. Eurek eztakit jakingo dauen, ha kantaten auen amandrien zerak. Julik eukiko dau.

2.45. Umetako kantak: "Txintxaume...Peru zapatarixe..."

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/011
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:10:40. **Bukatu**: 00:11:25
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Umetako kantak: "Txintxaume...Peru zapatarixe...".

Transkripzioa
-"Bilin, bolo, bolaina" kantau zauen zuk lengo egunien. Neuri beorri baiño lenau ahazketan jat. "Nor hilda, Peru Zapata...", hori kantau zauen.
-Bai. Zela hasten dan be...
-"Bilin, bolo, bolaina"
-Ez.

"Txintxaume, nor hil dda
Peru zapatarixa.
Zer iñ dau?
Pekatu.
Aldeko txakurre urkatu.
Hori baiño gehixao
eiñ ezpadau
bihe jakola parkatu".

2.46. Olata-ogia

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/013
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:12:10. **Bukatu**: 00:13:10
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Olata-ogiak arrautza izaten zuen. Kolore ederra hartzen zuen arrautzarekin igurtzitako ogiak.

Transkripzioa
-Hor esan dozu, "arrautzia zeta, olatiandako". Olatiak arrautzia eukitten eben?
-Arrautzie igual. Ipiñi ezkero bai. Gaiñien igurtzitta be bai zera arrautziakin. Ogixai geuk pe itten gutsen, e. Arrautzie batiru eta, zeozer bota hari tta. Batzuetan kafia igual botaten gutsen.
-Kolorie ataraten auen elegantie.
-Bai, ataraten auen koloria. Harekin igurtzi tta.

-Arrautzia batidu, igual arrautzetara bota kafe apur bat eta ogixai igurtzi gaiñian eta geraketan zan brillante-brillantia eta koloria elegantia hartzen auen.
-Txutxurrutxu kantau dozunian, esan dozu: "arrautzia zetako?, olatiandako"
-Bai.

2.47. Txistea I

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/015
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:13:40. **Bukatu**: 00:15:00
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Txistea.

Transkripzioa
-Bi aldamiñuan igota ta bat jatxi zan txixa ein biha auela ta bera ta. Bestia han geldittu zan. Da gero aldamiñua jausi in zan da hil in zan haura. Da bestie behian. Da andrak juntau zien handik denporaldi batera, ta: "Zer moduz, zer? Ondo bizi haz ero zela bizi haz? Oin gizona be falta ta zera ta." Esan utsen. "Gizona falta jonat baiña dirue oiñ hillien larogei mila pezeta kobretan jittunat eta. Oiñ ondo bizi non. Gizona falta jonat baiña", larogei milla pezea kobratzeittula ta. Bestiorrek orduan esan ei auen: "Beste txotxoluoi, txixa ein biha dauela ta".
-Ja-ja-ja.
-Ha bera bajau txixa ein biha auela ta salbau zan da. Bestiek penie gero. "Txotxoluoi!"

2.48. Txistea II

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/017
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:15:35. **Bukatu**: 00:16:50
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Txistea. Feriatik etxera mozkortuta etorri zen gizonarena.

Transkripzioa
"Andra-gizonak, ardaua gustetan jakon andriai be. Erara harrapetan auenien eraten auela basokarie, majo husten auela basue. Baiña lenao andrak ezin zien fan tabrnara ta. Ta gizona ba ferixara fan da tabernara. Da gero ba etxera etorriko zan andria, etxera laanak eitten, da gizona ba tabernara ta. Gero ba etxera etorri zanian mozkortuta etorri zala ero,

eztakit zer. Behintzet alabiai esaten i otsen: "Hau don gizona etorri jakuna etxera. Mozkor-mozkor eindda etorri jakun gizona etxera. Mozkor-mozkor eindda etorri jakun gizona, esaten auen. Enda gizonak berak esan utsen: "Zuk nik euki doten aukeria euki bazauen zuk eztot pentsetan etorri be eingo ziñenik."

-Aukera ona, han ardaua etzan faltako.

2.49. Txistea III

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/018
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:16:50. **Bukatu**: 00:17:40
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Txistea. Bezeroak ordaindu ez, eta tabernariak hark gastatutakoa apuntatu behar izaten zuen ipuina.

Transkripzioa
"Ardaue edo eztakit beste zertzuk eran da eran eta pagau ez otsen eitten.
-Beti eran da eran eta pagau noix in bihostak pa?
-Hik apuntau!
Apuntau esaten otsan da.
-Noix arte jardun biha juat pa apuntatzen?
-Neuk "fuego" esan arte."

2.50. Erlijioa eta politika

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-008/009
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:13:25. **Bukatu**: 00:16:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Abadeen arteko tirabirak. Gerra garaian, erlijioa eta politika nahasten ziren. Abade abertzaleak desterratuta. Abadearen arreba nolakoa zen. Gizartean eman diren aldaketak: gehienak etxeak errentan zituzten; ezkondu ondoren gurasoen etxean bizitzeko ohitura...

Transkripzioa
- Eta, klaro, euren artien be abadie izen arren ikusieziñek eukitten zittuen haundixek.
- Euren artian?

- Euren artien. Ikusieziñek haundixek. Eta ha nazionalistie zala eta zertu euen, desterrau euen engañaute. Ta esan ei otsen, esaten ei otsien juan ein biher dauela, eske kantsaute dauela ta han egun batzuk edo denporaldi bat eitten —Santo Domingo de la Calzadan eukien horrek etxia — eta fateko hara ta fateko hara ta holaxe engañaute fan zan. Eta gero, ba, hak bere ardurak, eta nok akusau euen ta danak ekixan. Harek akusau, berak gure euen hartu hori puestuoi, harek akusau ta bialdu euen Santo Domingo de la Calzada. Eta, klaro, harek ardurak euken, bere ardurak. Eta gure izen euen etorri Bilbora, eta Bilbora etorterako zertu zanien alto in otsien, ezin leikela… Aber zeatik ez bera Bilbora. Eta akusaute euela, nazionalistei lagun ein otsela ta nazional… Baiña berak ez dauela euki holako… berak lagundu otsela, ba, ez daukenai, ez daukenai, pobriai, ez daukenai, berak ez dauela euki zerik… Ez dakitzu? Politika kontuen ez dauela euki distinziñoik. Ba, ez euen zertu. Handik laister haintxe hil in zan erun euen disgustuakin, e! Haintxe, Santodomingo de la Calzadan. Eta panteoia eukien horrek Bilbon eta ez otsien itxi haraxe ekarten be ez! Haraxe ekarten be ez, e! Gero han urtiek pasau ta gero ekarri zittuen hazurrek ekarri zittuen Deriora, baiña haraxe ekarten be ez otsien itxi. Ta ene… gure señoriek… Ba, bat izatekotan, personie zan ona, karitatibie… zenbat, zenbat bider fan nitzen ni hola… zenbat etorten jakon, ba, [aurretik] leetxe jente asko etorten jakon, ba… ez dakitzu? Limosna eske edo, ba, gaizki dauzela, ez daukela pagetako, […] familixie eta milla miserixakin, beti juten zan jentie [hara] etxe haretan. Eta etorten zien eta zenbat bider bielketan nindduen, ba, hillen azkenien edo zera, etxie pagetako ta… Orduen ez euen… iñok ez euken orduen, danak errentan bizi zien! Orduen aberatsak eukien bakarrik zera, etxie. Ez oingo moduen, ba, ezkondu biher dau ta derrigor etxie biher dau bere… etxie? Ez! Orduen zan, ba… Ez euen holako zerik. Ke, ba! Errentan, ta errentie pagetako falta. […] akordetan naz zenbat bider faten nitzen ni; sobretxue emuten osten eta “Entrega en tal sitio”. Ya jakiñien [eingo neuen nik]. Eta zenbat, zenbat… Oso karitatibie zan, oso-oso persona ona, oso persona ona. Ta gero, ba, ni hantxe egongo nitzen, baiña jarri nitzen gaixorik, gripiek ebatu osten ta ezin [ezela be] osatu.

2.51. Auzoko eskola; doktrina

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-008/019
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:32:25. **Bukatu**: 00:34:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Auzoko eskolako irakaslea, sakristaua. Doktrina abadearekin ikasten zuten. Doktrina euskaraz ikasi zuten. "Buruz gainera ikasi be...!".

Transkripzioa
-Auzoko eskolan maistrua zein zan?
-Bai, auzoko eskolan "Hobe Jesus" ikesi artien, esate baterako.
-Maistrue zan, zela da?

-Zakarias, Zakariasekin.
-Bertako...
-Bertako sakristaue. Sakristaue zan maixue.
-Eta dotriñia-eta?
-Dotriñie abadiek. Bai, bai. [...] Harek errespeto gehixao euken.
-Bai?
-Honbree! Harek errespeto gehixao euken. Bai hoixe. Harek kaxkatekuek ederrak emuten zittuen.
-Bai?
-Ez, emun barik. Bueno! Neuri sekule..., kaskateko bat ez naz akordetan hartu dotenik ez amagandik ez aittagandik eta ez bestegandik. Kaxkateko bat ez naz akordetan, baiña harek, plasta!, matraillan, baiñe ez bazeuen kontestetan ondo dotriñia... Uff, okerra zan, e, hementxe Koruetan hil zan.
-Eta dotriñia zela emuten zenduen, euskeraz ala erderaz?
-Ez. Euskeraz. Bai. Nik oraziñuek danak dakit erderaz, baiñe bestela dotriñaik ez. Dotriñaik ez. Dotriñie dana euskeraz eta. Dotriñie, gaiñera, ez pentsau holan zera, e! Dana buruz gaiñera ikesi be. Nik oindio eta oindio be behin errepasauko baneu, asko eta asko kontestauko neuke osue. Bai, bai, bai; oindio errepasu bat emungo banuskio... Nik dotriñia... Orduen buruz ikesi biher izeten zan dotriñia.
-Dotriñia ze izaten zan, egunero emoten zenduen, edo astian behin?
-Ez, astian behin baiño sarrixao ein biher izeten zan. Bai, bai. Abadiaz astien pare bat bider, baiña aurretik ikesitta eruen bihar zeuen, han leziñue ikesitte, e. Honenbeste hoja-edo, bi ero hiru hoja-edo, han buruz ikesitta, eta ez bazeuen buruz ikesten... Okerra zan ha abadie, okerra; ñooo!

2.52. Doktrina ongi ikastearen garrantzia

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-008/020
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:34:35. **Bukatu**: 00:36:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Pazkoakoa egiteko ("pazkueskue") doktrina ondo jakin beharra zegoen; abadeak galderak egiten zituen.

Transkripzioa
-Dotriñia inportantia zan orduan?
-Hoixe inportantie zala. Eta Pazkuazkue eitteko ha dotriñie haundi ein ta gero be, ez umetan, e, ia nausittute, nausittute gero be, lelengo sakristixara dotriñie emuten; eta ez bazekixen ez zeukatzun zerik... Zela esan dot?
-Pazkuazkua?
-Pazkuezkuek, Pazkuezkue esaten jakon. Ez euen Pazkuezkue eitterik, ez utsen emuten Gure Jaunik, ha ikesi biher zan, ha ez bazakizun, fuera! Haik eta ikesi arte.
-Eta esan dozu nausixauak be berdin?
-Nausixek? Hoixe, baitte, baitte. Orduko hogetaka urtiek-eta. Hoixe.
-Eta zer izaten zan, abadiagana joan bihar dotriñia...

-Bai, dotriñie, dotriñie, lelengo han dotriñie emun biher zauen; bazenkixen, emungo otsuen permisue Pazkuazkue eitteko, eta bestela, barriz, ha ikesi biher zauen, eta ikesi ta gero barriro fan, ha ikesi artien.
-Eta permisua esaten dozunian, zer esan nahi dozu, papelen bat edo txartelen bat?
-Txartela. Txartela. Txartela hartzera faten zan. Bai, hori izeten zan, Pazkuakua eitteko txartela hartzen. Eta txartelik ez zotsuen emuten ez bazekizun dotriñaik. Askotan zer esaten geuen ez geuen jakitten; ez geuen jakitten zer esaten geuen, baiña zeozer "rajatabla" esaten zeuen, eta "ya está". Nahiz ta euskeraz izen. Euskerie be zan oso euskera zerrau hori. Asko berba zer esaten geuen be ez gakixenak. Bai. Baiñe esan ein biher zeuen, jakin in biher zan.

2.53. Erlijioaren garrantzia gizartean

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-008/021
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:36:25. **Bukatu**: 00:38:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Jaunartzea sei urterekin. Ume asko etxe guztietan. Erlijioaren garrantzia. Mezara igande eta jaiegun guztietan. Kongregazioa. Zer konfesatu jakin ez. Gurasoekiko errespetua.

Transkripzioa
- Orduan jaunartzia, komunixua eta, zenbat urtekin egitten zan?
- Nik sei urtekin ein nauen. Zazpi be laster ein biher nittuen.
- Zenbat zien, bat ala...
- Bat? Guk gure auzuen ez dakit zortzik ala beatzik ein geuen. Ordun ume asko jaixoten zan. Klaro, dana zan pekatu, dana zan pekatu, umiek ekarri biher zian. Eta, klaro, etxe guztietan euzen ume asko.
- Eta sei edo zazpi urtekin komunixua egin...
- Bai. Eta gero ez faltau mezie, e! Uste dozu oingo moduen mezetara, ba!, komunixue ein eta "adiós muy buenas"? Ez, ez, ez, ez, hori ez! Mezetan domekero; domekero eta jaiegunetan. Ezta hori pentsau be ez gaiñera ixteik, e, pentsau be ez. Oso txarto biherko zintzen mezetan ez fateko. Txarto. Eta gero, deskuidun ez bazintzen faten, konfesau ein biher zeuen. Zer konfesau ez zeuen jakitten! Konfesetan fan biher, kongregaziñua izeten zan hillien behin, ta kongregaziñora fateko konfesau ein biher zeuen. Zenbat bider: "Zer konfesau biher ete juat nik", pentsau ezindde, zer konfesau ez geuken-eta. Zer pekatu eitten geuen ba, ez geuken pekatuik eta! Zer konfesau biher [...]? Zer esaten gixuan baiña guk? Ez gekixen zer konfesau. Zer esaten geuen? Sekule, oingo moduen, esate baterako, gurasuei-eta errespeto bat izeten jaten. Errespetue. Errespetue, ez billurre! Gurasuei asko gure izeten jaten, eta errespetue be bai, baiña orduen beste..., hola...
- Errespetua.

- Bai, errespetue. Ez [...] oingo moduen: "A, bai, ni ez noie!!". "Jamás". Sekule ez naz akordetan, "A, bai, ni ez noie!!". Keba. Aittek eta amak esaten euena, ba haxe ixil-ixilik ein eta kitto.

2.54. Erlijioaren garrantzia gizartean

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-008/022
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:38:40. **Bukatu**: 00:40:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Ezkondu ondoren Arrasatera joan zen konfesatzera. Lehenagoko gizartean asko kritikatzen zen; gaur baino gehiago. Kongregaziora joaten ez ziren neskak kritikatuak izaten ziren.

Transkripzioa
Askotan esaten neuen: "Ze koño esan biher gixuan baiña guk abadiana fanda?" Eta hori zenbat bider. Behin esan ustan, fan nintzen Mundrauera, ezkonduta gero, fan nintzen Mundrauera konfesetan. Klaro, ez bazintzen faten, kongregaziñuetan be, hori ezkonduta gero esan dot, baiña aurretik ez baziñen faten: "Joño, ez dok fan, ze pekatu ete jaukek horrek ez fateko?" -Beti gaizki pentsatzen.
-Bai. Eta kritikau oingo aldien asko eitten zan. Esaten dabe oingo gaztiek bata eta bestie. Oingo gaztiek ez daue kritiketan lehenao aiña, eta zaharrak be ez, e! Zaharrak be ez. Lehenao asko be gehixao kriteketan zan oin baiño. Egi-egixa esaten dotsut: lehenaoko jentiek asko be kritikau gehixao eitten auen oinguek baiño. Bai, bai. Zegatik da? Ez dakit. Orduen be, "Neurie balitzok, etorri biherko leukek etxera lehenao". Baiña gero poliki-poliki eurenak be haundi ein zien, eta gero eurenak aurrekuek baiño txarrago fan zien; ez da fan lehenao etortera, ez bada eze geruao etortera betik. Eta orduen ixilik, baiña aurretik asko kritikaute, e, asko kritiketan zan lehenao. Eta orduen be, faten ez bazan kongregaziñora esaten zana: "Ze ete jaukek horrek kongregaziñora ez fateko?" Fan biher [izeten zan] konfesetan, zer konfesau ez zakitzun. Ze geunken guk konfesetako? Ze geunken? Nobixuai musu bat emutie pekatue zan ba-ta!

2.55. Herriko jaiak

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-008/026
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:44:20. **Bukatu**: 00:45:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Santa Rita, Aretxabaletan jaieguna. Larrosa bedeinkatuak banatzen dituzte.

Transkripzioa
- Esan dozu fede asko Santa Rita...
- Nik Santa Ritari asko, e. Enee! "Santa Rita abogada de los imposibles". Bai, esaten daue. Atxabaletan dau Santa Rita. Mundrauetik ehun urte etorri ziela. Santa Rita, eta eitten da, sekulako fiestie eitten daue. Eta etorten die Mundrauetik jente asko. Eta Santa Rita, ez daukotzu entzunde?
- Bai, baiña Mundrauetik jente asko etortzen dala ez.
- Bai, Mundrauetik jente asko etorten da. Atxabaletan dau mojetan. Santa Rita, "abogada de los imposibles".
- Eta ze jai egiten da?
- Jairik ez.
- Meza espezialen bat edo?
- Bai. Etorten da sermolarixe eta eitten daue mezie, eta gero larrosak bedeinkatu, eta emuten dotsue, repartiduten dotsue larrosa mordue bereinkatutakuek eta, eta gorde eitten dozuz; gure bozu gorde, eta gure bozu erre, zeuk gure dozune. Gorde eitten dozu, bereinkatute egoten dielako-eta. [Horrela] kostunbriek dauz.

2.56. Peregrinazioak Urkiola eta Arantzazura

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-008/030
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:53:05. **Bukatu**: 00:54:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Inguruko auzoetako jaietara oinez joan behar izaten ziren. Peregrinazioak Urkiolara eta Arantzazura. Bedoñako jaiak. Mendiz mendi oinez.

Transkripzioa
-Orduan esaten dozu zuen auzotik Aretxabaletarako jokera gehixago?
-Atxabaletarako jokera gehixao Eskoritzarako baiño.
-Eta bestela jaiegunak, Bergarako Pazkuak... Beste jaiegunik inguruko herrixetan edo?
-Ez. Eske, klaro, orduen oiñez ibilli biher zauen. Orduen auzuetan eitten zien erromeixak. Auzuetan eta bai.
-Trenian lantzian behin inguruko herriren batera be ez?
-Trenian? Trenian faten bagintzen esaten dotsut Bergararaiño, Bergarara. Gizona: Eibarrera be ez, Eibar urriñ euen.
-Keba!, keba! Eibar urriñ euen. Urriñ.
-Gehixenetan izango zien auzoko jaixak.
-Auzoko jaixak izeten zien, auzoko jaixak.

Gizona: Gero peregrinaziñuak Urkiolara ta.
-Hori da, Arantzazure... Urkiolara ta peregrinaziñuak eta horrek izaten zien. Eta Bedoñako jaixek. Oin Mondrauera pasauta dau. Lehenau denpora baten Atxabaletakua zan Bedoña, baiña oin Mondrauera pasauta dau. Eta Bedoñako jaixa Santa Eulalia. Hara be faten giñen, han tiue geukan eta. Faten giñen konbidau, eta hantxe itten geuen dantzan.
Gizona: Urkiolara be oiñez?
-Oiñez, klaro, oiñez. Mendiz mendi.

2.57. Erlijioaren indarra baserri giroan

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-009/006
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:12:55. **Bukatu**: 00:14:40
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Erlijioaren indarra eta eragina baserritarrengan. Abadeak; batetik bestera desberdintasun handiak.

Transkripzioa
-Akordetan naz ni, konfesetan fan eta baten, e (hementxen zan, eztakit, orduen misiñuek egoten zien), eta etorri ta: zenbat ume? Ta ba hainbeste ume geukela. Ez dakit zer zien, lau-bost geuken guk. Eta ez ekarteko gehixao esan usten, eta. Bai, pasauko geukiela guk ekarri barik gehixao. Ba ez ekarri, nahikue dittuzue. Nahikue dittuzue, ez ekarri. Baiña orduen ez eukotzun oingo medixoik ez gauza bat erosteko, ez... Orduen ez euen oingo zerik, e! Hori oingua da baiña orduen ez euen. Ez euen. Por mucho que querías ez euen! Eta hortik esaten dotsut abadiek be diferentzia haundixa eukitten dauela batetik bestera. Batzuk EZ!, umiak ekarri in bihar die, jangoikuak emuten dittuen umiek! Bai, baiñe gero konturatu biher zara, ekarri bai, baiña haik gero aurrera atara biher dittuzu, e. Eta malamaneran ibilttekotan ba, psee. Eta onak urteten ba dutsu eta fiñek urteten badutsue ba pozik. Behin umie, ikusittako umie ez dakotzu saltzeko, e. Askok esan izen..."Bai, bata ez dakit zer, hori sobre..., zelan esaten da? Askok esaten daue: "hori gure eztana etorri da umie, ez dakitzu?, gure eztala, gure barik etorri da umie, eta hola. Eta bai, hori, klaro, horren biharra ez euken eta hori gure barik etorri zan eta. Nik esaten dot, hori ez da egixa, hori ez da egixa.

2.58. Abadearekin harremana

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/011
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:09:05. **Bukatu**: 00:10:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Abadearekin baserritarrek izaten zuten harremana nolakoa zen.

Transkripzioa
-Lehenago gerra aurretik esan dozue abadia-eta auzo bakoitzian bana zeuala, abadetxia be egongo zan, eta abadiakin relaziñua zelakua izaten zan ba? Errespetu haundixa eukiko zontsen.
-Baiña hemengo abadia ez zan /etzan/ izen gosia bapez.
-Emaztea: Esan gura dot hola..., hemen beste auzo batzutakuak esaten daue ba bueno!, abadiek, e, Kontzeziño egunien oillandia, Pazkua Egunien ez dakit zer eruen bihar, gero ez dakit zenbat arrautza, eta beti eskien.
-Beti zeoze abadiai erueten.
-Emaztea: Baiña hau ez, hemengue ez.
-Garixe danok hartzen auen, garixe. Baiña hamenguek...
-Emaztea: Etxien be falta eitten auela eta.
-Eta ifiñi auen dirue zeozer. Zeoze emun eta se acabó la... Eta beste auzo danak segidu euen lehengo...
-Emaztea: Lehengo ohitturan, bai.
-Kostunbria.
-Hor sentiduen hemen egon zana konsideraue edo.
-Bera bertakua zan?
-Elgoibartarra zan.
-Emaztea: Hantxe hil zan, lobaakin hil zan, eta gu fan giñen bi-hiru bider bisittetan be. Baiña hor sentiduen izen zan oso moderaue. Beste batzuk esaten daue, buenooo! ... oillandie hazi bihar, bestien arrautzak, bestien ez dakit zer.
-Noberandako falta eta.
-Urtian ez dakit zenbat egun holako jeneruak zertzeko.

2.59. Ohitura zaharrak

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/014
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:12:40. **Bukatu**: 00:16:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Pazkoko txartela. Ohitura zaharrak. Soroetako bedeinkazioa. Trumoia zetorrenean ere bedeinkazioa egiten zen. Su bedeinkatua. Angiozarko ohitura zaharra. Ur bedeinkatua.

Transkripzioa
-Lehen esan dozu abadiai emun bihar jakozela oilandak eta hainbat gauza. Bedeinkaziñuak eta egiten zittuan?
-Emaztea: Baitta. Bai.
-Lehenau konfesau ein bihar zan eta Pazkuetan txartela hartu bihar zan.
-Emaztea: ¡ Paskuazkue egin dozule agirixa.

-Demostretako.
-Emaztea: Orduan dotriñia preguntatzen eban, itxuria, batzui, neuri sekula ez doste eiñ baiña.
-Niri bai. Eta ya bale danien ba emuten daue ba txarteloi, autorizaziñuoi komuniue eiñ dan moduen. Edo eitteko zera da. Komuniuan kanbixau itten da, bat itxi ta beste bat hartu. Eta gero ba Pazkue..., handik ez dakit zenbat denporara horrek errekogiruten etorten zan abaria monagilluaz, nik monagilluaz daukat ikusitta etxeik etxe.
-Emaztea: Konjurua eitten.
-Konjurue hola bedeinkaziñue terrenuei ta botatzen utsen eta zeozer emuten jakon.
-Emaztea: Arrautzak edo zeozer emuten jakon.
-Hori neuk ikusittakua da. Oiñ horreik danok...
-Emaztea: Gero hodeixe euanien, ezta, orduen abadiek elixpera urteten eban eta elixpien eitten euen konjurua. Hodeixe edo trunboi zatarrak eta gauzak. Hori beti.
-Bedeinkaziñuak, konjurua, hori noiz izaten zan?
-Emaztea: Ba ointxe, ointxe udabarrixen.
-Hemetik eta..., bai, bai, garixek heldu arte.
-Emaztea: Su bedeinkatue gaiñera partitzen zan orduan.
-Hori zer izaten zan, Santa Kurutz egunian edo?
-Emaztea: Ez, ez. Itxoin, Pazkuetan ur bedeinkatua ta eitten daue, ezta. Eta orduan eitten zan su bat. Eta handik sue...
-Erreten die erramu zarrak eta...
-Emaztea: Bai, fago-ilddue edo. Hemen ez dot ikusi baiña Angiozarren bai. Fagoilddue edo, han sue hartzen zan, eta etxerik etxe halako... monagilluek edo ibiltten zien ha su bedeinkatue partiduten.
-Kalteik eiñ ezteixen.
-Monagilluek?
-Bai, akolittuek.
-Auzoko umiak ez?
-Ez, kalien eozenak.
-Eta ur bedeinkatua be partidu eitten zan?
-Emaztea: Baitta. Ur bedeinkatua ointxe be badao ohitturie, e. Hor bedeinkaketan danian nik eta etxeko danak, beste batzuk be, botilatxo baten ekartzen da ur bedeinkatua etxera.
-Eta gero zer eitten dozue?
-Ba zeozer premiñie dauenien edo ganauetan edo bota ta. Eta kurtzak bedeinketan die.
-Emaztea: Su bedeinkatua ta ur bedeinkatua hori izaten zan Pazkuetan. Eta horrek konjuruok eta gauzok be orduantxe, Pazkua ostian.

2.60. Bedeinkazioak; ohitura zaharrak

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/015
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:16:00. **Bukatu**: 00:17:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Aisia » Jai-giroa » San Juan

- **Laburpena**: Gurutzeen bedeinkazioa. Ohitura zaharrak. San Juan eguneko ohitura zaharrak.

Transkripzioa
-Eta gero kurutzak eta (bedeinkatu)?
-Erramu Egunian.
-Hemen ohitturia izaten zan kurutzena?
-Bai. Eta dago ondio, ondio segiduten dau, aurten be fango die.
-Solo guztietan ipintzen zan?
-Bai, soluan sartu makillok.
-Atian?
-Emaztea: Atian edo, bai, edozein lekutan.
-Bai, Sain Joanetan be lorak ifintten die ate mark..., aldamenien.
-Emaztea: San Juan egunien botaten da idie hor eskapien hola lurrien larrosa-orri batzukin eta ateburuen elorrarantzie beste larrosa ostro bategaz.
-Horio ondio be efintten da.
-Emaztea: Hori San Juan egunien.
-Ondio be ifintten da leku batzuetan, ia... Baiña hementxe be ifintten da, geuk be ifiñiko dou aurten be.
-Hori Atxabaletako ohitturia be bada?
-Bai, bai, bai.
-Eta zeuk Angiozarren ezagutu zenduan berdiña?
-Ba antzerakua.
-Larrosa...
-Emaztea: Bai, hori idioi beti botatzen da.
-Larrosa petaluak.
-Emaztea: Ointxe ez dakit botatzen dauen baiña ni han bizi izan naizen artien bai behintzet.

2.61. San Juan eguneko ospakizunak

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/016
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:17:20. **Bukatu**: 00:19:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Aisia » Jai-giroa » San Juan
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: San Juan sua etxe guztietan egiten zen. Kanta zaharra. San Juan "sortie".

Transkripzioa
-San Juanetan gaiñera sua egingo zan?
-Hori da, san juan sua, bueno!, hori urtero. Hemen be etxe gehixenetan eitten da. Etxe bakotxien.
-Eta ohitturarik egoten zan, ez dakit, kanturen bat?
-Emaztea: Bai: "San Juan dala/ San Juan dala/ Porta Letaiña goxien/ hamalau atso/ hamalau atso/ tronpeta joten/ zazpi astoren gaiñien". Beste hamalau/ beste hamalau/ asto bateren (?) gaiñien". "Garixek eta artuek

gorde/ zapuak eta subak erre/ biba-biba San Juan berde!". Hori kantatzen da. Ointxe be bai gure umiak eta hori kantatzen dabe.
-Hori suan inguruan kantatzen da edo?
-Suan inguruan.
-Orduan ohittura batzuk oindiokan mantentzen dia.
-Oindio bai, bai. Geu alegintzen ga mantentzen eta geure semia be bastante... Horrek tradiziñuok gordetzen badaukou ohittura puxkat. Eta gero San Juan sortie bedeinkatzen da elixan. Lora sortie.
-Ipintzen dana ate onduan?
-Emaztea: Ez. Aparte eitten da beste sorta bat elixara erueteko. Han bedeinkaketan da eta hori urte guztien daukozu kamaran.
-Iezkue oiñ erre eitten da.
-Emaztea: Bai, iezko sortie oiñ san juan sue eitten danien erreko da, ezta? Eta berriz ointxe, geuk ez dogu eitten hori, baiña palan hartzen zan prasa pixkat, su pixkat, eta hola hodeixa eta txarra euanien, handik bedar batzuk ipini ta ataratzen zan kanpora.
-Zelako ohitturak.
-Emaztea: Hori ohitturioi ba beti. Ta ointxe hemen ez dot ikusi hori ohitturioi baiña Gontzarrin hori beti, beti.
-Oiñ gauza barrixak bihar diela, baiña gauza batzuk ez litzakez /elitzakez/ kendu biher baiña.

2.62. Eguraldiaren inguruko sinesmenak; ohitura zaharrak

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/017
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:19:30. **Bukatu**: 00:21:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Natura » Meteorologia
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Trumoia zetorrenean, abadeak konjurua egiten zuen elizpean eta kanpaiak ere jotzen ziren. Euria egiteko errogatibak. Ohitura zaharrak. Letaniak.

Transkripzioa
-Hemen hodia edo trumoia zetorrenian eitten zan holako...
-Datorrenian? Kanpaie be joten zan. Don! Hil-kanpaien morukue edo iguel-iguela ez baiña antzerakue apur bat.
-Orduen eitten eban abadiak konjurua elixpeian.
-Eta hori izaten zan kanpaia jentiari abixatzeko?
-Bai, bai, ia ba konjurue dauela auzon baten edo hodeixe edo ikusten zan eta.
-Gero errezuren eitten euen eta ia está.
-Eta kontrara be eitten zan? Sikutia zeuanian eurixa eitteko errogatibak edo?
-Errogatibak bai. Honbre! Errogatibak sarri.
-Oiñ edozer gauza esan be eitten da ta, buenoo!, holako gauzagatik, bueno!, haundixak esaten die, baiñe...
-Asentzio-letaiñak be eitten zien.

-Eta horrek ze...
-Ba Asentzio-letaiñak zien, hemen bertan eingo zien elixan baiña Angiozarren eitten zien, hori hiru egunetan izeten zan, Asentzio aurreko hiru egunetan. Ermittaik ermitta faten zan, ezta? gurie zan San Migel Monte. Hor egun baten. San Migel Montetik San Bartolomera, egun baten. Gero beste baten San Martinddik San Bizentera. Eta gero Elixamenditik Asentziora. Horrek letaiñok eitten zien, goxien goix letaiñak errezauaz pentsaizu ze ibilaldixak eitten giñuzen. Ez pentsau hemendik horra beste auzora, han distantzia haundixauak daz. Horrek Asentzio-letaiñak.
-Eta hori zahar nahiz gazte...
-Bai, bai. Edozein faten zan. Jente pillie, e. Hemen be eitten zien baiña hemen bertan elixan bakarrik.

2.63. Gurutze-bidea; Angiozarko ohitura zaharrak

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/018
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:21:35. **Bukatu**: 00:23:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Angiozarren gurutze-bidea egiteko ohitura. Ohitura zaharren inguruko gogoetak. Bazkalostean bezperetara joan behar izaten ziren. Doktrina.

Transkripzioa
-Angiozarren kurutz-bidia be eitten zan, ez?
-Bai, Elixamendire.
-Hemen halakori, kuruzbidia edo, holako prozeziño...
-Ez. Kalbarixuak beti baiña elixan. Horrek ohitturok, bueno...
-Horrek ohitturok zeuen gurasuengandik jasotakuak.
-Bai, bai, horrek geuk ikusi dittuunak.
-Bai, hor Asentzio-letaiñetan neu behin baiño sarrixao Angiozarren ibilittakua naiz.
-Eta zeuek entzunda etxian, "enee!, ohittura hau galtzen dihardu" edo ez dakit, amari edo aittari?
-Bai, bai.
-Orduan be esaten zan, hau galtzen dago?
-Ez, artien bizirik euen horrek gauzok....
-Ordurarte dana mantentzen zan.
-Bai, artien bizik eozen horrek. Eta bazkalostien bezperetara fatia ta , bueno! Hori e...
-Eske elixa kontuak orduan inportantiak...
-Eta dotriñie ikasi. Bezperetara fan aurretik dotriñie ikasi biher zan. Eta bezpera ostian abariana dotriñara fan eta gero euan denpora libria jolas eitteko.

2.64. Abadeen debekuak

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/028
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:36:05. **Bukatu**: 00:36:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena**: Angiozarko abade batek dantza lotua egitea debekatu zuen.

Transkripzioa
-Orduan kalabazak eta emoten zian...
-Honbre! Hoixe. Gero beste urte batzuk... Desde luego ha abadia bizi bada; honezkero ez dakit bizi dan ala hilgo zan. Angiozarrerra etorri zan abade bat enda dantza lotuoi fuera. Enda erosi euen gramofono bat edo eta ba trikitixia bakarrik. Ezta? Eta jentie ba gastau ein zan. Enda horrek asko galdu eban han Angiozar aldian. Gaztedixia asko galdu zan, hasi zan gaztedixia beste leku batzutara faten eta zerien. Eta hori ni ezkondu aurreko urtiak zien horrek.

2.65. Garizuma; Aste Santua

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/029
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:36:55. **Bukatu**: 00:38:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- **Laburpena**: Garizuman dantza egitea debekatuta zegoen. Aste Santuko ohitura zaharrak.

Transkripzioa
-Eta lehen esan dozue Garizuman dantzia eittia be debekauta zegoela.
-Bai, debekauta euen, bai.
-Musikia?
-Bai. Terminantemente prohibido.
-Eta entzunda daukazue Garizuman kanpai espeziala jotzen?
-Garizuman kanpaia jo?
-Garizuman ez zan kanpaia jotzen.
-Ez, ez, behintzet elixen funziñotan eta hirukoik eta kanpan luzeik eta ez.
-Aste Santuan ez.
-Igual Aste Santuan izango da bakarrik?
-Ez dakitt.

-Gero santuek be tapetan zien.
-Bai, bai. Dana izera haundi batek tapaute altarak.
-Noiz hori, aste santuan?
-Garizuman tapatzen zien santuak.
-Eta zeiñek tapatzen zittuan, abadiak?
-Bai, abadiek. Aproposko telak eindda eozen.
-Eta zegaittik edo?
-Ez dakit ze zentzu euko eban horrek. Santuak be tapauta ta ya luto konpletua.

2.66. Hildakoen inguruko ohitura zaharrak

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/030
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:38:05. **Bukatu**: 00:41:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena**: Luto kontuak. Senideren bat hiltzen zenean, bi urteko lutoa erabili behar izaten zen. Ohitura zaharrak. Angiozarko hilarrietan elizkizun klase desberdinak ezagutu ditu: ogi txikia, ogi handia. Domu Santu Eguna; Pazkoa.

Transkripzioa
-Baten bat hiltten bajatzun etxien, gurasue edo anaie edo zera, ba bi urteko lutue eukotzun bal-baltzik.
-Lutue baltzik jantzitta eukittie da. Eta bi urtien lutua. Lelengo urtien dana baltza eta hurrengokuan ba zeoze "medio luto" edo hola, zeoze zurixe edo.
-Orduan gogorra izaten zan, ez? Elixiak indar asko zekan.
-Honbre!, honbre! Bai. Lutue. Gaiñera hil eta urtebetien dantzaik be ezin zeiketzuen ein.
-Urtebetian dantzaik be ez.
-Eta hori baten batek zaintzen zeban? Bueno, noberak...
-Eta gero bertanbera behintzet desaparezidu zien horrek gauzok.
-Dantzan be eitten be hasiko zan jentie ta. Txartela, porrejenplo...
-Horrek ezaututa dauket nik. Elixan be ezaututa dauket kategorixak: Ogi Txikixa eta Ogi Nausixa.
-Kategorixak zetako baiña?
-Ba hillarrixa ipintten zan, ezta, elixan.
-Bai.
-Hillarrixa ipintten zan, zuk hilddakoik ez badaukotzun ba trapu zuri bat izeten zan. Dotorea, almidonauta ta dotore ta han bi kandela. Hori bakotxak, etxe bakotxan, etxe bakotxak euken bere hillarrixa. Eta gero bat hiltten jatzule ta hori trapu zurixoi kendu ta baltza ipintten zan. Eta Ogi Txikikuak ba baltza, ta Ogi Haundikuak baltza kurtze gorri batekin. Hori distinziñuoi nik ikusitta daukat Angiozarren.
-Ze distinziño zan berez?
-Aberatsa ta pobrie. Klaro.
-Baten entierrua izengo zan karutxuaoa iguel?
-Bai. Batena izengo zan igual xei abadekin eta bestiena ba bikin edo.

-Eta hori? Ipintzen zan mantillia edo?
-Kurtze gorrixe.
-Eta esan dozu ogixa be diferentia. Ogi txikixa eta ogi haundixa.
-Bai, izenak die. Izenak zien, Ogi Haundixa eta Ogi Txikixa.
-Orduan ez zien ipintzen hillarrixan olatak eta?
-Baitta, olatak-eta izeten zien.
-Ogi Haundixa ta Ogi txikixa izenak, besterik ez?
-Bai, izenak zien bakarrik.
-Olatak Domu Santuetan enda... uste dot Pazkua Egunien?
-Bai, bi egunetan zien. Arientzan abariek gizonai emun eitten utsen merixendetako.
-Arientzako abadiek, gero gizonak eukitzen eben urteko juntie horreittan egunetan.
-Bai, lehenaoko gauza batzuk kanbixau, lehenao basuen beste obligaziño batzuk izeten zien eta haik ardurak euken gizonak kanbixau ta junta, auzo-junta bat eitten zan, eta horreik olatok janaz...
-Olatok abadiek merixendetako emuten ei utsen gizonei, eta beste batzuk berriz, e, nada. Hemen beste auzo batzuetan bakotxak berak gordetzen zittuela, edo eurak jateko edo oilluek eta eukitzen zittuen, oilluei emuteko edo dana dala.

2.67. Auzoko abadea

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/031
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:41:40. **Bukatu**: 00:44:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena**: Auzoko abadearen inguruko azalpenak. Sermoiak euskaraz ematen zituen. Lehenago mezak latinez ematen ziren.

Transkripzioa
-Gero umiek dotriñara faten zienian, honek gure nausixonek eta dotriñara faten zienian, horrei be emuten otsen olatia jateko. Pozik faten zien umiek olatia jateko
-Orduan hemengo abadia...
-Bai, bastante konsideraua zan, bastante konsideraua zan. Hor sentiduen bai.
-Zana zan ba, bueno, ha abadie ordukue zan. Dantzan eta ikusi ezkero ba hasten zan kanpaiak joten illuntzien eta jentie rekojidu, erretirau arte, daun-daun-daun-daun..!
-Baiña gero azkenengo urtietan ya berak alde eitten eban. Jaieguneko mezioi emuten ebanian ba berak alde eitten eban. Ya ikusi eban ba ala!, gura dozuena eizue.
-Oin zan hola sermoie edo zeozer esan biher bazan, euskeraz baiña jator, e! ta klaru berba. Hoixe baeukan.
-Irakurten eta...
-Euskeraz zirt-zart euken, bai.
-Eta euskeraz emuten zittuan sermoiak, e?

-Bai, bueno! Hoixe baeukan.
-Eta irakurtzen zan "numero uno". Eta gaiñera boza. Zu Atxabaletakua za? Atxabaletan ointxe be parrokue daukou, boza dauko "de aupa". Eta halakotxe boza euken harek be. Bai.
-Dana euskeraz eitten eban harek.
-Eta sermoiak ze izaten ziren, gogorrak?
-Bueno, danerakouak. Sermoiak gauza askotan haik esplikauko dittue ez dakit zein filisteotarren kontuek eta, baiña guk entendidu ez, eta ezebez. Kastautakuen sermoioi kitto.
-Lengo mezie nok ulertzen giñuen? Latiñez ba. Eta oin sikira ba badakiu zer zertzen dan eta ze...
-Eta sasoi batzutan ez zan izaten abadiak zeozergatik hasarre edo, eta sermoiak-eta pulpittotik...
-Bai, holakuek esaten daue bai.
-Lehenagoko kontuak izango die igual.
-Bai, lehenaokuak eta gure denporan be igual bai. Neri ez jat /etxat/ tokau, e.
-Abadian arabera, ez; abadia biharbada diferentia zan...
-Klaro, bai.

2.68. Auzoko "ermandadea"

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/032
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:44:10. **Bukatu**: 00:47:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Auzoko ermandadea. Auzo batzuk elkarrekin egiten zuten ermandadea. Ohitura zaharrak.

Transkripzioa
-Lehen esan dozue Juntia eta. Hemen auzuetan ermandadiak eta egoten zien?
-Bai. Ganauendakuak.
-San Anton egunien irixak eruaten zien Azatzara.
-Gure zittuenak danak euki gehixa be erueten zittuen. Guk irixek geuken bakarrik.
-Bai, ermandadan segun ze ganau euketzun. Eta han eitten utsen bedeinkaziñue ta gauzok.
-Bedeinkaziñue holako..., pasau apur bat, ba ondo auela edo esan eta aurrera.
-Baiña bedeinkaziñue be bai San Anton egunian.
-A, San Anton egunien? Bueno... Bai?
-Bai, bai. Azatzan eitten zan hori. Eta gero ganauok etxera ekarri ta ba gizonok gero han tertulixia, ardaue edo zeoze bokadillotxon bat eruengo euen etxetik edo ta.
-Bai, ni gaztetxuena nitzen, aittek ni bieldu ta. Hala, mutikue ardau partiduten. Bi basogaz edo hirugaz gizon danai emuten jakuen. Je-je,

janagaz.
-Ermandadia ze izaten zan, auzo bakoitzak berana zekan?
-Ez, Arientzak ez. Guk Azatzakuaz geukan. Koruetan be bazan zeozer, Mendiolan be bai.
-Arientza eta Azatza zien bakarrik?
-Gu Azatzara faten gitzen, eta ez dakit nik, Larriñotik be baten bat etorriko zan edo. Azatzar danak eta Irabangua be hor egongo zan ba.
-Eta zer izaten zan, bakoitzak zekazen aberiak ikusi, tasau...
-Tasau.
-Bai, bai, tasau...
-Bat akabau edo eitten bajatzun, ba hor ermendadien eozen danen artien ha pagatzen otsuen. Enda zer balore euken ba hor izengo zan. Tasatzailliek izengo zien gizonen batzuk.
-Eta porejenplo txalgiñen behi bat akabau eitten da, ezta, eiñ ezindda. Ha narrue kendu eta aprobetxau eitten da. Behixek ba ez dauke enfermedadeik. Ez dot pentsetan behintzet daukenik, ez dau eukitten. Narrue kendu eta zatittu bakotxai toketan jakona. Ekarritta dauket neuk be holako okelia etxera. Hoixe izeten zan.
-Oin ba konjeladorie ta daukotzu, ezta, baiña orduen zezeiñia eitten zan.
-Siketu.
-Orduen gatza emuten jaten eta gero siketu.
-Eta ya esta.
-Eta hola konserbatzen zan.
-Orduan repartidu eitten zan okelia.
-Bai. Okelia ermandadiak partidu. Hori ikusitta daukat.
-Eta egoten zan basarriren bat ermandadetik kanpo edo?
-Egongo zan baten bat igual.
-Bai, egongo zan. Beti die, baten bat beti izaten da. Baiñe geu beti leku danetan izen ga.

2.69. Baserritarren osasun-asegurua

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/033
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:47:20. **Bukatu**: 00:48:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Aretxabaletako baserritar guztiek osasun-aseguru bat sortu zuten.

Transkripzioa
-Lehen medikutzarako be ez geuken geuretako seguroik ezelakoik be, ta bat asmau ein giñun zela-hala herrixen, Atxabaletan.
-Atxabaletako basarrittar danen artian.
-Danen artian. Eta ba, klaro, hori be zertu ein bihar da, ezta. Eta gero hori be kastau ein zan, gero seguridade soziala...
-Eta hori ze urte ingurutan asmau zenduen seguro hori?
-Hori ba ni etorri ta gero behintzat.
-Bai, neu be egon nintzen eta. Neu be egon nintzen eta. Batek badaki zela

ein euen holako kaskarkerixa bat.
-Cincuenta y tantos?
-Cincuenta y tantos? Gutxitxuao izengo da. Ni etorri nintzeniean ez euan hemen seguroik ezebe. Cuarenta y ocho años?
-Holako bat izengo da.
-Holakon bat.

2.70. Suaroa; etxe-erre batzea

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/034
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:48:25. **Bukatu**: 00:49:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Suaroa, baserriren bat erretzen zenean egoten zen asegurua. Etxe-erre batzea.

Transkripzioa
-Eta lehenago antzinan basarrin batek sua hartzen bazeban, egoten zan seguroren bat?
-Suaruak esaten jakon. Seguru bat Suarokua. Han be egongo zintzen ba seguramente.
-Bai, bai. Eta erre zan Ugastein ez dakit ze etxe eta, emuten jakon holako desgrazia euki [dabena ba] anea erdi gari edo, ezta. Asko emutia da anea erdi gari edo. Hori batu eitten zan. Paraje... ezaun-pide barruan, kontorno reduzidu baten iguel hori. Eta gero hasi zan jentie papela eiñ, eta ez dakit nunguek izengo zien, baiñe gero eskien-eskien, beti eskien, ezta, eta jentiek galdu eiñ euen zera...
-Konfiantzia.
-Eta gero kastau ein zien eta jarri zien honek seguro haundixok, hobeto pagau biher die baiña, seguro jatorrak die.
-Orduan jentiak tranpia?
-Bai, jentiak beliela. Uekue badao jentie beliela hasten da sartzen.
-Eta gero ba beti etxe-erre batzen, etxe-erre batzen beti. Orduen sarri etortzen zien etxe-erre batzeillak.
-Bai.

2.71. Arantzazuko fraideak

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/037
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:52:30. **Bukatu**: 00:55:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

- **Laburpena**: Arantzazuko fraideak eskean baserriz baserri.

Transkripzioa
-Eta bestela frailiak eta etortzen zien (eskian)?
-Bai. Frailiak Arantzazukuak etortzen zien...
-Txarri-hangak batzen eta.
-Zer batzen?
-Txarri-hankak batzen be bai. Babia batzen, garixa batzen. Eta urtien zer, horrek hiru bat bider bai behintzet.
-Urtien hiru bat bidar?
-Bai, bai. Hiru epokatan etorriko zien horrek. Gontzarrin frai Ramon. Ha, lo be han eitten eban jeneralmente. Kargie ba han ixten eban eta gero guk bajatzen giñuan Angiozarrera etxe batera, eurak amistadie eukenera, eta gero handik Arantzazura eurak erueten eben. Eske orduan Arantzazun badakitzu zenbat jente!, zenbat jente euen! Jaten eta jaten emuteko bakarrik.
-Mutil asko gainera.
-Bai. Eta Horrek urtian hiru bat bider bai.
-Eta txarri-hankak expresamente?
-Txarri-hankak be bai.
-Bueno, haik urdaiazpiko zati bat emun ezkero be igual fango zien, baiñe jeneralien sasoia txarri-hankak egotekua...
-Eta baba-denporan ba babia batzen euen, garixen denporan ba garixe. Enda horrei limosna onak emuten jaten, nik uste dot. Limosna onak, astokara garixa Gontzarrittik behin baiño sarrixao emun gontsan. Han batutakua karga galantakin ibilli be bai frailliak. Gero ipiñi euen hola Ama Birjiñatxo bat etxeik etxe, etxeik etxe ibiltten zan.
-Hori hemen be ezautu zendun?
-Bai. Enda gero hori be erretirau euen.
-Eta hori zeiñek, Arantzazuko frailliak?
-Arantzazukuak bai, Arantzazuko batzen ebanak. Horrek gari batziok-eta gastau zien eta gero ba hori Ama Birjiñioi ibiltten zan etxeik etxe.
-Eta hori nok ifiñi euen, Arantzazuko frailliok ifiñi euen?
-Bai ba. Baiña hori be ya erretirau euen. Oiñ Arantzazun haik bestela batuko daue horrek frailliok. Badauke euren merittue, euren merittue dauke. Haik horrek teillatu barrixak eta zerak ein zittuenien be, limosna moduen eskatzen eben teilla baten baloria. Ba uste dot obra dana eiñ eta sobrau jaten milloiek honen drogadiktuen eta zererako itxi zittuen.
-Dirue nunbaittetik [...]. Eta bueno, enplio ona emuten dutsie, droga, drogie apur bat zerketako.
-Eskola bat zabalketako, holako bat igual ipintten dabe, eta harako be dirua batu eitten daue horrek.

2.72. Eskolako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-012/008
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:14:40. **Bukatu**: 00:15:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolan zer ikasten zuten. Eskola nolakoa zen. Sei urterekin hasi eta bederatzi urte ingurura arte egon zen bertan.

Transkripzioa
- Beste zer ikasten zenduen eskolan, Historia edo, mapak edo, Geografia edo?
- Ba, nik eztakitt, zan halako liburu bat, danien liburu bat ibilli geben, besterik ez geben ibilli. Danetik euken liburuak.
- Kuadernorik eukitzen zenduen? Pizarratxo baten idazten zenduen?
- Bai pizarretan. Kuadernoik ez. Etxerako zerik-eta ez geben ibiltten.
- Jartzeko tokixak-eta, mahixak-eta zelakuak zien?
- Bankuek.
- Eta tinterorik eukitzen zeban?
- Bai, tinterue geu mantxetako lain be bai. Ha mantxetako behintzet ona izeten zan, eskribiduteko eztakitt, e.
- Orduan sei urte ingurukin hasi eta noiz arte egon ziñan eskolan?
- Zortzi-beratzi urte? Bai, beratzi bat urte.

2.73. Lixiba nola egiten zen; ehunezko arropak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-012/021
- **Iraupena**: 0:06:30. **Hasi**: 00:44:55. **Bukatu**: 00:51:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Lixiba nola egiten zuten. Astero egiten zena, "jabonadurie". Amandrea burdia hartu eta otzara handietan albergara joaten zen arropak garbitzera. Lixiba nola egiten zuten oso ondo azaltzen du. Ehunezko arropak. Beraien garaian, Bergarako tela-fabrikatik ekartzen zituzten tela-piezak.

Transkripzioa
- Erropia garbitzeko, lixibia eitteko, zela ibiltzen ziñaten?
- Guk jabonadurie esaten gutsen, astekue, asteko erropie eitten geuen etxien. Eta iñoiz zeozer baeuen, zurixa-edo gauza zeren batero, faten gitzen albergara, errekatxue euen lekura. Eta askotan..., oin zerak hartu daue albergia, urek eta hartu [...] han Urkulure bidien, errebuelta haundi bat handikaldetik dauen lekuen, hantxe dau albergia. Eta hola erropa asko geukenien eta urak etxien zertuta eozenien, mermauta eozenien, gutxittuta eozenien, burdixan hartuta faten zan haraxe. Gure amandrie, e, bera izeten zan; eta gure modukoren bat inguruan izeten euen, baiña gizonai burdixen eruen eraitten utsen otzara haundixetan, eta gero zerak, baldiek-eta zerok erueten zittuen ura beroketako eta zerketako. Hantxe. Egurre ifintten utsen gizonak ha txintxilizketako, baldie, beroketako, ure beroketako, eta hantxe jabonetan eben bertan; erropia bertan, albergie esaten gutsen, albergan. Ure beruen infintten eben, eta jabonau, eta gero

tiñia. Lehenao tiñaak izeten zien tximitxekin, zerakin, zumaakin egiñikuek izeten zien erropientzako; baiña gurien baldie ifinitta euen, bestelako baldie. Zertu, jabonau, eurek jakitten euen, zurixe zurixekin, eta kolorezkoik baeuen, kolorezkuek aparte. Zurixe zurixekin, gero han tiñioi, gero han jabonauta eta sartu, gero sutan ure berotu…
- Hori albergan?
- Bai, albergan, albergan. Egun guztia eitten eben, e. Gero askotan siketuta ekarten eben. Denpora ona igual, sasi-illerak eozen bide-ezkiñetan, eta zertu ahala, aklarau ahala, han botaten euen eta siketuta ekarten zittuen; hola arropa txikixak-eta siketuta ekarten zittuen handik.
- Jabonau eta tiñan sartzen zenduen?
- Bai, tiñan sartu eta hari ure bota biher izeten jako. Eraiñutza ifintten utsen gaiñien, eraiñutze eta sutako hautsa. Ifintten utsen, izera zer bat, usetan etzan izera bat ifintten utsen gain-gaiñien. Eta gero hori hautsoi eta eraiñutze, usaiñe emuteko.
- Hautsa zertarako, garbitzeko?
- Hautsek zera dauko, hola laban…, jaboie moduen–edo emuten dutsa hautsek. Ez dakit. Hautse eta eraiñutze. Eta botaten utsen gero ure. Hasten zien lelengo epeletik, tenplaua lelengo. Eta atzenien irekitteraiño botaten utsen. Lelengo tenplaue, gero apurtxo bat berotxuaue, gero berotxuaue… faten zien lau edo bost mailletan. Eta atzenien irekitteraiño botaten utsen ura.
- Hola egitten zien arropa haundixak?
- Izerak-eta. Izerak eta arropa zurixa.
- Eta gero aklarau nun?
- Bertan.
- Eta zelan esaten zotsazuen, erropia eskurridu-edo, bihurrittu-edo?
- Han, harrixan, harrixan.
- Eta hortarako zer bihar izaten zan, pare bat persona?
- Ez, ez.
- Bakarra nahikua?
- Bai, oingo moruen, zerien moruen ez utsen kentzen ura, baiña; gero zerera botata eguzkixek kentzen utsen.
- Eta eguzkixa zertarako, erropia zuritzeko?
- Sikeketako. Zuritzeko ez dakit. Sikeketako. Haxie baebillen, aguro sikeketan zan, baiña bestela kosta eitten zan. Gaiñera horrek arropa senduok, esaten dotsut, gurien arropa sendoik orduko, gure akordurako gutxi ebillen; batzun-batzuk geuken gordeta "como recuerdo", baiña ohietan (?) gutxi ebillen. Gero suertau zan, tia bat egon zan Bergaako tela-fabrika baten zerbitten, eta handik be asko jazten gitzen zegaz, erropaakin. Arropa azula ta zurixa eitten euen. Eta piezak ekarten zittuen handik.

2.74. Jai egunetako arropak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-013/001
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:20
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Jai egunetan janzten zuten arropa nolakoa izaten zen. Gizonezkoen arropak.

Transkripzioa
-Baiña beste bat barrixa eitten jakonian, e.
-Orduan jaiegunetako, mezetara joateko traje hori?
-Ha geldi; harakotxe jantzi, eta halaxe.
-Gizonezkuak zela jazten zien? Txalekua erabiltzen zeben?
-Txalekua? Neguen eta bai, baiña bestela nekez. Zerien brusie, astegunien. Astegunien, ba, guriei ez nutsen asko zertu. Aittai bapez, eta aittajaunei hola basora fateko-ta. Bestela brusie.
-Makillarik-eta erabiltzen zeben?
-Ez, ez.
-Basorako-edo?
-Ez. Ez basorako eta ez besterako harek.
-Eta Txapela?
-Txapela bai, txapela kendu barik. Aittak be bai. Txapela.
-Baiña galtzen joan zan ohittura hori. Lehenago ume-unetatik danak txapelakin?
-Klaro. Txapela.

2.75. Fraideen sermoiak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-013/004
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:05:20. **Bukatu**: 00:09:10
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Abadeen eta elizaren indarra gizartean. Fraideak etortzen ziren kanpotik sermoiak botatzera.

Transkripzioa
-Abadiei errespetu haundixa eukitzen jakuen?
-Bueno.
-Herri inguruan be bai, baiña baserrixetan gehixago?
-Gehixao. Abadiak esan ezkero, bueno!
-Eta sermoiak?
-Bai, baiña sermoiek emuten, e, berak emun zerok, zer esan-eta berak emun, eta gero etorrenak plasta-plasta esaten zittuen; klaro, eurak esaten utsen zer esan-eta.
-Zer etortzen zien, kanpotik?
-Arkarazotik-eta. […]. Ez naz akordetan, baiña urtietan Arantzazutik, Padre Alkain-edo ez dait ze esaten euen, ekarten euen; han San Antonio dau Azatzan, eta San Antonio egunian jaixa izeten zan, oin ia itxitta, San Antonio egunoi jaixa, bueno; egun bat izeten zan, baiña jai. Eta Arantzazutik ekarten euen fraillioi sermoia eittera; sermoioi holakua izengo zan, nik sekula ez neuen entzun.
-Zeuk ez zenduan hori ikusi?
-Ez. Eta aurreko…
-Aurrekue zan, aurrekue zan, baiña esanak entzunda.
-Eta zer ziren, sermoi gogorrak?
-Bai. Zertzuk esan eurok esaten utsen. Eurok ekixen zer esan, hak ez zekixen zer esan handik etorritta, baiña eurok esaten utsen zer esan; eta

gero ba askotan ez jaten gustetan, auzokuei ez jaten gustetan hori. Eta urtietan etorri zan, esaten euenez, eta urteen baten gehixa eskatu berak sermoioi eittiagatik, ez dakit zenbat kobretan ebela sermoia, eta gero Abadenien bazkaixe-ta. Eta gehixaa eskatu [...]. Eta gizona falta ei zan auzuan, han juntaan, eta ez eozela-eta, danak ez eozela, danak konforme ez eozela, eta ez eozela ainketako. Han egozenak esan ei utsen, hurrengoko zerien egongo zala, eta emungo utsela kontestaziñua. Hurrenaoko jaixen juntau die danok, eta falta zan gizonoi be bai. Falta zan gizonoi, jakingo euen zeozer, eta esan ei utsen: "Hemen, e –zela jakon izena, Kristobal edo, eta-, hemen sermoirako gehixaon eskabidie dao hemen, gehixao pagetako eskabidie dao hemen. Ze eingo ete jako, ainddu-edo?" "Lehen daon zereraiño ein deixela eta ixildu.., lehen pagetan jakon tamaiñuraiño ein deixela sermoioi, eta ixildu dai...", bestiorrek, eta orduan akabau ei zan zeroi.

2.76. Ohitura zaharrak; bederatziurrena

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-013/011
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:22:10. **Bukatu**: 00:22:45
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena**: Bederatziurrena; ondra-bazkaria. Ohitura zaharrak.

Transkripzioa
-Baten bat hiltzen zanian, ondra-jana eitten zan?
-Beratziurrena, beratziurrena.
-Entierruan ostian merixenda edo bazkaixa?
-Bazkaixe, bazkaixe. Bai, bai, bazkaixe. Horrek be kendu zien, bueno. Arratsaldien eitten hasi zienien ba, bazkaixoi kendu zan. Oiñ abare bategaz, eta kitto.

2.77. Hilarriak; ohitura zaharrak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-013/012
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:22:45. **Bukatu**: 00:24:40
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena**: Hilarrien inguruko azalpenak; ohitura zaharrak.

Transkripzioa
-Eta hillarrixak esaten dozu basarri edo familixa bakoitzak beria zeukala?
-Bai, bakotxak bere hillarrixak eozen.
-Eta kendu zien?
-Bai.
-Eta horrekin lotuta ohittura asko zeren. Baten bat hiltzen zanian hillarrixan

zeozer ipiñi bihar zan?
-Bai. Hori beti eoten zan ifinitta, kandelak, kandela bi egoten zien.
-Kandela bi?
-Bai, eta gero beste o(ho)ltxo bat...
-Nahiz eta hildakorik egon ez.
-Bai, bai. Haik beti, haik beti. Gero baten bat hiltten zanien, lazue ifintten jaten, lazo beltzak kandelei.
-Eta gero trapuren bat ipintzen zan?
-Trapue bai, trapue baltza ifintten zan azpixan. Gero zer bat, ohol bat; eta gero trapu zurixe barriro gaiñien oholera arrimauta. Hillarrixak zerak izeten zien, polittak izeten zien.
-Gero jaiegun guztietan hillarria joan bihar izaten zan?
-Bai, hillarrira.
-Zaintzera?
-Bai, zainttu bihar izeten zan, hala be oholien zera baeuen, hari emun bihar izeten jakon berriro [...].
-Zer zan?
-Hori mehioi.
-Argizaiola?
-Bai. Hantxe dao. Halakotxie, halakotxie. Halakotxie, holako egurtxo bat izeten zan, hankaakin, aldebixetatik eukitten zittuen hankaak oholak, eta han batzen zan hori, eta gero [...].

2.78. Manta beltza; hilarriak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-013/014
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:26:45. **Bukatu**: 00:27:25
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Manta beltza nolakoa izaten zen. Zapi zuria.

Transkripzioa
-Eta mantia edo trapu baltza zer izaten zan, puntilladuna?
-Ez, liso-lisua. Hola estanbre..., pañuzko zer bat.
-Uste dot lehenguan esan zenduala; hori plantxadorian lana izaten zan?
-Bai, bai. Zurixe plantxetan zan; ha baltza han egoten zan, sueluen botaten zan; haren gaiñien zurixa.
-Eta zuri hori eruaten zan platxandoriarengana.
-Bai.

2.79. Soroen bedeinkapena

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-013/018
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:28:35. **Bukatu**: 00:30:20
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena**: Udaberrian, soroen bedeinkapena egiten zen; arrautzak ematen zitzaizkion orduan abadeari.

Transkripzioa
-Abadiak, eztakitt ze hilabetetan, soruak-eta bedeinkau egitten zittuen, ez?
-Ba, bai. Arrautzak batzen zittuen.
-Eta hori noiz izaten zan?
-Hori urebarrixen, urebarrixen. Ointxe Garizumie pasau ta laster.
-Orduan be zeozer emuten jakuen?
-Arrautzak. Bai. Ba dozenan bat arrautza bakotxak, eta arrautza pillue, saltzeko.
-Eta saldu eitten zittuen?
-Klaro! Zetako zittuen ba? Hau bakarrik bizi zan, eta zetako zittuen ba?
-Baiña bera etzan joango saltzera?
-Baa; dendaan batera eruango zittuan. Klaro. Bai, bai. Arrautza pillue batzen euen.
-Eta monagilluakin ibiltzen zan basarriz basarri?
-Monagilluakin ibiltzen zan, bai, monagilluakin. Monagilluak zestua eruen; berak ez, e.
-Eta orduan, gaiñera, basarrixetan arrautzak ez zien egongo sobra.
-Bai, ointxe Urebarrixen ezik. Uraatzenien bazan, ezin hainbeste, baiña oiñ urabarrixen ba oilluek be ointxe eitteittue gehixen arrautzak-eta, ugarixen ointxe. Baiña abarie izen ezkero emun, nahiz etxien falta. Bai. Etxien igual janordue eitteko tomatiei bi bota ta nahastu eta haregaz iguel baiña, bakotxandako bana ifiñi [...] baiña, abadie izen ezkero, holaxe.

2.80. Parterak; medikuak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-013/019
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:30:20. **Bukatu**: 00:32:00
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- **Laburpena**: Medikuei errespetu handia izaten zitzaien. Partera lana auzoko emakumeek egiten zuten.

Transkripzioa
-Medikuei be halako errespetua eukitzen jakuen?
-Bai. Medikuei be ba bai. Medikuei be jarraiketan jakon.
-Eta medikuei be berorika eitten jakuen?
-Bai, bai. Medikuei be bai.
-Hemen bertan ez zenduen eukiko medikurik. Nundik etortzen zan?
-Atxabaletatik.
-Bidiak be ez zien izango oinguak. Zela ibiltzen zan, zaldixan ala oiñez?
-Ez dakit. Ez naz akordetan kamiñuak ein aurretik. Bai, gero motor zer bategaz, eta gero atzenerako kotxia euken, baiña. Ez dakit, ez dakit zela.

Nik entzunda neuken astuen ekarri euela medikua... Ez dakit, neuk garbi esateko, ez dakit.
-Medikua. Eta parterarik bazeuan, umiak ekartzeko orduen-eta baserrixetan?
-Baserrixetan, aldameneko, ibiltten zan zeren bat, andraan bat.
-Puxka bat bazekixena?
-Bai; bai. Gure ama be leku askotara faten zan hola. Hola geixoik euen beziñue-ta, puntuen behin faten zan. Bazkaixek eitten-eta, bueno. Bazkaixek-eta, afaixe-eta.

2.81. Doktrinaren garrantzia

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-013/026
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:41:55. **Bukatu**: 00:43:35
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Doktrina amandrearekin ikasi zuten. Doktrina ongi ikastearen garrantzia.

Transkripzioa
-Abadiakin dotriñia ikasten zenduen?
-Bai, amandriagaz dotriñia.
-Amandriakin?
-Guk behintzet bai. Harek ekixen "Nor da jaungoikua?", beste pregunteik ez, haxe bakarrik.
-Eta amandriak erakusten zotsuen?
-Klaro, oraziñuek. Oraziñuek amandriek. Txiki-txikittatik hartuta.
-Zuek abadiagana joan orduko bazekizuen dana.
-Bai, bai. Hak erakusten euena baiño gehixao hara faten zienak. Eta gero horrek zer horrek bai, oin esan dodan horrek bai, Koruetako horrek, horrek dotriñie eskolan.
-Dotriñia inportantia zan, ezta?
-Bueno! Gero Atxabaletan, neu aparte ez nintzen baiña, hor zera dana ez baekixen, hor ez euen "primera comunionik" eta ezer. Puff. Eozen hiru. Bat ez zan faten, baiña bi anai, buenoo!
-Orduan dotriñia ondo jakin ezkero jaunartzia eitten zenduan, baiña bestela...
-Ez, ez. Dotriñia ikasi bihar zan dana, e, hor zera eitteko.

2.82. Jaunartze-eguna

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-013/027
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:43:35. **Bukatu**: 00:45:00
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- **Laburpena**: Jaunartze-egunean ez zen ospakizun handirik egiten; berak astegun batean egin zuen.

Transkripzioa
-Komunio bakarra, ala txikixa eta haundixa?
-Ez, ez, txikixe; hor ez zan eitten [...]. Gaiñera astegun baten ein be. Astegun baten, ez famelixako... gurien amandria izen zan baiña; eta beste leku batzuetatik ez dakit bape, ez dakit iñor, ez naz akordetan.
-Orduan ez jakon bape inportantziarik emon?
-Ez. Ez fotografixarik eta ezebez. Ni neuri akordaten nazena da arropa guztiak barrixak ein ustela gure amak. Dana barrixa, zapata-ta ta [...] dana. Baiña nigaz ein euenak ez dakit iñor egongo zien hola barrixa einddakuak. Maiatzan hamarrien...
-Akordatzen zara?
-Bai, akordetan naz, hoixe bai. Zelako erropak ein usten be bai, eta zer danak. Bueno!, "pe a pa".
-Eta ze arropa?
-Krespoizko soiñokotxo bat, behia plisaua eta zera, akordetan naz, eta gero udeko abrigotxo bat.

2.83. Aita, euskalzale eta abertzalea

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/010
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:10:50. **Bukatu**: 00:11:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Aitaren inguruko zenbait azalpen ematen ditu; euskalzalea eta abertzalea zen. Eskolara joandakoa zen, baina bere kabuz ere asko ikasi omen zuen. "Escuelas de Viteri".

Transkripzioa
- Orduan aitta euskaltzalia...
- Haundixa, eta gaiñera oso abertzalia gaiñera, oso abertzalia zan!
- Eta esan dozu idazle ezagun batzuk, e, ezautu zittuala, ez? Eurekin tratua zekan, e, eztakit (ez takit/dakit?)...?
- Bai, bai, bai.
- Kartak eskribitzen zian, edo...?
- Kartak eztakit, baiña eurakin egondakua eta... holan zan. Bai ...
- Bestela, aittak eskolia, zer? Hemen, e, Herri Eskolara juandakua edo...
- Baiña asko euken ikesitta, e...
- Berak, bere...
- Bai, bai, bai, bai, bai, pentseizu ekribidu itten eben periodikuan eta... Bai, orduen ez eozen oingo konturik, holan estudixetako eta, hemen be eskolak eta, Escuelas de Viteri!; hemenguak zien, nik [pentsetan]... Gipuzkua guztien egon zien horreik herrixetan, e, Escuelas de Viteri; eztakit Viteri

zein zan, baiña Arrasaten, Eskoriatzan, ta, bueno, leku guztietan Escuelas de Viteri izen zien; eta eztakit oin, hori, Viteri, zein izan zan, baiña, igual bere diruak itxitta eskolak eitteko edo...

2.84. "Escuelas de Viteri"

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/011
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:11:55. **Bukatu**: 00:12:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskola kontuak; "Escuelas de Viteri".

Transkripzioa
- Eta gu juaten gitzenien, hemen, neskatillak gitzela, Escuelas de Viteri zan, oin eskolak dauzen lekuen, plaza onduen, hantxe ber-bertan Escuela de Viteri, bai.
- Zu eskolara, bertara, zenbat urte ingurukin edo?
- Ba, ni juango nitzen , -orduan 4 urtekin juaten zien umiak eskolara-, geu be juango gitzen 4 urtekin pentseten dot, orduan ez euen txikiñaurik eta guarderixaik eta holako gauzaik ezebez, eta 4 urtekin joango gitzen, bai.

2.85. Gizartean eman diren aldaketak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/027
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:39:30. **Bukatu**: 00:41:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- **Laburpena**: Aretxabaletako botikaria; medikuak. Gizartea asko aldatu da; lehenago herritar guztiak etxe-etxekoak ziren. Norbait oso gaixorik bazegoen, abadea elizakoak eramatera joaten zen; ohitura zaharrak.

Transkripzioa
- Botikarixua?
- Ene, botikarixuaa! Auen panaderixia elixa aurrekua, ezkerretara dauen etxia, baiña orduen etzan holakua; botikarixo bat auen. Eta han ba, esaten auen amak, igual ba kalenturie-ero guk txikittan, ezta, eta "Agua de Vich" esaten auela medikuek-eta, ur bat, ura. Eta medikuek-eta, holan gripie-ero, amak-ero, deittu eta joan bai, eta egunien hiru bidar, eta jarri eta hantxe egon, ez aukien lanik, eta desietan etxietan relazionateko; eta etxe guztietan zien medikuek etxe-etxekuek. Eta norbaitt hil zanien, neskatilletako kontuek, baten bat hil bai, eta herri guztie hara etxera, eta

gu neskatilla-mutikuek kuadrillie formau eta danak etxera, eta hilddakue ikusten gauen, eta danak kalera. Eta gurozu kontau hil aurretik zelako zeremonixie eitten zan?
- Kontau.
- Kanpaiek joten zien kanpantorrien, eta igarten zan, kanpaiak zien zer diferentiek, soiñu diferentiek: elixakuak.
- Hil-kanpaia?
- Oiñ esaten daue ba "Los últimos sacramentos", eta ekarten daue periodikuek-eta. Ba igual atsaldeko lauretan kanpaiak Nor ete dau gaizki? Ba fulana. Jende dana jakin eitten zan, e, nor auen gaixorik. Etxen baten, baten batek agiñeko miñe baeuken be, igual izen leike hemengue, Kalebarrenekuek baekigun. Dana zan famelixa bat moruen-eta.
- Kanpaiak bazeukan izenik?
- Eta kanpai horrek esan gure euen elixakuek, gure jauna, eukaristia, erueten doiazela hara etxera. Bueno, etxie etzan nonbretan, baiña zelan jentiek jakitten auen, danak elixara faten gitzen. Ni ez, e, gure ama-ta. Eta danak kandelekin atzetik, abadie gure jaunakin eta monagilluek juaten zien aldamenien, gure jaunakin albie-ta jantzitta. Eta monagilluek be bai.

2.86. Hileta-elizkizunak; San Joseren kofradia

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/033
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:47:30. **Bukatu**: 00:50:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena**: Abadea, gaixoaren etxera joaten zen elizakoak ematera; ohitura zaharrak. Klase desberdinetako hileta-elizkizunak egoten zirela gogoratzen du. Hil-kanpaiak. Aita San Jose kofradiako lehendakaria izan zen garai batean.

Transkripzioa
- Lehen gaiñera hasi zara, hori ez? pertsonengati, gure jauna...
- Izeten zan oso zera, e, kandelakin juaten gitzen. Ni ez, gu txikiñak gitzelako, baiña ama eta danak kandelakin, eta abadie gure jaunakin, ia mezie emuteko erropak eta jantzitta, e, kale [...], eta monagillue aldamenien eta kanpanillie joten auen, klan!, klan! Eta igual kalien baten batzuk dauzela pasaten bazan edo, belauniko danak, e? Bai, danak belauniko.
- Eta gero zer izaten zan? Gaixuan etxera joan?
- Bai. Eta han ba gure jauna emun eta horrek gauzok. Eta gero hiltten bazien, hiltten zien, orduen euzen kategorixak entierruenak. Bai. Gehixau pagetan euenak hiru abadekin. Eta kanposantura erueten zan bixkar gaiñien hartuta hilddakua. Eta haik abadiak faten zien, asko pagetan auenai, asko edo, asko izengo zan orduen, kanposanturaiño faten zien kapakin-ta hiru abadiek eta. Holan normal hiltten zienak, e, holan ez auenak emuten ez eukelako, ba abade bat. Eta gero kanpaietan be igerten zan, hilddako kanpaietan'e bai, primerako entierrue zan edo ez zan.

Primerakue esaten zan. Eta holan draam!, eta, primerakue zan, kliin! Gero txiki bat, draam!, kliin! Ha zan primerako entierrue ein biher zala. Eta ni horrekin akordetan naz, hareikin entierruekin eta.
- Eta gero zer zegoen, segundakuak?
- Eta gero segunda eta tercera.
- Terzerakuak ezagutu zenduzen?
- Bai.
- Ta ze izaten zian?
- Ba abade bat eta igual organo barik edo. Ez naz akordetan detailliekin, e. Baiña bigarrena..., segunda eta tercera. Gure aitta izan zan presidentia San Jose kofradixako zera izen zan, eta gu danok terceran gengozen. Eta aittai esan notsaten ni segundan ifintteko. Nik gura nauela kanpai kanpai txikitxuak entzutia ta hola. "Zuk ez dozu entzungo baiña..." [...]. Eta nik aittai esaten nutsan, "nik gura dot /gurot/ zerakin, e, kanpai txikitxuonak", eta "Bai, baiña zelan kanpai txikitxuokin? Danok ein bihar dou /bihou/ hola?". "A, baiña ni naz kongregaziñoku, zereku, kofradixakua, bai? [...] Ni naiz kofradixakua, eta zuk ez dozu pentsau biher alabie naizenik, ni kofrade bat nazela, eta niri ifini primeria". Eta ifini nosten aittak primeria niri. "Nik gura dot kanpai txikitxuokin-eta, abadiek kapakin fan daittezela atzetik eta, horrek gauzok". Eta ni primeran nenguen etxien.
- Bakarra?
- Bakarra. Eta gero aitak, ez dadin egon distintziñoik, segundara pasau zien bestiak. Beste danak, aitta eta ama eta honeik danok segundan eta ni primeran. Ta esaten nutsen, "nik errespetau", eta "bai, bai, errespetauko zaut", eta errespetauko auen aittak hil banitzen orduen. Niri gustau itten jaten horreik kanpai txikitxuok-eta. Fantasia.

2.87. Aretxabaletako kofradiak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/034
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:50:50. **Bukatu**: 00:51:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Garai batean bi kofradia egon ziren: San Joserena eta San Martingoa. Gerora elkartu egin ziren eta oraindik ere jarraitzen du.

Transkripzioa
- Eta San Jose Kofradixia zer zan?
- Horrek die, oin be badaz; orduen euzen San Jose eta San Martin. Kofradixa bi. Bakotxak euken bere juntak, aparte, kontuek eta danak. Eta gero batu ein zien, bixak bat ein zien, eta gaur jarraiketan dau horretxek kofradixiorrek, eta urtien pagetan da ez dakit zenbat kuotia, eta gero hiltten danien etxekua, ba debalde dau zera, entierrua.
- Eta esaten dozu jarraitzen dabela?
- Bai, bai, jarraiketan dau. Eta honek erdeldunok-eta danok, e. Ez da asko izeten. "Oye, que vamos a pagar poco, así!" esango daue, ez dakitzu? "Que vamos a pagar poco, ala!". Erdeldunak eta danok daoz sartuta kofradixan.
- Eta aitta presidente?

- Bai, gure aitta presidentie zan. San Josena. San Martiñena besten bat. Baiña oin bixak bat ein zien eta oin bat dau, junta bat bakarrik.

2.88. Hil-kanpaiak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/035
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:51:55. **Bukatu**: 00:53:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- **Laburpena**: Hil-kanpaien inguruko azalpenak ematen ditu.

Transkripzioa
- Esan dozu kanpaiak eta desberdintzen ziala ta jakiten zenduela primerakua izan biher zan, edo...
- Bai. Eta oin be, oin be hiltten danien, hemendik ez die entzuten ia kanpaiak, baiña joten dauen akaberan, andriena edo gizonena dan, bere senalliakin, e.
- Oinddiokan be? Eta ze izaten da, ze...?
- Ba, dan!, dan!, dan! Apurtxo bat hoixe, dan!, dan!, dan! Hiru edo, ezta hola? Baiña luze horrek, e. Eta gero akabera-akaberan, ez naz akordetan dien bat gizonena o bi andrienak. Baiña esan ostien lehengo egunien, oinddiokan denpora gutxi dala, egun be joten dauela; ez da entzuten hemendik eta.
- Orduen bai, ez? Jakitzen zenduen kanpaiak entzun ta emakumia edo gizona, primerakua edo segundakua?
- Bai, nor hil dan, emakumie edo gizonezkue dan.
- Basarrittarrren kasuan, ez dakit, baten bat hiltzen zanian, ze ekartzen zeben? Ez dakit...
- Bueno, orduen basarrixetan, auzo guztietan abadie ekazen. Abadie ekazen auzo guztietan.
- Eta hemen ingurukuak (baserritarrak) ez zian hona etortzen?
- Ez, ez, ez.

2.89. Elizaren indarra gizartean; jaunartzea

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/038
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:57:05. **Bukatu**: 00:59:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- **Laburpena**: Doktrina non ikasi zuen kontatzen du; dena erdaraz. Jaunartzearen inguruko azalpenak. Pazkoako txartela. Elizaren indarra herrian.

Transkripzioa
- Baraurik joan behar izaten zenuten (elizara)?
- Bai. Hori zan penitentzian moduan Garizuman.
- Dotriñia non ikasten zenduen, eskolan bertan ala abadiak erakusten zotsuen?
- Eskolan "preguntas y respuestas". Niri, "Eres cristiano?", "Sí, soy cristiano por la gracia de Dios". Hurrengo preguntie nik bestiei. Eta bestiek erantzuna. Eskolan holan, eta parrokixan be holan, baiña dana erderaz. Nik horrek salbiek eta kreduek-eta etxien ikesi neuen euskeraz.
- Eta dana jarraixan?
- Bai, bai. Ze esaten geuen be ez zekigun. Baiña… hala!
- Eta jaunartzia zenbat urtekin?
- Jaunartzia eitten zan zazpi urtekin. Eta orduen juaten zan soiñekuekin, hola motzakin eta holan. Eta gero "comunión solemne", hamabi urtekin-edo; eta orduen zuririk.
- Dotore.
- Bai.
- Hortarako zer izeten zan? Soiñoko barrixa? Modistiak egindakua?
- Modistiek ez, amak. Amak eindda. Etxe guztietan bakotxak bere amak. Orduen danak ekixien horrek gauzok eitten-eta.
-Mutillak zela joaten zien, fraka laburrak?
-Marineruekin, e, mutikuek faten zien orduen be. Gurien dauz gure Iñaki-ta Paulenak-eta, marineruekin. Eta amak esaten auen berak jositta auzela.
-Eta jaunartzeko, dotriñia ondo jakin bihar zan, ezta?
-Oso ondo.
- Ez zekixenak ezin zeban egin?
-Komuniue eindda gero, Pazkuek aillegetan zienien, mundu guztia juan bihe zan komulgetan, eta txartelak emuten auen, etxietara bialketan auen txartelak; ez, txartelak eskaketan sankristixira juan bihe zan, eta txartela emun aurretik abadiek dotriñie preguntetan auen. Eta ez zakixenai ez utsien emuten, ezin eikien komulgau. Diktadura haundixa auen elixan, haundixa!
-Eta txartelan billa nor joan bihar zan, umiak, eta jente nausixa be bai?
-Danak. Eta bezperak egoten zien domeka atsaldetan, eta bezpera ostien sankristixara, Garizuman izeten zan hori Pazkuetan komulgetako. Eta komulgetan gintzenien, txartela han bandeja baten itxi bihe zan, ikusi daixen abadiek komulgau dala "fulana de tal". Diktadura haundixa. Hori diktadurioi oin dala denpora gutxi arte egon da elixan, e. Ointxe dago askatasuna zorionez, e, eta oin goguak emuten dutsana doia, eta ez doiena ez, eta kitto. Baiña kosta da hori konsegirutia. Elixia beti izen da oso diktadura haundikua.

2.90. Garizumako sermoiak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/039
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:59:50. **Bukatu**: 01:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Garizuman sermoiak egiten zituzten; elizaren indarra gizartean. Arantzazutik etortzen ziren fraideak eta ongietorria egitera joaten ziren gazteak.

Transkripzioa
- Esan dozu garizuma. Zeure akorduan etortzen zian Arantzazuko frailliak-edo?
- Eneee! Bai. Bai. Urtero-urtero garizuman sermoiek eitten zien. Aste baten neskantzako, beste aste baten mutillentzako, eta gero gurasuentzako, eta gerora-gerora neskak eta mutillak eztakitt behin be ein geuen junto, e, eztakitt. Eta gero konfesetan danok holakotxe illeratzarrak ejerziziuek eitten zienien; ni Illargixenera fanda nau, kolia, zortzirak baino lehen, bostetarako-eta baserrixetako jentie etorritta kolan ifinitta konfesetako. Honeik egixak die.
- Goizeko bostetan?
- Ba seiretarako. Horreik egixak die, basarrixetako jentie-eta etorritta. Eta, klaro, auen kolia, eta zortzirak aillegau eta onddiokan kolia, eta ni konfesau barik, eta berandu aillegau lanera. Esan enkargauai, eta enkargauai ondo pentsetan jakon. Ba konfesetako ba, ya está. Ba galdu bihe diela orduak. Elixiek izen dau diktadurie inpresionantezko haundixa. Extremo batetik beste extremora pasau gare, erdi maillakorik ezta egon.
- Sermoiak zelakuak izaten zian, gogorrak?
- Bai, bai. Oso gogorrak, e.
- Entzunda daukat, andrak negarrez-eta…
- Bai, bai. Oso gogorrak egoten zien. Auzen frailliek Arantzazutik etorten zienak, Santutxura faten gitzen, pentsaizu, ointxe nabil akordetan, Santutxure faten gitzen herri guztie harei ongietorrixa eitten. Eta handik elixara danak "Amante Jesus mío" ta kantuen. Pentsaizu zelan…, horrek gauzok esan leike ba gure amandriek-ero kontau bihar euela, ezta? Ez, ez. Geuk ezautu dou. Eta elixan, alde baten andrak eta bestaldien gizonak. Mejor dicho, aurreko bankuetan gizonak, eta koruen be gizonak, eta gero sillak atzien, han andrak, aparte danok. Hori eskolan be bai. Neskatillak neskatillakin eta mutikuek mutikuekin, han nahastuta, guk eskolie ez geuen ezautu.

2.91. Erlijioarekin zerikusia duten gaiak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/001
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena**: Letania zaharrak; otoitzak, arrosarioak.

Transkripzioa
- […] aurrien belauniko ifintten gitzen krielisonak esateko. Krielison kristelison ta… oin euskeraz esaten die, ba… Klaro, oin ya ez da itten hori, baiña…

- Eta zelan esaten dozu?
- Die... ba, krielisonak. Zu akordetan zara, Duni? Ez. Ke, ba. Otoitz... Loiola irratiek eta Arrate irratiek eta egunero-egunero errezetan dau. Bai, erresarixue ta gero horreik letaniok. Letania, ba... “Ama Birjiña” ta “Zeruko argia” ta “Zeruko ez dakit zer” ta... “Ama guztiz garbia” ta “Ora pro nobis, ora pro nobis, ora pro nobis” denpora guztien.
- Eta horrek euskeraz?
- Hori? Euskeraz! Bueno...!
- Aittakin?
- Bai, euskeraz. Baiña gurian moduen etxe guztietan eitten zan hori. Bueno, guk ezauketan geuen etxietan, behintzat, bai.

2.92. Gabonak; jaiotzak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/002
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:00:50. **Bukatu**: 00:01:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena**: Gabon gaueko afaria nolakoa izaten zen kontatzen du; zer jaten zuten: azak, bakailaoa, konpota eta turroia. Jaiotzak ipintzeko ohitura; Marianistetan egiten zuten jaiotza gogoratzen du.

Transkripzioa
-Eta afaixa Gabonetakua izeten zan azak, bakaillaua, konpotia eta turroia. Ta gaurko egunien gure etxien holaxe eitten dou Gabon-gabekua; hemen kuadrillia juntaten gare. Eta lobak be esaten dau, Julen ezautuko dozu, ez aldaketako hori afaixoi, e! Beste etxe batzutan be eitten da lengo ohitturie jarraittu. Gero hurrengoko egunien eta, Natibittitate egunien eta orduan ez, orduan ba beti, ezta?, baiña afaldu holaxe. Ointxe be guk hola eitten dou.
-Gabonetan-eta nazimientuak ipintzen zien etxietan?
-Bai. Ifintten zien. Baiña Marienistetakua zan inportantiena. Baiña ifintten zien.
-Marienistetakua, zer?
-Ba hola ikera-ta eitten auen eta, pentsaizu, holako gauzaik gaur ba!, baiña...

2.93. Gabon-kantak; Santa Ageda

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/006
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:04:00. **Bukatu**: 00:06:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

- **Laburpena**: Gabon kantak. Santa Ageda Egunean mutilak diru-eskean irteten ziren; ohitura zaharrak. Santa Ageda Eguna, oso egun garrantzitsua izaten zen; gerraostean ere jendea lantokietatik irteten zen aurreskuak nola dantzatzen zituzten ikustera.

Transkripzioa
- Eta akordatzen jatzu billanzikoren bat edo?
- "Hatozte kristauak bihotza,
hatozte guztiok Belenera.
Jaio dan Jesus adoratzera..."
edo holakua da kantua.
"Oi Belenen, lara-lara", eta horreik danok. Eta "Hator, hator mutill" hori, bueno, betik.
- Bizi guztian?
- Bai.
- Gabon aurretik eta eskian irteten ziñazien? Ez dakit, Santa Ageda eta?
- Orduen Gabon gabien eta ez zan urteten gabien afalostien eta, e. Eta Santa Agedan mutillak portale guztietan kanteten auen. Eta oiñ "ne!-ne-ne!", holakotxiak-eta eitten. Nik dirurik be ez dutset emuten. "Lo-lololo-lo" ta holan. Bapez!, "kantau biha dan moduen eta orduen emungo dotsuet", esaten dotset. Portale guztietan, eta hilddakon bat egoten bazan orduan urtien, errezau eitten auen portalien.
- Eta zelan joaten zien jantzitta?
- Fraka zurixekin eta dotore. Bai, bai. Eta aurreskue ta dotore kanteten auen. Aurreskue-ta gerraostien gerora hasi zien ikesten aurreskuak eta eitten, bai, eta elegante aurreskuak eta danak kanteten auen. Oin berriz erdi soplauta joaten die askotan eta. Bueltie eitten daunien han ibioltten die baiben baten eta.
- Orduan Santa Ageda...
- Bai, bai. Egun haundixe izeten zan Santa Agedakua. Haundixa. Ni ezautute nau Illargixen ni lanien nabillela, bostetan edo urten eitten zan danok aurreskura joateko. Oseake ez da ni txikitxue nintzeneko kontuek be, e! Klaro, nik urtiak aurrera doiat, e. Baiña lanai ixten zan lanai eta Beroanian eta Zubienian eta urten eitten zan aurreskorako jentiak. Eta plazia bete-bete eitten zan.

2.94. San Juanak Aretxabaletan

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/007
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 00:06:15. **Bukatu**: 00:10:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena**: San Juanak Aretxabaletan; "txopua"ren ohitura nolakoa zen azaltzen du. Urteko kintoak joan behar izaten ziren gauez baserriren batera "txopua" ezkutuan hartzera; ondoren plazan ipini eta puntan aza bat jartzen zitzaion. San Juan sua; kanta zaharra.

Transkripzioa

- Eta San Juan bizperie be izeten zan oso inportantia, oso inportantia. Eta oin ekarten daue egunez-eta txopua-ta, ezta. Baiña han zan merittua basarri baten hartzia txopua eurak enterau barik, eta kalera ekarri basarrittarrak jakin barik.
- Ohitturia zein izaten zan orduan?
- Txopua ifinttia. Baiña oin be bai, e, oin be badau. Hori badao. Baiña oiñ egunez-eta ekarten daue. Baiña orduen gabien. Aurretik baekixien nun, nora joan bihar zien-eta.
- Eta zer izaten zan, txopua hartu eta ezkutuan basarrittarrak enterau barik...
- Bai. Baiña baekixien danak, e, eurena ez bazan aldamenekuen basarrikua izango dala, baiña txopua hartuko dauela.
- Baiña gero ze eitten zan horrekin?
- Ifiñi itten da txopua plaza erdi-erdixen.
- Eta zeintzuk joaten zian bila?
- Kinttuak.
- Plaza erdi-erdixan ipini eta zeoze eitten zan horrekin?
- Ez dakit zenbat denpora egoten zan ifinitta. Aza bat punta-puntan, eta aurten ifintten baauen altu, ba hurrengoreko urteko kinttuek altuua. Eta holan. Eta ifintten zan azia, oin ikurriña ta ifintten daue baiña azia.
-E ta gero suak-eta eingo zien, ez?
- Bai, San Juan bizperan bai. Eta kanteten auen herri guztiak San Juanen kantua. Eta nik [Barandiri?] esan nutsan oin urte bi dala edo. Zu, holan zuek kantetan dozuen moduen kontziertuetan eta holako dotore... Gaiñera ezta kantetakua holako dotore han plazan, ezta. Baiña papelak emon eta ensaiu bat ein-eta aurrerauko egunian, eta herri guztiak kantau daixela, lehenau kantetan zan moruen. "Bai, baiña, hori ensaiau ta..." "Ze, ensaiau barik" esaten dotsat. Danok junto ifini eta lehengo jentiek kantetan dou oin be. Baiña zenbat gare ba kanteten egoten garenak!
- Eta orduan jentiak ikasteko, zela dan kantua?
- Gura dozu /gurozu/ kantetia? Baiña hau ez grabau, e. "Igaz ere Sain Juan, Sain Juan zan eta/ aurten ere Sain Juan Bautista" Hori urtero kantetan dou. Aurten be daleketepego han egongo gare. "Igaz ere Sain Juan, Sain Juan zan eta/ aurten ere Sain Juan Bautista/ Jesukristoren lehengusua zan Sain Juan-Sain Juan Bautista/ Hau da egia dana guztia konsolatutzeko Euskal Herria. Hau da egia dana guztia konsolatutzeko Euskal Herria". Eta gero: "Ibai guztiak agortu dira/ arrai gaxoak egarri/ Datorren urtian mutikotxuak nun egingo dute igeri. Hau da egia dana guztia konsolatutzeko Euskal Herria."
- Ze politta!
- Bai. Eta lehenauko jentiok juntau eitten gare, baiña hori ein bihar litzake gaztiak, zuek gaztiok eta danok kantau.
- Eta orduan ohitturia izaten zan danok batera hori kantau.
- Bai, herri guztiak ekixen hori kantuoi. Eta oin be orduantxe geraketan garenok dakigu.
- Gero salturik eta eitten zan, mutillak eta?
- Bai, gero saltuak. Eta oin saltuek, klaro... Orduen baten bat erreten bazan ezebe ez zan pasauko baiñe gaurko egunien hori pasauko balitzake ba batien juiziuak eta batien hau ta bestia. Eta oin ifintten da zerkauta eta erdixen itten da sua, aldamenien [protekziñue ta], handik barrura iñor ez daila pasau. Eta gero ya gastetan doiala suoi, ba orduen atrebiduten dienak ba salto eitten daue.

2.95. Bedeinkazioak; ohitura zaharrak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/009
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:13:10. **Bukatu**: 00:14:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Trumoia zegoenean, kanpaiak jotzen ziren. Abadea baserriz baserri joaten zen soroak bedeinkatzera. Bedeinkatutako kandelak; hildakoren bat zegoenean, haren etxera kandela bedeinkatua eramaten zen.

Transkripzioa
-Eta holan hodeixe ero derrepentian zertzen zanien, kandelak edo, kanpaiak joten zien, eta abadia baserrixetako soluetara joaten zan, konjurua. Ez dakit zer esan dauen horrek berbiorrek. Eta bedeinkaketan ur bedeinkatuakin eta ibiltten zan hango garixak-eta eztaittezen estropiau eta horrek gauzok. Hodeixe eiñ ezkero ba estropiauko zien baiña hareik be aurrekuen kostunbriak.
-Eta kanpaiak ze jotzen zien?
-Kanpaiak joten euen hodeixa atorrenien. Eta etxe guztietan egoten zien kandelak bedeinkatutakuak. Eta bedeinkaketen zien marzuan edo, Amabirjiñia elixara sartu zaneko ebangelixuetan edo. Ez dakitzu? ba nik. Jesus haurra jaixo eta eleixara sartu zanien amabirjiñie. Eta orduen euen kostunbria kandelakin andra guztiak juateko elixara. Geu be juaten gintzen, desietan kandeliaz juateko. Han ixotu ta, eztakizu? Pena bat itxungitteko! Eta horrek kandela bedeinkatuok izeten zien, etxien eukitten zien, eta hodeixek eta atozenien ixotu eitten zien etxe guztietan horrek kandelok. Ez daixen kalteik ein soluetan eta horrek gauzok eitteko kandela bedeinkatuak ixoketen zien. Ointxe akordetan nabil, eta norbaitt hiltten zanien be, haren etxera kandelak erueten zien. Ez dakitt ze kostunbreagaittik, zegatik izengo zien.

2.96. Luto kontuak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/018
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:21:45. **Bukatu**: 00:23:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena**: Luto kontuak nolakoak izaten ziren; umeak ere beltzez jantzita joaten ziren. Mezara joateko mantila eraman behar izaten zen; misalak.

Transkripzioa
-Eta norbaitt hiltzen zanian etxien danak baltzik.
-Luto kontuak.
-Eta umiak bazien be geratu zienak umiek baeozen be baltzik danak. Eta gure aitta hil zanien, ba holako abrigo bat ein nauen nik, ["de espiga" edo? grisa eta baltza. Eta mantillia be zerrau-zerraua baltz bat. Eta amak ez zoskun itxi holako mantillia... Pentsaizu gure ama bazan tradizional, baiña horrek mantilla baltzokin eta ez. Orduen danak mantillakin elixara. Zuek ez dozue ezautu be ein holako gauzaik. Mantilliakin. Astegunetan bat eta domekatan ondaduna.
-Ondaduna?
-Ondakin, hola pikuekin euzenak. Domeketan. Eta holakuak eukunak Erregenetan-eta erregalautako horrek, e. Eta joaten gintzen holan elixara. Eta urtebetien guztiz baltzik jantzitta. Urtemezie pasau arte baltzik.
-Elizara lutua, mantillia, misala...
-Misala, bueno! Oinddiokan badaukat nik misalak.
-Guantiak eta neguan eruaten zenduezen?
-Guantiak neguan bai, etxien eindakuak. Holan luto moruen ez. Baiña guantiek etxian eitten zien orduan. Galtzetiñak-eta etxian eitten zien.

2.97. Arropak; orrazkerak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/019
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:23:10. **Bukatu**: 00:25:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- **Laburpena**: Arropa berriak noiz estreinatzen ziren kontatzen du. Ile-apaindegiak Aretxabaletan; orrazkerak.

Transkripzioa
-Erropak eta esan dozu, abrigua ta. Orduan erropak noiz estrenatzen zian?
-Kontzeziño Egunien. Abrigua baaukotzun estreiñetako, Kontzeziño Egunien. 8 de diciembre. Eta trajiek, aukenak estreiñetako, urtero ez, pentsau be ez, Aste Santuetan zan, zela prosoziñuek egoten zien, prosoziñorako.
-Horrek izaten zien fetxa klabiak?
-Bai. Nik jeneralien eitten nauen haunditxo eiñ arte amak josittako erropak.
-Eta gaztetan eta akordatzen jatzu, ulia edo, pelukerixarik bazeuan?
-Bai.
-Modara joaten ziñazien?
-Bai, permanentia-ta eitten gauen, e. Bai, bai, bai. Lelengoko permanentie ein ostien, ez dakit bizi dan, hementxe residentzian dagona Mondraoko bat. Haik zien famosienak, eta zien hor Takolo baiño beratxuao dauen etxe baten. Oiñez joaten gintzen. Eda nire primia Lali ha zan kuadrillan espabilladiena, eta harek tinteten auen ulia -hori ezizu ifiñi, tontokerixa bat da-ta-, zerakin... Ze likido botaten auen? Itxein-itxei-itxein. Ahaztu jat. Berak etxien tinteten auen. Eta horrek eiñ auen lelengo-lelengo permanentia han, eta harek eruan giñun kuadrilla guztia gero banan-banan

hara, zerera. Ta hori ez dot pentsetan hil danik, Atxabaletako residentzian dago oin.

2.98. Garizumako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/026
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:40:35. **Bukatu**: 00:42:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Herriko plazan jolasten zuten; sokasaltoan... Garizuman, txirikilarekin jolasteko ohitura zegoen.

Transkripzioa
-Sokasaltuan eitten zenduen?
-Bai, asko. Eta diaboluaz be bai. Diii!, bota ta. Hortan be artistia nitzen. Eta kalien danok holan.
-Eta diabolua gaiñera zailla da, ez?
-Keba! Keba-keba-keba! Eta horreik gauzok amak erosten oskun betik. Amai gustau itten jakon hola ibili gaittezzen, ezta, diaboluekin eta.
[...]
-Orduan sokasaltuan, diabolua...
-Bai. Eta sokasaltuan holan itten auenien...
-Orduan sokasaltuan eitteko kanturik eta?
-Bai, bai, kantuak eta azen, e. Eta gero, gaiñera, kontau notsuten Garizuman ze...
-Bai, esplikau zostazun baiña esaidazu berriz.
-Garizuman txirikilletan, txirikilletan esaten zan.
-Eta zelan eitten zan?
-Elixatik urtenda gero plazan, danak plazan, e. Illerak holan. Bakotxak bere terrenotxue hartzen auen, eta erueten zien etxetik amantalak. Eta zien, txirikilletan zan, txirikillia hau egurra, erredondua. Beti erredondua zan, eta honek puntatxoak gastauta. Eta zuk eukatzun beste bat, beste mango bat baiña ondo..., zerak, e. Beste, txirikillia baiño senduaua. Oin ezpatadantzarixak eta ibiltten daue ba horrek makillok eta. Onbre, holako haundixak, potoluak ez baiña hoixe estiluoi, eskuan aukotzuna. Eta lurrien ifintten zan txirikillia holan. Eta hori zelan gastauta euzen, hori zan lo mismo, lo mismo hau, ezta? Hemen puntia jo eta honek gora igoten dau. Eta orduen rast! bestiekin emon. Eta aurrien amantalakin batu. Eta batzen auenak nok hartzen auen, ha joaten zan gero bera botaten bestiai. Eta hori zan Garizumako jokua, Garizuman eitten zana. Oin, zeatik Garizuman eitten zan hori ez dakitt. Eta orduan plazan asfaltua ta ez auen, lurra, eta plazan izaten zien horrek gauzok. Arbolak be gehixao euzen, eta...
-Orduan herriko plazan jolasak.
-Beteta, e, harek, danak txirikilletan.
-Garizuman zergatik izango zan?
-Ba igual dantzaik eta ez zalako egoten edo igual.

2.99. Herriko eskola, Viteri fundazioko eskola

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-018/017
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:35:00. **Bukatu**: 00:38:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
  Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena**: Eskola kontuak. Viteri fundazioko eskola. Arrasatearra zen bera, eta diru asko utzi zuen herri askotan eskolak egiteko, besteak beste. Mutilak eta neskak banatuta egoten ziren. Irakasleak zeintzuk izan ziren; klaseak erdaraz izaten ziren. Batzokiak eskola txiki bat antolatu zuen, eta astean bi edo hiru bider bertara joaten ziren kantak ikastera...

Transkripzioa
-Eskolara nora joan ziñen?
-Honaxe.
-Zenbat urtekin hasten zan eskolara joaten?
-Bost urtekin ero.
-Honek zer zien, herriko eskolak.
-Herrikuek, bai. Honek zien "de la Fundación Viteri".
-Badakizu zein zanViteri hori?
-Viteri, mondrauetarren bat.
-Honek diru asko zeukan, ezta?
-Bai, bai. Honek eukan eindda, ni akordetan nazenak, Mondrauen be bai, eskolak Mondrauen, Aretxabaletan, Irunen be bai, Donostian be uste dot baietz; ha izan zan, nunbaitten agertuko da hori, inportantia.
-Herrixan alde?
-Bai, bai. Ein zittuen oso obra haundixak. Hemen enziklopedian agertuko da hori, gura bozu ekarrikotsut.
-Keba, lasai. Orduan herriko eskolan, mutillak alde batetik, neska bestetik, ala danak batera ibiltzen zinaten?
-Ez. Aparte. Eozen bost klase-ero. Bat, bi, hiru, lau, bost. Bost klase-ero baeuzen; eta aparte eoten zien, neska-mutillak aparte.
-Eta zuri akortzen jatzu zure maistrua edo profesoria zein izan zan?
-Bai. Lelengo doña Pilar Usandizaga zan, sekretarixuan alabia zan, sekretarixua, aiuntamentuko sekretarixuan alabia. Gero, Don Santiago Ondarra, urte askuan izandakua maixo. Eta gero Don Benito.
-Eta zelakuak zian? Asko ikasi zenduen?
-Bai, ona, e. Puxkat autoritariua zan Don Santiago Ondarra. Puxkat seixuaua, eta holako, e… Baiña Don Benito akordetan naz, hori eztakit nundik etorri zan, kanpokuak zian, Zaragoza aldekuak ero Logroño aldekuak, kanpokuak zien; bera, emaztia be maistria zan, bixak euzen kolokauta, bai. Eta harekin, nik uste dot denpora gehixen haretxekin ein neuela, don Benitokin. Don Benito Alonso; gaiñera oso ona zan maistrue. Eta ez auen, lau gauza bakarrik erakusten auen: Aritmetika, Geometria, Geografia eta Gramatika.
-Ez gitxi. Ondo ikasi ezkero emoten zebana.
-Lau gauza. Eta nik betik urten arte haretxekin egon nitzen.

-Esan dozu bat kanpotarra zala, baiña sekretarixuan alabia haura euskalduna izango zan.
-Bai.
-Harekin euskeraz emuten ziñuen?
-Ez, dana erderaz eitten zan. Euskeraz gero hemen batzokixak eiñ euen, ikastolatxo bat jarri euen; baiña aparte, hemendik juaten giñen astian bi bider ero hiru bider faten giñen han ikastolara. Ikastola txiki bat zan, kantuan-eta itten giñuen.
-Umia ziñanian, baiña?
-Bai, bai.

2.100. Eskola kontuak

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-018/018
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:38:50. **Bukatu**: 00:40:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskola kontuak. Zer ikasten zuten; ordutegia. Larunbatetan ere klaseak izaten zituzten, baina ostegun arratsaldetan jai izaten zuten. Jolas-ordua.

Transkripzioa
-Esaten dozu klasiak eta erderaz izaten ziela. Baiña danetik ikasten zenduen: Geografia…
-Bai, gauza laurok, e: Aritmetika, Geometria, Geografia ta Gramatika.
-Eta esan dozu bat bai zala nahiko autoritarixua edo? Zigorrak eta kastiguak eukitzen zenduezen?
-Nik ez neban euki behin bez.
-Zintzua izango ziñan zu.
-Bueno, gero harrezkero egon dira beste holako astokillo batzuk.
-Orduan zuriak nahiko…
-Bai, ba, bai.
-Klasiak eta ze izaten zien goixez, atsaldez?
-Goizian beratziretatik hamabitara. Eta gero, ez dakit ze ordu… ordu bi terdietatik, hiruretatik lau terdietara-edo.
-Eta zapatuan klasiak eukitzen zenduezen?
-Bai. Eguenien atsaldian ez. Eguen atsaldia jai. Gero zapatuen eskolara. Eguen atsaldie izeten zan, bueno!
-Eta hor egongo zan jolas-ordu bat edo ez? Jolasteko denboratxo bat.
-Bai. Beratziretan eitten geuen, beatzik eta hamarrak arte ordubeteko klase bat; eta gero ordu erdi, zera, "recreo"; eta gero hamabixak arte ba…
-Rekreuan be orduan be ez ziñazen juntatzen neskekin?
-Ez, ez, ez. Ordu hortan, e, neskak euren jokuak eitten euen, sokaz saltoka edo gure dana ez dakit; eta guk fubolien-edo, pelotan-edo. Ez giñan, neskatillakin ez giñan juntatzen, ezta bueno. Ez dakit. Gaiñera, ez dakit, normala uste dot zala.
-Herri guztietan halan izan zan, itxuria.
-Bai.

2.101. Errepublika garaia; 1934ko iraultza

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-018/019
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:40:55. **Bukatu**: 00:43:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Errepublika garaian eskolan egon ziren aldaketak. Gurutzeak kendu ziren... 1934ko iraultza Aretxabaletan. Bando bat egin zen eta bertan zer esaten zen gutxi gorabehera. Arrasaten istiluak egon ziren. Militarrak Arrasate eta Eibarrera.

Transkripzioa
-Zuk goguan daukazu Errepublika denporan, treinta y unuan, eskoletan-eta leku batzuetan kruzifijuak kendu ziela?
-Bai. Kendu zien.
-Kendu ein zien, hemen be bai?
-Horrek kendu ein zian. Lehenao baeuen klasian kurutziak, eta horrek kendu zian el año treinta y uno.
-Orduan gogoratzen dozu hori?
-Bai, bai.
-Eta errepublikian inguruan zeoze gogoratzen dozue, edo etxian entzunda, ba "Eibar aldian gorrixak eztakit zer…"
-Hori zan "La revolución de octubre", treinta y cuatro, bai. Hemen etzan egon gauza haundirik. Goizien emuten euen bando bat, "El Comité de la Revolución", eta esan auen: "Se prohibía juntarse más de tres personas…", horrek izen bat dauko, eta erretirateko, eztakitt ze ordutan erretirateko…
-"Toque de queda" eta guzti?
-"Toque de queda", bai. Baiña egun baten bakarrik izen zan, hurrengoko egunien bukatu zan. Hurrengoko egunian ero bertan egunian. Gu, akordetan naz juan giñala mendira, mendira; bueno, hemen reboluziñua dau, hau eta bestia, eta aittakin-eta senide batzukin juan giñan zera, Bolibar aldera. Mendira juan giñen. Eta beruzkotan etorri zien autobus batzuk soldauakin, Eibarrera oiazen (?), baiña Eibarrera juateko Mondrauetik pasau zienien, ikusi euen zerbait auela, eta geratu zien hor, eta Mondraueko rebuluziñuoi geratu zan, eta batzuk juan zien Eibarrera, eta orduan akabau zan.

2.102. Aretxabaletako bainuetxea; gerra garaiko hainbat azalpen

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-019/004
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:09:00. **Bukatu**: 00:12:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Politika » Gerra zibila (1936-1939)

- **Laburpena**: 13 urte ingururekin, Bilbora joan zen ikastera. Gerra garaiko kontuak. Aretxabaletako bainuetxearen inguruko zenbait azalpen ematen ditu; maristen ikastetxea jarri zuten gerora bertan. Gudarien kuartela; "Los Dragones", Arrasaten sortutako bataileia.

Transkripzioa
-Asko ibilittako jentia.
-Bai, bai.
-Gerora zeu be Bilbora joan ziñan. Zenbat urtekin izan zan hori?
-Hamahiru urtekin edo.
-Behin eskolia amaittu eta Bilbora?
-Senidak han neukan eta. Neure etxien letxe igual-igual.
-Hori noiz izan zan, gerria hasi eta gero, ezta?
-"El año treinta y ocho" zan, gerrie baeuen, bai.
-Gogoratzen dozu gerria hasi zanian etxian zer esaten zeben, soldaduak bazetozela, edo…
-Hemen, gerria ekin zanian hemen, gudarixak-eta juntau ziran eta ein euen kuartela zerian, lehenau kolegixua euen lekuan, Maristetan, oin dauen "complejo industrial", eta hotela-eta. barri bat ein daue hor, Eskoriatzara bidian; lehen auen hor lehenau izendako baiñuetxe bat; baiñuetxia jausi zan hil zalako hor prinzesa bat, "Princesa Pilar, hermana de Alfonso XII". Hil zan ha, eta jentiak, ez dakitzu, "que igual te da mala suerte" eta. Eta gero etorri zien maristak. Eta jarri euen hor kolegixo bat maristak, eta egon zien urte askuan maristak. Eta maristak juan zianian ein zan oin dauen kolegixua. Bueno, oin kolegixua goixan dau, baiña lenengo behian ein zan, eta gero beheko […] bota zian, eta gero oin ein daue "complejo industrial".
-Eta han egin zeben kuartela?
-Bai. Eta bestiek, republikanuek-eta, horrek ein auen mondrauetarrekin-eta…
-Batailloiren bat?
-Bai. "Los Dragones. Mondragón, mondragones". Eta horrek kuartela, hemen ez euken kuartelik.
-Mondragoikuekin batera?
-Bai. Hor Atxabaleta eta Eskoriatza mugako… gudarixak hor eren.
-Hor juntatzen zien?
-Bai, hor Eskoriatzan, eskoletan, kartzelia egon zan.

2.103. Trenaren inguruko kontuak; istripuak

- **Hizlaria(k)**: Gorroño Arregi, Esteban; Zuazabeitia Herrasti, Duni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gorroño, Jasone
- **Erref**: ARE-021/006
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:07:30. **Bukatu**: 00:09:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena**: Trenak inguruetan ez zuen istripu askorik izan. Ezagun bat hil zen trenean. Horren inguruko azalpenak.

Transkripzioa
-Akzidente asko egoten zan lehen trenan asuntuen?
-D: Ez, ezta? Esteban? Akzidentiek?
-E: Trenakin eta? Hola akzidente asko ez. Noizbaitten hola hor Araba aldien, Marin aldien ganauren batek urten utsela edo holako zeren bat, baiña gutxittan, e. Akzidentiek ba, Atxabaletako bat hantxe hil zan Mondrauen, [...] lehen esaten ibilli garen anai bat hil zuan, Benito Akizu. Mondrauen. Ba bere lobiaz bultzakara bat edo gura barik trenera sartzen doiela, edo ez jakixat zer be, edo trena aillegetan dauela [...]
D: Hasi pasetan kotxe batetik bestera edo?
-E: Ez dakit ba nik. Trena aillegetan dauela bestia aguro fateko lekua hartzeko-edo geldittuta parien edo eta. Eta itxurie tio hori bultzakaran bat eindda... Holako zeren bat pasau [zan] ez dakit zela izen zan seguru, ez dakit.

2.104. Trenaren inguruko kontuak; paso nibela

- **Hizlaria(k)**: Gorroño Arregi, Esteban; Zuazabeitia Herrasti, Duni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gorroño, Jasone
- **Erref**: ARE-021/009
- **Iraupena**: 0:04:40. **Hasi**: 00:14:20. **Bukatu**: 00:19:00
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena**: Paso nibelean ezagun bati gertatutakoa. Paso nibelaren inguruko kontuak. Trenaren inguruko kontuak eta istripuak.

Transkripzioa
-D: Igoten geuen kaseta gaiñera, eta alde batetik eukitten euen berdia eta bestekaldetik gorrixa. Berdia zanien ba pasua libre euen, baiña gorrixa izen ezkero zerbait [...]. Pasetako, pasetako, berak ipiñi dauela gorrixa. Ene!, oiñ ein biher holakuak.
-E: Horrekin paso nibel horrekin zer asko pasau zan.
-D: Oso txarto egon zan. Mari Karmen oso txarto egon zan. [...] Paso nibelian berai pasau jakonian. Oso gaizki egon zan. Ni akordetan naz [...]
-E: Hor Durango onduan dago Matiena, han hillien behiñ edo egoten zuan akzidenten bat, trenak harrapauta baten bat. Azkenien eztakitt oiñatiarrak-edo zela zien harek, oiñatiarrak. Kotxe baten bost lagun-edo garbittu zien. Han, jota garbi danak. Bete-betien harrapau eta bost lagun [...] Baiña aurretik akzidenten bat, esateko, hillero. Eta xei lagun edo zazpi, eztakit zenbat, orduan danak garbittu zien. [...]

2.105. Gerra aurreko euskarazko eskolak

- **Hizlaria(k)**: Gorroño Arregi, Esteban; Zuazabeitia Herrasti, Duni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gorroño, Jasone
- **Erref**: ARE-021/015
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:29:05. **Bukatu**: 00:30:08
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Lehenbiziko ikastola (euskaraz irakasten zuten eskola) non ezagutu zuten. Gerra aurretik euskaraz ikasten zuten, baina gerra-denboran hori bukatu egin zen.

Transkripzioa
-D: Han behien akordetan zara zu noix egon zan eskuela bat [kantetan] jakon orduen. Orduen, "en aquellos tiempos".
-Zer zan hori?
-D: Ba euskera, multiplicar, restar eta.
-E: Ikastola bat, bai.
-D: Danok euskaldunak gintzen, baiña eskolan erderaz [...]
-E: Nik lelengoko ikastolia ikusi neuena Atxabaletan, hor [Beroak] euken hametikaldera Etxezarretan eta, lehenau, garai baten pospolo-fabrikie izan zan, eta Beroak eukien. Eta hantxe pospolo-fabrikan hasi giñen gu ikastolan faten mutikuek eta neskatillak eta faten gintzen haraxe gabetan.
-Zenbat urtekin zan hori?
-D: Kolonena aurretik izengo zan o geruau?
-E: Geruau.
-D: Kolonena geruau?
-E: Bai. Haxe izen zan lelengokue.
-D: Ni honekin ez naz akordetan.
-Noizkua da?
-E: Hori? Guk zenbat urte eukiko gaixuen ba...
-D: Gerra aurretik, edozein modutan be. Gerra ondoren horrek gauzok, e... Gerra aurretik.
-E: Bai, gerra aurretik zan ha.
-D: Hoi izango zan hogeta hamalautik hogeta hamaxeira bittartian.

2.106. Don Santiago maisua etxean apopilo

- **Hizlaria(k)**: Ezpeleta, Paulo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ezpeleta, Miren
- **Erref**: ARE-022/001
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 4 anaia ziren. "Taberna berrikoak" deitzen zieten. Taberna eta harategia zituzten eta mutikotatik han egon beharra izaten zuten. Aitona baserritik etorria zen eta ez zuen ikasketarik. Don Santiago irakaslea apopilo zuten etxean eta hark irakatsi omen zion irakurtzen eta idazten ezkondu eta gero. Eskolatik ihes egiten zutenean maisuak aitonari kontatzen zion, honek ikasketei garrantzi handia ematen zien eta.

Transkripzioa
-Atxabaletan gu jaixo gintzen ba "Taberna Berrikua", ezta, Taberna

Berrikua. Lau anai-arreba ta mutikotatik ba karnazerixan eta tabernan; bixak batera azen da gure aitta ta aittajauna ta betik mutikotan aittajaunak eskolara (barik) ezin gauen eiñ, zeatik eze betik, ez zakixen ba berak, basarrittik etorritta euen gure aittajauna, Higinio, eta ez zakixen eskribiduten eta leiduten bez. Da hartu euen, apopillo maistrue euken, Don Santiago. Da harek ezkonduta gero erakutsi etsen sumar, restar eta honek danok, eskribiduten. Ta guri orduen esaten oskun: "Mutikuak!, ikasi gero, e!, hemen tontua neu nok bakarrik". Gero mutikuak etxetik urten eskolara fateko da beste batzukin nahasi ihes eiñ ezkero, Don Santiagok gure aittajauna Higiniori esaten utsen: "Paulo ezta etorri gaur eskolara, gaur harek ihes eiñ dau. Asi ke kontuak hartu". Aittak baiño oinddiokan aittajaunak zer gehixao eukitten auen. Da, klaro, berak pa atara zittuen Tia Blanca ta maistra, Tio Joxe ta zerien, ezta. Eta harek gure auen guk pe ikasi gero ba zeozer izan gaittezen.

2.107. Jesuita joan beharrean, monagilotarako geratu

- **Hizlaria(k)**: Ezpeleta, Paulo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ezpeleta, Miren
- **Erref**: ARE-022/002
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:01:30. **Bukatu**: 00:03:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Euren tabernan era guztietako jendea egoten zen: anarkistak, sozialistak... Orduan ez zegoen txoke politikorik. Jesuita ikasketak egitera joatekotan egon ziren bera eta anaiak, baina tabernan egoten ziren gizon batzuek beldurra sartu zioten. Azkenean, etxean geratu eta monagilo-lanak egiten zituen.

Transkripzioa
-Tabernan han jente asko egoten zan, da gure etxia zan itxuria danen soziedadia. Han egoten zien komunistak, anarkistak, nazionalistak, karlistak eta danak. Orduan ez euan hainbeste politika, e, baiña honek Eustakio, San Berde, Katxo eta ba horrek egoten zien betik han. Euren botillatxue eo pitxartxue hartu ta zeozer jan da hantxe. Ta klaro, ia mutikue haundi eitten ekin nintzenian monagillue. Gure ama be ba beti elixan egoten zan ba sartuta, da hango parrokuaz da koadjutoriakin da oso laguna zan, da mutikua monagillo. Da genguzen ba lau: Jexus Atxa, Lorentxo Galdos Donostian da Jesuitetan, Felix Atxa da ni. Lau monagillo. Da, klaro, honek abadiok, Atxabaletan azenok, anai bat aukien jesuita zerien, Azkoittin edo eztakitt nun. Eta harek eitten auen ba danak zerera, jesuittetara. Mutikuok batzuk fraille ta abade ta; honek jesuita. Gu laurok ba fatekuak gintzen. Laurok fateko ta Felix eo Jexux eta Lorentxo zien haunditxuenak. Gero zan Felix eta gero ni. Horrek fan zien bixok. Han tabernan azen Eustakio ta konpañia, ta guri be aillegau jakun ba fateko zerian ba, juniuan edo hola, bueno ba ia oktubrian kursue ekitzeko ta fateko. Honek Eustakiok eta, zela zien elixara faten ez zienak edo hola, "gorri antzak" esaten dana, ba haik esaten usten: "Baiña jesuita hoia tontu hori? Ez hai fan bestela kapauko aue gaiñera! Han kapau eitten juek fraille faten dana" (....) Orduen ba mutiko txikixa zela nintzan, sustau ero. Aittak

eta amak pe ez euken gogo haundirik fateko, baiña ia papelak eindde.
-Amak be ez?
-Ez, abade ta ez, jesuitta ta ez. Etxian, elixara fan bai baiña etxetik.

2.108. Monagilo egon zeneko pasadizoa

- **Hizlaria(k)**: Ezpeleta, Paulo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ezpeleta, Miren
- **Erref**: ARE-022/003
- **Iraupena**: 0:04:25. **Hasi**: 00:03:50. **Bukatu**: 00:08:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Monagiloek okerkeriak egiten zituzten. Aretxabaletako abadeen loba bat etortzen zen osabengana uda pasatzera. Beraiek San Frantziskoren antza hartu zioten eta baita halaxe esan ere. Don Esteban abadeak bi anai gazteei egundoko jipoia eman zien. Lagunei kontatu zienean ze komentario egin zizkioten. Gerra hasi artean egon aritu zen monagilo lanetan.

Transkripzioa
Eta hantxe monagillo. Eta gero monagillo gengozela ba betik okerrak, monagilluek okerrak. Eta honek abadiok eukien loba bat. Franzisko Maria ero eztakit zela euken izena, Eibarren bizi zan anai batena, eta injinero ikasten ero ebillen. Da hau etortzen bakaziñuetan Atxabaletara, tiuengana. Basarri baten Basaben bizi zien ba. Da hara faten zan, Francisco Maria zan. Da gu ba sakristixan monagillo bixok ba Felix da ni txikixok, eta, klaro, bat faten zan seitterdietan, bestia zazpiretan, bestia zazpitterdietan da bestia zortziretan; lau monagilluok, ezta, eta gu bixok genguzen bata zazpitterdietan fanda eta bestie zortziretan fanda. Ordubete bakutxak eitten gauen. Eta monagillo genguzela ba sakristixako atia zabaldu eta betik errezetan. “Joño!, baakik horrek San Franziskon aurpegixa daukena”. “Koño, bai, bastante, e! Igual-igual-iguala dok, San Franzisko lakotxia. Igual-iguaal”. “Bai?”, tta “Bai”. Hola egun baten. Hurrengo egunien be fan da taka!, zabaldu ta. “San Franzisko!, San Franzisko!", da hola. Bestiak ba, nik eztakit ze esan, “De Asís!” edo, eztakit ze esan nutsan, hola. Eta klaro, orduan mezak egoten zien zortzitterdietan da zerian da. Baiña kanpaia jo biher izaten zan zortziak eta larenetan. Zortzirak eta hogei pasautxuen eta mezia hasten zan, kanpantxuek, kanpai txikixa. Eta guri ze eiñ oskuen parrokuen arrebiak? Geuk akordau barik etorri tta giltzapien itxi elixan. Ta klaro, ordue aillegau zan, kanpairik pe ez eta ezebez, ta etorri zanian Don Esteban abadia, ha zan egurra emuten euenoi, “Zer pasau da hemen!? Qué ha pasado aquí?” “Hemen ezebez” “Bai, hemen zeozer pasau da. Atiek zerrauta daukotzue ta hemen zeozer pasau da”. Ha jakiñien euen dana, da guk ezebez. Esan oskun: illunkaran erresaixua, orduan illunkaran erresaixua egoten zan eta monagilluek derrigor fan bihar izeten gintzan. Da esan oskun: “Zortziretan akabetan danien hemen, lau monagilluok (...) Fan gintzan, mutikuok, guk zenbat urte eukiko geuen ba, hamar ero? Hamabi ero? Eztakitt, hamar edo hamaika ero hola. Fan gintzan da Jexux haundixena, Lorentxo, Felix da ni txikixena, gaztiena behintzet. “Zu, Jexux, ze esautsazu?” “Nik ezebez”. "Zu, Lorentxo, ze esautsazu?” “Nik ezebez”. “Zu, Felix?” “Nik San Franzisko”. “Zuk ze esautsazu, Paulo?” “Ba nik ‘de

Asís' ero hola". Ekin (...) egurka, ezpanak be haundittuta, txixa be praketan da...
-Bixoi bakarrik?
-Bixoi, beste bixei ezebez. Joka lurrien. Da orduan fan nintzen ba ni etxera, tabernara fan barik, ezpanak eta danak haundittute nauken da. Gabatxuena ta, Joakin Gabatxo ta lagunak, edade batekuek, eta haren etxera. Fan nintzan da, "Ze pasau jatzu, Paulo?" Ta "ezebez, parrokuek, Don Estebanek izugarrizko palizie emun dost. Tremendue baiña, neri ta Felixi". "Joe, hola ezin leike itxi hoei. Hau izen ezkero republikanue, Ramonen semie edo, hori abadioi hil be eingo leukie". Baiña holaxe, emunde. Ta bueno ba hortan, etxera fan ostera, ta honek Eustakio San Berdek eta republikanuak zienok han zeren: "Ze pasau jak?" eta "Hementxe". "Hortarako republikanua izen bihok, republikanua". Gure aittajuna ta aitta ta ba ez zien, eskumako aldekuak zien haik eta. Deretxa antzak, eztakitzu, hola zerien da. Nik esan nutsen: "Zeu republikanua zara, ala?". "Bai, amorratua!, amorratua, gaiñera, republikano amorratua". Gero be monagillo. Gerria hasi ezpazan ondiokan be segururamente monagillo; ondiok pe, e. Ondiokan be monagillo seguramente.

2.109. Mutikotako denbora elizari lotuta

- **Hizlaria(k)**: Ezpeleta, Paulo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ezpeleta, Miren
- **Erref**: ARE-022/004
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:08:15. **Bukatu**: 00:09:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena**: Gerra ostean gazteentzat Adoración Nocturna delakoa egoten zen. Monagilotzatik irten ostean "presidente de los tarsicios" izan zen bera beste hiru urtean. Geroago, handiagotan, luistarren kongregazioan egon zen; neskak Hijas de María izaten ziren. Nagusitu ahala futbolean eta beste gauza batzuetan hasi zen.

Transkripzioa
- Da gero egoten zan beste zer bat, "Adoración Nocturna" baiña gaztiena, "Tarsicios" ero.
- Gerra denporan?
- Gerra ostetxuen. Hortxe gerra zerien da. Ein nindduen monagillotzatik urten eta gero presidente de los Tarsicios. Adoraziñoko zera. Oraziñuek eta ondiokan buruz, mutikuak. Eta ya beste hiru urtian. Asi ke elixako kupue bastante...
- Beteta ia.
- Kunpliduta antxiñatik elixakue behintzet. Da gero hortik ba gure denporie Luistarrak eta. Gero beste kongregaziño bat euen ba haundixaua, mutikotatik urtendakuen Luistarretara. Orduen dana izeten zan ba goixien seitterdietan jaiki, mezetara fan, bueno. Hillien behiñ, e. Emakumiek eukien "Hijas de María". Eta guk San Luis de Gonzaga, eztakit zela zan. Da han fan bihar izaten zan ba konfesau, komulgau eta dana, ia haunditxuauak eitten. Da gero ekin gintzan ba haundi eiñaz ba batian fubolian...

- Eskolan zenbat urte?
- Eskolan hamalau urte eiñ arte.

2.110. Soldadutza denboran ere pilota txapelketetan

- **Hizlaria(k)**: Ezpeleta, Paulo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ezpeleta, Miren
- **Erref**: ARE-022/007
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:13:20. **Bukatu**: 00:15:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Denborarekin soldadutzara joatea egokitu zitzaion eta Gasteizen egon zen. Ordurako han eta hemen jokatzen zuen pilotan. Kuartelean Bitor Argiñano beasaindarrarekin elkartu eta bikote gisa txapelketa batean parte hartu zuten. Espainiako txapelketa irabazi zuten eta ordutik eskaera asko jaso zuten. Ondo kobratzen zuten, gainera, 50 duro.

Transkripzioa
- Gero puxkat gehitxuau, gehitxuau, gehitxuau, gehitxuau, etorri nintzen ba soldauxkara. Soldauxkan genguzela ba ia hogeta bi urte-edo. Bueno, orduan hemeretzikin soldau etorri nintzen boluntarixo. Pelotan batien hemen, bestien han. Etorri zerera, Bittorixara, soldauxkan, baiña iñork ez euen jokaketan da. Gipuzkuanua beste bat, Argiñano, Bitor, Beasaingua zan, da bixok. Eta ekin guntsan, eta kuartelian esan oskun: "Koño, porqué no jugáis?" Bueno, ba jokatu. Ta bixok onentxuenka gintzan hemen, eta (...) jokaketan. Eta gero etorri zan Torneo de Federaciones edo GRAVN edo hori, eta arabarrak jokatu bihar euen gipuzkuarrakin. Eliminatoria. Jokatu geuen hemen da hogeta bi eta hogei. Ez, hogeta bi eta hogeta bat galdu gauen. Azkenengo tantue neuk galdu (nauen) eta peridiodistak, Pacorrok, Ezkiagak eta horrek. Pakorrok akordetan naz periodikuan zela ipiñi euen, e. "A pesar de esto, dos guipuzcoanos casi le ganan a Gipuzkoa". Baiña etxakola pentsetan berai, Gipuzkoan, Donostian jokatu bihar gauen, hemen galdu gauen eta gero Donostian. Eta hurrengo jaixan fan gintzan Donostiara, jokatu gauen Donostian eta irabazi guntsen hogeta bi ta hamaxei geuk. Ta gero orduen akarren: "Dos guipuzcoanos eliminan a Gipuzkoa". Dos que estaban menospreciados hemen, en la provincia, Bittorixan soldau etorri, da hemen zela ekin gintzan, da orduan urtian izan zan ba Campeones de España atara zan. Da, klaro, partidu asko etorri jakun, han jokakeketako, hemen jokaketako, eta gaiñera ondo kobrauta, berrogeta hamar duro, e. Berrogeta hamar duro kanpeoiena.

2.111. Ehizako pasadizoak

- **Hizlaria(k)**: Ezpeleta, Paulo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ezpeleta, Miren
- **Erref**: ARE-022/013
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:25:50. **Bukatu**: 00:28:05

- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Ehizarako zaletasuna izan du mutikotatik. Orduan erbi bat harrapatzea oso zaila izaten zen, baina beraiek mutikotan bat harrapatu zuten eta herrian harro-harro azaldu ziren. Ehizako pasadizoak.

Transkripzioa
-Kazan be bai?
-Kazan, kazan afiziñue mutikotatik. Mutikuek gintzela hau Bernardiño Arregi ta bixok. Beti kazan ibiltzen gintzen. Fan gintzen baten. Mutikuek gintzela, e. Orduen erbi bat iñok pe ez euen harrapetan. Gaur hemen elefante bat batek harrapauko leukien letxe orduen erbi bat harrapetia zan. Eta fan gintzen Kurtzebarrittik gora, txakurrak onak gaukan da, txakurrok eta. Tak!, erbi bat atara auen da. Jaurti guntsan lau tiro. pin-pan!, da pin-pan! da aurrera. Baiña itxuria perdigoiren batek jo eiñ auen da txakurra au-au-au!, ta. Bueltan ostera geuregana. Beste lau tiro: pin-pan!, da pin-pan!, da mutikuak apuntau ta ezebez. Jaurti. Da erbixoi ba besten batek jo eban, perdigoiren batek eta ostera buelta hartu eta ostera geuregana ta. Beratzigarren tiruen Bernardiñok jo. Guk orduan herrixan ha erbixa erakusten munduen dauenik zerik haundixena baiño haundixaua, erbixa. Joe!, jente guztia. Beste baten zan fan bixok fan Kurtzetara..., Kurtzetara be ez, Asensio, Asensio gaiñetik, Atxabaletako mendittik Kurtzetara nittartian usotan. Usotan fan eta mutikuak gintzen, kartutxuek eruengo ba berrogeiña kartutxo ero. Jarri tta. Lelengo (Latan?) egon gintzen eta ezebez. Ta gero handik Asensiora. Asensiora fan eta usuek benga ta benga. Eta auen zereko, Barajuengo abaria kazan. "Mutikuak!, hamendik harutza, e, harutza!" Da aldamenian jarri tta, klaro, orduan etozen, ze esangot, laiñua, eurixa etorten da ba, eurixa goittik behera, ba usuak etozen etorri tta etorri. Baiña dana bat, e, banda bat dana. Hartu ta pin-pon!, pin-pon!, pin-pon! Eta guk benga ta benga ta benga. Ta azkenien kartutxuak akabau jakun. Hartu gittuen, eztakitt, xei uso, zazpi ero. Orduen izen bazan gure aitta ero hola kazan ekixena, hilgo euen ba bostehun uso ero. Handik ba buelta hartu gauen Atxabaletara ta harekin be harro. Beti kazarixen zera hori izaten da, harro, erakutsi, erakutsi.

2.112. Untzillako eskolan lau pezeta ordaintzen zuten hileko

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-027/005
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 00:09:50. **Bukatu**: 00:14:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Gerra aurretik ez zen ibili eskolan. 13 urterekin hasi zen eskolan, Aramaioko Untzilla auzoan; baina urtebete besterik ez zuen

egin. Burgosko maistra bat zuten irakasle. Hilean lau pezeta ordaintzen zuten eskola. Liburu batetik ikasten zuten dena. Gaztelaniaz ez zekienez, negar egiten zuen erantzuten jakiten ez zuelako. Berari asko gustatzen zitzaion eskola, baina anaiari ez.

Transkripzioa

- Gerra urretik umetan basarrixan zela bizi ziñazien? Ze lan eitten zenduan umetan?
- Basarrixan gerra aurretik, eskolara be ez gitzen /ezkitzen/ fan. Ni hamahiru urte artian eskolara ez nitzen fan, e. Urtebete in neuen eskolia bakarrik. Untzillera bertan eskolara eta maistrie zeeko bat, Burgosko kastillana bat euki neuen, eta berak pena hartu zeuen zertzia, eta han pagau bihar izeten zan; herrire ez gitzen bajatzen, eta Untzillera faten gitzen eta lau pezeta pagau biher izeten zan zeroi, hillekua. Eta [haindako] asko izeten zan, ez euan diruik eta! Ta zertzeko, ez uskula kobrauko-ta. Baiñe... Diru asko izeten zonan! Je! Ta laga fatiei eta baserrixen ittaurren artajorran, ardizain, billoszain. Ba haintxe hamahiru urte artien eta. Eta hamahiru urtekin ba urtebeten bat in neuen eskolan. Eta ia nire eskolak haintxe fan zien. Bueno, zerera artien ikasi neuen, "dividir" artien edo holakotxe bat ikasten [...]. Beste, besteik ezebez.
- Eta eskolan neska eta mutill alkarrekin ibiltzen ziñazien? Neskak eta mutillak batera?
- Bai, batera, batera neskak eta mutillek. Eta ez oingo moruen liburuek eta aparte ta, danak liburu batetik kartillie, katona eta gero infanzia edo ez dakit zer izeten zan. Eta liburu batzukin, e. Oingo moruen, e...
- Batekin dana.
- Batekin dana. Batekin, batekin ez zan akabatzen batekin...
- Eta euskeraz ala erderaz?
- Erderaz orduen. Bai. Eta erderaz preguntatzen zeuenien, e, ezebez. Eta erderaz preguntaute kontestaziñoik ez, jakin ez eta negar eitten neuen. Negar eitten neuen. Beste batzuk nik baiño gehitxuao ekixen erderaz bai edo ez esateko. Eta nik ezebez. Asi ke...
- Maistria kanpotarra zan?
- Burgoskue. Maistra zahar bat. Dio!, gogorra. Ointxe be akordatzen jat zelakua zan. Orduentxe nenguen ikesten hasitta ta ba ez uskula kobrauko ta bialtzeko eskolara ta, ez, ez, nahikue ikasi dau, ya esta; ittaurren eta ardizainera, ala! Ya esta, nire eskolok han fan zien.
- Maistriak kastigurik eta ipintzen zotsuen?
- Ez, kastigu haundirik ez euen ipintzen. Kastigu haundirik ez. Anaiek bieltzie nahi eskolara ta, harek soldautzarako ta gehixao biher izeten zala ta, hari ez jakon /etxakon/ eskolaik gustatzen. Hak ez eban nahi izeten eskolarik. Hari eskolia, eskolaik ez. Eta ni eskolia nahi te /tte/...
- Eta zuri bapez.
- Niri bapez. Asi ke...
- Eta zer egoten ziñazien, goizian eta arratsaldian be bai eskolan?
- Bai, ibiltzen gitzen sasoien bai. Goizien eta arratsaldien egoten zan. Ni bazkaltzen gelditzen nitzen han baserri baten. Bertan Untzillako zer ondo baten, geure ezaunen etxien gelditzen nitzen. Baina anaiek ez euen nahi izeten eskolara fateik be ez eta zerik be ez. Harek ni baiño eskasao. Nik ez, nik eskolia asko maitte neuen eskolia. Gero, gaiñera, atzera barriz-barri ikasi neuen semiai erakusten nebillela.
- Bai, e?
- Bai, barriz-barriz haretxekin ikasi neuen. Semiai beti pratikatzen eta pratikatzen eta semiakin ikasi neuen.
- Argixa izango zara eta.

2.113. Bekatuak eta abade bekataria

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-027/019
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:38:02. **Bukatu**: 00:40:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena**: Dantzan egitea bekatua zen, eta zirriak eta laztanak ere bai. Kontatzen du behin nola joan zitzaion abade bat etxera berarekin zerbait egiteko asmoarekin, eta senarrari ezer ez esateko esanez; Leandraren erantzuna entzuterakoan, abadeak alde egin zuen. Lehen bikote bat banantzea edo ezkondu aurretik umeak izatea txarto ikusita zegoen.

Transkripzioa
-Esatera noian dantzan eittia ta pekatua izango zala lehenao.
-Bai. Hoixe. Bueno! Hoixe pekatua. Terriblie! Zirri-eittia ta, laztana emutia ta. Hori. Baiñe zerai, eurai be gustatzen jaten zerai. Gu, e, argixe ifiñi zeuen gure baserrixen, ta zer baten, ez dakitt, urte mordue da; gure neskiek oin berrogeta hamasei urte edo ez dakit zenbat, eta han gebitzen eta afari bat ein geuen argixa ifiñi zanien eta abare bat zeuen. Eta zerien, hurrengo zer baten atie jota etorri jat abade bat zerien etorri jat, rta, ene! Bai. "Honaxe etorri naiz zerien eta, zuk ez esan gizonai hona etorri naizenik". "Ene, hori bajakixat zetan datorren". "Zuk ez esan gizonai hona etorri naizenik". "Ze? nik gizonakin ez daukat sekretoik", esan nutsen holaxe. Ta "Ene, hemen ez jaok /etxaok/ ezer" pentsau zauen harek. "Eta orduen beruzkuak bisitau ingo dot". Ya esta, hola pasau zan ha, baiñe... Bestela baakiu zetan etorri zan, ja! Mekauen, esan nutsen gizonai, "zu, bakitzu zetan etorri dan zera?", izenakin eta dana nekixen orduen, oin ahaztute dauket izena baiñe. "Hauxe ta hauxe esan dust eta". Bai ba la puñetas! Gizonakin ez naukela sekretoik esan nutsenien, e...
-Bildurtua ya.
-Bai. Anda fuera! Holakuek be baeozen, e.
-Danetik egongo zien.
-Bai, danetik, danetik. Ointxe letxe. Baiñe ointxe letxe, baiñe lehena ba zertu eitten zien, aklarau eitten zien gehixao. Oin zazpi urtien, zortzi, hamarrien arkarrekin egon, ezkondu ta apartau be igual eitten dittun segiduan. Ta orduen barriz zan apartatzie ta zera, jesus maria ta jose! Ta aurretik familixia eukitzea be... Bueno! Lehenao gogorra zan, gogorra zan.
-Gero despreziuak eta?
-Bai. Gogorra-gogorra!

2.114. Dolua

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-027/021

- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:43:05. **Bukatu**: 00:44:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Ezkontzerakoan, osaba bat hil zenez, doluz jantzi behar izan zuen: galtza beltzekin ezkondu zen. Osaba hilez gero, hiru hilabetez mantendu behar zen lutoa; eta aita baldin bazen, urtebetez.

Transkripzioa
-Lutua eruan bihar izeten zala esan dozu, ezta, jantzitta?
-Jantzitte, bai. Ni ezkondu nintzenien tio bat zeuen hilde, koiñatien aitta hil zan aurreko zerien eta haren zera ba lutue jantzi bihar izeten zan, eta galtza baltzak jantzi ein nittuen ezkondu nitzenien hortxe dendan, bajatu goittik behera Arratetik eta galtza baltzak jantzi haintxe eta hartu Pulmana eta zeera, galtza baltzak jantzitta.
-Zenbat denpora eruan bihar izeten zan lutua?
-Hiru hillebete tiona. Aitta edo zera bazan, urtebete, urtebete.
-Urtebete baltzez jantzitta ibili behar izaten zan?
-Bai, baltzez jantzitta.
-Eta zapatak?
-Bai, baltzez jantzitta.

2.115. Arropak: erosi edo egin

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-027/022
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:44:02. **Bukatu**: 00:45:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena**: Zer arropa mota erabiltzen zuten kontatzen du, eta Gasteizera joan zeneko istorioa kontatzen du. Arropa batzuk erosi egiten zituzten, baina beste asko egin egiten zituzten. Berak, jostun zela, arropa asko egin zituen; eta gaur egun ere aritzen da horretan.

Transkripzioa
-Bestela zelan jazten ziñazien?
-Ba ahal dan moruen, ahal dan moruen. Bestela zelan jantziko gitzen?, ahal dan moruen. Ni Bitorixara fan nintzen moruen, behintzet, abarka-galtzekin, perkalezko soiñekuakin, ta jertsixe eztakit zelakue eruango neuen orduen zera eruen gidduenien, zeetik. Orduen esan ustenien ofizialak: "Pa qué te han traido a tí?". "Pa qué te han traido a tí aquí?" esan ustenien. Orduen negargarri behintzet. Nik baakit abarka-galtzakin fan nitzana. Eta ez dakit galtza luziek ala; perkalezko soiñekue zelakue eruen neuen be badakit. (Barreak). Barre eitteko baiño negar eitteko polittaue da.
-Eta ez zan egongo aldatzeko erroparik eta?
-Bueno. Batzuk hobetotxuao jantziko zien, baiña beste batzuk zertxuao. Zelan, zelan hartzen zan be bai, eta jentiek zela zeuken be bai.
-Etxian eitten zien erropak ala erosi dendan?

-Erosi eindde. Eta ein asko. Nik josten ikesi neuenien zenbat praka pare josi ete dot baserrirako. Asko, e! Josten? Josten ikesi neuenien nik, josten asko gustatzen jat. Oin be bai, e, oin be hemen be eitten dot josten. Batien horrei lepoko zerai trapuoi zera apurtzen jatenien, edo botoie falta badau edo, nik josten asko disfrutatzen dot. Hemen be hartu silla bat eta hartu eta josten eitten dot nik.

2.116. Errenta moduan, garia

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-028/009
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:16:10. **Bukatu**: 00:17:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Errenta garia izaten zen; artoa geratzen zitzaien etxerako, baina ogia erosi behar izaten zuten kalean. Ogirik ez zen egiten etxean. Urtean behin ordaintzen zen.

Transkripzioa
-Lehen errenteruak ziñazienian, nausixai zelan pagatzen zetsazuen?
-Errentie? Garixa-ta erueten jakon. Ta gu gelditzen gitzen..., hutse. Artue bai gelditzen jakun baiñe; kaleko ogixe erosi biher izeten gauen. Garixe euena ixe ya entregau eitten jakon. Guk kaleko ogixakin zertzen gitzen.
-Ez zenduen eitten orduan etxian ogirik?
-Ez, etxerako lain zerik ez gauen /ezkauen/ eukitzen guk. Garixa gutxi erain gutxi eingo zan, edo eztakit nik zer. Ez dakit zer pasauko zan.
-Zer pagatzen zan, urtian behin?
-Bai, urtien behin. Emoten jakon garixe eta gero ez dakit zer emoten jakon. Urtien behin emoten jakon.

2.117. Baserrian irakurtzen ikasten

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Miren Gaztelu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-029/004
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:09:40. **Bukatu**: 00:11:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Ez da Miren Gazteluren kasua, baina izan dira euskal izena izateagatik arazoak izan dituzten euskaldunak. Gerra denboran kaletik alde egin eta Goroetako baserri batean igaro zituzten hilabete batzuk. Baserri berberera jo zuten Aretxabaletako maisu-maistrek, eta hantxe ikasi zuen irakurtzen.

Transkripzioa
-Zenbat urterekin joaten ziñen eskolara?
-Eskolara? Ba ikusi eizu. Ez nauen suerte ona euki. Gu egon giñen gerra denporan, gerrie izen zan bittartien, hor Koruetako basarri baten.
-Basarri baten bizi ziñen zu?
-Ez, bizi hemen, baiña kaletik alde eindda, gerra denboran alde eindda, ba egon gitzen hiru edo lau hillabete egon giñan Koruetako basarri baten egon giñan. Baserri haundi bat, oso baserri ederra ta dotoria gaiñera; orduen gerra denporan zera, zela esaten da, “cuarto de baño”, horrek eta danak eukien. Atera eizu kontue zelako baserri edarra dan. Oin be pantanuak hartu auen baserrixa ta gorago eindda dauke baserrixa. Baiña hango baserri bi zien, zaharra ta barrixa, eta zaharreko arkuakin, sarrerako arkuen harrixakin indda dauke goixen etxeko sarreria. Eta baserri hartan gu bakarrik ez, beste batzuk be bazien gordeta. Gordeta ez, nunbaitten egon bihar, alde eindda herrittik ba zerak ziela, bonbok edo zerak zielako ta. Erezen, bai tokau be, Atxabaletako maistro-maistria, andra-gizonak zien, eta bere seme bat eukien, eta semia. Ba egunero eukitten gauen eskolia, klasia, ikasteko guk gaztiok. Gero nire anaiak eta…
-(…)
-Bai, bai, danok junto giñan-ta, eta danok etxe baten zela junto gengozen, ba orduen aprobetxauaz han euela umiok danok ala! Goixien-edo, ez naz akordetan goixien edo arratsaldien neu ez naz akordetan, baiña eskolia eukitten gauen, esaten dana. Eta orduantxe hantxe ikasi nauen nik irakurtzen.

2.118. 'Catón y rayas' liburua

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Miren Gaztelu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-029/005
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:11:54. **Bukatu**: 00:14:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Catón y rayas liburuarekin ekin zion ikasteari Goroetako babes-baserrian. Baserri horretan izan zuen maistrarekin, doña Cirilarekin, jarraitu zuen gerraostean kaleko eskolan. Gurasoek ez bezala, baserri hartan igarotako denboraldiaren oroimen gozoak ditu Miren Gazteluk.

Transkripzioa
- Aittak, aitta ta, klaro, etorten zien egunero “kalera” esaten zana fabrikara ba lanera, ezta?, eta kaletik eruen usten liburu bat “Catón y rayas” izena eukena. Letra inglesakin gaiñian ifiñitta “Catón y rayas”. Ba handitxik, han ikasi nauen nik, hasi nintzen irakurtzen, osea, ikasten, orduantxe. Ateraizu kontua, orduantxe be suerte txarra, e. Ikasten hasi nintzen con Catón y rayas, lau-bost urtekin.
- (Nun zeuden maisu-maistrak?)
-Bertan eozen, etxien eozen, bai, gu gengozen moruen beste batzuk pe hemetik juanda eozen eta ba hantxe gordeta-edo. Kaletik alde eindda. Eta hantxe juntau giñan danak eta bestiek euzenak zien maistro-maistriek. Asi ke tokau jaten e…

- (…?)
- Ez, ez zien ez. Zien hemen maistro ta maistra zienak. Andrie zan umien, ume parbulo txikiñen maistrie zan. Gero be bai, kalera etorri gintzenien gerra ostien be bai, gerra ostien nik jarraittu nauen, eta doña Cirila izena eukena, berakin ibilli nintzen hemen kalien zera eitten, plazan, eskolan ibilli nintzen. Orduantxe hasi nintzen ni, “Catón y rayas”, hantxe irakurtzen hasi nintzen.Ikasten, irakurtzen ikasten, bai, “Catón y rayas”. Eta gero handik neretako, neretako eta guretako, nausixak gauza bategaittik eta gu gaztiauak gintzelako, hiru-lau hillebete ein gauen baserri hartan eta guretako izen zan, bueno! “viva la virgen!”, gu ibilli gintzen han… Gure gurasuak ez, baiña gu bai. Oiñ akordetan zara gauzak, gero entzunda, ez ni akordetan nazelako ze pasetan zan. Ez. Baiña gero entzunda bai. Amai ta zerai ba zelakuak pasetan zittuen bata etorri dalako, bestie juan dalako. Baiña ez, ni ez, ikusitta ez. Nik han oso ondo pasau nauen. Honbre!

2.119. Gerrako pasarteak etxe inguruan

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Miren Gaztelu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-029/006
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:14:30. **Bukatu**: 00:17:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena**: Miren inauterietan Pospolin jantzita, soldaduak baserri inguran, eta etxeko ugazabari "espioi" salaketa egin zioteneko gerrako pasarteak. Ez omen zen asko behar izaten egoera haretan edozein eraila izateko.

Transkripzioa
Karnabal batzuetan, ointxe sasoi hontan izen zan eta, klaro, edurra ta gauzak ein zittuen, karnabal batzuetan nire aizta nausixena zan dantzarixa, anaia be bai eta aiztia be bai. Pospoliñak esaten jakiena zan. Eta zaukan ba jantzixa, gonia zan berdia eta zera, gonaultza esaten gontsan guk, holako zera beltza ta hola, eta karnabaletan nere amai akordau jakon Miren, aiztia bi urte gaztiaua da bestia, ba dantzari moduan, pospoliñ jantzixakin jaztia. Jantzi nindduen, eta ni han inguruen nenbillen gora ta behera ta baserri inguruen eta hola, eta hor nun nire amak ikusten dauen soldau batzuk, ez dakit goittik behera edo behetik gora oiazela, edo behintzat zera. Eta derrepente akordau zan, “ene! Gure Miren jantzixakin, euskaldun jantzixakin, klaro, hor kalien, kanpuan dabil". Eta nundik eta nora zoratuta, eta nun topauko nindduen etxera sartu ta jantzixok kentzeko, ze bestela holakotxe tontokerixak, baiña zien oso garrantzizkuak zien horrek gauzok. Bueno… Bati ez dakit zer esan eutsolako, “por espía”. “Por dónde se va a no sé dónde?”, hango jabiai edo esan otsola; gero entzunda, e. “Pues se va por aquí, o por allá”, karlistan batzuek, edo reketiak; karlistak ez, reketiak. Eta, klaro, nire ama bastante argixa zan, eta konturatu zan. “Aiba! Hori reketiekin ze, ze esaten ete dabil?” “Zer esan dutsazu horri?” “Hauxe galdetu dustie, aber nora juan leikien, nundik juan neikien ez dakit nora eta badakit nora. Eta esan dutsat ba harutza eta honuntza eta ez dakit ze.” “Baiña zuk ez dakitzu ez dozuna iñokin be berba ein biher”, eta hau eta bestia, eta halaxe pasau ei zan, eta handik egun

bira edo etorri zien eta jatxi auen hona kalera eta eskerrak eren zerak, tiok parte hartu auena, bestela “por espía”. Horixe esan utselako erreketiek “por espía” hil ein bihar euien, bai, bai. Reketiekin konbersaziñue euki auen gizona etxeko jabia zan. Eta nire ama konturatu zan eta, “ze esaten dotsazu horri, zatoz hona etxera.” “Ez, ba hoixe ta hoixe esan dostie.” Por espía. Eta zer? Ez zan espia eta ezer ez, eta esan otsiena be ez, baiña ez zan ezer bihar, ezer ez. Zera eitteko, eitten otsuen dana eitteko, hiltteko eta erueteko eta ekarteko eta beste zerak eitteko.

2.120. Kalera itzuli zenean

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Miren Gaztelu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-029/010
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:26:20. **Bukatu**: 00:28:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Kalera jaitsi eta geroko gauza asko ez ditu oroitzen. Baserrian berak ez zuen lanik egiten, baina bere anaia ibiltzen zen artaldearekin laguntzen. Kalean eskola aurrean bandera jaso eta himnoa abesten zutela gogoan du. Viteri eskolan egiten zituzten halakoak, eskolara sartu aurretik.

Transkripzioa
-Eta gero jetxi gintzen kalera eta ni ia gerraosteko gauzak gutxi. Bai, eskolara ta eskolatik kanpo zela ibiltten nintzen jolasien-ta horrek bai, baiña bestela ondoriuak ez naz ni…
-Baserri lanetan eta ez zinen ibiltzen.
-Ez, ez. Keba. Baserri lanetan gaiñera, ez dakitt lan eingo auen be. Bai, bai, eiñ eingo auen, bai, ze artaldie ta bazan behintzat eta holako gauzak bazien behintzet basarrixan, bai, hoixe eingo zittuela. Baiña bueno, ez, keba, holako gauzekin ia ez. Oin, nire anaiak eta horreik bai, buenooo! Horreik ibili zien pastoriekin atzien. Buenooo. Batian hau, bestian… Gaiñera udabarrixen zerak jaixo ziela, zelan da… arkumiak esaten dou oiñ baiña guk ez dou esaten arkumiak. Zelan esaten dotsau guk… bilotxak, bilotxak jaixotzen ziela, eta hau bestia ta. Horreik bai. Baiña entzunda, entzuna bai, baiña ez nik ikusitta ta nik zera eindda ez. Entzunda bakarrik. Hori bai. Eta bestela gero kalian-ta holan ba beste danan moruen. Oiñ hori esaten dauiena, egunero eskola aurrien hor jarritta banderia jaso ta zera jo, Himno nacional edo gure dana jo eta horrek entzun eta gero eskolara sartu eta horrek bai.
-Akordatzen zara?
-Jakiña! Jakiña! Hortxe, hortxe, eskolia hortxe goixen zan. Eskolia, gaiñera, Aretxabaletako eskolia Viterixena da. Gutxi daoz, Gipuzkuan oso herri gutxitan daoz Viterin eskolak. Mondrauen, Errenterixan eta Irunen eta ez dakit nun-eta. Baiña hemengue be bai. Eta erdixen euken balkoia, eta balkoia, jakiña, banderia ifiñi eta aurrekaldien danak formauta, klaro, danak illaran ifinitta, ondo ifinitta ume danak eta zera jota gero barrura sartzen giñen eta kitto, eskolia bai.

2.121. Aretxabaletako bainuetxea

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Miren Gaztelu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-029/018
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 00:50:00. **Bukatu**: 00:53:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Amonarekin batera joaten ziren bainuetxe aldera paseatzen. Kanpotik begira egoten ziren errezel dotoredun etxe handira. Bere ama jostera joaten zen bainuetxera. Madrildik eta beste leku batzuetatik etortzen ziren "bañistak". Zumar handiak zeuden bainuetxeko sarreran. "Portasol-Madrid Txikito" zuen izena bainuetxe horrek. Mirenen osaba bizargina ere joaten zen bertara lanera.

Transkripzioa

- Baiña baiñuetxe zaharrakin-da, baiñuetxiakin-da, hori akordetan naz. Oso ondo gaiñera. Bai. Esan dotsut amamakin beti ibiltzen nintzela harutza ta honuntza. Eta hementxe tabernan behien dao argazki bat, eta oinddio Txaro aiztiai esan nutsan “ikusi dozu argazkixa” ta bai. “Akordetan zara?” “Bai, oso ondo gaiñera.” Atetik begiraketan gauen eta ikusten gauen kortiñak, kortiñak ez, kortiñoiak goittik behera, holan raso koloria, holako larrosa kolorekuakin holan goittik behera holan zerak. Eta atien ifinitta, zelan da, lista de precios edo gura dana, ate kontran ifinitta: “Café tanto, el té tanto”, han ifinitta erderaz holan zelan euen ate kontrara zelan euen txintxilizka. Oso ondo. Ez naz ba akordauko. Bueno! Bai horixe, bai, bai, bai, eta aurrekaldien zelan euken. Oinddio hori atzo arte egon da ta. Bueno! Noiz arte egon da ba hori? Eta uretsa zelan euen han barruen. Dana. Bai-bai-bai. Hara joaten gintzen ikusten. Bueno, dana auen goittik behera jausten baiña. Hori noiz arte egongo zan ba? Nire ama josten, joskiña zan, joskiña, eta josten juaten zan baiñuetxera ura denporan, osea, etorten zienien bañistak, berak esaten auen morduan. Bañistak etorten zienien Madrilletik eta holan, ba josten juaten zan baiñuetxera. Ez da hain, e... Noiz arte egongo zan ba hori? Neskatillak hoixe juaten gintzenien ikustera baiñuetxia. Bueno! “Ya lo Kreo!” Oso politta zan gaiñera, euken sarrera bat holako..., zumarrak die “olmos”?, bai, ezta? Zumarrak, olmos, baiña izugarrizkuak, haundixak, holan paseo haundi bat eta ingurua ta oso politta zan. Oso-oso politta.
- Jentia kanpotik etortzen zan?
- Klaro. Zegaittik uste dozu ba daukala izena hak goixak Puertasol, Madrid Txikito? Hortitxik dator! Jentia etorten zan Madrilletik eta urak hartzen eta etorten zien baiñuetxera beranietan edo gura dana, eta ha goixa, oiñ Ibarra edo gura dana, baiña, lehen be halan izengo zan baiña, Puerta Sol izena, guk oin be Portasol deiketan dotsagu, e. Hak Portasol izena eta Atxabaletari esaten jakon Madrid Txikito. Horretxegaittik, baiñuetxera etorten zien bañistagaittik. Baiña esaten dotsut, gure ama zera eta nire tio barberua zela zan ba barbero moruen juaten zan-ta, bai, bai.

2.122. Monagiloak, sakristauak eta "amakasak"

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-031/006
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:07:30. **Bukatu**: 00:10:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Ardirik ez zuten inoiz eduki. Lurrak oso aberatsak ziren, baina erripa handietan zeuden. Laian aritutakoa da Antonio. Olabe baserria eliza ondoan zegoen, eta Olabetarrak ziren bertako sakristauak. Antonio monagilo ibili zen. "Amakasa"-k (serora) garbitzen zuen eliza. Don Francisco Saloña zen abadea, doktrinazale amorratua.

Transkripzioa
- Eta ardirik ez zeukein?
- Ez, ardixak, guk laixan ittegauen, badakizue zer dan laixan?
- Bai, nik ez dot sekula iñ baiña badakit zer dan.
- Ha izaten zan ba jakiña, terrenu danak euzen, aldapa haundixak, eta lurra asko behera fan ez dain ba laixiaz lagunketan jakon, bestela behia berehala kargetan zan, eta lurrari kaso in bihar. Lurrak fiñak ziren baiña erripak, aldapa haundixak, baiña bestela garixa hartzen ta babia ta holako gauzak, kosetxia hartzeko oso onak ziren, ta heldu denporaz ta onak ziren parajiak, baiña gogorrak, lur gogorrak, sikatu be nekez baiña gero busti be nekez.
- Laixan ze itten zan, betik erripan?
- Erripa, hareik geixenak, nere jaixotetxian gehixenak, elizien ondo-onduan dago nere etxia, sankristaua giñen.
- Zeuek ziñain sankristauak?
- Bai. Hamazortzi urteaz be fanda nau ni mezia esan ereitten abariari.
- Esan ereittera?
- Bai.
- Ez zan bestela gauza ala?
- Behixak itxi soluan, eta harek kanpaia joten auen zazpi ta erdi inguruan, eta monagillo txikirik ez euen mutikorik auzounan, eta gu sankristauak.
- Zeuk in bihar monagillo.
- Ha […] ezin ba fan, ta abariari mezia emun, ta berriro behixak, behixak han, ba solora. Bai, txikitxuak, han ibiltten giñen.
- Eta beste ze lan eukitten zeuein sankristau moduan?
- Handik gaiñera? Handik gaiñera ba lanok, ze ingo geuen ba?
- Elizia garbittu eta zeuek itten zebein?
- Ez, ha amadekasiak, amadekasiak itteuen. Gure lana izaten zan abariari lagundu ta […] kantau.
- Zela da kantu hori?
- Hori? Ahaztuta daukat nik.
- Latiñez.
- Bai. Monagillo eta ene!
- Zein zan abaria orduan?
- Don Francisco Saloña. Eta beste loba bat eukan Ekuadorren euena, “Don Leandro”, ta gero beste zazpi urtien, hor misionero egon zan. Abaria ya

zaharkotia zan harek ez eukan, dotriñia eta dotriñia, bi alkarren onduan baegozen buruairi alkarri jo eragin klank, klank, eta holakotxe buruakin mutikua etxera!

2.123. Antonio monagilo fina

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-031/007
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:10:22. **Bukatu**: 00:12:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolan bederatzi urterekin hasi zen. Irakurtzen baino lehenago ikasi zituen errezoak. Mezan lehenengo esaten diren berbak latinez eta buruz ikasi zituen Antoniok. Baita beste meza-laguntze lan guztiek ere.

Transkripzioa
- Eta eskolan be bertan ibilli ziñan?
- Eskolara fan nitzan ni lehenegoko aldiz beratzi urte kunpliuta, anaiagaz bialdu nindduan ta, berandu izango dala eta lehenengoko eskolara fan gitzanian eskolarik ez.
- Eskolarik ez?
- (Loba): baiña bertan be egoten ziñain gabaz.
- Bertan bai, gabaz, gabaz.
- Gabaz abariakin, e?
- Bai, ta oraziño danak, harik eta komuniua txikixa itte arte, kantuan ikasi gittun guk. “Aitta guria, zeruetan…” jarri korruen mutikuak eta dua hartzen da ta ez letrarik ez leiuten eta ez kristorik, ezebez, eta “aitta guria…” gero hareaz tonadiaz gero banan erakusten zittuan, preguntauten oskun, liburutik barik, “aber zuk, aber,aber…”, hola noizian behinian behin.
- Oseake ikasi zittuein errezuak, aittaguria ta irakurten jakin barik?
- Danak, danak, errezu danak, baiña ez hola gaiñera edozein modutan, ondo, […] ikasten danak ahaztuta dauket baiña indda nau ni urte bete pasau, dotriñatik.
- Zer ikasten?
- Mezien leheningokuak, (…), lehenengoko berbak. Eta leheningo abariak esaten euen ba han, aurrian? Monagilluakin altarera fanda?
- Ni aspaldixan ez naiz egon.
- Bai, antxiñakuak, honeik entendiuko euen. Bai, abaria aurretik faten zan monagillo, bi monagillo, ta gero han leheningokuen aittiaren ta semien ta gero “dominus vobiscum” ta esaten zittuanian kontestau, biñajeretan ura bota, izten euen sobria purra eran ta...
- Ezkutuan, ezta? Hori neuk be indda dakot, neu be ibilli naiz managillo ta.
- Jo ta akaboko gindduen, ikusi baginddu.

2.124. Julianek "noturnorik" ez

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-031/010
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:17:20. **Bukatu**: 00:18:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Julian lehengusu fraidearekin hileta elizkizun batean suertatutako pasadizoa kontatzen digu Antoniok.

Transkripzioa
- Eta notornua kantaten zan mezietan aurrera fanda, notornua, Oñatin be antzera ingo daue, edo ingo euen. Oin e, fanda dagoz horreik baiña, notornua kantetako gertu eta kantau [...], eta berak zeretik urten naz, sakristixatik urten naz, “etorri hadi ba, etorri, jentia begira jak eta etorri hadi ba”, “ni horra, (euskeraz erdi ahaztuta eukan), ni horra bapez fan”; “baiña jentia dauela zai”; “ni horra” eta barriro aitta hori zera fanda, aittak be ondo ekixen zelako zein zan, eta aittiorrek “etorri bihar dok edo ze in bihar dok?”, barriro “ni ez, beorrek batez emun neuri, neuk be ez beorri”. Etxia fuertekuak ziran, gaur be bai eta orduen be bai, ta “neuri bapez emun, neuk be ez beorri”. Halakon baten noturnuori kantau eragin otsan aitta horrek eta aittak hasarre. Holako abaderik ez juat nik ikusi, bera ez doiela errezetan, ha zeuen mormozetia.

2.125. "Maiordomo" Untzillan

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-031/011
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:18:41. **Bukatu**: 00:22:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena**: Untzilla auzora etorri zenean, sakristaugintza urtero txandatzen zuten auzoko baserriek. Tokatzen zitzaionari "Maiordomo" deitzen zioten. Araoztar abade on bat gogoratzen du, Don Jorge. Errespontsuak txapelean batzen zituen, eta batzuetan batutako dirua mutikoei botatzen zien.

Transkripzioa
- Eta gero honutz etorri ziñanien, hemen be antzerako kontuak egozen-edo?
- Zer, hemen?
- Honutz etorri ziñanien, Atxabaletatik...
- Hementxe ba, bizi.
- Hemen be antzerako kontuak?
- Ez, hemen diferentziak...
- Hemen ez ziñan sankristau?

- Ez, sankristau txandaka hemen, etxe bakoitzian urtien bat egoten zan. Eta oiñ hillian itten dogu, kandelak ixo ta lagundu, hillian batek, beziño batek. Baiña orduen urtian, kanpaia jo, kurtzia ibili entierron bat beuen, edo kurtziagaz-edo, lehenauko legera. Holakotxe lanak itteko urtien bat egoten zan; neuri be tokau jatan birrittan edo hiru bidar-edo, maiordomo esaten jakon, abariari lagunketan. Gero errekaun bat abariari, hau edo zerbait in biher bazan ba abariak. Abariak ez auen lanik itten. Abariek e… bat euki gauen abaria ona, Zarauzko semia, Don Jorge Barandiaran-edo apelidua zela eukan, honeik komerixak eñiko abariak. Harek erresponsuak, erresponsuak abariendako beretako izaten da, urtien meza bat edo bi emuten (di)ttu, han batzen zan diruaz, orduen, oiñ bapez, oiñ dana barrura. Don Jorgiori, amadekasia zelebre bat euekan, eta bera zelebre haundixagua, betik gurien egoten zan, ta jolasien eta gustaten jakon, eta erresponsuok iñ tte mutikuok elizpeian begira ta, “diru zikin hau zertako dizkiet ba”.
- (Loba): bota?
- Ba, txakur txikixa, aittaguriako txakur txikixa botate jakon, ha txapelaz egoten zan batzen, illarriestan, illarriestan, “diru zikiñok zertako biher dizkiat ba nik”, motikuok han buru apurtu bihar!
- Hareik diruak hartuta.
- Geure aittajunak eta aittak esaten auen, horrek, horrek abariorrek txakur txikirik be ezin lekiek aurreratu! Gabien etorri, ta gu mutikuok ohien bageozen, izaran hartu ta kortan, edo ganuak egoten diren lekuan, erdixen egoten zan zarramarriak, zerak azpixak egitteko zikiñak tapetako eta han belar pillan itxi. Mutikua fan ta…
- (Loba): han iretzartu igual.
- Iretzartu, gure Endrikeri, ni artien txikitxua nitzan, baiña honein aittek, zenbat bider ete euen, tio Gregorio, ta harek berak hartu ohien, ta izaratako beste osuen hartu, gero zera hartu ta kortara eruan ta, ene, ene, ene, komerixak!

2.126. Abadeekin harreman handia zuten Berraondotarrek

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-031/012
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:22:01. **Bukatu**: 00:24:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Don Jorge abadeak mutikoekin jolasean ondo pasatzen zuen. Txopitea, don Angel, don Frantzisko eta don Antonio; Antoniok Isurietako elizan ezagutu zituen abadeak.

Transkripzioa
- Fruta denporan, frutak be, ortua haundixa eukan eta hau ondiok, ta batu sagarrak edo makatzak-edo, ta mutikuak […] eta neskatillak be bai, fan bentanara, ta bentanan kirtenetik lotu, eta aber zeiñek hartzen auen, zeiñek salto haundixaua itten. “Ointxe, ointxe, hartu, hartu, hartu ointxe”, ta […] gorago altzau, baiña gozau itten auen holakotxe zerak itten.
- (Loba): hori nor jan ba, Txopitea?
- Ez, don Jorge. Txopitea aurrerau, don Angel.

- (Loba): atzerau egon zan Txopiteatik?
- Ez, ez, aurrerau, nik horrenetik honutzeko abariek danak jakixat zeintzuk egon ziren. Txopitea ez, eta azkenetan…
- (Loba): azkena izan zan don Francisco, ezta?
- Baiña azkenengo aldiz han egongo zuan, bai, urtiak.
- (Loba): azkena don Francisco ez zan izen?
- Azkenengua don Franzisko, baiña lehenagoko urtietan, ni mutikotxua, ni bautizau don Antoniok egin nindduan, burgalesa-edo ez jakiat nungua zan be. Eta handik honutzeukuak. Eta don Anjel be bai, don Anjel be popularra. Don Anjel be estudixuatik abarieri eskatu, edo obispueri zera-ta, puestua-ta kanbixateko han estudixetako, eta gero kanonigo edo ez jakiat zer in zuan, Donostian hil zuan Txopitea.
- (Loba): ehun urte ingurukin-edo hil zan.
- Bai, urte morduaz. Guk asko tratau gauen, horreik danakin, bertan eukitten auen, ezer biher beuen...
- (Loba): beziñuak.
- Hemendik eta hara, gurera beste ingurura eliziori, bertantxe.

2.127. Orduko eskolak

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-031/013
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:24:06. **Bukatu**: 00:25:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Bederatzi urterekin hasi zen eskolan. Hiru erregelak ikasiz gero, mutilak gertu omen zeuden garai hartan lanera joateko. Gauez ere egoten zen eskola. Anaia batek maristetan eta beste batek Fraisoroko eskolan ikasi zuten. Fraisoron ikasi zuen anaia gerran hil zen, Artxandan.

Transkripzioa
- Zuk esan dozu abariakin ikasten zeueilla errezaitten, kantuan eta zera; eta eskola formalik euki zeuein?
- Bai, beratzi urteaz fan ta, bertan eskolarik ezin, ba ikasi bai, bai, baiña orduan be beste gauza batzutaz […] egoten zan. Maistrua, maistruari erregalua itten jakon txarrixa hiltten zanien. Erregalua buskantzak eruaten jakon eta bestia ta jentia mezetara asko faten zan kalera, zortzi tt´erdittan. Eta maistrua ba kukuka, hiru erregla ikasi ezkero, “zu, semiak ointxe hiru erreglak ikasi eta ha ondo dau”.
- Zer ikasi?
- Hiru erregla.
- Ondo dau. Eta hurrengo egunean Arruenera mutikua fabrikara sartzeko. Oso sobresalientia izan ezkero, bien, baiña bestela ze ikasiko zeben ba? Hiru regla, hiru zeok, “multiplicar, dividir eta restar”.
- Zenbat lagun juntaitten ziñain eskolan?
- Eskolan kuadrillatxua, eskolan gabien be egoten zan, gabien nagusixak be bai, Endrikek be makiña bat, neu be bai, neuk baiño gehixau beste anaiek.
- (Loba): aitte maristetara be joan izan zan.

- Honein aitte maristetan, honein aitta eskolian ondo euen, eta beste anaie, Fraisoron egon zan, hil zana, gerran hil jatena.
- Fraisoro, diputaziñoko eskolan?
- Bai, urte bixetan sobresaliente atara auen, gero propuesta danak euken puestuek hartzeko, baiña gerriek hartu auen ta, deittu otsain soldau ta Artxandan hil zan.

2.128. 800 mozkor

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-031/025
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:59:58. **Bukatu**: 01:02:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Soldadutzan, Tetuanen egon zen. Nafarroan makiak gogortzen ari zirela-eta, beste 800 soldadurekin etorri ziren trenez Tetuandik. Lizarran gelditu ziren, errekan apur bat garbitu ahal izateko; eta, garbitu ondoren, herrian edan zuten ardoarekin den-denak mozkortu ziren.

Transkripzioa
- (Loba): oiñ beste gauza bat kontau bihar dotsuzena da handik hona, Estellaraiño etorri ziñatenien, ha kontau egiozu.
- Ha, mozkorra?
- (Loba): mozkorrena kontauizu. Biajie lehenengo handik, Estellatik honaiño...
- Hemen makixak egozela, eta han gu fuerza asko geozen, beratzi kintta artien, eta makixak hemen fuertatu ziren, ETAn hasieria, hemen. Orduentxe zan ETAkuak zirela, bestiak zirela, makixok ba dominauta, egundokuak itten gittuen. Eta hartu eta ekarri gindduen, bialdu, etorri gitzan hona, gure kinttakuak danak, Afrikan eozenak, Pirineuetara etorri gitzen. Beratzi-hamar bagoika mutil, bostehun in gittuan bidetan, “mucha carga, poca fuerza; mucha carga, poca fuerza”, halako baten aillau gitzuan. […] ez dakit, hamarna pezeta-edo ziren, hango deretxo danakin eta dirua danok geukan. Trenien urteten batien ta bestien...
- (Loba): baiña aillau ziñaten Estellara, Lizarrara.
- Bai. Gero bagatoz apurka-apurka eta Estellara. Eta zertu Estellatik eta Panplonara fan biher gauen, baiña “limpiar un poco”, bi teniente espediziñuan etozen, “limpiar un poco y aquí vais...” errekia bertantxe, […] errekia. Pozik fan ta ur trago bat leheningo in eta ba sikuaz, jan eta ezebe barik, eta dirua be danok. Estellara fan eta mosuok-ta garbittu, dana, pozu guztiak beteta, bostehun inguru bai, danak […] mosua garbittu genien begira ekin gotsan. Han leheningo ikusten gauenari “¿donde hay aquí el bar?”, bestiari “¿donde hay aquí el vino?” “Aquí el vino todas las puertas”. “¿Si?” Eta […] eta danien ardaua, makauen la puñeta! Atiok zabaldu gittuen bai zabaldu! zortzirehun moxkor, neu ez beste danak, bat be zutik egoteko gauza ez!

2.129. Sardinak gauez

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-032/005
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:08:59. **Bukatu**: 00:10:42
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Soldadu andaluziarrak analfabetoak ziren gehienak, eta Aretxabaletako lagun bat zen haien irakasle. Jan ere aparte egiten zuten haiek, eta beraiek baino hobeto. Sardinak eraman zizkion behin lagunak ohera.

Transkripzioa
-Hara faten zienak gehixen-gehixenak andaluz jentie [alfabetu bakuak] izeten zien danak kasik. Ez firmetan eta ez entzun be itten ez euenak. Eta ni, e, intimo lagunak gitzen Atxabaletako mediku baten semie, Eduardo Agirre, eta ha maistro, erderaz be bai, eskolie be bai. Guk ezebez, ez eskola eta ez erdera ganorazkoik ezelakoik be ez. Ha sartu zan Mayorixan berihelaxe, ta Mayorixatik be ikusten zittuen kasik andaluz gehixenak [zerik be ez] eta maistro, eskolie eundoko pabilloiak eskolie, firmie botaten erakusten utsen eta kalera, guardixara. Ta haek itten euenak, eta gero jana be aparte eukitten euen, harek berandu [ibiltten zien] eta errelebuak [itten euen] eta ha[rek] jana be beti peska edo beti sobrie, eta nik lo itten neuen lekure, ha beste konpañia baten euen, Compañía Destinos euen, eta ni Puentes. Eta harek "un poco mimaus zien" hanguek danak, eta gu gosiak amorraketan gengozenak, eta gabeko hamaiketan "Silencio" jo ta: Tok-tok. "Antton, Antton" "Ze bihok?", eta "Jaik honek sardiñok, nik harrike bota biher jittuat eta". Lo eittiai bertanbera itxitte aguro jan azur eta guzti.

2.130. Soldadutzako jana eta gaixotasunak

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-032/006
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:10:42. **Bukatu**: 00:14:27
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena**: Goserik ez zuten pasatu, baina arrantza jaten zuten asko. Tangertik ekarria. Lau-bost litrorekin 900 lagunentzako janaria egiten zuten. Colitis gaixotasuna harrapatzen zuten erraz. Komunetan urik ez zegoen. Odola botatzen hasten ziren. Txuskoak eta garbantzu beltzak. Jende asko zegoen. Gaixorik nola egon zen, 42ko kalenturarekin. 37 egunean egon behar zen 40ko kalenturarekin, etxera bidaltzeko.

Transkripzioa
- Gosia pasau zenduen?
- Gosie-gosie ez, baiñe. Ez grasaik eta ezebe barik emuten oskuen-ta. Diarreak-eta eukitten gittuen asko. Peskie asko egoten zan. Hau pulpuau berriz ugeri; hori sanotxuaua. Baiñe peskiek, e, zeretik ekarten euen peskie, Tangertik, eta horra orduko dana pasau itten zan. Eta gero itten euen ez olixo ta. Honako lau-bost litroaz beatzirehun laguni perolie, eta bueltan-bueltan-bueltan koloketan gittuen erreskadan. Eta erdixen bota kipula-ta refrito bat ein beste perola baten, eta braust bota, uretan kubridu eta pri-pri-pri!, eta "al rancho". Ta ha bastante ugeri emuten euen, baiñe ahuen tragau orduko adios! Eta kolitisak ebaketan oskun. Kolitisak, azkenien diarreak segiduta segi ein ezkero odola mobiduten da. Neu be egonda nau. Eta komunien ezin sartu, gaiñera. Komunak eozen beratzi-hamar erreskaran. Urik eta ezebez. Urek ba eskobazar batzukin bultzau eta beti be ura bota ta. Nonbrauta egoten zien, eta bota harutza ta, ta hara kakaiñeko lekuen mataderixan txarrixak letxe odola eta odola, eta hurrengo tiriziak ataketan dau odola bajetan danian, laru-laru-laru eitten da. Eta ene!, ene!, ene!, horetxegatik gaxki. Gaxki ifinitta ta pasaua (arraina). Azkenian bapez janda, ta bapez be ezin egon. Txuskua emuten oskun, eta txuskue emun eta jan orduko, kitto. Hiru-lau garbantzu, erdixek baltzak, eta harek biaje. Gero azkenera apur bat, apur bat itxuratu zan, baiñe eeei! Gero jentie be, jentie be satsan letxe ta. Lotsie botata eozenak asko. Harek gorrixetan ibilli(ri)ko jentie euan han, eta gu mutiko harzen gindduen. (Barreak). Harek be pasau zien baiña ez behinguan. Nik, e, "fiebre malte"k ebatu ustan. Eta euki nittuen termometrue ifini erozein ordutan eta gehixen marketan dau cuarenta y dos; cuarenta y dos y medio, cuarenta y dos. Goxa izen atsaldie izen "cuarenta y dos".
- Ez da gozua izango...
- Gozua ez, azkenien [...]. Hirurogeta hiru kiloaz egonda neguen, geratu nintzen. Etxera bieldu nindduen. Egonda nenguen, hogeta hamazazpi egunien egon biher zan fiebre haundixaz. "Para el que (no) pasa el cuarenta" permisoik ez, eta "cuarenta"tik pasauta egoten bazan, hogeta hamazazpi egunian, bi hillebeteko konbalezenzia. Eta gero etxera bialdu nindduen.

2.131. Soldadutzako zigorrak

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-032/012
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:24:43. **Bukatu**: 00:26:05
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena**: Soldadu mozkorrei lagundu egiten zieten tenienteek ere. Hori bai, hurrengo egunean egurra, akatsen bat egiten bazuten. Zigorrak: hondar zakuarekin patioan bueltaka eta jana irakiten jan behar.

Transkripzioa
-Gero mozkorrak libre eukitten dau, zenbat haundixao hartu hobeto hartuko zaue. Mozkorraz ikusten bazaue, kapitana bada be, hartu eta erretirauko zau. Ero kuartelera ero norabaittera. Baiña gero hurrengoko

egunien badaukotzu bekarraan bat diferente, hau (egurra) eta hamar-hamabost kiloko haree-zakua ifini bixkarrien alanbre mehe-mehiekin, eta lau-bost buelta igual patixo danai, patixuak, barriz, kilometro bat inguru bueltaka. Ta beste berdugo bat makilliaz atzetik daleketepego itteko. Ta barriro jan-ordua aillegau eta harekin zer guztiekin jana ifini -haik soldauen aldien ondo jaten euen-. Jana ifini irekitten eta han bueltie in orduko jan in biher. Ta paso lijerua markauaz.
-Eta hori alanbriakin lotuta?
-Alanbriakin lotuta, alanbre guztiaz. Jausten baziñan akabo. Bestela tratau oso ondo bertan bazebitzen, baiña deskuidun bat itten bazauen, akabo. Hil asko.

2.132. Sokatiran irabazle

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-032/018
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:31:05. **Bukatu**: 00:33:57
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
  Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
  Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena**: Soldadutzan sokatiran ibiltzen ziren euskaldunak, eta legionariek ez zieten irabazten. Bi anaia zeuden teniente, eta haiek erakusten zizkieten taktikak. Disko jaurtiketan eta pisu jaurtiketan ere irabazi egiten zuten, Santanderko batekin. Futbolean ere ondo ibiltzen ziren. Mandoarekin entrenatzen zuten, sokatiran.

Transkripzioa
-Deportian sokatiria, kerten kuadrilla bat gengozen hor euskaldunak, eta sokatiran iñok be ez oskun irabazten. Pixue biher zan eta. Eta gero informauta gengozen zeeko bat, nungua zan be instrutoria, teniente Durango. Bi anai eozen. Eta harek erakusten oskun zerok, taktikok. "Así tiene que ser" eta..., irabazten eta. Eta gero irabazi kanpeonatua, eta kanpeonatuoi itten fan gitzen leginarixuetara, eta harei be egurra emun. Irabazi sokatiran eta. "Lanzamiento de martillo", bueltaka botaten dan hori. Beste bat plato bat, oin be botaten dittue horreik. Gero "Lanzamiento del peso", zazpi kilokua hola, ddii!. Horrek danotan pruebak eta. Platue botaten euena danai irabazten utsena euen santanderino bat kriston besuekin, eta harek hartzen zittuenien eta berak euken baibenaz eta basuetaraiño botaten euen, eta beti irabazten. Sokatiran, barriz, gu egoten gitzen, eta sokatiran [eskasena?], nanuena neu. Bestiek holakotxe mutikotiek. "Tenéis que tirar así. Tenéis que tirar a la otra forma. No respirar mucho. De respirar se pierde mucho" ta bueno! Guk haik tarras ifini orduko aidian bueltaka legionarixo zar guztiok. Bestiek fubolien be bai. Fubolien be Donostieko Agirre-ta eozen fubolista onak, ondo eitten euenak gaiñea. Ta kanpeoi egon zan urte bixen injenieruetan. Madrillera etorri ta Madrilguei be irabazi gutsen urte baten. Madrilgo holako klasifikaziñuoi, euren klasiai. Ta beste honei be Algeciras eta bazterretakuak jota su emon eta kitto. Eta ondo pasetan zan. Bokadillue emuten euen eta añiketa batzuk eraiten zittuen baiñe. Gero sokatiran ifini mulak. Mulak ifintten oskun kontra. Gu hemetiko aldetik zortzi mutil. Bestealdian mandua.

Manduai samur irabazten jakon.
-Bai? Manduai samur?
-Bai. Ha da!-da!, konsegidu itten badau faten, orduan ez. Baiña konsegidu arte listo eonda eusten ba dutsazu pot itten dau. Bera be atzeraka.

2.133. Hiru egunerako ziegara

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-032/021
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:36:01. **Bukatu**: 00:38:34
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena**: Guardia egiten zebilela, batera eta bestera, koronela leihotik begira. "Usia"ka tratatzen zuten koronela. Esan zion hamar pauso soilik eman zitzakeela alde bakoitzera. Erreleboa eskatu, eta ziegara bidali zuen hiru egunerako.

Transkripzioa
-Baten tokau jaten Mayorixa azpixen guardixan. Puestua egoten zan, guardixie, eta tokau jaten ba haraxe guardixara eta. Jakiña, puerta prinzipalian eta zentinelak ezin leike ein, hamar pauso harutza eta hamar honutze. Eta ni baneuen, gaiñekaldien bizi zan, txaletillo bat eukon bertantxe, holaxe begitu besteik ez. Eta tipuoi han goixen, bentanan. Miradore, bentanan behera begire eta. Mekauben , ni ba batien harutza fan eta bestien honutze etorri eta holako inportantzie bako... Prinzipala izen balitz baiña, han nebillen bueltaka ta. Hor plantetan jatek koronela, taka-taka-taka, -taka-taka, ta: "Usted no está informado bien". "Sí mi Usia, sí mi Usía!" Ha be "Usía" tratau biher. Koronela "Usia". Eta "usted no está informado bien". "Sí mi usia, me parece que sí". "No. Usté para allá no puede hacer nada más que...", berak ebatu eskutik eta: "uno, dos, tres, cuatro, cinco, seis...", hamar pauso. "Ahora allá otros dies puede hacer. Más no. Llámalo al cabo cuartel". Ointxe fan biherko juau keizpera. Txarra zan, Imanol Martinez Ruiz.
-Kabuoi?
-Ez, koronela. Ha gizon haundixe. Balazo bat ahuan, matraille guztia apurtute eukon eta. Ointxe fan biherko juau. "Díle al cabo que venga". Ta "cabo!, cabo!", urra neuken baiñe entzungo ete justek, fango ete nok oin hemendik harutza , eta neu sartu kalabozuan. Konturatu zan eta etorri da kabuoi ta: "releve esto! Este no está bien informado y releve!". Relebau eta hiru egun kalabozora.
-Zeu?
-Bieko fan. "No está bien informao", nik ez neuken kulpaik baiña. Holakotxe ...

2.134. Aozaratzako eskolan ikasi zuen

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-033/003

- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:03:37. **Bukatu**: 00:05:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Gerraostean ez zuten goserik pasatu. Xabier kalean jaio zen. Aitak harrobi txiki bat zuen. Lan-istripuan zauritu eta Artabera joan ziren. Bertan hasi zen Xabier eskolan hiru urterekin, eta auzoko eskolan jarraitu zuen zortzi urte izan zituen arte. Hiruzpalau maistra izan zituen; maisurik bat bera ere ez.

Transkripzioa
- Zu gerra ostian edo gose (denporia) akabaitten edo hortxe jaio ziñan.
- Bai, guk gose-goseik ez gauen pasau. Eskasidadie igual bai baiña goserik ez. Klaro, ni jaixo kalien ein nitzen baiñe gure aittek kantera txiki bat euken hor Arbizelain, oin justo ointxe autopistiek dana desegin dau, harrapau ein doskulako erdi-erdixen, baiña. Hor kanteratxo bat euken aittak eta kanteran eitten euen lana, eta halako baten istripu bat euki euen, errebentau ein utsen zer batek, explosibo batek errebentau utsen pentsaurik ez euela funtzionetan fan zan berriro garbiketan ataraten edo ta justo hortantxe salto eiñ utsen da bota euen harri tta lokatza ta gizon danak fan zien goittik behera. Zaurittu ein zan.
- Bertan geratu zan bera?
- Ez, ez. Zaurittu ein zan nahiko grabe ta orduan ba amak aitte ospittalera eruen bihar eta egun batzuetarako eruen nindduen Artabera, bere etxera, amandrien aman etxera. Orduen ba han nengola ba eskolara bialdu nindduen, orduantxe hasteko, hiru urte ein barik ondio. Auzoko eskolara, bai, eta bueno, hasi-nintzen-hasi nintzen-hasi nintzen, azkenien han geratu nintzen auzuen. Eta sarri etorten nintzen kalera eta hola aitte ta aman etxera, baiñe zortzi urte pasau arte edo auzuen hasi nintzen ni, aittajun-amandrien basarrixan. Kalera etorten nintzen sarri, baiñe gehixao auzuen egoten nintzen hemen baiño, kalien baiño.
- Eta hori ze auzotakua da?
- Azatza. Aozaraza ifintten dau izena baiña guk beti Azatza.
- Goguan daukazu hango maixuak eta?
- Bueno, guk han maistrak euki gittuen. Maixurik ez geuen bat be euki. Maistrak euki gittuen, eztakit, hiru, lau edo bost. Ni hiru urtetik zortzi urte bete arte egon nintzen eskola hartan eta, eztakitt, urteko bat ero gutxi gora behera euki geuen.

2.135. Maistra errepublikazalea eskolan

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-033/004
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:05:52. **Bukatu**: 00:08:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Zamoratik Francok desterratutako Esuperancia izeneko bat izan zuen lehenengo maistra Xabierrek. Maistra hauek "interinoak"

omen ziren. Ikasturte batean bi maistra ezberdinekin ere ibili ziren. Aretxabaletako Bengoatar maistra bat ere gogoan du. Oroimen ona gordetzen du Aozaratzako eskolatik. Gaztelaniaz ikasi arren, euren artean euskaraz egitea libre zuten.

Transkripzioa
- Egon zan maistra bat Esuperancia eukena izena, eta zamorania zan. Etorri zien hona Atxabaletara hiru anai-arreba, hirurak maistruak, eta euren gurasuak be uste dot maistruak izandakuak ziela, zamoranuak. Eta entzunde daukatenez, hola familixa errepublikanokue edo ei zien, eta eztakit ba nik erdi zigor moruen edo Francok desterrau moruen ein zittuen honutza.
- Euskal Herrira?
- Bai. Eurak zamoranuak izenda. Eztakitt, hori da entzunde daukatena. Orduen anai bixak kalien egon zien, hemen Atxabaletan kaleko eskoletan egon zien maixu eitten, eta arrebie, Esuperancia hau, Azatzako gure eskolara bialdu euen. Eta ha izen zan nik gogoratzen doten lelengoko maistrie. Maistrie, baiña guk señoritie deiketan gutsen. Gure artien zan señoritie. Eta ha egongo zan bi urte edo hiru igual. Eta gero denpora..., nik uste urte baten be bi bider aldatu eiñ oskula maistrie. Zien interinak. Interina moruen etorritte maistra bat. Bat akordetan naz zala Atxabaletako kaleko neska bat, Bengoa, Benito Bengoa, Benito Bengoan alaba bat, baiñe enaz akordetan izena. Orduan ba hoixe, nik eskolan ein nittuen ba zortzi urte arte, eta bueno, han ibili gintzen. Nik rekuerdo nahiko ona daukat, oroimen ona daukat eskolakue, maistra honek, bereziki Esuperancia honek. Bueno, guk “Supertxo” deiketan gutsen.
- Supertxo?
- Bai. Gure artien zan Supertxo. Berai ez, baiña geure artien Supertxo. Ba nik uste dot honek tradiziñoz nahiko zera zala, etzan hola Francon garaiko beste maixu askon moruen, etzan hola ba esan daigun eskubitar edo autoritarixue edo etzan. Eta guri euskeraz berbetan itxi eitten oskun gure artien eskola barruan. Berakin dana erderaz eitten gauen, erderaz ikasi gauen berakin. Guk euskeraz han auzoko gehixenok garai hartan euskeraz bakarrik eitten gauen eskolara faten gintzenian, orduan garai hartako gehixenan moruen. Eta ni akordetan naz gure artien hola euskeraz da problema barik eitten gauela, ez gauela eukitten zigorrik.

2.136. Eguraldi onarekin eskola gutxi

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-033/005
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:08:26. **Bukatu**: 00:11:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Kaleko lagunak zigortuak izaten ziren eskolan euskaraz mintzatzeagatik. Xabier ez dute inoiz jo bere eskola urteetan. 20-25 ikasle izaten ziren elkarrekin, neska eta mutil. Negu partean ikasle gehiago elkartzen ziren udaran baino, baserriko lanengatik. 12 urtetik gorako ikasle gutxi joaten zen eskolara. Zortzi urtera arte bizi izan zen

Artabe baserrian, baina gerora ere 14 urte izan zituen arte oporrak han igarotzen zituen.

Transkripzioa

- Ni akordetan naz be bai kaleko lagunek esaten euen eraztunena-ta, zela inposatzen eutsien hori erderaz berba ein biharra ta, eraztune bata bestiai pasetan eta holako gauzak eitten, eta gero zigorrak eta ifintte utsien da eskue ifiñi eraiñ hola ta jo ta zera ta holako gauzak. Baiñe guri han iñoiz eztoskue...
- Zortzi urte arte eztozu zigorrik ezagutu?
- Ez, nik eztot ezautu holako zigorrik eta ezta iñoiz jo nauenik be ez eskolan.
- Suerte haundixa.
- Bai, suerte haundixe.
- Neri pasau xat.
- Bai, seguru, gure garaixan hori zan, arau normala zan hori, jotie, belarrondokuek emutie ta hori zan, bueno.
- Eta eskolan zelan egoten zineten, neskak eta mutikuek elkarrekin?
- Bai, danak batera, bai. Ha zan unitarixue.
- Goguan daukazu zenbat izango ziñaten gutxi gora behera?
- Ba egongo gintzen hogei, hogeta bost egongo gintzen gehixen egoten gintzenien. Gero negutik udara aldie egoten zan. Zenbat eta nausixauek faltau gehixau eitten euen, udan, bereziki. Neguen egualdi txarrakin ba hala!, danak eskolara. Egualdi onakin ba hasi bedarretan, edo basora fan bihe zala edo ittaurren ein biharra edo ganauzain edo hau edo hori. Betik egoten zan zerbaitt eitteko, ezta, baserrixetan. Eta bereziki hola apur bat nausitzen hasittakuak, hola hamaika-hamabi urtetik aurrerakuak ia gehixao faltetan euen. Eta nik uste dot eskolan hamalau urtera arteko baten bat egon izen dala, baiñe hamabi urtetik aurrera ia han eskolan etzan iñor (egoten); normalien, e, gehixenak hamabi urte arte edo hola.
- Zuri zeuri tokau izan xatzun eskolara ez fatia lana egiteagatik?
- Ez. Bueno egunen baten igual, egun raron baten, baiñe ni normalien beti eskolara bialketan niñuen. Ni lobie nintzen han, enintzen... Baiñe, igual dutso, hala ta be ni eskolara bialketan nindduen beti, hori bai. Oiñ, eskolatik urtenda gero bai, eskolatik urtenda gero basarriko lanak itten lagundu biharra, hori bai. Nik basarriko lanak umetan danak ikasi nittuen eitten. Esan gura dot ba igeteixe ebalten, segie, atxurre, aixkorie...
- Zortzi urtekin?
- Bai, bai. Zortzi urtekin? Honbre, ganajatekuek eitten bai. Bueno, zortzi, gero bakaziño denporetan eta beti hara fan izen naz hamahiru-hamalau urte arte. Igual zortzikin segan ez neuen eingo, baiñe segie hartute ordurako bai. Segie hartute bai, seguru. Gaur egunien horrek gauzak ez die imajinau be eitten.
- Segia zutik ipinitta zu baiño haundixaua izango zan, ezta?
- Ba, izengo zan baiñe; hantxe. Ez, igual norberak hartu eta zerak eitten hasi, gizonkerixek eitten. Baiñe gero ia beratzi hamar urtekin nik uste dot han auzoko danok eingo gauela. Neskak be bai segan. Esan gure dot /gurot/ ganau jatekuek eitten eta holako gauzak eitten. Segan saillien ez dot esaten, bedar ebaten ia hori gauza zaillague da baiñe gauza samurrak eitten bai, eta aixkoran be, bueno, aixkoran be etxerako egurrek eitten eta ume-umetatik.

2.137. Donostian moja eskolan

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-033/006
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:11:24. **Bukatu**: 00:13:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- **Laburpena**: Lau behi, idi parea eta astoa zeuden Artabe baserrian; baita txerri, hegazti, eta abar. Ardirik ez zuen ezagutu Artaben. Ez omen zegoen ardi askorik garai hartan Aozaratza auzoan. Auzoko eskolatik Donostiako moja eskola batera bidali zuten, fraidetzarako prestaketa bezala. Beti etxe barruan sartuta egoten ziren eta diziplina gogorra ezartzen zuten mojek. Han pasatako urteaz ez du oroitzapen onik.

Transkripzioa
- Zenbat ganau zeukatzuen Artaben?
- Han egoten zien normalien gutxienez lau behi. Lau behi, idi-parie, asto bat eta gero ba txahalak, egoten zien txalak, bi, hiru, segun.
- Eta hegazti eta koneju?
- Bai, bai, konejuek be bai, hegaztixek be bai.
- Oiluak eta?
- Oilluek eta konejuek gehixen be. Gero txarrixe be bai. Txarri bat, bat behintzet betik hazten zan.
- Eta ardirik?
- Ardirik ez, gurien ez, gurien ezta, nik ez dot ezautu sekule. Nik uste lehenau egon izen diela, han baserri gehixenetan eukitten zittuen artalde txikitxo bat, hogei, hogeta hamar edo berrogei ardiko taldetxo bat ba bueno, ba igual zelai baztarrak eta baserrixe garbiketako aldi baten eta gero apur bat basorutz bialdu eta hola. Baiñe gure garaixen ia ez, nik ez dot ezautu. Eta han Azatzako basarri gehixenak ez eukien ardirik gure garaixan.
- Orduan zortzi urte arte Artaben eta gero kalera etorri zinen handik?
- Ez. Artabetik..., bueno nik neuken, hemen Eskoriatzan euzen marianistak. Eta nik osaba bat neuken, neure aittajaunen anai bat fraillie zana hor. Eta harek gure euen ni frailletara eruetia. Eta orduen ba ama konbenzidu euen hara fateko preparetako, lelengo preparaziño moruen bialketie Donostiako monja batzuen konbentu batera, han urtebete eitten, ba ez dakit. Hobeto ikesteko gauzak edo gure dana. Eta han euki nindduen urtebetien, erdi sekuestrauta egon nintzen han. Oso oroimen eskasa dauket hangue, oso disziplina...
- Ze monja zien?
- Zien “Misioneras del Sagrado Corazón”, uste dot deiketan ziela. Eta eskolie, etxie eukien hantxe Paseo de Miraconcha uste dot zala. Aldapetako aldapan erdi inguruen eskumetara hartzen zan holako kale estutxo bat eta gero handik jetxi eitten zan berriro Kontxara, Kontxa parera. Eta bittarte horretan euzen bi konbentu, eta bat zan gure hori, monja honeiña eta gero euen beste bat ez nazena akordetan zeintzuk zien, ze monja zien.
- Han orduan gogorra?
- Han urtebete. Buu!, han bai. Han beti disziplina oso gogorra, betik etxe barruen sartute. Klaro, ni ohittute nenguen baserrixen basora faten.

2.138. Donostiatik Eskoriatzako maristetara

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-033/007
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:13:55. **Bukatu**: 00:16:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- **Laburpena**: Mojen eskolan zegoenean baserriko lanak eta auzoko lagunekin egindako jolasak zituen gogoan. Han urtebete pasatu eta gero, etxera itzuli eta maristen eskolan hasi zen. Lehenago bainuetxeak izan ziren eraikuntzan zegoen maristen eskola, beraiek "Sorbona"

deitzen ziotena. Urtebete egin zuen egunero baserritik eskolara etortzen.

Transkripzioa
- Pentsaizu, uda denporan bedarrak eta batuta gero geuken zelai bat han Kurtzeberriko maldatan, da urtero ba bedarra hazten zanian bedarrak ebai, igertu, ekarri, ta gero abelgorri bat geuken, behigorri bat geuken hara erueten geuena beti txahala eraitteko han eta gero eta bixak ekarri. Eta ni ixe egunero faten nintzen eskola ostien hartu hola arta [samar?] batzuk eta behixa nundik ebillen ikusten. Egundoko abenturak eindda nao ni behin. Eta behixe topetan askotan salto einde be, horrek bastante basatixak izaten die eta igual sasi gaiñetik salto ein ta alde eindda eta topetan eta berriro ekarri eta holakuak eitten askotan. Eta klaro, holako giro baten, gero lagunekin be beti jolasien auzuen, eta gero handik Donostiara fan eta han monja batzuekin egun guztien errezuek eta ez dakit zer eta badakit zer, dana reglamentua disziplinia, ezin gauen berba ein dormitorixuen. Bueno, dana hola.
- Euskeria inundik be ez, ezta?
- Ez, ez, euskeria entzun be ez. Ezebez. Ni ez naz akordetan beste euskaldunik euenik be. Baten batek jakingo euen euskeraz seguru asko, baiñe hain zan gauza debekatue edo, berez hala asumidu gauen, nik ez dakit; ni ez naz akordetan han sekula euskeraz ein nauenik iñokin.
- Zer zendeten, mutilak bakarrik?
- Mutillak, mutillak bakarrik. Mutikuak bakarrik han. Urtebete hantxe, eta gero handik ekarri nindduen hor maristetan bertan euen auzoko umiendako eskola bat euen, eta tiok horra eskolara fateko. Eta hor ia eskolan maristek eurak emuten zittuen klasiak, maristetako profesoriak emuten zittuen klasiak. Eta eskoliai deiketan gutsen Sorbonie.
- Sorbonia?
- Sorbonia deikuten gutsen, bai. Hori zan Eskoriatzako eskolia? Maristetan, oin Almen dauen lekuan hor behien euan balnearixue, antziñan balnearixue izendakue-edo.
- Atxabaletan ala Eskoriatzan?
- Zan justo mugia baiña Eskoriatzako terrenua zan. Justo-justo muga, hortxe Ederlan parian, oin Almen dauen lekuen. Almenen pare-parian. Almen oin dau gorao. Eta Almenen pare-parien behien euen hori balnearixue. Balnearixue ta euken fubol-zelaixek eta jardiñek eta enfin, egundoko terreno, finka ederra zan hori.
- Eta zuek Sorbonan.
- Sorbonie. Sorbonie zan ba euen, eraikuntzak euken albo baten euken elixa bat, elixatxo bat, eta gero elixien onduen euen beste holako eraikin txiki bat, eta ha izeten zan gure eskolia. Urtebetien ibilli nintzen egunero-egunero baserrittik horra fan da etorri eitten. Bazkaitten faten nintzen kalera, aitta ta aman etxera, barriro etorri, atsaldien eskolie ta gero baserrire. Lo eittera baserrira. Klaro, han ganauzain ta ein bihar izeten nauen. Orduan ba bueno, hor beste urtebete ein nauen.

2.139. Logroñotik Elorriora eta gero Zaragozara

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-033/008
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:16:57. **Bukatu**: 00:19:53

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena**: Hurrengo urtean fraide bidali zuten marianistetara. "Postulanteak" deitzen zieten lehen ikasturteetako ikasleei. Lau urte Eskoriatzan eta beste urtebete Logroñoko Villamedianan ikasi zuen. Handik Elorriora joan zen urtebeteko nobiziatua egitera; hemen kastitate eta obedientzia botoak hartu eta handik Zaragozara goi mailako batxilergoa egitera.

Transkripzioa
- Ta gero hurrengo urtien fraille. Hurrengo urtien ia fraille bialdu nindduen. Hori, beratzittik hamarrera eingo nittuen hor Sorbonan eta gero hamarretik aurrera...
- Baina orduan ia marianistekin, ezta?
- Bai. Hori ia zan “postulante”, postulantiek. Hori zan postulantiek deiketan jakona.
- Guk Arantzazutarrei fraillekumak esatia moduan.
- Bai, igual-igual. Lau urte ein nittuen hor, Eskoriatzan eta gero urtebete, Logroñon eukien beste..., Logroñon hiriburuan onduen euen beste herritxo bat, Villamediana, eta han eukien beste finka bat, eta han beste urtebete ein gauen.
- Hori Logroñon?
- Logroñon, bai. Eta handik gero Elorrixora. Elorrixon... Ordurarte ikasketa zerak ein gittuen, ikasketa regularrak. Ba batxilleratue, orduko batxilleratue. Eta gero Elorrixoko urtie zan ia ba frailletzarako preparetako, nobiziaduen moruen edo han sartzen giñuen eta euki giñuen han urtebetien nobiziadu moruen. Han ikasketaik ein barik. Han zan ia gehixao erlijiño kontuek, elixie, eskola euren barruko estatutuek eta holako gauzak. Ikasi be eitten gittuen gauzak, jarraipena eitten gutsen gauzei baiñe bereziki zan hortara, behintzat asko be gehixao dedidaute hortara bestie baiño. Eta gero ia hori bukatu eta hor ia eraitten oskuen botuek. Orduen zan "castidad, coto de castidad", eta "pobreza, castidad y obediencia". Baiñe nik uste dot hor eraitten oskuela bi boto bakarrik: "castidad" eta "obediencia". Eta "pobreza" ba ez geuken ezer eta ezin ein.
- Botuak be lelengo urtetan danak?
- Ez, ez, hori ia Elorrixon gengozela, e. Bai, Elorrixon bukaeran euko nittuen nik hamaxeitik hamazazpi ein barik oindio, ein gittuen lehenengoko botuak. Bueno, lehenengokuek eta azkenak. Gero ia Zaragozara. Zaragozan ein gauen batxileratue. Orduen zan “Bachillerato Superior”. Frailliek eukien akordio bat eindde Hezkuntza Ministerixuaz edo gure danaz, eta esamiñak eurak eitten zittuen, osea, guk kanpuen ez gauen esamiñarik eitten. Esamiña guztiek urtero-urtero frailliek eurek eitten oskuen eta notak gero eurak eifintten oskuen eta dana. Eta azkenengo urte hortan ia in bihe geuen ba rebalida bat moruen, ta zan "Bachillerato Superior y Reválida" deiketan jakona.

2.140. Utzi egin zion fraidegintzari, nekatuta

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-033/009

- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:19:53. **Bukatu**: 00:23:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena**: Batxilergoa bukatu eta Teruelera joan zen gogo-jardunetara. Hemen erabaki zuen fraide ikasketak uztea, eta zuzenean itzuli zen etxera.

Transkripzioa

- Eta hori zan Zaragozan. Eta bueno, urtien ziher ein gauen ikastaro osue, ikasturte osue, eta azterketa hortarako hilebete bat falta zala edo akordetan naz etorri jakuela oharren bat edo esanaz, zelan zan, “Espíritu Nacional” edo holako asignatura bat euan orduan falangistak emuten...
- "Formación del Espíritu Nacional".
- "Formación del Espíritu Nacional". Hori da. Eta azterketak eiñ ahal izeteko, batxilleratuko azterketan eiñ ahal izeteko, lelengo bestie aprobau lelengo biher gauela. Eta hillebeteko epian ipiñi oskuen hamabi gai ikesteko eta hamabi gai horretatik bat galdetuko oskuela ta. Eta klaro, frailliek esan oskuen, jo!, ezpozue hori aprobetan eztaukotzue batxilleratoik eta benga. Eta hasi gintzen danok eakolan, akordetan naz, hogeta bost gintzen, orduen akordau eitten naz hogeta bost ginela ze danok aprobau gauen. Eta bueno, buruz ikasi gittuen danak, e. Gai guztiak buruz. Ez gekixen ze esaten gauen be, baiña buruz. Eta ni akordetan naz “El trabajo” tokau jatela. Hasi, tarrrrrrrrr eskribidu eta kalera danok. Eta atera gauen eta gero batxilleratua ein gauen, eta gero ba batxilleratue bukatuta geero, urtero eitten gauen baiñe urte hartan be bai berriro Gogo-jardunak, orduen “Ejecicios espirituales” deiketan zana. Eta egon nitzen Teruelera fanda, Terueleko Alcañiz herrixen han etxe baten sartute.
- Hori batxilleratua bukatuta?
- Bai, azterketak bukatu ta gero. Ta han ba gogo-jardunetan. Ni ordurako ba Zaragozan eta ba han gure kolegixo hartara ba etorten zien neskak eta hola, eta gu ia ordurako gengozen apur bet aztoratute, eta ia kantsaute, uff, higuinddute ia, hango bizimodue etxaten bape be, gero ta gutxiao gustetan jaten. Eta orduen esan ein nutsien frailiei, bueno, ni hamen enaz, enaz aurkitzen da. Frailliek ondo hartu usten hori, ez usten ezelako, aparteko enpeñorik eta ipiñi zertzeko. Ta bueno, ondo lagundu usten. Abarie zan gaiñera bera. Marianistak danak ez die abariek, batzuk bakarrik dia abariak. Ta bera abaria zan, Don Emilio deiketan zan. Majue, oroimen ona dauket berie. Eta bueno, harekin egon nintzen egun bat edo beste han berbetan eta horri buruz, hau dala eta ez dala, ta bizimodue eta hau ta hori, ta erabaki nauen itxi ein bihe nauela.
- Zaragozan hartu zenuen erabagixa ala Teruelen?
- Bai, Teruelen bertan.
- Zenbat denpora Teruelen?
- Ez, han astebete edo holakon bat. Astebeteko zera. Ba ha izen zan azkeneko rematie, ez. Eta bueno, handixik berttik zuzenien etxera.
- Zela esan dozu “Ejercicios Espirituales” euskeraz, gogo...
- Gogo-jardunak. Bai, gaur egunien hola ikesi dou. Lenao erderaz "Ejercicios Espirituales" esaten guntsen.

2.141. Marianisten oroitzapen gazi-gozoa

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-033/015
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:38:57. **Bukatu**: 00:42:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena**: Marianistak utzi eta lanean hasi zen Uribarrin, eta geroago kooperatibetan. Marianisten garaiko oroitzapen gazi-gozoa du. Goi mailako irakaskuntza zuten, baina diziplina gogorra eta errepresio sexuala ere gogoan ditu. Ikasleen jokaera ere puntuatu egiten zuten, gutxiegia lortzeko arriskuarekin.

Transkripzioa
- Zuk hemezortzi urte inguru Marianistetatik urten zebela; eta harrezkero?
- Gero ia ba lanera. Lanien hasi nintzen, Ulgorren hasi nintzen lanien, eta geroztik ba bueno, koopetatibetan eta. Gero ia bizitzak buelta asko emon dittu baiña.
- Eta klaro, zuk eskola urte pillia daukotzu marianistekin. Ze rekuerdo daukotzu marianistekin?
- Marianistena?
- Gustora ibiltten zinen eskolan?
- Bueno. Oroimen gazi-gozue dauket. Oroimen ona alde batetik. Irakasle moduen eta profesional moduen nik uste dot mailla oso ona eukiela, eta guri erakutsi oskuen asko. Bueno, garai hartako metoduekin, asko zan ba buruz ikasten zan asko, baiñe nik uste dot bestelako, erakusten be, ikasten be erakutsi oskuela. Ikesten be erakutsi oskuela. Akordetan naz abare bat euen, aramaixoarra zan gaiñera bera, Anbrosio Bergaretxe, oso gizon jatorra. Geroztik be berakin harremanak mantendu ein dittut bera hil zan arte, larogeta, eztakit, hamaika-hamabi urtegaz hil zan, eta harek esaten oskun: “Estudiar es aprender las cosas siete veces y olvidarlas otras siete”. Eta hori esaten oskun espliketako garrantzitsuena etzala gauzak buruz ikastie baiño inportantie zelagauzak zela ikesi bihe zan bizitzan, hori ikasi bihe zala. Metodue edo sistemie zala gehixao ikesi biha zana eta ez gauzak eurak. Eta akordetan naz horri buruz eztabaidak eta berba eitten gauela eta hola ta. Zentzu horretan nik uste dot nibel ona demostrau dauela. Baiña eurak euren bokaziñue edo helburue edo esateko moduen irakaskuntza zan, ez, eta horretan nahiko saiatuak zien, erakusten saiatuak izen die. Gero ba, bueno, euen garai hartako alde..., kongregaziño erlijioso danak eukien disziplina eta gauza horreik, ezta. Gero represiño..., adibidez represiño sexuala inportantia zan, ez. Gero ez oskuen ixten urteten leku jakin batzuetatik, debekatuta geuken ba... Ni akordetan naz gu zigortu eiñ izan gauela baloiek salto eiñ sasittik bestaldera eta sasixen bestaldera pasau baloia hartzen eta ikusi eta zigortu. Zigorrak izaten zien oso zerak. Nota bat eukitten gauen, astero-astero eukitten gittuen notak, eta nota bat izeten zan “Conducta” deiketan utsiena. Conducta lau, suspenso, horretxegatik bakarrik. Eta zentzu horretan oso estriktuak zien eta oso gogorrak. Baiña bestela erakutsi tta ondo.
- Zigor fisikorik eta?
- Sekula ez, sekula be ez, holakoik ez. Iñoiz ikutu be ez. Guri horretan, uste dot garai hartarako nahiko aurreratuak zirela.

2.142. Behi zaintzan ari zela behiak doktrina jan

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-033/021
- **Iraupena**: 0:05:31. **Hasi**: 00:52:53. **Bukatu**: 00:58:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Gogoan du behin eskolako etxeko lana kredoa buruz ikastea zela. Merienda eta doktrinarekin joan zen behiak zaintzera. Bera jolasean zela, konturatu orduko, behi batek ogitartekoa eta doktrina jan zizkion. Hurrengo egunean eskolan maistrak kredoa galdetu zien, eta bere aurretikoek inork ere ez zuen kredo hori osorik ikasi. Xabierren txanda iritsi zenean, "Es que la vaca me ha comido el catecismo" aitortu egin behar izan zuen. Mutikoen artean, behizaintza arte bat bezala hartzen zuten. Behizain ona izatea harrotzekoa zen auzoko mutikoentzako. Abestuz eta txantxetan, batak besteari esaten zion behiok arto edo arbi sorora sartu bazitzaizkion.

Transkripzioa

-Historixak egongo die bat baiño gehixao. Bat dauket eskolakue, eskolan pasau jaten bat. Ni eskolan ikasten ona izan nintzen beti, buru onekua eta memorixa ona. Eta maistriek ba, ia ez zan Esuperancia, beste maistra bat zan. Beti eukitten nindduen apur bat eredu moduen, ez. Eta behiñ akordetan naz katezismue guri abadiek ez oskun emuten, emuten oskun maistriek. Eta katezismuen kredue ikesi bihar geuen, eta kredue katezismuen akordetan naz euela ezkerekoaldera, zabaldu eta ezkerrekaldien Velazquezen Kristo hori , ezkerreko aldien kredue ta, orrixe pasau pagina erdi edo hola ta kredua gero be. Ta egun baten kredue ikesten ibili gintzen apur bat eskolan baiña bueno. Etxeko lana bixarko kredue buruz ikesitta ekarri. Katezismue hartu ta etxera. Ta betiko moduen hartu ogi erregutada bat txokolate ontza bategaz eta behixak hartu ta beheko zelaire, akordetan naz. Ta Beheko Zelain ba barrenien euen Olatza errekie, eta han errekan holako pasabidetxo bat eindde euen gaztaiña enpor haundi bategaz, hola presatxo bat moduen eitten auen da baztarretan lokatzarie ta egoten zan, harrixek eta. Ni injenieritza obrak itten han errekan, denporie pasetan. Itxi neuen katezismue ta bokadillue itxie neuen arbola-ipurdi baten, sagar-arbola baten ipurdixen. Ta han ibili nintzen jolasien, eta holakon baten ba gosie eingo jaten eta, joño, bokadilluen bila fan bihe juat. Faten naz, mobiduten naz eta, mekauben!, justo ikusi nauenien bokadillue, behi batek raust! ogixorri eta katezismuai eta danai ebatu utsen, eta klaro, neu mobiduten ez nenguen hara eta behixek dzi!, behixek igesi iñ usten. Eta ikusi neuenien behixek katezismue ahuen eukela, hain geratu nintzen paralizaute, inpresionaute, geratu nintzen paralizaute. Mekauben, nire katezismue behixek. Ze ein bihe juat nik oiñ! Enintzen ezta behixangana fan be eiñ. Geratu nintzen jota zer eiñ enekixela. Behixorrek jarraittu auen eta nunbaitten apurtuko auen edo bota eingo euen edo iruntsi eingo euen, eztakitt. Bueno, oin ze ein biha juat nik! Merixendiagatik ez osten asko inporta baiñe katezismue bape be ikesi barik kredue. Fan nintzen etxera, ixilik, etxien ezer esan barik.

Hurrengo goxien kriston arduriagaz eskolara. Eskolara faten naz eta, klaro, leziñue luzie zan eta zaille. Hasi zan deike banan-banan, bere pupitre ondora fan eta kreduoi hasi batek eta trapa-trapa-trapa, eta aillegeten zan lekuren bateraiño eta ba gehixao ez zekixen edo trabatu eitten zan da. No sabes más? No, eta. Ala, zutik han. Beste bat, eta bale, eta beste bat eta. Danak illeran, iñok be ez zekixen buruz katezismue. Eta maistriek ni gordeta nindduen azkenengo, eztakitzu, demostrau guran ikesi leikela. Nik ikusten nauen zer datorren eta, jo!, ni han, puu!, jota pasaute. Halakon baten tokau jaten neuri, azkena, benga, illaran jarri azkena eta. Akordau eitten naz, dauket ondio buruen sartute: “Jabiertxo, díles a estos el credo”. Holaxe. “Díles a estos el credo”. Ni burumakur ixil-ixilik. “Benga, Jabiertxo!”. Jabiertxo ixilik. “Pero tú tampoco sabes?”. “No, señorita”. “Cómo que no sabes, que te ha pasado?” Klaro, ez auen entendiduten, auen pentsetan nik ezin neuenik jakin. Nik egixa esan biher. “Es que la vaca me ha comido el catesismo”. Hango barrealgarie danak! Klaro, orduen...
-Hori zer zan, auzoko eskolan?
-Auzoko eskolan. Ba euko nittuen zazpi urte edo, xei-zazpi. Klaro, orduen ganauzaiñ eittie zan gure artien ba mutikuen artie zan, klaro, ganauek ondo zainketie eta iñon zelaira edo solora ez fatie ta. Artuek harrapetan bakizu ganauek ibiltten zien da. Ganauzain ondo eittie izeten zan ba danon zera, ezta. Eta, klaro, gaiñera geunken kantu bat, geunken guk bata bestiei kantetan guntsena, Libiri ta Labero: “Libiri ta Labero kaka-ganauzaiñek, kaka-ganauzaiñek, -eztakit ba- zelaiko ganauek artua gure aiñe, artua gure aiñe...” Bai ba, arto jaten edo ikusten bazauen baten bati igesi ein utsela arto sailera ba “artue guraiñe” edo arbixa guraiñe” edo gure dana, ez.
-Hori ze egiten zeuen, kantau?
-Kantau, ganauek baten bati iges eitten bautsen. Alkar ikusi eitten gauen, zela bakotxa bere zelaixen ibiltten zan, bagekixen zeiñ zeiñena zan, saille zeiñena zien, eta orduen ba baten bati behin batek igesi eitten bautsen arto-saillera, orduen alanbreik eta ez euen, zelaixek zabalik egoten zien gehixenak. Eta orduen ba kantau eitten guntsen batak bestiai, adarra joten. Eta hori izeten zan ba gure artien zer bat, eta klaro, eskolan danen aurrien esan biher, gaiñera memorixa onena eukenak: “es que la vaca me ha comido el catesismo” ba bueno, ha izen zan...
-Eta señoritiak zer esan euen?
-Bere katezismue hartu, bota auen amorruaz. Uste dot zigortute euki giñuela danok urten barik, eztakit, ordubete gehixao edo holakon bat.

2.143. Ikasketak erdaraz eta buruz

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-033/022
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:58:24. **Bukatu**: 01:00:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Doktrina nahiz geografia edo historia erdaraz eta buruz ikasten zituzten. Maistrarekin ikasi zuten doktrina. Abadeek doktrina euskaraz irakasten omen zuten eskoletan.

Transkripzioa
- Dotriñia ikastia ze izeten zan? Zenbat denpora gastaiten euen maistruak dotriñia erakusten?
- Beste asignatura askon moduen. Bai. Orduen ze ikasten aeuen ba, Geografixie buruz. Ikasi “los cabos”, buruz, “los ríos”, buruz, “no se qué”, ikasi, nun euen ezakit zer, eta gero munduko naziñuek eta hiriburuek eta holakotxe gauzak. Hisorixie be iguel zan, ba buruz ikestie eztakit zenbat errege eta badaki zenbat zer eta los Alanos noiz etorri ziela eta bestiek fan ziela eta. Edade hortan be gaiñera asko be gehixao ezin. Dotriñie zan bat gehixao, bai. Geuk ez gauen euki dotriñiekin bereziki zerik. Ikesi bai, ikesi danok ikesi bihar izen gauen. Ha be buruz praktikamente. Erderaz da buruz ikesi. Guri dotriñie erderaz erakutsi oskuen, hori bai. Ze orduen beste auzo batzuetan abadiek emuten auen dotriñie eta euskeraz erakusten auen. Baiñe guri erderaz erakutsi oskuen. Gero kontuek eitten.
- Katezismua behixak.
- Jo, ha izen zan, niri etxaten ahaztu hori. Hori geratu jaten grabaute bizi guztirako.

2.144. "Tio Cabañas"

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-034/003
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:03:39. **Bukatu**: 00:04:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolan, nagusiagoak beldurra sartzen egoten ziren. "Tio Cabañas" basotik etorriko zela esaten zieten.

Transkripzioa
-Eskolakue akordetan naz ume txikitxue nintzela nausixauek ibiltten ziela guri billurre sartzen, eta hartzen euen egurren batekin erropan batzuk txintxiliska ipiñi eta, uuu!, billurre emuten eta hori. Eta esaten uskuen: "Tio Cabañas etorri bihok, Tio Cabañas! Harek eruango zaue basora; ez dakit zer." Eta gu ume txikiñak billurrez ihesi ta.
-Tio Cabañas?
-Tio Cabañas, bai. Zan ba Basajaunen moduen edo ez dakizu, basuen bizi zan personaje mitiko moduko bat. Tio Cabañas zan. Auzuan hola zan. Eta nausixenak hola ibiltten jakun beti errekreuetan eta hola. Eta gu billurtute beti. Ume txikiñek gitzela, bai. Hori be izeten zan gaiñera hola epoka baten izeten zan: Baiña urtero-urtero zeremonixa berdiña errepikatzen zan, e. Hurrengo txikixenai.
-Eta gero zeuek be egin zotsen.
-Bai, klaro, gu nausixauek gitzenien bestiei eitten.

2.145. Marianisten eskolak, doan

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-034/006
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:05:04. **Bukatu**: 00:07:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolak doan ziren fraidegaientzat. Hirutik bat fraide geratzen zen. Aldaketak nola hasi ziren, estatutu berriak noiz egin zituzten marianistek. Mutikoek "usted"-ka hitz egiten zioten elkarri, frantsesaren eragine segurunez. Erabiltzen zuten uniformea nolakoa zen kontatzen du.

Transkripzioa
-Eskola horrek ordaindu egin beharko zien ba?
-Ez, ez.
-Marianistena debalde zan?
-Bai, cai, bai. Klaro, Gu fraillegaixen moduen gutzen.
-Kaptaziño modura?
-Bai. Fraillegai gitzen gu han. Gure garaira arte faten zienetatik igual hirutik bat edo geratu eingo zien. Fraille ia definitibo botuek ein eta eskolak [emuten]. Eta nik uste hortxe geure garaixen hasi zala ya, erlijiñuen inguruen hasi zien Konzilio Vaticanuen zerak eta. Lelengo Vatikaue, e. Eta ya ba ni akordetan naz marianistak eurak be euren estatutuek eta aldatu ein zittuela, eta geu be ibilli gitzen estatutu barrixek leiduten eta ikesten eta holako gauzak itten eta. Eta guk adibidez geuken geure artien nahiz eta mutiko txikixak izen, bata bestiei "de usted" berba ein biher izeten gutsen.
-Zeuen artian?
-Bai, hori gehixen be izengo zan euren fundadorie frantsesa zalako, ta hona etorri zien lelengo frailliek frantsesak zien, eta nik uste dot eurak gazteleraz eitten euenien be "usted" erabilliko euela. Klaro, frantseseko "vous" usted-era traduziduko euela, eta gero hemenguek be ohittura horri jarraittu igual ez, baiña... Guri hamaika urtekin ya alkarren artian bata bestiai usted erabilli bihar izeten gutsen. Erderaz, bai. Trajie jantzitta, trajia geuken, gaiñera hola txaketa kruzaue, lau botoikue. Hori zan reglamentario, e! Fraka motza baltza, traje baltza, jerse grise, eta alkondarie zurixe. Eta hori zan geuken uniforme ixe bakarra. Beti..., txaketie kanpora urteteko bakarrik edo, baiñe eguneroko erropia. Bakotxak eukitten geuen erropie markaute geure numeruaz eta hori,

2.146. Ezin elkarren aurrean biluztu

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-034/007
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:07:11. **Bukatu**: 00:10:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Nola egiten zuten lo fraidegai zegoela. Ohera sartzeko, ezin zituzten galtzak sartu argia kendu arte. Kamiseta eta galtzontziloak jantzita egiten zuten lo. Goizean ilunpetan janzten zituzten galtzak. Mirakontxan urtebete eginda, bitan joan ziren hondartzara, eta kamisetarekin bainatu ziren.

Transkripzioa
-Gero frailletan han adibidez reglamentua zela zan, ez. Gabien lo eitten gauen dormitorixo baten, danok hola dormitorixo bakar baten, ez, sala haundi bat, egoten zien illeretan ohiek ifinitta ta egurrezko zer batzuk, bittartietan egurrezko barandilla moduko batzuk ifinitta. Eta, klaro, orduen adibidez ba kastidadia ta horrek gauzok zien birtute garrantzitsuak, ez, eta, klaro, umiek ba egoten giñen erabat kontrolaute eta zertute, ez; eta erropak ohera sartzeko, erropak kendu ahal izeten gauen bakarrik alkondararaiño, frakie ezin izeten geuen kendu argixa itxungi arte. Argixa itxungitte gero frakak kendu, ixten gittuen ohe barrenien eta ohera sartzen giñen kamisetia eta kaltzontzilluaz. Hori zan, gaiñera, norma. Eta hurrengo goxien tinbrie joten euenien argixa ixotu barik jaiki biher izeten gauen, frakak jantzi eta danok ohe onduen zutik. Eukitten geuen hortarako minutu bi edo hiru edo emuten oskuen. Eta hori itten zanien argixak ixoketan zittuen, bentanak zabaldu, eta gero ia garbittu. Gero garbittu bihar izeten gauen, kamisetiaz, e, kamisetia aldian zala. Hori ezin gauen kendu bestien aurrian. Bueno! Horrekin akordetan naz detaille bat, ez frailliekin baiñe monjakin, esan dotsut lehen Donostian egon nitzela, Mirakontxan egonda urtebete osuen bi bider eruen giñuen hondartzara eta bixetan kamisetiakin baiñau bihar izen giñen (Barreak). Zela zien gauzak orduan, e. Bueno ba maristetan be ein biher izeten gauen hola, eta pentsaizu zenbateraiño zan ba orduen, klaro, mutiko arteko balizko harremanik balego be, ba hori oso erabat gaitzetsita eukien eurak, eta akordetan naz behin bi mutiko geure kidiak zienak ba auskalo zegatik sartu zien bixek ohe baten. Ba tontuena itten edo jolasien edo. Topau zittuen eta bixek automatikamente etxera. Eta nik ez dakit izengo zan, guk orduen ez geuen ulertu zegatik eta ezebe baiña igual homosexualidadie ebitetearren edo nik ez dakit zegatik izengo zan, baiña holako zeren bat. Ta estriktue zan oso-oso mailla horretan. Orduen ba horrek gauzok euken erabat arautute eta alkarren aurrien ezin gauen billostu ta, ezta gutxiaorik be, vamos.

2.147. Fraidegaien garbiketak

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-034/009
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:10:30. **Bukatu**: 00:12:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

- **Laburpena**: Fregadera batean txorrotak zeuden, eta hantxe garbitzen ziren. Lepoa, burua eta hortzak garbitzen zituzten. Dutxatu, astean behin. Lehenengo aldiz besteen aurrean kamiseta gabe noiz dutxatu zen. Etxera bueltatzean, zaila egin zitzaion emakumeekin harreman normala izatea.

Transkripzioa
-Eukitten gauen oso kontauta minutuek eta. Eta eukitten gauen holako fregadera, zan hojalatazko zer bat, fregadera moduko korrido bat, txorrotak ifinitta hola, eta fan bihar izeten giñen jaboiaz, agiñek garbiketako zepilluaz, eta hara fan, busti burue ta leporaiño dana, jaboia emun, garbittu, baiñe burua eta lepua eta hau. Dutxia astian behiñ edo, obligatorixua hori be, eta agiñek garbittu, hori be bai, zepilluaz agiñek garbittu.
-Eta dutxan zelan sartzen ziñein, erropakin sartu eta bertan?
-Banan-banan. Aldiko batzuk faten zien eta bakotxak bere dutxia. Bueno, pentsaizu, izengo zan hamaxei urte neukela, hamazazpikin, ez dakit, Zaragozatik etorri ein nitzen hona Eskorietzara behin egun batzuk pasetan edo ez dakit zegatik, ekarri ein giñuen, eta ordureko ya hasitta euzen horrek gauzok aldaketan, eta akordetan naz dutxia esan dozunian, lelengoko aldiz beste batzun aurrian kamiseta barik dutxau beste norbaittek ikusteko moduan hola, orduantxe eingo giñela lelengo aldiz.
-Baiña han edo etxian?
-Ez, ez, fraillietan. Gero ya ba etxera etorri nintzenien ba ya nik uste dot ein gauela holako terapia edo autoterapia, ohittuta gengozen, ezta, arazuak konpondu eitten zien konpondu bihe zielako eta ya está, ez. Baiña hori adibidez niretako izan zan zailttasun bat etxera etorritta gero, ta neskakin harremanak eukitteko ta; bape be euki barik gengozen, neskak- eta agurtu justo-justo urriñetik. Ezauketan nittun neskak neure lagunak zienak, vamos, umetako lagunak zienak.

2.148. Botoak berritu ez

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-034/010
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:12:19. **Bukatu**: 00:13:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Elorrion kastidade eta obedientzia botoak egin zituzten. 17 urte arte egon zen han, eta gero Zaragozara joan zen. Hurrengo urtean ez zituen botoak berritu. Urtebeterako balio zuten botoek, hasieran. Etxera joatea erabaki zuen.

Transkripzioa
-Zuk Elorrixon esan dozu egin zeela kastidade botua.

-Bai, bueno.
-Kastidadia eta bestia zela zan?
-Bestia zan "obediencia", bai. Obedientzia eta kastidadia. Baiñe oso ondo ez gekixen zer zan be hori, e. Ze hamaike urtekin eta hamaxeikin eta hamazazpikin igual-igual, e. Ez geuen ezer aldatu.
-Zenbat urtekin egon ziñan Elorrixon?
-Ba Elorrixon hamazpi arte. Hamazazpi ein barik fan gitzen ya Zaragozara.
-Eta botuok emon zittuein azkenengo zerian?
-Elorrixon in gittuen, bai. Hamazazpi kunplidu aurreti.
-Hamasei urtekin?
-Bai. Eta gero Zaragozan nik uste ya ez nittuen renobau. Hurrengo urtien renobau ein biha zien, hori zan urtebeterako botuek, e. Lenengo eitten zien urtebeterako bi aldiz edo hiru aldiz. Eta gero ya azkenengua izeten zan, hirugarrenien edo laugarrenien ya definitibuak eitten zien, bizi guztirako.
-Botuak urtebeterako?
-Bai. Hasieran bai.
-Kadukau eitten zien.
-Bai. Yogurren moduen.
-Eta bigarren aldiz ez zeben ein?
-Ez. ya izen zan ba hori. Ya bueltak emuten hasi giñan eta, neskatillak ikusten eta begiraketan eta hola eta. Aukeria egin gauen etxera etorteko.

2.149. Auzoko eskolan 14 urtera arte

- **Hizlaria(k)**: Lasagabaster Billar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-035/002
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:03:13. **Bukatu**: 00:06:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Auzoko eskolan ibili zen, 18 urtean auzoko maisu izan zen Don Fermín Colas Yagüerekin. Handik irtenda, 14 urterekin, Eskoriatzako mojekin ikasi zuen hilabete batzuetan. 11 anai-arreba izan ziren, bera hamargarrena.

Transkripzioa
- Eta zu Azatzako eskolan ibilli ziñan?
- Bai, maistruaz.
- Zein zan maistrua?
- Hamazortzi urtien euki gauen maistrue, Don Fermin Colás Yagüe.
-(...).
- Zurekin betik bera izan zan maixu?
- Bai, betik, nik ez nauen besterik ezagutu.
- Zenbat urte arte?
- Nire aiztak eta ezagutu auen, baiña hamalau urte arte. Hamalau ixa hamabost urte arte. Eta gero Eskoriatzan mojakin ibili nitzen beste hillebete batzuk, e? Asko ez. Hortik urten nauenian hamalau urtekin, hamabostekin ibilli nitzen apur bat mojakin Eskoriatzan. Hillebete batzuk, e? Denpora asko ez zan izan.
- Merzedarixak-edo?

- Horreik ospittalekuak ez dire, e? Beste batzuk, oin ez dagoz horreik mojok uste dot. Eskoriatzan, “Mercedarias” izango ziren?
- Nik han in (di)ttuten zer batzutan, merzedarittan egon zirala entzun nosten.
- Horreik ez naz akordaten ze klase ziren be.
- Hillebete batzuk Eskoriatzan.
- Bai, hillabete batzuk.
- Zenbat urtekin hasi ziñan eskolan?
- A! Eskolan, nik ez dauket goguan be. Ni oso bixkor hasi nitzen. Ba hasiko nitzen ez dakit zenbat urtekin. Ni zazpi urtekin komuniua in nauen ya. Asike ez dakit, lau-bost urte-edo, ni bertantxe zela geuken eskolia bertan. Gaiñera aittakin lagun haundixa zan maistrue, asike kafia hartzera etorten zan egunero, pentsauizu.
- Aittak porsiakaso maistrua zainttu in bihar, ezta?
- Kafia hartzen etorten zan.
- Zenbat anae-arreba ziñain?
- Asko gu. Hamaike, ni hamargarrena. Beste bat nauken atzetik.
- Zu ixa gaztiena, e?
- Ni gaztiena ixa, bai, neu bakarrik bizi naz. Ointxe hil jat, oktubrian hil jat beste aizta bat. Gaiñera berakin egoten nitzen zazpi urte honetan, fan ta etorri, fan ta etorri, ta hemen egon be ez nitzen itten gutxi baiño. Bertan gehixao.
- Bera Artaben bizi zan?
- Ez, Renterixan, nere aiztia Renterixan bizi zana ointxe oktubrian hil zan.
- Zu ziñan bigarren gaztiena?
- Bai, beste bat nauken, mutil bat nauken baserrixan ezkondu zana, Alberto, hori zan ni baiño gaztiaue.
- Beste danak zaharrauak.
- Baiña hil zan, e? Bai, aspalditxo hil zan. Beste danak ni baiño nagusixauak. Oseake ni neska danetan gaztiena.

2.150. "Ama de kasia" maistra

- **Hizlaria(k)**: Lasagabaster Billar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-035/003
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:06:04. **Bukatu**: 00:08:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Gerra aurretik euskaraz ikasi zuten, baina gerraostean erdaraz ikastera behartu zituzten. Auzoko abadeak, don Rokek, eta bere "ama de kasiak" irakasten zieten doktrina. Gerraostean Francoren kantak abesten zituzten eskolan.

Transkripzioa
-Eta ze, eskola garaikuak... dotriñia-eta asko ikasi biharko zeuein, ezta?
- Bai, klaro, klaro.
- Euskeraz edo erderaz ikasten zeuein?
- Ba hori izan zan gerra aurretik, etxoin, bai, gerra aurretik euskeraz eta gero obligau erderaz ikastera berriz. Eta gero berriro erderaz.

- Osea leheningo ikasi zeuein dotriñiori euskeraz, eta gero…
- Bai, abadiak-eta betik euskeraz erakusten oskuen, baiña gero obligetan zan eskolan erderaz ikastera, asike gero barriro erderaz.
- Eta orduen klaro, zu…
- Bixetara, azkenien dotriñie. Baiña lehenengo euskeraz, e? Komuniua eta dana euskeraz ikasita.
- Eta horreik danok zuk in zittun gerra aurretik.
- Bai, bai, gerra aurretik.
- Gerra aurretik lau-bost urte egongo ziñan eskolan.
- Bai, bai.
- Dotriñia bakarrik euskeraz, edo beste gauzak be bai?
- Ez, ez, dotriñia bakarrik, guk bestela dana erderaz e? Eskolan, zeatik maistrue erdeldune zan, Don Fermin. Eta horren aurretik egon zirenak be, nire aiztak eta betik harein kontuak asko esaten zittuen ta, danak erderaz.
- Orduen fraiden bat etorten xatzuen dotriñia irakustera.
- Ez, bertako abariek. Auzoko abariek. Eta amadekasiek be bai, eta… abadie ya nagusixa zan, gerra denporan hil zan gaiñera, don Roke euken izena apaizak. Eta don Roke ba gerra denporan hil zan. Akordetan naz zela hil zan.
- Eta amadekasiak be lagundu itten eben?
- Amadekasiek klaro, bera nagusixa zan, eta jarten zan han sakristixan, makillatxo bat eukitte auen ta betibe hola joteauen ta, han danok kantuen dotriñia ikasten. Bai. Egoten giñen. Zazpi urtekin.
- Zuk gero gerraostien beste lau-bost urte in zittuen eskolan, auzuan, ezta?
- Gerraostien klaro, gerraostien eskolan eta gero, ni nausi in arte. Hamabost urte in arte.
- Eta orduen esan dostazu, euskeraz ikasittako dotriñia dana erderaz ikasi bihar atzera?
- Hemen gero barriro, klaro, gero apur bat prohibidu itten auen, pues klaro euskerie. Eta kantau be ba itten zana, ba dana, ixa ahaztuta be banau, e? Baiña dana izan biher izaten zan eskolan kantetan zan kantue be, ba Francon kantuek ziren, Franconak, “por Dios por la patria y el rey” eta holako gauzak. Ya kantuak ahaztuta be banau.

2.151. Maisu aragoiarra

- **Hizlaria(k)**: Lasagabaster Billar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-035/005
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:12:11. **Bukatu**: 00:15:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Don Fermin aragoiarra zen, eta 18 urte auzoan egon eta gero Caceresera joan zen. Ezkongabea zen eta balore-burtsan jokatzea gustatzen zitzaion. Oinez joaten zen Arrasatera. Jesusak neskatila zenetik ezagutu du Matikua taberna. "Pote-poteka", "sokasaltoka", "txantxikurke", "tortoliske" eta "kui-kuike" jolasten zuten umetan.

Transkripzioa

-Nuntarra esan dozu zala?
- “Aragonés”.
- Aragoikua e?
- Bai, eta gero fan zan “a Caceres” fan zan hemendik, hamazprtzi urte egindda gero, hamazortzi urtien.
- Sekula ikasi eben euskeraz itten?
- Ez, keba, ez, ez. Bolsan lana itten, bolsan ta jokaketia eta gustetan jakon hari.
- Dirurik baeukan ala?
- Ba eukiko auen, eukiko auen zeozer behintzet; solterue zan e? Solterue zan. Eta Bedoñatik buelta Mondrauera etorten zan, Bedoñatik buelta oiñez etorten zan e? Hortik, klaro, orduen oingo moduen kotxiek eta ez euzen ta. Hortik Larriñotik buelta, Bedoñatik buelta, Atxabaletatik, Azatzara barriro. Hori itten auen askotan, bai.
- Eta han Azatzan auzuen eskolia aparte, ermittia be bai, tabernarik-edo ezer egoten zan?
- Ba Matikua izan zan, ni gaztie nitzela, ez dakit ze urtetan zabalduko auen Matikua baiña, bai, ni neskatillakotia nitzela. Bai, horko alabak eta be ba betik in auen zera, tabernan lana-ta, bai, bai, nere lagunak be bai.
- Matikuan jaten eta emuten euein?
- Bai, bai.
- (…)
- Eskola garaixan ze jolas klase itten zittuein?
- Ze jolas klase? Ba pote-poteka, pote-poteka itten gauen be bai, bueno, gero sokasaltoka, txantxikurke, ba hola…
- Txantxiku…?
- Txantxikurke esaten gauen, ba ifintten gauen hola, zera, zerbat dibujaute, uno, dos, tres, cuatro, cinco, seis”, hola, ta gero bota hara zebat, harrixa, eta batien han eta bestiek bestie, eta txantxiku hanka batekin salto egitten gauen, hor danetan. Txantxikurke.
- Baiña harrixakin…
- Bai, harritxua, harrixa ipiñi hola, ba guk harrixa ipintten gauen, bai.
- Baiña zeuek gero…
- Txantxikurke esaten gauen.
- Zeuek salto hanka baten gaiñian?
- Bai, hanka baten gaiñien. Hor pasetan giñen eta gero ifiñixaz bueltan, bueltan etorten giñen txantxikurke. Tortolizke, tortolizke be itten gauen, txantxikurke, tortolizke, sokasaltoka, kui-kuike, kui-kuike…
- Hori zer da? Gorde…
- Gordeta.
- Gorde-gordeka?
- Gorde-gordeka, kui-kuike. Bai, nik horreik berbok noiz esa (di)ttuten be ez dakit, e? Hamar urtekin-edo esango neben.
- Zu ez zara ez leheningua eta ez zaharrena Atxabaletakua nik ikusten dotena, eta kui-kuike eta txantxikurke, hori entzun barik.
- Ez dozu entzun?
- Pozgarrixa da izen horreik jasotia.
- Ba kui-kuike, txantxikurke, eta sokasaltoka, sokasaltoka asko itten gauen, tortolizka…
- Eta honeik danak ziren neskeen jolasak?
- Danak, mutikuek be bai, mutikuek be bai.

2.152. 14 urterekin eskola bukatu

- **Hizlaria(k)**: Lasagabaster Billar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-035/010
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:26:35. **Bukatu**: 00:30:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Gerraostean eskolan aldatu zen gauza bakarra erdara hutsa erabili beharra izan zen. Eskoriatzako eskolaren oroitzapen ona gordetzen du, baina joateari utzi behar izan zion urrutiegi zegoelako oinez joateko. 14 urtera artekoa izaten zen orduko eskolatzea, normalean. Lau erregelak, Espainiako geografia eta asko gehiagorik ikasi gabe bukatzen zituzten eskolok. Mojekin eskulanak ere egiten zituzten.

Transkripzioa
- Gerraostien, dotriñia erderaz eta horreik aparte, beste aldaketarik egon zan eskola…?
- Ez, gero erderaz, gure denporia hortan pasau zan, erderaz, gero barriro dotriñia euskeraz ta erderaz, ni betik izan naiz, lehenengo euskeraz ta gero erderaz, ni bixetara. Oin askotan […], orduen dana buruz ikasten geben ba. Dana buruz ikasi biher izaten geben, eta oin orduen buruz ikasittako gauza asko ez nittuke esango, baiña orduen bai.
- Hau maixu hau, Don Fermin hau, zuk uste dozu gerraostien gogorragua zala?
- Ez, ez, ha berdiña, neuretako berdiña zan, mañikotxo bat, mañiko. Zelebre samarra zan, e? Tontue ez zan, baiña zelebre samarra zan.
- Eta gero ze akordu dakotzu monjeena?
- A, bueno, mojena be ona, baiña ez zan izan denpora asko, zeatik oiñez fan biher haraiño, Eskoriatzaraiño, ta urrin izaten zan, urriñegi, fan ta etorri ta danak itteko, eta ez, ona. Tia bat be banauken Eskoriatzan ta hareaz be geraketan nitzen, ta…
- Esan dozu hamalau urte arte egon ziñala…
- Bai, bai, maistru horreaz, bai. Hamalau urte ondo pasaute.
- Hor akabaitten ziren? Ezin zeben jarraittu eskolan?
- Bueno, jentiek itxi itten gauen ya orduan.
- Hamalau urtekin.
- Hamalau urtekin. Ikasten bageuen ba “las cuatro reglas”, eta gero “raíz cuadrada” ta holako zer batzuk be bai, hortarako bastante maistro ona zan. Bastante… zelebre samarra zan, baiña…
- Geografia ta literatura ta honeik be…
- Bai, bueno, geografia ba gehixena izaten zan probinziak, horreik danok, ointxe be buruz esango nittuke.
- Neuk be buruz ikasi nittuan eta ondiok be goguen dakot.
- Dana buruz! Baiña Espaiñakue, Espaiñako mapa dana, zera, bai bai, “Castilla la Nueva”, “Castilla la Vieja dos provincias”, eta bueno, Almeria, ez, “Andalucía y Almería, Granada, Málaga, Cádiz, Huelva, Sevilla, Cordoba y Jaén” ta dana hola erreskaran esaten gittuen.
- Bai, geuk be halaxe.
- Bai, mapie ba hola e? Mapie, mapa haundi bat eukitten gauen eta mapie. Baiña gero ba handik kanporako munduen… kanporako gauzak ba orduen

ez gauen... esan gure dot geografia bai, baiña España, Españakue ikasten gauen. Ta gero Canarias ta holakotxe apur bat, baiña bestela hortik kanpora ba mapiori hor akabetan zan. Gure eskolan hor akabetan zan.
- Orduen monjen eskolia oso motxa izan zan, ez dakotzu holako zerik...
- Bai, ba neure, neuk ikasi nauenetik, beste batzukin batera ipiñi nindduen han, hareik be nire parien egozen, nire edadekuak ziren ta ondo, egon nitzan denporan ondo. Gero laborie be itten zan apurtxo bat, eta bueno.
- Ze itten zeuein, eskolia goizetik eta gero arratsaldian errezau eta laboriak?
- Goiz ta arratsalde, bueno, laborie ordu batzuk.
- Ez zan izaten goizetik eskola asuntuak eta gero laboriak eta eskulanak eta...
- Atsaldian uste dot zala, laboriek, bai. Atsaldien, nere primie be, ni baiño apurtxo bat nagusitxuagua, ha be faten zan, eta bueno, lagunek be in nittuen ta hola.

2.153. Auzo eta herri ezberdinetan ikasia

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/007
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:12:33. **Bukatu**: 00:15:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Gerra bukatu ondoren Aozaratzako eskolara joan zen. Maisua aragoiarra zen, Don Fermin Colas. Handik Eskoriatzako maristetara joan zen. Aretxabaletako eskolan bukatu zituen ikasketak, Kukuzulo baserriko Don Pedrorekin.

Transkripzioa
- Hor Koruetako eskola horretan zenbat urte arte egon ziñan?
- Hor egon nitzen, gerria akabo eta segidan, gero fan nitzen Azatzara. Azatzan euen maistro bat, maiñua zan bera, eta han Zarbiarten edo baserri baten apopillo egoten zan, gose denporan zan, “Don Fermin Colas”.
- (...)
- Parra dutso. Colas zeori egon zan maistruori zerien, eta oiñez etorten zan handik, Mondrauen edo lagunen bat euken ta, eskolia emun eta gero, baiña ba, hango eskoliori eta... han jente mordua. Eta gero maristetara faten nitzan handik zertuta beste apur baten. Gerraostien maristetan ba han zertxuau, [...], eta gero handik atzera Atxabaletara ta hemen akabau gauen karreriori hamalau urteaz etxera ya, pastore ta...
- Maristetara nora fan ziñan, Eskoriatzara?
- Eskoriatzara, oin horreik, hotel hori eta egindda dauen lekuen.
- Eta maristetatik?
- Gero hona, Atxabaletako zera. Maristetatik hona etorri nitzanien hemen euen maistro bat, Etxeberria-edo, Kukuzulo esaten gotsen. Maristetan gerra denporan urtendakua zan zeori.
- Kukuzulo?
- Bai, Kukuzulo baserrixari edo esate etsen, baiña bera “Don Isidro” zan, deuke apelidua horreik... ez dakit zela dakuein be apelidua, baiña Kukuzulo baserrixa zan e? Baserrixen izena-edo, bai. Gero haren anaie ta, hortik

hemen Galartza aldekua ziren hareik izatez, hemen, Galartzakuk hemen, baserrin batekuk, eta gero fan ziren horreik hara, Zuatzura, oin pantanuen gaiñekaldien dauen etxera fan ziren bizitten.
- Arabara?
- Koruetara, Koruetara. Koruetako pantanuen beste aldien dauen, Urkuluko zierrera goiazela ezkerreko aldetik. Hemen Azatzatik Urkuluko sierrera goiazela ezkerreko aldetik leheningo dauen etxia, kamiño gaiñien. Han bizi izan zan horren anaie eta famelixia. Beori hemen, hemen eta gero hemendik ezkutau zan ez dakit nora fango zan zertu nitzenien, gero ez dakot gehixau gomutaurik eta haren zerik.

2.154. Gerra denboran kaletik baserrira babes bila

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/008
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:15:12. **Bukatu**: 00:18:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Egun gutxitan geratu zen eskolara joan gabe. 10 anai-arreba izan ziren. Osaba batek gau-eskolak ematen zizkion. Beste osaba marista bat gazte hil zen. Gerra denboran, Zubiatarrak, jaio berri zen ume batekin, Pedroren baserrian babestuta egon ziren.

Transkripzioa
- Eskola denporan egunero eukitten zeben eskolara fatia edo etxien lana euenian etxien geratu bihar izaten ziñan?
- Jeneralmente kasik egunero faten nitzan, bai, baiña hor be ba...
- Baiña ittaurren ittia tokau ezkero eta holakotan?
- Ittaurren nehikua in geuen orduen, bueno. Ittaurren eta danera in bihar izaten zan, baiña eskolara etorri barik gutxittan geratuko nitzan.
- Zenbat anae-arreba ziñain?
- Hamar-edo izan gintzen baiña orduen umiak asko hiltten ziren, sasue hartan.
- Aingeru kanpaia, ezta?
- Umiek ez zirenak be. Anai bat hil zan. Egun baten hil xaten tio bat marianistia, okotsian edo holako grano batek edo urten eta Eskoriatzan euen medikua, Don Txomin edo esaten eutsiena, hemen baiñuetxekua semia zan, Atxabaletako baiñuetxekua, lehenaoko baiñuetxe zaharreko zera ta, harek sajau edo zeren bat in otsen eta geruau eta txarrago eta Bittorixara. Bittorixan hil zan, febreruen hamahirun, “mil novecientos cuarenta y cinco”an hil zan ta aurreko egun baten ni fan nitzan, hemen tio bat geuken guk kalien, eta illunkaran emuten oskun eskolia pasau ta gero zera, gabeko eskolia edo hola zer apur bat, ez dakitzu? Zeozer. Piñuak neurketan ikasi eta holako txorakerixa batzuk itteko eta zeozertan hor. Eta nik hemen tio bat geuken eta nik tionien itten neben lo orduen. Eta goizian jaiki nitzanien esan usten “tio Kandido hil dok, eta Joxe be Bittorixara eruen dauela”, Joxeri urten otsen eztarrixan bertan orduentxe.
- Gauza bera?
- Ez, ba zerbait eztarrixen, ez dakit zer izango zan. Hemen Don Tomas euen

medikua ta begitu otso eta hori […] dakotsu eta ez dakit zer. Hurrengo egunien geixki zeori eta aitta Bittorixara fanda euen baiña Bittorixatik tio hil zanian etorri eta maristetan, maristetara ekarri euen kadaber hori. Hogeta hamar urtekua e? Maristia zan. Maristetatik gerra denporan gure etxia dana beteta egon zan zeraz, hemen Zubian famelixokin eta, honeik Azbe horko zerok. Jente pillo bat, gure etxien han egon zan emakume bat, Felisa, Joxe Zubian andria. Orduentxe euen umia, egun gutxiko umia jaixota, aste beteko umia edo, eta gero elixara sartu bihar izaten euen ordun. Beratziurrenera edo andrak umiorreaz ez dakit ze santu edo zetako, eta zela han sartu zan eta burua euki dau oso ondo ointxe arte. (…) Eta kontetan hango kontuak eta bere semiak be esaten dau, hango kontuak, bueno! Kontetan zittuela baiña ointxe pasauta letxe, Felisa horrek.

2.155. Erlijio ohiturak

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/009
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:18:17. **Bukatu**: 00:20:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Umea jaio eta berehala bataiatu behar izaten zen. Ohiturak aginduta, jaio eta bederatzigarren egunean, amak umea elizan sartu behar izaten zuen. Oinarrizko eskolak ikasita, 14 urterekin bukatu zuen eskola Aretxabaletako nazionaletan. "Porrukue" etxeko Sabino, Oñatiko parrokoa izango zena, izan zuen ikaskide Aretxabaletan.

Transkripzioa
- Esan dozu, umia euki barri andria beratzigarren egunian, elizara fan bihar izaten zala?
- Elizara fan bihar izaten zan ordun, danak, elizara sartu bihar izaten ziren.
- Beratzigarren egunien?
- Beratzigarren egunien.
- Eta hori zeatik?
- Hori preguntau elizako gizoneri.
- A, relijiñoko ohittura bat?
- Lehenaoko legiek, elizien legiek ziren horreik. Gero umiok aurrera kristau izan daittezen-edo, ez dakit ba zertako…
- Baiña bautizau baiño lehenago?
- Bautizau ba jaixo ta zerien. Ez dakit oin bautizauta, bautizau jaixo ta segidan itten ziren orduen ta. Orduen bautizauta egongo zan segurutik.
- Baiña beratzigarren egunien?
- Elizara sartu bihar izaten zan. Ama umiakin, bai. Orduan zera itten zanien gaiñera, bautizua itten zanien gero bolua egoten zan, zerien botata.
- Bai, hori neuk be ezagutu dot.
- Elizpeien hango zalapartia, bata bestien gaiñiaen. Karameluak eta txakur haundixak, eta bueno, istorixa batzuk orduen, bueno. Bai gizona.
- Orduen Eskoriatzako maristetatik, Atxabaletan Don Isidrokin…?
- Bai, hor akabo geben guk gere karreriori.
- Baiña ze egon ziñan orduen, nazionaletan?

- Eskuela nazionala zan, bai. Oñatiko parrokua, Don Sabino eta ni banku baten egoten gitzen. Oin jubilau da hori, ya.
- (…)
- Don Sabino hemengua da, ala?
- Hemengua hori, hemengo Porrukue, hor dau ortua ta zerien, hantxe behera goiazela, lehengo parte, honeik etxe zaharrak, lehenguak akabaitten diren lekuen, azkeningo etxia.
- Orduen hamalau urte arte eskolan?
- Bai, hamalau urteaz kalera, “sumar, restar ta multiplicar” ikasi ta beste holako gauza batzuk, leidu eta zer batzuk, orduen diktadua eta zera itten zan, leidu ta guk eskribiu zerien ta.

2.156. Don Bonifacio abadea

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/010
- **Iraupena**: 0:04:12. **Hasi**: 00:20:24. **Bukatu**: 00:24:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
  Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Don Bonifacio maisua oso erdaltzalea zen. Ikasleak zigortu egiten zituzten euskaraz egiteagatik. Maisuak Francoren argazkia eta Espainiako bandera jarri zituen ikasgelan. Francoren zalea eta Juan XXIII.aren aurkakoa izan zen.

Transkripzioa
- Zuek eskolan euskeraz itteagatik-eta kastigau itten zindduein?
- Koruetan hor azkeningo egon zan Don Bonifaziok, horrek bai, horrek egurra.
- Euskeraz itteagatik, e?
- Bai, horrek Francon erretratua eta bandera espaiñola ifiñitta eukitten eben, gaiñien bera ta bera hola mahaixen jarritta, ta guarda zobillak eta eruen eta zutik ifiñi zerien, eskolan eta itten gindduen, guarda zobillak sartuta ta Francon erretratua ta bandera espaiñola-ta…
- Koruetan, e?
- Bai, bai.
- Gauza horreik normalian kalian gehixau pasau izan dira.
- Bai, Koruetan harek egurra, harek zera itten eben, harek, bueno! Gero esango dotsut, hor Apotzagatik etorri zan, hango istorixak be, zerekuak. Baiñe Koruetan itten zittun zerak, eta Koruetan in eben horrek gaiñera egun baten, mutiko batek beste bati emun otsen belarrondoko bat, eta bera Joxe Antonio hori hildda dau, eta bestia zan Erreka […] Eujenio Altube, diabro samarra zan hori, Eugenio hori. Mutiko horrek emun otsan plastadan bat zeari, Joxe Antonio horri, ta fan da abadiorreana, “jauna, Eujeniok jo in nau” ta “no entiendo, hablar en castellano”, ta mutikua buelta in ta badoia eta zeozer akordau jakon erderaz, buelta in ta fan da, “jauna, Eugenio palo, Eugenio palo”, “neuk emungo dostat beste bi belarrondoko”.
- Eugenio palo?

- Bai, “jauna, Eugenio palo”, eta “Eujenio palo nik emungo dostat hiri”, eta beste bi belarrezkiñako onddio.
- Bonifazio hori orduen erdera zalia zan.
- Erdera zalia eta militar zalia ta, semia militarra daukela esaten daue, zerien, Madrillen. Hori gu han eskolan amadekasiaz itxi ta urtien lau bat bider Madrillera faten zan orduen. Hori frankistia zan eta Franco hil zanien hil zan beori be. “Juan veintitrések" eliziori bueltia emun otsanien, buuf! Hori kontrarixua zan horrek itten euen, bueno!
- Bigarren konziliuaren kontrakua zan, e?
- “Juan veintitrések" guzurrak esatiari itxin in bihar jakola ta, eliziari emun otsan kriston astinddua orduen.
- Bakarra izan da.
- Egixek esan zittuana, gero haren atzetik nunbrauen hillabetegarrengo garbittu in zan gabien, uhera fan ta hurringo goizien hildda agertu, baiña orduen ez zala komeni, ez zala sartzen “Estado Vaticano”, ha independientia zala ta, hor zer pasau zan eurek jakingo daue.
- Eurok bakarrik.
- Bai.
- Figuria zan orduen Bonifazio hori.
- Hori…
- Peligrosua.
- Militarra konpletua. Apotzagan be kristonak egindda etorri zan, e? Handik hona, bueno! Apotzagan be, han be, onddiok bizi da, osasun asko ez dauko baiña Degurixan euen Apotzagako […], Joxe Mari, alzeimerrakin-edo jodiuta dago, baiña harek be han Degurixan haren kontuak esaten zittuen, eta zela gerra denporan euskeriaz ezin lekiela iñora fan ta erderaz in biher zala sermoien esan eben zerak, agurok kanpora urten daue eta batera, […] Bittorixan karnazeron batzukin-ta egonda lanien eta ibilixen erderaz ikasi jentiak, ikasi edo nahastu behintzet, geure moduen, eta urten ebenien “el sermón que ha echau el cura poca gracia me ha hecho”, esan ei eben, eta gero atzetik beste bat, Baxilio Etxetxokua, Ribera, hemen asko ibiltten zan, Laminaziñuan itten eben lana, eta gero gu mutikuak gintzala bolalekuen be bai hor ibiltten gitzen alkarregaz be, eta ha atzetik etorri ei zan eta, agurok ez zittuen ba barra-barra erderaz itten ifiñi? Bestia atzetik gerotxuago elizatik urten ta txapela janzten, haize hotza iebillen, Frantzia haize hotza lehengo egunetan ibilli dan modukua halakua, haize hotza eta, “hacer frío seco seco” zeorrek, txapela jantzi euen horrek, “hacer frío seco seco” harek be, eta agurok barra-barra erderaz.

2.157. Tangadun komuna 1926. urtean

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/018
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:41:00. **Bukatu**: 00:44:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: 1926. urtean lan handiak egin zituzten etxean. Zisternadun komuna eta arropa garbitzeko harraska orduan jarri

zituzten. Don Genaro Unda abadearen pasadizo batzuk kontatzen ditu Pedrok.

Transkripzioa
- Orduan etxian ura betidanik ezagutu izan dozu, etxe barruan.
- Bai.
- Eta komuna-eta…?
- Komuna eta danak.
- Komuna bonbaduna-edo?
- Bai, bonbiaz, bonbiaz, bonbiaz euen orduko, baiña hareik obrak egindda egozen “el año veintiséis”. Han euen albergia hau zerau dana holakotxia, eta aldamenian harrixak, harri bi hola, ta erropak garbiketako eta zerien. Beste horma bat, hau mahaixau baiño luziagua zerien, han ifinitta zeori, ha hormia noiz egindda euen han euen ifinitta, Simon Etxabe, “mil novecientos veintiséis”-edo egindda euen ha.
- Simon Etxabe zer zan, zure…?
- Ha zan ba hemengo…
- Igeltseron bat?
- Apotzagan bizi zan, izatez bera jaixotez Begoñakua zan.
- Hargiña edo?
- Bai, hargiña, igeltsero, danera, orduen…
- Simon Etxabe?
- Bai, arotza be Apotzagakua ibil zan.
- Eta zuk orduen umetatik ezagutu dozu kumuna bonbiakin?
- Bai. Eta lehen esan dotsuten Unda abadia […] beziñuak ardixak beuken hareik ordurako eta harrapaten ebena jan itten eben dana, eta gazuria harrapo eta kriston gazure janen bat egin eta kumunera gurera etorritta be bai.
- Gazuria be jan itten eben? Onak bakarrik ez zittun jaten orduen.
- Bai, bai. Arrautzak eta harrapaitten zittuanak. Zeozer preparauta beuen afaitteko […] zan, eta linpio. Eta gazterik hil zan e? Hemendik Ubidera fan zan zera, eta berrogeta zortzi urteaz hil zan han, baiña atzera hara fan ta gero etorri eta gurien bazkaldu eta egonda euen. Gero Olaetako batek esan oskun, gizon bat gu baiño zaharragua, esan oskun ba zela hil zan ta obispua fateko zala eta jana ikaragarri jaten ebena zan, aurreko gabien, hurringo egunien eguardi artien barurik egon biher mezia emuteko, orduen pekatu mortala zan zera, eta obispua etorteko eta baba janen bat in eien gabien eta gero hurrengo egunien hildda, zera, hildda akordau zan hurrengo goizien, hurrengo egunien. Hildda akordau bai! Hildda akordau ez zan ingo, baiña hurrengo egunien hildda. Berrogeta zprtzi urteaz e? Bai.
- Baiña horixe, abusauta, ezta?
- Bai, abusau, haundixak itten zittuana, bueno! Ugastegira fan ta Ugastegiko etxeko zerok danok, goittik behera, […] zeozer harrapetan baen dana jana jan ta dana, holakotxe zera, tragoi bat zan. Bai, Udalan egonda fan zan Udalatik, eta onddiok denpora asko ez dala esan oskun Udalako nagusi batek, gu baiño zaharraua, Don Jenaro ta komestaziñua Udalan egon zala eta, “Don Jenaro? Hemen asto Jenaro” esaten otsiela.
- Asto Jenaro?
- Bai, holako zerak.
- Hau, Unda hau?
- Bai, baiña holako zera zan, bai.

2.158. Neskek dotrina erdaraz; mutilek euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Etxeandia Arregi, Bixente; Garziaetxabe Ugarte, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-038/009
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:07:55. **Bukatu**: 00:09:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Euskara zela eta ez zuten arazorik izan. Rosariok dotrina gaztelaniaz jaso zuen, Aita Gurea-eta be bai, Bixentek aldiz euskaraz jaso zuen don Angel maisuaren eskutik. Izan zituen beste mi maisu ere aipatzen ditu: don Dominito (erdalduna) eta don Isidro (Eskoriatzakoa).

Transkripzioa
-Euskeriakin izaten zebein problemarik edo?
-Ez, klaro, guk dotriñie ta be erderaz da Aittagurie ta be ez geuen ikasi orduan. Dana erderaz. Bai, bai, bai. Guk erderaz ikasi gauen.
-Beste leku batzuetan dotriñia erakutsi izan dabe euskeraz.
-Euskeraz guk ez, e.
-Basarri auzuetan igual.
-Ba guk ez, guk erderaz dana.
-Guk euskeraz be eitten gauen.
-Guk dotriñia ta dana erderaz ikesi gauen.
-Guk euskeraz.
-Dotriñia ala eskolia?
-Dotriñia, dotriñia. Dotriñia ta orduen elixako gauzak euskeraz emuten oskuen. Don Angelek eta horrek.
-Dotriñia maixu normalak emuten eben ala abadiak?
-Ez, ez, ez. Maixuak normalak. Bat euskalduna zuan, atzenekua euskalduna zuan, autentikua, hemengua zuan da, Gellaukua.
-Gellaukua zan.
-Don Isidro?
-Bai.
-Eta don Benito kanpokua?
-Don Benito erdelduna zuan, erdelduna. Andria ta danak.
-Doña Zirila ta danak erdeldunak zien.
-Atxabaletakua.
-Atxabaletakua ez, Gellaukua. Gellau Eskoritza dok, Eskoritza.

2.159. Ezkontza egunean ogi zuria

- **Hizlaria(k)**: Azkarretazabal Bengoa, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-041/011
- **Iraupena**: 0:03:33. **Hasi**: 00:26:50. **Bukatu**: 00:30:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

- **Laburpena**: Herrian badago oraindik urats iturri bat, baina hango ura ez omen da lehengoaren modukoa. Pilar ezkondu eta gero kendu zuten bainuetxea. Dendari batekin ezkondu zen. Ezkontza egunerako, okin lagun batek nahikoa ogi zuri eman zieten; errazionamenduko ogi-beltz garaian. Otordu bikaina izan zuten.

Transkripzioa
-Ta hemen hor dau itturritxo bat horrena, uratsena; baiña eztau lehengo moruko hori botaten. Uratsa ezta lehengo morukua.
-Semea: Beste itturri bat be badao goixan.
-Eta princesa hori etorri zanian noiz, más o menos...
-Ez, ez, nik ez nauen /enauen/ ezautu princesaik.
-Baiñuetxiak noiz hasi ziran kentzen?
-Baiñuetxiak kendu?
-Semea: Ama jaixo baiño lehenao.
-Ez, kendu ez.
-Semea: Kendu ez, baiña berutza bai. Kendu eingo zan, nik Fernando ta ezauketan neuen. Ta Tere ta han egon zienak eta hori. Ni ezkonduta gero kendu auen. Lehenengo egon zien batzuk, gero egon zien beste batzuk administraziño eta... Baiña zan oso politta. Ni han neskatillakotia joan eta ikusten, eztakitzu? Oso balnearixo politta.
-Zenbat urtekin ezkondu ziñan?
-Ni hogeta bostegaz.
-Eta ezkontzak zelakuak izaten ziren?
-Orduen? Ezkontzia? Ez dakitzue /eztakitzue/ zelako ederra izen zan niria! Klaro, orduen ez auen oingo moruen erregaluak eta gauzak eta emuten eta holan hori ez zan. Baiña pasau ondo, oingo baiño hobeto. Oin diruai beira dauz joateko estranjerora ta, zenbat emuten dotsazun. Orduan ez euen [xemeirik]. Eta gu gitzen, gerra ostekua izan zan txarra, ez auen ezebe, baiña nire gizonak euken dendia, eta hari panaderixako batek emun otson ogixa zurixa indda, ta orduen bal-baltza jaten gauen, eta auena gutxi, razionamentuen. Nahikua ogi emun oskun. Eta gero ekarri auen garrafoikara ardau, koñak eta dana, baiña ein gauen taberna bat zerrau zana, baiña neure amak eta horrek, amen lagun batek, beziña batek bazkaixe ifiñi oskun. Egon gintzen asko bazkaitten. Eta ba ederto danok, hango hori ta bestie. Fíjate zelako ederto egongo gintzen, tio bat hiru egunien ez zala fan bere etxera.
-Hemen geratu zan?
-Hemen geratu zan. Eta beste koñato bat etxie ezin topau. Klaro, orduen gose-denporia zan ta, ez auen ezer, ta etorri zien inguruko primok eta traste guztiok ume danakin. Ume mordua euki gauen.
-Gizona: Ogi zurixa jaten. Ardaua ona ta pattarra.
-Ogi zurixa ta. Jatia zan orduen, ez zan jaten ta. Baiña pasau guk! Guk ezteixak ein gauen, baiña zelako eztaixak ein gauen! Ondo. Gure bodie hori izan zan, zegatik euki gauen ardaua nahikue, koñak nahikua euki gauen, ogixa zurixa. Eta gero amak eta ifinitta bazkaixa hango oillaskuak; eta guk..., ondo. Oso boda ona ein gauen.

2.160. Sei urterekin eskolara

- **Hizlaria(k)**: Azkarretazabal Bengoa, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-041/024

- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:51:50. **Bukatu**: 00:52:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Sei urterekin hasi zen eskolan. Aretxabaletako ume guztiak egoten ziren senar-emazte ziren maisu-maistrarekin.

Transkripzioa
-Eskolara joan ziñan zu txikitan?
-Eskolara bai.
-Hemen herrixan?
-Hementxe herrixan. Hemen zazpi urte arte ez zan sartzen, e, eskolara. Zazpi urte ero euki bihe zauen eskolara joateko. Eta hemen ni sartu nauen xei urtegaz gure amak ume asko eukelako. Maistruek penia hartu eta hori. Eta oso maistro onak zien, bi zien, andra-gizonak, baiña Atxabaletako ume danak berakin.
-Euskeraz eskolia ala erderaz?
-Orduan erderaz.

2.161. Gerra denboran eskolarik ez

- **Hizlaria(k)**: Azkarretazabal Bengoa, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-041/026
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:52:56. **Bukatu**: 00:55:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerra garaian, bonbardaketak zirela-eta, ezin izan zuten eskolara joan. Eskoriatzatik etorritako moja batzuek ematen zuten eskola. Irakasle euskaldun gutxi egon ziren, eta eskola beti erdaraz izaten zen. Dotrina ikastera ere joaten ziren. Hijas de María kongregazioan egon zenean, goizeko sei eta erdietan ematen zieten meza. Elizako kanpai hotsekin esnatzen ziren.

Transkripzioa
-Eta ze ziran monjak edo eskola nazionalak?
-Monjak, monjak emun auen gerra denporan ya hori. Zegatik gu eztakit zela ikasi gauen. Zegatik gehixenetan joaten gitzen, batien bonbardeue dala, bestien eztakit zer dala, eta ez gauen eukitten eskolaik pe. Baiña gero etorri zien monjak Esteibartik, Eskoriatzatik batzuk hona emutera. Hareik pe egon zien. Nik bestela ba maistrak eta onak euki gauen.
-Euskeraz bazekixen? Klasiak erderaz baiña eurak erdaldunak ziran?
-Erderaz, erderaz. Eneee! Ez gakigun erderaz ezer baiña.
Semea: maistruak euskeraz baekixien eurak?
-Doña Franziskak eta don Santiagok pai, baiña beste batzuk egon zien ez zakixienak.
-Eta zuk erderaz ez zenekien eskolara joan arte, ez?
-Ez. Guk erderaz eskolan zerbaitt ikasi gauen, sí tta no ta hori. Hantxe ikasi

gauen zerbaitt. Nik eztakitt erderaz ondo oin be, e. Asi ke...
-Eta errezatzen zenduten eskolan edo?
-Errezau? Bai errezetan gauen. Gero dotriñara be joaten gintzen, eta hori danok in gauen.
-Mezetara bai beti?
-Mezetara betik. Eta goixien igual xeitterdietan ifintten oskuen mezia. Hijas de Mariari tta seitterdietan.
-Goizeko seitterdietan?
-Seitterdietan joaten gintzen. Baiña gero seitterdietatik zortzirak ero beratziak, zortzitterdiak arte etxe..., aiuntamentuen han kantoien hamar bat neska barriketa baten, kontuak kontetan, lekaixo baten, barre baten eta gero etxera joaten gintzen.
-Eta esnatzeko despertadoria eta?
-Despertadoreik ez auen.
-Eta zelan hain goiz esnatzeko?
Semea: Kanpaiakin.
-Kanpaia jotzen zeben lenao?
-Bai, kanpaia joten zeuen, ti, ta, ta. Ointxe be badauz Atxabaletan kanpaia joten dauenak.
-Kanpaiakin esnatzen ziñan?
-Kanpaiakin. Erlojua ta orduan, e; holakon bat ero egoten bazan, baiña bat bez, erlojuik eta ez auen orduan. Erlojua ba holakon bat etxian, baiña igual egoten zan salan ero ifinitta ero, eztakitzu? Aittak ero deiketan oskun eta ala, "jaiki!" tta ala!

3. Lanbideak

3.1. Eskoriatzako ehulea

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/004
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:04:24. **Bukatu**: 00:05:21
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Antzinako lanbideak » Lihoa (linua) eta ehuleak
  Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- **Laburpena**: Ehulea Eskoriatzan. Haria eramaten zen eta bertan izarak, arropak egiten zituen. Ehunak ehun lan.

Transkripzioa
- Ehulie...
- Ehulia edo, Eskoitzakue. Gure ama faten zan hara zerakin, harixekin, ta izerak han eitten zittuen.
- Hamengo danak hara faten zien ehuliaana.
- Klaro, hori etxien ezin ein, ez?
- Ke ba! Telie hantxe eitten euen ta.
- Hamen kontornuen, Eskoitzan, hantxe bakarrik, Eskoitzan.
- Ondion, uste dot, han badaukiela...
- Bai, dana, uste dot, dana zera zala, manuala. Bai. Dana eskuekin "tri-tra-tra-tra". Nik ez daukat ikusitte, baiñe... Oin ez dakit han eukiko dauen, ez dauen...

- Pentsetan dot badauela ondion, e?
- Bai? Nun egoten zan han ehulie, Eskoitzan?
- Ez dakit nik.
- Sekule fan barik?
- ... ez dakit neuk.
- ... ama faten zan ta.
- Ama faten zan...
- Ama faten zan harixekin eta, gero, han eitten zittun izerak.
- Jolin...
- Makiña bat lan, e?
- Bai, bai.
- Ehunek ehun lan esaten euen, ta... Asike... Hazixe eraitten zanetik ya izerie, telie eittera ehun lan.

3.2. Mikeleteak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/019
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:53:15. **Bukatu**: 00:55:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Udal langileak
  Lanbideak » Polizia
- **Laburpena**: Mikeleteak; Guardia Zibilak. Aguazilak.

Transkripzioa
- Bueno, kontrabandorik ez, baiña mikeletiak eurak zuk ezautu zittuen.
- A, bai! Gerra-denporara artien mikeletiak egoten zien! Mikeletiak […] mikeletiek, ta gero guardia zibillak egoten zien, ba, beste… Aretxabaletan ez zan egoten guardia zibillik; zerien, gerra aurretxuen ekarri zittuen guardia zibillak Aretxabaletara, baiña aurretik azen Eskoriatzan, Eskoriatzan azen guardia zibillak. […] kale barrenien, [han], hortxe egoten zien.
- Kuartela eukein.
- Bai, kuartela. Baiñe, holan, segidu [zienak], mikeletiak.
- Mikeletiak, baiña, bat, bi, edo…?
- Mikeletiak egoten zien 2 edo 3 bakarrik; zertako egoten zien ba, […] eta ezen be zerik ez euen ta.
- Ta lan haundirik be ez igual.
- Ez ba! Lan haundirik, ze eukiko euen, ba, orduen?
- Kontrabandua zainddu.
- Bai, kontrabandua.
- Ze uniforme eukein? Ze… zelakua?
- Eken fraka gorrixak eta gero azule, azul klarue, hortako zerbait, txaketa edo zer bat, eta gerrittik zintturoi bat. Ta txapela zera be halakua euken, azule ta gorrixe izaten zan. Mikeletiak uniforme politta euken.
- Bistosua.
- Bai. Guardia zibillak, berriz, ointxe lakotxie.
- A bai, e?
- Bueno… Bai, ointxe lakotxie.

- Aguazillak be egongo zien, ba?
- Bai, aguazille bat. Aguazil bat. Berak nehikua itten euen. Ba, harek aguazillak itten euen, alhondigako zera, deretxuak edo.
- Kobrau edo?
- Kobrau edo, ba, ardauen zerak. Ostien, kalien errekaun bat badao ein ta… aiuntamientukon bat. Holakon bat itten […].
- Serenua egoten zan gabetan?
- Ez. Mondrauen-ta egoten zan, Mondraue haundixaua zan-ta ordurako, baiña Aretxabaletan eta Eskoriatzan ez, txikixak zien.
- Kaleko argixak eta ixutu itten zittuen […], edo…?
- Baeuen argiik?
- A, bueno… Ez euen kalietan argirik, e? Oraiñaokua da hori?

3.3. Auzoaren bilakaera

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/025
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:43:45. **Bukatu**: 00:47:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Negozioak, dendak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena**: Bidegintza. Bidea noiz egindakoa den. Auzoaren inguruko azalpenak. Toponimia. Eskuz egindako bidea.

Transkripzioa
-Bidie noiz egin zan?
-Hau kamiñuoi?
-Bai. Gellara doiena.
Ezin neiketzu esan. Ze urteik ez dakit. Ezin neiketzu esan.
-Beti ezautu dozu?
-Kamiño hau?
-Bai.
-Bai zera! Buuu! Nundik izango da ba betik ezautu? Keba, keba, keba! Hori ein zanien nik automoilla baneukan orduko, eta ekarritta neukan nik automoill barrixa. Gellako Sotero ezauketan dozu, Galla Gaiñekue, Sotero? Hak eta Jose Luisek, Oñatira faten zan lanera, horrek automoilla euken, hementxe ixten euen. Horrek be zelaittik etorten zien, ez hor bide zaharretik, zelaittik gora etorten zien. Ez dakit ze urte, ezin neike esan. Resuk esangotsu preguntetan bajatzu, jakingo dau hak, hak memorixa ona dauka, ha hortan ona da ta. Hemen ez euen bideik, keba. Nik Koruetako bidie be nox ein euen be, ez dakit ze urte dan, baiñe badakit Koruetako kamiñue nox ein zan (...) goguen dauket. Eta badakitzu zegatik? Hemen behixek ba ixkuagana erueten zien eta iñoiz etxien be ipintzen zittuen (...) eta fan gintzen horra, Azatzako Zelaikora. (...) Gorunzkotan ebitzen hortik Agarretik Otalazelaire, handik euen bidie. Baiña bueltarakuan hemenditxik fan bihe juau. Goittik bera lanie ebizen, eta buelta erain oskuen. Bidia eitten ebizen, kamiñue eitten ebizen. Ze urte dan be ez dakit. Edozein modutan be hori gerra aurretik izengo zan zerbait? Gerra aurretik izengo zan zerbait.

-Zuek behixe hartute...
-Behixa hartute hara. Ixkuegana, klaro, hazixe. Oin betenaixuak etxera etorten die. Zuenera ez die fango. (...). Eskuz dana, e. Pikatxoiekin eta harri-otzarekin eta karretillekin.
-Horrek bide-lanok kanpoko langilliek eitten zittuen edo bertakuek?
-Ez, ez, kanpokuek. Bueno, bertakuek be bai baiñe nik uste dot kanpokuek ingo zittuela, uste dot. Kanpokuek izengo zien, ez dakit. Ezin neike esan. Buelta eindde barriro mutikuek gora, lehengo bide zaharretik bera.
-Ondio bidia akabetako euen.
-Bai, bai.

3.4. Tabernan lanean gerra garaian

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/001
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Neskameak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Neskame joan zen Bergarara 18 urterekin; gerora taberna batean lan egin zuen gerra garaian. Tabernako lana. Jaiegunetan baserritarrak mezara eta gero zerbait hartzera joaten ziren.

Transkripzioa
- Egon zintzen neskame Bergaran…
- Han egon nitzen. Basarrixen be egon nitzen, eta gero handik tabernara fan nitzen, taberna batera. Gerra-denporan, gerrie… Ni fanda, hogeta hamarrien ero fan nitzen zerien-ta; gero, "dieciocho de julio"-edo, orduen urten euen gerriorrek, eta ba han egon gintzen. Zenbat zer… puf!! Soldauok-eta leku askotakuak. Gerra denporako zerok, kontuok, bueno…! Moruak-eta, regularrak-eta, ez dakit zertzuk-eta; danetatik. Gerra denporan hantxe. Aiketa hemendik joan arte, abanzau arte, Bilbora ero. Eta gero harutzao fan zienien, e, orduan etzan biher zerik, salbakonduktua ero zeroi, eta orduen etxera etorri nitzen. Erek be famelixie baukien dezentie-eta, etxekuekin pasetako moruen baeuzela ero, etxera etorri nitzen. Ia aspaldixan etorteka nenguan da ba, baserrixen be egon nintzen-ta…
- Baserrixan be kriada egon ziñan?
- Kriada egon nitzen bai, lehengusiña baten etxien egon nitzen.
- Zenbat urte zeuk orduan, kriada fan ziñanian?
- Hemezortzikin fan nitzen, hemeretzi eindda etorri nitzen, zela marzuan eitten dittuten, ni etorri nitzen abril.., azkenetan-edo etorri nitzen.
- Han tabernan jaten be emoten zan, ala mostradorian, ala zelan?
- Mostradorian semie, bertakue egoten zan. Hamaxei-hamazazpi urte euken eta beti, libre baeuen behintzet, bera egoten zan. Niri ba…, ha ez euenien ero. Jente asko etzan egoten han, taberna txikitxo bat zan-ta. Jaiegunetan da ba… mezetara etorten zien baserrittarrak-eta. Eta gero ba tabernara etorten zien zeoze hartzen.

- Zela euken izena taberniak?
- Axkarrena. Axkarrena lehenao zonan. Gero, zera, Bar Pagaldai. Kanbixau egin zien zerak-eta (jabiak).

3.5. Zazpi urterekin umezain joan

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-008/006
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:09:40. **Bukatu**: 00:11:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Neskameak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena**: Zazpi urterekin joan zen umezain. Gaur egungo umeak; gizartean eman diren aldaketak. Bederatzi hilabete egin zituen umezain; eskolara joateko itzuli zen; gerora, Eskoriatzara mojatara bidali zuten.

Transkripzioa
- Ataraizu kontuek, zortzi... zazpi urtekin fan nitzen ni ume-zain. Umie ume-zain. Ataraizu oingo umiek, ataraizu zazpi urtekin, zera, krieda. Ez gure aittek eta amak ez oskulako gure, e? Baiñe zan Apotzakue bertakue zan gure euena... “Ama” oi... “Felisa —gure amai esaten otsen, Felisa euken izena ta—, Felisa, nik hauxe neskatilliau hartuko neuke, ba, gurien neskatillie zainketako”. Pentsaizu, zazpi urteko umie beste ume txikixao bat zainketako. Ta amak: “Ba, beorri esan biherko dotsezu, beroi konforme bada... Beorri esan biherko dotsezu”. Amak zela esango otsan zazpi urtekue “Bai, bai, bai, eruaizu”. Ez. Ta “Ba, beroi konforme bada...”, ta “Bai, Eulali ondo zaindduko zau, ondo egongo zara” ta bestie. Ba, fan nitzen. Fan nitzen. Pozik egon nitzen. Ni holaxe leku guztietan asko apreziau naue, e? Ta neu oso pozik egon naz. Ta [hutse nitzen]. Ba, pentseizu, zazpi urtekue... Eta zelan umie txikitxuaue zan, ba, nik entretenidu itten neuen. Umia hartu ta eruten neuen ta oin aiña kotxe be ez abillen ta, ba, nik eruen ta hantxe ibiltten zan umia. Eta holaxe izeten zan orduko zera. Ta gero, ba, denpora apur baterako fan nitzen ta beratzi hillebete ein ta etorri nitzen, ba, eskolara fateko. Eskolara fateko. Ta gero handik mojetara, Eskoriatzako mojetara, fan nitzen. Han be luzero ez, ze barriro hamalau urterako ni baninddoien.

3.6. Gaztetan Bilboko etxe on batean lanean

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-008/008
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:11:55. **Bukatu**: 00:13:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Neskameak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena**: Bergaratik Bilbora, Bilboko "Arcipreste Vicario General"aren etxera lanera. Abadearen arreba gorra zen eta Eulalik gorren hizkuntza ikasi eta emakume honi laguntzen zion eguneroko eginkizunetan. Abadea oso gizon eskuzabala. Behar handiak zituzten familiei laguntasuna ematen zien...

Transkripzioa
- Gero, handik Bilbora. Bilbora fan nitzen gazteik, ba, ikesteko... zera zan, gorra zan, ta ikesteko berai berba eitten, atzamarrakin eskribiduten. Nik ondio be, ondio be, nik eskribiduko neuke. Ondio be ez dauket ahaztute dana. Torpetute bai, baiña ahaztute ez, e? Pentsaizu zenbat urte dien nik ikesi neuela, e! Ta ondion letrak ondo akordetan jat. Ondo, e! Ta egon nitzen ni harekin, ba, gustora. Enee!
- Zenbat urte harekin?
- Ba, hogei urte artien.
- Jesus! Asko...
- Bai.
- Sei inguru?
- Bai. Ta ez nitzen etorriko —“vete a saber” ni nun egongo nitzen—, ez nitzen etorriko ez banitzen jarri geixoik. Ni oso konforme nenguen. Ha zan Bilboko arziprestien —arcipreste vicario general zan— arrebia. Harexeaz arrebiaz egon nitzen. Ta harek euken amistade asko Bilbon. Ta jente asko... Betik bi kriedaz bizi izendako etxie zan: koziñerie ta donzeillia. Baiña gero zelan abadie... Klaro, gerrako kontuek, ez dakitzu? Ba bera ez zan... Oso karitatibue izen biher euen, e! Oso, oso, oso karitatibue. Ni be makiña bat bider fan nitzen pobriei hola etxie pagau ezindde ta sobretxuek entregetan, e? Sobretxuek etxie pagetako ta...

3.7. Jostunak Aretxabaletan

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-012/022
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:51:25. **Bukatu**: 00:55:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Sastreak, jostunak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Ama jostuna zen. Hasieran Aretxabaletan eta ondoren Bilbon ikasi zuen josten. Etxera itzuli zenean, baserriz baserri ibiltzen zen josten. Baserri izenak. Senarraren arreba ere, jostun ona.

Transkripzioa
- Eta ama joskiña zala, ta nun ikasi zeban badakizu? Hemen inguruan edo kanpora erten zan?
- Lenengo Atxabaletan esaten eben ibilli zala zer bategaz; ez dakit modista-modistie be ez dakit zan, baiña behintzat haregaz lelengoko zera. Eta gero Bilbon. Bilbon euen amandrien anai bat. Bilbon bizi zan, eta hak

zuzendu utsen nun ikasi. Atzenien sastrerixan ibilli zan, aurretik ez dait.
- Gustau egitten jakon?
- Bai. Kortie-eta sastriena eukan. Sastriena eta bestiena, baiñe atzenien sastriagaz ibilli zan.
- Gero berriz bueltan etorri zan basarrira?
- Bai. Hemen etxeik etxe ibiltten zan lelengo. Gure akorduen ez, baiña lelengoko josten hasi zanien, basarririk basarri ibiltten zan.
- Makiniakin?
- Bai. Makina kaxkarren bat eukiko eban, etxeik etxe, neu be akordetan naz batzukin. Baiña amagaz ez naz akordetan.
- Basarriz basarri, eta erropia edo esandakua amaittu arte bertan geratzen zan?
- Bai. Hurrien baeuen, etxera erretiretan zan, baiña urrin baeozan, konpaziño baterako Ugazteira eta be faten zan, aste guztireko holako lekuetan, akabau arteko, dana akabau arteko, lau etxe be baeozan, eta baten akabaten euenien bestera fan biheko eban.
- Eta zer egitten eban, baserrixetakua.
- Bai, baserrixetakua
- Nahikua, ez?
- Esaten eben Arkarazon be egoten zan, ta Ugaztein be bai, ta Larriñon be bai, ta Koruetan be bai eta. Etxietako zerok esaten zittuan. Gure akordurako ez ia, behin familixia ta eukierien ez; etxetik.
- Bertara etortzen zien?
- Bai, bertara ekarten dotzien, bai.
- Eta ezkondu eta gero be segidu egin zeban josten?
- Bueno! Lehen denpora guztien. Oin atzen-atzenera kanpokoik ez eben hartzen, etxekuek gure aiña. Orduan jositta ez zan eoten ezebe. Ez euen ezebe jositta. Ezebez jositta.
- Eta ezkontzan baterako ero?
- Topau ein biher. Hortarako bat edo bi zerak eozen. Bat hemengo nire gizonen arrebie.
- Zer zan, joskiña?
- Bai. Joskiñe ona. Arrasatetik-eta zertxuok etorten zien. Atxabaletatik-eta, ondotxo jazten zienok, edo jantzi gura euenok.

3.8. Antzinako bizimodua; transmisio kulturala

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/009
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:09:15. **Bukatu**: 00:10:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Trenbideko langileak
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Familia giroa; antzinako kontuen transmisioa. Gurasoak oso kontulariak ziren eta haiek kontatutako zenbait ipuin gogora ekartzen ditu. Aitajauna trenbidea egiten ibili omen zen.

Transkripzioa
- Kontatzen zeben euren... ba, hori, gurasuen-eta inguruko kontuak, edo?
- Gurasuen kontuak bai; aitta hemen jaixo zan, hori etxioi ya botata dau, baiña oin Illargixeneko horrek etxiok baeuzen ba? Nik hor ezautu nauen gure aitten jaiotetxia. Baserri bat zan. Horreik baserri haundixok eta ez, e? Baiña hori zan beste... e ... zera, kale-baserrixa izandakua. T gure aitta akordaten zan, hantxe, [ittuan]-ta dabitzela jolasien... zien hiru anai eta arreba bi zien, ta onddiokan danak txikiñak, orduan danak segidu-segidu eta eukitten auen umiak eta holan, eta hantxe dabitzela —eta aitta betik emozionau itten zan hori kontaten auenien— zelan juan zan euren aitta esaten ama hil in zala. Horreik kontuok, e... ta beti goguen euki euen aittak txikiña zala baiña aitta zelan juan zan negarrez. Gehixorik egongo zan edo, bai. Hori esaten dotsut galderia ein dostazunien euren aurrekua zelan kontaten auen eta holan.
Eta gure amak ezautu euen denporia —bueno, gure aman atzeraukuak be bai hori, e?— trenbidia in zanien, lehenengo in zala eztakit noraiño eta gero handik Vittorixaraiño. Eta aittajauna eta zelan ibili zien, hargin lana edo esaten auen, hantxe trenbidia itten Maringo gizon guztiek eta, ba, astian akaberan, ba, dirua irabazten auen. Asko ez zan izango baiña... bai, horreik gauzok.
- Orduan, baserriko lanaz gain, gero trenbidia...
- Bai, bai, baserriko lanak ez otsien emungo diru asko eta, ba, horreik itten.

3.9. Kale-saltzaileak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/030
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:51:28. **Bukatu**: 00:52:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- **Laburpena**: Izozki saltzailea eta arrain-saltzailea Arrasatetik etortzen ziren.

Transkripzioa
-Bai, haxe heladerua etorten zan. Edo orduko denporatan, gaurko egunien zenbat higiene ta zenbat gauza ta zenbat prohibiruta holan eukittia edo bestera. Etorten zan Mondrauetik peskadera bat. Hemen be baeuen peskaderixia, baiña etorten zan karrotxuen hartu sardiñak eta oiñez karruen, e. Eguzkixe edo haixia. Eta "vaya ricos". Pentsaizu, eta iñobe ez zan hiltten horregatik.
-Orduan etxietan be gauzak konserbatzeko ze zeukazuen?
-Ez euen frigorifikorik eta. Egoten zan, gure etxien euen holako leku fresko-freskue zana, bai, e, ta haintxe, ta beste batzuk be holaxen.
-Eta arrainduna esan dozunian?
-Mondraueko bat etorten zan, Sabina izena.
-Zela eskaintzen zeban berak zekana? Txilixoka ibiltzen zan?
-Ez, ez, ez, ez. Ya jakitten gauen noiz etorri biher zan. Danok kalien. Ama ta. Ni ez baiña ama-ta kalien, badator Sabina-ta. Handik aparte euen beste bat bakarrik. Honek Altuna, Iñaki Altuna-ta hor elixa aurrien bizi die ba. Haretxen ama. Eta gerora honek Pillar Zubillagak-eta ifiñi euen, baiña hori gerora. Eta holan.

3.10. Pregoiak garai batean izan zuen garrantzia

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/031
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:52:45. **Bukatu**: 00:54:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Udal langileak
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Pregoia irakurtzen zenean, jende guztia kalera edo leihora irteten zen.

Transkripzioa
-Bandua eta?
-A, qué bonito! torrrrorrrro..., tanborra jo-ta-jo-ta-jo, ta orduen nik gure etxie ezautu nauen radixue be ez auela, etxe guztietan be ez orduen. Gerora. Entzuten zan sukalde guztietan zerak, eta danok urteten gauen bentanara edo kalera. "Por orden del señor alcalde -erderaz-, por orden del señor alcalde que esto..." Bueno, puntuan behin egoten zien zerak. Eta ura moztu biha dauela ixa egunero, aberixak egoten zielako. Baiña aurretik tanborrerua. Eta danok atera. Gure etxian sukaldia be behien eta danok atera. Donato euken izena aguazillak.
-Herrixan ze tokittan irakurtzen zan edo?
-Ba, oso denpora gutxietara, e. Gurien, han Kalebarrenien hantxe erdixen, kale erdixen, Kalebarreneko erditxo baten. Eta gero hor plaza aurrien. Han be ez zauzen etxe asko baiña. Halakotxe tamaiñuetan.
-Esan dozu Donato zala?
-Donato. Eta gero akabetan dauenien torroot!, eitten auen. Eta hori normal-normala zan.
-Eta berak jotzen zeban bandua..
-Eta leidu.
-Zeozer gehixao?

-Ez, ez. "Por orden del señor alcalde, esto y lo otro..." Ze gauza polittak, e! Oin... Bai, hobeto bizi gare, hori badakiu hori, baiña dana sofistikauta dao oin. Oin bando bat portalian atian ifini ta, honbre. Lehengo moruen be ez, ezta, ezingo litzake izen gauzia. Baiña haik epokak be polittak zien, oso polittak.

3.11. Herriko uztargina

- **Hizlaria(k)**: Gorroño Arregi, Esteban; Zuazabeitia Herrasti, Duni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gorroño, Jasone
- **Erref**: ARE-021/014
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:27:55. **Bukatu**: 00:29:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Herriko uztargina nor zen. "Koipe" deitzen zitzaionak soinua eta uztarginak panderoa jotzen omen zuen. Uztargina ze familiatakoa zen. Emaztea gernikarra zuen.

Transkripzioa
-Beste gauzatxo bat. Uztargiña zein zan?
-E: Uztargiña? Santos bajauan ba erretratista bat? Ba haretxen aitta. [...] Ha panderojoteillie zuan ona. Ha Koipekin, Koipekin zera ibiltten zan, [...] Koipegaz Bitorixara... Harek filarmonikiaz, bestiak panderuakin, asko ibiltten zan.
-D: Lehen esaten hasi nazena, Kolonena, hortxe behien eukien horrek, uztarrixak hantxe eitten auen. Horrek kanpotik etorri zien, horrek ez dakit nundik etorri zien.
-E: [Mendienak] hor bertan euki auen arotzerixia.
-D: Horrek ez dakit nundik etorri zien, horrek Uztargiñenok.
-E: Uztargiñenok? Larriñokue da bera.
-D: A bai?
-E: Andrie Gernikakue edo.
-D: A bai. Familixia Gernikako, horko behealdeko zera...
-E: Andria. Baiña zela auken izena ez jat akordetan oin. Min punten daukat eta.
-D: Gure dana, bai. Uztargiña. Uztargiña eta uztargiñan andria. Akabo.
-E: Ladrillosen aman eta anaia, Larriñokuek.
D: Bai, harekin etxekuek zien, familixa artekuak.

3.12. 34 urtera arte Olabe baserrian

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-031/003
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:02:26. **Bukatu**: 00:04:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa

- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Etxeginak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Sei anai-arrebatatik bera bakarrik bizi da. Anaia zaharrena, Seberiano, gerran hil zuten. 34 urte zituenean, Antonio Untzillako Palacio baserrira ezkondu zen. Ordura arte Olaben bizi izan zen. Harrobian edota eraikuntzako peoi lanetan jardunaz bat, baserriko eginbeharrei ere eusten zien.

Transkripzioa
- (Loba): zenbat anai-arreba izan ziñaten, tio?
- Anai-arrebak, bost anai eta arrebia. Arrebia oiñ hil dok eta anai bat gerran galdu nixuan, anairik zaharrena Severiano Zubizarreta, ta Pedro be hil zuan, Ramon be bai ta hor senittartian neu na bakarrik.
- Eta zu zer ziñan, gaztiena?
- Ez, gaztiena beste bat, hil jatena.
- Zu bigarrena ziñan?
- Bai, nere odoleko bat be ez da bizi oiñ, “último tio”.
- (Loba): bai, igez hil jakon anai gaztiena.
- Eta nola etorri ziñan ba, Untzillara?
- Txikitxo batek ez nindduan ba dominau hona etorteko?
- Puxka baterako dominau zindduan.
- Etorri in bihar, ze ingo neben ba? Han be majaderokixak batzuk itten gittuan ta… hemen be bai, asko fixau ezkero.
- Etxe honek zela dako izena?
- “Caserío Palazio”.
- Eta hona zenbat urtekin etorri ziñan zu hona?
- Ni hogeta hamalau urteaz, berrogeta hamabi urte ingo (di)ttut nik hemen.
- Ezkondu hona in ziñan, edo aurretik ezkonduta zeontzen?
- Ez, ezkontzaz hona etorri nitzan, “veinti dos de abril”-edo izan bihar euen.
- Eta zer da, zure andria da hemengua?
- Bai. Hemen da, puntuan etorriko da, ez dakit ba nik zer… sekula, gutxittan faten da ogera hola ta…
- Eta han Olaben, orduan Olaben egon ziñan hogeta hamalau urte arte?
- Bai. Parte itten nauen kanteran be bai, honen aittagaz, anaiaz; gero obretan be bai, pioi, etxiak in, ganau askak, eta nunbaitten aberixa bat badau, arreglau hareik be; eta gero parte ba etxien.

3.13. Guardia Zibilak gerra aurretik

- **Hizlaria(k)**: Azkarretazabal Bengoa, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-041/014
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:33:46. **Bukatu**: 00:36:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Polizia
- **Laburpena**: Pilar jaio zenean Guardia Zibilen kuartela Eskoriatzan zegoen. Geroago eraiki zuten Aretxabaletakoa, Errepublika denboran. Orduko Guardia Zibilak ezagunak eta gizon onak ziren. Pilarika egunean denak joaten ziren Guardia Zibilen dantzara.

Transkripzioa
- Jende asko egon zan kartzela horretan? Haundixa zan?
- Semea: Ez. Hor kartzelan bat ero.
- Gutxi.
- Gizona: Gero hanka eiñ auen da. Bat ero bi. Zan habitaziño txiki bat.
- Oso txikiña. Han sartzen auen, eztakitzu, ibiltzen zien e...
Semea: Baiña ez zan holan e, kartzela bat, ze esangotsut nik, hamen Donostian euana. Keba. Kartzela bat, han egongo zien hiru ero lau bat sartuta. Baiña keba! Hamendik eruan eitten zittuen. Jentia Donostira ero.
- Zure amak ikasi zeban erderaz kuartelera joaten?
- Ez zakixen. Aittak bai baiña berak ez.
- Guardia Zibilletara?
- Guarda Zobillera joaten zan, esaten otsen: "Usté, Petra, ha dicho esto, esto, lo otro!", erderaz esaten otsen da ba klaro. Eta ba han ibilli zan. Eta gero behin batek esan orduantxe: "Eztot urtengo hamendik ezpostazu esaten zeiñ dan".
- Zeu jaixo ziñanian kuartela bazeuan ya?
- Ez, ez auen, Eskoritzan auen. Gero in zan hemen. Republika denporan in zan. Eskoitzan bai baiña hemen ez.
- Eta Eskoriatzakuak hona etortzen ziran Guardia Zibillak?
- Bai, ibiltzen zian atzera-aurrera baiña gutxiao. Lelengo lehenao guardozobillak etorri zienak eta ba ezaunak zien. Ez zien oingo moduan billurketakuak. Persona onak zien. Guk dendia euki gauen eta danak etorten zien dendara eta ezauketan gintzen eta danak, ezta?
Semea: lelengo hamen egon zan Eskoriatzan kuartela. Gero ekarri auen Atxabaletara, porke Atxabaletan obrero asko auela ta igual erreboluziñue ta holako kontueaittik ekarri zeuen hona. Urtiak, republika denporan. Ondiokan eskudua...
- Eta orduan guardazibillak oiñez ibiltzen ziran, kotxia bazeken? Edo zaldixan edo.
- Ezebez. Zaldirik eta ezebez ez eukien.
- Semea: Oiñez parejia gora ta bera.
- Baiña ez zien egon holan bat esateko moruan, eztakitzu? Egongo zan igual, baiña persona onak egon zien orduan, gure denporan. Pentsaizu, Pilarika Egunian-da egoten zien hori, dantzia ifintten euen. Dantzan egoten gintzen, dantzan itte arren kuartelera. Hau zala, bestie zala.

3.14. Guardia Zibilekin gertatutakoa

- **Hizlaria(k)**: Azkarretazabal Bengoa, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-041/015
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:36:38. **Bukatu**: 00:39:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Polizia
- **Laburpena**: Pilarrek eta ahizpak, gerra ostean Guardia Zibilekin izandako gertakizuna. Garai hartan errotak eta irina kontrolpean zituzten. Baba beltz eta patatak estraperloan ekartzen ziren Arabatik.

Transkripzioa
-Gerra denporan be gu ibilli gintzen, gure amari panadero bat,

panaderixiako bat Mondrauen dauena, Arrasate ero zan panaderixia, eta haregaz zan oso lagun haundixa ama. Ta harek emuten oskun uruna. Ta gure amak itten auen basarriko ogixa. Juaten zan, beste aldameneragokuek eukien labie ta. Eta egun baten aiztie ta bixok joan gintzen, neskatillakotiak gu, eta joan gintzen ogittan, urunetan. Ilunkaran joan biha gintzen, bestela, eztakitzu? Ikusi eitten gauen jentia, uruna ta (...); eta ikusi gauen guardazobillak: "Pakita, Pilar!, esperar!, que ya os voy a llevar yo el paquete". Guk, "ai ama, ointxe, ointxe, enterauko da, zabalduko dosku eta uruna dala. Oin guk in bihou ta. No, no. Ez, eztauela itxiko, gu ezgoiaz emuten, ez goiaz emuten". "Bueno, bueno -eurak-. Geu, mutil bi hemen, guardazobillak mutil bi, eta neska bixok kargiaz? Hori ezin leike". Eta aillegau gintzenian -hor Santutxo dau entradan ermitta bat-, eta esan oskun: "ointxe errebisau bihar dotsugu zer dakargun" Gure sustua! "Adios!, ointxe harrapauko gaue". Esaten oskun: "Zer pentsatzen dozue, gu ezkarela akordau zer doiazuen zuek?"
-Orduan ezin zan eraman iriña ala?
-Ez, keba!, kontrabandua zan. Orduan Bittorixatik eta be ekarten auen hori tta. Hor ibiltten zien ikusten.
Semea: prezinttauta egoten zien.
-Errotak.
-Zer dakatzun da, dana erakutsi bihar izaten zauen. Bueno, txarto ibiltten zan. Hemendik oiñez joaten zien horra Arabara eta patatia gabez-da ekarri tta. Baba baltza ta. Ez auen ezer da, jateko ta, gabetan da. Ta orduan zan kontrabandua. Gu holaxe pasauta gauz.
-Eta harrapau ezkero?
-Harrapau ezkero, ene!, igual multia o, kartzelia o, holaxe. Kartzelia ez baiña multia bai.

3.15. Aguazilen beldurrez

- **Hizlaria(k)**: Azkarretazabal Bengoa, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-041/027
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:55:49. **Bukatu**: 00:56:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Udal langileak
- **Laburpena**: Gaztetan kalean gauez ibiltzen baziren, aguazilek gurasoei esaten zieten.

Transkripzioa
-Argirik egoten zan orduan kalian?
-Argixa bai ifinitta bai, baiña oingo moruko argirik ez. Ezta pentsau bez.
-Kalian gabaz ibiltzeko ta zelan egoten zan?
-Gabez eta gaiñera aguazil bategaz holaxe ibilli gintzen, e, herri guztia.
-Ze ba?
-Ba zainketan. Eta gero esaten bagotson: "Zu, zure alabie ero zure semie ero hori, eta etxien ostera hartzen gauen...
-Semea: Egurra. Bi paliza.
-Palizia ez, jo ez gauen itten, baiña astinddu bat bai emuten oskun. Oiñ zortzi aguazil igual eta kasoik pez umiei eztotse itten. Eta orduen aguazill bateaz takarraran jota, badator aguazilla", bestia..., eta takarraran danok ibiltten gintzen. Diferentie.

4. Euskara

4.1. Eskola euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/005
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:05:21. **Bukatu**: 00:06:11
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskola euskaraz ematen zuten.

Transkripzioa
- [Hauxe eitteko abadiek atzera libre hintzuan]. Problemak euskeraz. Sardiña erre... Dozena erdi sardiñe erriel bi ta zenbat txakur txiki edo ez jakixat zenbat. Eta, bueno, gauza bat, joe! Gauza inposiblie. Inposiblie ez, baiña gatxa etarateko. Euskeraz, e!
- Euskeraz hareik be, e? Problemak euskeraz? Ta erderaz ze ikasten zauien, ba?
- Guk erderaz ezebez!
- Ezebez?
- Nik Garagartzan han bai. Han bai, han erederaz ikesi [...].
- Honek Garagartzan...

4.2. Umetan erdararik ez

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/007
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:07:01. **Bukatu**: 00:09:37
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Umetan erdararik ez. Gerra garaian, eskolan izan zuten maistraren inguruko kontuak. Falangista zen eta sermoiak botatzen zizkien politika gaien inguruan. Arabatik negu aldean morroi bezala etorritakoekin ikasi zuten beraiek erdara.

Transkripzioa
- Ta nik...
- Erderaz ein biher zan.
- ... ni gerra-denporan, Untzillan ibili nitzan.
- Eskolan.
- Eskolan. Maistra bat [burgalesa], falangistiaue... Artien gerrie euen, e! Bai. "Trenta y nueve, cuarenta", hortxe. Treintainuebien [gerau] zan, ta, ba, ordun, orduntxe estrenau [geun]. Niri barregurie emoten doste. Ta erderaz. Ba, bueno, aurreraotik, ba, zeoze bagekixen erderaz, hamen egoten zan --gu hamenguek, behintzet, ta hamen behien orduen bizi zienak--, Arabatik hola neguen-ta etorten zien, ba, kriau. Kriau edo, ba... Ezta? Araban, ba, Araban be jentie sobra edo zera, ta hamen falta, ta hamen familixaik gutxi aukien, eta ganau-zain ta eitteko ta. Ta guk harekin-ta ikesten geuen erderaz! Apur bat, ez dakitzu? Eta gero han, jo... erderaz. Bueno, defendiduteko bestien. Baiña okerra zan, e! Zatarraue? Tenazakin be ezin leikixon hari heldu! [Holako] bigotiek, betik [hotzak], [...] jantzirik be ez... Joe! Han... Buo! Puf! Ta baten, nik [harei esanda ha]... emon oskuen aber... ba, gerrie euen artien! Gerrie. Ta aber Españiako gerria aber zeneatik izen zan, ta ez dakit zer ta badakit zer ta aber [ipini oskun] zera, hari kontestetako bakutxek berai. Puf! Nik ze kontestauko notsen harei eskritue? Mille duro pagauko nauke eskuen eukittiarren. Bestiek, beste gaiñetikuek, ez dakit zela esango euen, baiña nik kontra. Nik Francon-ta kontra. Nik... Gerrie, ba, klaro... ta [hamengue zan], e! Klaro, mutikuak gitzen ta guri ze eingo oskuen, baiña jo, aitte ta ama igual... aitte-ta gaizki hartu igual. Baiñe [ha eskolako...]. Baiñe gero bota oskun sermo bat...! Akordaten naz [...] "que toda la culpa tenían los nacionalistas vascos y los separatistas catalanes", ta kriston sermoia bota oskun! [...] Nik enee, nik kontra! "Nik kontra bota juat, nik derrigor bota biher dotset", nik... [holakoik] pentsau barik. Ba, nik orduan hamalau urte edo. Ta enee...! Ba, erderaz hantxe ikesi gauen. Ta berak be ez ekixen larrei, e! Berak be problemak... ba, ez dakitzu? Horixe. Baiña, bestela, ez euken berak be...

4.3. Garia eta artoa ereiteko egin beharrekoak

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/023
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:39:35. **Bukatu**: 00:41:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Lexikoa

Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Garia eta artoa ereiteko lurra gertatu beharra. Lursailak banatzeko, "asatsak". Artarearekin (area) lurra "estaldu".

Transkripzioa
- Garixandako xehiaua bihar zan lurra, ala ez?
- Xehiaua edo. Goldatu itten zan ta, goldiekin ta, gero artarie edo esaten utsena, hortz haundi batzukin, harekin pasau-ta... Xe-xehia be ez zan geraketan, e. Eta batzutan hola eurixe-ta eitten baeuen, txarra preparetako be. Bustixe, ibilli be ezin in soluen, ta pegau itten jakon lurre, zerai, artariorri ero trastiorri, pegau. Batzutan izotzak hartu igual galanta, baiño hurrengo aldixen, e, eurixe be asko itten eban, ointxe letxe, igual, eurixe.
- Eta bixak txarrak
- Bixak txarrak, bai. Lurra landu ta gero garixe erein. Hola sailtxo batzuk ipiñi tamaiñuen, e, zerak, e. botateko garixa, bestela ez dozu jakitten nundik nora dan-ta. Han ifintten zittuen zer batzuk sartuta. Saillak markauta.
- Azatzak...
- Orduen azatzak esaten gutsen, azatzak ipiñi-ta. Arbusto batzuk edo, beste zeozer. Lasto gogorra be igual ipintten zan. Han ipiñi zuzen eta... zabal, bastante zabal. Eta gero garixok... eta gero tapau, "estaldu" esaten gutsan.
- Zerekin?
- Artarie edo. Artarie esaten gutsan geuk. Bergaran "arie" esaten utsie horri, baiña guk artarie esaten gutsen guk.

4.4. Herri hizkerak

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/024
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:41:30. **Bukatu**: 00:42:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Bergarako euskara, Aretxabaletakoa.

Transkripzioa
- Zuk Bergarako berbak be ikasi eingo zittuen han kriada egon ziñanian?
- Bai. Bueno, ni handik etorri nintzenien dana Bergarakue, baiña oin atzera borraute dauket. "Aria" ta, "intze" ta. Guk "iñuntze" esaten dou, ta han "intza" esaten daue. "Intze". Eta "haizie" be esaten dabe hareik, eta hemen "haxie". Mari Karmenek esaten jon hori askotan: Jose Luisek esaten dau: "Badabil haxe bat! Haxe fuertie, haxie!". Bergarakue-ta, ez dakit ikesi euen hemengue, oinddio be Bergara aldekue gehixao itten dau, e. "Haizie" esaten dau. Guk sartute daukau buruan-ta, "haxie".

4.5. Berorika nori egiten zitzaion

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/012
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:10:55. **Bukatu**: 00:11:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Tratamenduak
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Euskara » Tratamenduak » Berorika
- **Laburpena**: Abade, mediku, albaitariari, e.a. berorika egiten zitzaien.

Transkripzioa
-Abadiari errespetua eta. Berorika eitten jakon?
-Bai, bai, hori bai. "Ave Maria Purisima!!, txapela erantzi ta. Bai.
-Emaztea: Berori bai, berori medikuai be bai.
-Hori bai, e.
-Emaztea: Betenaixuai be bai. Medikua etortzen zanian arrautzak emun bihar otsazun.
-Eta maistriai be bai.
-Emaztea: Arrautzak emun bihar otsazun, beteinaxuai lo mismo.
-Pagatziaz aparte?
-Emaztea: Aparte.
-Bueno, arrautzak emutia obligaziñua ez zan /etzan/ izengo.
-Emaztea: Zu, ez zan /etzan/ obligaziñua baiña beti emuten jaten.
-Eta harek eruan. Je-je-je.
-Ez zeban ezetzik esaten...

4.6. Haria, galtzerdiak eta abarka-sokak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-012/019
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:39:35. **Bukatu**: 00:41:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Lexikoa
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Artilearekin haria egiten zuten. Ardirik ez baserrian, eta artilea erosi egiten zuten. Amandreak galtzak egiten zituen, eta aitajaunak haria. Ceciliaren senarrak eta haren aitak, "traillak" edo abarka-sokak egiten zituzten baita ere. Horretarako ardi beltzen artilea erabiltzen zen.

Transkripzioa
- Liñuakin harixa egin bai, eta artilliakin edo itten zeuen?
- Ez. Artilliakin galtzaak.
- Orduan artillia be erabilli izan dozue.

- Artillie hemen. Han ardirik ez geuken eta. A, han be bai, aittajaunek eitten eben, erosi eitten geben han, han ez geuken ardirik. Hemen bai.
- Ardirik ez eta erosi itten zenduen artillia?
- Ulia erosi, eta gero berak zerketan euen, aittejaunak. Holako zer batzuetan pasetan eben, eta gero harixa berak eitten eben. Eta galtzak amandriak, neguen. Eta hemen nire gizonak be eitten eben. Gizonen aittek, harek galtzak be bai. Gizonen aittek han zeak. Eta traillaak, kordoiek, abarkentzako kordoiek, horrek be bai. Hortarako ardi beltzen ulie ekarten euen kordoiek eitteko.
- Galtzak eta jertserik eta ez zan egitten?
- Ez, jerseik ez. Ez naz akordetan. Jerseik ez.
- Ta bihar horrek beti eingo zian gabian illuntzixan?
- Horrek negun, negun. Kanpuen ezer ezin leikienien ein, orduntxe.

4.7. Aste santuko sermoiak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-013/005
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:09:10. **Bukatu**: 00:10:40
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Tratamenduak » Berorika
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Sermoiak botatzera noiz etortzen ziren. Aste Santuko sermoiak. Abadeei berorika egiten zitzaien.

Transkripzioa
-Orduan pagau eitten jakuen sermoia eittia? -Pagau, pagau sermoia eittia. -Hori noiz izaten zan, Garizuman? -Ez. Hori eneruen izeten da, eneruen hamazazpixan izeten da. -Egun bakar baten etortzen zien? -Bai. San Antonio hori jaixe, zera izeten zan. -Bestela ez dozu entzun bardiña, Garizuman-eta frailliak etortzen zirela sermoiak eittera? -Bai. Egunetan egoten zien, batzuetan hiru egunekuek… -Eta derriorra izaten zan elizara juatia? -Bueno. Atsaldetan egoten zan funtziñua. Eta fraillen bat etorten zan; konfesiñuak-eta eitteko lelengo preparau ein biher izeten zan. Bai, Azatzan be akordetan naz; hemen ez naz akordetan sekula. Hona etorri ezkero ez sekula. Hona etorri ezkero Azatzan be akordetan naz. Baiña hola zentruao baten ifintten auen, jentie faten zan auzuetatik, Garizuman ezta eoten hainbeste zer han be-ta.

4.8. Eskolan bidegabe zigortua

- **Hizlaria(k)**: Lasagabaster Billar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-035/004
- **Iraupena**: 0:03:21. **Hasi**: 00:08:50. **Bukatu**: 00:12:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa

- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Don Fermin, auzoko irakaslea, Zarbitarte baserrian zegoen apopilo. Behin Jesusa zigortu zuen inongo arrazoirik gabe, eta horregatik Jesusak ez zuen eskolara joaterik nahi. Aitarekin joanda konpondu zuten arazoa.

Transkripzioa
- Don Fermin honen ze rekuerdo dakotzu?
- Ba nik txarra ez daukat e? Ona, behin kastigau nindduen eta nik ez nauen eskolara fan gure.
- Zeatik kastigau zindduen?
- Behin kastigau nindduen, zeatik zan, bera egoten zan Zarbiarten, Zarbiarteko baserrixen.
- Apopillo-edo?
- Apopillo egoten zan. Baiñe bertan pisue auen goixen, habitaziñuek eta danak. Eta han uge bat be baeuen, eta hori etxiori oin Matiko tabernako loba batek dauko, dana renobau in zan eta bera hortxe bizi da oin. Loba bat, Felizianana.
- Felizianan illobia?
- Bat. Billoba bat bizi da, alabien alabie, bizi da hor etxien oin. Eta ba ez dakit ze esan biher neben oin…
- Bai, Don Ferminen kontuak. Kastigau in zinddula.
- Eta Don Ferminek ba klaro, euken zera, beste kuarto bat, ure eukitten euen han, baldietan ta ura eukitten euen ta, esaten gauen hori ur zikiñori esaten gauen askotan ta, hola ta, iñok be ez gauen gure ha ure be. Eta ni nenguen beste Felizianan anai batekin jarritta nenguen bankuen, eta gengozen atze-atzien bixok, eta maistrue ba han bere bitrinan jarritta han ta, beste batek bota utsen itxuri maistruari bolatxo batzuk, hola, bota utsen hola, eta klaro, maistruk pentsau euen geu izan giñela. Eta gero akordetan naz ondo behintzet nik esan nauen etxien. A! Gero eruen ginddun horra, kuartora, eta hor ein oskun han apur bat arpegixa busti in oskun.
- Ur horrekin?
- Ur horrekin. Eta guri, bueno, nik etxera fan, eta nik: “aitta ni ez noia eskolara, eta ni ez noia eskolara…”. Gaiñera ni oso fiña nitzen eta berak, ba ni ez noiala. “Komo ke eskolara fan ez, eta ez dakit zer”. Eta aittek, bultzeka-bultzeka, gure aitte oso rektue zan baiña jo ta sekula be ez naue in ni iñok e? Sekula be ez, ez amak eta ez aittek. Amak eta betik gehixau hasarre in biher izaten auen; aittek ba gutxi esan ta obezidu agudo, gaiñea, aittak beituta bakarrik errespetua aguduago…
- Autoridadia, ezta?
- Autoridadie. Eta orduan ba aittek ba bultzaka-bultzaka eskolara eruan nindduen, maistruaz berba in auen, ni ez nitzela izen esango otsan segurutik, nik ez nauen gezurrik esaten, eta gero enterau giñen beste bat izen zala bota utsena hori, eta gero kastigua neri. Eta ni ba ez noia eskolara eta kitto!
- Eta ze izan zan kastiguori? Hara kuartora eruatia?
- Klaro, hara kuartora, eta hori kastigue zan.
- Ze in zindduein, han kuartuan…?
- Kuartuen hareaz ur zikiñaz arpegixe garbittu edo holako zeozer egin oskun, klaro. Eta guri etxakun gustau hori, klaro, ez giñen izen gaiñera geu. Eta ni sekula ez nindduen kastigetan ta hori, ni kastigo bat nehikua izan zan, ez noiala gehixau eskolara.

- Bueno, baiña pasau xatzun hasarria; ezta?
- Bai, gero pasau zan, gero maestruk aittek berba egin auen ta bueno. Gauzia pasau zan, bai.

4.9. Elgeako azken euskaduna

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/020
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:47:37. **Bukatu**: 00:50:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Gerraostean, Ozaeta eta inguruetara joaten zen guretik jendea erdara ikastera. Elgeako azken euskal hiztuna, Sasiain baserriko aitajauna, Pedrok ezagutu zuen.

Transkripzioa
- Orduen Ozaetan, Ozaetan hemendik jentia dana horra erderaz ikastera faten zan gerraostien, gure gazte denporan be, e? Nik hor euskeraz itten ebena azkenengo, “el último suspiro del euskera”, Elgean, Zaziain, hango aguriak itten eben bakarrik euskeraz. Ni mutikua nintzanien gu horra faten gitzanien. Haretxek bakarrik e? Arabarra.
- Arabarra eta euskalduna.
- Bai, euskalduna, baiña politto beste bat edo bik be bai, apur bat bai, baiña harek formal.
- Zaziain esan dozu?
- Bai, Zaziain baserrixa zan, Zaziain esaten otsen, baiña oin ez da bizi iñor, ha etxia hango alabia-eta Ozaetan-edo bizi dira.
- Hori Zaziain hori zan Ozaetako baserri bat?
- Ozaetakua ez, Elgeakua zan hori, baiña gero hango famelixia alabok edo zerok oin Ozaetan bizi dira. Hori Elgeakua, Elgean gorengua, mendi alderakua, Araba aldera, Elgeako goixen goixenien euen etxia.
- Zuk esan dozu zuk ezagutu zebela horko azkenengo euskaduna. Hori zenbat urte zeukatsula zeuk?
- Ba nik hamahiru-hamalau-hamabost urte, holako bat. Bestien be euskalduna egonda euen, Altube be, egurretan hemen ibiltten dana Elgeakua. Haren aittajuna zerekua zan, Ugastegiko Goikoetxekua, bai, eta hango zerak be euskeraz itten eben, nik entzunda neuken horri zeorri, Ugastegiko Goikoetxekua Koruetan bizi zana Emeterio. Harek txarrixari jana, gazuria edo zerbait berua bota eta kurrixka baten txarrixok eta, berua jak, errezau! Poloni edo zan andriorren izena, eta tia Polonik zela esan utsan txarrixari, “berua jak, errezau!” Esan utsela.
- Txarrixari? Zaziain baserri horretako zuk esan dozu, aittajuna ya?
- Aittajuna bai, hemen Peñakulokua euen kriau bertan, hemen Mendiolakua, ha be euskalduna eta haren etxian euskeraz itten zan.

5. Familia eta harremanak

5.1. Eskolara neguan

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/006
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:06:11. **Bukatu**: 00:07:01
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskola kontuak. Neguan joaten ziren eskolara batez ere, baserrian lan gutxiago zegoenean. Oinetakoak, abarkak. Bizimodua erabat aldatu da.

Transkripzioa
- Ta luzeruan ibili zitzen zu eskolan? Zenbat urtien edo?
- Urtien? Gu askotan neguen faten gitzen ta!
- Neguen!
- Lan gutxiao euenien, ez?
- Bai, lan gutxiao euenien.
- Klaro. Gure denporan baserrixen lana alde guztietan. Alde guztietan.
- Abarkak orduen zeraz eindde. Honek [...] edo urten euen gero, baiña aurretik automobillen...
- Kubiertakin-ta eindde.
- ...kubiertakin-ta eindde. Holako narru batzuk puntan ipini ta. Gero ha narrue, hamen, gero ha narrue hona botaten auen, ta haxe ibili. Ha narruek urtetan euen ta galtzok jo-ta "klik-klik-klak", ta...
- Ijittuen moduen.
- Ijittuen moduen.
- Gure gazte-denporatik hau ezin leike esplikau be ein.

5.2. Garbitasuna

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/012
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:28:30. **Bukatu**: 00:32:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Arropa zuria garbitzeko, "pujetie" egiten zen. Arropa urdina, jabonatu eta jo. Lixiba nola egiten zen. Sutako hautsa; ur beroa; e.a. Arropak usain ona izateko, ereinotza botatzen zitzaion. Zenbatero garbitzen zen arropa.

Transkripzioa

- Koloretako erropie ta erropa zurixe diferente garbiketan da, ezta?
- A! Bai. Bai, bai, bai. Erropa zurixe, ba, pujetie eitten zan, ta han garbittu. Ha egosi eitten zan ondo. Azule, barriz, ba, bestela; jabonau ta jo, ta garbittu. Ba, hor [azen] arbelgak, pozuek, ta, ba, zertu ta [harrixan joten zin], ta ederto garbiketan zan erropie. Bai. Oin baiño hobetua´ jaso eitten jakon orduen erropiai, ta ondo garbiketan zan. Bai. Oin labadoratan, baiña […] ez.
- Orduan, erropa zurixa garbiketiek lan haundixaue euken?
- Bai. Erropa zurixe garbiketiek lan… Ondo garbiketan zan orduen erropa zurixe. Oingo aldien ondo kaso eitten jakon!
- Zela zan hori?
- Ze ein biher izeten zan?
- Jabonau, ta gero ifini; gabonau ta, ba, […] zera ifini. Ta gero, gaiñien ipintten jakon trapu bat sendue, hauts-trapue esaten jakon. Han suteko hautsa botaten jakon gaiñera, eta gero aldiko apurtxo bat, aldiko apurtxo bat, ur epela botaten jakon. Ta gero, gerua´ beruao, gerua´ beruao, gerua´ beruaue, ta erropia egosi eitten zan. Ta hurrengoko goxien jo eitten zan etarata, ta epel-epela egoten zan. Ta jo ta erropie zuri-zurixa urteten euen.
- Epela egoten zan hurrengo goizian, e?
- Bai, epel-epela. [Ya tiñakada] zer haundi baten egoten zan. Epel-epela.
- Orduan, ura oso berua bota biherko […]...
- Bai, ba, berua azkenerako. Azkenerako, gerua´ beruao, gerua´ beruao, gerua´ beruao... egosi eitten zan.
- Ta ura beroketako be denporia biherko zan!
- Bai, [egunero] egoten zan-ta kaldara haundi baten berotute; lehenengo epelaue, gero beruaue… Horixe.
- Beheko sutan?
- Bai.
- Ta hari hautsei beste ezer botaten jakon?
- Ez, ez jakon botaten.
- Useiñe edo…
- A! Bai, zera, holako bedar usein gozo batzuk botaten jakuen, ta useiña botaten euen gero edarra.
- Zein bedar? Zein bedar esan dozu?
- Ba, eraiñotza ta horrek. Ur beruekin botaten jakon gaiñera […] eta ondo [sekatzen] zan.
- Ta jabonau, ze jaboi izaten zan lehen?
- Txinbo ta Lagarto. Jaboiak onak, […].
- Horrek erosi ingo zian, ezta?
- Bai, horrek erosi, erosi. Lehenau be gauza onak egoten zien, e! […] gauzak...
- Ta gero, bueno, lehen erropak banan-banan garbittuko zien…?
- Bai, banan-banan garbiketan zien danak.
- Ta oin hortarako pazientziarik ez…
- Bai. Oin, ostera, labadoran sartu ta, ba, bertan garbittu [deittiela] ondo.
- Ta oin besteko sarri be ez, ezta?
- Ez, orduen ez. Orduen hamabostien behin edo hola garbiketan zien. Zera eitten zan, pujetie, zurixek ondo.
- Erropa azulak sarrixao?
- E?
- Erropa azulak sarrixao?
- Bai, erropa azulek astien-astien. Bai. Soin-erropie gehixao, ta izerak, ba… zortzixen edo, ba, holaxe garbiketan zien, zortzi edo bederatzi… Bai.

5.3. Neskame Donostiara

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/017
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:48:48. **Bukatu**: 00:51:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
  Lanbideak » Neskameak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena**: Neskame joandakoa Donostiara. Oñatira ere neska asko joaten ziren neskame; aberats asko zeuden.

Transkripzioa
- Zu zeu be kanpuen ibilittakue zara krieda…
- Bai, neu be […] kriada ta…
- Baserrin baten ala…?
- Ez, baserrixen ez! Ez, ez.
- Kale-etxen baten?
- Bai, Donostien ta…
- A! Donostien?
- Etxeko lanak itten edo…?
- Bai, etxeko lanak itten.
- …ume zain ala zela?
- Donzella, etxeko lanak itten. Ordun aberatsak diru gutxikin ondo bizi zien. Diru asko… Orduen, ni krieda egon nitzen lekuen be, ba, lau kriada-edo han egon gitzen ta hiru edo lau [azen] bakarrik baiña holaxe zan. Dana orduen eskuetan ein biher izeten zan […], erropie be eskuetan garbittu ta… Bai, bai. Ez auen oingo moduko adelantuik eta! Bai. Holaxe.
- Eta fan zitzen gazteik fan zitzen?
- Kriada?
- Ez, ez. Ni gerra-denporan, gerra […] fan nitzen ta, ba, gero, atzera gerrie akabau baiño lehen etxera ekarri [ninduen] ta, ba, holaxen.
- Zer zan hobia, hango lana ala baserrikua?
- Ba! Baserrixen gustora faten nitzen! Etxien…
- Etxien gustora…
- Bai, ba! […] beste libertade bat egoten zan ta. Bai.
- Han iñon mendian…
- Bai. Lanien [han] in biher izaten zan. Oñetin be makiña bat egoten zan ordun kriau, aberats asko euen Oñetin be. Hemendik neska asko faten zien Oñetira krieda. Bai. Oñetin aberats asko euen!
- Bai, egongo zan, kalian-edo igual…
- Bai, kalien. Bateko medikuek eta besteko ez dakit zertzuk eta… aberats asko.

5.4. Inguruko herriekin harremana

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/018
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:51:15. **Bukatu**: 00:53:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena**: Aretxabaletara joateko joera zerbait erosi behar zenean. Oñatira ere joaten ziren. Antzina, Arabara ere joaten zen kontrabandoan, ardoa ekartzera.

Transkripzioa

- Hemendik Oñetirako-eta joera haundixa euki dozue, ezta?
- Bai, hemetik, hortik, pantano zeretik [pasatzen] zan. [Ordubetegarrengo] Oñetira sartzen zan hemendik, e!
- A, bai, e?
- Bai, bai.
- Oiñez esan gura dozu…
- Biheko! Basotik! […] Bai.
- Baiña gauzak erosi-ta in biher zienien Atxabaltara beti…
- Bai, Atxabaltara edo…
- Oñetira ez…
- Mondraure edo… Atxabaltan baiño [zer] gehixao[…] zien ta…
- Ta Oñatirako zetarako… hori joerioi zetarako zan Oñatira? Zetara faten ziñien?
- Ba, jentie faten zan gauzak erosi edo [zerbait] zer gure dauenien edo… Bai.
- […] Arabara be lehenao hola…
- Arabara lehenao esaten [zeuen] ardautara faten ziela. Hori be esaten daue. Ta gero han mikelete-etxie edo ez zan, ba, egoten goixan? Zera egoten zan… mikeletiek zainketan auen. Ta jentie, ba… kontrabandue esaten euen ta, ba, jentie […] zala esaten euen hamen.
- Zeuk ezautu zeuen hola ibiltten zan iñor ala?
- Ez. Banakan bat bai entzunda, bai, handik ekarten euela ardaue ta bestie, baiña… nire denporan…
- Zu baiño lehenaoko kontuek…
- Lehenaoko kontuek die horrek, lehenaokuek. Bai.
- Ta ardaurik ezin zan ekarri orduan ala?
- E?
- Ardaurik ezin ekarri Arabatik edo…?
- Ez, kontrabandue zan, ba. Ta orduen Arabatik ekarri ezkero, kalera etortzen bada, aiuntamentuen pagau in biher izeten zan. Aiuntamentuen han alhondigia edo esaten otsen ta handik, han egoten zan ardaue, ta handik […] herrireko. Oin zerak egoten dien moduen, […] biher zerak, deretxuek.
- Klaro, etxera ekarri gura bazan, pagau…
- Bai, deretxuek pagau bihar. Ba, oin pagetan dien moduen gauzak pagau in biher. Orduen be herrireko zerbait pagau in biher izeten zan. Oin be deretxuek pagau in biher izeten dou, bai? Ta orduen be bai.
- Baitta…

5.5. Elizan nola esertzen ziren

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-004/005
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:09:25. **Bukatu**: 00:12:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Mezatan, gizonak eta emakumeak banatuta. Emakumeak hilarrietan kandelarekin. Erresponsoa. Auzo guztietako baserriek hilarria izaten zuten elizan. Gizon batzuk, koroan. Umeak, aurreko aldean.

Transkripzioa
- Ta domeketan fan ein biher izeten zan?
- Domekan faten zan, bai, ta dana faten zan hamen jentie orduen. Auzo danetan.
- Ta mezetan zela jarten zitzien? Gizonezkuek, emakumak... nahasi edo...?
- Gizonak... ez. Gizonak alde baten ta emakumiek beste aldien. Ta orduen egoten zien hillerrixek ta emakumiek hillerrixetan egoten zien. Bat edo... Kandelakin egoten zan han.
- Hillerrixe zer da?
- Hillerrixek esaten... Ba, trapu zuri batekin egoten zien ta bi kandelero ta zera, argixek ixotute ta etxien bakotxekuk hantxe egoten zien. Guk geuk be bageuken, beste etxekuek, beste... danak eukitten euen horixe. Ta gero hillarrixen egoten zan bat ta gero zera... abadie gero etorten zan ta gero errespontsuek itten zien. Ta gero etortzen zan abadie sakristauaz eta [...] eitten zittuen zerok, oraziñuok, ta, ba, [...] txakur haundixe botaten jakon. Bi edo hiru txakur haundi abadiei elixako zer... hillarriko danetan egoten zan abadia ta, ba, danai botaten otsen ta holaxe.
- Ta errespontsua zer zan?
- Ba, zueik ez dakitzue ta horixe!
- Ez, ba.
- Errezue edo...?
- Errezue. Abadiek eitten eben errezu bat-edo haintxe ta [...] oraziñue eitten euenien, ba, “tak” botaten [jakon] txakur haundixoi. Atzera beste [batera] ta hiru bat txakur haundi edo bost edo botaten [jakon]. Hori hillarri... edo... auzo danetan, e! Hillerrixek baserrixekuek eukitten zittuen hillarrixek, bakotxak bere zerak, silliaz ta...
- A! Elizako leku bat?
- Bai, noberentzako lekue, hantxe baserrikuentzako hantxe egoten zan. Bai, auzo danetan, e! Baitta Atxabaltan kalien be egoten zan hori! Baserrittarrak. Baserrixa gehixenak euken ta...
- Kaleko etxiak ez?
- Ez.
- Ta kalekuek...?
- Baserrixa eukenak bai, baiñe kaletar... [kalie] eukenak ez.
- A! Kaleko familixak ez euken...
- Ez, ez, ez auen eukitten hillarririk.
- Ta han emakumie egoten zan normalien?
- Bai, emakume bat egoten gitzen ta...
- Etxekoandria ala...?

- Noberak gure auena!
- A! Etxeko batenbat...?
- Etxekon bat, batenbat.
- Baiña emakumia...
- Bai, emakumia. Gizonak, ba, komun... edo... koruen edo aldamenien zerien egoten zien.
- Ta umiek?
- Umiek aurrekaldien egoten zien bankuko illaran gaztiek danak.
- Zainketako moduen, ez?
- Illaran egoten zien.

5.6. Labako-sua

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/009
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:13:50. **Bukatu**: 00:16:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Baserria » Baserriko lanak » Artoa
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Artoaren inguruko lanak. Ogi zuria egin aurretik, artoa egiten zen. Labea garbitzeko, "ipixkixa" erabiltzen zen (trapu zahar bat). Artoa eta esnea gosaltzeko.

Transkripzioa
- Ta gero artua be bai esan dozu, ezta?
- Artua be bai, artua be itten zan.
- Ta artuak zer lan eukitten zittuen?
- Artuek, ba, artuek be igual-iguala. Baiña artue... labadurie, labadurie... labadurie, hazkarrixa esaten jako, labadurie, labadurie, ogixe harroketako, masie harroketako izeten zan, ta hori be falta zanien bezinuaana faten gitzen. Kaletik be bai, [Saldukuek], [Salduko] San Juan, [...] haik be etorten zien gurera, etorten zien, ogixe itteko, labadurie [...]. Hazkarrixe edo ez dakit zela esaten jakon, ogixa harroketako. Ta artuek ez dot uste eukitten euenik hori. Ta artue horreik ogixekin, [...], itxi itten jaten, ogixai itxi itten jaten puxkat harrotu arte, harrotu arte; baiña artuai ez, artuai, hartu ta... ni akordetan naz, palangana baten hartu, buelta ta buelta ta buelta, buelta emun, ta labara zuzenien [sartzen] zan, ogixa baiño lehenago [sartzen] zan artua, lehenago [sartzen] zan, baiña bastante denpora lehenago, e!
- Denpora gehixau bihar...
- Denpora gehixau bihar euen itxuria. Lehenengo laban hori ein, sua ein, gero ipizkixa esaten jakon [...], pozu baten busti ta makilla baten, haga baten, trapu zahar bat —trapu zahar batzuk izeten zien— ta hareaz garbittu labioi. Garbi-garbi eitten zan hareaz. Ipizkixa deiketan jakon hari.
- Ipizkixa?
- Trapu horri?
- Trapu horri bai, bai, ipizkixa deiketan jakon. Hareaz garbittu eta lehenengo, klaro, hango hondarrak egoten zien, su-txingarrak hondarrien egoten zien, alde baten ta, haren onduan ipintten zan, artuak ipintten zien.

Orduen... oin artua karuau dao, baiña orduan artua merkiaue [...], merkiaue zan asko be. Baiña artue zan ona! Guk artua ta esnia jateko ta, ha mehe-mehe ebaitta, egosi-egosi in bai? Egosi, e? Gaur be jango neuke!
- Bai, e? Edarra, e?
- Bai, bai. Egositta, e? Egosi itten zan ha, mehe-mehe ebai, hola zatixak [hartuta] ogixen moduen ez, ebai mehe eta jaten zan.
- Armozetan jaten zabien ha?
- Armozetan jan [...], armozetan. Hori bai! Kaferik eta oingo moduen ez auen e? Kafia ta... hala jaten geben, bai.

5.7. Janzkeran aldea baserritar eta kaletarren artean

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/016
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:27:28. **Bukatu**: 00:29:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Fraka motzak zenbat urtera arte erabiltzen zituzten. Kaleko eta baserriko umeak desberdin janzten ziren. Baserriko umeek erabiltzen zituzten fraka laburrei (berna erdiraino heltzen zirenak) "peskanteak" esaten zitzaien. Kaletarrak, baserritarrak.

Transkripzioa
- Ta fraka motxak ze urte arte ibiltten zien fraka motxak?
- Ba, fraka motxak, normalien, hamabi-hamahiru urte arte ibiltten zien fraka motxak, hamahiru ingurura arte. Batzuk ekarten zittuen, honeik baserrixetan eta goixen ebitzenak, horreik gu kalekuok baiño atzerau ibiltten zien, eta horreik ekarten zittuen honaiño ingurukuek, holako ingurukuek ekarten zittuen. Peskantiek deiketan gontsen horri.
- Peskantiek?
- Peskantiek deiketan gontsen horri, bai.
- Hola, berna erdiraiño edo?
- Berna erdiraiño. Bai, holakuak ekarten zittuen horreik. Guk ez, guk kalekuak, hemen kale ingurukuok, kale inguruan ibiltten gintzenok, ez. Baiña horreik hemen baserrixetan eta, horreik kalera bajau be... noxien... urtien behin edo birrittan edo, behin be ez igual edo bi urtetik behin edo itten zien bakarrik kalera. Hareik ez zien agerketan kalera! Gu bertakuak zela gintzen, ba... gu [...] baiña, ba... guk hemendik... Kalera, kalie hurrien geuken, guk bizimodua kalian itten geuen.
- Ta baserrittarrak peskantiakin?
- Peskantiekin, bai, bai, peskantiekin.
- Ta zuek moztxuauekin?
- Gu motxauakin [...] belaun gain-gaiñekuak.
- Bai, bai.
- Diferentzia egoten zan haundixe. Ta hemen ez bakarrik, hor Larriño aldetik eta etorten zien handikaldetik jentiak be, [...], etorten zienak, frakak holako lekuraiño. Holako luku inguru bateko frakakin etorten zien.
- Oseake igarten zan apur bat kaleko eta baserriko...

- Bai, bai, igarten jakon, igarten jakon.
- Jazteko moduan.
- Bai, apur bat bai, igerten jakon. Oin, lehenau, kalekuak eta baserrittarrak, ya aparte —gero mutil haundi ein nitzenien ta be— aparte: jeneralien, baserrittarrak alde batera eta kaletikuek beste batera ya. Oin ez, oin, gaur, kalakue, baserritarra… dana bardin da, baiña orduen ez zan izeten bardin, e? Ez, ez.

5.8. Ahozkotasunaren garrantzia

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/033
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 01:05:00. **Bukatu**: 01:08:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- **Laburpena**: Arto-zuriketa. Sarritan arrosarioa errezatzen zuten. Amari asko gustatzen zitzaion abestea. Gabonetako kanta bat. Bizimodua asko aldatu da. Aitajaunak ipuin, istorio asko kontatzen zituen.

Transkripzioa
-Gero artozuriketan gauetan eitten zeuien? Kamaran ala nun eitten zeuien?
-Kamaran ez, eskapeien.
-Errosaixue errezauaz edo?
-Bai, sarritten. Klaro, artue kendu ein biher izeten zan garixe ereitteko; horregatik kendu ein biher izeten zan, eta arue betik etzan egoten, eurixe zanien ezin ekarri artuek etxera, sikue dauenien ekarri bihar. Eta burdikara haundi bat ekarri ta ba hurrengo egunerako lekue in bihar barriro. Eta hortxe artozuriketan.
-Eta bestelan bazeukatzuen ohitturaik, aittak eta amak eta kontuek kontatzen zittuen gabetan artazuriketan zebitzen artien edo.
-Bai. Amak hainbeste ez. Kantau be eitten euen amak. Amak kantau be eitten euen. Itturbekue zan ama da Itturbekuek (...) zan oso. Eta gaztaiña zuriketan gebitzela be bai. Kantau eitten euen. Gu agiñekin eta harek (...) ha kantuen ibiltten zan gaztaiña zuriketan. Bai, horrek ohitturok baeozen.
-Goguen badaukotzu holako kantun bat edo, berai entzundako kantun bat edo?
-Dauket kantu bat Gellaan-da Gabonetan zer kantetan zan.
-Hau da egun? pozgarria/ Jesus jaio da Belenen/ izan? Iurraren jabea/ askatxo batian agertzen/ askatxo batian agertzen.
-Bai, e? Ez neuken sekula entzunda hori.
-Horrek ohitturok bai oin galdu diela asko. Kantau eta gero kontuek kontau etxien da. Oin ia holakoik ezta ia apenas eitten, ezta? Penie da.
-Oiñ aurreragoko lanak daz.
-Hori penie da.
-Hori kantu hori askotan. Beste kantu batzuk be bai baiña eztakit
-Berak kontuik edo historixaik kontetan auen hola?
-Eztaukat..., ez ez.

-Ipuinak edo?
-Ez, ez. Gure aittajaunak Itturbekuak bai, hak bai. Puu!, hak ipuin asko kontetan euen. Hona askotan etorten zan aittajaune Itturbekue. Bera izetez Koruetakua zan, Urrutia.
-Eta haren inguruan egoten zintzen zuek entzuten?
-Honbre, hoixe!
-Pozik, e?
-Pozik egoten gintzen, bai.

5.9. Ospakizunak; gonbidautzak

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/036
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 01:14:00. **Bukatu**: 01:16:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Ospakizunak. Gonbidautza. Alkobak.

Transkripzioa
- Gabonetan ahuntze ta...
-Zerbait. Santa Lutziatan be ba konbidau asko egoten zien hemen. Konbidauek edo enfin. Klaro, tia-tiuek eta primo batzuk etorten zien da ahuntze edo, enfin, ipintzen zan, okelie, zerbaitt ipiñi ein bihar. Angulaik ez euen orduan eta.
-Oin be ezizu pentsau.
-Niretzako ez.
-Neuretzako be ez.
-Lehen hori konbidautzia ta asko izeten zan, ezta?
-Bai, honbre!, hoixe. Konbidautzie asko egoten zan. Gu geu Lehetera faten gintzen, Itturbera be bai Andramaixetan. Gellaokuek. Eta (konbidautzia) Suñakue be bai, be bai. Konbidautzie asko izeten zan lehenau. Etxekarak!
-Askotan izeten zan igual etxekuek bedarpillan lo egin bihar, ez? Kanpotik datorrenai leku egitteko.
-Bai, inoiz, hori be bai inoiz.
-Kanpokuek hartu gure ta.
-Betik hobetutxuao esan bihar kanpokuei.
-Eta ohe baten batzuk alde batera begira eta beste bazuk bestekaldera begira eta. Amak esaten dau batzutan ohe baten umiek lau ume ohe baten eta bi alde batera eta beste bi bestekaldera eta; baten hankak bestien arpegixen eta. Hori be eitten zan?
-Egixe da hori, bai.
-Habitaziñuek alkobak izeten zien, ezta?
-Alkobak. Geuk be oin salie daukau eindda baiña alkobak egoten zien.
-Eta batetik besterako pasue, ez?
-Ez, ez. Batetik besterako ez.
-Hori zela da?
-Euen ba sala bat erdixen hor euen, ezta, eta ba alkobak, bazterretan alkobak.
-Kortiñekin?

-Bai, kortiñekin.
-Ondio gurien be baserrixen han dau.
-E?
-Zarimutzen holaxen dazela alkobak. Lenaoko moduen kortinatxuekin. Da lenaoko ohe zarrok, honek altu-altuek. Eta koltxoie ardixen laniaz. Eta gero astinddu ein biher izaten zien horrek, ez?
-Astinddu ein biher, biheko.
-Makillie hartu eta emun.
-Emun egurre, emun ein biher. Hautsa darixola.
-Neu be eindda nau. Asko ez baiña bai.

5.10. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/037
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 01:16:30. **Bukatu**: 01:19:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolasak: kaka-torreka; tortoliska; banderaka... neskak eta mutilak elkarrekin.

Transkripzioa
-Umetan ze jolas eitten zabien? Gogouan daukotzu?
-Bueno, kakatorreka ta. Kakatorreka ibiltten gintzen, bai.
-Zela izeten zan hori?
-Hori, pote bategaz jo eta danak gorde eitten zien. Ta gero aldian bati toketan jakon hori eittie, ta hak gero potie joten euen ta topetan joaten zan batera ta bestera, jentie topetan nun dauen, eta gordeta jentia, eta beste batek ezkiñatik etorten bazan eta ha potia jo, hurrenguen berai toketan jakon barriro.
-Eta mutiko eta neskatilla danok alkarrekin ibiltzen zintzien?
-Bai, bai, danok alkarrekin. Hemen bai. Gu jeneralien Zaloñara faten gintzen. Eurak hona etorten zien eta gu be bai hara. Eta kalien “atienteka” ibiltten gintzen.
-Atienteka?
- Atienteka deiketan utsen. Atienteka kalien.
-Zer da hori?
-Iguel-iguela. Poteik etzala erabiltten. Bestela bardiña. Eta klaro, jentie topetako, besten bat etorten bada, ostetik etorten bada, harrapetan badutso, gero barriro berak ein biher.
-Gero sokasaltoka ta.
-Bai, bai.
-Mutilak be bai.
-Mutilek be bai. Eta tortoliske.
-Tortoliske.
-Tortoliske eitteko Garizuma izeten zan jeneralien. Garizuma izeten zan tortoles eitteko bidie. Neskak eitten euen tortolesen. Mutillek hainbeste ez.
-Banderaka?
-Enaiz akordetan.

-Gaztaiñiko Maximok esan oskun ibiltten ziela banderaka.
-Uste dot dala bi grupo eiñ eta erdixen paiñelo bat ixten da eta, eta alde banatatik grupo bakotxeko batek urteten dau eta aber zeiñek erdixen dauan trapu hori, banderioi hartu eta eruen eta. “Al pañuelito” edo holako...
-Enai akordetan horrekin.

5.11. Aireplanoak, umeen denbora-pasa

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/011
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:18:20. **Bukatu**: 00:19:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Aireplanoak. Umeen denbora-pasa.

Transkripzioa
- Baiña zuk areoplanuak beti ezautu dittuzu, txikittatik ezautu dittuzu, ala geroko kontua da?
- Bai, bastante txikiña nitzela, baiña orduan rarue izeten zan. Orduen dana kaleko mutikuek be "arioplanue, arioplanue!" esaten egoten zien. Bateon bat ikusten zan, da, arioplanue! Ulu baten. Oin ez dau iñok esango. Oin hainbeste pasetan die, gabien be beitu hortik beheko bentanatik eta, beti baten bat, bat baiño gehixao, e, bat harutza bestie beste aldera, bestie beste aldera; argixekin zela faten dien, txis-txis-txis! arioplanuek. Orduen arioplanuek kaleko mutikuei be zera eitte utsien...

5.12. Baserritik kalera lanera; zapata lantegiak

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/015
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:23:35. **Bukatu**: 00:26:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- **Laburpena**: Lantegietan gizonezkoak gehienbat. Baserritik kalera lanera. Zapata lantegia. "Bortzerixak", oinetakoak.

Transkripzioa
- Eta hor fabrikatan gizon ta andra enplieitten zien, ala gizonak bakarrik?
- Lehenau gehixenak gizonak, e. Andrak gutxi. Andrak, e, alargunen bat ero, holako zeren bat bazien, ba, hartzen auen, baiña basarrittarrak-eta,

andraik eta...
-Nahikua lan basarrixan?
- Kalian bai..., nahikua lan bertan be, baiña. Diruagaittik edo zeozegaittik gure igual fatie, baiña hartu ez. Kalien, itxurie ba, nahikua jente euen. Ordun mutillak be hamalau urte orduko lanera faten zien-ta. Hamalau urte arte ibiltten bazien eskolan, danak segidan lanera. Herri haundixa ez zan-ta, zer asko ez zan-ta baiña. Famelixak be, oin baiño neskatilla-mutiko gehixao eoten zan. Gure moduan ba zazpi-zortzi euki ezkero, beti eoten zien baten batzuk fateko. Neu fabrikara ez naz fan. Baiña anaia-ta ba ibilli die; anaia ta aizta bat be bai, gaztia. Bestie ez da ibili fabrikan, ha kriada ta egon da, ha ez da fan. Fabrikan zapaterixan sartuteko edo egon zan, eta orduntxe zerrau in zan; zerrau ein euien. Bortzegixek-edo esaten utsien, bota batzuk edo eitte zittuen. Gogorrak, harrixa baiño gogorrauak, narru bat eukien ez dakit zerena ha izengo zan. Busti eta gero sikeketan zienien, ez dakit zeiñek jantzi. Nire anaiek euki zittuen bai, eta hankak apurtu harekin.
- Zerrauta hoba orduan?
- Harek ez eben modernizau, beti haretxekin jardun euen, eta gero kanpotik etorri zien zapatak ero oiñetakuak hobak, eta gero zerrau ein ebien hareik. Hor andra batek, e, geuk esnia eruten guntsen-ta, josten eitten euen harek, eta esan euen, ha ibilitta euan han, bortzegixok edo botok eitten zittuen lekuan, lanien, eta: txatxuelak sartzen belaun gaiñien asentauta, zerak, txatxuelak sartzen botai. Hareik soldauentzako itten ei zittuen gehixenak, e. Sartzen, belauna-ta haundittuta-ta faten ziela etxera, e. Gero halakon baten ekarri auela katxarron bat, asentetako, baiña makiña bat denpora egon zala, e, belaun gaiñian asenteuta zerak sartzen hari. Untzie, ta gero txatxuelak esate utsien harei, txatxuelak sartzen. Harek kontetan zittuen harek andriek edarrak.

5.13. Esnea saltzera etxeetara

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/019
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:29:45. **Bukatu**: 00:32:55
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Esnea nori saltzen zioten. Etxez etxe banatzen zuten esnea, bezeroak zituzten.

Transkripzioa
- Esne saltzen be, esnie repardiduten, astuaz faten zitzien?
- Ez geben eruen esnia, etxien gehixena eta txahalai emuten gutsen eta ez geben... Gero hasi gintzen horra ataraten, letxero batei. Koruetakue edo Azatzakue. Letxero bati kamiño kurtzera ataraten gutsen esnioi. Kalera fan barik. Gutxitxuau irabazten zan, baiña ba, zeozer, ha hurrago euen-ta, ba kalera fanda be ba saltzen ibilli in bihe zan-ta.
- Etxeik etxe?
- Bai, etxeik etxe ibiltten zan.
- Eskintten ala bezeruak hartuta?

- Hartuta, batzuk behintzet hartuta. Gero hori be, hola saltzie kalien prohibidu ein auen, ia danak itxi utsen. Guk erueten euen ba, ni eskolara fanaz erueten neuen, biri-edo, hirui-edo eruten nutsen nik marminkada bat, bat edo bi igual, bi zer, marmint, bezerixia hartuta auken. Faten nitzen eskolara fan aurretik hango batei, hori txatxuelak sartzen ibili zanai, harei be bai. Josten eitten auen harek-eta, gero josten einddako zerak, e, guk esniaz, harek erropak josten zittuen, ta guk esniekin, e, pagau-ta, hala eitten geuen. Kalien, e, hor elixa parien bizi zan haura. Eta beste batzuk, berriz, e, beherau bizi zienak fan zien zeera, kanposantu ondora edo, ospittalera esaten utsien, ta hara fan zien bizitten, ta han itxurie etxie eta ez dakit zertzuk debalde eukien, e. Ospittal moduen, eta gero kanposantuen be bai, zera eitten auen, enterradore. Hara fan zien, eta hor hasitta gengozen esnie eruten, eta gero hara erun biher. Fanaldi ona dau hortik hara! Esnie eruen ta eskolara handik bueltan.
- Astuai zer egitten jakon ba?
- Astua ez, eskuen eruten neben orduan. Eskuen eruten nittuen. Marminttok itxi han beheko portaleko ate ezkiñan edo ate ostian… Aide.

5.14. Lixiba nola egiten zen

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/029
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:49:50. **Bukatu**: 00:52:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Arropa nola garbitzen zuten. Lixiba nola egiten zen: sutako hautsa; ereinotza; eta abar.

Transkripzioa
- Hor pujetan esan dozu, ur berua eta beste ezer botaten zan?
- Lixibiai? Hautsa ipintten geuan, sutako hautse, trapu bat, trapu bat gaiñien ipiñi, berandako moduko holako… izarakixe edo, ehunen zer bat, eta galbahiekin pasauta, iketza ta euki ez deixen, zikiñe egon ez dadin-ta. Labakua hartzen geuan guk, laban inddakue; bestela sukaldien han, sutonduen, igual oiñetakuek-edo, abarkak-edo erantsitta, lurre ta igual eukitten auen harek hautsak, eta lurrek ez euen zuriketan erropaik. Trapu bat ifiñi, galbahien pasau iketzak eta kentzeko edo, zikiñe baeuken, ta han. Ta gero hari bota ur berue, bota, bota ta bota, galdaran ure berotu ta bota. Ez dakit zenbat galdarakara botaten utsen. Eta useiña ona hartu daixien, ereiñuntza edo botaten utsen. Ereiñutza. Esaten usten: "ekarrin ereiñutza arrama bat edo bi". Gaiñien bota ha ta ereiñutza. Ta gero harek atara ta aklaraten zienien, esegitte sikaketen zienien, ba, ha izeten zan suabizantioi.
- Ereinutzak usaiña ona.
- Ereinutzak usaiña ona eukitten euen.
- Sutako hautsa zurixa…
- Laban inddakua hartzen geuen guk, e. Labasua indda egoten zan han.
- Egur ona, pagua eta. Oinddio egur onak eozen.

- Egurrena, pagua ta. Sukaldien ba, su bajua-ta sutonduen, oiñetakuek erantsitta zerak-eta, lurra edo. Ezkiñie garbittu ein bihar ta… Ona ez zan eoten eta labatik hartzen geuen.

5.15. Arropa garbiketa

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-008/003
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:03:55. **Bukatu**: 00:05:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Jabonadura nola egiten zen. Jai egunetako arropa eta astegunetakoa.

Transkripzioa
- A! Uste dozu jabonadurie-ta eitten oingo moduen? Ba! Bota, ala! Behin ibili ta fuera! Hola? Ya! Bueno, bueno, bueno! Orduen domeketakua izeten zan ondo zainddute domeketako erropa bat, ondo zainddute. Eta aste-egunetakue beste bat o bi. Kanbixau, ez dakitzu? Hoixe, justo-justo. Domeketakue, berriz, ez preguntau [oinguk…]: “Ze jantziko dot?”, preguntie. Oin […]: “Amama, ze jantziko dot?”. Esaten dotsiet askotan: “Juan nere armaixora ta topau, hartu zeuk gura dozune” esaten dotsiet. Neuk be oin gehixei daukot, nik… larrei. Baiñe orduen ez auen preguntau biherrik! Bat egoten zan, baiñe bera ondo zainddute, e! Ondo zainddute! Ta ez garbittu ta holan, orduan? Orduko erropie ez zan garbiketan, ezin zan garbittu! Orduko denporan… orduko… eskuz garbittu […], baiña hondatu itten zan. Hondatu itten zan, ezin leikien garbittu. Ezta… Ez zan oingo moduko tejidue ez zan. Ez zan, ez zan, ez zan. Gaiñera, zimurkorra eta plantxak be ez euezen oinguen modukuek… Baiñe orduen ein biher izeten zan mantxatxo bat eitten bazan be, ha mantxatxue garbittu, e? Ha garbittu. Zeozekin, baiña garbittu [biher izeten zan]. Ez erropa guztiek sartute oingo moduen. Ezta pentsau be! Eta zainddu biher izten eben, ba, hoixe, ondo zepillau, ondo zepillau ta zainddu biher izeten zan. Ordun… orduko denporarako geure ustez dotore faten giñen! Dotore faten giñen! Onbre! Onbre, ez oingo moduko dotore. Neuk be askotan esaten dot: “Ene! Oingo moduen euki [bageu] erropie neuk be bastante gehixao luziduko neuen” esaten dot, baiñe…
- Baiña orduko modarako zeuek be…
- Bai! Eske orduan danak igual jazten gitzen, e?
- Hori da, antzerako…
- Danak igual. Bai, bai, bai, bai.

5.16. Baserriko bizimodua: garbitasuna; familia giroa

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-008/004

- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:05:55. **Bukatu**: 00:07:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Arropak nola garbitzen zituzten. Arropak beheratzen jartzen zituzten "barreñoian". "Apotzako txarrue". Apotzaga auzoko garbitokia. Askak: Antzinako bizimodua nolakoa; familia giroa.

Transkripzioa
- Ta esaten dozu garbittasuna, orduan, erropena, jabonaduria-eta, etxian eitten zan? Edo kanpuan...?
- Etxien jarten geuen, ba, barreñoi baten edo, ba, beratu, ezta? Jartzen zan, ba, jaboie emun ta puskat beratu dain. Beratu... ez dakit ze... Badakitzu zer dan beratu?
- Bai, uretan ipini ta...
- Bai, puskat... Hori da. Eta gero faten giñen txarrua esaten gutsen ta txarrue esaten gutsen. Han labaderuek euezen, labaderuek. Erderaz da labaderue, baiña guk txarrue esaten gutsen.
- Hiztuna2: [... Apotzan...]
- Bai, Apotzako txarrue esaten jakon, txarrue. Eta han euezen askak, eta hara faten giñen garbiketan. Negu-neguen be ni akordetan naz, enee... hartu barreñoien ta buruen ifini barreñoia ta hartu barreñoien ta hara erropie, etxien puskat garbittu ta gero aklarau ta han puskat gaiñetikuek eitten haraxe. Horma bat euen erropak isteko eta hola aklarau eta isten zeuen, bai? Ta zenbat aldiz neguen itxi ta seittuen gogortute, e! Gogortute, izotzak edo hotzak. Ha bestie garbiketan [zauen] bittartien gogortute. Esku guztie izoztute! Baiñe orduen holaxe zan! Nik ez dauket rekuerdo txarrik ezebe gaztetakoik. Ezebe-ezebez! Askok esaten [dau]: “Ene! Gure bizimodue!” ta “Ene! Gure gazte-denporie ta ume-denporie ta...”. Nik ez dauket ume-denporako zerik, ezebe-ezebe-ezebez txarrik. Aitte ta ama onak baiño hobak zien. Bixek onak baiño hobieuek. Ni kriada egotie tokau jaten. Ba, bai, asko. Ta beste batzuk be bai, hamar anai-arreba giñan! Eta ezerezetik, ataraizu kontua, ezerezetik aber ze ein biher euen gure aitta-amak. Nahikue ein euen. Nahikue ta gehixao atara giñuen bestien ataratie. Osasuntsuak izen gitzen.

5.17. Bilboko ibilerak

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-008/010
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:16:25. **Bukatu**: 00:19:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Bilboko etxean zegoela, gaixorik jarri eta ezin sendatuta ibili zen denbora askoan. Bilboko kutsadura. Eguneroko bizimodua Bilbon. Tranbian gertatutakoa behin. Zeinuen hizkuntza.

Transkripzioa
-Gero ba ni hantxe egongo nintzen, baiña jarri nintzen gaixorik, gripiek ebatu usten eta ezin ezela be osatu, ezin ezela be osatu, eta medikuek esan usten ez baneuen... oingo aldien kontaminaziñue euen, oin Bilbo "artículo de lujo" da. Oso zikiña. Igo zera bai, gu zapatuetan señorita bixok faten gintzen Begoñara mezetara. Mezetara fan biher izeten gintzen, faten gintzen bixok. Bestelakuen, barriz, egunero mezie, egunero-egunero "a San Nicolás de Bari", egunero mezia San Nikolasen. Begoñara faten gintzen zapatuetan señorie ta bixok; handik eskillaratatik gora igo eta faten gintzen. Han mezie entzun, eta gero han aldamenien euen hola kafeterixa bat emuten euena txurruekin txokolatie edo, kafiataesnie edo, zeuk pentsetan dozune, eta hantxe hartzen geuen, señoriak eta bixok hartu zera eta gero poliki-poliki behera. Ze bera bakarrik ibiltten zan, baiña ez zan bestela iñokin eta berba eitteko, eta biher euen, e, interpretie biher euen, interpretie biher euen. Eta baten, akordetan naz, tranbian giñoiezen, eta nik berba eitten nutsen, ba klaro, in biher izeten nutsen. Eta aldemeneko batek, aldemeneko jarritta euzen batek, esaten euen "Qué pena, esa chica tan maja y que sea sorda", neugatik. Nik esan ein nutsen, nik entzun ein neuen eta ba nik esan ein nutsen señoriai zer esan euen; eta bestiak: "No! La sorda soy yo, ésa no, la sorda soy yo!". Klaro, berak ez euen entzuten, eta ezer esan biher euenien, eitten euen altu, ez dakitzu?, "No!, la sorda soy yo; ésa no, la sorda soy yo!".
-Orduan ezzan normala izango pertsona bat zeinuak egiten, hala komunikatzen?
-Eske orduen artien, orduen hasi zan, orduen sordomuduek esaten jaten, artien ez euen eskolaik ez erakusteko eta ezebe. Ha bera aberatsa zan eta, klaro, harek ikesitta euken; nik eztakitt nundik eta nora. Aurrekuek be, nire aurrekuek be erakutsitta euken, holaxe gazteik eruenda erakutsitta euken. Eta neure tia bat egon zan aurretik, nire aurretik, neure tia bat egon zan. Eta fan giñen kasik ezaunetatik ezaunetara, ez dakitzu? Bolibarko bat egon zan lelengo...; ez lelengo neure tia bat, gero Bolibarko bere lehengusiña bat, eta gero Bolibarkua ezkondu biher [...] eta gero pasau nintzen neu.

5.18. Eguneroko bizimodua Bilbon

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-008/012
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:21:45. **Bukatu**: 00:22:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Bilbon oso bizimodu lasaia eramaten zuen; etxeko ordutegia zaindu beharra. Egun argiz etxera itzuli behar; "halaxe zalakuen...!".

Transkripzioa
-Klaro, etzan oingo moruen, esaten zan orduen "kapitalien, bai, kapitalien dagona, puuu! Eztakit zela ikesitta eta badakit ze". Keba! Al contrario! Hemen asko be erretiruek txarrauak eitten zien han eitten zienak baiño. Gabien urteten euenak, vete a saber, nik eztakitt zela zertuko zien, baiña

guk zela zortzitterdietarako etxien egon biher izeten geuen, zortzitterdietarako etxien, e! Behiñ fregauek eindde sukaldie jaso ezkero, libre, gura badozu orduen urten, gabien zortzitterdietarako etxera. Argi, e, artien argiz. Uran euzkixa, eta etxera. Baiña guk halaxe zalakotan!

5.19. Gaztetako ibilerak: erromeriak

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-008/027
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:45:20. **Bukatu**: 00:46:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Otalazelaiko erromeria, maiatzean. Lehenagoko erromeria ezagunak: Koruetan... Gaztetako ibilerak. Dirurik ez baina asko dibertitzen ziren.

Transkripzioa
-Hemen hola beste santurik hola deboziño haundikorik?
-Jente asko etorten da beste bat Otalazelai. Jakingo dozu Otalazelai nun dauen. Ez dakitzu?
-Entzunda bai.
-Hementxe, Goretin eta aitten-eta etxe onduen. Hor erromeixa haundixa eitten da, Otalazelai. Hor eitten da Santo Domingo, Santo Domingotan. Maietzien. Bestela ez da hamen erromeixaik. Lehenao bai, Koruetan be Santixauak esaten jakon, Santixauetan erromeixa haundixa eitten zan baiña oin horrek galdu ein die, auzotako erromeixak galdu ein die. Klaro, eske jentiek lehenao, badakitzu ze pasetan zan, gaztiek eta, a!, erromeixara, danak erromeixara, jantzi zapatillak eta erromeixara faten zien, dantzan ein eta ondo pasau; dantzan ein eta gustora pasau. nunbaitten ez, oingo moduen diruik be ez zan ibiltten orduan, e. Orduan txakur txiki bat barik bajetan giñen kalera. Ezta-ezta xentimo bat barik kalera. Eta harrapetan bazauen mutillen bat, mutillen bat harrapetan bazauen zeozer pagauko zotsuna, aunke sea kafesnetxo bat, edo refreskotxon bat edo, jolin! Pozik. Mekatxis la porra!

5.20. Familia giroa nolakoa zen; bizitzarekiko ikuspegia

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-009/003
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:05:50. **Bukatu**: 00:07:30
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

- **Laburpena**: Familia giroa. Oso harreman estua senideekin. Igandetan, bezperatara joan eta gero jokoan egiten zuten. Bizitzarekiko ikuspegia. Lehenago konformidade handiagoa zegoen.

Transkripzioa
-Esaten dozunian gonbidautzia batera eta bestera eta, orduan senidien artian-eta tratu haundixa zeuan, ezta? [...]
-Bai. Orduen tratua haundixe euen horretan, tratu haundixa euen horretan. Igual atsaldia pasetan etorten jatzun tia edo lokesea. Etorten jatzun eta hantxe igual atsaldien jokualditxue. Ni akordetan naz tia etorten zana, gure tia bat etorten zan eta asko gustetan jakon eta hantxe atsaldian. Bexperetara, lelengo bexperak. Bezperak, e, elixara domekatan bexperatara, bexperak, errosaixua errezau ta bexperak izaten zien. Handik etorri eta gero ba amak eta tiak eitten euen jokualditxue. Beste beziñie ta hola etorten zan,e ta eitten euen jokualditxue. Eta Aranekue ta etorten zien eta hantxe jokualditxue eiñ eta pozik.
-Kartetan?
-Jokuen kartetan, bai. Brixkan. Brixkan itten zan, e. Eta brixkaalditxue eitten euen eta konforme! Ha domekie ya zelebraute euen. Bai. Domekie zelebrauta. Baiñe zelan ez euen beste dibersiñoik, ba orduko jentie gustora bizi zan.
-Beste mentalidade bat zeuan, ez?
Gustora bizi zan. Egixa esaten dotsut, oingo jentiek baiño konformidade gehixao euken. Konformidade gehixao. Bai-bai, oingo jentiek baiño konformidade gehixao.

5.21. Baserriko bizimoduaren aldaketa

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/004
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:03:35. **Bukatu**: 00:05:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Auzoaren inguruko kontuak. Baserriko bizimoduaren aldaketa. Egun baserritik jende gutxi bizi da; soldata kanpotik ekartzen da gehienetan. Baserri batzuk hustu egin dira; ondorioz soro handiagoak daude egun.

Transkripzioa
- Hemen auzua asko aldatu da zu umia ziñanetik? Basarrixak galdu ein dia edo…?
- P: Bai, baserrixen bizittie, baserrixen lan eindde bizittie gastau ein da ya. Etxiek segitzen dabe gehixenak, baiña [fabriketik] bizi da jabie jeneralien. Hustu be ein die, ba, bat Sardan(e)ta, Ga(ra)ikuen be bi bizitza ziela, ha kontau, bi, Intxaurbe hiru…
- M: Txikiñekuen beste bat.
- P: Txikiñekuen be beste bat bazala… Neuk ez nittun ezautu, baiña igul aittek edo… Lau. Lau behintzet oin ez die ezautzen. Ta bestiok, ba, pixkat

zertu itten da. Geratzen danandako, ba, lur gehixao edo... Ez dakit, ba, zela esan. Nasaittu itten da pixkat. Guk geuk, ba, oin daukou granjie esaten [dutseu], txikixe edo haundixe. Ba, daukou eskerrak horrei Caja Laboralan terreno danok hartu dittuenai, hau Intxaurbe hustu zanori be bai ta horritxi... Hola, desaparezitzen zien batzuk beste batzundako bentaja etorten die.
- Lehen ze izaten zan, basarri bakoitzak terreno gitxitxo inguruan edo...?
- P: Bai, ez... bizitteko beste terreno iñok ez euken. Onbre, inbernaderuetara ta terreno gutxiauaz badare [portiek], baiñe harek biher dittu bere urek [gure aiñe] ta beste... beste gauza batzuk biher dittu handik bizitten hasteko.
- M: Lehenau kamiñoik be ez euen, oin kamiñue dao ta...

5.22. Ez ziren auzotik irteten

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/012
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:18:15. **Bukatu**: 00:19:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Umetan ez zuten joera handirik izaten aldameneko auzoetara joateko.

Transkripzioa
- Zuek umetan hara [Otalorara] joaten ziñazien?
- Ez dogu guk jokera haundirik erbestera fateko, lehenago ez euen hainbesteraiño, auzotik ez euen urteten.
- Maria: Auzo bakotxak bere...
- Auzotik ez geuen urteten. Larriñora fan gintzen oin urtebete, Txikiñeko Dolores eruen geuen. Bera sekule Larriñon egon barik euela, eta laurogei urte euken. Ta sekule Larriñon egon barik.
- Baiña orduan erromerixetara eta asko mobitzen ziñazien, oiñez, batetik bestera?
- Maria: Honek gero gazte-denporia Bitorixan kriau...
- Bueno, eta hemengo nire lagunak be nora fango zien ba, iñora be ez.
- Maria: Zuk bost urte han ein ziñuzen, zeoze ingo euen hemen geratu zienak be.
- Orduan auzo bakoitzeko umiak auzo barruan?
- Auzo inguruan, bai, auzo barruan.

5.23. Umetako borrokak

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/013
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:19:20. **Bukatu**: 00:20:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetan, auzo-inguruan ibiltzen ziren. Umetako jolasak. Okerkeriak, borrokak.

Transkripzioa
- Eta beste auzokuak?
- Sakalamandaka eitten geuen Txikiñeko Felisik, oiñ Matikon amandria danak-eta. Jolasian, bata-bestia jarritta, domeka atsaldietan. Buenoo! Takarrara edarrak eitten gittuen.
- Eta beste auzoko umiekin zelakua izaten zan relaziñua, ona?
- Burrukan be gehixao eitten zan oin baiño, burrukan gehixao eitten zan. Bai, hemengo Ardantzako bat be okerra zan apur bat. Berak be eingo-euen, baiña bestiek ifintten ibiltten zan, bestiek burrukan ifintten, eta neu ifiñi niñuen baten. Eta Larraiñ Etxebarriko Santigaz, eta oilluek txitak atarateko arrautzak kanbixau ein biher izeten zien beste etxe batetik, razie kanbixetearren-eta. Arrautzak kanbixau eta etorri Mendiolati-ero, ta burrukan ifiñi gu; fan ha ta. Eta eztakitt zer ein geuen. Arrautzak apurtu ero... eta gero etxera. Baiña borroka asuntue gehixao eitten zan, harrike-ta.
- Esan dozu auzoko umiak jolasian asko egiten zenduela?
- Auzokuek bai. Auzokuek.

5.24. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/014
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:20:55. **Bukatu**: 00:24:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Umetan, auzo-inguruan ibiltzen ziren. Umetako jolasak: "sakalabandaka"; eta abar. Neska eta mutilen jolasak. Tortoloska; sokasaltoan.

Transkripzioa
- Eta akordatzen jatzu zer jolas?
- Sakalamandaka.
- Eta zer jolas da hori?
- Takarraran eta bestiek atzetik jarraittu; eta ebaketan eutsenien, ebaketan auenak geratzen zan atzetik jarraiketako, eta bestiek ihes eitten euen. Eta hoixe da. Korridu eitten dau. Azkenien zertxuena geraketan da harrapau ezin dittuenekin, eta bestiek ihes eitten daue. Eta beste bat zan, zera aulbiraka, eztakitt zela zan, ahaztute dauket, aulbiraka. Beste jolastxo bat.
- Eta gero kaniketan ero, intxaurrekin ero?
- Maria:Torre-torreka.
- Honek jakingo dau hori, kaniketan...

- Eta torre-torreka zer da?
- Ba intxaurrak ifiñi bakotxak bat pilluen, eta aurretik ha jo biher zeuen, eta jota zertzen bazan, ba ha zeutako.
- Eta horretarako ibiltzen zien intxaur klase diferentiak-edo?
- Normalak, etxetik erueten giñuzen intxaurrak.
- Eta diferentiak izaten zien nesken eta mutilen jolasak?
- Mas bien, e, aparte ibiltten giñen bai, tortoleska-ta neskak. Tortoleska, sokasaltuen…
- Tortoleska zela da?
- Maria:Tortolesa, tortolesak dauzka lau alde, ezta.
- Billotsan hankan daz horrek tortolesok.
- Maria-Bakotxak lau tortoles. Hola bota eta, zeiñek txandaka, eta harei lau aldiei buelta emun biher dutsazu. Pelotie gora bota eta rak buelta, lau aldietara.
- Maria: Abilidade haundixa bihar zan pelotia bota eta kanbixatzeko?
- Maria: Bai. Baiña itten-itten abilidadie hartzen zan.
- Kanturik eta egitten zan jolasteko?
- Maria: Ez kantuik ez. Bueno, esaten zan: "sake, pon, carne, culo".
- Eta sokasaltuan?
- Maria: Sokasaltuen kantuen baiño saltoka-ero; ero biña-biñakuek eitten soka bakarraz-eta.

5.25. Garizuma sasoiko jolasak

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/015
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:24:05. **Bukatu**: 00:26:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- **Laburpena**: Garizuman egiten zituzten jolasak. "Kinkiñuzka". Jolasen inguruko azalpenak.

Transkripzioa
- Garizuman beste jolas bat itten zan, Garizuman. Holako taketa batzuk hartu eta kinkiñezka esaten jakona…
- Maria: Mazetie eta txirikilla.
- Bueno, hori joku bat da, eta nik esaten dotena beste bat, erremintta bardiñekin. Zurie da txirikillia, mazetia ta txirikillia. Eta nik esan bihar dot, kinkiñezka esaten gutsen.
- Maria: Puntie-eta lurrien sartu?
- Lurrian sartu, eta sartzeiaz bat bestie bota in bihe zan, bestela ez zara adelentetan.
- Orduan zela zan?
- Makilla bana hartu bixok eta bota, eta bestiek ha beriaz aber botaten dauen, ta noberena zutik itxi. Hori in bihe zan. Garizuman hori be itten zan. Eta Garizuman txirikilletioi zan mazetiaz. Txirikillioi zan holako luzera batekua, eta mazetia ba…
- Maria: Mazetia edo galderona esaten guntsan.

- Beste makilla bat?
- Maria: Bai, harekin jo ta botatzen zan, eta ipintten zien seiñaliek, bat, bi, hiru, lau...
- Apotxak esaten jakon hari.
- Maria: Puntuaziño bat eukitten eben, bat bostekue, bestie hamarrekue, eta hola. Eta txirikillie aidien doiela harrapatzen baeuen, hamarrekue izeten zan. Baiña begiondoko edarrak hartu be bai hareikin.
- Agustiñek begixe galdu euen, txirikilliaz begixa jota "para siempre".
- Jolas honetan denak egitten zenduen, neskak eta mutillak?
- Bai, bai, Garizuman danak.
- Eta zergatik Garizuman?
- Maria: Bueno ba holaxe zan. Orduen zela dantzaik eta ezebe zela ez euen. Hola gaztetxuek-eta ez bakarrik, haundixek be bai. Orduen Garizuman ez euen musika klaseik ezebe.
- Garizumatik aparte, udabarrixan edo, ez zan jolasten jolas hauetara?
- Maria: Ez. Garizuman bakarrik.

5.26. Umetako jolasak eta lanak

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/016
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:26:30. **Bukatu**: 00:28:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Umetako jolasak. Mutilen jolasak: txapetan... Jolasen inguruko azalpenak. Umetan baserrian lan asko egin behar izaten zen eta igandetan bakarrik izaten zuten denbora lagunekin jolasean egiteko. Umetako lanak: itulan egin, sutarako egurra ekarri...

Transkripzioa
- Beste jolas bat mutikuetan-eta izeten zan txapetan: hormako harri baten jo txakur haundixa, eta kanpora botaten zan, eta bestiek be baitta. Eta holako zer baten barruen sartzen baeuen, irabazi eitten euen batek. Zela esaten jakon horri? Txapetan. Txakur haundixe maillaz mailla eindde hormie joten erabiltten gittuen. Eta gero oiñao dokien-edo hori. Kalien be eitten da, oinddio aurten be eingo da zeozer.
- Maria: Mondrauen-eta dau afiziño hori.
- Orduen kategorixatxue izengo zan baiña, ogerleko zuri-zurixe, neuk be eskutan ibilitta dauket-eta, asko ez bada be, duruekin eitten zan. Bota distantzia batera, ifiñi puntu bat, hemetik bota eta hara zeiñek hurrago ifintten eban; edo blanko han eittia gatxa izeten zen baiña… Batzuk hobeto beste batzuk baiño. Hori be bastante eitten zan.
- Orduan baserrixetan lan asko, umetan be bai, baiña jolasteko denporia be izaten zenduen?
- Maria: Domekie, e, domekie bakarrik. Bestela, batian ittaurrien ein bihe zala, bestien su-egurre ekarri bihe zala, orduen ez euen txapaik.
- Orduan domekia izaten zan?
- Maria: Domekie jolasteko.

5.27. Ume-umetatik baserrian lanean; eskola

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-012/009
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:15:55. **Bukatu**: 00:17:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Urte sasoi batzuetan baserrian lan gehiago egoten zen eta eskolara joan gabe gelditzen ziren. Umetako lanak baserrian zeintzuk izaten ziren. 11 urte bete aurretik Arrasatera joaten hasi zen esne-saltzen.

Transkripzioa
- Eskolan egon ziñan bittartian askotan imajinatzen dot sasoian arabera basarrixan be lan asko egongo zala.
- Bai.
- Geratzen ziñan batzutan eskolara joan barik?
- Batzutan bai, eta pozik gaiñera. Eskolara fatia baiño gurago. Ittaurren esaten gutsen, ganauei aurretik-eta, lagunketan.
- Orduan umetan zetan laguntzen zenduen basarrixan: ittaurren itten, ez dakit, beste zeozetan, amari edo zeozetan?
- Ba ura ekarri, eta horrek lanok izeten zien txikixe nintzen artien, horreik, baiña bueno!, orduen agudo zerketan zien. Guk arto sartzen be igual eta. Ya hamaika urtegaz hasi nitzen esniekin, hamaika urte kunplidu barik neukala. Arrasatera astuaz, e. Ez euen, kamiñoik be ez euen. Ibilli biher zan trenbide, oin be han dau, bide-estradia, ez naz pasau ez dakit noz ezkero, ez dakit. Hor esniekin nabillela ez dait zelan pasetan nitzen. Han, handik, Otala-zelaittik behera dauen zeretik ibiltten gitzen. Baiña oingo aldien, oin bide ona dauela esaten daue pasetako. Baiña txarra, e, burdixek danak bertatik, eta gero neguen-eta dana lokatzarie eitten zan. Bueno, txarra, txarra, txarra. Eta gorutza, berriz, aldatza izugarrixa ta.

5.28. Itulan egitea ez zen lan xamurra

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-012/010
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:17:35. **Bukatu**: 00:19:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Itulan nola egiten zen. Idien aurretik beti norbait behar izaten zen; ez zen lan xamurra baina eskolara joatea baino nahiago izaten zuen.

Transkripzioa
- Esan dozu umetan ittaurren egiten zenduela. Hori zela egiten da?
- Uztarrixan ikusitta eukiko dittuzu ganauek, ezta? Jakingo dozu horrenbeste. Zure denporan ez zan uztartuko. Gurien ez dakixe uztarrixe zelan ibiltten dan, honeik hemen daazenok, neriek bai, e. Lobak ez.
- Idixak zekazuezen orduan?
- Idixek. Idixen aurretik bat zertu biher izeten zan. Batzuk ondo eitten euen, baiña beste batzuk sekula be ez zien hezitten, eta eskiñetan buelta eraitteko-eta, baten bat biher izeten zan aurretik.
- Eta zer izaten zan, bihar aspergarrixa? Gustokua?
- Eskolara baiño gurago. Ona ez, baiña eskolia baiño gurago etxien geldiketia.
- Eta umetan ez da peligrosua toki aldapatsuetan-eta?
- Bai, ume-umetan ezin leike ibilli. Lekun baten esan euen, orduen be baten batek [...], hobatuko utsen-eta, ez dakit xei urte-edo, idixek pasau ein euela, azpixen. Sustue galanta, bai. Hak be gauzak haundirik ez euen eingo, baiña. Hurrengorako ikesi deixen, hantxe ibilli.

5.29. Auzoetako elkartasuna

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-013/021
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:34:40. **Bukatu**: 00:35:25
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Baserritarren arteko laguntasuna; elkartasuna.

Transkripzioa
-Orduan relaziño asko egoten zan basarrittarren artian, nahiz eta auzo diferentakuak izan?
-Bai, bai.
-Halako kasuetan, etxekoandria gaizki zeuanian?
-Bai, bai, bueno. Ezin baeutsan zertu, lagundu ero zertu, behintzet bai.
-Laguntasun haundixa.
-Bai. Hori abadioi, hori faten zan leku danien; iñor geixoik baeuen, illunkaran bisitetan egunero; bisittia egunero. Baiña hau.

5.30. Antzinako bizimodua; Gatzagako "señorak"

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/005
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:03:45. **Bukatu**: 00:04:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

- **Laburpena**: Antzinako bizimodua. Igandetan, Gatzagara joaten ziren mezara; eta, amak esaten zuenez, ez ziren elizara sartzen Gatzagako "señorak" pasatzen ikusi arte.

Transkripzioa
- Horrek palaziuak… Gatzaga ezauketan dozu?
- Bai, zeozer bai.
- Palaziuak eta dagoz han; ba han jentia bizi zanien, eta eurak Marinddik etorten zien mezetara, domeketan juaten zien Gatzagara, eta elizan ez ziala sartzen ikusi arte, Gatzagako señorak esaten otsien, soiñeko luziakin ta juaten ziala mezetara eta eurak danak begira, Gatzagako jentia eurai begira, hareik udan egoten zielako han, eta juaten ziala soiñeko luziakin ta holan, gure amak konteten auen tremendozko admiraziñuakin. Gaurko egunian […] bai, holaxen jentia eta eztakit zer orduan, baiña eurak admirau itten euein horrek jentiok.

5.31. Ama neskame joandakoa gazterik

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/006
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:04:30. **Bukatu**: 00:06:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Familia giroa; ama gazterik joan zen neskame. Gabonetan bakarrik itzultzen zen etxera, nagusiak oparitutako bakailaoarekin. Erdaraz ongi hitz egiten ikasi zuen kanpoan egon zen bitartean.

Transkripzioa
- Esaten zenduan, hori, Gatzagako… palaziuak eta?
- Bai, ta ezautu euen harek han palaziuan bizi zan denporan, bertako jabiak eta holan. Eta gero gure ama-ta zien errenteruak eta zien pobriak. Bueno pobriak… ba, bai, ya neskatilletatik urten auen neskame, eta Gasteizen-ta egon zan militarren etxietan-ta kriada gure ama. Eta ikesi euen han erderaz berbetan. Eta, bueno, berak esaten auen oso gustora ibili zala han, Gabonetan bakarrik juaten ziela etxera kriada euzen lekutik, bakaillauakin.
- Orduan, Gabonetako erregalua hori izaten zan?
- Bakaillauakin juaten ziela, eta zelako pozik juaten zien etxera, ba, bakaillauakin, Gabonak pasetan. Bai. Eta gero, han ikesi euen erderaz berbetan eta holan, eta gure ama zan oso … eztakit zelan esplikau… toreruak eta orduko denporako toreruen kantuak, Machaquito ta, kanteten euen berak, Machaquiton kantuak-eta, eta erderaz oso ondo ikesi euen eta, bueno, bera oso ondo zertu zan, gustora bizi izan zan holan.
- Eta han inguruan, azkenian…?
- Eta gero juan zien, eztakit zelan… hori izen zan hori kanbixuoi, Durangora neskame, baserrikuen uezaben etxera, ta han gosiak-eta ibiltten ziela. Baiña gure amak-eta ekixen arboletara igoten-ta Mariñen-ta, eta han fruta asko ei euzen han, e, harek palaziuak Durangokuak ei euken. Ta goizetan, danak ohian dauzela, beste hiru neska-edo eozen han, e,

zerak, arbolara igo eta, gure amak akixen arbolara igoten, eta bestiak behien, ta frutak harrapau. Harrapetia ez zan, e? Orduen bai, baiña… Eta hareik gordeten auen egunez ha janda ibiltteko. Horreik gauzok!
- Orduan danetik ezautu zeban, ez?
- Bai, bai.

5.32. Familia giroa

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/008
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:06:45. **Bukatu**: 00:09:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Aisia » Kultura » Idaztea
- **Laburpena**: Gurasoak nola ezagutu ziren kontatzen du; istorio polita kontatzen du. Aita mitin bat ematera joan zen Eibarrera, eta bertan ezagutu ziren. Aitak Argia aldizkarian idazten zuen, eta Azkue laguna zuen. Amaren inguruko zenbait anekdota kontatzen ditu.

Transkripzioa
- Eta gero, e, ez dakit Eibarrera zelan juan zan gure ama, orduen, domekan. Ta gure aitta zan orduen, e, Argia eta lehenengoko periodikua euskeraz-ta han eskribiduten euena-ta, gure aitta zan, eta mitiña ez dakit zerena izengo zan Eibarren, baiña Unzagako zerien, kioskuen, mitiña itten gure aitta. Eta gure ama ta, ba… gure ama zan oso laguna aitten, e, zer bateaz, arreba bateaz. Juan zien ta, orduen gure ama –erretratuak eta hor dagoz-, oso guapia zan ta holan, ta gero, akabau zienien mitiñori-ta aittana juan ta, badakizu, gaztia danak, ta gure aitta, honbre, neska guapia eta holan, ta ba holaxen hasi eta ezkondu zien. Bai.
- Eta aittak esaten dozu, idatzi eitten zebela?
- Bai, zan Argia edo... momentu hontan ez naz akordetan, orduko denporako periodikuen euskerazkuen; eta hori Azkue eta orduko denporako idazliak eta, gure aittak, horren laguna zan. Bai.
- Eta zelan ba? [...]
- Ba politika aldetik eta, politika aldetik eta... Politika aldetik baiño gehixau, euskerien, e, hasieria, bueno hasieria edo eskribiduten ta hasi zieneko denporakua.
- Orduan aitta, abertzalia izatiaz gain, euskaltzalia zan, ez?
- Bai, ta oso ilustraua gaiñera, asko leiruten euena liburuak eta holan, bai, halakotxia zan, aitta. Eta ama oso kantalarixa eta zan, Machaquito ta... horreik gauzok… Eta erakutsi nosten neskatillia nitzenien, esaten nosten: "Horreik ez kantau, porke oso rebeldia da hau kantuau, e?" Eta erakutsi nosten berak pentseizue ze eta orduko denporan hola atrebidua edo zan hori kantuoi, ta akordaten naz: "Tápame, tápame, tápame, tápame, tápame, que tengo frío..." eta bestiak: "¿Cómo quieres que te tape, si tú no eres mi cariño?", ta amak: "Baiña horreik ez kantau, e?". Baiña horreik akixen kriada egon zaneko denporakuak, eta zera. Oso kontularixak zien bixak.

5.33. Euskararen erabilera eskolan eta doktrinan

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/018
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:20:15. **Bukatu**: 00:23:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Gurasoak oso euskalzaleak; anai-arreba guztiek oso izen euskaldunak dituzte. Eskolan eta doktrinan erdaraz egin behar izaten zen; euskaraz egiten zuenari, belauniko jarri arazten zioten.

Transkripzioa
- Izenak oso euskaldunak dauzkazuela esan dozu?
- Bai, danok. Eta "partida de nacimiento" ataraten dounien, Gasteizen, originala dau euskeraz bakarrik, euskeraz bakarrik. Oin, "entre paréntesis" gero, "Maria" eta ifintten daue. Baiña han originala euskeraz bakarrik. San Migelgo parrokixan bautizauta gaoz.
- Horrek esan nahi dau aitta euskalzalia zala.
- Oso-oso. Eta ama be bai, e. "Goazen mendirik mendi euzkotar gazteak", eta horreik danok, amak erakutsitta dakigu horrek kantuok. Oin ixa ahaztu jat baiña. Horrek kantuok, e, Euzkadiko zerenak-eta, etxien erakusten oskuen, eta guk kantetan gauen. Aitta pozik egoten zan guk kantuek ikesi geuelako.
- Eta eskolan problemarik euskeriakin?
- Ene! Eskolaan! Buu! Eta elixan be bai. Dotriñia ta dana erderaz, e. Guk erderaz ez gauen, guk etxien berba bat be, eta ointxe be ez dou eitten erderaz, e. Baiña orduen euskeraz etxe barruen bakarrik, e. Kanpuen erderaz ein bihe zan orduen.
- Eta eskolan zela konpontzen ziñaten?
- A, ba nik oin frantsesa emungo baneuke eta buruz ikesi zera, holaxe. Horrenbestaiñok be ez. Ia erderaz ikesten hasi gintzen orduantxe. Baiña obligauta, e, obligauta. Eta euskeraz ein ezkero berba, belauniko. Bueno! Ni eta beste hiru-edo egun guztia belauniko eitten geuen. Aittak esaten oskun ez eitteko erderaz-ta. Belauniko. Eta zela maistriek be igarten otsen espaiñolen ideiekin ez gengozela (oso espaiñola zan, Madrilgua zan), zera, ba kastigauta. Gu beti kastigauta. Gu ondo. Eta gero ez gauenien kastigetan, kontuan itten geuen: zu, ez daigun egin zerik, euskeraz, bestela atzera balauniko egon bihar gare-eta. Baiña orduen leziñuak preguntau be ez guri. Emuten oskuen leziñuak, ikesitta fateko hurrengoko egunien, guri preguntau be ez. Ez oskuen preguntetan, guk ikesi be ez. Gero konturaketan nintzen zelako maistra txarra izan zan ha. Baiña gu pozik orduen. Ez dosku preguntatzen, zetako etxera goiazenien estudixau, hor konpon. Ta gero, ha zan maistria! Enee! Ointxe be akordetan gare haregaz maistriaz, ezebe ez oskun erakutsi.
- Madrilgua zan?
- Bai. Ta fan zan hemendik "a Santillana del Mar". Hara fateko modukue zan. Baiña orduen, nik pentsatzen dot, gehixenak holakuek, e. Hemen bertako jentie maistra-ta, orduen ez euen kolegixorik-eta, ezebe ez euen zertzeko.

5.34. Herrigunean eman diren aldaketak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/026
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:36:10. **Bukatu**: 00:39:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena**: Aretxabaleta nolakoa zen bere haurtzaroan; kaleak, dendak... Lehenagoko bizimodua; egon diren aldaketak. Amak josten zituen etxeko guztien arropak.

Transkripzioa
- Zela gogoratzen dozu zure txikittako Aretxabaleta?
- Kale bat. Hemen holako kalerik eta ezebe ez auen.
- Dendarik?
- Bai, dendak hiru ero lau baazen.
- Famosuak?
- Famosuek ez.
- Beti-betikuak?
- Bai, hain beti-betikuek, e. Sartu eta holako mostradore bat, tablie gaiñien, eta horrek pixuok holan itten dienekin. Eta orduen, akordetan naz, gure etxien eta danetan egingo zan ha, Andramaixetan-eta holan, ba kopia-ta, kopatxo bat ataraten euen aittak, Gabonetan-eta holan. Eta bakitzue zer izeten zan? “Anís las Cadenas”, holako zera, botella bat hola dana grabautxuekin, ezta? Baiña “a granel” egoten zan, e. Eruen botillia, eta gastetan zan, iguel hiru urte iraungo euen, ha bete zerien, “a granel”, holako zer batetik botaten auen hara, horrenbeste pagau, eta ya está.
- Orduan, orduko kopa…
- Bai, bai, Anís la Cadenas, e. Gure etxien haxe zan, eta nik pentsetan dot beste batzutan be haxe izengo zala. Eta gero dendetan egoten zien berdurak eta danak, basarrixetatik ekarten auenak. Eta zien denda batzuk famelixa-famelixakuek. Kajoiek zabalketan auen, gero dirue han ifintten auen, gero bueltak emuteko atzera zabaldu-ta… Holan. Kalebarrenien auen denda bat, beste bat plazatik honutza gatozela bigarrena, lehen hor drogerixa bat egon da, pelukero bat, akordauko zara ondo, Cacho, baiña lelengokue ez, e; gero ha bota auenien etxie eitteko, etorri zan atzerutz. Han euen beste bat, zan Mantxuena. Gero parien auen beste bat, eta gero famosotxuena zan oin Lasagabaster Mondrauen daukena dendok-eta, horrein gurasuek, oin Pagaldaixena daukena, erregaluen dendia, hantxe euen. Eta ha zan inportantiena, gauza asko eukitten euelako: harixa josteko, eta orratzak-eta. Haik lelengoko pisuen, eskillarak igota, Meltxorren andriek, oinddiokan ointxe urte bi dala-ero hil da, eztakitt zenbat urtekin, auken denda bat, holan telak gonak eitteko, horrek azulok-eta, izarak eitteko telak-eta. Orduen izarak etxien eitten zien. Gure denporan amak kamisoiak-eta geuri berak josten oskun, berak josten ekixen, gero. Berak josten euen denporak. Eta aittei-ta, anaiei-tta kantzontzilluak-eta, etxien josten zien orduen, etxien, e. Horrek jositta gero etortekuek die gerorako kontuak. Pentsaizu zenbat urte daukaten. Josteko makiñia etxe guztietan auen, etxe guztietan josteko makiñia.

5.35. Gaztetako ibilerak; jai giroa

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/036
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:53:05. **Bukatu**: 00:56:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

- **Laburpena**: Gaztetako ibilerak. Bedoña auzoko gazteak Arrasatera joateko joera izaten zuten. Neskatan edo mutiletan nola egiten zuten; gramola jartzen zuten plazan eta dantzaldia egoten zen. Handik urte batzuetara soinujolea joaten hasi zen herrira. Abadearen jarrera zein izaten zen aipatzen du; sermoiak, penitentziak, eta abar.

Transkripzioa

- Dana dala, herrira jaitsi behar zirenean (baserritarrak) plazara-eta?
- Herrire etorten zien San Isidrotan, domeketan danak hementxe, e, auzo guztiak. Eta Bedoñakuak, Bedoña zan Atxabaleta lehenau, baiña harek pentsetan auen dotoriauak-ero ziela, eta kanbixau zien Mondrauera. Eta hara juan zien. Baiña gero etorten zien domeketan-eta, hango neskak-eta, eta txistu-eta eitten utsien mutillak, etorten zienien hona. Klaro. Baiña jeneralien neskak be Mondrauera, e, Bedoñakuek. Beti konsideretan zien eurak, e, oso...
- Orduan jokeria zeuken Mondrauerako?
-Bai. Eta auzo guztiak etorten zien honaxe domeketan. Eta jente pillua kalien. Danok "de bracete" esaten zan orduen. Holan hobatu, danok kalien, gora ta behera, pasiuen. Orduen tabernetara-eta, gizonezkuek-eta, baiña neska-eta keba.
- Zein izaten zan pasiatzeko lekua?
- Honetxek kaliok. Eta gero musikia hasten zanien, gramolia esan dotsut lehen, txabola bat morukue auken horrek [Alkurrenok], eta ze diskutsuk ete zien hareik plaka haundi batzukin-eta. Eta gramoliek joten euen musikia dantzan eitteko. Eta haretxegaz dantzan eitten zan. Eta gero etorri zan Angiozarko itxua handik denporara, plazara zertzen, soiñua joten. Eta hari ifintzen jakon erdi-erdixen halako tablau bat, eta eskillaratxo batetik igoten auen, silla bat ifintten otsien, eta trin, trin, trin, eta guk inguruen danok dantzan.
- Orduan dantzia zela izaten zan?
- Eta jentia, dantzan ez zebillena, aldamenian begira dantzan dabitzenai.
- Sueltua, agarraua?
- Danetara; agarraua be bai, eta sueltue be bai. Agarrauek beti existidu dau, e. Han gramoliak be euken dana agarraua.
- Abadiak ez zeben protestatzen?
- Bueno, abadiek, e, dantzan eitten bazeuen, buenoo! Baiña eitten zan, e, eitten geuen, e. Baiña iguel penitentzie seitterdittako mezie aste guztien.
- Konfesau egin behar izaten zien horrek gauzok?
- Bai. Eta ni faten nintzen, nire moruen asko, zortziretan sartzen gintzen, kontau notsuten tailler batera zela fan nintzen hamalau urtekin lanien, ezta, eta seitterdittan egoten zan mezie, lehenengo mezie entzun, armozau eta lanera. Baiña seitterdittako mezie zan penitentzia.
- Baiña zergatik? Konfesau egiten zenduezelako horrek gauzok? Edo berak ikusi?
- Sermoiak-eta holakotxiek eitten zien. Sermoietan-eta betik infernua, betik infernua, infernua, infernua, infernua.
- Dana izango zan pekatua?
- Dana pekatu, dana pekatu.
- Mutil bati laztana emutia?
- Bueno!, atrebidu be ez hori konfesetan. Nik behin dantzan egin neuen mutil bategaz, eta gustora nabillen mutillaz, eta ba! Baiña pasau neuen larrittasune konfesionarixuen, eitten nosten preguntiekin, larrittasunekin, belauniko, eta hola, "Ave Maria Purisima, sin pecado concebida", holan bai, eta nabillen hankei mobimentu baten, bai, eta zapatiek hankatik urten osten, eta urten neuen konfesionarixotik zapatie eskuen nauela. Eta nire moduen danak, e; billurtuta konfesetan juateko.

5.36. Gaztetako ibilerak; dantzaldiak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/016
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:20:20. **Bukatu**: 00:21:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
  Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena**: Gaztetako ibilerak. Dantza egoten zen plazan, eta atsedenaldia egoten zenean, pasioan ibiltzen ziren. Ohitura izaten zen etxe guztietako leihoak bete-bete eginda egotea; emakumeak leihotik begira egoten ziren. Santo Tomas egunean Arrasatera eta San Pedroetan Eskoriatzara joaten ziren.

Transkripzioa
-Eta bestela zuek jaixetan edo domeketan edo, ze eitten zenduen neskak zeuen lagun-taldiak eta?
-Ba plazan dantzan eta pasiau. Egoten zanian deskantsua, geratu barik ez zan izaten, danok kalera atzera. Eta kalia bete-bete eindda, eta gure ama-ta bentanan jentie pasadizuek ikusten. Oiñ bentanetan-eta iñobe ez da ikusten. Guk zenbat bider esaten doun! Orduen domeketan bentana guztiak beteta. Amak-eta, eztakizu?
-Zaintzen edo?
-Zaintzen edo entretenimentua. Entretenimentua.
-Ohitturarik eukitzen zenduen beste herri batzuetara joateko?
-Ez, ez. San Joanetan be ez gintzen..., Santo Tomasetara joaten gintzen Mondrauera. Pentsaizu, eta San Joanetan ez. Santo Tomasetan joaten gintzen Mondrauera eta San Pedruetan Eskoritzara. Y se acabó, e!
-Bergarara edo?
-Keba! Bergarara honek-eta bai joaten zien.

5.37. Zinea Aretxabaletan

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/020
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:25:10. **Bukatu**: 00:28:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena**: Zinera ere joaten ziren gaztetan. Neskak eta mutilak nola esertzen ziren; bikoteak joaten zirenean abadea jartzen zen atzean. Salón Parroquial. Zine mutua. "Lo que el viento se llevó" ikustera joan eta gero, konfesatzera joan behar izan ziren. Pelikulen sailkapena.

Transkripzioa
-Zinia eta?
-Enee!, zinia! En el Salón Parroquial. Neskak aurrian, edo ez dakitt atzian, eta mutillak holan, eta parejak zienak, harek holaxen illaria silla bi, silla bi, silla bi, eta euren atzien parrokua. Hori Miren izena daukaten moruen. Pentsaizu ze...!
-Salón Parroquial, pelikulak be ze izaten zian?
-Oin dotriñia-ta emuten da han, dotriñia ta.
-Pelikula be izango zian ...
-Bueno, zerekuak, sonoruak ez, e. Guk ezautu gauen ez zana zertzen. Gero etorri zienien kolorezkuak-eta, kolorezkuak, gaiñera, hor egon be ez zien eingo zinie ein zanien hor. Zerak, baltza ta zurixa. Eta holan berbia(k) eta entzuten zienian, bueno!, ha zan el no va más. Hori ezautu ein dou geuk. Eta gero ein zan hori Plazako zinioi. Orduan be parrakuek ein auen ha. Bai. Baiña hareik parejak eta bera atzian. Hareik holaxen be ezin ein, ikutuik be ez, e. Bera zainketan. Hori ezautu dou guk.
-Lelengoz noiz joan ziñan zinera?
-Ni ez naz akordaten...
-Zenbat urtekin edo?
-Ez dakit zenbat urte eukiko nauen. Ni ideiaik be ez.
-Inpresiñua eingo zotsuen, ez?
-Bai. Eta bete-bete-bete eindda zinia, e! Bete-bete. Zinia bete-bete eindda.
-Ze pelikula?
-Cantinflas eta. Horretxeik. "Lo que el viento se llevó" ta etorri zanien Mondrauera fan gintzen ikusten eta konfesau ein biher. Ze pelikula politta dan, e. Nik hemen ya eztaue bota, baiña hiru bider edo bastante erreskaran telebisiñuan. Ze gusto! Holan egon nintzen begira. Ze pelikula politta dan. Eta konfesau ein biher zan. Eta gero egoten zien: rosa, azul, rojo. Eta Mondrauen, hemen danak zien ba zela parrakuek dana erueten auen, harek ez euken ifini biher, baiña Mondrauen "rojo" zanien ha ezin leikien ikusi. Eta euen hori zinioi plaza onduen. Eta "blanco, azul, rojo" zan. Blanco, haxe ikusi leike. bestie "pecado venial" edo holako zeren bait, eta rojo, bueno, ha ikusten bazauen a confesar.
-Orduan ya zinia hasi zan entzuten, ez?
-Bai, bai. Eta hori geure gomutakuak die horrek, geure gomutakuak die.
-Afiziñua eukiko ziñuan edo?
-Bai. Herri guztia joaten gintzen, eta amak ondo kontauta emuten nusten txanponak han emun biher nauena, e. Igual emungo nosten [...] zertxobait gehitxuao ba, karamelon bat erosteko, amai eskaketan gontsauen dirua.

5.38. Errekara, hondartzara umetan

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/021
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:28:30. **Bukatu**: 00:31:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
  Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

- **Laburpena**: Hondartzara ez ziren joaten; eskolako irteera batean joan zen lehenengoz Debara. Arantzazura ere joaten ziren eskolatik irteerak egiten zituztenean. Umeak bainatzera errekara joaten ziren; igeri egiten non ikasten zen.

Transkripzioa
-Plaiara edo joaten ziñazien?
-Keba! Plaiara ta?
-Ezta pentsau be.
-Pentsau be ez. Eta gure moduen bestiak be ez, e. Keba.
-Orduan zuen jiria?
-Eitten gauenian eskursiñua eskolatik Debara, nik orduantxe ikusi nauen lehenengoko aldiz itxasua. Eta ez nintzen izengo txiki-txikitxua, bestela ez nintzeke akordauko baiña. Akordau eitten jat zelako inpresiñue eiñ usten horrenbeste ur ikusi nauenien. Bai.
-Orduan eskolatik?
-Bai. eskolatik. Eta hemengo lelengoko eskursiñuak Arantzazura-ta izeten zien, e. Umiak be bai Arantzazura. Ta, bueno!, gauza haundixa zan Arantzazura fatia.
-Itsasuak inpresiñua ein zotsun.
-Haundixa. Eta desietan atzera ikusteko baiña beste eskursiño... bategaittik, aillegau arte ba kieto.
-Baiñau egin ziñazien?
-Segurutik ez. Ez naz akordaten, segurutik ez. Trajebaiñuak eta... Bueno, pentsaizu, gure etxe ostien euan errekia, bai, oin be badao ya baiña orduan ura joaten zan, e. Eta oin baiño garbixaua. Eta honek, Ana Mari Otxoa eta honek, horren aitta ta. Beste etxien bizi zien horrek, bai, eta joaten gintzen danok errekara amakin eta horrek etxian neskatilla-mutikuak, hango etxekuak eta guriok danok batera, danok pillosik errekan. Danok amak garbiketan giñuen errekan. Eta beratxuao euen, malatua esaten otsien. Itxuria holan berutza, holan bastante ur geraketen zan han, ezta, eta igeri hantxe ikasten auen Kalebarreneko mutiko guztiak. Baiña neskatillak ez, e, pekatua zan neskatillak juatia igeri ikesten. Orduko denporatan, ja, ja! Eta mutiko guztiak, gure Julenek eta Mikelek eta Iñakik eta Paulik eta danak hantxe ikesi auen, Kalbarrenekuek danak hortxe. Eta Kaleerdikuak, presia euen orduen hor konbentu onduen, eta hantxe presan. Hori presioi kendu euen hori danoi kanala moduen ifiñi auenian. Pena bat izen zan. Haintxe.
-Orduan mutillak igarixan eitten ikasi zeben.
-Danak akixien, malatuan ikesitta. Eta bestiek presan. Eta Kalegoixenekuak joaten zien Errotabarrin euela beste zer bat eta hara. Eta han ikesi auela Malkorreko hango basarrixa, oin botata dau baiña, Maritxuk ikesi auela igeri eta danak ixilik, e, bata bestiai esaten ixilik, e, Maritxu igeri eitten ibili eitten dala haintxe.

5.39. Errekan jolasean

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/022
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:31:20. **Bukatu**: 00:32:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolasak; errekan ere ibiltzen ziren jolasean. Ezkailuak, amuarrainak ugariak ziren; erreka garbia zen.

Transkripzioa
-Lehenauko bizitzia zan holakotxia.
-Errekan be jolastuko zenduen, ez?
-Errekan? Desietan amak-eta erueteko danok han jolasian eitteko, baiña errekan... Bai, bajaketan gintzen errekara, e. Ortutik eskillaratxua gaukun, etxostetik.
-Baiña orduan garbixa zan...
-Bai, bai. Garbi-garbixa ura juaten zan. Zerak, ezkailluak eta, amorraiñak-eta abitzen han errekan.
-Eta mutillak-eta ibiltzen zien peskan?
-Bai, bai. Horreik danok hartu eitten zien.
-Mutillak bai, baiña ohitturarik zeuan gaztiak edo gizonak ezkaillutan eiñ eta gero tabernara...
-Nik ez dot pentsetan hori kostunbrioi euanik orduan. Ez dot pentsetan, ez dot pentsetan.
-Errekan be jolasten zenduen.

5.40. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/023
- **Iraupena**: 0:04:55. **Hasi**: 00:32:05. **Bukatu**: 00:37:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolasak: pote-zaharka; txorimaloka; txorro-morroka... Kale erdi-erdian ibiltzen ziren jolasean; neska eta mutil, denak batera ibiltzen ziren. Kromoekin ere asko jolasten zuten.

Transkripzioa
-Eta bestela umetan jolasik eta?
-Oin baiño gehixau. Ene! zenbat jolas eitten gauen!! Kale-kalien eitten zienak zien, "potezarka" esaten jakon. Ta ni igual hemen ifini eta pote bat bota, eta igual xei lagun edo, e. Eta holan lelengo juan eta hartzen auenak potia, harek ein bihar auen atzera beste zer bat holan. Beste bat zan "txorimaloka-txorimaloka". Holan hogei edo kontau holan eta bestiek ezkutau portalietan, portale guztiak zabalik egoten zien, eta zuk topau ein bihar zauen. Eta lelengoko harrapetan zauena, ha zan galdu auena, eta gero holan bera ifini bihar zan atzera. Ez dakitt ondo espliketan doten. Iguel berrogei arte kontau bihar zan, eta emuten auen denporia beste danak gordeteko. Baiña zuk juan bihar zintzen hareik topetan. Baiña porsiakaso urriñ ez, porke igual ondoko portalien egongo zan. Eta zu porsiakaso ondoko portalera juan baiña han ez zazen, baiña han euen denporan aillegetan bazien zu holan kontetan zabitzen lekura ta ormie joten baauen, neu atzera geraketan nintzen eurak topetako.

-Eta zeoze esaten zeben jotzen zebenian?
-Ezebez.
-Jo bakarrik?
-Jo bakarrik. Eta ensegida konturaketan zitzen aurria hartu dostela neuk bestia topau baiño lehen. Lelena topau baiño lehen. Eta gero txorro-morro-piku-kaballo-ke, hori be bai. Bata bestian gaiñetik saltoka.
-Piko kaballo?
-Bai, bai. Eta horrek saltoka hori be danok illeran, e. Kale erdi-erdixen eitten zan.
-Neska ta mutill ala danak batera?
-Bai, bai. Eta hori kale erdi-erdixen. Automoillik be ez zabillen. Eta holako jokuak azen, e... Beste batzuk: kromoka. Erosi eitten zien kromuak; eta ez dakit zenbaten, gure amak kantsau zan dirua emuten, nik galdu eitten nauen betik eta. Baiña zien rekreuen eta eskolan. Oiñ rekreuen eta beti baloiakin eta dabitz jentia. Han mailletan kromuak... Oindiokan lehengunien, bat ez dakit hementxe ez dauen! Eta pentsau noizkue izengo dan, ordukotxe denporakua izengo da, e. Ordukotxe denporakua izengo da. Hementxe barruen dau ta. Holako lehoi bat edo da. Aber. Horixe! Holakuek... Hor atzien zer dau ifinitta?
-"Recuedo de Monica Pérez, chocolates finos..."...
-Ene, Monika Perez zan Felix Beltranen ama, oso lagunak gintzen. Holakuak honek erosi itten zien, eta, klaro, ifintten zien holan, eta holan inddakuen traka!, buelta eitten badot bixek..., batek hiltten dau bat, bestiek beste bat. Baiña hau einddakuen buelta bixek eitten baeuen zeuretzako zien, bestiek ifini dauena be bai. Baiña danak eskolako zer guztiek holaxen, e. Holakotxe jokuekin.
-Gaiñera kromo dotoria. Haundixa, kolorietan.
-Holakotxiem, pentsaizu, ordukotxe denporakuak; fetxie be igual egongo da. Ez, ez dauko fetxia.
-Eta honek orduan erosi itten zenduezen eta...
-Bai, dendetan, denda guztietan euzen honek saltzen holakuekin. Eta nik neukaten lagun bat, Migel Uribeetxeberria. Ez dakit. Horren arrebia. Maria Josefa hil zan ointxe bost urte dala edo. Harek danei irabazten otsen. Ha beti egoten zan bakarrik porke iñok be ez auen gura haregaz jokaketaik. Harek bete-bete-bete eindda kajia holakotxe kromuekin. Eta guk ba batzuetan galdu eta beste batzutan irabazi beste batzukin.

5.41. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/024
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 00:37:00. **Bukatu**: 00:40:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: "Afielka"; tortoloska. Umetako jolasak: sokasaltoan; diaboloarekin ere asko jolasten zuten.

Transkripzioa
-Beste bat afielka, Afielka. Afielak.
-Zer da?

-Gura dozu? Erakutsiko dotsut afielekin zelan itten gauen?
-Zela?
-Afiel bi ekarri bihar dot. Afielak haundixak ibiltten gauen, e.
[...]
-Eskolako deskantsuetan, urteten gauenien [...]. afielka zan, ifiñi holan afielak, holan ibili, holan ibili, eta konsegiduten zauenian bestian gaiñian ifiñi, orduen bestien afiela zeuretzako zan. Kromuekin moruen. Baiña holan, holan gaiñerutz holan, eta irabazten zauenien bestien afiela be zeuretzako zan. Horrek Maria Jose kajia bete-bete eindda. Baiña gero geraketan zan lagun barik jolasteko porke irabazi eitten auen eta. Eta gero tortoleska. Zeuk ikusitta daukatzu tortoleska?
-Bai, baiña guk ez gauen horretan jolasten. Entzunde bai baiña.
-Horrek tortolesok nik pentsetan dot badauzela hemen etxien pentsetan dot.
[...]
-Haintxe ez badaz desdeluego, badakit dauzena baiña nun dauzen... [...] Zuk kanika bat, eta ha kanikia gora bota eskuakin eta bittartian zuk honi bueltak emun biher dutsazu. Holan, holan.
-Eta alde bakoitzak izena daka?
-Oin ez nazena akordetan da, klaro, ez naz akordetan zelan, eta gero bata bestian gaiñian be bai, bata bestian gaiñian be kolokau biher zien. Kanikie goixan holan botataten zauen bittartien taka-taka-taka. Begiratuta, e, baiña kanikia gero hartu biher zauen. Eta kanikiek urteten baeuen eskutik ondo ez zalako zertu, ba ia bestiak jarraiketan auen. Hori ez zan izeten irabazten dauenentzako zera, baizik...
-Orduan alde bakoitzak bazeukan bere izena edo?
-Bai, baiña ni ez naz akordetan, e. Eta gaiñea bata bestian gaiñian be ifiñi bihar zien, e.
-Eta kanturik edo eitten zan?
-Kontau. Bat, bi, hiru... Holan. Eskolako zerak honetxeik zien, eta eskolatik urtenda gero be, hor kalien arekia, ezta, ura pasau dain, ezta, eta han jarri danok eta lurrien ifini honeik eta danok zerien. Nik esaten dotena da oin zegatik ez ete dien itten honek zerok, hain gauza polittak die ta, kanikie bota eta bittartien eskua eta han ibili ta. Baina...
-Honetara neskak bakarrik jolasten zenduen?
-Mutillak ez. Baiña potezarka ta mutillak eta neskatillak-eta, danok batera, Kalebarreneko danok batera. Potezarka ta, txorimaloka, zereien, txorro-morro piko-kaballo-ke, ta horreik. Kalebarreneko danok, mutikuak eta neskatillak.

5.42. Auzoan, herrien arteko harremanak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/028
- **Iraupena**: 0:05:25. **Hasi**: 00:44:35. **Bukatu**: 00:50:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena**: Lehenagoko bizimoduari buruzko gogoetak. Kale desberdinetako umeen arteko harremana nolakoa zen... Herrien arteko

gorabeherak; Eskoriatzako bizilagunen inguruko hainbat kontu. Neskatan-mutiletan nola ibiltzen ziren. Arrasatekoekin harremana beti izan da oso ona.

Transkripzioa

-Eta holaxen.
-Baiña rekuerdo onak dakazuz ume-denporako eta gazte-denporako...
-Bai. Oso onak gaiñera, e. Oso gauza sanuak. Sano-sano bizi gintzen orduen.
-Kalien artian egoten zan pikerik, igual mutillen artian edo. Kale batekuak eta beste batekuak edo.
-Pikie egoten zan...
-Hasarre, harrika edo burrukak edo?
-Ez, holakoik ez. Baiña egoten zan pikia, Korputz egunien eitten zan prosoziñua, eta ifintten zan altaria estaziñuan, trena euen orduan eta. Estaziñuan hemendikalderutz. Eta Kalegoixenekuak eukitten auen altaria. Eta gero Kalebarrenian ifintten zan Jesusen Bihotzen egunien. Jesusen Bihotzen egunien ez, beste..., hurrengoroko domekan. Eta orduan Kalebarrenekuok ifintten geuen ba, Doni ta ibiltten zien han, bestiek baiño dotoriao ifintten eta. Baiña hemen pikiek horretxek gauzok izeten zien.
-Bestela burrukarik eta mutillen artian?
-Bai, burrukak asko orduen, e. Enee! Gaiñera famosuak zien xei edo, beti burrukan abitzenak. Eta persona onak, e! Holan gaiztuek eta ez, e, baiña...
-Eta herrixen artian? Ez dakit, zeuek eta Eskoriatzakuak eta.
-Bai, Eskoritzakuekin bai, Eskoritzakuak beti zien asko be pitosauak, "más pitosas" geu baiño, e. Horrek, ez dakitzu, "medias", galtzak eta ifiñi auenian eta, orduan "medias de cristal" urten auen, eta Eskoritzakuak asko be lehenau ifintten auen guk baiño, e. Gu asko be atzeragotik atrebiduten gintzen horrek galtzok ifintten eta holan. Eskoritzakuak izan zien asko be aurreratuaguak jazten eta holan Atxabaletakuek baiño. Hori bai. Baiña pikie haundixa herri bixak, e. Enee! Bueno, bueno, bueno.
-Eta hori zer, betidanik?
-Oin ya ez.
-Baiña zeuen denporan, zeuen denporarako bazeren pike horrek?
-Bai, bai. Eta gaiñera Eskoriatzakuak zien San Peduetan jaixak eta joaten gintzen danok. Eta holan zerien, konbidauak-eta han be, Andramaixetan-eta hemen egoten zien moduen San Pedruetan euren etxietan konbidauak eta holan. Eta harek afaitten eta komedorian eta daozen lekuan balkoia zabal-zabal-zabal eindda, jentiak ikusi daixen haintxe afaittan daozela ta. Eta Eskoitzakuak gehixao izan zien holako fantasiosos edo. Bai. Eta gero badakitzu Eskoriatzan ze pasau zan behin, ezta? Ba musika-bandia ifini auen Eskoritzan eta ensaiuak ein auen musika-bandiak, musikuek ikesi euenien eta holan ba inagurau bihar euela pasakale bateaz. Eta resulteten da hasi zien pasakallia joten... Hori egixa da, e. Nik oin be Eskoriatzakuei zenbat bider Copreci-n konteten notsieten hori! Eta Otxandixoko bat auen han lanien, Mario Padilla.
-Medikue?
-Ez, ez, medikua ez da hori. Horren aitta, medikuen aitta. Gizon bat majuaua! Eta neu kontetan eta, klaro, harek ez zakixen hori, eta: "Keba, Miren, zu beti holakotxe gauzak esaten". "Baietz Mario, egixa dala, egixa dala". Holan pasau zan ha ta. Behin etorri zan eta esan usten: "Miren, atzo tabernan komentau nauen bai eta egixa da. "Egixa da" ixixilik neuri. Egixa da, egixa da zuk kontau zauena. Eta gero ifini zien danak illeran, baiña zela ez auen ensaiau ibili dabitzela joten, ba mobiduten zien, pausuek emuten hasten zien eta ixildu eitten zien. Eta euen kamioi bat, Alpargateruena

esaten zana, ez dakitt, haik fabrikie edo eukien. Ekarri kamioia, jarri han eta musikia, eurak geldi dauzela soseguz-soseguz kamioia eta han musika, pasakallia joten. Esaten usten Mariok: "Tira, Miren, zu beti holakotxe gauzak esaten zare". "Ezetz, Mario, egixa dala. Zuk konsultau hori, zuk preguntau hori". Eta handik egun batzuetara: "Zu, Mario, preguntau dozu tabrnan eta holan eta?" "Bai, atrebidu be ez naz itten. esango doste zelan sinistu doten hori ta" Eta egun baten "Miren, errazoia eukatzuen, esan osten egixa dala, e". Gure Mikelek-eta konteten daue hori grazia bateaz!, bueno!". Eta ez zakixien ibiltten, ikesi euen jarritta dauzela joten. Eta mobiduten zienien ba ez zakixen jarraiketen musikiai.
-Baiña orduan zeuk disfrutatzen?
-Nik pillo bat, ulia hartzen eta eurei, bueno! Baiña Eskoitzakuak beti "más lanzadas" neskak-eta izan zien. "Mucho más lanzadas" Atxabaletakuak baino.
-Mutillak eta be bai? Edo ez dakitt Eskoritzako mutillak Aretxabaletako neskekin elkartzen zian edo halakorik, edo gaizki ikusitta zeuan?
-Ez, ez, ez. Jeneralian orduko denporakuak ixa danak dauz ezkonduta herriko mutillakin eta herriko mutillak Atxabaletako neskakin; jeneralien, bai. Orduentxe herri txikiñak zien herrixak be, eta ez zan ibiltten horrenbeste mobimentu herri batetik bestera ta.
-Eta Mondrauekin eta zer?
-Ez, horreikin ondo, horreik beti izen die gehixao. Orduan zien asko be gehixao, beno! Eta oin be bai, Mondraue...
-Gehixao bai, baiña ez dakit...
-Ez, ez, Mondrauekuekin ezebez, Eskoritzakuekin, Eskoritzakuekin. Gertukuenak eta...
-Bai.

5.43. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-018/005
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:10:20. **Bukatu**: 00:12:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Aisia » Kirola » Pilota
  Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena**: Umetako ibilerak. Jolasean ibiltzeko toki asko; kalean jolasten zen. Pilotarako zaletasuna; futbolean ere egiten zuten. "Pote-poteka", kanikatan, txirikilarekin... Futbolean egiteko erabiltzen zuten baloia.

Transkripzioa
- Orduan, etxe inguruan-eta jolasteko toki asko zekazuen, ez?
- Bai, bai, bai. Eta gero, ba, jolas eitten [geben] kalian. Bufa! Kalian.
- Ze…? Lagun guztiak elkartu eta…
- Bai, bai, bai, bai.
- … ze eitten zenduen, pelotara edo fubolian edo…?
- Bai, pelotak hemen, pelotalekura hona etorritta, ta fubolien plazan. Fubolien plazan. Ta kalien, ba, “potezarka” ta… […] orduen […] potie ifini

ta gorde ein […], ta gero topetan fan eta “danba!” potie jo… Pote-poteka, […] pote zaharrakin.
- Ta kaniketan-edo eitten zenduen?
- Baitta.
- Baitta?
- Baitta, bai. Eta zera… zela esaten zan ha? Makila bikin eitten zana haura… “tik!”… E… ez naz akordetan.
- Txirikillia edo?
- Bai, txirikilletan. Baiña txirikilletan zan, eitten zan, garizuman. Bai.
- Beira…
- Garizuman eitten zan txirikilletan.
- Orduan, gauza gitxikin segiduan asmatzen zenduen zeozer: pote zaharrak edo makilla bi edo…
- Bai, bai, makilla… bai.
- Nahikua izaten zan.
- Ta gero fubola ta pelotia. Hori bai.
- Eta fubolian eitteko baloirik-eta ukitzen zenduen?
- Baloi bat? Baloia oso gutxi.
- Edo zeuek eindako zeozer?
- Oso-oso gutxi, oso gutxi. Akordaten naz gero, […], baloi bat, baloi bat eukan hemen, zera… Nemesio [euken] izena, Nemesio [euken] izena. “Nemesion baloia”. Eta zan… ez zan borobilla, e! “Sagar ustela” deiketan gutsan. Holakotxe, baiña…
- Forma rarokua?
- Oso!
- Orduan, harek bota raruak eingo zittuan…
- Buo, enee!! Bueno, bueno!
- Argi ibili bihar…
- Nemesion “Sagar ustela”. Harekin zenbat bider jokatu geuen hor plazan…!
- Orduan, baloiak zer, ez zeren edo…?
- Baloiak ez eren!
- … edo dirurik ez baloiak erosteko edo…?
- Ez euen hemen, ez euen dendarik horrek erosteko. Horrek erosteko juan bihar ziñan, ba, zera, Gasteizera edo…
- Bai, pixkat kapitalera edo holako…
- Bai, bai, bai. Eta gero, ba, ez dakit, dirurik be ez euen erosteko. Bueno, beste gauza batzuk erosten zien, baiña, ez dakit… ez zan heltzen horra, ez dakit zeatik.

5.44. Aratosteak Aretxabaletan

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-019/013
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:32:50. **Bukatu**: 00:35:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
  Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- **Laburpena**: Aratosteak Aretxabaletan; gaztetako ibilerak. Gerra garaian debekatu egin ziren aratosteak. Santa Ageda mutilak.

Transkripzioa
-Orduan Karnabalak zelebratzen zien?
-Karnabalak? Enee!
-Eta disfrazau eta be bai?
-Kukumarro.
-Etxeko edozer gauza jantzitta?
-Bai, bai, bai. Edozer gauza jantzi eta ala!
-Kuadrillak eta?
-Bai, bai. Orduan izeten zan, bueno, "Santa Ageda mutillak" be baeuzen, orduen urtero Santa Ageda mutillak. Eta gero zela izeten zan Karnabalak eta Santa Ageda mutillak eta horrek inguruen zela dien danok, hor eitten zien jaixak, Karnabalak.
-Mutillak disfrazatzen ziñazien, neskak be bai?
-Bai, bai, neskak be bai.
-Orduan jai polittak izango zien.
-Bai, bueno! Desietan egoten giñen Karnabalak etortzeko. Baiña denpora guxi iraun euen, gerra-denporan hori suprimido, dana.
-Eta gerra ostian berriz hasi zan?
-Beranduau.
-Urte askuan prohibiduta egon zan?
-Bai. Hemen bakarrik ez. Gipuzkuan Tolosan bakarrik eitten ziran. Karnabalak euzen suprimiduta, ezin zan jarri karnabalik. Baiña Tolosan jarri utsen izena "Fiestas de Primavera".
-Eta esan dozu "Santa Ageda mutillak". Horrek zer zien, kintuak?
-Bai. Baiña uste dot, hori entzunda daukat, horrek kintuak lehenau dirua batzen euela, harek gero zela soldautzara juan bihar ziran, hara diru puxkat erueteko. Oiñ ez. Oiñ tragu batzuk eiñ-eta, afari batzuk eiñ-eta.

5.45. 'Círculo Carlista'ko mitinak; Maria Urraca Pastor Aretxabaletan

- **Hizlaria(k)**: Gorroño Arregi, Esteban; Zuazabeitia Herrasti, Duni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gorroño, Jasone
- **Erref**: ARE-021/013
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:24:40. **Bukatu**: 00:27:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- **Laburpena**: Círculo Carlistako mitinak; Maria Urraca Pastorek mitina eman zueneko kontuak. Margaritak eta pelaioak.

Transkripzioa
-E: Eta gero euki auen hor zirkulue be bai. Goixan be euki auen zirkulue.
-D: Baitta. Ni entzunde nau mitiña karlistena handik.
-Zirkulua, nun egon zan hori?
-D: Hor Etxaben karnezerixia badau ba? Hantxe lelengoko pisuan egon zan.
-E: Bertan etxian. "Círculo Carlista".
-D: Tradizionalista ez zan?
-E: Karlista edo tradizionalista... Ni akordetan naz, egun baten mitiña, eta Mondraueko Pagoaga.
-D: Maria Rosa Urraca Pastor zan "Margaritia".
-E: Urraca Pastor be bai egon zan.

-D: Haretxen mitiña entzunda daukat.
-E: Bai, ha ta... Harekin batera zan Antonio Pagoaga.
-D: Jentia kalien jarritta, sillak eruenda etxetik eta, ezta? Horreik denporak, ene!
-E: Harek mitiñak botaten zittuen eta, zerak, Pagoagak, zera eitten. Eta palike ona dauka Pagoagak, e.
-D: Ez dakit gerria hasitta egongo zan.
-E: Ez, ez.
-D: "Nosotros luchando por Dios".
-E: Ha republika denporia zan. [...]
-D: Ha zan España maillan Margaritan... Zien karlistak, mutikuak zien, mutikotiek edo, "Pelayos". Ez dakit Pelayo nor izen zan, erregen bat edo, "Pelayos". Neskak zien, emakumiek zien "Margaritas". Margaritak orduen tiestuen be ez zien egoten gurien floreruen be. Margaritak? Karlisten loria, ezta pentsau be. "[...] margaritia ederra, politta da". "Baiña margaritak dia". Urraca Pastor. Horretxegaz bakar-bakarrik akordetan naz: "¡Nosotros luchando por Dios, los otros allá ellos!" [...] Eta kasualidadia ni entzuten, ni entzuten.
E: Hori esan biher notsun ba. Harek akabau auenien, ein auen mitiña haren aurreko, honek, Antonio Pagoagak, zereko Mondrauekuak. Eta badabil esaten-esaten, eta ez dakit zer esan auen, eta [...-k] esan utsen: "tira, txotxoluoi, Pagoaga, ixildu hari, ixildu, txotxoluoi halakuoi!" Bestie jota pasauta. Berriro hasi eta: "Ez dostat ba esan txotxolu horri ixilketako!". [...] Balkoittik.
D: Hori zan bazkaloste baten, eta [...] lanera oien, eta Maria Rosa Urraca Pastorrek akabau auenien bere zeroi [...], holaxen txaluek eitten Maria Rosa Urraca Pastorri, zihero aztorauta. Enee!, hareik mitiñak eta.
E: Niri grazia haundixena, [ointxe ba...] akordetan nok, "Pagoaga, txotxoluoi halakuoi, ixildu hari!"

5.46. Umetako jolasak: harri-harrika, tortolosetan, karta-jokoan...

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-027/006
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:14:05. **Bukatu**: 00:17:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Arbi burua erabiltzen zuten jolaserako, baloiaren ordez. "Harri-harrike" jolasten zuten. Eskola ostean, karta-jokoan ere aritzen zen eskolako lagunekin. "Harri-harrike" jolasaren inguruko azalpenak. "Tortoleska" eta kanikekin ere jolasten zuten.

Transkripzioa
-Eskola ... jolastu eta egiten zenduen rekreuan?
-Bai, eta zerakin ein biharrien, baloiakin ein biharrien arbiburuakin. Je-je. Arbixen burue jakingo dozu zer zan. Ba haretxen arbiburuakin jo ta belaune, ederra belaunekue hartuta ibili nitzen zereko Untzilleko plazan. Bueno!
-Gogorra izango da arbiburua.
-Bueno! Orduan bai gogorra! Oin, e, gogorrekuek pasau die baiñe. Oin, e,

hementxe sillan.
-Beste ze jolas eitten zenduen?
-Ba jolasak zerien harri-harrike, ta bestela beste jolas asko ez. Beste jolas asko ez jat /etxat/ akordatzen. Eta mendixen gebitzenien, ardixekin ibili nitzenien hara fanda lagunekin Suiñako zerien jokuan be bai, kartakin jokuen be itten geuen lagunekin. Orduen eskola osteko lagunek, eskolakuak. Han itten gauen, mendire etortzen zien bertako lagunek eta mordue jardutzen gauen zazpitterdixen jokuan, han eskolan ibilitta gero.
-Eskolia ta gero?
-Bai. Zazpitterdixen jokuen eta holan.
-Eta bestia esan dozu harri-harrika?
-Harri-harrike, bai.
-Eta zelan izaten zan hori?
-Ba arraixak ein zerien eta harri bat ifiñi eta haretxekin harrixakin. Harri-harrika.
-Lurrian?
-Bai, ein zerien, losan edo [honen moduan] dauen lekuen zer batekin, harri zuri edo klarionakin-edo ein zera ta hantxe, haxe pasau barik zerak eitten, zeiñek irabazi. Eta holan, holakotxiek. Eta besterik... Zerak, eraiñ sokiakin, gora bota zera eta han harrapatzen beste bat, ez dakit zer zan. Zela izeten zan ahaztuta daukat haxe. Eta beste jolasak, tortoliska be bai. Tortolisak ifiñi eta klak! jo ta.
-Zelan eitten zenduen tortolisekin?
-Tortolisekin ifiñi zerien eta klas! jo ta aldrebes ifiñi lelengo eta zuzen ifintzen.
-Buelta emun bihar?
-Bai, buelta emun bihar eskuakin atzaparrakin jota. Holan. Eta holakotxe jokuak.
-Kanikarik eta eukitzen zenduen?
-Bai, kanikak be bai. Kanikakin be bai.
-Eta ze egiten ziren, erosi edo norberak egin edo?
-Ez, erosi edo ez dakit, ala norberak zerakin itten zien. Igual norberak eingo zien zerakin, horrekin porlana zerakin, igual bai. Edo erosi be igual. Orduen merkiek egoten zien baiñe diruik ez jeonan /etxeonan/, haxe tristiena, haxe tristiena. Gauzak merkiek eozen baiñe norbera merkiaue. Je-je, norbera merkiaue!

5.47. Ezkontza Arraten eta eztei-bidaia Donostiara

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-027/015
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:32:50. **Bukatu**: 00:34:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Arraten ezkondu ziren, bi lagun lekuko zirela, senitartekorik barik. Lutoz jantzita ezkondu behar izan zuten, eta Donostiara joan ziren eztei-bidaian: egun batean joan, eta hurrengoan bueltatu.

Transkripzioa
-Lehenao [ez gauen egin] bodaik be, gu lau, nire jostunlagune ta beran gizonan basarriko lagun bat fan gitzen Arraera, hantxen ezkondu ta hor esan doten dendan jantzi geuen zera; orduen lutua jantzi bihar izeten zan, eta tio bat hilde gauken eta galtza baltzak jantzi eta Donostiera fan gitzen laurok, hantxen bazkaldu, eta lehenao arkalekin ezin zan lorik be ein aurretik. Je-je.
-Hori zan "el viaje de novios".
-"Viaje de Novios", Eta egun baten fan eta bestitn etorri, San Antonioi eitten jakona ein gutsen. Eta gero nire zeorrek (barreak) madriniorrek bazkarixe preparau zeuen hurrengo egunien eta aitta-amai esan jakuen, geuriei be bai eta bestienei be bai, eta etxien bazkai bat emon gauen eta hurrengo egunien gizona biharrera ta, ba ya está. Ez euen zerik. Viaje de novios haxe. Igeldora orduentxe fan gitzen, eta gaba Donostien pasau ta etxera bazkaltzera. Ta ya está. Akabo gure zerak.
-Orduan nobedadia izengo zan Donostiara joatia, ezta?
-Bueno! Nobedadia ez dakit. Eurai ezkutatziarren fan gitzen gu. Arraten ezkondu ta hantxe armozua ein eta hamarderdietako Pulmana hartu ta ya!, hurrengo egunien, e, klaro, lorik ez... (barreak).

5.48. Meza kontuak eta hilarriak elizan

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-027/020
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:40:35. **Bukatu**: 00:43:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena**: Dena konfesatu behar zioten abadeari. Auzo guztietan zeuden abadeak, etxe gutxi egon arren. Igandero egoten zen meza, eta derrigorrezkoa zen joatea. Eliza barruan zeuden hilarriak; etxe bakoitzak bere hilarria zuen, eta hilarriak nola egoten ziren kontatzen du.

Transkripzioa
-Mezetara ta joago ziñazien.
-Bai, eta konfesatzen. Han esan biher kontu danak, ja-ja-ja!, han esan biher kontu danak, gaiñera eurai. Ta gero...
-Han auzuan bertan bazekazuen elizia?
-Bai. Auzo danien eozen abadiek. Ez dakit zenbat auzo daoz Atxabaletan, eta auzo dan-dan-danetan eozen. Zazpi etxe eozen lekuen be abadia zeuan, eta gu, ni Galartzakua nitzen eta han ez dakit hamahiru etxe eozen, eta han be abadie. Danien, danien. Dan-danetan eozen abadiek. Oin abade gosie dao baiña orduen danien eozen abadiak. Danien.
-Eta? Domekero egoten zan mezia?
-Bai, domeka guztietan. Gero ba apur bat zertzen hasi zienien ba, baten bai eta bestien ez eta holan eitten zien, apur bat banatzen hasi zienien, baiña aurretik, bueno!, aurretik danien.
-Derrigorrez beti joan bihar mezetara?
-Bai. Mezetara ta hilarrixek egoten zien. Hemen lehenao ez zien egoten

baiña hillarrixek mantel zurixakin, kandelakin egoten zien. Hilddakue bazeuan lazo baltzakin egoten zien. Gero kendu zittuen hillarrixok.
-Hillarrixak eliza barruan?
-Bai, eleixa barruen euren mantelakin, ifini tente bi kandeleruekin eta hilddakue bazauen lazo baltzakin egoten zien. Gero kendu zittuen.
-Eta zeiñenak izaten zien hilarrixak, herriko jentianak?
-Auzoko etxekuenak. Auzoko zera zein etxe, hamahiru etxe edo die gure auzuen, eta hamahirutik ba zein tokau zan hilddakue edo hilbarri bazeuen bi kandela; bestela sei kandela lazo baltzakin, holan egoten zien.
-Etxe bakoitzak zekan bere hilarrixa?
-Bai, etxe bakotxak, etxe bakotxak eukitzen zeuen. Gurien bi kandelakin egoten zien lutoik ez bazeuen. Bestela lutue bazeuen, lau kandela eta lazo baltzakin egoten zan.

5.49. Ama, neskame

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-028/001
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
  Lanbideak » Neskameak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Aitona Soraluzekoa zen, baina aita Aretxabaletakoa. Ama umezurztegi batekoa zen; hura neskame ibili zeneko kontuak. Senarra izango zuenaren baserrian egon zen neskame zazpi urtean, eta gero Axpe-Arrazolara joan zen. Gripe sasoia zen. Apaizari oiloa eta arrautzak eman behar zitzaizkion, eta nagusiak bera bidali zuen ez zutela esatera; gero, Jauna ez zion eman apaizak amari, ezkondu zenean. "Ezkondu barik gaude gu!", esaten zuen beti aitak. Non ezkondu ziren gurasoak. Ama gaixorik egon zen, gripearekin. Anditzeko gizona zen ugazaba.

Transkripzioa
-Orduan aittitta Plaentzikua zan?
-Aittitte Plaentziakua zan.
-Eta zure aitta hemen jaio zan?
-Gure aitte zerian, Atxabaletan.
-Ama ze zan, bertakua?
-Ama zan ospiziania. Ama zan krieda egon zana hor nire gizonan baserrixan zazpi urtian. Eta gero fan zan Axpe-Arrazolara. Ta Axpe-Arrazolan hori gripe-sasoi haundixoi euki zeuen, da han euen zerien, ta gure aittak beti esaten zeuen, ba han eruen biher izeten jakon ba abariei oillue eta ez dakit zer. Arrautzak edo. Ta uezabak emun ez ittearren, ba zu kriedia zariela esan, eta kriedia zariela esan eta zertu. Ta fan die Gure Jauna hartzen edo, ezkontzen Axpe-Arrazolan, eta zerien, eta, ene!, ta Gure Jaunik emun ez. "Gu ezkondu barik gazek" esaten euen aittek beti, "Gure Jaunik ez joskuan /etxoskuan/ emon zerien. Zeaittik, eta oilloik eta arrautzik eruen ez utselako. Abariek be egoistak be bai, e!, egoistak terribiliek, ez jonan /etxonan/ Gure Jaunak asko balio. "Gu ezkondu barik

gaoz", beti esaten euen.
-Orduan zure gurasuak Axpen ezkondu zian?
-Bai. Nire gurasuak Axpen. Han euen etxe baten hori gripealdi haundixoi zeonien. Ba hiltzeko asko zertu ez eta ba txarto egon zan ama gurie. Azkenien, e, lelengo nire gizonan basarrixen, ta gero hara fan zan, Axpe zeera, Anditzera, eta haintxe pasau zeuen haundixenoi. Eta Anditzeko gizonak ikusi behin eta esan i utsen, e, zera: "Hire andriek, e, txahalai emuten jakon artua be jan itten juan". Ta ferixera fan Mondrauera-ta, esan i utsen eta: "Ba ogixe nahikue emon bautsen ez euan jango artorik", esan i utsen gure aittek, eta egixe. Eta harek Anditzeko gizon horrek: "zuk esan abadiai zu kriadia zariela ta ez dakartzula oillorik eta arrautzarik emuteko. Ta esango utsen harek eta gero Gure Jaunik emon ez.
-Baina kulpia ez zan berana gainera, ezta, nausixana zan.
-Bai ba, nausixena zan hori biherroi, baiña berak be emoteik nahi ez. Ja!, berak be ez euen nahi emoterik eta. Eta gero bestiek Gure Jaunik emon ez. Eta gero gure aittek beti esaten zauen: "Gu ezkondu barik gaozen". Beti esaten oskun.

5.50. Gerra aurreko euskal izena

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Miren Gaztelu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-029/001
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 1932ko abuztuan jaio zen Aretxabaletan eta Miren Gaztelu izenarekin bataiatu zuten, Gatzagako Ama Birjinaren izena euskaratuta. Hala ere, gerraosteko eskolan "María del Castillo" deitzen zioten.

Transkripzioa
-Izena Miren Gaztelu Urreta Zubia. Jaixo nintzen hementxe Atxabaletan, agostuak hogeta lau, San Bartolome egunian, milla beratzirehun eta hogeta hamabixen, “treinta y dos”a esaten dana. Nire izena da ba hoixe, Miren Gaztelu, eta uste dot gaiñera Atxabaletan neu bakarra nazela, ez dago besteik. Ni gerra aurrekua, klaro, nola nazen ba. Gaiñera hau izen hau ifintteko bere berezia dauko, bere historixa berezia dauko. Batzokittik liburue eruen, izenen liburue eruen etxera eta handik hartuta izenak, nire aittak gure auena, gure auen Gatzako Ama Birjiñian izena jartzia, eta klaro, Gatzako Ama Birjiñia da "Nuestra Señora del Castillo". Eta orduan berak euskeraz ifinttia zela gura auen, han aurkittu izena, eta Maria Castillo, Nuestra Señora del Castillo euskeraz Gaztelu, eta niri ifiñi ustien izena Miren Gaztelu, eta hori euki dot, bizi guztien Miren deittu izen duste, eta gero gerra ostien hasi nintzen, eskolara ta hasi nintzenien, Maria del Castillo eta Maria del Castillo, eta hainbeste denporan euki izen dot izena Maria del Castillo. Baiña lehen zerien, jaixo zintzenien zerak, Donostiko, Gipuzkoako Kutxak bialketan auen ume bakotxai kartilla bat ez dakitt zenbat diru ifinitta. Eta han euki izen dot beti, beti-beti nire izena Miren Gaztelu moruan. Beti, e. Niri ez doste sekula iñoiz bidali ez gerra denporan be ez eta gero be ez Maria izenakin, betik Miren Gaztelukin. Eta Miren da

Miren. Eta elixan be Miren Gaztelu, eta Maria del Castillo ba beste gauza batzutan, ez dakit nik, edo banko-edo.

5.51. Baserrian ikusitakoak

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Miren Gaztelu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-029/007
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:17:50. **Bukatu**: 00:20:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Baserrian egon zen garaian jolas besterik ez omen zuen egiten. Oso ondo gogoratzen da baserrian ikusi eta ikasitako gauzekin.

Transkripzioa
-Eta gero ba nik ondo pasa nauen, ez nauen pasauko ba, jolas baten egun guztia. Hango..., baiña ze gauzia, zenbat gauza ikasten dien basarri baten. Oin konturaketan zara, akordetan naz han eskillarapeien, sarreran eskillarapeien euen, zelan esaten utsien ikuteixa edo iputeixa-edo: ba zera moduen, ai, zela esango dotsut /esangotsut/, ukuilluan moduen, ezta? Baiña zan, hoixe bai, daukat buruen sartuta. Sartu ta ezkerretara zan eskillarapeien holan euken egurrezko horrek, goitti behera holan zer batzuk, egurrak, txirlo batzuk hola goittik behera dana holan atiakin ta barruan euen bihorra eta moxala. Eta hori etxat sekula ahaztuko. Bihorra ta moxala. Ez dakitzu zer dan? Bihorra, bihorra da emia, zaldi emia esan bihar naban, ez, eta moxala txikiña. Bihorra ta moxala. Horrekin akordatzen naz. Eta edurra ein auen, edurra ein auen. Klaro, ointxe sasoi hontan zan-ta. Eta, bueno! Nik lau-bost urte, lau urte, hortxe, lau terdi, holakotxen bat neuken. Eta akordetan naz edurra zela ein auen, kanpora urten bihar larriñera, eta zelan amak ipiñi osten burutik zaku bat, zakua, zaku bat holan buelta emun, ta zan zaku txiki bat zan, ez zan haundixa ta, neu be umia ta hauxe, hauxe da txikiña ta. Buelta emun eta ifintten auen holan albo baten, ikusten nago, e, ze kolore eta dana zittuen: urdiña hola eta gaiñetik holan zeukan hau zelan da, "El Quijote", Kijotia eta "Sancho Panza". Eta ifintten auen inguru guztian holan: “Nitrato de Chile”. Ikusten banego moduen. Holan dra! bueltia zan holan zer bat, zakuok eukenak kanpoaldetik holan. Erredondua be ez zan, luzenkia zan holako seillo moduko holan, eta urdiña zan barrena ta laruakin-ta holan beste koloriak eta ifintten auen bueltan holan: Nitrato de Chile. Hori akordetan naz gaur balitzan moduen. Ederto gaiñera, e. Holako gauzak bai eta zela lo eitten gauen...

5.52. Baserrian ikasitakoak

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Miren Gaztelu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-029/008
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:20:55. **Bukatu**: 00:24:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Laratzari "gelatzua" esaten zioten. Sutan arbia egosten zegoen galdara apurtu eta ahizpa gazteagoak hanka erre omen zuen; suge-belarrekin osatu zioten erredura. Makina bat gauza ikasi zituen baserri hartan.

Transkripzioa
-Baserrixan gauza asko ikasten die.
-Asko ikasten die. Ni hori hori ikasi nauen. Eta bueno, beste..., oiñ konturaketan zara. Gero ahaztu eitten jatzu baiña. Hara!, zelan zan? Sorgiñen Laratza, ezta?, esaten auen horrek Euzkitzek. Ba guk "laratza" esan biharrian harek esaten otsien "gelatzua". Holan txintxilizka zera egoten zan, katai bat holan eta behien kaldaria arbixak egosten edo gura dana egosten. Eta betik han su inguruen gaiñera. Eta amama geukan eta Aintzane aiztia bi urte bakarrik euken, eta ha altzuen neukela hari arbi-kaldariai apurtu jakon ipurdixa, azpixa, eta dana jausi zan. Eta Aintzaneri hanka gaiñian erre ein jakon hankia. Eta Aintzanek oinddio be dauko bi marka hola errienak, bi marka hanka gaiñien dauko Aintzanek orduantxe hantxe erre jakonian, zera, hango arbi-kaldariai ipurdixa apurtu jakolako, hango ura jausitta. Eta hori akordau eitten naz, e. Eta egoten gintzen topetan suga-belarrak. Suga-belarrak die -zu zerian ibilli bazara bien, baiña bestela...-, die holan orri zabal batzuk dauko, eta erdixan eitten jako hola gorutza lora moruen holan, eztakit nik, txondor moruko gauza hazixaz beteta balego moruen, hola erdixan gorutza gorrixa, eta dauko orri haundi batzuk, eta hari orrixai kendu azaltxua ta mintza, haren zera, ifiñi hanka gaiñien eta holaxen errien gaiñien, eta osaketako. Eta ibilli gintzen suga-bedarra... Bestela suga-belarrai ikutuik be ez, bueno!, suga-bedarra txarrak zien, benenosua, geure zerera zien erre.., zien benenua zeukiela ta. Keba, kendu ha zera ta orrixen mintza, alde azpixa bigun-biguna hanka gaiñian ifini ta holaxe osatu jakon. Baiña oinddio Aintzanek, ni baiño bi urte gaztiaua da, baiña harek han markak, erre markak hantxe dauka hanka gaiñian. Hanka gaiñian dittu bai. Horrekin akordetan naz, eta zelan ibiltzen gintzen han inguruan jolasten, alberkia, inguruan zer aukena, eta gauza asko holan.

5.53. Baserriko oroimenak

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Miren Gaztelu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-029/009
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:24:09. **Bukatu**: 00:26:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Jolasean bera bakarrik ibiltzen zen. Arto-kaskarekin, harri-harrika eta halakoetan jolasten zuen. Ume asko, hiru familiatakoak, elkartu ziren baserrian. Etxe inguruko zelaietan soldaduak eta kanoiak, eta baserriko beste oroimen lauso batzuk gordetzen ditu.

Transkripzioa
-Jolastu zertan?
-Ni bakarrik ibiltten nintzen baiña zetan. Han kaxkarakin-da, arto-kaskarakin. Oiñ ez dakit zela esaten dotsien, baiña guk arto-kaskarak. Zera, halakotxiekin harri-harrika, klaro, horrek ipiñi lurrien eta haretxekin jolasten. Baiña ni umia neu bakarrik nintzen, beste aiztia, Txaro, hiru urte zarraua da ta, klaro, lau urte euki edo zazpi-zortzi urte euki asko da, eta gero beste lehengusu batzuk be bageukan-da. Harek lehengusuak, gutxi gorabehera urtebete gaztiaua da. Eske hainbeste ume gintzen han. Eneee! Gu xei anai-arreba eta beste lehengusuak beste bi zortzi. Atera kontuak. Eta gero horrek maistru horrek beste mutiko bat, beratzi. Etxekuak eztakit zenbat zien. Xei, bost-xei edo ez dakit zenbat zien. Bakitzu zelako kuadrillie!, bueno, ha izeten zan! Puffa, kuartel general. Hori bai. Eta han zela zelaixen, etxetik kanpuen, goittik behera zelaixen zelan eozen soldauak, kaiñoiak-eta. Holakotxe gauzak bai. Baiña ez hola garbi-garbi-garbi ez, baiña. Akordau eitten za holan, pasadatxo bat eitten jatzu, ez dakitzu?, esaten dotsuenian zeozerrekin akordatzen zara hola, baiña bestela..., bestela ez. Hori bai, horrek gauzok bai, izenok geraketan jatzu bizi guztirako. Esnie egosten euen zera, maskelua, eta horrek gauzok, ez dakitt, han orduan entzundakuak baiña bizi guztirako geraketan jatzu. Akordau eitten zara, akordau eitten zara.

5.54. Haserrean beti euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Miren Gaztelu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-029/012
- **Iraupena**: 0:03:08. **Hasi**: 00:31:22. **Bukatu**: 00:34:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Amarekin eta amonarekin beti euskaraz egiten zuten, baina neba-arreben artean erdaraz. Haserretuta zebiltzanean, ordea, beti euskaraz. Bide Berritik gora baserri eta mendi inguruetara joaten ziren asko amonarekin, sei neba-arrebak eta bi lehengusu.

Transkripzioa
-Eta euskeraz pentsau bez, eskerrak etxien aittaitta ta amama, bueno, ni gaztia nintzela, bi urtekin edo hil zan aittaitta, baiña amamakin gu beti, amamakin ibilli izen gara, ibilli izen gintzen, eta amamakin euskeraz, eta aitta eta amakin be bai bizi guztien, bizi guztien. Gu geure artien, anai-arrebon artien erderaz eitten geuen. Klaro, estudixuak eta gauze danak erderaz eitten zien. Bai, geure anai-arreba artien erderaz, etxien be bai. Ba ohitturia, estudixetan-eta, baiña aittakin, amakin eta amamakin beti euskeraz. Eta gauza bat eon oso kuriosua, oso politta. Erderaz eitten gauen, baiña hasarreketan gintzenien, euskeraz eitten gauen. Eta amak esaten oskuen: “Hara, gure neuke hamar baiño gehixao beti hasarre egongo bazintzie, ze orduantxe eitten dozue euskeraz-ta”, esaten (oskun) amak, “orduantxe eitten dozue euskeraz, bestela betik erderaz zabitzie!, eta hasarreketan zarenien euskeraz eitten dozue.” Ba bai. Xei anai-arreba giñen, bat hil zan oso gazteik, hogeta bat urtekin hil zan nausixena; hogei,

handik egun pare batera eitten zittuen hogeta bat, hil zan, eta gero bi mutil eta bost (hiru) neska. “Hasarreketan zarenien bakarrik eitten dozue euskeraz, eta gurao neuk (semie) baiño gehixao beti hasarre egongo bazintzie, ze orduan eitten dozue euskeraz-da.” Kalien ixa ibilli be ez gintzen itten, ze xei anai-arreba, gero lehengusu bi zortzi, ta amamakin ala!, beti gaiñera mendi aldera, edo ez dakit nungo basarriko zelaira, edo Kamiño Barrittik, Kamiño Barri esaten dotsau guk zererako, pantanorako bidia dauena Azatzara bidia dauena. Hori zan Kamiño Barri. Beti-beti Otalazelaira edo hor beste basarri bat euen eta Agarreko zelaira edo, beti-beti, amamakin beti kanpora. Kalien gutxi.
-Bide barrixa esaten otsien?
-Bai, bide berria esaten otsien, ez dakit noiz indda egongo zan. Ez, nik uste dot aurretik indda egongo zala. Gerra aurretik indda egongo zala. Bai, ze neuk esan eitten dot, ze juaten giñan umetan gu-ta. Bide Barrixa bai. Hortitxik gora beti amamakin. Klaro, amak nahikua bihaleku euken etxian. Gu xei anai-arreba, bi anai euken etxien gaiñetik. Bueno!

5.55. "Txindurri" abeslaria

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-031/016
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:31:08. **Bukatu**: 00:34:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: "Txindurri" izeneko abeslari ezagun bat egon zen Aretxabaletan, indar handiko ahotsa zuena. Meza kantatzen zuenean jende andana etortzen zen entzutera. Abesten ziharduela hil zen. Baserritar arrunta, kuadrilla zalea zen "Txindurri".

Transkripzioa
- (Loba): nik anaieri entzunda dauket, zela ‘Txinddurri’ eta izan ziren ba? ‘Txinddurri’ akordetan zara?, kantantie ta…
- Bai.
- (Loba): horri zenbat anaia-arreba hil jakon, edo bueno, jaixo aurretik kontaten daue zenbat aborto euki zittuen. Ez dakotzu entzunde?
- ‘Txinddurri’ hemengua gogorra zuan Atxabaltan; halako eztarrixa, ondiok be fango nitzake biher den moduan bere kantuak entzuteagatik. Elizan danak izten zittuan hola, eskuak helduta. Lagun haundixak eukan Atxabaltan be, honeik Garzia, Garzia anai bixak, Alejandro eta bestie ta Romualdonak, eta dezentetxua kuadrillia. Ta Andra Marixetan etorten zan sarri, mekauen, kantuan ein bi´zanian hartzen zeban pañueluok, baiña flamenko jantzitta ibiltten zan, igunduko zera, lazuakin-tte, mutillak, kanturriaitten ekitten otsan aguro eta Ave Maria baten kantau auen Taberna Barri aurre-aurrian; Santa Agedatik be entzunda ha lekarixua! Eta senzillamente kantetan auan […] eta gero kantuen euela hil izan, derrepente hil zan.
- Kantuen euela?
- Kantuan, hori egongo da eskribiuta. Holako eztarri onik Europan beste bat, bi ez, akaso bat deskuidauta. Eta Atxabaltan Andra Marixetan etorten

zanien eliziok eta bere kantua entzuten, mezetan kantuen egoten zan, eta Ave Maria kantetan auen […] eta Salbia be bai, bi kantu, kantetako Atxabaltan koru ona egoten zan, baiña hari brillo emutekorik ez. Atxabaltan korua bakien itxi. Orduko urtietan.
- Eta bera bertakua zan?
- Bertakua.
- (Loba): Mutikotan ez zan gaiñera pastore-ta ibilli? Kurtze Barrittik, ezta?
- Bai, oso baserrittarra dok, normala, eta haren aitta ta beste arreba bat be urte askuen egon zuan Kukun aurrekaldien bizi zuan. Ha zan elementua, Atxabaleta danakin, bera be halakotxia zan, harek euken kategorixan pixka bat hola […], baiña bera zala eta haintxe gustora. Lehengo […] abaria moduen.
- (Loba): kuadrillan?
- Bai, kuadrillan.
- (Loba): ha munduan zihar ibilli zan kantuan, operan.
- ‘Txinddurri’ esaten xatzuen?
- (Loba): ‘Txinddurri’ gaitzizena.
- Bai, bai.
- (Loba): danak eukien, anai-arreba danak holako… entzunda daukat nik amari, ha behintzet ‘Txinddurri’.

5.56. "Porrusaldaka" eta "kakatorreka" jolasak

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-033/010
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:23:00. **Bukatu**: 00:25:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Auzoko eskolan "porrusaldaka", "kakatorreka" eta "kakapoteka" jolasten zuten. "Kakatorreka" jolasaren nondik noarakoak azaltzen dizkigu Xabierrek.

Transkripzioa
- Aittatu dozu len auzuen jolasien auzotarrekin hau eta bestia. Gustauko xaten jakittia auzuan ze jolas egitten zeuen eta gero eskolan jolasok aldatu egiten ziren edo.
- Auzuen eitten gauen, bueno, bat zan egualdi txarra eitten euenien “porrusaldaka”. Baiña enaz akordetan oso zela zan exaktamente jokue. Ni akordetan naz eskolien bebarruen zala leku bat gero auzoko juntan eta hantxe eitten zien, eta albo bixetan euzen hola bi banku, egurrezko bankuek hola orma kontran albo bixetan. Eta akordetan naz gu umetxuek hanka bat banku gaiñien ifiñi eta bestie lurrian zala eta bestekaldekuekin eztakitt ze gauza eitten gauen. Holako joku raro bat zan. Porrusaldaka deiketan gutsen horri. Baiñe ezin naz akordau zertan zetzan jokuoi. Bakarrik hoixe akordetan naz. Hori zan jokutxo bat hola eitten geuena eurixa zanien eta hola kanpora ezin urten eta eztakitzu, batzutan. Gero beste joku bat zan “kakatorreka” deiketan guntsena.
- Kakatorreka?
- Bai. Bat zan kakatorreka eta bestie zan kalepoteka. Eske gu han

basarrittarrok badakitzu, satsartien ibiltzen gintzen ba ta. Kakatorrekakue zan, elixpeien eitten geuen, geuken bi babesleku moruen. Elixpeie zan nehiko luzia eta punta bakoitxien geuken babeslekue. Eta orduan lurra harrizkue zan dana, arloza haundixek euzen lurrien eta geukan jakiñeko leku baten, arloza illera batetik atzerakue zan babesa eta handik aurrerakue ia ba jokuen urteteko. Eta orduen ibiltten gintzen ba batek urten itten euen torre hortatik, torrie deiketan jakon uste dot; urten, orduen haren bille bestekaldetik urten bihe euen beste batek. Eta orduen batek tentau eitten auen bestie eta leku batetik bestera pasa eta hola ta. Zure helburue zan ahal bazauen zeu bestiek harrapau barik zeu bestien torrera sartzia. Baiñe zu harrapau bihe ziñuen zure bille urten euenak bakarrik, beste iñok ez. Eta aldiz, berak harrapetan baziñuen eruen itten ziñuen bere torrera. Eta zu orduen geratu bihar ziñen bestien torreko arraia zapalketan hankiaz eta esku luzatuta aber zure taldeko norbait etorten zan zeu libretara. Eta alderantziz igual. Orduen hori jokuoi itten zan ba danak alde batera harrapau arte edo gure dana. Eta gero zu sartzen baziñen bestien torrien liberau eitten zittuen bestiek. Edo ikutu eitten bazutsen azkenengo euenei heldute.
- Orduak holaxe, ezta?
- Bu!, ba errekreo guztie igual, hasi horrekin da. Hori zan joku bat.

5.57. Kakapoteka jolasean

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-033/011
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:25:52. **Bukatu**: 00:28:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Kakapote jolasa azaltzen digu hemen.

Transkripzioa
- Eta kakapoteka?
- Kakapoteka zan puxka bat diferentie. Bueno, hori zan han eskola eta elixa aurrien euen holako lautaratxo bat dau eta adokiñau, errekarrixen moruen zien baiñe adokiñau moruen euen dana. Da euan oso, bere garaixan txukun einddakue, zan hola illeratxuekin ifinitta harrixek eta oso politte. Eta erdixen euan harri bat bestiek baiño haundixaue zana, eta geroztik be makiña bat bider fan izen naz, oiñ uste dot kenduta dagola ia dana. Harrixak ikusten, behin baiño gehixotan komentau izen dou: han harrixen ifintzen zan pote bat, pipar potia edo holako... Eta pipar pote hori zozketatu eitten zan ume guztien artian edo jolasien eittia gure euenen artian zeiñek ein bihe euen harri hortatik hasitte, gero gorde eitten zien guztiak topetan. Eta gero topau eta bakotxa salatu ein biha zan potiaz: “pla-pla-pla! eztakit nor, pla-pla-pla badakit nor”. Bueno, orduen lelengo ze eitten zan ba, norbaittek ba, normalien inddar gehixen eukenak hartu potie, harrike bota eta tokau jakonak ha potie billa fan eta ha ekarri eta hiru bider jo bittartien beste danak gorde eitten zien han elixa inguruen eta eskola inguruen eta han inguruetan. Eta ba orduen bera hasi bihar zan topetan, jentie topetan. Gu ibiltten giñen (...) hemendik eta handik eta bata bestia engaiñetan eta hola. Eta baten bat ikusten (...), eztakit nor, han dau. Pan-pan-pan!, igual

ondo asmau eitten euen edo ez euen asmetan. Beste norbait zalakuen izena aldrebes esaten baeuen, barriro danak gorde eitten zien, topauta euzen danak berriro gorde eitten zien. Eta gero euen beste gauza bat eta zan... Klaro bera jentie harrapetan faten zan, jentie topetan faten zan, da salatuaz, eta harek ia urten ein bihe euen bistara, baiñe norbaitek konsegiduten baeuen ha bille ebillen bittartien beste leku batetik urten eta potie ostikoka jotie, barriro danak librau eitten zien eta barriro danak gorde eitten zien. Klaro, euken problema bat, billa ebillena ibiltten zan normalien harrittik oso urrin fan barik. Baiña zu faten baziñen eta potie oso urriñ ez bazeuen botaten, bestie etorri eitten zan potie harrapetan auen eta zeu salatzen ziñuen. Ze ondio gordeteko lekurik etzeukazun, ez. Oso politte zan jokue. Eta hortan be askotan ibiltten giñan. Horrek bi jokuek zien hola igual gehixen eitten gittuenak.

5.58. Txirikiletan ere jolasten zuten

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-033/012
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 00:28:30. **Bukatu**: 00:32:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Txirikiletan ere jolasten zuten. Azaro aldean, Gabonak aurretik bakarrik egiten omen zen jolas hau. Jolasaren zehaztasunak ematen ditu.

Transkripzioa
- Gero euen beste joku bat txirikillan, txirikilletan. Txirikilletan itten gauen, hori sasoin baten eitten zan bakarrik. Nik uste izaten zala udazkenien, hor zemendi aldera izeten zan, zemendixe edo hola Gabonak aurretiko garai hortan, oker ez banago. Eta hori izeten zan ba Azatzako elixostien, antziñan dantzalekue deiketan utsen lekue, ba han elixiek atzekaldetik euken holako bi horma, euskarri moduen eindde holako bi horma osagarri, ez. Bai, eta hareik bi horma horreik angulo baten geldiketan zien, eitten auen holako uekotxo bat, ezta. Horri deiketan gutsen, horri be torrie deiketan gutsen. Orduan txirikilletan eitteko eitten zan, eukitten gittuen, mazie deiketan gutsen egur bat, izeten zan ba eztakitt, hirurogei zentimetro edo gutxienez euko auen, segun. Mutiko txikiñauak zienak txikiñauak eta haundixak haundixauak. Etxetik eiñ eta ekarri eitten gauen. Gero txirikillek zien ba holako egur batzuk, punta bixek zorroztute, eitten zien gaiñera...
- Begixa zulaketako...
- Ja, ja. Begixek edo harrapetan auena. Eta eitten zien normalien, eskolan egoten zien, normalien mutikuek izeten zien zertxuenak, hazitxuenak edo apur bat jefe moduen eitten auenak. Orduen bixek buru, talde bakotxeko buru moduen eitten auen, eta egunero-egunero eitten zan, bakotxak taldie elejidu eitten auen. Aukeratu eitten auen euzenen artien taldia. Baiñe taldian txandie zeiñek lelengo aukeratu erabakitteko eitten zan txirikilla bat lurrien ifiñi, beste bat hola kurtzaute gaiñian, eta gero eitten zan arraia bat igual bi metrora edo hiru metrora, arraia bat lurrian; eta maziaz txirikille puntan jo eta bueltaka bota hara eta txirikille hurbilen ixten

auenak ha hasten zan aukeratzen. Eta hark normalian aukeratzen auen ba onena, indar gehixen eukena edo takarradan gehixen eitten auena edo gure dana. Eta orduen hasten zan ekipo batekue, han torre horretan sartzen bat eta hartzen auen mazie, txirikillie hartu eta txirikillie jo eta bota eitten zan ahal danik eta urriñen. Eta beste taldekuek egon biher izeten gauen, edo izeten zien, jersie edo eskuetan hartu eta txirikillie aidien harrapetan. Ha txirikillie faten zan bueltaka aidien, behin baiño gehixaotan akordetan naz ba bekokixen edo begixen edo jota ta holakuek eindde behin baiño gehixotan. Kontue zan ba txirikillie ahal bazan aidien harrapau bihe zala. Aidien harrapau eta gero... Klaro, aidien harrapetan bazauen hurrao harrapetan zalako. Bestela lurrera jausten zanerako ba urrinago faten zan. Orduen ein biher zauen harrapau zauen lekutik txirikillie eskuaz hartu eta ha torre barrure sartzen zauen. Eta torrien euenak eskubidie euken maziaz ahal baauen txirikillia joteko etzein sartu barrure. Bueno, eta orduan horren arabera ba gero puntuek izeten zien. Puntu bat edo bi edo. Kontetan faten zan puntuek. Eta puntuek kontetako sistemie be eztot gogoratzen oso ondo, baiñe nik uste dot izengo zala ba sartzen etzan bakotxien botaten euen taldiek punto bat izengo auen eta gero zuk lortzen bazauen sartzie barruen orduan eitten zan aldatu: beste ekipue sartzen zan torrera eta bestiek faten zien billa. Eta alderantziz ba puntuek kontetan, ez. Ta bueno ba holaxe. Hola ibiltten gintzen.

5.59. Aretxabaletara itzuli zenekoa

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-033/016
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:42:08. **Bukatu**: 00:44:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Zortzi urte zituenetik Aretxabaletako giroa ezin izan zuen ondo ezagutu. Eskoriatzako marianistak ere oso diziplina zorrotzekoak ziren. Bere kaleko kuadrilla ez zuen benetan ezagutu Zaragozatik itzuli zen arte. Aozaratzako lagunekin umetatik izan du harreman ona.

Transkripzioa
- Zuk bastante urte pasatu zittun Atxabaletatik kanpo. Igarketan zeben aldaketarik Zaragozara fanda hillabete batzuk etorri barik egonda?
- Bueno, niri pasau jatena, herrixakin berakin pasau jatena, herrixan bertan denpora gutxi bizi izan nazela. Ni bizi izan naz auzuen, Azatzan. Azatzan bizi izan naz zortzi urte arte jarraixan eten barik, bertatik urten barik. Gero, klaro, urtebete Donostian, gero beste urtebete barriro Azatzan maristetara fan da etorri, bueno. Urtebete. Gero ia horra fanda, baiña karo, hortik ez geuen urteten. Hor disziplina zan benetakue. Gu hamaika urtekin ba nik etxera etorteko baimena eskatu bihar izaten neuen eta urtien itxiko ustien igual xei bider edo zortzi bider etxera etorten. Akordetan naz Andra Maixetan baimena emoten oskuen eguerdixen bazkaitten etorteko eta atsaldien ba ez dakit xeiretarako edo xei terdietarako edo hola barriro komentura fan biher izeten gauen.
- Hori Eskoriatzan bertan?

- Eskoriatzan bertan, bai. Hamaika-hamabi urtekin ia hori ein biher izeten gauen. Eta ni akordetan naz egoten zan, errosaixue egoten zan, eztakit zazpirek ero, errosaixue errezau biher izeten zan afaitten fan aurretik. Eta nik orduen tranpatxo bat eitten nutsen.
- Egunero?
- Ez, ez baimena neukanetan. Baimena neuken egunetan xeiretarako fan biharrien taldiakin elixara sartzeko, errosaixue errezetan nik eitten nauen zazpiretan fan eta korutik bueltan sartzen nintzen, atzetik bueltan, eta gero handik urteten nauen eta sartzen nintzen barrura eta hola. Tranpie eitten nutsien horretan, baiñe oso estriktuek zien horretan. Eta, klaro, nik neure edadeko lagunek ezautu eitten nittuen, agurtu eitten giñen eta juntetan gintzenien ibili alkarrekin, baiña karo, esperientzia gutxi euki nauen, kontakto oso esporadikuak, oso noxien behiñekuek eurakin. Eta gero bueltan etorri nintzenien etxera izen zan benetan neure kuadrillie ezautu neuen. Hori kalekuek. Auzuen bai. Auzoko lagunekin ia harremana ume-umetatik eta oinddio be manteniduten dot, ez, harremana oso ona.

5.60. Garia jotzeko makina ikusteko grina

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-034/001
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Gari-jotzea auzolanean egiten zen. Makina baserriz baserri mugitzen zen. Egileor baserrikoek garia jo zuten, eta hantxe zegoen makina. Bila joan behar zuten, Aretxabaleta kalera; idiekin joan ziren osaba eta. Bera mutikoa zen, eta makina ikusteko irrikan zegoen. Gautu zen, eta makina falta. Bidera irten zen, isilpean. Iturrira bidali zuten ur bila, ilunetan, zigor moduan.

Transkripzioa
-Gari-jotia eitten zan, esan doun moduan, auzolanian, ezta, eta parte zien baserrixetatik bakotxetik bana, persona bana edo etorten zan lagunketan garijotia eitten basarri bakotxera eta gero norbera be fan biher izeten zan bestietara.
-Eta makiñia?
-Makiñie mobiduten zan basarri batetik bestera.
-Basarririk basarri.
-Eta akordetan naz urte hartan hemengo Atxabaletako kaleko Egillior basarrikuek garixa jo auela gure aurretik. Egilleorretik ekarri bihe zan makinia gurera garixa joteko. Zan Ajuria makiñak, hamen Bitorixan eitten zien makiñak. Ta gauza haundixak ez zien /etzien/ harek makiñak baiña fan bihar izeten euen ba, klaro, Atxabaletatik kaletik harek makiñak goraiño jasoteko, ba eztakit, bi ero hiru iri paregaz etorri zien Egilleorrera makiñatan. Eta makiña horregaz gorutze. Ta, klaro, niretako eta nik uste gure edadeko mutiko danendako, ume danendako ba makinie baserrire

etorten zanian hori zan herriko jaixen moduen. Nobedade bat izugarrixe eta ha ikustia makiñie martxan eta, ataraten auen zaratie ta zera ta. Ta orduan ba desietan hori makiñioi noiz etorren. Eta atsaldien fan zien nire osaba bi edo behixek hartu ta beste auzoko besten baten laguntziakin ba irixokin hara. Ta, mekauben, atsaldie pasetan zan eta illunkarie aillegau te ez zien /etzien/ agiri, ez zien /etzien/ agiri eta nik makiñie derrior ikusi biher. Eta ez neuen /eneuen/ ogera fatie gura, akordetan naz. Eta halakon baten aittajaunek esan usten, ala!, berandu da ta uhera. Uhera sartu nintzen baiña ezin lorik eiñ. Halako baten ixil-ixilik inoi ezebe esan barik, jaiki, jantzi erropak, tta-tta-tta urten eta bidian behera aber makiñie topetan, ikusten neben. Eta akordetan naz Otalazelai gaiñien trill ein gauela. Orduantxe ya aldapie gora igoten eta. Klaro, nire osabak han: "Mutikoa!, zer eitten dok hemen!?" "Makinie ikusten etorri naz". Orduko ya gabeko hamarrak edo igual izengo zien eta, klaro, garai hartan gabeko hamarrak zien ya, bueno... Eta bueno, azkenien tiuekin etorri nitzen, tiok hasarren bat ingo ustien baiña bueno. Aillegau nintzen etxera eta ordureko ez dakit ba tia edo aiitajaun-amandria edo baten bat konturetu zan falta nintzela. Klaro, sustau zien eta larrittute. Eta, klaro, aittajaune-amandriek euzen hasarre. Etorri nintzen: "Ze iñ dok mutikuorrek, nora fan haz?" "Makinie ikustie gure neuen eta fan naz topetan, eta eztakit zer, badakit zer" "Ibiltteko gogue daukek?", aittajaunek. Hartu marmitta haundi bat eta Beheko Zelai [esaten jakon] lekuen euan itturri bat, metal-ure eukena gaiñera. "Fan behera, ekarri marmitte bete ur". Fan nintzen illunetan, fan eta marmittoi bete, ekarri, hartu marmittie, braaau! bota ta: "benga beste buelta bat!". "Aittajaune, baiña zenbat...? eta "Zazpi buelta ein bihittuk!" (Barreak). Bigarren bueltie...., hirugarrenien edo parkatu ein usten.
-Hiru buelta egin bihar izan ziñun?
-Bai, bi edo hiru erain usten. Klaro, euen oso larrittute, eurek be larrittu eingo zien, seguru. Umie, ni orduen izango nintzen ba, zortzi urte baiño gutxiao eukiko nittuan.

5.61. Umetako ibilerak

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-034/012
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:16:50. **Bukatu**: 00:17:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
  Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Umetako ibilerak. Karramarroak eta txoriak harrapatzen ibiltzen ziren. Ezkailuak. Gaztainak. Kaletik zetozenei sustoak ematen ibiltzen ziren.

Transkripzioa
- Ba txori ikesten eta. Zerak harrapetan, ezkailluek harrapetan, anborraiñek harrapetan, kangrejotan, gero baten baten baserrira fan...
- Kangrejuek eta anborraiñak eozenian.
- Bai, bai, orduen anborraiñak-eta egoten zien. Hemen Urkuluko errekan eta anborrain dezente egoten zan. Olatzan gehixao egoten zan kangrejue ta. Berutze ya sarbuek eta ezkailluek-eta egoten zien. Gaztaiñak eta,

gaztaiñak jan eta, holaxe ibiltten gitzen. Juntau, jolasien ibili; gero kaletik etorten zienei sustuek emuten kamiño baztarretik. Holaxe. Umekerixak.

5.62. Mutikoen gerra jolasak

- **Hizlaria(k)**: Lasagabaster Billar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-035/006
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:15:45. **Bukatu**: 00:17:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Gerra pasatu eta gero, mutilak "gerraka" jolasen hasi ziren, batak besteari min egin arte batzuetan. Hainbat jolasen inguruko azalpenak.

Transkripzioa
-Eta gerra denporan, gerria pasau zanien, mutikuek hartzen auen zera… makillak, holako makilla haundixak, eta gerra joka, gerran itten auen, mutikuek in biher, e?
- Burrukan?
- Bai, nire anaie ta, bueno! Eta horreaz, akordetan naz nire anaiak in ebena, nire hurringokue, ibili ziren holan, gerran ibili ziren ta klaro, gure barik, beste batek harrixa jaurti auen itxuria, ta arpegixen, ta arpegixe haundittute, ta ene!, nik beitu anaiari hola; ta ha zan begie, hola arpegixe haundi-haundi egindda dana ta… mutikokerixak! Pote-poteka be bastante itten gauen e? Pote-poteka. Hori Oñatin ez dakit itten zan pote-poteka, potiekin.
- Neuk ez dot ezagutu joku hori, baiña kontau dostai hango…
- Eta Azatzako elixa aurrekaldien euzen lehen, oin arreglau in daue, ointxe bi urte edo hiru-edo, dana arreglau in auen plazuelia, Azatzako elixa aurrien. Baiña han euen harri bat holakue, eta ha ikusten gauenien esaten gauen: “hementxe itten gauen pote-poteka!”
- Jabierrek kontau nostan atzo.
- Kontau in otsun hori? Pote-poteka? Jabier han egoten zan askotan.
- Harek esan eben kaka-poteka.
- Ni pote-poteka.
- (…) eta kaka-torreka.
- Kaka-torreka bai, baiña kaka-poteka ez, pote-poteka esaten gauen guk.
- (…) Potia dan-dan-dan jo eta…
- Bai, eta gero gorde ta gero harrapetan eban potiori barriro bueltan, bera izan biher, pote-poteka ta. Holako jokuak asko.

5.63. "Mantxua", Pilarren aitajaun tratantea

- **Hizlaria(k)**: Azkarretazabal Bengoa, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-041/022
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:48:45. **Bukatu**: 00:50:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Garai hartan kale-baserri asko zeuden Aretxabaletan. Taberna bat zegoen, bere senarraren familiarena. Aitajauna, Mantxua ezizenez eta izatez, tratantea zen. Araban erositako produktuak ekartzen zituzten mandoan, mugan arielak ordainduta. Mandoei ferrak atzekoz aurrera jartzen zieten, mikeleteak engainatzeko.

Transkripzioa
-Hemen lehenao danak baserrixak?
-Kale-basarrixak asko egon zien.
-Eta tabernak eta ze zeuazen, baserrixen azpixan be bai?
-Tabernia bat behien, Kalebarrenien, Kalebarrena deiketan guntson. Han auken nire gizonen aittak eta. Aittajauna izan zan un eso. Zelan zan? Karro bategaz ibiltten zan, tratante bat. Hemendik Bittorixara joaten zan. Pentsaizu. Manduakin. Eta orduan pagau ein biha zauen handik.
Semea: Arbitrios.
-Bergara, horra faten bazara, Bittoixara.
Semea: Arabako produkto batzuk hona ekarri ezkero, zuk Arbitriosen pagau ein bihar zauen honenbesteko bat.
-Pagau ein bihar. Eta harek, oso argixa zan, eta harek bakitzu ze eiñ auen? Klaro, bere atzien ibiltten zien honek mikeletiak eta. Mikeletie eztakitzu zer dan?
-Ez.
-Ba oiñ ertzaiña.
Semea: Ertzaiñan ordez egoten zien fronteretan, Gipuzkoa, Bizkaia, hori, mikeletiak. Hamen Gipuzkuan mikeletiak.
-"Mantxua joan da gorutz". Mantxua zan deiketan otsiena, mankua zan da honen bisabuelua. Eta harek perrak ifintten otsen horri manduai bestekaldera. Da ba a ez. "Ha gorutz joan da" eta bestia berutze etorri.

6. Aisia

6.1. Inguruko jaiak; soinujoleak

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/018
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:26:38. **Bukatu**: 00:28:28
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
  Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Garagartzako jaiak, San Migelak. Inguruko beste paraje batzuetan ere jaieguna izaten zen: Apotzagan, esaterako. "Agarretxo" soinujolea. Gerra aurretik, dantzari asko, baina soinujole gutxi. Abadeentzat soinua, "infernuko auspua".

Transkripzioa
- Garagartzan San Migelak izeten die, ta Bolibarren be bai.

- Apotzan be bai.
- Ta Apotzan be bai.
- Bai, bai.
- Ta Bolibarren... "Agarretxo" zan eibartarra, baiña bergararra zan. Bai. "Agarretxo" zan, ba, ["Ametza"] moduen izengo zan ha etxien izena, "Agarretxo" esaten otsien. Soiñujotzaille edarra zan, e!
- Orduen sasoien soiñujoille gutxiao zan, e!
- Ta edarra. Ta [Murugaiñen] ni kriauaz [...] idie ebaitzen [...] igetaixaz [...].
- Garagartzara bidien.
- Ta Garagartzan jo euen trikiti bat...! Mekauen! Ta tiak: "Ze soiñujotzaille dok hori?", ta "Hori Agarretxo", banakixen nik zein zan, "Agarretxo da hori". Ta "Nungue?", ta "Eibartarra", orduen eibartarra zalakotan genguazen. Ta "Ño! Ondo joten jok!", eta "Bai". Bolibarren baiño gehixao ainddu otsien, orduen milla erriel, milla erriel.
- "Doscientas cincuenta pesetas".
- Bai, berrogeta hamar, berrogeta hamar duro. Garagartzarrak pagau ta...
- Gerra aurretik, e! Gerra aurretik!
- Gerra aurretik, nik hamabost urte neukela.
- Bai? Ba, diru dexente, e?
- Bai, diru asko!
- Diru asko!
- Gaurko milloi bat baiño gehixau!
- Gehixau! Gehixau! Bi be bai!
- Nik hori dana nekixen, zenbat pagau otsien ta dana nekixen.
- Orduan, eske soiñujoilliak-eta gutxiao zan. Orduen dantzarixek asko, ta soiñujoille gutxi. Bai. Orduen dantzan... dantzie zan... [...], e! Gaztiendako dantzie. Onbre!
- Infernuko zera... hauspue.
- Bai, infernuko hauspue, [...] infernuko hauspue. Lehen abadiek infernuko hauspue... akordeoiai edo filarmonikiei "infernuko hauspue" deiketan otsien.

6.2. Abadeentzat dantza egitea, bekatua

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-001/019
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:28:28. **Bukatu**: 00:30:58
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Zigarrolan, Angiozarko itsua soinujolea izaten zen. Erromeria izugarria. Hurrengo igandean, abadeak sermoi beldurgarria pulpitutik. Abadeentzat dantza egitea bekatua zen. Erromeria ezagunak inguruan.

Transkripzioa
- Zigarrolan, ni soldautzatik etorritte, hurrengo urtien bertan, nik hogeta bost urte neuken, ta "Angiozarko Itsue" --entzuerie zuk eukiko dozu

behintzet, Apotzan asko egonda dau...
- [Oin] Eibarren bizi da...
- ... ta hogeta bat urte euken. Ta ha euen Zigarrolan. Jo, zertzuk jo zittuen harek?
- Haren moduko soiñujoillerik orduen egon be ez euen, e!
- Hak jo zittuen trikitixek eta [...]! Hango lekeixue, saltue...! Aramaixoarrak, atxabaltarrak, eskoitzarrak... buo, alde [guztikuk] bertan [pillatuta]. Orduen ez euen etxeik eta ezebe; eleixatxo bat eta beste...han baserritxo batzuk eta... danak Zigarrolan. Jo! Zer zan ha? Ha zan...! Hurrengo domekan mezan pulpitto zaratie. Orduen pulpittue zan, pulpittue, badakitzu?
- Bai, bai.
- Bai, handik eitten euen zeroi, sermoioi.
- Sermoioi abadiek. Bai. Ha serixue izango zan, e?
- Bueno! [...] pulpitto zaratie! Danak ikubillekin pulpittuei jota, infernuko... zera, infernue egon zala Garagartzan ta. Edo zerien...
- Zigarrolan.
- Zigarrolan. Infernue izen zala ta. Infernue. Ha hobeto jauan, ondo alegre jentie, saltoka.
- Onbre!
- [Librien] hak joten zittuen trikitixak...!
- Bai, haren moduko... baiña... hak urten auen... Hak beste soiñujoille gutxi [...], e! Bat! [...] zan...
- Baiña orduen pekatue ugeri egoten zan, e?
- Dana pekatu!
- Ta dantzan eitten bazauen be konfesau ein bihar ta...
- Bai, konfesau; ta erretiro txarra ta... Gaurko erretiro txarra...
- Oingo konturik ez euen orduen.
- Erretiro txarra.
- Orduen dantzie zan... Gaztiendako dantzie zan orduen!
- Bai, ba, dantzan...
- Joe! Dantzie, mekauen! Erromerixie [edo] fiestak auzuetan; batien, Otolazelain, bestien Koruetan ta...
- Bai, Otolazelai, Korueta, Untzille, Apotza... Bolibarren ez. Bolibarren...
- Bolibarren hametik... hamendik gu ez...
- Ba, Apotzara gehixau sartzen zan ta...
- Apotza hurrao...
- Untzillara be bai. Hurreko jaixa Untzilla zan. Ta hor ta gero San Adrixen, San Kristobal, Atxorrotz... josus...!
- Atxorrotzera...
- ... danok zainddute! Urkiola! Urkiola!
- Urkiola ta...
- Jo!
- Orduen dana erromerixie zan. Erromerixia. Gaztiendako ez [auan] halakoik! Orduen, puf!, erromerixie ta dantzie? Pua!
- Jode, Urkiola ta... Egun guztien Urkiolara, hartu maletie ta. Ha zan izetie!

6.3. Erromeria kontuak; "atenborie" jotzen zuen

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-002/001
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
  Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Panderoa, "atanborie" euskaraz. Kanta bat gai honen inguruan. Familian trikitia jotzen dutenak badaude. Jazzbana. Erromerietan jotzen zuen "atanborie".

Transkripzioa
- ... Panderue, ba... Panderue euskeraz atanborie da, e!
- Zelan da?
- "Atanborie".
- "Atanborie"? Hori sekulan entzun barik nauken nik.
- Bai, kantue hola da:
"Atanboratxo berria
Bilbotikan ekarria.
Bost errial pagatu ta
erdia urre gorria".
Hola kantetan auen.
- Bai, bai. Lehen "atanborie" [...].
- Bai, bai. Nik zeai, gure neskatillatxuei... Zera, Dorleta [...]?
- Bai, bai.
- Haren alaba batak trikitixa joten dau.
- Bai, ikusitta dauket, bai, bai.
- Ta bestiek zera. Nik atanborie esaten dotset hari, ta, ba, eurek neri atanborie; bestela panderue esaten daue.
- Bai, edarto joten dabe, gaiñera.
- Bai, bastante ondo, e!
- Ondo, ondo joten daue. Bai, ondo.
- Ondion zenbat urte duakie, ba? Ondion oso gaztetxuek die!
- Ba, hamar urte ta zortzi.
- Ba, beitu...
- Bai, bai, joe...
- Horrek hamalau urte duakienerako ya primeran.
- Bai, klaro! Ondion, ba, klaro, inddarrra ta falta jatie, ez dakitzu? [Ha domiñau ein biher da]. Baiñe hareik ya ikesitta daz... Bai, bueno!
- Ta zuk zeiñekin joten [zaben], ba, atanborie?
- Honek hamen dauzen soiñu-jotzaille danakin!
- Nik, e... Ba! Ni ez naz ibili erromerixetan, e! Erromerixetan-eta ez.
- Ez?
- Ez. Orduen ez zan ibiltten, gaiñera, erromerixetan ta...
- Orduen jazzbana egoten zan asko.
- Baterixie.
- Jazzbana?
- Baterixie... Jazzbana.
- Baiñe... Ba! Ni [gero] batekin-ta bai. Hor, San Inazio [eguna] ta zerien, ta bestien batekin-ta: "Hi, jo eik zera", ta... Hoixe, batekin eta bestiekin, ta piezan bat edo beste, ta , ba, hoixe. Baiña, hola, oinguen moduen, hola, nik zera... zerakin ni ez naz, grupuekin ta... Ez. Lehenao ez zan... Baiñe atanborie jo? Aretxabaletan, hola, soiñujoilleren bat-edo etorri ta [...]. Ta danak esaten [osten]: "Hi [...], hik jo eik". Asko gustaten jatie. Nik beste batzuk baiño fuertiao joten dot. Fuertiao ta... diiiiooo! Nire zera asko gustetan jatie, e! Jente, hola, zerai ta: "Hire moduko gatz [gehixaokin] iñok [...]".
- Bai, fuerte joten dau. "Lo único", atzamarrak be onak biher, e! Bestela hor zera...

6.4. Panderoa edo "atanborie" jotzearen inguruko pasadizoak

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Heriz, Daniel; Gaztañaga Heriz, Patxi

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-002/002
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:02:30. **Bukatu**: 00:03:12
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Eskuak minduta "atanborie" jo eta gero. "Atanborie" zaharra zen, "ez zen gozatsua".

Transkripzioa
- Ta bixkorrak be biherko die atzamarrak, ezta?
- Bee...
- Azala soltau edo...
- Bai, hori... Ni baten Mondrauen ibili nitzenien hau odolduta [erun] nauen. Larri ibili nitzuan, akabau [ezinke]! Asko jo biher da, ta! Han, zerrajeran urten ta Arrasateraiño martxie joten, ta gero barriro han dantzarixekin ta... Joe! Gero, panderue, osea, atanborie txarra zuan. Narru... zaharra zan; zaharra ta zera, gozatsue ez zan. Oin, oin narrue-ta oin oso ona daukie. Klaro, barrixek daz ta! Ta holaxe.

6.5. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/015
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:39:20. **Bukatu**: 00:42:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Jokoak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Umetako jolasak. Auzokoak ibiltzen ziren karta-jokoan. Mojetara joaten zirenean, sokasaltoan egiten zuten.

Transkripzioa
- Jolasak esan dozu ta, zetan jolas itten zabien, edo?
- Zetan jolas itten gauen?
- Bai.
- "Potezarka" ta.
- Zela da hori?
- Potia itxi bai, eta bat “potezar” egoten zan eta bestiek gorde. Ta hak kontauta zittuen, ta bai, ba, haik topetan. Ta gero, ba, haik topetan [ez...] itten baeuen, atzera berak fan biher atzera kontetan.
- Ze itten baeuen?
- Bai, ba, kontau ein biher, ba, bestiok gorde itten zien atzera ta.
- Baiña noiz kontau bihar izaten zan berriz?
- Ba, ha potia botaten baeuen, ba, atzera bera atzera be “potezar”, potiori [zaintzen], ta bestiok gorde itten zien ta, holaxen!
- Ta potia bota, gordetakuak itten auen?

- Bai, ba, bestioi “potezar” […], ha zain […] atzera be bera bestiok topetan. Halaxen! Oingo zerik ez auen orduen, enee... Ta gero “Onbideka”. Bata gorde-gordeka, gorde, eta bestiak topetan, ta batzuk gehixao diela […]... ba, holaxe.
- Zela esan dozu hori?
- “Onbideka” ta esaten gotsen. Bata [torrien] geldiketan zan eta, ba, bestiak ebaketan. Ta harek ebaketan otsena, ba, hara fan bihar. Ta gero ha lotuta, ebatuta euela, katiatuta [etortzen] zan ta bestiak, libre ebitzenak, hari “onbide” ein ta libreten bauen, ba, libre! Ta atzera be heltzen fan biher bestiak eta… Holaxen. Oingo antzeko jolasik ez zan itten orduan. Orduen holaxe.
- Zeuek asmautakuak.
- Bai, hantxe... Gaiñera, konforme ibiltten gitzen, e! Lanik ez [euenien, han] jolas itteko, kuadrillan... Domeketan […] jokuen ta. Orduen auzuen auzokuak ibiltten gitzen jokuan, bai.
- Jokuan zer, kartetan?
- Bai, kartetan.
- Ze jokutan?
- Hogeta hamaikan ta zazpi t´erdixan ta… bai.
- Neskatilla ta mutiko nahasi?
- Nahasi, nahasi. Nahasi be, auzuan... 9 auzoko auzua zan guria eta hemen gehitxuao ta, ba, auzuan auzokuak. Orduen, mezetara fan goxien ta, ba, gero zertu, ta gero atsaldien errosarixua emuten euen abadiek lauretan edo, ta, ba, errosarixotara faten gitzen, ta gero jolasien illundu arte.
- Beste jolasen bat goguan dakotzu ala, hola…?
- Ez.
- Oin halakorik ezta itten ta.
- Ez, holakorik…
- Soka-saltuan ta eingo zan, ba.
- Bai, soka-saltoka bai! Bai, oin [harein] monjetara faten gitzenian, soka-saltoka kamiñuan itten geben, ta ez zan pasetan ez automobil bat eta iñobez. 12xetan urten ta bazkaitten gauen ta gero ordu bixak arte jolasian. Ezta automobil bat be ez. 12xetan trenbidetik pasetan zan trena, ta akabo, bai.

6.6. Esneduna joaten zitzaien tabernara

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/004
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:05:30. **Bukatu**: 00:06:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Esneduna joaten zitzaien. Tabernako jabearen pasadizoa: esneari gatza bota eta soldaduei eman zien.

Transkripzioa
- Gero esnedune be etorten zan eta esnie hartu biher gotsen ta; gero

uezabak berak eziñ auen, esnie egosten ipiñi euen, eta ha be basarrikue zan bera, eta ein utsen gatza esniei. Kostunbrie hartuta hak be, gatza lehenau basarrixen geuk be botaten gotsen, eta gero nik eruen neutsien kafesnie soldauei, eta gero: "leche con sal, leche con sal". Batzuk edan auen, baiña beste batzuk hartu be ez auen eiñ. Harentzako rarue zan.
- Makiña bat pasadizo, ez?
- Makiña bat pasadizo han be, denpora gutxixan, makiña bat pasadizo egon zan, asko.

6.7. Gaztetako ibilerak: dantzaldiak

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-008/015
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:27:20. **Bukatu**: 00:29:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena**: Gaztetako ibilerak. Ez ziren sekula aspertzen. "Ilusiño bakarra zan, noiz jaieguna ailegako ete zan". Dantzarako eta kanturako zaletasuna.

Transkripzioa
-Oin baiño gehixao dibertiduten gintzen; asko be bai! Oingo gaztiek baiño... Guk ez genkixen esaten, "Oi! Aburridute nau!". Guk ez genkixen hori berbioi zer zan be aburridute egotia. Edo lana edo dantzie edo [gure dana]. Ilusiño bakarra zan noix jaiegune aillegauko ete zan. Klaro, jaiegunien bajetan gintzen domeketan kalera, eta benga dantzan batekin eta bestiekin eta bestiekin. Ene! Mutillok nun harrapauko. Eukitten gittuen [...], baiña mutillek sobra eukitten gittuen dantzan eitteko. Bai, bai, bai. Geuri be dantzan asko gustetan jakun, e. Asko gustetan jaten. Bai kantuen eta bai dantzie, eta horrek asko gustetan jaten, asko. Kantuen ba, neure modure, nik ez dot esaten ondo kantetan neuela, baiña gustau asko, gustau asko. Baneuken aiztie oso ondo kantetan euena, oso ondo kantetan euena. Honen tio batekin ezkondute nire aizta bat. Bai, berak be oso ondo kantetan euen gizonak, eta nire aiztiek be bai, bixek. Eta nik ba gustau asko eitten jaten. Ez dot esaten haren moruen kantetan neuela, ez. Harek konbentuen ikesitta, fraille egondakue zan eta, klaro. Hari be neskak gustetan jakon, eta gero frailletzai itxi ein utsen. Baiña balixo euen, e, asko balixo euen gizona zan, asko balixo euena. Nahiz erderaz eta nahiz euskeraz-eta, danera.

6.8. Perratzaileen lana; Angiozarko perratzailea

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/025
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:54:00. **Bukatu**: 00:55:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » San Juan
  Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena**: Perratzaileen lanaren inguruko azalpenak. Angiozarko perratzaileak, dultzaina jotzen zuen eta Arrasatera ere joaten zen San Juanetan jaiak alaitzera.

Transkripzioa
- Perratziak sekreturen bat dauka?
- M: Jakin in bihar dozu ultzie nundik sartu biher jakon.
- Perratzaile batetik bestera diferentzia euan?
- M: Bat euan eta haraxe fan bihar.
- Banakatxuei pasauko jakuen deskuiduak. Pasetan jakuen.
- M: Angiozarren bazan perratzaillie, eta dultzaiñerue zan gaiñera, dultzaiñie joten ibiltzen zan jaixetan-eta, Joxe Martin.
- Dultzaiñerua?
- Dultzaiñie joten eban Mondrauen San Juanetan-eta.
- M: Orduen ez euen bandaik ekarteik iñundik.
- M: Baiña harek nunbaitten ikesitte euken dultzaiñie joten.
- Orduan perratokixa zentruan?
- Oingo zentro-zentruen. Lehenao horrek inguruok danak solo zien lehenao.
- M: Lehen hemen Atxabaletan kale bat zan bakarrik.
- Oin zentro-zentruan izengo zan, baiña ein zanien ez.

6.9. Inguruko herrietako soinujoleak

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/025
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:30:20. **Bukatu**: 00:32:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Soinujole ezagunak inguruan; gertuko herrietatik etortzen ziren soinujoleak.

Transkripzioa
-Eta hemen inguruan soiñojolerik eta bazeuan?
-Garaiko Simon edo. Ez, holako zerik ez. Soiñu, filarmonika txiki bat baeuken. Felixek ondio euko dau nunbaitten. Baiña ez, ez.
-Ze etortzen zien, kanpotik soiñujoliak?
-Bai. Porejenplo hori Itxuan anaia Julian zenbat urtian etorri zan?
-Uff, bai hori urte askuan. Bizikletan etortzen zan...
-Eta Gelatxo edo, besten bat entzunda daukat nik.
-Julian nik kasik beti.
-Julian asko.
-Bizikletia ekarten jakon. Orduan bizikletia. Neu ekarritta nao bizikletia hari. Atxabaletaraiño etorten zan bizikletan, eta gero ba holako bidietatik etorri bihar izeten zan Arientzara, eta berak fillarmonikie; edo bestan batek eruengo euen fillarmonikia, eta nik bizikletie. Gero eztakit...
-Korueta aldian samurraua eukiko ziñuen ba?
-Bai, zoiez Agarreti bueltan. Oingo moduen...

-Kamiñuan euen.
Kamiñue zeoze baeuen, veintinuevian dago kamiñue eindde ta. Ni veintiunokue, ba zortzi urte. Kamiñue baeuen ordurako. Ni zortzi urte baiño gehitxuao. Bañuetxetik gora etorri bizikletiaz, handi depositoti, [Karaizabaleko?] zubire baeuen sendatxo bat. Handi. Eta Julian...
-Julian urte askuan.
-Bai. Itxua bera be bai. Eta beste bat, beste bat Angiozarkue, han Goiko Tabernakue edo zela zan?
-Nik eztakitt. Itxue ta horretxek anaiok.
-Gelatxo ez.

6.10. Erromeriak; neskatan-mutiletan

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/027
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:34:20. **Bukatu**: 00:36:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Erromerietan dantza egiteko zenbat ordaindu behar izaten zen. Neskatan-mutiletan.

Transkripzioa
-Erromerixia sasoi baten ze izaten zan, plazia edo erosten zeban soinojoliak? Pagau eitten zan zeozer?
-Mutillek lehenao erromeixa zeretan diru bat pagatzen eban.
-Bai, hiru txakur haundi-edo, dirutxo bat pagetan zan.
-Ez dakit zenbat diru zan.
-Hiru txakur haundi edo, erriel bat-edo. Holako huskerixa bat zan. Baiña ordurako bere dirue zan.
-Ze izaten zan, arratsalde guztirako ala dantza bakoitza pagatzen zan?
-Ez, ez, arratsalde guztirako.
-Papeltxo bat ipintzen otsuen eta.
-Egoten zan baten bat zaintzen?
-Bera, ifintaillia, han ibiltten zan beti. Hemen dantzari esp..., hau da dantzari gehixao, ni neu ez nintzen... Gustau bai, ezta?, eitteko desietan baiña kobardia izen dantzan urteteko edo. Noizbaitten bai urtendako ibilittakuak naz bueltaka, baiñe gutxi. Honek dauko gehixao.
-Eta ze izaten zan orduan dantzia eskatzeko ta?
-Ba "mesedez". Kalabazak emuten baziñuzen ba acuérdate. Ostikaran bat igual atzetik, ni hartuta nao.
-A bai?
-Udelara. Udelara fan erremeixara, enda ba gu kuadrillia auzokuak, bueno! Batei emun gontsan kalabazak, ba ezetz. Gero besten batekin ein giñuan dantzan, eta etorri ta ostikaria. Bai, holakuak be pasetan die.

6.11. Herriko pertsonaia ezagunak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/029
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:42:35. **Bukatu**: 00:44:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
  Euskara » Tratamenduak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Euskara » Tratamenduak » Berorika
- **Laburpena**: Herriko pertsonaia ezagunak; botikaria, medikua, abadea... tertulian egoten ziren kalean. Herriko pertsonaia garrantzitsuei berorika egiten zitzaien.

Transkripzioa
- Esan dozunian botikarixuak, medikuak-eta, eitten zeben tertulixaik?
- Eneee! Tertulixia, aurrien euen banku bat ifinitta, eta gero Mondrauen euen botikarixo bategaz ezkonduta; hareik etorten zien Atxabaletara; eta bakitzu zelan etorten zien? Motorrak... Zuek hareik motorrak ez dozue ikusi, baiña orduen zien, oin ez dakit zer, automobillanan moruen, hola zesto bat moduen onduen.
- Sidekarra?
- Bai. Eta hantxe jarritta etorten zan andria, eta gizona zerien, onduan. Eta han zer aurrien, etxe aurrien, banku luze bat euen, eta han danak tertulixan ifintten zien. Baiña ze eitten euen, horrek, e, zelan esaten jakue honei? Honek oin restaurantietan, komedoretan-eta badauz horrek zerretan dienok, kentzen dienok-eta, atien moduen, pribau edo ez pribau, ez dakizu? Holakue ifintten euen, eta eurak han barruen.
- Kalian bertan?
- Bai! Bueno, kalien-kalien ez, azeran, azerie, etxeaurrie, eurena bakarrik zan.
- Orduan tertulixia kalian.
- Bai, bai. Horrek zien herriko jauntxuak.
- Zeintzuk izaten zian? Botikarixua, medikua...
- Alkatia, abadiak-eta, bueno! Abadiak be bai. Horretxek zien herriko jauntxuak, horretxek.
- Eta medikuak-eta tratatzen zien? Abadiak-eta?
- Zerai berori-eta, e. Medikuei be bai. Gure aittak-eta "don", oin ez da ezebe esaten holakoik, baiña orduen horreik zien "don". Eta gure amak esaten auen, Maringo basarrixetara faten zan medikua zala Gatzan auena, eta zaldixan-eta faten zala Mariñera, zaldi gaiñien faten zala medikua. Herriko jauntxuek horretxek izeten zien.

6.12. Andra Mari eguna

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/010
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:14:45. **Bukatu**: 00:16:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Zezenak
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
  Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Andra Mari eguna nola ospatzen zen azaltzen du; gonbidautzak. Arrasateko musika banda etortzen zen Aretxabaletara; bertatik jende asko etortzen zen jaietara. Pasakalea, zezenak... egoten ziren.

Transkripzioa
-Jaixekin jarraittuta, Andra Marixak be espezial zelebratzen zian, ez?
-Bai. Ixa oiñ baiño polittauak, konbidauak eta. Gure amen anaiak eta Bilbon bizi zien bai, e, ta haik konbidautara ta etortzen zien, eta guretzako izeten zan, eneee!, konbidauakin etxien eta. Eta hango zerak, bazkaixe izeten zan zerik elegantiena oillaskua. Etxeko oillaskuak amak hiltten auen eta haretxek jaten eta. Orduko Andra Maixak-eta herri guztia. Mondrauetik autobus espezialak etorten zien Mondraueko jentiakin Andramaixetan, etorten zalako Mondrauko bandia. Ta prosoziñua eitten zan mezian aurretik, meza nausixan aurretik musika bandiaz. Eta hori oinddiokan urte askoe ez dala-raiño arte egon da. Mondraueko bandia.
-Eta gero zeoze gehixao eitten zan?
-Ez, ez. Gero zezena egoten zan, eta bazkalostien be Mondraueko bandiak joten auen, bazkalostian edo atsaldian, e, pasakallia. Goixien pasakallia joten auen meza aurretik, eta gero ba bostetan edo xeiretan pasakallia. Eta herri guztiko gaztiok atzetik danok saltuen. Fiestak haretxek zien polittak. Oin ixa jente guztiak kanpora urteten dau, baiña. Bai, bai, oso fiesta polittak eitten zien, e!

6.13. Aratusteak Aretxabaletan

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/012
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:16:15. **Bukatu**: 00:17:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- **Laburpena**: Aratusteak nola ospatzen zituzten kontatzen du; "kukumarru" janzten ziren, "txino dantzia" egiten zen.

Transkripzioa
-Eta Aratustietan eitten zenduen zeozer?
-Kukumarruak, kukumarruak esaten jakuen. Holan disfrazauta ta zera ta. Hau, zelan da hori dantzioi...
-Txino-dantzia?
-Txino-dantzia ta. Bai, bai, itten zan, e. Gizonak-eta jantzitta zerien, eta txino-dantzia ta eitten.
-Eta ze izeten zan, zeoze jazten zenduen gaiñetik, ahal zana edo zer?
-Nik pentsatzen dot zakuekin edo joaten ziela.
-Zu, adibidez, disfrazatzen ziñan?
-Ez, ez, ez. Orduen eitten zan horretxek dantak eitten auenak, e,

Karnabaletan.
-Eta bestiak kalian jendia?
-Bai, kalera urtenda eurai begira.
-Baiña ez ziñaten mozorratzen edo?
-Ez. Hori geruao etorri da, e. Geruao etorri da hori.

6.14. Andra Mari eguna Aretxabaletan

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/013
- **Iraupena**: 0:00:20. **Hasi**: 00:17:05. **Bukatu**: 00:17:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
  Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Arrasateko musika banda Andra Mari egunean Aretxabaletara etortzen zen. Autobus bereziak egoten ziren Arrasatetik jendea ekartzeko; eskoriatzarrak, oinez etortzen ziren.

Transkripzioa
-Eta esaten dozunian bandiak eta musikia jo eta, orduan anbiente haundixa egongo zan.
-Haundixa. Pentsaizu, autobusa..., orduan Vergaresia zan. Geratu barik jentia ekarten. Eskoriatzakuak oiñez etorten zien. Eta Eskoriatzara be danok San Pedruetan.

6.15. Taberna giroa; Aberri Eguna

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/014
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:17:25. **Bukatu**: 00:18:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa
  Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
  Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena**: Taberna giroa nolakoa izaten zen; lehenago neskak ez ziren tabernetan sartzen, ez zegoen ongi ikusia. Aberri Egunean, gauza berezi bezala, aitarekin joaten ziren. Beraien etxean Aberri Eguna ospatu egiten zen; gerraostean baina, kalean ezin zitekeen horri buruz lasai hitz egin.

Transkripzioa
-Eta leheneago, klaro, taberna-girua ta be diferentia izango zan, ez? Ya bueno, zeure gazte-denporan gerraostian.
-Orduan neskak-eta tabernara ta ez, oin joaten garen moduan eta ez.

-Mutillekin joan ezkero bai.
-Ba..., ba... Ez dot pentsetan, e, mutillekin eta. Gu joaten gintzen Aberri Egunian, eta orduan Aberri Eguna ezin leikien nonbrau be egin kalian eta, bestela, bueno!, ojo, ojo! Ta aitta, ta gure aitta holan domeketan eta bazkal aurretik eta meza nausi ostian eta txikitotxo batzuk eta holan. Baiña Aberri Egunien Don [...] joaten zan tabernara, akordau erain dostazu hori. Ta jarten gintzen mahi baten, eta gure aittan moruko abertzale holan destakauak zienak eta: "Paulo...", baakixen zeatik joan zan gugaz, aittentzako ta gaiñera gure etxian Aberri Eguna zelebrau itten zan; etxien, e. "Paulo, gaur ze egun da ba?", holan "con segundas", e. Eta gure aittak: "Amen Eguna" esaten auen. Baiña danak entendiduten zien. Eta hoietako baten holan juaten zan batek ointxe hillebete dala edo hil da Mondrauen. Eta hildda gero enterau gintzen, bestela joango gintzen entierrura.
-Orduan jende gitxik zelebratzen zeban Aberri Eguna?
-Bai, etxietan zelebrau bai baiña holan kanpuen eta esan barik, e. Pentsaizu zelako billurra euen.

6.16. Antzinako bizimoduarekiko ikuspegia

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/017
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:21:15. **Bukatu**: 00:21:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Bizimodua nola aldatu den aipatzen du. Lehenago inguruko herrietara oso gutxitan joaten ziren; anaia Gasteizko seminarioan egon zenean ere, urtean behin bakarrik etortzen zen etxera.

Transkripzioa
-Baiña pentsaizu zelan kanbixau dan denporia, gure Julen eta Seminaixuen abade eiñ arte Bittorixako seminaixuan egon zien bai,e, eta urtien behin eitten gauen bisittia, e. Kurso guztien ez zien etorten etxera. Eta urtien behin, San Jose egunian. Ta zan, bua!, juatia hara. Zelan aldatu dien geure denporan honek gauzok!

6.17. Herriko aguazila

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/032
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:54:30. **Bukatu**: 00:56:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
  Lanbideak » Udal langileak

- **Laburpena**: Aguazila, txapel gorriarekin ibiltzen zen. Ardura desberdinak zituen; besteak beste, tabernetara zahagiak eramaten zituen.

Transkripzioa
-Aguazillak eta?
-Bueno, aguazilla ibiltten zan txapel gorrixakin, eta oso laguna zan gure aittakin. Eta haren distintibua zan, ba, bera bakarrik zan holan, e.
-Bakarra?
-Bai, bakarra. Eta zan, txapel gorrixakin ibiltten zan umiak-eta zerian-eta. "Formal, e, bestela aguazilla etorriko da ta!", amak-eta bai, eta hasarre egoten zala umiek eta ikusten dauenian bera sustau eitten diela. Aguazillak konteten otsen gure aittai, ta disgustauta egoten zan. Ume guztiak ikusten auenian, "jolasian badabitz be geratu eitten die danak ni pasau arte. Eta, Ze!, andra guztiok hor sustetan umiok eta", bera ta, hasarre ibiltten zala. Eta harek euken arduria, Bodegoia edo esaten otsien, han kontzejupeien euen holako zer baten, eta han zaragixak ardauakin egoten zien, eta haren arduria zan tabernetara erueteko berak hareik zaragixak. Eta orduko denboratan, gaurko egunian ba esaten da batian kristal fiña bada hobia izeten dala, bestia ez dakit zer. Baiña orduentxe gure aittai esan otsen harek: basuak be segun ze kristal dan, ardaua gozuaua. Orduko denporatan, e. Eta hori ezautu dou ba holan.

6.18. Pilotarako zaletasun handia

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-018/006
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:12:40. **Bukatu**: 00:14:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Pilotalekua nolakoa zen. Pilotarako zaletasun handia ume, gazte zein nagusien artean.

Transkripzioa
- Futbolian plazan eitten zenduen baiña gero pelotara pelotalekuan?
- Bai, pelotalekuan.
-Ta zelakua zan?
- Pelotalekua, ba, zera…
- Haundixa, edo…?
- Bai, eukiko auen sei, zazpi, zortzi… beratzi edo hamar kuadro, bai, alde bat, zera, horma bi bakarrik zien, frontala eta “lateral”, eta laterala heltzen zan trena pasatzen zan lekura, trena pasatzen zan hemetik eta han euen horma txiki bat, bai, eta eukan beratzi-hamar kuadro, beratzi-hamar kuadro izango zien, bai.
- Nehikua, ez?
- Bai, bai, nehikua, bueno. Ba … itten euen batzuk aurreko horman, beste batzuk erdixan eta beste batzuk behian, atzian.
- Orduan konpontzen ziñazien, gaiñera, danok batera jolasteko. Eta ze ibiltzen ziñazien, gaztiak bakarrik? Edo umiak pelotan? Edo jente nausixa be ibiltzen zan?

- Ba, jente nagusixa etorten zan guk alde indda gero, osea, jente nausixa etorten zan, ba, zazpirak inguruan-edo, eta hantxe [joketan auen] eurak be.
- Zeuek bialdu ta...?
- A, bai, bai, ordurako gu... ba! kantsauta [gengozan] .
- Orduan afiziñua zeuan pelotarako?
- Bai, bai, hemen egunero itten zan pelotan. Egunero.

6.19. Futbola Aretxabaletan

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-018/007
- **Iraupena**: 0:04:20. **Hasi**: 00:14:00. **Bukatu**: 00:18:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Futbola
  Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
  Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Club Zaraia edo Club Zaraiamendi (?), Aretxabaletan egon zen lehen futbol taldea. Futbol-zelaia non zegoen 1930 urte inguruan. 1950 inguruan futbol-zelai berria egin zen, baina 1954 urte aldera berriz tokiz aldatu zuten. Aretxabaletako industriak. Berria egin arte, Aretxabaletako futbol taldeak Arrasaten jokatzen zituen partiduak.

Transkripzioa
- Eta ez dakit, futbola esan dozu, gerora futbol talderik-edo egon zan hemen?
- Bai, Zaraiamendi euken izena, Club Zaraiamendi. Club Zaraia, Club Zaraia uste dot zala. Zaraiamendi ez, Zaraia. Ta futbol kanpo bat euan, oin e, hau industrialdea badau ba, han? Hemetik Eskoriatzara goiazela, industrialde bat, ez dakit ze industria dauen han, bueno, bastante industria dauz han. Hortxe euen, han euen futbol kanpua. Akordetan naz, behin bakarrik egonda nenguen, bueno, jolasten bai baiña, partido bat behin, karnabaletan ein zan partido bat, eta ez dakit nik zenbat urte euko nittuen nik orduen, bost urte-edo, lau-bost urte-edo, hor egon nintzan begira, eske nere osaba batek [jokaketan] auen, eta hantxe begira egon nitzan. Danok juan giñan, karnabalen […] ze egun zan ta txistuakin ta […] futbolian ein auen ta, gero harrezkero ez dot gehixau ezebe ikusi han. Ez, ya ha galdu zan, in euen txalet bat in euen, hemen, e... Lezama euen fabrika bat, haren ugezabak bilbotarrak ziran, haren famelixiak in euen zer bat, txalet bat, hantxe.
- Futbol zelaixa zeuan tokixan?
- Bai, txalet bat in euen eta ha txaleta, txaleta, ha bota euen txaleta, oin hemen industrialdea itteko.
- Orduan, futbol zelaixa, bueno, ba...
- Bai, ta beste gero futbol zelaia, gero ez zan egon... hori izango zan ba “el año treinta” edo “veinti ocho-veinti nueve” holakon bat. Gero ez zan egon futbol zelairik.
- Eta noiz arte-edo?
- E... “el año cinquenta”. In zan hor ‘Tubos de Precisión’ dau zera, tailler

bat, fabrika bat, hantxe, haretxen aurrekaldian. Oin, e... lehengo kuartela badakizu nun dauen, lehengo kuartela? Kuartel... hor, e... zer bat, etxe haundi bat da, harrizkua, hor behealdian dauena, ba, hantxe. Oin, e, zera, industria bat dau eta dau, zera, horma bat, gero ermita bat dau han, Santutxo, badakizu nun dauen Santutxo ermitatxo bat? Ba, haraiñotxe heltzen zan futbol kanpua ixa eta hor in zan “el año cinquenta”. Baiña “el año cinquenta y cuatro”, hor euen lehen fabrika bat egondakua, Zerrajerakua, Mondraueko Zerrajerakua, baiña euen “en desuso”, eta “el año cinquenta y dos ó cinquenta y cuatro” edo izengo zan, e, martxan ifiñi auen [barriro be], Eibarko Beistegik eta Union Zerrajerak ein auen soziedade bat ‘Tubos de Precisión’ eta martxan jarri auen. Eta orduan, zera, futbol kanpua, ba, desagertu ein zan. Ez eukan errentia, errentia eukan eztakit, hamar, eta... bost pezeta edo, “una renta simbólica” zan. Bai. Osea, Aretxabaletako UDA zan, zera, Deportivo UDA, [ha] ez zan propietarixua futbol kanpuana. Euken errenta...
- Bai, oseake, terrenuak fabrikianak zian eta orduan...
- Bai, bai, fabrikianak zien ta “una renta simbólica” eukan. Eta, klaro, eurak ekin zienian hori industriori [...], bueno... Ta orduan, e, Aretxabaletak ya ekipua baeukan, eta juaten zan, ba, jokatzen, ba, Mondrauera. Bai.
- Orduan, entrenamentuak eta dana han eitten zittuan?
- Bai, bai, bai, hori beste barrixoi in arte.

6.20. Garaiko aldizkariak

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-018/026
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:56:00. **Bukatu**: 00:57:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa
- **Laburpena**: Etxean hartzen zituzten aldizkariak: El Diario Vasco, Euzkadi...

Transkripzioa
- Esan dozu Jesus Peñak Euzkadi-n eta idazten zebala; zure aittak-eta periodikurik hartzen zeben?
- Bai. Gure etxien bi.
- Bi?
- Bai. Gure etxien bizi zien nire tio bi, gure aitta-ta; baiña etzan egunero hartzen periodikorik. Bat bai. El Diario Vasco uste dot betik ikusi dotela. Eta gero "Euzkadi"-tta noizian behin. Gehixao ez, horretxek periodiko bixok bakarrik. Eta egunero be ez. Bat bai, el Diario Vasco hori egunero, hori bai, zelan nire lehengusuak zela euken fabrikia, hara eruaten zittuan notiziak, eta gauza asko ekarten ebanak periodikuak, ba jakitteko.
- Baiña etxe guztietan etzan hartuko periodikorik.
- Ez, ez. Bai zera.

6.21. Bolalekua Aretxabaletan

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-019/011
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:27:35. **Bukatu**: 00:29:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena**: Bolalekua Aretxabaletan; zaletasun handia zegoen garai batean boletan egiteko. Nola jolasten zuten; posturak, eta abar.

Transkripzioa
-Lehen esan dozu bolalekua be egon zala.
-Bai.
-Eta afiziño haundixa zeuan boletan eitteko?
-Boletan? Domekero; domekero. Domeka illunkaran, akaso seietan ekin eta zortziak-beratziak arte boletan.
-Umiak?
-Ez, nausixak.
-Eta apostia?
-Apostia, bai.
-Eta zuek ikusi eitten zenduen?
-Honbre, bai. Hara faten giñen ikusten, eta "Hiru baietz", eta "Bat ezetz", eta "Baten parra bi ezetz". "Baten parra bi ezetz" esan gura dau bat bota ezkero ez dauela irabazten iñok. Baten parra eta bi ezetz.
-Orduan kanpeonatuak egoten zien, etortzen zan kanpoko jentia boletara?
-Ez, ez, ez, hemekuak, gehixenbat hemenguak izeten zien. Gero Andramaixetan etortzen zien, oin be bai egongo da "Campeonato de bolos", oin be bai egongo da. Orduan be eitten zan Andramaixetan.
-Baiña orduan afiziño haundixa zeuan.
-Bai.
-Poliki-poliki beherakaria etorri zan?
-Ez dakit ba. Oin iñork be ez dau jokatzen.
-Igual egun seiñalauetan bai, baiña bestela?
-Soziedadiak, ez dakit zein soziedadek eitten dauela... Ointxe, beitu, asteburuan izengo da, soziedadiak dauko San Inazio patroi, dauken soziedade batek, harek eitten dau "campeonato". Baiña Lehen bai, lehen domeketan seiretan-edo faten giñen bolatokira, eta ha egoten zan, bueno!
-Lehen esan dozu Andramaixak diela hemengo jai inportantiak, baiña San Migel be bai.
-Lehenao uste dot San Migel zala; San Migel zan elixia, eta bera zan San Migel de Bedarreta; oin San Migeletan eitten da, jaixak eitten die han.

6.22. Musika, dantza herrian

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-019/012
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:29:50. **Bukatu**: 00:32:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Dantza
  Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Musika, dantza plazan. Gramola ere egon zen garai batean; gerora filarmonika hasi ziren ekartzen herrira. Aretxabaletako musika banda noiz sortu zen; honen inguruko azalpenak. Igandero egoten zen musika plazan; noiz hasi zen ohitura hori galtzen.

Transkripzioa
- Zure gazte-denporan musikia egoten zan? Dantzia egoten zan?
- Nik musikia, dantzia ezautu neuen... Txistularixa beti egoten zan, aiuntamentukua, eta gero egon zan gramola bat, gramolia.
- Hori zu umia ziñanian?
- Bai, bai. Hementxe euen gramola bat, eta gramoliakin urte askuan. Baiña kobrau eitten auen, ez dakit txakur haundixa, txakur txikixa-edo.
- Dantzan egitegatik?
- Bai. Gero egon zan filarmonikia. Eibartik, bueno, Eibarkua ez zan, gero bizi zan, Angiozarkua.
- Aranzabal? Itxua?
- Aranzabal, Itxua, bai. Harek euken konpromiso bat hemen, baiña askotan ez zan etorten, etorten zan bere anaia. Bat zan "una figura", eta bestia zan "una figura", baiña "a lo contrario". Eta joten auen zazpiretan ekin eta beratziak arte.
- Eta orduan zeuek dantzan egin?
- Bai, dantzan eitten geuen. Eta horren atzian (?) gero ein zan musika banda bat. Musika bandia ez dakit noiz ingo zan. "Cincuenta"... Ez dakit "cincuenta" izengo zan. Musika bandia ein zan. Eta bastante ona zan. Gero etorri ziran kanpotik be bai, etorri ziran Erriojatik, Erriojatik etorri ziran lau ero bost. Erriojatik, euzen soldau Bitorixan, eta han bandan joten auen, eta lizenziau zienian, hemen biharra euen eta etorri zien hona. Hemen bizi die oin!
- Eta orduan musikia zela izaten zan, domeka guztietan ala jaiegunetan bakarrik?
- Ez, ez, ez, domeka guztietan. Eta ez dakit, hori desagertu zan "el año setenta"-edo desagertu zan.

6.23. Herriko jaiak

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-019/014
- **Iraupena**: 0:05:30. **Hasi**: 00:35:15. **Bukatu**: 00:40:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
  Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
  Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena**: San Juanetan Arrasatera joateko ohitura izaten zuten; suzko errobera. San Pedrotan berriz, Eskoriatzara joateko joera izaten zuten. Andra Marietan, jende asko etortzen zen inguruko herrietatik; gonbidautzak. "Vuelta al valle de Léniz" izena zuen txirrindulari lasterketa egiten zen.

Transkripzioa
-San Juanak zelebratzen zien?
- San Juanak? Mondrauera juaten giñen San Juanetan.
- Esan dozu suzko erruberak...
- Bai suzko erruberak. Orduan suzko erruberak zien, bueno! Nik lau urte edo bost neuken orduan, eta zer zirenik be ez. Eta ikusi nittuen, eta bueno! San Juanetan juaten giñen zerera, Mondrauera; eta San Pedrotan Eskoritzara.
- Gaztetan be bai?
- Bai.
- Eta eurak etortzen zien hona?
- Bai.
- Orduan relaziñua eukitzen ziñuen inguruko herrixekin?
- Bai. Hemen Andramarixetan be Mondrauetik eta Eskoriatzatik etorten zan jentia asko. Andra Maixetan egoten zan, jente asko etorten zan hemen. Eta kanpotik. Ni akordetan naiz, nire Bilboko lehengusuak-eta etortzen zien.
- Orduan zela izaten zan, gonbidautzak-eta?
- Bai. Eta musika-bandia, Mondrauetik etortzen zan, gehixen baten Mondrauetik, eta batzuetan be bai Flandes-edo; eta Oñatitik be bai, behin edo, baiña ez dakit ze pasau zan orduan, burrukan bat egon zan, baten bati [...] apurtu utsela-edo, eta oñatiarrekin ez geuen gauza onik ein. Baiña Mondrauekin bai, jeneralmente mondrauetarrak etorten zian goxian, beratzietan, beratzi t´erdietan-edo pasakalle bat joten euen. Etortzen zien egun bi, egun bittan, hirugarrenian ez dot uste etortzen zienik. Eta gero hamarretan egoten zan meza; meza ostian "concierto", eta bazkal ostian, hiru t´erdietan-edo, beste pasakalle bat. Gero egoten zian pelota-partiduak, eta zazpiretan-edo ekitten zan dantza, hamabixak arte. Beratziretan puxkat deskantsua egoten zan afaitteko, eta gero hamabixak arte dantzia.
- Ondo, orduan?
- Ondo, ondo. Oso ondo.
- Jai konpletuak.
- Jente asko etortzen zan. Egoten zan, guk eukitten geuen moduen beste familixa askok kanpotik etorrittako jentia egoten zan.
- Orduan herrixa bete-beteta.
- Bai, bai, bai. Orduen ez euen urteeraik hola, e. Horrek urteerok ekin die ointxe berrogeta hamar urte, edo gure dana.
- Autuak gero eta gehixago, eta...
- Bai. Egoten zan karrera bat ziklista, oin be egoten da, baiña orduan kategorixa haundikua.
- Izenik bazeukan karreriak?
- Bai. "Vuelta al Valle de Léniz". Hemen dauz, ni akordetan naiz danakin. Bueno, danakin ez. Hemenguekin ez, hemenguekin bai. El año treinta y dos, akordetan naiz.
- Zortzi urte.
- Bai, zortzi urte. "El año treinta y dos". Metia egon zan Banco Guipuzcoano dauen tokixan. "El año treinta y tres" Gurea parian, "el año treinta y cuatro" hemen panaderixa ondua, "el año treinta y cinco" be bai hor, hori akordetan naz; gero "el año cuarenta y tres" ez naz akordetan ondo. Juan Jose Izagirre bai, hau laguna zalako. Honeik die "de categoría nacional", Eusebio Bastida.
- Zer zien, bertakuak ala kanpokuak? Kanpotik etortzen zien?
- Hau zan Azpeitikua. Cepeda, hau zan "de la parte de Somorrostro" ingurukua; Federiko Ezkerra Sodupekua. Baiña honek die "de categoría nacional". Emiliano Alvarez, hau Beasaingua-edo zan; Lizarazu naparra;

Juan Jose Izagirre, hau hemengua zan, Atxabaletakua; Exposito hau, Donostiakua; Miró, Lopetegi, Langarika Otxandixokua; honek die "de categoría nacional". Gero honek, e..., ez nintzen egon.
- Orduan buelta ziklistia egiten zan?
- Bai.
- Rekorridua zein zan?
- Ehun eta hogei kilometro-edo.

6.24. Lagun-taldeak; kaleko giroa

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-019/016
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:43:10. **Bukatu**: 00:46:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Lagun-taldeak; taberna giroa Arertxabaletan. Txikiteoa egiteko ohitura nondik etorri zen. Abesteko zaletasun handia zegoen; taberna guztietan abestu egiten zen. Neskak ez ziren tabernatan sartzen; gaizki ikusita zegoen.

Transkripzioa
-Oin kuadrilla eta taberna-girua eta; lehenao anbientia diferentia izango zan?
-Bai.
-Txikiteua-eta eitten zan?
-Ez, hainbeste ez. Orduan ohitturia, hori txikiteua ekarri zan kanpotik, Bilbotik, esaten dabe bilbotarrak, Bilbon eitten da txikiteua-eta. Baiña hemen ohitturia uste dot zala lagunak jarri, eta bla bla bla bla! Berba ein eta eran botilla bat eta ia etxera.
-Jarritta eta berbetan?
-Eta oin ez, oin ez dau hori. Bai, eitten da, baiña gehixau eitten da tok! Eta rau! beste batera, tok! eta gero pon! Txikiteua gehixao eitten da, lehen hainbeste ez zan eitten.
-Eta toki batzuetan esaten da kuadrillak kantuan eitteko afiziñua zeukela.
-Kantuan, bueno! Nik Bilbon ikasi neuen kantuan. Txarrena zan... txarrena eta onena: tabernetan ifintten auen: "Se prohibe cantar y hablar de política".
-Hori Bilbon?
-Bai. Ha ifintten euen bakotxien kantau eitten zan.
-Kartela egon arren...
-Bai ba.
-Baiña, ene! Bilbon edozein tabernetan sartu eta txikito bat atara, eta "ahora qué cantamos?", eta lalarala!!! Kantau, rau eran eta ala! "Ya está".
-Bilbon bai, eta...
-Kantuan beti. Oin ez, radixua dauela, telebisiñua dala, ez dakit ze dauela, ezebez. Baiña lehenau kantuan, buenoo! Guk sasoian kantuan eitten gittuen, bueno, bueno, bueno.
-Orduan anbientia oso diferentia da?

-Bai.
-Mutillak eta bai, eta neskak?
-Neskak gutxi.
-Tabernetan?
-Eneee! Akordetan naz, dantzan ein eta azkenengo esan, "Oin hartuko dou zer bat, gura dozu kafe edo limonada bat?" "Ez, ez, ez, pentsau be ez".
-Gaizki ikusitta?
-Gaizki ikusitta edo ohitturaik ez, ez dakit zegatik. Eta gauza hola extraordinario izen bazan, e, neska bati esan etorteko […], zerbezia-edo, limonada-edo. Ardaua-ta horrek pentsau be ez. Baiña gure kuadrilliak-eta kantau. Ni Bilbotik etorten nintzenian, nik ekarten nittuen kantu batzuk. Eta "ze ekarri dok", eta "hauxe", eta […] bera kantau, eta.

6.25. Mendizaletasuna Aretxabaletan

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-019/017
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:46:25. **Bukatu**: 00:48:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena**: Mendizaletasuna. Harreman handia izaten zuten herri desberdinetako mendizaleek. Aretxabaletako mendi-taldeak.

Transkripzioa
-Orduan gauzak asko aldatu dira?
-Bai, bai, eneee!
-Taberna giruan bai, eta zu aparte, mendira joaten ziñan. Eta, lehenguan esaten zenduan, oso diferentia zan lehen mendira joatia eta oin.
-Bai. Beitu, Guk geukan relaziñua, esaten dotsut: Mondrauetarrekin, Bergarakuakin, Plaentxiakuakin, Eibartarrak, Elgoibarkuakin, Azpeitikuakin, Bitorixakuakin. Hoixe zan, juntetan giñan mendi baten. Hau dala eta bestia dala, datorren domekan nora zoiaze? Eta ez jakixat, han daukela, eibartarrak ein biher dauela jai zera "entrega de medallas" ez dakit nun. A, bueno, bai, ikusiko gaittuk. Eta gero juan bihar zitzen edo trenian edo autobusian, orduan ez euan bakotxak kotxia hartu eta, ez. Eta gero juntatzen zien Bitorixatik etozenak Eibarrera, edo Arantzazura edo, eta han juntetan giñan, eta… Holaxe eitten geuen amistadiak, holaxe ezautu neuen andria-eta.
-Orduan askoz be relaziño gehixao inguruko jentiakin?
-Bai, bai. Guk batez be geuken relaziño haundixak Plaentxiakuekin eta eibartarrekin, Eibarkuekin eta Elgoibarkuekin.
-Eta zuk Deportibokuekin edo UDAkuekin?
-Ez. Lelengo ekin nitzan zerakin, "Alpino Club de Bilbao". Gero handik hona etorri nintzanian, orduan neukan zerian "El Centenario" eitten ebiela, eta orduan ein neuen "el Centenario con el Alpino Club de Bilbao". Hori bukatu neuen milla bederatzirehun eta berrogeta hamahiruan, eta egon nitzan beste hiru urte edo hango sozio eta hemen UDAkin be bai, bixakin, eta gero UDAn kendu euenien mendizale horrek, Murrukixokuek esan usten aber gura doten eurakin juatia, eingo nindduela "socio número uno". Eta bueno, bueno. Eta holaxe fan giñen zerera, Murrukixora.

-Hemen herrixan afiziño haundixa zeuan mendirako.
-Bai, bai, afiziño haundixa euen.

6.26. Indalecio Ojanguren argazkilari eta mendizalea

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-019/018
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:48:55. **Bukatu**: 00:52:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
  Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- **Laburpena**: Indalecio Ojanguren, mendizale eta argazkilaria. Oiz mendira joan zirenean ikusi zutenekoa.

Transkripzioa
-Zuk biharbada Indalezio Ojanguren ezagutuko zenduan?
-Bai. Honbree…
-Ezagutu zenduan?
-Indalezio Ojanguren, eta semia be bai.
-"Fotógrafo águila". Eibarren oso famosua da, erretratu asko atera zittualako eta mendirako zeukan afiziñuagatik.
-Mendirako… behin akordetan naz juan giñan zerera, Oizera. Eitten euen bero bat! Puff! Beitu Atxabaletako kurutzia zela jaso euen.
-Eta Oizeko hori?
-Oizera juan giñen, bero bat! Buenoo! Eta han ez dau arbolarik goixan, eta holakotxe arbola txikitxo bat euen, piñu txikitxo bat. Pasau giñen, ni juan nitzen andriakin, bueno, orduan ez giñan, nobixo be ez, lagunak, eta beste Plaentxiako batekin eta beste eibartar batekin; eta Ojanguren euen arbola azpixen holaxe.
-Kerizpia bihar.
-"Jo, holako berorik ez juat pasau behin be!" Eta emun gutsen naranja bat, emun gutsen eta ederto.
-Eta zelakua zan bera?
-Bera? Txikitxo bat. Oso zelebria zan, oso zelebria. Baiña, hortik aparte, bakitzu zenbat lan ein auen harek? Zenbat mendiko fotografixak atara zittuen? Eta mendikuak bakarrik ez, eta herrikuak. Eibarkuak, ingurukuak eta danak. Buenoo! Ez euen gauzarik Eibarren pasetan zanik harek fotografixia atara barik geratu zanik.
-Gaiñera korresponsal moduan eitten zeban lana.
-Bai, bai.
-Periodikuetan be sasoi hartako fotografixak, danak.
-Gero jentiakin relazionatzeko zelakua zan?
-Bai, bueno… Oso zelebria zan.
-Esan dozunian mendixena-eta, akordau jata, igual, e…
-Ez zan altua, bastante txikitxua zan, holako surtxo batekin, tik! Flakotxua.
-Eta beti kamaria…
-"Kajoi" deiketan utsen. Klaro, lehenaoko kamarak, ez dakitzu, tripodiakin-eta, eta kajoi haundi bat-eta.
-Baiña itxuria berari ez jakon gustatzen "Kajoi" esatia.
-Ez, ez.

6.27. Bergara aldeko pilota txapelketan finalista

- **Hizlaria(k)**: Ezpeleta, Paulo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ezpeleta, Miren
- **Erref**: ARE-022/006
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:11:30. **Bukatu**: 00:13:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Nagusitu ahala kirolerako zaletasuna hazi zitzaion. Futbolean eta pilotan ibili zen. 17 urterekin Bergara aldeko pilota txapelketan finalera iritsi zen, baina eskuko minez ezin izan zuen finala jokatu. Handik hamabost egunera partida bat jarri zioten Arrasaten zein ote zen gehiago ikusteko. Kartelean hizkiak aldatu zizkion norbaitek eta ordutik "Peon" gaitzizena geratu zaio.

Transkripzioa
-Da gero ia ba haundi eiñaz, haundi eiñaz politto politto ba beste zer batzuk eta.
-Deportian?
-Deportian be dana gustetan jaten. Fubolian, bizikletia be bai tta pelotia. Oiñ, gehixen pelotan, ezta? Da ia hamazazpi urtegaz ero Mondragonesak orduen neu (erueten nindduen) Mondraueko pelotarixokin Arriaranegaz eta Zurduekin da ez zan ondo arregletan da, betik zera eukien, da betik deiketan nusten: "Hi, etorri hai entrenetan, e" Ta beragana fan da pelotan. Da pelotan ba eitten gintzen da ya atara nauen, Bergara mobidu nintzen. Ba, orduan eukiko nittuen hamazazpi urte ero. Hamazazpi, hemezortzi ero. Eibarren jokatzen zan Distrito de Bergara. Da Distrito de Bergaran ba aillegau nintzan ba azkenengo zerera, finalista. Baiña ezin nauen jokatu, eskuko miña. Egun bittan jokatu biha zan, gaur zapatua o jai, eta bixar domekia, ezta. Da ezin jokatu ta suspendidu ein neban eta bestia geratu zan kanpeon. Eta gero handik aurrerako beste gauza bat, hemen Mendikute, Mondrauekua. Mondrauen ipini auen partidua, handik hamabost egunera ero hogei egunera zein gintzen gehixao ikusteko. Ta anunziauta: "Ezpeleta, subcampeón del Distrito de Bergara contra Zabala III campeón". Da batek "sub-" kendu eiñ auen, da ipintten auen "peón". Oinddiokan be atzo, bueno Karmeni oiñurrenguan esaten egon nintzen, hori Mendikute Mondrauekua hemen bizi da, eta harek esaten dust: "Hombre, peón". Hari geratu jakon betiko izena: "Peón", neretzako. Harek eztust esaten ez Paulo eta ez Ezpeleta. "Hi, Peón, zer, ondo habill?" Geraketan dien motiek holan geraketan dienak. Da gero Bergaran profesional Mondragonesak ipiñi usten partidua debutau eta, baiña eskuak bigunak neuken eta hola zerian.

6.28. Laguardiara pilota partida jokatzera

- **Hizlaria(k)**: Ezpeleta, Paulo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ezpeleta, Miren
- **Erref**: ARE-022/008
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:15:30. **Bukatu**: 00:19:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Behin, Laguardiara joan ziren pilota partida bat jokatzera. Han, mezara joan zen eta apaiz ezagun bat aurkitu zuen. Hark eman zien lo egiteko lekua. Atanorekin jokatu zuen partida eta irabazi egin zuten. Irabazi ostean "famoso" egin ziren eta lagun asko egin omen zituzten. Gau osoa parrandan pasatu eta goizean lorik egin gabe autobusean itzuli ziren Gasteizera.

Transkripzioa

-Da Atxabaletan da jokatu, Mondrauen da be bai, da hola zerien, da gero etorri jakun Laguardiara be. Laguardian zan San Juanetan eta San Pedruetan. Klaro, orduen ez auen oingo moduen automoillik eta motorrik eta ezer. Orduen joan biher zitzen trenien, oiñez ero autobusien. Da goixien igual egoten zan bat, hurrengo egunerarte besteik ez. Da akordetan naz Laguardiara fan San Juan egunien pelotan, da aillegau nintzen goxien autobusien fanda, ta zer, da meza nausittara. Meza nausittara fan nintzen da abade bat ikusi nauen neure laguna. Han auen Seminario Menor, honek abade gaztientzako, eta han auen profesore. Don Salvador Marzana. Neure edadekue zan, ointxe hil zan Txilen, Santiago de Txile edo. Ba ha euen han. Klaro, orduen ea euen hotelik eta zerik "Fondas" bakarrik, fondak. Eta, joño!; mezetan nenguela ikusi nauen. Hori Don Salvador dok, eta horrek arreglauko naxok hemen. Lo be bertan in biha gauen. Eta nirekin nahasi jokatu bihar auen Atano VIII, Azkoittiarra baiña hori euen zerian, Logroñon soldau. Eta mezia akabau zanien etxoin notsan Don Salbadorri tta esan nutsan: Don Salbador, ta "(...), zer dabik hemen?" "Pelotan" "Pelotan? Partidua jokatu biok?" "Bai", tta. "Joe" "Bueno, hemen gabie pasetako ta zer?" "Neu nauen lekuan. Ointxe goazak eta; neu nauen lekuan". Maletioi eruan, fan gintzen da habitaziño bat. Klaro, iñobe enauen nik ezauketan, abadioi bakarrik, eta bazkalostien urten eta han pasio ero zera eiñ eta baiña iñobez, ezaunik ez. Da jokatu gauen partidua ta irabazi gutsen partidua riojanuer geuki. Da gero danak lagunak, danak lagun. Da pasau jakun Atanoi ta bixok, han fan gitzen, afaldu ta urten gauen kanpora. Ta batak, han zurrakapote emuten daue, famosua. "Hala, vamos a la bodega!" Bixok ba famoso gintzen. "Vamos a la bodega, vamos a la bodega, vamos a la bodega". Harrapau gauen erdi, izugarrizko, tremendoko tronpia, da goixien zazpirak, ondiokan bodegan. Da zazpitterdietan autobusa guk, bueltatzeko. Ta geure artian, ze eingo ete juau. Eta bodega baten musua garbittu eta fondara; erretiratzen fan bihar, ez gauen lorik ein baiña. Eta orduen ez auen lekurik eta iñun ez zan egoten baiña, abadia, atia jo eta berak, Don Salbadorrek itxoitten. "Lotsaik be eztaokotzue! Neregaz akabauta jak, e!, neregaz fuera! Aiba maletak eta". "Ez, ez. Pagau barik daukou ondiokan". "Neuk pagaukot eta fuera hamendik, e. Holako Lotsabakoik, jente guztia ohe billa, zuei bixontzako gorde eta oin zatoze hona, zatozen moruan gaiñera!". Bueno, bueno. Da hurrengo domekan, hurrengo domekan ez, San Pedruetan ostera. Da autobuseko kobradoria laguna zan. Laguna, bueno, lendik pe puxkat hemen bastante zelan ibiltzen gintzen; da orduan azen autobusak ba bigarren illaria eta hirugarrena zien ba "primera" moruan ero ta bestiak. Eta ha gehixao pagau bihar izeten zan. Kobradoriak esan oskun: "Ya os he visto esta noche cómo habéis andao, y tumbaros aquí" Ta bixok etzin da hantxe Bittorixara.

6.29. Navarretera (Errioxa) pilota partida jokatzera

- **Hizlaria(k)**: Ezpeleta, Paulo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ezpeleta, Miren
- **Erref**: ARE-022/009
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:19:05. **Bukatu**: 00:21:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Beste behin Navarretera (Errioxa) joan ziren pilota partida jokatzera Paco Logroñoko enpresari eta frontoietako artekariak esanda. Hara iritsi eta Paco horrek ez zuela pilota partidarik jarriko esan zien, aldi berean zezenak jarri zituztela eta. Navarreteko udaletxera joan ziren euren gastuak zeinek ordaindu behar zituen galdetzera. Azkenean sarrera kobratu zuten gastuak ordaintzeko eta jende asko bildu zenez ez zuten arazorik izan.

Transkripzioa
-Gero partiduak hara, hona, hola, ta beste baten Riojara. Navarrete, hortxe Fuenmayor-tik Santo Domingora bittartian hola. Ta Paco, bat zan, aittak ezauketan auena, korredoria frontoikua, da enpresarixua zan Logroñokua. Esan oskun, Andramaixak zien, hillen hamazortzixa ero, dieciocho de Agosto ero eztakit ze izengo zan. Atxabaletan jokatu behintzet eta egun bixan edo hiruen da laugarrenien hara ninddoien. Da etorri nitzen hona da fan nintzen Logroñora, Pacon zerera, frontoira. "Paco, qué, ya estamos aquí". "No, no, yo no puedo organizar porque han puesto toros y yo no respondo de eso". "Y ahora quién nos va a pagar los gastos?" "Allá cuidaos!, pedirle al ayuntamiento". Zeuek gorobozue ba nik eruango zauet. Baeuken kotxie, lagunak ero hola, ta bueno, fan gitzen Navarretera, da bera aiuntamentukuekin. Eta esan utsen, joño, aber gure gastuek eta nok pagau biha dauen. Gero, klaro, ni ibilitta neuen Atxabaletan enpresarixo ta hola, eta esan nutsen: "Baukotzue billetiek, baukotzue saltzeko?" eta "Bai, zezenenak be bai tta". Han beste riojanuek kontrarixuek be han azen, eta esan nutsen: Ba lelengo partidue horreik jokatu deixela hango bertako batzuk eta emungoutseu irabazten dauenari hamar duro eta galtzen dauenari bost duro. Ezta, batek hamabi pezeta terdi eta bestiek bosna duro. Da gero jokatukou guk, eta bixen bittartian geu egongo gare entradak saldu eta hola. Ifiñi gauen eta jentie asko fan zan. Azkenien gastuek ein gauena ba batek biajie hainbeste, bost duro ero, xei uro ero: bazkaixa, lo eittia ta. Ta bestiak ba Riojakuak zela zien ba haik gutxiao. Ta lelengo gastuetarako kendu ta ondiokan berrogeiña duro ero sobrau jakun. Holakuek...

6.30. Otxandioko neska batzuekin harremena

- **Hizlaria(k)**: Ezpeleta, Paulo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ezpeleta, Miren
- **Erref**: ARE-022/010
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:21:05. **Bukatu**: 00:23:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Beste behin, Santa Marina egunean goizean Bergaran jokatu eta arratsaldean Otxandiora joan zen partida jokatzera. Neskaren bat gustatu eta bertan geratu zen. Neskok Andra Marietan Aretxabaletara ere etorri ziren eta hartu-emana izan zuten. Otxandiora neskongana bizikletaz joaten zen eta lagun egin zuen apaiz batek eskularruak eta bufanda oparitu zizkion negurako.

Transkripzioa
-Otxandixon be fan pelotan. Lelengo jokatu nauen Bergan goxian, Santamaiña, 18 de julio izaten zan. Santamaiña Bergan dau elixa bat, han frontoian jokatu goixien da atsaldien Otxandixon. Ordu bittako trena hartu eta etorten nintzan ba bizikletan. Bizikletan da, etorri nintzan horra, jokatu ta. Hurrengo egunian be geraketako eta hola ta. Bakitzu, gaztiek, gaztien kontuak. Neskak pa bastante guapa samarrak pe ba azen da bertan geratu. Ta bategaz bastante amistade edo hola. Gero ba ezebez, gero (itxitta hola) Baiña Andramaixa batzuetan etorri zien aizta bixak hara, Atxabaletara. Momentuan ba beste batzuk erdi nobixak eta, nunguek zien da. (...) "Lagundu eiezu honei neskoi, bestela bakarrik egon biha die ta. Iñor eztabe ezautu be eitten da". Holaxe, eta gero ekin getsan da beti be etorri tta beti be fan da, bizikletan da. Klaro, orduan etorri bihar izeten zan ba, bizikletie besteik ez euan. Trenian; hartu Atxabaletan trena da Villarrealen estaziñuan bajatu eta danok bizikletan. Baiña bueltarakoe ez zan egoten trenik, eta han gabera arte egotia gustetan jakun ba, da negu antza aillegau zanien, akordetan naz han, Don Tomas edo abade bat, guk urten gauen frontoi aldameneko tabernan, han ezauketan gindduen da bizikletak eta. Gero merixendau ta be hantxe, ta abaria be nere lagun haundixa ein zan. Oso haundixa baiña, e. Gabian neskia itxi tta honutzakuan izotz ba eitten euen! Dana zurittuta. "Paulo, hola fan bi za?" "Ze ingot ba?" "Neuk emungotsut" Eta emun ustan bufanda baltza ta guante baltzak. Neuri, e. Lau lagun faten gintzen da. Bastante ondo etorri nintzan. Gero hurrengo domekan hola zerian, baiña harek abadiak detaillia hola, berak emun ustela, eztakitzu?

6.31. Han eta hemen pilota partidak jokatzen

- **Hizlaria(k)**: Ezpeleta, Paulo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ezpeleta, Miren
- **Erref**: ARE-022/011
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:23:25. **Bukatu**: 00:24:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Han eta hemen jokatu izan zituen partidak: Errioxan, Salamancan, Valladoliden... Ez zuten asko kobratzen baina gazteak ziren eta hara eta hona ibiliz gero gustura. Behin Mirandan partida jokatu eta ez zieten ordaindu nahi. Azkenean gastuak behintzat ordaindu zizkieten.

Transkripzioa
-Gero ba ia Pelotan Rioja aldera ta Salamankara ta leku askota faten gintzan. Peñaranda de Bracamonte ta. Valladolizen be bai, Medina del Campo ta.
-Diru asko irabazten zan?
-Bueno, irabazi. Gaztiek gintzen eta ibilli ezkero... Baten Mirandan eiñ ostiena. Hemedik eruen. Jokaketan be orduantxe Campeones de España izendakuen. Argiñanok eta beste bat, Uria, eta Bitorixako Okariz, beterinaixue oiñ Irunen dau, ta neu. Jokatu gauen, akabau zan partidue ta. "Joño, geratu zeinketzue?" ta. Geratu bai. Guk ez gauen berbarik diru konturik eta ezer ein. Ta geratu gintzan Argiñano ta bixok. Mirandan, hurrengo egunien jokaketako. Ta hurrengo egunien jokatu gauen, da organizadorioi edo enpresarixuoi edo zer? Da, baiña guk debalde pentsau dou. Debalde? Lo eittia, afaixa, bazkaixa ta dana debalde? Han ibilli gintzan erdi burrukan, eta azkenien emun oskuen, eztakit zenbat emun oskuen baiña behintzet gastuek pagetako. Baiña hor jentiek pentsetan auen pelotan (...) hola tongo antzak eta jentiek, puuu!

6.32. Elorrioko pilota partidan gertatua

- **Hizlaria(k)**: Ezpeleta, Paulo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ezpeleta, Miren
- **Erref**: ARE-022/012
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:24:35. **Bukatu**: 00:25:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Elorrion pilota partidan gertatutakoa. Dirua bere kontra zegoen eta anaiak dirua irabaz zezan galdu egin behar zuela esan zioten. Berak irabaztera zihoala erakusteko frontoitik bere alde jokatu zuen apustua. Partida irabazi ostean, apustua irabazi zuela eta ez zizkioten gastuak ordaindu nahi izan.

Transkripzioa
-Nik hola arrai, mailatxo bat eukitten nauen eta ha pasau ezkero ya profesional jokaketako. Bueno, profesional txarra edo gure dana baiña. Elorrixora fan pelotan da anaia enpresarixua ta korredoria zan. Eta beste anaiak pelotan ein bihar euen. Txapiakin etorri kara y kruz eitten, da esan: Bueno, Ezpeleta, galdu in biok eta" "Neuk galdu ez. Nik al bot irabazi. Al bot irabazi". "Ez ba, anaientzako" "Ni neuk al bot irabazi". Bera korredoria zan, da lelengokua esan eban ni gorrixa banintzan ba bestia azula, ezta. Ta orduan diru jokatzen zan "cuarenta colorao" edo "veinte azul" edo gure dana. Anaien aldeko koloria zan azul. "Veinte azul", eta neuk frontoittik berak ikusi daixen irabaztera noiela, "Va!" Akabo, partiduoi irabazi nutsan, da orduen ba emuten oskuen gastuetarako ta hogei duro ero. Eta eztoiela emuten, hogei duro, apostia irabazi nauela eta. Erdi burrukan han. Da hola kasuek asko.

6.33. Usotara joanda gertatutako pasadizoa

- **Hizlaria(k)**: Ezpeleta, Paulo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ezpeleta, Miren
- **Erref**: ARE-022/014
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:28:05. **Bukatu**: 00:30:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Behin, anaia eta biak Andarto ingurura joan ziren usotara, baina ez zuten alerik ere bota. Beherakoan, Ugaztegin ezagunak zituzten eta askaltzera gonbidatu zituzten. Etxe hartan, aurreko egunean botatako 40 uso inguru omen zeuzkaten eta 6-7 erosi egin zituzten. Aitak pentsatu zuen usoak beraiek botatakoak zirela. Horren inguruko pasadizoa.

Transkripzioa
-Beste egun baten anaia Pedrito ta bixok, uso denporia zan orduan be ta. Orduan haundixauek gintzen. Da fan gintzen Ugaztegira, Andartora, uso-pase lekura, ezta. Fan da bat bez da bat bez da; bat bez, etorri be ez. Aurreko egunien asko harrapau zittuen. Da gizon bat euen Arauzkua postuen, da hantxe kontuek kontetan. Da illunkadie etorri zanien bajatu gintzen Ugaztegiraiño ta ha Arautzera eta gu Atxabaletara, ezta, bata alde batera eta bestiak beste aldera. Da berutza goiazela ba nik danak ezauketan (nenguen) ba egurrakin da karnazerixan mutikotatik eta. Gero ba pelotan da hola danien. Ugazteiko Fermiñen semiak aurreko egunien berrogeta hamar uso-edo, ez dakit zenbat, berrogetakak hartu zittuen. Da han euken ordurako esegitta ta, "E!, Paulo!" "Ze?". "Atoze barrura, trago bat in-edo" Fan gintzan da han ardau puxkat atara oskuen da, ez dakitzu, jan edo merixendau edo zeozer. Berbetan. "Ez dozue biher usoik?" "Buuu!" "Merke emungotsuet. Bost pezetan bakotxa, zeuek gurozuenak apartau" Da beitu guntsan anaiak eta bixok. Ze, ze ingou?, ta. Dozenerdi bat hartu, xei edo zazpi-edo. Bueno, hala, hartu gittuen batzuk, eta ia berutza. Aillegau gintzan Atxabaletara ta aitta ba etxoitten, etxoitten. "Zer, pasau dok?" eta, "Ba, puxkat pasau die" "Joño, nastante hartu dozue. Bixar neu naixuek. Nun egon zare?" "Ba han Andartoko atxen aldamenian, baakitzu, Ugaztegirako zerien, edo Degurixarako bidien". Jarritta puestuen da hori gizonoi aldamenian, bueno, beste puestuen. Egon da egon da bape pasau ez, bape pasau ez. Halakon baten berbetan ekin zienien: "Zer, bapez gaur? Atzo enkanbio asko" "Atzo asko?" "Bai, gure seme bi hemen egon zien, nere semiek. Zazpi-edo eruen zittuen da" "Zazpi? illundute gero beko arruan edo hartuko zittuen, hemen behintzet illunketan dauela alkarrekin egon gintzen, alkarrekin apartau gintzen hortik behera ta Ugaztein-edo hilko zittuen" Joe. Aitta etorri zan kabriauta: "Niri gero guzurrik eta engaiñau ez naizue eingo, e! Gizurrik eta engaiñau, e, zeatik eze...

6.34. Telebistaren inguruko iritzia

- **Hizlaria(k)**: Ayastuy Elorza, Jose Benito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Loidi, Ane

- **Erref**: ARE-024/006
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:11:40. **Bukatu**: 00:13:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- **Laburpena**: Telebistaren inguruko iritzia. Jendea guztiz lotzen da telebistara. Seme-alabek telebistarekin duten lotura. Irratia desberdina dela komentatzen dute. Telebista piztuta dagoenean ez da elkarrizketarik egoten etxean.

Transkripzioa
-Telebisiñue okerra dok, han apur bat piketan bahaz...
-Nik pelikula bat ez juat ikusten. Personientzako [...] aparato desastriena, okerrena dala. Txarrena dala.
-Ze, ikesi ez dok eitten ezer, zegatik han ikusten doken gauza bat buruen nekez geraketan jak, akaso gauzan batzuk, baiña radixuan moruen, "en cambio" radixuek...
-Gero bizietan bahaz ez daukek konbersaziñoik... Umiekin ikusten nuan nik: neskatilliek ez hainbeste, baiña mutikua... Harek kotxetik urten eta zuzen telebisiñora faten dok (hau)¬¬. Zenbat bider esaten jutsat: "Aitor, benga, etorri sukaldera eta esan atsaldeon eta etorri naz, eta gero gura dozuna eizu". Gutxienez.
-Gutxienez etxera agertu dala.
-Baiña zuzen telebisiñora. Eta sarrittan kontra eitten bajostiek, kendu eta benga, eiñ deberiak lelengo eta gero telebisiñue ikusi. Baiña batien hau dalako, bestien bestie dalako...
-Biziue dok hori. Gero, klaro, programak be danak jakixiek, ze ordutan zer dauen...
-Ez dok horrena bakarrik. Guriak ia ez dittuk umiak ixa, baiña gurien nausixena be goxien jaiki biok, zortzietarako lanera faten dok, baiña hamabixak jota oinddio telebisiñuan, ha handik ezin leikek kendu. Asteburuan bakarrik egoten dittuk bixok, beste bixak Donostian, eta bestie Bitorixan dauelako [...], bere pelikulokin eta bere zerokin, ha ez dok umia, baiña. Derrior ikusi bihar, derrior ikusi bihar telebisiñua.
-Enroillau eitten dok telebisiñuen, bai. "En cambio" pentsetan jatek radixua hoba dala. Entzun eitten dok, edozein gauza edozein tema berbetan dabillela be hartu be hobeto eitten dala pentsetan jatek. "En cambio" telebisiñue ez juat, e, "entre que" ikusi eta entzun eta abar, ez juat hartzen... Eta gero horrek esan dabena, konbersaziñuek etxien eta, telebisiñue ezkatzien badaukek, gurien basarrixen ezkatzien jak, eta han ez jak konbersaziñoik eta ez karajoik.
-Gurien be ez. Baten bat hasten dok, eta ixo!, egoteko ixilik!, hasarria, burrukia segittuan.
-Telebisiñuek hori bajaukek.

6.35. Otalora Zelaiko feria

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Miren Gaztelu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-029/013
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:34:30. **Bukatu**: 00:37:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Otalora Zelaiko erromeria gizaldietan ospatu omen da. Garai batean ganadu feria ospetsua izaten omen zen Otaloran, zezen eta guzti. Udalek urtean behin herriko mugarriak ikusi eta bazkaria egiten dute Aozaratzako Matikua tabernan.

Transkripzioa
-Otalazelain jai bat egoten da?
-Otalazelain bai. Maietzien. Hamabixan da Santo Domingo. Santo Domingo de la Calzada. Eta hurrengoko domekan. Bai, Otalazelaiko erromeixia izeten da. Hori, hori dator, nik ez dakit ze, noizko denporatik datorren. Baiña siglos ha, ez dakitt ze denporatik. Hor izeten zan azoka bat, ferixa bat zerena, baiña hor zezenak eta danak egoten zien Otalazelaiko ferixan. Bai-bai-bai. Esateotsut, en la época de neuk pe ez dakit noiztik. Baiña hor egoten zien “las Ferias de Santo Domingo”, Otalazelaiko ferixia. Ez da oingo erromerixia, hori da urtietan baiña urte asko, ez dakit dan mende, osea sigluak, mendiak, edo baiña denpora askokua. Eta zan horixe, “una feria de ganado” hemen inguru guztikua, zera eitten zana. Horretxegaittik da erromerixa hori, Otalazelaikua. Hortik dator, ez da oingua.
-Egoten zien zezenak-eta?
-Ez, ez, ez. Hori zan orduen. Ez dakitt, urtia ez dakitt. Oiñurrengo be igez be agertu zan hola udaletxiak, aiuntamentuak atara auen hori baiña ez auen esaten noiztik etorren ferixa hori. Eta gero eitten daue oiñ, oiñ ez aspalditxuen, urtiak, eitten dau aiuntamentuak mugarrixak ikusi. Herriko mugarrixak ikusi eta gero hor Azatzako zerien, tabernan, Matikuan, bazkaixa eukitzen daue. Baiña mugarrixak ikusteittue ta ez dakit zer eta gauzak eitten dau aiuntamentuak.
-Ze mugarri?
-Herriko mugarrixak. Daukana zerakin, Eskoriatzakin, edo Eskoriatzakin gehixenbat, Oñati, mugarrixak egoten dienak mendixan. Ez dozu ikusi sekula iñoiz mendixan mugarrixak, harri-mugarrixak ifintten dotsuena Eskoriatza, Aretxabaleta, ez dakit zer. Ba horrek ikusi, taka-taka ikusi ta, leku guztietan, leku guztietan mendixan daukotzu nundik nora dan zure aiuntamentuko lurraldia-edo.

6.36. Meriendarekin Otalorara

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Miren Gaztelu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-029/014
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:37:44. **Bukatu**: 00:39:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Sarritan egon izan da Otalora Zelaiko erromerian. Inguruko herrietako jendea biltzen zen egun horretan Otaloran.

Transkripzioa
-Eta zu txikixa ziñanian joaten ziñan Otalazelaira?
-Horra ez, hori bakarrik itten daue... Nora, Otalazelaira? Buenoo! Ez nintzen

ba joango! Horixe.
-Ta ze egoten zan?
-Otalazelain? Zerakin, hori zera, merixendiakin hori bai. Afari-merixendia edo gura dana, zeuk [...] dotsazun moduan deittu. Gurasuakin. Egoten zan trikitixa, dantzia, dana, guztira. Oin egoten die beste gauza batzuk gehixao, ezta? Ba umientzako jaixak, sokatiria dala. Ez dakit sokatiraik egon dan orduen edo. Baiña ba holako zer batzuk egoten die, bersolarixak, hau edo bestie. Bai, bai. Hoixe bai. Urtero-urtero. Zan gaiñera erromerixa bat ez hemenguentzako, hemen bakarrik, inguru guztietatik etorten zan jentia, e. Bada be ba Garagartza edo Santageda, ingurukuak, Aramaixo aldekuak, etorten zana, batzen zienak hor erromerixa hortan. Bai, bai, bai. Jente asko. Ez da ba izengo!
-Meriendia zelan eruaten zenduan, zapata kajan edo...?
-Ez, zapatu kajan ez, baiña asmauko auen gure amak zeozerren bat, edo poltsa, otzara edo zeozerren bat, ze argixa zan ama ta. Bueno! Horixe zala. Bai, bai, bai, bai. Asmauko auen zeozerren bat, asmauko auen, bai. Amak ta amamak, danak. Bai, bai, bai, bai.

6.37. Euskaratze okerra?

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Miren Gaztelu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-029/017
- **Iraupena**: 0:04:40. **Hasi**: 00:45:20. **Bukatu**: 00:50:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- **Laburpena**: Mirenen ama XIX. gizaldian jaioa zen, eta bera umea zenean inauterietako "txino dantza"-ri buruz hitz egiten zion. Mirenen ustez txino dantzaren abestia lehen erdaraz abesten zen euskaldunen arteko inauteri burla bat bezala. Horren ezjakinean euskaratu dela abesti hori dio. Gauza batzuren zergatiaz pentsatu beharko genukeela uste du Mirenek, den-denak euskaratu aurretik. Bere amak egindako mozorroarekin abesten zuen txinoen kanta gaztetan.

Transkripzioa
-Ze jai dago Aretxabaletan?
-Jai jai honetxek zerok, zelan da, Karnabalak edo Aratusteak edo Iñauteriak: Karnabalak eta kitto. Oiñ inddar haundixa hartzen doiaz gaiñera. Eta jente guztie dana jazten da mozorrotuta edo gura dana. Baiña itten da gauza bat txino-dantzie esaten dana, da, huskerixa bat da, e, baiña hori be nundik, noiztik datorren? Ez dakitt. Nire amai entzunda daukat. Nik neukan harizko zer bat, alkondara bat, kamisia esaten auen berak, ze zan kamisoi bat balitzan moduan, alkondara luze bat, eta urtero-urtero ixten notsan ez dakit nori, urtero txino-dantzia eitteko. Hori amak esaten auen, eta nire ama hil zan larogeta hamahiru urtekin. Zan “del siglo dieci nueve, mil ochocientos noventa y tres” jaixua. Eta aurretik etorren hori. Noiztik datorren hori txino-dantzia eitten dana? Ez dakitt.
-Zelakua da?
-Ba da, dantza huskerixa bat da, hola txin-txin hori kantau. Baiña nik uste dot; aaj, gauza nik ez dakitt horregaittik dan ala zergaittik, baiña zera, oiñ horrek euken letria, txino-dantziak dauke musikia dauka, bere musika

berezia, eta gaiñera letria kantetako erderaz. Baiña nik neretako pentsetan jat hori zala burla bat eittia, ze hemen euskaldun herrixen danak euskeraz eitten auen tokixen Karnabaletan hori kantetan zan erderaz, burla bat eitteko moduen, eta oiñ, klaro, dana zelan izen bihar dan euskeraz, konturatu be ein barik zer eitten dan, neuretako, e, neure ustez, oiñ hori euskeratu eiñ daue hori letriori. No señor, si es el carnaval, si precisamente por ser carnaval se canta en castellano.
-(…)
-Klaro : “Txintxin txintxin/ las peras están verdes/ ya se madurarán. Txiribito y su mujer/ empezaron a comer/ Txiribito se enfadó/ y la cazuela le tiró”. Hori zan. Eta oiñ hori euskeraztu.
-Grazia galtzen dau…
-Bai. Baiña hori zan erderaz, erderaz, baiña hori eitten zan ba. Nire amak eta bizi guztian halaxe erderaz eiñ izen daue. Nik uste dot barre eitteko. Euskeraz eitten zan toki baten, erderaz. Oiñ ez, dana euskeraztu. Baiña ez. Apur bat, nik pentsetan jat, apur bat euki in biha dala, ez dakitt, burua-edo. Pentsau ein biha dala apurtxo bat gehitxuao holako gauzak. Zergaittik zien gauzak, zeren zergaittia, gauzen zergaittia. “El qué de las cosas”. Zergaittia. Hori zaharrak, baiña nire amak esaten: harizko zera etorten zan Julian… eta, urtero-urtero-urtero itxi ein bihar izaten notsan, harizko haxe, eta oin be harizkuakin eitten daue bai. Ehunezkue esaten da baiña harizkua. Ehuna guk deiketan guntsan ehuna zerai, “al lino”, lino ehuna.
(…)
-Bai, baiña amak inddako gauzakin, e. Oiñ, bueno! dirutan gastetan da mozorrotan eta zeretan. Lehen itten zan zuk etxian zauketzun zeozerren batekin mozorrotu eta kitto. Baiña oiñ ez, oiñ diru asko gastetan da, buffa! Neure seme-alabatatik hasitta. Bueno!, hasitta daoz, nire trapu zarrok danak aurrien ibiltten die, e, hori bai. Eta besteik ba eztakitt. Gure bozu jakin gehixao Gipuzkoa milla beratzirehun eta hamahiru hor daukat liburua eta hor agertuko jatzu, gure bozu jakiñ.

6.38. Oinez mezara, Arantzazura

- **Hizlaria(k)**: Lasagabaster Billar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-035/022
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:58:05. **Bukatu**: 01:01:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena**: Santo Domingoak Otalora Zelain eta San Juanak ziren jai handienak. Orduan oinez ibiltzen zen jendea. Arantzazura ere oinez joaten ziren. Arantzazutik Oñatira jaitsi, han trena hartu eta Aretxabaletako plazako dantzara joaten ziren. Urkulutik Urrexolara, handik Jaturabetik eta Arrikrutzetik Arantzazurakoa izaten zen igande askotako meza entzuteko egiten zuten ibilaldia. Nahiz eta autobusa bazegoen Oñatirako, Arantzazutik oinez jaisten ziren; trena hartu, San Prudentzion trenez aldatu eta Aretxabaletara itzultzen ziren.

Transkripzioa

- Baiña orduen pittin bat jai girua eta erromerixa girua-ta, nora joteko zera zeukein zeuek, nora joten zeuein, auzoko edo…?
- Hemen, hemen?
- Bai.
- Atxabaltara, gu betik Atxabaltara.
- Atxabaletara? Auzuen, auzoko jaixak aparte ez zan…
- Aparte, e? San Juanetan, San Juanetan bakarrik, e? San Juanak eta Santo Dominguek. Santo Dominguek Otalora Zelain, marietzien, Santo Dominguetan.
- Otalora Zelai Azatzan dago, ezta?
- Bai, Otalora badakizu nun dauen, ezta?
- Bai, bai.
- Ba honutzatxuau, Otaloratik kale aldera zatozela eskubitara.
- Oñatiko jentia be etorten zan…
- Santo Domingora?
- Bai, Santo Domingora, klaro. Hori bada Otalora Zelaiko…
- Otalora Zelaira etorriko zan , bai.
- Neri kontau dost Oñatiko jentiak Otalora Zelaira etorri…
- Basotik igual etorriko ziren.
- Neskia Eskoriatzara lagundu eta gero, oiñez, Araotzera.
- Bai, bai, eta oiñez etorritta segurutik Oñatitik, oiñez etorritta.
- Araozdik, e?
- Arantzazura be oiñez faten giñen, e? Hiru ordu-edo itten gauen bidien.
- Eta beste hainbeste bueltan.
- Bueltau, kasi betik etorten giñen Oñatira bajau, Oñatira bajau eta gero trenien.
- A, trenian.
- Trenien etorten giñen. Gero trenien zeatik hola fiestia hartzen gauen. Arantzazutik bueltia in eta gero etorten giñen Atxabaletako fiestara. Atxabaletan betik egoten zan erromerixia-eta…
- Andra Marittan-edo?
- Ez, domekero.
- A, domekero. Domekeroko jaira.
- Domekeroko jaire etorten giñen. Arantzazura faten gitzan domekan, klaro. Faten gitzen domeka goizien goiz urtenda. Faten giñen oiñez.
- Han mezia entzun.
- Han mezie entzun, konfesau, komulgau, horreik danok han egin eta gero Oñatire bajau. Eta gero Oñatin trena hartu ta Atxabaletara erromerixara ta ba gabien etxera. Dana oiñez.
- Eta hori ze itten zeuein, kuadrillan?
- Kuadrillan, klaro, bai, Arantzazura kuadrillan kasi betik. Batzuetan anaiekin be bai, eta anaien lagunekin eta neska ta mutil ta, ba hola faten giñen. Betik oiñez.
- Hiru ordu, pasiutxua da, e?
- Bai, ba hiru ordu nik uste dot hartzen auela.
- Zuek zela itten zeuen bidia?
- Ba han oin presia dauen lekutik gora, Urkulutik gora. Eta gero Urrexolara eta gero handik behetik Jaturabetik gora.
- Arrikruzdik…
- Hori da, Arrikruzdik Arantzazura.
- Pasiutxua! Orduen baeuen autubusa Arantzazutik kalera?
- Autubusa bai, egoten zan e? Batzutan oiñez be bai gu Oñatire, e? Aldaz beheran ondo, eta gero zela trena egoten zan, trena be hemen kanbixau in biher izaten zan, Zubillagan…

- Zubillagan ez, San Prudentzion.
- Edo San Prudentzion, txarto esan dot. Oñatireko kanbixau...
- Eta Eibarretik etorrena hartu ta...
- Hori da. Horreik danok egitten gittuen.

6.39. Futbolean Salestarren eskolan hasita

- **Hizlaria(k)**: Etxeandia Arregi, Bixente; Garziaetxabe Ugarte, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-039/004
- **Iraupena**: 0:03:56. **Hasi**: 00:02:40. **Bukatu**: 00:06:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Futbola
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- **Laburpena**: Adin bera izan arren ez zuten elkarrekin ikasi, mutilek eta neskek ez baitzuten batera ikasten, eraikin ezberdinetan egoten ziren. Eskola bukatu eta gero Deustuko salestarren eskola profesionalera joan zen Bixente, Zerrajeran lan egiteko beharrezkoa ikasi zuen. Eskolako hainbat kontu kontatzen ditu. eskola utzi zuen futbolean hasteko. Aretxabaletan hasi zen futbolean jolasten. Salesianoetan ere bazegoen futbol taldea. taldeko hainbat kontu kontatzen ditu.

Transkripzioa
Zuek alkarrekin ibilli ziñain nazionaletan?
-Ez, ez.
-Etxe bat zan edo?
-Ez.
-Eskolia aparte?
-Aparte-aparte.
-Eskoliak jaukan gutxienez lau ero bost (...) diferentiak. Osea ke; edadietatik pe bajauan, batzuk edade gehixao ba harek..., gutxiaok ba gutxiaokin.
-Eta neskak beste etxe baten eta mutilak beste baten.
-Neskak aparte. Bai ba.
-Eta hamabost urtekin hortik urten eta lanian hasi ziñan?
-Ez. Estudixetan Deustora Salesianosetara, eskola profesionaletara.
-Eta ze karrera ikasi zeben han?
-Han? Ba Zerrajeriak zela zeukan fabrikia, han soziuak eta, ba fan nintzuan ikasten zerrajerixarako. Hori, zerraillak eta ipiñi tta torneuen da ikasi. Zepilluen da lana ein dda.
-Han tituluren bat atara zeuen, "maestro" edo?
-Ez, ez. Porke bost urte (...). Hasi gintzenian salesianotan gazan ciento cincuenta mutillak. Bi kursotan, bi lokaletan. Eta bosgarren urtien (...) gazan treinta y dos. Hogeta hamabi. Osea ke fan zittuzan hortik zihar jentie, "liquidaos".
-Bostetik bat geratu ziñen?
-Bai. Eta suspendidu naxuan "Mecánica aplicada", eta esan nostan frailliak, Azkoittikua zuan da, esan nostan: "E!, parkatu baiña nik parkatu ingostat hori asignaturioi aprobauta ingok etortzen bahaz". Nik fubolien in biha naxuan, da nik esan notsan etxien, da etxien be fateko ta. Esan notsan, ni enoiela, lanera noiela, eta fubolien in bihotela.

-Fubola gehixao gustau karreria baiño?
-Bai, bai. Eta lanien etorri nintzuan da Atxabaletan fubolien.
-Da han Salesianotan Deuston eitten zeuen fubolian?
-Bai. Joe, zapatak eta jota apurtuta. Horrek diretoriak, Azkoittikua zuan, eta harek "etxostak ikusten ondo". "Ze ba?", ta beti fubolien nebillen da. Da hasarre egoten zuan bera.
-Estudixau gutxi eta fubolian.
-Fubolian baiña jota zapatak apurtu arte.
-Bazeukazuen eskolako ekiporik edo zerbaitt?
-Bai, bai. Guk jokaketan gaixuan, laugarren urtian jokaketan gaixuen horrekin, unibersidadiakin. Unibersidadiek jokaketan juen orduen seleziñua... Seleziñua ez, baiña porrejenplo Alcoyano etorten zuan igual, horkua, Alcoyano horkua dok, Alicantekua. Ba jazan bi estudiantiek fubolista Primera Dibisiñokuek, eta harek etorten zittuztan eta jokaketan juen han unibersidadien partidua. Haik dirua baukien asko, porke danak zittuztan, aberatsak zittuztan unibersidadekuak, danak kanpotarrak. Eta haik aprobetxetan juen astelehenetan, domeketan jokaketan juen Bilbon da astelehenien jokaketan juen unibersidadien partidue ekipuak. Haik dirua jaukien eta haik, e. Guk ez. Geure artian jokatu ta.

6.40. Bixente tailerrean eta Rosario 'Centro Católico'ko tabernan

- **Hizlaria(k)**: Etxeandia Arregi, Bixente; Garziaetxabe Ugarte, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-039/005
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:06:36. **Bukatu**: 00:08:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
  Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
  Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena**: Salestarren eskolatik bueltan etxera bueltatu zen eta Ilargi izeneko tailerrean hasi zen lanean. Futbolean ere jarraitu zuen. Emaztea umezain eta Centro Católicoko tabernan aritu zen lanean. Rosarioren familikoek hartu zuten tabernaren ardura, jatorduak ere ematen zituzten. Hamaika bat urtez izaten zuten taberna.

Transkripzioa
- Orduan Deustotik urten eta etxera etorri ziñan?
- Bai.
- Esan dozu hasi ziñela...
- Hor tailler baten.
- Zela zeukan izena?
- Illargi.
- Zerraillagintzan.
- Bai, zerraillak itten aen. Horrek soziuek, bastante sozio. Illargixen hortxe lanien ibili nintzuan. Fubolien iñ eta lanien. Eta nobixie topau.
- Lanien topau ziñuen nobixia?
- Ez, ez, ez. Esan bat? Lanien, ez keba.
- Atxabaletan ezautu. Ezautu, Atxabaletan zela bizi dan ba Atxabaletan ezautu bihar.

- Klaro.
- Eta nobixa horrekin ezkondu ziñan?
- Bai, bai.
- Eta zuk eskolatik urtenda gero zer eiñ zeben?
- Ba kriada. Umezaiñ-da. Bueno, taberna bat euki gauen hamentxe. Centro Católico esaten jakon orduan. Konserjiek, e, gu gintzen konserjiek. Iñondako, orduen be iñondako lana.
- "Centro Católico" zuan ba, hori zuan ba baten batzuk ein biha juen lana, aittak eta amak hartu juen ba umiendako ta gaztiendako; honek pa zela umiek zien ba han kriada moduen.
- Lana hantxe. Tanto bat emuten oskuen da ba.
- Orduen famelixiak hartu euen zentro hori. Zuk eskolatik urten da segittuan?
- Bai, bai, bai.
- Eta Centro Católico hortan jatorduak emuten zittuen?
- Baitta, bai.
- Orduen oillaskuek eta oiñ baiño merkiau. Merkiau zalako dana.
- Dana, janorduok eta.
- Zenbat urtian euki zebein?
- Urte asko. Zenbat?
- Hamaika bat bai, ezta?
- Hamaika bat urte eukiko gauen. Gero ia aiztak hasi zien ezkonketan eta ya ba itxi gauen. Neu be ezkondu gitzan da ya itxi gauen.
- Oseake tabernarixa izandakua za orduan.
- Bai, bai.

6.41. 'Centro Católico'a, luistarrak eta futbola

- **Hizlaria(k)**: Etxeandia Arregi, Bixente; Garziaetxabe Ugarte, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-039/007
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:08:49. **Bukatu**: 00:12:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Futbola
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Centro Católico taberna normal bat zen: txikiteorako, kaferako, meriendatarako... Luistarrak egoten ziren bertan eta beti jendez beteta egoten ziren. Luistarrak zeintzuk ziren azaltzen du. Futboleko batzarrak-eta ere han hasi ziren. Futbol taldeak hainbat presidente izan ditu: Juan Luis Izagirre, Anton Agirre, botikaria...

Transkripzioa
- Eukiko dozu goguan, zu neskatilatxua ya. Txikiteo lekua be bazan edo?
- Bai, bai, bai. Txikituak, kafiak, merixendak eta dana, dana.
- Baina Zentro Katolikua gaztienekin eta aktibidadiak eitteko zan?
- Dana. Orduan Luistarrak egoten zien da, dana tabernia beteta egoten zan goxetan. Luistarrak goxeko xeitterdietan mezetara ta gero danak tabernara. Komedoria gauken.
- Luistarrak, hori da kongregaziñua.
- Bai, bai, zan gaztiendako moduko, danak. Beti beteta.
- Luistarrak dittuk solteruak. Osea ke euki leikek berrogei urte eta izen

luistarra izen. Gu por ejenplo ezin.
- Horrek mezaik eta emuten eben?
- Ez, ez, ez! Mutil gaztiak. Keba! Hillien behin...
- Neskak Hermanas de María zien moduan.
- Bai, holan izengo zan.
- Hillien behin Luistarren eguna. Eta Luistarrak dittuk el día 21 de junio pentsetan jatak diela. San Luis Gonzaga. Eta orduen ba faten gintzen elixara eta konfesau in biher. Eta illaria, danak elixara konfesetan.
- Bueno!
- Egun horretan ein biha zeben konfesau ta komulgau...
- Bezperan, zapatuen, zera, abadiek hiru ero lau...
- Konfesionarixotan da.
- Kolak.
- Konfesaitteko?
- Kolak.
- Eztie oingo kontuak.
- Ez, ez, ez.
- Oiñ etxak kolaik.
- Da han ba gero fubola ta hasi zan eta reunixuak eta danak ba hor egoten zien, Zentro Katolikuan egoten zien reunixo danak. Kopak eta danak hortxe hasi zien.
- Hortxe hasi zuan Atxabaleta. Atxabaleta hasi zuan el año cuarenta y seis.
- UDAkua be hortik?
- Bai, bai, baitta; dana.
- Zuek ya nobixo ziñien?
- Berandutxuao. Horte-hotxe. El año cuarenta y seis? Bai, bagintzen bai. Zuan don... abadia, jefia, luistarrena ta zuan, da fubolekua, zuan don Luis, zuan de Hondarrabi. Hondarrabixakua. Eta gura bok esangostat zein zan presidentia, fundadoria. Presidentia fundadoria izan zuan Juan Luis Eizagirre, andria oñatiarra jaukak.
- Bera atxabaletarra?
- Bai, Juan Luis atxabalatara ta andria oñatiarra. Baiña orduan fubola ipiñi zanian etxauan ezkonduta. Eta gero bera jarri zuan presidente eta in jittuan etxakixat zenbat urte, hamar urte ero. Eta gero bigarrena izen zuan Anton Agirre. Aiuntamentuan egon zuan sekretarixo. Eta gero haren ostian egon zuan botikarixua.
- Plazakua.
- Farmaziakua. Gero egon zan beste farmaziako bat Hondarribittik etorri zana, ha be egon zan.

6.42. Trenez inguruko jai guztietara

- **Hizlaria(k)**: Azkarretazabal Bengoa, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-041/006
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:12:51. **Bukatu**: 00:15:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- **Laburpena**: Bergarako jaietarako joan-etorria trenez egiten zuten. Eskoriatza, Arrasate eta Eibarko jaietara ere joaten zen. Espartinak apurtu arte egiten zuten jaietan dantza.

Transkripzioa
-Bergarara jaixetan?
-Jaixetan Bergara be joaten gintzen, da trenian joan da trenian etorri. Hamabixetan ero egoten zan trena ia hona etorteko. Baiña estaziñuen zainketan hantxe noiz etorren, zegatik hanka ein boskun aber zer. Gaur igual eztiez etorten gaztiak etxera, baiña orduen derrior joan bihar zintzen. Gaiñera Bergara ni behiñ ero joan naz bakarrik. Enostien itxitten.
-Ez zotsuen uzten etxian joaten,ala?
-Etxien, gaztiek gintzela ta Bergaraiño? Orduan urrin zan. Gaur Nueva Yorrera letxe Bergarako fiestetara ta joatie ta zan. Ze ez auen da.
-Jaixak hemen herrixan.
-Hemen herrixan, Eskoritzakuak bai, Eskoritzakua eta Mondrauekua bai, horreik bai.
Bergara ia urrintxo. Eta Eibarrera asko, Eibarrerarako fiesta guztietarako joaten gintzen. Baiña tiuak gauken.
-Tiuen etxera.
-Haretxen etxera. Oso ederto. Eibarren, bueno!, lagun haundixak euki gauen Eibarren.
-Eta hemen Aretxabaletan jaixetan zer egoten zan?
-Hemen asko gauzak. Ene! Herrikuek eitten euen jaixa, baiña jaixak onak. Osp ederto egoten zien, eitten euen jaixak pues, bueno!, danok goxien goxetik. Oingo moruen erretirau ez. Hamabixak inguruen ero bien, baiña bestela hasi dantzan eta zapatak apurtu... Zapatak pez, alpargatak. Holakotxe bizarraz urten arte hantxe dantzan. Oiñ ezta eitten dantzaik pe kalian be.
-Eta musikuak egoten ziran?
-Musikuak Mondrauekuak.
Semea: Gramolia be bai.
-Oso ederto. Filarmonikia batek jo ta bestiak hori ta horreik egoten zien, bueno! Egun guztia musikiaz eta dantziaz.

6.43. Otalora Zelaiko jaia

- **Hizlaria(k)**: Azkarretazabal Bengoa, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-041/007
- **Iraupena**: 0:03:26. **Hasi**: 00:15:01. **Bukatu**: 00:18:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena**: Soineko berria jantzita eta afari-meriendarekin joaten ziren Otalora Zelaiko jaira.

Transkripzioa
-Entzun dot zeozer Otalazelai jaia.
-Otalazelai, bai, bai, hori oso inportantia zan guretako.
Semea: Badakitzu nun dauen Otalazelai?
-Eztakit.
Semea: Otalazelai pantanora faten zanian, han zelan daukon Kaja Laboralek edifizio bat eta.
-Otala.
Semea: Ez zara egon sekula hor pantanuan?

-Politta da.
Semea: Han dauko hori, hago zelai bat hoixe zan Otalazelai. Han dau Otalako jefia. Otala zan Atxabaletako jauntxo bat.
-Hor zer egoten zan?
-Hor egoten zan, ba joaten gintzen afai-merixendiaz. Amak, anai-arreba danok, aitta be bai.
-Ze eruaten zan, zapata-kajan ero?
-Bai. Hori zapata-kajia eukenak "artículo de lujo" zan. Hori como un frigorífico zan.
-Zelan eruaten zan ba?
-Ba hori, kazuela baten. Kazuelan sartu ta zakuren baten ero nunbaitten. Oingo moruen plastikoik pe ez auen, e. Ezebez orduen. Baiña ederto pasau bai, hango filarmonikia ta. Eta gero afai ederra, afai-merixendia itten gauen guk. Bazkaixaz gutxi joaten zien. Aiuntamentua orduan egoten zan. Gero gu afai merixendiaz danok hantxe. Aittan erretratua hor daukotzu, Otalazelain?
Semea: Eztakitt.
-Ardau trague eitten zelan dauen. Eta oso ederto egoten gintzen. Otalazelaiko fiestia ederra. Eta hara joateko batia. Batia deiketan jakon orduan, soiñekua, estreiñetan gauen hara joateko.
-Soiñeko barrixa?
-Soiñeko barrixa, batia (...) ha hori eitten zan.
-Eta gero han zer zeuan, musikia?
-Filarmonikia. Hantxe. Gora ta bera dantzan hantxe ibiltten gintzen ederto.
-Hamabost urtekin? Hemezortzi?
-Bueno! Gu txiki-txikittatik joaten gintzen Otalazelaira. Aittaz da amaz hara.
-Oiñez, ezta?
-Oiñez! Orduen ez euen! Automoill bat ero pasetan bazan Atxabaletarra. (...) Beste bat dau ederto danokin kuadrillan dauena. Eztauketzu hor? Lenaukuen bat etorri jakun erretratue gure euela ta.
(...)
-Eztakizu ze ederto pasetan zan. Neuk pe daukot bat Eibarkuaz, Merzedesegaz hortxe dauz. Ekarri hona. Eibarkuak pe beti. Eta gu bizi gintzen han...

7. Politika

7.1. Gerra zibila hasi zeneko eguna

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/001
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena**: Gerra Zibila. Abertzaleak. 18-19 urte inguru zituen berak orduan. Gari-ebaten zeudela jaso zuten abisua. Otxandio aldean tiroak entzuten zituzten.

Transkripzioa
- Gerra kontuek edo, gerriek urten auenien akordetan zara?
- Bai, [akordetan] naz zela urten auen. [...] gerriek urten auenien, ba, nazionalistie eta gorrixek esaten gontsen guk. Besteik iñobez. Horretxek. Ta gero nazionalistak faten zien, ba, [komitie] esaten eben zala ta gero, ba, guardixak eitten, guardixak eitten-ta, [eitten] faten zien horra zerera. Zela esaten otsen horri? Iturrigorri edo esaten dotse, ba, hor badao, ba, Araotz aldien edo hor? Hara faten zien. Horra faten zien. Han arabarrak, ba, haik [...]. Han soldauek. Soldauek euken ha [ta hau] gorrixek. Soldauek Vittorixen, ta hor batzen zien.
- Nun ziñan zu orduan?
- Ni etxien, [hementxe] baserrixen.
- [...]
- Hemen ziñan orduan, ez? Oindiok etxian zeunden...
- Bai, hemeretzi edo hamazortzi urte edo [ez dakit zer] neuken ta gerriek urten auenien. Bai. Gu gari-ebaten gabitzen orduantxe. Urten auen juliuen hamazortzixen. Gu gari-ebaten ta ez gauen pentsaten... "Gerriak urten dabela" ta Otxandixo aldien tiruek zien. Entzuten gittun, baiño...
- A! entzun eitten zien, e?
- Bai, entzuten zien. Holaxen. Ta gero Vittorixara-ta be ezin fan; trena be zertu zan. Holaxe jentie.
- Ta soldauak sartu zienien be...
- Soldauek sartu zienien... soldauak sartu zien setienbrien. Bai. Soldauek sartu zienien, ba, goittik behera etorri zien danok tiroka "tou-tou-tou-tou", ta hemendik [...]. Hemen ez zeuken zerik, muniziñoik edo zerik eta hemenguek danak igesi fan zien zerera, Bilbo aldera. Ta gero Bilbo aldera fan zienien, han alto edo ein zeben ta, ba, orduen frente eitten [edo fan zien]. Tiruek [orduen...zittuen]. Ta gero... Hola ibili zien. Ta hola egon zien, ba, zerera arte, negu guztien egon. Ta handik Galartza aldetik edo handik... Galartza aldien gorrixek egon zien ta hemen bestiek. Negu guztien egon zien. Ta gero ni zerera, kriada fan nitzen, ta gero nik frentie ez nauen ikusi, baiña soldauek sartu zienien, ikusi nittuen zela sartu zien. Ta, ba, holaxe jentie. Gero, negu guztien egon zien. Handik tiruak eitten zittuen ta, ba, mutil bat, hamen gure auzokue, fabrikan lanian abillela hil zan, Luis. Ba, lanien fabrikan abillela, handik Galartza aldetik tiro jaurti ta azertau ta mutilla garbi [ein eben]. Ta, ba, holaxe [eitten] zittuen. Hor [Mantso] aldien be bai besten batzuk holaxe hil zittuen ta [...]. Ta gero, [frentie ekin zebenien], orduen gogor. Baiña, bestela, nazionalistok hemendik Bilbo aldera fan zien, ba, [...] barik. Ez zeken muniziñorik eta ezebez, [...] barik fan zien. Ta gero handik [ezin zeben] ta atzera frente eitten ekin zien hona. Holaxen.

7.2. Gerra kontuak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/002
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:03:40. **Bukatu**: 00:05:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena**: Frontea. Jatekorik ez. Ihes egiten zutenei garia kentzen zieten.

Transkripzioa
- Orduen, hemen nazionalistok eta gero Galartzan...
- Bai, bai. Galartza aldien gorrixek [egon zien]. Bai, esaten euen, bai. Handik, Urkiola aldetik, etorri zien. Gero, jana be ez auen, gero dana gastau zan... Artien be ekarten auen zerbait baiño gero atzera abanzia fan zanien, gero atzera janik ez zan egon. Garixek eta, ba, baserrixen garixe [joten, ekarten] zan, baiña gero maietza alleaten zanerako be errotak zarrau eitten zittuen eta, ba, baserrixen geuk be [sekretako] holako makinilla txiki bat zertu ta, ba, hareaz jo garixe. Ta, ba, baserrixen ogixe-ta eitten gittuen. Ta holaxe. Holaxe zan orduko gauzak.
- Baserrixen, behintzat, zer jana egongo zan, ez?
- Bai, baserrixen zer jana bai, baiña entregau ein biher izeten zan [garixe].
- Entregau zenbat eitten zan?
- Ba, [esaten ebena], zela toketan zan; baserrixe zelakue zan. Haixe. [Holaxe...]. Ta gero, gorrixek zerera fateko, azkenengo egunetan larri [ebitzenien] Bizkaira fateko, baserrittar [asko] garixa kendu otsen. Asko automobillaz etorri, [...eitten auen] kamiñue akabau barrixe ta, ba, garixek be eruen euen Bizkaia aldera. Larrixe jentiek. Ha txarra zan gerrie. "Buuu", barriro ez deilla etorri gerraik.

7.3. Errazionamenduaren nondik norakoak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/003
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:05:30. **Bukatu**: 00:08:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Ihes egin zutenak. Errazionamendua: azukrea; olioa. Errazionamendu kartila familiako. 3 urte inguruan bizi izan ziren horrela. Tabernatan ere ez zen ogirik egoten.

Transkripzioa
- Zeure etxekoik edo fan zan...
- Ez, ez.
- ...gerrara?
- Soldau ibili zien, baiñe ez zan iñor [hil].
- Baiña tokau xaten soldau fatia, ezta?
- Bai, soldau fatia.
- Alde be eingo eben batenbatzuk, ezta?
- E?
- Alde be...
- Bai, alde be askok. [Igesi ein auen]. Beste asko fan zan, ba, asko karlistak zienak Vittorixara pasau zien rekete. Holaxe, ahal dan moduen jentie.
- Ta gero gerra ostien razionamentua ta eitten zan...
- Gero razionamentuek. Ta gero, ba, enee... Azukarra ta dana razionau... kafie ta, hola, apurtxo bat emoten auen ta... Azukarra holako bal-bal-baltza

ta zatarra ta... Olixue be gusto bat txarraokue...! [Ze jan...]. Ta basarrixen txarrixa hiltten auen. Bat hiltteko [seketan] auen; besteik hiltteko ez auen emuten zerik. Ta, ba, baserrixan defendiduten zan. Kalien txarto. Dirue eukitte be ezin topau janik. Bai.
- Nun erosirik ez zan egongo...
- Nun erosirik ez, [...] falta.
- Ta razionamenturako kartillak izeten zien, ezta?
- Kartillatxo batzuk emuten [oskun].
- Pertsonako bat ala familixa...
- Familixako. Famelixako. Ta razionamentue... Batzuetan etorten zan hillebetera edo, ta hurrengo gutxiaora iguel ta, badakitzu? Razionamentuoi... Holaxe.
- Ta etxian zenbat lagun izan, hainbeste tokau?
- Bai, tokau eitten zan hainbeste. Gurien ez auen fumadoreik edo zerik, baiña kartillak euken fumadorientzako be. Bai, tabakuentzako be. Bai. Baiñe fumadoriak ez zienak be kartillia baeuken ta [beraik] hartu eitten auen, ta fumadoriek hartzen auen kartillioi ta ekartzen eben.
- Zenbat denpora iraun eben horrek?
- Horrek? Hiru urte uste dot aguentau auela. Gero, ba, gerrioi akabau zanien, gero handik laister, ogi zurixori ta argittu zan ta jentie pozik. Baiña orduen jentie kalien ta [mutillek eta, ba, zerien ezer ez], ta etxetik artue iguel eruten eben [han, merixendan] kalien jateko. Ez zan egoten ogirik eta, kalien! Tabernetan be ez zan egoten ogirik, [horixe esan] arren. [...] falta.

7.4. Gerra garaian, tabernan lanean

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/003
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:04:00. **Bukatu**: 00:05:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- **Laburpena**: Gerra garaian, baserrian ere egon zen. Tabernan lanean jarraitu zuten.

Transkripzioa
- Gero handik be baserrira fanda be egon gitzen. Egun bat ero, jai bat ero. Jaixe ez, astegune zan. Egon gitzen basarrira fanda be. Etxekoandrie kantsauta euan gerra asuntu horrekin eta zerakin; gero ba, han egon nitzen. Ezin zeikien tabernie itxitta euki han. Gero kalera etorri nitzen, etxera hara etorri, ta uezaba-ta. Neu eta beste mutilla be bai, tta. Atendiduteko han. Lana ein biher, bestela ezeuen amediduten tabernie zabaldu ez ezkero, ba, atia zabaldu eta gura dabena eitteko libre eukiko euen, rekisetako ero, edozer gauza.
- Orduan soldau asko ibiltten zan han?
- Bueno..., soldau mord... asko danetakuk. Bajeten zien batzuk, kanbixau, batzuk geraketan zien zerien, eta beste batzuk etorri. Han ibiltten zien hareik, eran-ta, jan-ta, gosiek etorten zienien bokadilluak ero zeozer. Bai-bai, orduen be ba zan, bazan zeozer orduen be.

7.5. Gerrako pasadizoak; hegazkinak, errazionamendua

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/005
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:06:40. **Bukatu**: 00:09:28
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Aireplanoak. Mutilak kanpandorrean zaintzen. Gorrien kanoikadak. Gerrako pasadizoak. Errazionamendua.

Transkripzioa
- Areoplanuek atozenian ta, kanpantorrian han egoten zien zain mutil gazte batzuk-eta. Gorrixenak datozela-ta, trotien zerera gordeten elixara. Ni ez nitzen fan beti, e, soldauek be ez zien faten. Esate euen: "Han ni? Barruun ni? Kanpuun ni?" Pasetan doiazela. Bardin dotsela eurei ta. Bertan sartu bonbie ta. Orduen ez zan igual iñor egongo baiña, bat elixara bastante aurrien, altara aurrien, apurtxo bat atzeratxuao, hantxe, sartu euen. Beste bat atien, aiuntamentu parien, hara botaten zittuen ba, zeretik, gorrixek, e, kaiñonazuok... Han sartu euen; atioi eta inguruok, e, zulo ederrak eitten zittuen, e.
- Ze eitten eben, zulua?
- Zuluak, haundixak. Atia apurtu ta lurrien be zulua. Elixan be bai, bankuok eta, zulua be bai ta.
- Non jausiko zan jakin ez.
- Gu ez gengozen urrin. Han goiko kalien be jausi zan beste bat. Harek be zulue galanta ein euen. Gero ikusi neuen. Ein euen zulo zar bat... Personan bat hil zala esan euen. Ate barruan euala jarritte edo, inbalidue edo zala apur bat ... Tirue edo, metraillie edo, zerakin, hil ein zala esan euen. Holaxe gerrakuek. Gerra asuntuen, e, tristia. Gero be denporaldixen ba, bata falta, bestie falta, razionamentuek-eta, egon zien makiña bat zer. Razionamentuek: azukarra-ta edo olixue edo, horreik hartzie gura euanai zerak emuten utsien, boniatuk edo. Ha derrior eruen biher, ekarritta eukien eruteko-ta. Geuk ez geuen jan, txarrixek-eta orduen bageuken, txarrixek jaten zittuen. Bai, bai. Zenbat halako gauza. Danak akordetan be ez da samurre oin batera hemen.

7.6. Gerra ostea: errazionamendua; errotak itxita

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/006
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:09:28. **Bukatu**: 00:12:17
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Baserria » Baserriko lanak » Garia
Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Gerra osteko egoera. Errazionamendua. Garia entregatu behar izaten zen. Errotak itxita.

Transkripzioa
- Eta baserriko jenerua eruan bihar eurei, ezta?
- Ba erun ein biher izete zan, e. Garixe erunda gaz, mordue, e. Burdikara garixak. Etxerako itxi ba gutxi. Razionamentue, honenbesteko bat itxi etxerako bakarrik-eta. Errotak be itxitta egon zien aiketa kartillak-ero zerak iñ arte-ta, gerra ostien egon zan, e, aiketa zera librau artien, e, ezin zertu, euki arren garixe etxien. Holako katxarro txiki bat ekarri euen, moliduteko makiñatxo bat, eta haregaz. Baiña apur bat lakartxue eitten euen.
- Eta emuten ez ebenak, zaindu eitten euen, zeiñek emuten eben eta zeintzuk ez?
- Zaindduko auien, e. Eskaketan e... Eurek pentsaten auena, ba, han hainbeste gari ereitten zala ero, eta handik kalkulau eurek. Ereitten dan dana ondo hartuko balitzake... Eta urteten daben bittartien, bedarrak eta gauzak eta zerak? Eta ereiñ eiñ arren, hartu igual ezta eitten, eta segun ze urte ero zer hazten dan. Bai, bai, burdikara garixak eruen-ta, etxien familixia galanta-ta, gero ogixoi ahal dan lekutik zuzendu bihar. Eta lelengokuen ez zan ogi bia dan modukoik egon be eitten, pelota batzuk arto lakar-lakarrakin einddakuek, hareik garratzak eta txarrak. (...). Arrasatetik, hor Arrasate panederixie euen, da hortik ekarte geuen guk ogixa.
- Artua esan dozu?
- Artue, e, artuekin eindakuek zien horrek bolok. Bola moduko batzuk.
- Razionamentuen emuten euen?
- Ez, bestela egoten zien saltzeko.
- Eta libre euen hori saltzeioi?
- Bai, salduko zittuen horreik. Errotan-ta, Ixinian-ta, urune ta, jentiek, e, ahal dan moduen.

7.7. Aretxabaletan hegazkin bat jausi zeneko kontua

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/012
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:19:20. **Bukatu**: 00:20:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena**: Aretxabaletan aireplano bat jausi zen.

Transkripzioa
- Bat Aretxabaletan jausi be in zan, estaziñotik apur bat harutzatxuau, zelaixan, Basabeko partian edo, Basabeko etxien terrenuek edo. Basabe esaten eutsien basarrixei batei hor behian, jausi ein zan, bai. Gero ondotik nik ondotik ez neban ikusi, ez nitzen fan ikusten ondotik, baiña gero han

gure etxetik behera fan ta han apur bat behera fan ezkero ikusten zan. [...]
- Zu Sallobenten zazela jausi zan? Sallobenten zazela?
- Bai.
- Bai e?
- Bai, bai, han etxien nenguela, jaixo nitzen lekuen, handi. Eta ez dot pentsetan ezer pasau jatenik. Ez dakit zer ziela esan euen be, ez dakit italianuek edo ez dakit zer. Han egon zan. Gero kendu euen, tapatuta edo, zertuta euen, ta zeozer [...].

7.8. Errazionamendua gerra ostean

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/024
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:26:10. **Bukatu**: 00:29:00
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerra osteko kontuak. Errazionamendua hartzera joan zireneko ipuina. Olioa, azukrea, arroza... izaten ziren errazionamenduan hartzen zirenak.

Transkripzioa
-Behin behintzat razionamentua hartzen fan da, hamalau, ezta. Esan i otsan, "zenbat lagun zare?", preguntau utsen, da "Hamalau" ta. "Hamalau zare bakarrik?"
-Razionamentuen persona bakotxeko olixo botilla bat emuten auen.
-Olixue litrue ero zera emuten jonen. Guri bastante toketan jakun. Lagun asko gintzen da, olixue.
-Zela gitzen asko, guri olixo asko toketan jakun. Baiña etxe batzutan bi eta bakarrik euzenak ba litro bi bakarrik eta hillebeteko, haregaz pasau bi zan.
-Bueno. Baiña asko zuan ha. Nik peskaderixako andra bat, peskie saltze auena zan, da harek erosi itten ostan niri eta pagetan usten han hartzen auen baiño doblie baiño gehixao. Eurek olixue gasteta auela, peskie jaten auela bastante ta. Olixue ta. Eurek bi lagun ero hiru ero zien bakarrik eta harek olixo gutxi. Eta guk olixue asko hartze gauen. Bai.
-Guk peskia biher.
-Eta gero oiluxua hari saldu.
-Razionamentuan olixua, azukarra eta...
-Arroza.
-Eta boniatuak?
-Horrek derrior emuten zittuenak zien. Bestiek hartze arren. Arroza, azukarra, olixue ta. Eztakit besteik e, garbantzue eztakit emuten auen be. Enaz akordetan ni garbantzuakin. Igual hartuko gauen epokan baten. Betik ez baiña.
-Eta horrek zenbat denpora iraun auen, razionamentuak?
-Buuf, bastante denporan egon zan razionamentue. Kartillie euki gauen, honek ez auen euki. Jexuxen arte ero kartillia.
-Jexuxen arte, bai. Ni behintzet akordetan naz.
-Migel zinkuentan jaixoko zan. Ba hor.
-Seillue kortxua euen zerien jo ta da!, kortxuaz marketan zittuen.
-Hasta el cuarenta y tantos. Cuarenta y siete ero hor izengo zan?

-Bai, gerria akabauta gero.
-Hasta el cuarenta y siete ero.
-Treintainuebian akabau zala gerrioi ero. Gero jarraittu auen razionamentuak apur bat gehixao ta. Halakon baten kendu zittuen da normalizau zanian, baiña.

7.9. Auzo-erromeriak; gerraosteko egoera

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-008/033
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:59:30. **Bukatu**: 01:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Auzoetako erromeriak. Gonbidautzak. Gerraostea: egoera gogorra etxeetan; jende askok gosea pasatzen zuen. Apotzagako jaiak. Oilaskoak hazten zituzten egun horretarako.

Transkripzioa
-Bestela auzoko erromeixak edo mendi-erromeixak zeintzuk izaten zian?
-Auzoko erromeixak? Auzoko erromeixetan eitten zan ba konbidautzaia eitten zan. Konbidautzaira faten zien, e... Orduan, gaiñera, gerra ostian eta, bueno, jentie fango zan orduan baitta ez dakit nora be, zera be, Pekiñera be jatiagatik. Bueno! Orduan ez euen. Ez zaukatzun ogirik, ez zaukatzun beste gauzaik, ez euan ezer, gosia bakarrik. Ez zaukatzun ezer. Basarrixetan zeozer, eta bertan be famelixa haundixak eozen lekuetan ba askotan garixak entregau ein bihar izeten zien, hartzen zaunetik honebestekon bat entregau ein bihar izeten zan, eta zer geraketan jatzun etxerako? Bueno! Eta orduan faten zan konbidau, ilusiñuekin faten zan. Jatiagatik. Ilusiñuekin. Gaur egunian ez daukotzu ilusiñoik be, hori jateko ilusiñuoi, zeatik egunero jaten dozu ondo eta ez daukatzu. Baiña orduen jatiagatik? Eneee! Orduen basarrire lanien kaletik etorten jatzun, basarrire lanien gizonak ogi apur bat jatiagatik, e. Haintxe basarrixan zeozer aunke sea gehitxuao egoten zan, eta hantxe jatiagatik gari ebaten eta lagun eitten. Eta gero betik ogitxon bat edo baba apurtxon bat edo zeozer emuten jaten famelixientzako ta harexengatik bakar-bakarrik, e, ez lana eittie gustetan jatelako, ezpadabe ze basarriko jentiek zeozer emuten utsenagatik etorten zien. Orduen jentiek gosie euken, gosia. Eta etorten zen jentiek konbidau pozik jaixetan. Guk San Migelak geuken, Apotzan San Migel zan, eta San Migelak geuken eta ba etorten zien aitten ta aman anai-arrebak; anaiek ez, zeatik bi anai bixek bizi zien auzo baten. Baiña arrebak euren gizonakin eta euren seme-alabakin eta. Bueno!, juntetan zan jente asko, jente asko. Baiña ez zan oingo moruen bazkaixak emuten, e. Orduan hiltten zan oillue; bat edo bi edo lokesea. Eta oillaskuek arduriekin hazi eitten zien etxien. Oillaskuek.
-Zerekin?
-Oillaskuek arduriakin.
-Eta zer da hori?
-Arduriekin. Zela esango dotsut? Aurretik jakindde datozena jaixek;

jaixetarako. Bai, arduriakin. Ez dakitzu ardurie zer dan?
-Bai, jakinda ia jaixak zetozela...
-Bai, arduriekin ba ordurako oillaskuek hazteko. Jaixetarako oillaskuek hazteko arduriakin ba ifini eitten zittuen denporaz oillaskuek.

7.10. Gerra garaiko egoera: baserria jendez beteta

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-012/016
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 00:26:30. **Bukatu**: 00:30:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Baserria nolakoa zen: logelak. Gerra garaian 25 lagun egon ziren baserrian bizitzen. Bonbardaketak Arrasaten. Kaletik etorritako hainbat familia hartu zituzten beraienean. Kaletik ekartzen zuten ogia, baba-lapikoa...

Transkripzioa
- Zelakua zan basarrixa?
- Habitaziñuak euken bost habitaziño. Eta beste bat behien, sotanuen-edo beste bat. Han beste bi uhe egoten zien; bestietatik kendutako uhe atzeratu batzuk, behintzet bi uhe... Etzitteko moduen egoten zien, e. Eta goixen bost habitaziño onak. Gerra denporan hogeta bost lagun juntau gintzen basarrixen, e. Arrasatetik familixa bat, Arriaran, pelotarixak izenikuak. Esnie erueten gutsen, eta suertau jaten, andrien aitte geixoik euen, ez dakit Zarautzen... Zarautzen ez. Deban edo, hospittalien, eta ha zainketan fan biher eben amak. Eta gero bonbak eta zerak botaten zittuen puntuen behin Arrasatera, Arrasaten jentie billurtute euen, eta ba aber etorriko zien, lekua eukiko... Eta hartu gittuen: aitta lau umegaz. Aitta faten zan lanera, hojalaterue zan, eta aitta faten zan lanera goxien eta illunkaran etorten zan. Baiña lau seme-alaba gurien egoten zien. Gero beste bi familixa kaletik, gure amen anaia, eta emaztia eta bi seme-alaba gurien; eta gero tia alarguna, ha be umetxo bategaz horraxe. Umetxuoi hil jakon, geldittu zan bakarrik baiña. Eta geu be kuadrillia. Geu be xei-zazpi seme-alaba, aittajauna-amandriak, hamaika lagun.
- Urte gogorrak, basarrixa haundixa izan arren?
- Bai. Eskerrak ogixa emuten oskuela kalian. Bost ogi horrek zerekuok, lau libra, edo ez dakit ze eukiten euen, ekarten gittuen egunero. Egunero ekarten gittuen Arrasatetik. Arrasaten euen panaderixia. Eta gero babie. Eta babie ugari geuken etxian. Baba-lapikokada bat ifiñi.
- Lapikokada haundixa.
- Haundixa, haundixa, haundixa, haundixa. Eta txarrixak-eta be, ba bi txarri hiltten gittuen-eta. Txarrikixe be bageuken eta bueno, ba haretxegaz. Eta gero patatie be bai. Patatie etxien hartzen geben, eta horrek gauza gehixok ba...
- Inguruko baserrixetan pasau zan kanpotik jentia etortzia?
- Bai, etxekon batzuk edo bai, baiña ez, gurien lako kuadrillaik ez. Eske edozein lekutan ezin leikien holakoik manteniru, e.

7.11. Errazionamendua

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/021
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:26:25. **Bukatu**: 00:26:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Errazionamendua gerraostean.

Transkripzioa
Razionamentua be nik ezautu nauen, eta danok illeran egoten gintzen. Gu neskatillak, eta amak bialketan gindduen holan egoten, eta gero bera faten zan, ia pentsaten auen honezkero aillegauko zan, porke tremendozko kolak egoten zien. Auen kartilla bat razionamentuena. Ha kartillie ez dau etxien, gure Dunik askotan esaten auen lehen, hak kartillak-eta zetan ez ete geuen gorde.

7.12. Otazu jauregia; administratzaile lana

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/022
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:26:55. **Bukatu**: 00:29:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939)
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Otazu jauregiaren (gaur egun udaletxea, ikus mapan) aldamenean zegoen etxetxoan bizi ziren zuazabeitiatarrak. Etxea nolakoa zen kontatzen du; etxejabearekin harremana nolakoa izan zen. Aitak administratzaile lana egiten zuen (baserrietako errentak kobratu, etab.). Tropa nazionalak sartu zirenean Aretxabaletan, Otazu jauregia kuartel bezala erabili zuten.

Transkripzioa
- Zuen etxia palaziuan aldamenekua zan. Zelakua zan?
- Bueno, zan... politta, etxie zan oso politta. Oin be holaxe dau, zabaldu kanpokaldetik atie, ezkerretik dau ate bat. Pare-parien beste bat. Han pare-parien eskillarak igo, eta egozen salatxo bat eta komuna. Orduen ez euen dutxaik eta ezer. Eta behien ezkerretik euen sukaldia, eta sukaldien onduen euen, sukaldien bertan, sukaldiek euken ate bi, bat ezkerretara, eta han egoten zan egurra, negurakue-ta. Eta bestia zabaldu, eta ortua, eta han euan oilotegi bat eta oilluak. Etxia politta zan.
- Eta jabiakin, Otazua horrekin, harremana zelakua zan?
- Harremanak oso onak. Porke gure aitta izan zan administradoria. Eta hemen basarri asko Atxabaletakuek horretxenak zien. Basarri asko, e. Eta urtien behin oillaskuek, garixa, horrek gauzok; errentia-ta. Gure aitte zan

administradoria deiketan jakona, harena.
- Eta zein zan bere eginkizuna? Basarriz basarri joan behar eban?
- Ez, ez. Basarrittarrak eurak etorten zien, e.
- Errentia pagatzera?
- Bai. Eta gero eurak etorten zien gauzak eruten etxera. Oillaskoik onenak, konejuek... Konejuek baiño gehixago esaten euen oillaskuek erueten ziela. Horrek pagetan euen, eta gero diruakin. Pageten euen errentia urtekua.
- Eta gero aittak eruan...
- Eta gero pasau zan, gerria etorri zan treintaseiskua, eta gure aitta... Atxabaletan bizi zanetik hartuemonak oso onak euken, eta orduen sartu zien tropa nazionalak, sartu zienien, herri askotan ein euena, hori etxioi hartu euen eurentzako, kuartel moduen.
- Zeuen etxia?
- Ez, palaziuoi. Eurek euazen denporan eurak egoteko hemen. Eta orduen joan zienien [...] kendu eiñ euen gure aitta administradoretik, gure aitta abertzalia zalako.

7.13. Hezkuntza gerraostean

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/027
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:42:40. **Bukatu**: 00:44:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Eskolan, arratsaldeko hiruretan egiten zuten otoitza. Goizean, Francoren aldeko hainbat kantu abesten zituzten.

Transkripzioa
-Jolasak eta kantuak eta eitten zenduezen orduan kalian edo kuadrillan edo?
-Holan kantuakin ez naz..., eskolan ikasittakuak, baiña haik danak... Atsaldeko hiruretan errezetan gauen: "Bendita sea la hora en que la Virgen del Pilar vino en carne mortal a Zaragoza. Sea por siempre bendita y alabada". Ya esta. Atsaldeko hiruretan hori ez dakigu zegatik eitten gauen. Iñok be ez zakigun zegatik eitten zan, baiña maistriak hoixe ipinitta.
-Eta goizian goiz eskolara sartzeko?
-Beratziretan.
-Beste kanturen bat edo?
-Han Viva Franco eta esto, e. Sartu aurretik aurrien danok illaran ifinitta zerakin joaten zan. "Por Dios, por la Patria y el Rey lucharon nuestros padres, por Dios, por la Patria y el Rey lucharemos nosotros también. Lan-laran-laran-laran..." Ya ahaztu jat, e. Danok holan ifinitta eta bandera españolia egoten zan han. Eta maistriak !Viva Franco!" "Viva!" "Arriba España!" "Arriba!". Hori esan eta barrura danok. Neskatillak alde baten, eskola baten, eta mutikuak beste ate batetik.
-"Cara al sol" eta halakorik?
-Bai. "Cara al sol con la camisa nueva que tú bordaste rojo ayer, volverán banderas victoriosas que no-no-no... Volverá a reir la primavera que por cielo tierra mar espera./ Arriba escuadras a vencer/ que España empieza a amanecer". Pentsaizu, oinddio goguan dauku. Oinddiokan goguen.

-Ondo sartutakua.
-Bai. Ondo gaiñera.
-Orduan goizian hori, eguardixan...
-Bai.
-Gelatik edo eskolatik urtetzeko zerbait kantatzen zan?
-Errezau segurutik. Ez naz akordetan baiña segurutik errezau eingo zan.

7.14. Errepublikaren aldarrikapena

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Timoteo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-016/007
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:12:50. **Bukatu**: 00:14:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Errepublikaren aldarrikapenaren inguruko gogoetak. Etxean zer entzuten zuten...

Transkripzioa
- “Catorce de abril”?
- Bai
- Ni akordetan naz horreikin gauzokin, akordetan naz, bai.
- Akordatzen zara?
- Bai, bai, bai.
- Orduan, beratzi urte eskas, ez?
- E?
- Beratzi urte eukiko zenduzela zuk, ez?
- Bai, bai, horreitxek, beratzi urte nik eukiko nittun ordun eta ondo akordetan naz ni orduko… Hemen baserrixetan ta, ba, pentsetan zan, ba, republikiorreaz pentsetan geuen hareik gizon edo pertsona txarrak ziela, haxe erakusten oskuen ta. Ba, dotriñan ta haxe erakusten oskuen ta. Baserrixetan gurasuek-eta be, ba, horreik, baserriko koittauak, koittauak, koittauak… bueno, itten euen bizimodua! Hareik txarrak ziela, ba, jente txarra zala, oseake, “dañino” edo, nik ez dakit, ba, zela esan leikien zala ta, kasi-kasik, republikanuen onduen pasetia, hola, erreparua edo [mutikuei] edo bilddurra, ba… geiztuak ziela esaten oskuen ta!
- Eta hori esaten zetsuen, zer, eskolan?
- Etxien-ta, etxien-ta emuten euen konsejua.
- Eta etxian, baiña, nun entzunda edo zeiñek esanda etxekueri?
- Etxien? Euren artien, beste aldameneko beziñon bateaz ta. Euren artien itten zittuen berbak. Pentsetan geuen, ba, haik personak … Hor goixen euen etxe mordotxo bat, orduentxe fabrikante batek eindde. Garai hartan kanpotik etorri zan hor Zamora aldetik jentia, hona lanera. Eta horreik danok zien, ba, ezkerrekaldekuak edo gehixenok zien. Ta kasi-kasik haik egozen lekutik pasetan, neuk, behintzet, erreparua eukitten neuen, geiztuak ziela esaten oskuen haik eta! Geiztuak ziela ta, ba, geiztuak ziela ta ez dakiu, ba, iñori hozka edo haginke edo zer itten otsen! Holaxe bizi gintzen ta.
- Eta zer zien zeuendako, gorrixak?

- Gorrixek, bai, gorrixek ... ta gorrixok, ba...
- Diabruak, ez?
- Diabruak gorrixok.

7.15. Errepublika garaia; Gerra Zibila

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Timoteo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-016/008
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:14:55. **Bukatu**: 00:18:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Errepublikaren aldarrikapenaren inguruko gogoetak; Alfonso XIII. Niceto Alcalá Zamora Aretxabaletara etorri zeneko kontuak. Gerra, politika kontuak. Euskadiko gobernua. Gerra Zibila Aretxabaletan. Baserri inguruan frontea egon zenean, erreketeak izan zituzten inguruan.

Transkripzioa
-Eta zer zien zuretako, gorrixak?
-Bai, gorrixek, gorrixek, gorrixek, bai gorrixek. Eta gorrixok ba...
-Diabruak, ez?
-Bai.
-Eta orduan Republikia proklamau zanian.
-Bai, erregioi fan zan, honen aittona "Alfonso trece" euen orduen eta hemendik ihes ein euen kanpora, eskubidiek kendu utsen eta fan zan. Eta gero ba Azaña-eta, Alcalá Zamora-eta. Eskolara-eta etorten jakun gobiernoko batzuk beti be bisitta bat eitten.
-Akordatzen jatzu zein etorri zan?
-Baten etorri zan Aniceto Alcalá Zamora. Baten etorri jakun. Nik ez dakit zer-edo, txalo-edo jo biherko guntsen, ez naz akordetan horregaz, baiña Aniceto Alcalá Zamora zala. Eta han egon zan eskolan maisua-eta, eta apur bat egon zan, eta zerbait esan oskun mutikuoi...
-Ez edozein, orduan, e.
-Horrek herri danetatik pasauko zien. Eukiko zittuen... Oin be faten da lehendakari edo presidentie edo gure dana, oin be holako zeretara beti be faten da norabait. Atzo be hor Estibalizen edo zeran be egon die agintarixok. Orduen be berdin. Artien Euzkadiko gobiernua [ez euan]. Euzkadiko gobiernue gu ez giñen enterau hemen. Hau ordurako nazionalak hartuta euken. Hau zoniau. Eta frentie hor euen, hor aurrekaldien bertan euen frentia; gorrixek han egozen, eta, klaro, Euska Herrixen gobiernue formau zan treintaiseisien azken aldera edo sietien edo gure dana. Eta guk hemetik Bilbo hartu artien-edo guk ez gekixen Euzkadiko gobiernua geukenik. Gero behintzet Elorrixora edo hor aillegau artien Bizkeire. Bueno, behintzet ni mutikue, nik ez nekixen. [Egozenak] jakiñien egongo zien orduen be, expertuek-edo, hola dabitzenak, "al tanto" dagozenak egongo zien jakiñien. Alkatiek-eta jakingo zittuen horrek gauzok igual. Hola korriente, gobiernua dagola Euzkadin, gobiernua dagola... Ni ez nintzen enterau Euzkadiko gobiernua dagonik hamabost urte [...].

-Orduan frentia Elorrixo aldera, Bizkaira aillegau zanian...
-Bai, orduen hasi zan zabalketan gauzioi. Elorrixora aillegau zienien, "uno de abril" hasi zan, hortxe, hementxe hasi zan frentie. Hor [gure] etxien [...], reketiek euki gittuen, naparrak, egun guztie. Oso ondo [portetan] zien gugaz, oso ondo [portetan] zien, ez [oskuen] bizimodu txarrik ezelakoik be emun [...]. Hola politikan... bai, nazionalistei botue emon eta bai, baiña besteik ez, PNVei botue emon [...].

7.16. Gerrako frontea Aretxabaleta inguruan

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-019/006
- **Iraupena**: 0:04:30. **Hasi**: 00:14:20. **Bukatu**: 00:18:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Soldaduak eta erreketeak Aretxabaletan. Frontea inguruan gelditu zen; alderdi bakoitza non egon zen gordeta. Frontea bertan egon zen bitartean, herriko bizimodua erabat aldatu zen; jende asko baserri aldera joan zen. Noiz hasi zen egoera aldatzen; frontea aurrera mugitzen...

Transkripzioa
-Herrixak hartuta geratu zienian, gauzak asko aldatuko ziren, ezta?
-Bueno!
-Kartzelia leku baten, eskolak be biharbada geratu egingo zien?
-Geratu ein zien, bai, bai. Eta hemen etorri zan, soldaduak egon zien, reketiak, hemetxe eskoletan, hemen ez euen kuartelik-eta, kuartela hor behian euen, ha guardazibillena zan; eta hemen geratu zan zera, frentia. Hemen geukan hor Murumendin, hor euzen zerak, gorrixak, esate baterako; hortxe euzen. Eta beherau be bai. Untzillan be bai, eta ixa, hemen esate jakona Artebixa, oin eztakit zela deiketan jakon, Artebixa; eta hemen setienbretik Santa Luzia egunerarte egon zian hor. Guk lanian eitten geuen, eta langille bat hil zan tiro batekin, hortitxik jaurtitta, oso urrian euzen.
-Orduan fabrikia ez zan geratu.
-Ez.
-Lanian jarraittu zenduen.
-Bai. Zelabaitt. Gero geratu zan.
-Hori lelengoko hori eztakitt zenbat denpora izengo zan. Setienbre, oktubre, nobienbre, dicienbre... Eta eneron ekin zan bonbardeo bat; bonbardeau euen Atxabaleta, eta ixa egunero bobardeaten euen, egun bittik behin ero. Eta orduen gu juan giñen Koruetara; jente asko juan zan hemendik, ixa egunero bonbardeaten euen. Eta orduen fabrikie, hiru ero lau kaiñonazo sartu zittuen, eta orduen itxi ein zan.
-Kaiñonazuak eta bonbardeuak zeiñen aldetik, nazionalak?
-Ez.
-Gorrixak?
-Bai. Hemen soldauak euzen Apotzan; Apotza baiño goratxua dao menditxo bat, Lata (?), eta aurrerau dao Asentzio, eta Asentzion gorrixak euzen eta

Latan soldauak, Apotzan be bai, Untzillan gorrixak eozen, Galartzan reketiak eta aurrekaldian gorrixak. Eta Usittan reketiak eta Artian bestiak. Eta Santa Luzia egunian bota zittuen Usitta gaiñetik, horrek bota zittuen. Eske euzen, herri gaiñian euzen, eta ha kendu eiñ euen. Egon zan hortxe, konbate bat egon zan, eta orduantxe hil zien bi, gaiñera mondrauetarrak ziran.
-Orduan esan dozu jentia ihesi joan zala bonbardeuak hasi zienian?
-Bai, Koruetara eta, Azatzara eta, basarrixetara.
-Ihesi, baiña gertuan.
-Bai, bai. Kalian ez egotearren, pukat, e… Eta egon giñen, hiru hillabete ero egon giñen hor.
-Hemendik ihesi urten eta basarriren baten geratzen zan jentia?
-Bai, basarri baten.
-Basarrittarrak atia zabalik jentia hartzeko?
-Bai, bai. Hemen Azatzan-eta Koruetan-eta, hor Arientzan-eta, basarri gehixen baten euan jentia, kalekua. Hori izen zan enero, febrero, marzo, hiru hillebete. Abrillian, lelengoko abrillian ekin zan ofensibia hemendik Bilbo aldera, eta orduan, e…
-Puxka bat lasaittu.
-Bai.

7.17. Gerra zibila Aretxabaletan

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-019/007
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:18:50. **Bukatu**: 00:20:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Francok herri bat hartzen zuen bakoitzean, manifestazioak egiten ziren kaleetan. Soldaduak herrian.

Transkripzioa
-Eta zuk gogoratzen dozu nazionalak herri bat hartzen zebenian manifestaziñuak edo prozeziñuak-edo eitten zittuen? Edo banderak leihoetan ipini bihar?
-Bai. Hemen eitten zan, "La toma de Bilbao", eta raa! manifestaziñua, ra, ra, ra… Baiña banderak-eta, guk behintzet etxien banderaik ez geuen ifiñi be eitten.
-Toki batzuetan, itxuria, derrigortu egitten zeben. Baiña manifestaziñua?
-Bai. Bai, hori eitten zan. Eitten zan kalien goixen… eta kale barreneraiño, tras, tras, tras..! "Viva España!" eta "boo" eta. Baiña ez euen soldaurik, paisanuek zien.
-Txapel gorrixa eruan bihar izaten zeban jentiak, umiak edo?
-Bai. Neuk be eruen neuen aste baten exo, baiña gehixao ez neuen eruen.
-Orduan, soldauak aurrera joan zirenian, lasai geratu zan herrixa?
-Bai. Gaiñera hemen soldauek egon ziran denpora gutxixan. Hoixe, hiru hillabete. Gehixao. Setienbrian sartu ziran, eta egon ziran abrillera arte. Maristetan-eta, hemen eskoletan-eta.

7.18. Gerra zibila Aretxabaletan

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-019/008
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:20:35. **Bukatu**: 00:22:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Frontea Aretxabaleta inguruan; toponimia. Soldaduak, milizianoak. Errepublikaren aldeko soldaduen arteko deskoordinazioa.

Transkripzioa
-Aitttatu dozu toki bat, ba zela zeren frentian kolokauta, gorrixak alde baten, Asentzio, Lata… eta Usitte?
-Usitta, bai, Usitta. Usitta da auzo bat hementxe goixen dauana. Eta Usitta gaiñian euzen bestiak, gorrixak.
-Eta gorrixak, esaten dabenez, oso preparaziño gutxikin.
-Nire ustez bai.
-Arma gutxi; eurak be diziplina gutxi.
-Beitu. Preparaziño gutxi; euzen gudarixak, euzen ejército, euzen milicianos de tal, asturianuak, komunistak, eta ez zien entenditzen euren artian… Aber ze pasau zan Billarrealen? Bata bestiai joten azkenian. Bai ba.
-Ez euken ez preparaziño, ez koordinaziño?
-Koordinaziño gutxi. Egon zan "La Batalla de Villareal", joe, famosue izen zan, eta batak handik sartu biher dala, bestetik, bestiak eztakit zer, eta azkenien bata bestiai, eurak euren artian, alkarrekin.

7.19. Leandra eta ama "gorriekin" eta aita eta anaia erreketeekin

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-027/002
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:01:10. **Bukatu**: 00:06:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: 13 urte zituen gerra hasi zenean. Aita eta anaia ganadua eramatera joan ziren eta bera etxean geratu zen amarekin. "Gorriak" iritsi ziren baserrira eta beraiekin eraman zituzten Leandra eta ama; aita eta anaia, berriz, erreketeekin geratu ziren eta lau hilabetean ez zuten elkarren berririk izan. Ama eta biak etxera itzuli zirenean, etxea hutsik topatu zuten. Arrasatera eta Gasteizera joan behar izan zuten deklaratzera hiru egunetan; eta, handik etxeratu zirenean, anaia eta aita aurkitu zituzten etxean. Haiek Zuatzubizkar baserrian egonak ziren morroi garai horretan.

Transkripzioa
- Gerratien hamahiru urte neuken, eta hamahiru urtekin ba San Andres

egun baten aitte ta nire anaie fan zien txahala eruten zeera, horra Mondrauera, ta geldittu gitzen ama ta ni zerien, etxien, ardixekin eta ganauekin, ta etorri jakun bixen bittartien zerak, reketiak geldittu zien..., gorrixek lelengo aurrera fan zien eta gero atzera bueltan etorri zien eta gorrixek eruen gindduen gu aurrera, ta reketiek geldittu zien atzien ta gure aitte ta anaie reketietan geldittu zien ta gu gorrixetara eruen gindduen. Ta lau hillebetien arkarren barririk ez geuen /ezkeuen/ jakin, nun eozen. Bata egon zien zerien, hor, e, Zuetzun eta Zuetzubixkarren kriau egon zien. Ta gu barriz ahal dan lekuen, nik ardirik saltzeik ez neuen nahi, ta berrogeta bi ardi kendu oskuen zerak. Horreik hogeta bi ardi, eta bestiek, gorrixek beste hainbeste. Baiñe reketiek ez oskuen pagatzen, eta gorrixek euren diruakin pagau eitten zeuen, bai. Haren diruakin ba tia faten zan Durangora kipulie saltzen eta zerakin, ba gauza batzuk ekarri itten gittuen. Ta halakotxe gauzatxo batzuk bagauken. Baiña gero zerien zertu zienien atzera lau hillebete pasau zien eta, ba atzera reketiek aurrera in zeuen. Ta gero guk aurrera fateik ez geun /ezkeun/ nahi, eta Santa Agedako behera etorri gitzen, gizon batek lagundu oskun, ta zeetik gora, hortik Santa Agedatik gora Mendiguengo zeera, eta pagadi oste batera. Akordau zien gu bagoiazela etxe aldera. Geure etxe aldera fan gitzen eta iñor ez euen etxian, eta ez gekigun /ezkekigun/ nun zien eta nun eozen be ez anaie ta aitte. Ta fan gitzen, auzoko etxe batera fan zan ama, ta amak esan oskun, amai esan utsen ba "Zuetzun eta Zuetzubizkarren daz zure zera ta". Eta hori esan dauen hori, rekete txatxar hori, auzokua, eta kalien ikusi zittuen aitte ta ama junto berbetan eta: "Berbakin hemen kontuz gero, e!, hemen andrie izen gizona izen ezta zertuko ta, begiratuko ta". Ta zerien, hurrengo egunien, zertu gindduen, eruen gindduen Mondrauera orduen gabien, eta ni negarrez, ardixek Mendigurengo neska-mutillekin laga gittuen geukenak, ekarri gittuen berrogeta bi ardi. Ekarri gittuen larogetakatik, batak berrogei ta bestiek beste berrogei kendu oskuen eta ba geldittu zien berrogeta bi ardi bakarrik. Hareik hareikin neska-mutillekin eta aitta-amak, aitte ta anaie etorri barik oinddio. Ta etxien ez euen iñor ta gu eruen gindduen zeera, Mondrauera, ta Mondrauen deklaraziñuek ein eta Bitorixara eruen gindduen. Nik eruen neuen pelajie: abarka-galtzak (je-je-je!), perkalezko soiñeko bat, jersixe ez dakit zelakue. Ta ofizial batek esan usten: "pa qué te han traído a tí aquí?", haretxek esan usten eta. Nik zer esango nutsen, erderaik be ez nekixen. Eta euskeraz ez dakit zer nekixen baiña erderaik ez nekixen. Ta atzera hurrengo egunien bueltan in ta Mondrauera eruen ta atzera be Mondrauen deklaraziñuek hartu eta atzera autobuskarie zeera, Bitorixara. Gabien atzera etxera. Hiru egun in gittuen han gora ta behera, ta etxera eruen gindduenien zera, aitte ta ama berbetan, eta zer horrek, agure txatxar horrek esaten eozen nun eozen, ta: "kontuz, gero, andrie izen gizona izen hemen ez da apartauko ta". Ta ba jakin in biher zeuen nun eozen, ta jakin euenien ba zeera. Handik bueltie in geuenien etxera etortzeko hirugarren egunien, eta nire estuasune, nik negar itten neuen, ardixek eruengo oskuela atzera ta, hainbeste denporan zainddu lau hillabetien eta, ta negar. Eta zeatik itten ete neban negar, zerien, Mondraueko zerien eta. Negar ba ardixegaittik.

7.20. Gerra-garaian non egon ziren; itzultzean etxea hutsik

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-027/003
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:06:10. **Bukatu**: 00:09:00

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Etxera itzuli zirenean etxea hutsik aurkitu zuten, ez abere, ez ohe... Lastoa bakarrik aurkitu zuten. Etxetik alde egin zutenean, lehenbizi Aramaioko Untzilla auzoan egon ziren, izebarenean; baina gero Garagartza auzora joan ziren ardiengatik. Gorriek -tartean euren osabak- aurrera egin zuten Durango aldera, baina beraiek ez zuten aurrera joateko gogorik eta orduantxe itzuli ziren etxera. Bien bitartean, aita eta anaia Aretxabaletako Zuatzubizkar baserrian egon ziren morroi.

Transkripzioa
-Aillegau gitzen etxera ta aitta ta anaioi han eozen. Ezer ez euen etxien, ez silla bat, ez koltxoi bat, ez ohe bat, ezebe ez euen. Fan gitzen lelengoko gauen zera, hori su-artie izeten dana, ez dakit zuk jakingo dozun, su artie, eta han bota lastue ta zera ta hantxe ein gauen lo. Ta ez euan, ohe bat ez euan, koltxoi bat ez euan, ezebe ez euan.
-Zuen etxian hori, ezta?
-Bai, gure etxian, basarrixen. Geure basarrixen, Atxabaletakuan.
-Bueltau eta topau zenduen hutsik.
-Hutsik, hutsik. Beteta laga gauen, txarrixe be ez dakit zenbat arruakua han laga gauen baiña. Ezer, ezer barik topau gauen. Lastue bakarrik. Ezer, ezer barik.
-Eta zuek denpora horretan nun egon ziñazien?
-Gu egon gitzen tian etxien. Lelengo Suiñaan (Suña, Suinaga), Untzilleko Suiñaan egon gitzen. Eta gero ardixek gauken, eta ardixek ba jatekue biher zauen billotsa jaixo biher zauen, eta tian zeera fan gitzen, Garagartzako zer batera, goiko auzoune batera, ta beste etxe batera, eta Santa Ageda parteko etxe batera. Hangotxe gizon batek ekartzen oskun, astien-astien arto bat itten auen eta arto haundi bat ekarten oskun eta Parraixako..., Parraixan egon gitzen etxe zer baten, hantxe geuken ardixendako lekue, berrogei-berrogeta bi ardindako, eta orduen gabien esan euen Tio Garagartzakuak gure irixak, eta: "Aurrera, mutillak!" Eta guk aurrera fateko gogoik ez gauken, Durango aldera fan zien gure irixekin gure tio, eta gu(k) erretirau gitzen zeera, horra etxera, eta hango etxeko gizonak lagundu oskun goittik behera, eta esan dotena, ba akordau zien zerien, goiko tontorrien ezkutatzen giñoiazela ardixokin, akordau zien horrek gorrixok zeetik, bestekaldeko partetik handik tiroka hasi jakun eta ezkutau gitzen justo-justuan. Ta bestela geu be aurrera fateko, eta guk aurrera fateko gogoik ez gauken /ezkauken/, aitte ta anaie hemendikaldien gauken eta. Eta gero holakotxe kontuek.
-Orduan zu egon ziñan amakin?
-Ni amakin.
-Eta aitta ta anaia?
-Aitta ta anaie kriau zerien, Aretxabaletako Zuatzubizkar eta zerien egon zien.

7.21. Berak gobernatzen zituen etxeko abereak

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-027/007
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:17:55. **Bukatu**: 00:19:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Umetan ardizain ibiltzen zen. 80 ardi inguru izaten zituzten, baina gerra-denboran bai erreketeek eta bai "gorriek" ardiak kendu zizkieten eta 42 ardirekin geratu ziren. Berak zaintzen zituen abereak, asko gustatzen zitzaion lan hori. Ganaduari jaten ematera ere bera joaten zen.

Transkripzioa
-Eta esan dozu ardizain ibiltzen zinala, ezta?
-Bai.
-Ardi asko zeukazuen, ezta?
-Bai ardi asko gauken. Larogei ardi edo gauken, baiña kendu oskuen reketiek hogei kendu oskuen, ta gorrixek beste hogei. Eta geldittu jakun ba beste... berrogeta bi ekarri gittuen etxera. Nik ardixak saltzeik ez neuen nahi. Nik gure nutsen zerai, orduan horrei, bueno!, ganauei, bueno! Ein biharrez eitten nuen, tian etxien gengozen, Suiñan egon gintzenien ez, han beti ondo. Andrazartxo bat zan ta betik kafie gaur emungo dotsuet baiña bixar ez, gastau jat eta. Baiñe betik kafia. Goxien-goxien kafie. Gero handik ardixendako jana eitten fan gitzen ba tian etxera, eta ganauekin be bai, eta eguardixen-eguardixen fan biher izeten gauen, txorroki-txortie eruen bihar izeten gauen ganauendako. Bixkarrien hartu eta gero solora arbi etaratzera. Arbixe janda baeuen ganauak edo, lengusiñiek esaten usten: "Zuk zera in bihozu, hori jandakuoi etara". "Joño, heuk zegatik ez don etara biher", nik. "Heuk zeatik ez don etara bihar? Heuk etaratzen bon, nik etarako jonat". Holan hasarretu eitten gitzen bixok. "Nik amai esango jotsanat". "Esaixon nahi bon!". Eta holan ibiltzen gintzen. Eta harek amai esaten utsen eta niri hasarre eitten usten tiak, baiña "allá películas". Eta gero etortzen gintzen. Baiña beti kargauta etorri bihar izeten gitzen ganauendako zeozer jana ekarri bihar izeten gauen.

7.22. Gerra denboran gizon bat etxean ezkutuan; aita fusilatzetik libratu zuten mutil batzuek.

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-027/030
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:53:50. **Bukatu**: 00:56:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Gerra garaian, gizon bat, Akiso, izan zuten ezkutatuta etxean eta bere aita fusilatzera eraman zuten; gorrien aldeko Kale ondoko eta Malkorreko mutil batzuek, ordea, esan zuten ez fusilatzeko, eta bizirik jarraitu zuen. Bizi guztirako izan dute mutil horiekiko esker

ona. Etxean ezkutuan izan zuten gizonari buruz hitz egiten du, hiru-lau egunez izan zuten gordeta eta erreketeak bere bila aritu ziren Aretxabaletan.

Transkripzioa
-Han Akixo gordeta euki geuen lekue gerratien, zerien. Ha alde batekue zan eta gure aitte be haren aldekue, ta esan utsen: "mutillak, ointxe ibilli bizkor". Eta gure aitte eruen zeuen afusillatzen zerak. Berak, basarri ondoko, eurai esan zerien ibiltzeko, eta formalien esan eta aitta eruen zeuen afusillatzen gurien. Ta mutil batzuek, hantxe zereko kale ondoko mutil batzuek, "Zer zertu dozue?", Malkorreko mutillek eta ez dakit zeiñek. "Hori ez afusillau -gorrixen aldekuek- Hori ez afusillau". Adios ez dakit noiz artien, behintzet zerien, zeruen ikusi artien edo esanda fan zan aittori. Eta, ene, hor dator buelta eindde zerien eta, "Ene, zeiñek salbau zaittu", eta Malkorreko mutillek eta ez dakit zein mutillek zertu zauela, salbau zauela. Eta ha ez zauen ahaztute eukitzen gure aittak.
-Orduan justu-justuan librau zan afusillatzetik.
-Bai. Bera mesede eitten fan eta esan mutillei zer zertuko otsen, eta gero bera zertu, bera bialdu. Bueno!
-Eta zela euki zenduen hori ezkutauta basarrixan? [...]
-Bai, Akixo gordeta euki gauen. Ha ez dakitt zeren zegaittik, zeren aldekua zan, ta hak hanka ein zeuen etxetik eta gero ba haraxe etorri ta haintxe gordeta euki gauen, ez dakit zenbat denboran egon zan, eta zerien. Haintxe zer onduan, beheko iputeiko ate onduan eta ha iputeiko atie haintxe dao oindio, eta Akixo haintxe gordeta euki gauen. Hiru egunien edo lauan euki gauen. Eta Akixona dao kalien, Atxabaletako kalien. Ta haren bille ibilli zien. Oiñ eztakitt reketiek ibilliko zien. Reketiek uste dot ibilliko ziela haren billa. Horretxek, lehen esan doten agure txatxar horren partekuok ibilliko zien, eta horretxeaittik gordeta egon zan ha. Ta gero inok zertu barik zertu zan.
.Ez zan ezer pasau.
-Bai. Librau zanien ya esta.

7.23. Agure txatxarra, auzoko erreketea

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-027/031
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:56:52. **Bukatu**: 00:59:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- **Laburpena**: "Agure txatxarra" auzoko bat zen; bera zen areriorik handiena, erreketea zen. Batez ere, umeendako zen txarra. Kalean zehar joandakoan ere, tiroak botatzen zituen. Auzotar askok joan behar izan zuten behin baino gehiagotan Gasteizera deklaratzera.

Transkripzioa
-Eta esan dozun agure txatxar hori bertakua zan, herrikua?
-Auzokue, auzokue, auzokue. Bai, bai, auzuen egon ez balitz hobe.
-Orduan auzuan zekazuen kontrarixorik haundiña.
-Bueno! Umiendako be bai txarra, e. Ha ez zan zeandako bakarrik,

umiendako be bai. Umiendako be txarra-txarra ha, eta andriendako ez dakit zelakua izengo zan, baiña umiendako be txarra. Umiek be aurrien erabilzen zittuen harek. Harek zein ez aurrien!
-Bera reketia zan?
-Osua.
-Eta zer eitten zeban, jefe?
-Jefe, nehikue jefe. Orduen jefe eitteko ez zan asko biher eta. Jefe, nahikue jefe.
-Lehen esan dozu etxera bueltan zoiazela tiruak-eta bota zotsuela eta. Bestela herrixan tiruak eta sentitzen zian?
-Bai. Bueltan fan gitzenien kalien aitte ta ama berbetan, nun egon zien eta zer eitteko ta. Berbetan ikusi zittuenien, e, "kontuz berbakin, e, gizona izen andria izen ez da errespetauko ta". Ta zeera fan gitzen, auzoko zer batera ta ba haintxe ta haintxe daoz. Abixau harek, neskak, abixau otsen eta ba zitie ifiñi otsen aittei amakin egoteko, eta gero hartute zeera, Mondrauera, horra bialdu gindduen deklaraziñuek eitten. Eta deklaraziñuek eraiñ han eta ardixok laga gittuen guk, esan dotena, zerien, soluen bakar-bakarrik, eta ni negar eta negar zerien. eta zegatik itten ete neuen negar, eta ardixek falta nittuelako. Ta zeera, Bitorixara. Bi buelta erain oskuen Bitorixara, e! Ez guri bakarrik, autobuskarie, e, autobuskarie. Eta bueltan etorritta be agurie haxe. Eta hildde infernutik urtenda be oinddio, oinddio hor ibilliko don ha bueltaka zerien, bueltaka han ibilliko don. Andriendako be bai ha. Andriendako eta umiendako be bai.

7.24. Jatekoa urri, gerraostean

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-028/012
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:20:05. **Bukatu**: 00:21:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Jaten zutena: normalean babarruna, jaietan garbantzua. Porru-patatak, azak... Ezkondu ostean gosetea izan zen. Errazionamendua. Jatekoa eskas, etxea ordaindu behar...

Transkripzioa
-Zer jaten zenduen normalian?
-Normalien babie gehixena. Gehixena babie. Garbatzua jaixetan eta holan.
-Espeziala haura?
-Bai. Bestela babie gehixen. Eta porru-patatak eta azak be bai. Azak etxien eitten zien eta azie be bai jaten zan. Gero ezkondu ostien gogorraua izen zan, orduen ezkondu ostien zera eon zan eta.
-Gosetia?
-Bai. Apur bat gogortxuao izen zan guretako.
-Razionamentua-ta egongo zan, ezta, gero gerraostian?
-Ezkon ostien, e, ño!, jan eskasisidadie (sic) ta, dirue be eskasidadian eta, etxie pagau in bihar-eta rentan-eta.

7.25. Izena berreskuratu berri

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Miren Gaztelu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-029/002
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:02:43. **Bukatu**: 00:05:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Batxilergoa hasteko jaiotza agiriaren bila joan zenean, bere jaiotza izena ezabatuta ikusi zuen erregistro zibilean. Nahasgarria suertatzen zitzaion bi izenekin bizitzea eta azkenean lortu zuen bere jatorrizko izena bazter guztietan baliatzea.

Transkripzioa
-Eta eitten zanien zera batxillergo ingresua eitteko papelak atara biharra, “Acta de nacimiento” esaten dana, joan nintzen aiuntamentura eta eskatu nauen “el acta de nacimiento” ba biha nauela ingresue eitteko. Eta konturatu nintzen liburuen, zereko liburuak, “acta de nacimiento” horrek liburuek dazen aiuntamentuen, juzgauen, klaro, juzgaua aiuntamentuen, konturatu nintzen euala nire izena alde batetik arrai bat eindda eta gaiñien Maria del Castillo ifiñitta, eta juan nintzen etxera esanaz: “Ama, nire izena dao alde batetik bestera arrai batekin zera, tatxauta, borrauta, eta gaiñien Maria del Castillo ifiñitta.” “Ba ume, oiñ holaxen die gauzak”. Eta hainbeste urtietan egon naz izen horregaz Maria Castillo ta Maria Castillo. Baiña etorten jaten karta batzuk Miren izenakin, beste batzuk Maria Castillo izenakin, eta zan esaten dana “un cacao”, eta galdetu nauen, galdetu nauen notarixuai esanaz: “Niri halaxe eta holaxe etorten jat karta batzuk horrela ta beste batzuk beste izen batekin. Zer in bihot, edo hona ifiñi edo bestealdera jarraitu?” Eta notarixuan erantzuna izen zan: “Es traducción directa?”. “Pues sí. Nuestra Señora del Castillo, Miren Gaztelu. Sí, es traducción directa”. “Pues entonces no se preocupe usted”. Eta hor pasau zan. Baiña gero Madrillera ta bialdu bihar izaten zan juzgautik papelak izena aldaketia gure bazauen. Eta hainbeste denpora egon naz, emuten ostan amorro bat, karnetien beti Maria Castillo, gaiñera zarata bat belarrixen, nere artien “nire aitta balego entzuten, nire aitta balego entzuten, berak Gatzako Ama Birjiñin izena ifini ta”. Bueno, fan nintzen zerera aiuntamentura esanaz: “niri hauxe eta hauxe pasetan jat, izena aldaketie gura dot.” “A ba oiñ oso errexa dozu, juan zaitte zerera, sekretarixuagana eta berehala eingotsue”. Eta horrelaxe.

7.26. Bere izen "exotikoa"

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Miren Gaztelu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-029/003
- **Iraupena**: 0:04:13. **Hasi**: 00:05:27. **Bukatu**: 00:09:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Euskara eta politika

- **Laburpena**: Erregistroan 1939ko otsailaren bederatziko datarekin, "tachado el nombre exótico" jartzen zuela ikusi zuen. "María del Castillo" deitzen ziotenean, sutu egiten zen. Miren Gaztelu izena duen emakume bakarra bera dela uste du.

Transkripzioa
-Hemen sello bai ifintten dau baiña fetxarik ez dakar. Noiz izen zan, a bai, “el treinta de julio del noventa y siete”. Horixe ifintten dau. ETAn diren moruen, gerra aurreko euskerazko izena dauken dan-danak hauxe ifiñiko daue, e. “Tachado nombre exótico”, “el nueve del dos de mil novecientos treinta y nueve”. “Tachado nombre exótico”. Hori…, tiene lo suyo, hori ez da edozer gauza, “nombre exótico”. Ba bai, halaxe pasau zan, eta oin dana, karneta be aldatu nauen, eruen hau zeren kopixia, papel honen kopixia eruen nauen eta ez nauen euki oztopoik ezelakoik be izena aldaketako.
-(Zela deitzen dotsue?)
-Miren, danak Miren, bakarrik eskolan Maria del Castillo eta Maria Castillo. Eta Maria Castillo… Uf!, eta gaiñera emuten usten, sua emuten usten ze orduantxe hasi zan ba botaziñuak eta gauzak eta lelengoko aldiz juan nintzenien zera, botue emutera, mahiko presidentia dauen zerak nun esaten dauen: Maria del Castillo Urreta Zubia. Esan nutsan: “Hara, botue botateko dalako, bestela vuelta”, horretxegatik bakarrik berriro etxera juango nintzeke, baiña botua bota bihotelako, bestela buelta etxera juango nintzeke. Haretxek emuten usten, sue emuten usten benetan, Maria del Castillo. Ez, Miren Gaztelu naiz eta gaiñera hoixe, uste dot neu bakarra nazela, eta dana da aitta hementxe Maulandakua zelan zan berak ba Gatzako Ama Birjiñia eta Gatzako Ama Birjiñian izena ifinttia gure ebalako. Eta neuri tokauko jaten eta kitto. Eta oin ez dauka beste iñok. Nere seme-alabak ez dauke holako izenik eta ifiñi be ez dutsie eingo iñori.
-Auskalo.
-Ba ez dot uste, ez jakie larregi gustetan, baiña historixa luzia da baiña berezia da ze nire gerra aurreko dan-danak holaxe eukiko daue: “Cambiado el nombre exótico”. Hori asmau ein biha da, e. Nik ez dakit beste toki batzutan ze ifiñiko dabien; hemen behintzat hemen Atxabaletako aiuntamientuan edo udaletxien, aiuntamientu "registro civil", hor behintzat “nombre exótico”. Hori, “tiene su miga”.
-(…)
-Bai, toki guztietan. Zela eskatuko zauen hori, ezta, ezta… Kalien-ta Miren-ta zerak deittu bai, baiña. Niri ez jat sekule ezer pasau, baiña nik badakit nire lagunak, Elissabet izena dauko, eta amak balkoittik Elisabet deittu otselako, bueno!, iñundienak ein utsien amai. "Así es que"; niri, nik ez dot sekula, eta beste aizta bat daukat Aintzane izena daukana, harek be, bizi guztien guk Aintzane esan dotsau. Oin, eskolan eta toki guztietan Gloria, baiña elixan beti Aintzane, eta ni be Miren Gaztelu ta Miren. Miren gora ta Miren behera. Miren. Miren Gaztelu esaten doten bakotxien esaten duste: “¿Eso qué es?” “Eso es nombre”. “Ah, ¿nombre?” “Claro! Nombre propio y con una cualidad muy particular”. Bai, bai. Halaxe. Izena behintzat...

7.27. Gerra denborako manifestazioak

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Miren Gaztelu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-029/011

- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:28:54. **Bukatu**: 00:31:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- **Laburpena**: "Se ha tomado Teruel", eta manifestazioa egiten zuten, txapel gorriak jantzita. Mirenek ez zuen leloa ulertzen; berarentzat "Olentzeroa dator" izanda ere berdin izango zen.

Transkripzioa
-Beste gauza politt bat be kontau bihar dotsut /bihotsut/. Harekin be akordetan naz gaur balitza moduan. Egoten zan, Espaiñako zerak eitten auenien holako abanzen bat, oin esaten dot hori, baiña nik hori len ez nakixen hitz hori ezta, ezta urrik be, e. Baiña holako zeren batzuk eta, kanpaiak eta zerak-eta. Zergaittik eta. Baiña akordetan naz ein gauela behin manifestaziño bat. Izen zan hemetittik kaletik, eliza aurretik kale goixeneraiño. Kale goixenian buelta emun eta barriro. Eta ni txikiña, txikiñena, gaztiena be bai eta txikiñenetakua be bai ta, lelegokua nintzan beste batekin eskutik ebatuta, txapel gorrixa ifinitta buruen, txapel gorri txiki bat neukan, hartarakotxetako zetarako, derrigorrez euki bihar; ifinitta, eta manifestaziñua euela bazkal ostien. Hango kanpai hotsa ta zera, ta zergaittik eta: “Se ha tomado Teruel”. Ze ete da, "se ha tomado Teruel". Neretako “viene Olentzero”, berdin. Baiña oin konturaketan zara zer zan esaten zana. Oin konturaketan zara “se ha tomado Teruel” zer gure auen esatia, baiña orduen? Eta manifestaziñua ta ze pasetan da ba ta? Ze pasetan da, euskeraz pentsau be ez. “Qué ha pasao?” y “Porque se ha tomado Teruel”. Eta manifestaziñua, akordetan naz gaur balitza moduen. Eta gaiñera izengo zan ura aldera-edo, ze soiñekuakin, holan, denpora epela eingo auen. Ez naz akordetan noiz ta zer, baiña “se ha tomado Teruel”. Horrekin txapel gorrixakin, oin konturaketan zara zer gure dauen esatia. Baiña orduen, lehen esan dotsut, “si viene Olentzero”, berdin. Berdin-berdin-berdin. “Se ha tomado Teruel”, txapel gorrixakin.

7.28. Osaba frantziskotarra Ameriketara ihesi

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-031/008
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:12:22. **Bukatu**: 00:15:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
  Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Aisia » Kultura » Idaztea
- **Laburpena**: Osaba frantziskotarra zuen Arantzazun. El Día egunkarian idazten zuelako salatu egin zuten eta Olabera lehenengo, Bilbora gero, eta azkenean Buenos Aires-era ihes egin behar izan zuen. Argentinan hil zen osaba hori. Osaba Bilbora joan zenean, Antoniok eraman zion maleta Olabetik tren-geltokira. Ez zuen osaba gehiago ikusi.

Transkripzioa
- Eta orduen han, auzoko elizan abaria bi monagillokin faten zan?
- Bi? Zerien, Arantzazuko frailietan baiño serixuau. Arantzazuko frailietan ibillita nau ni diakonuaz, intzentzuaz, tio neukan nik han.
- Bai?
- Guardiana, Don Paulo Zubizarreta, zelan da gero politiko demoniu hori? “El día”n eskribiuta euen. Eta “El día”n eskribiuta euelako, “Coronel La Torre” Oñatin, Oñatikuari sartu otsan denunzia hari, ta han soplua jaso euen zetik, Arantzazutik, ta etxando puñetas gurera etorri zan, anaiana, eta han etorri zan eta hiru-lau egun in zittuan eta han be gaizki, jente gutxi, eta gero fan zan Bilbora, Bilbon euken beste anai bat, edo bi euken, baiña bat hola oso korrientia eta bere ideakua gaiñera, ta han in zittun hillabeten bat, ta somau euen ha bera be frailia zan, ta ingurukuak be bai, ta atzian ebitzena, atzian kartzelarako ez, tiro bat emuteko, holaxe zan kontua eta akabo. Fan zan Buenos Airesera, goizetik gabera ezkutau zan, ta han hil zan, han in zittuan hiru-lau urte.
- Hanka iñ eben, e?
- Hanka, argi, argi, lagun onak euken harek.
- Eta hori noiz, ze urtetako kontua dan goguan dakotzu?
- Hori? Hori gerra… honaxe zera etorri ziranien, Oñati eta Aretxabaleta eta hartu zittuaiñian, hortxe, hortxe! Hamabost egunen barruan danak be. Gero gurera etorri zan, ta gurian egun bi edo hiru in zittuan, eta ondo goguan dauket garixa jorran ebillen aittajauna, haren aitta, aittajuna aldamenien ta ni maletiñaz erakusten, berari estaziñora lau t´erditako automobillian, trenian fan zan, nik harrezkero ez dot ikusi. Ta aittajuna goixan bertantxe, bidia bittarte, eta “ez dotsau aittari ezer esan biharko, ez dotsuau aittari esan, pena igual hartuko dau eta, guazen, guazen aurrera”. Eta ni maletintxuaz eta abariori handik bera, edo abariori frailliori.
- Trenera.
- Trenera. Trenien sartu zan eta Bilbora, eta gero Bilbon be itxuria somau euen zerbait ebillela, nun zan edo zer edo, zerbait, eta…

7.29. Julian lehengusua Kuban fraidetu zen

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-031/009
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:15:14. **Bukatu**: 00:17:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Arrasateko artzapeza zubipe batean hil zuten. Pedro Paulo Zubizarreta zen osabaren izena, Arantzazuko Guardiana. Antonioren lehengusu bat, Julian, Kubara joan zen eta frantziskotar bihurtuta itzuli zen handik.

Transkripzioa
- Abariak be ez eukein barkamenik orduen, e?
- Bai, barkamenik, ebatu arte garbittu ingo euen, Mondraueko arziprestiei ze in otzein ba? Zubipehien jota garbi ta kitto.
- Eta honen fraile honen izena zela zan, zela esan dozu?
- Harek Paulo, Pedro Paulo euken, Arantzazun. Eta Guardian euen,

Guardiana.
- Eta apellidu zela?
- Zubizarreta.
- A, Zubizarreta, zuen tartekua?
- Eta Zubizarreta beste bat be baeuen, Julian, baiña ha zuen edade inguru, neu baiño, bizi izan balitza nik baiño gehixau, “noventa” inguru, Julian Zubizarreta. Ha berriz lelua, berez, eta tio Guardiana etorten zan ta, “holako markarik, holako markarik”. Estudixau ta gero oso torpia, ezebe ulertu ez Julian hori. Sikiera kanpora norabait ez jagok bialketako, baiña parientia zan, primue Julian hori.
- (Loba): nungua zan Julian?
- Isurieta Azpikua, Pedron semie. Gero fan zan, Kubara bialdu euen, eta handik abade egindda etorri zan. Abade edo fraille egindda.
- A, Kuban samurraua.
- Astakumillua. Honeik […] esaten dira baiña, gure aittak ixa abadetxo batek aiña ekixen, latin dana ekixen ondo, peapa kasi, kantuen eta danari hartu. Harek be bai, egunen batzuk etorten-edo aitteri-te, Pedro […] Isurieta Azpiko Pedro, hildda eta haren entiarrua ta entiarrua pasau eta ba mezia.

7.30. Anaia gerran hila

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-031/014
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:25:57. **Bukatu**: 00:28:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena**: Mortero batek berna eta beso bat kendu eta odolustu egin zen Antonioren anaia. Bertan lurperatu zuten; baina familiak, hara joan, hilobitik atera eta etxera ekarri zuten hilotza.

Transkripzioa
- Artxandan besue eta hankie kendu otsen. Komandantien ordenanza, ta Artxanda hartu auenien itxuria, Atxabaltakuek be beukan lagunak han, bere kuadrillakuok, eta komandantiari parten bat erueten fan da, han frentien ez euen, bera fan da, bere atzian euen komandantien ordenantza, emun otsan papela eta papelori emun eta han lagunekin botie, baten batek ardaua eukan eta tragon bat itten korruen jarritta dagozela, berak tragua in eta eskua hola dakola, bera eskua eta hankie, ikusi notsan nik, besue ta hankia, besuen holako zatitxo bat aukon txintxilizka, eta ha zapata eta guzti ekarri in euen, gero mediku zahar bat Atxabaltan geukan...
- Bonbazon bat-edo?
- Morteruek jo, betien, eta jo ta kendu. Eta gero handik Durangora arte, zerak, ebiltten zittuen gomak lotzeko danak, frentien ebitzenak, honako metro erdiko gomak, frentien heriuten bazien lotzeko, odolak korriu ez daixen, ta hanka bata lotuta eukon, ta bata lotuta ta bestiari korapilla egindda, hemengua, besua, lotuta, eta hemen korapillak itxuria, korapilla bertan odola dana mobiuta euki, odola darixola auen zeretik, golpian itto, odolestu. Handik eruen gauen kamillan. Eta bestaldera total iñutil geratu

biher auen, ez beso eta ez hanka, baiña...
- (Loba): enterrau in auen, ezta? Atara in auen zulotik barriro. Enterrau in auen uste dot. Eta gero aittek eta atara in auen, zulotik atara eta etxera ekarri auen.
- Bai, atara. Ba mediku zaharragatik bestelakuagatik ez, guregatik aittajaunak in jotsain abariari, dakon mezia emuteko ardau dana edan, han egozenak. Garrafoikadia eukitten juan, [...] bat bai.

7.31. Gerraostean, goseak umeak hil

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-031/015
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:28:10. **Bukatu**: 00:31:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Antonioren aita Baserritarren Elkarteko lehendakaria zen. Milizianoekin arazoak izan zituen behin. Gerraostean, gosete handia egon zen. Ume asko jaio eta berehala hil egiten ziren, gosez. Aingeru-kanpaia maiz entzuten zen.

Transkripzioa
- Gure aittak orduan soziedadia, eusko nekazarixen soziedadia euen, baserrittarrena, eta hango presidentia zan gure, nere aitta. Ba milizianuok etorri zirenien, han jebiltzan ikusten ta bestiek etorri zirenien [...] aitta zuri-zuri egindda, tirua bai jaurtiko ez jaurtiko.
- (Loba): baiña hori zurixek etorri ziranien, nazionalak etorri ziranien.
- Ez, nazionalak etorri aurretik, zera zala, karlistia zala, eta gero baserrittarren zera, agirixa eukonien, presidentia eukonien itxi otsan.
- (Loba): orduen librau zan.
- Bestela eskaratzien pasauko euen, [...] baiña hareik garrafoikada ardaua edanda jauzan, eta gaiñera mezia emuteko ardaurik onena.
Lehenauko gauzak oiñ kanbixauta daz, lehenau gauza baltzak egoten ziren, etxien sarrittan guk geuk ez gauan ahal dan moduko egunik bat be pasau baiña, etxerik gehixenetan “hambre y palo”, badakitzu?
- Kalien gehixau edozein modutan baserrittan baiño, ezta?
- Kalien, kaleko ogi zatixa euki ezkero ondo ebitzen, ondo; gu antigual, gure janari maiorra izaten zen artua, esnie zopak, [...] guk jana sekula ez dogu euki nehikua baiña famelixa asko ahal dan moduan, eta umiek berriz, jaixoten zirenak, hamarretik beratzi t´erdi hil, gosiek. Titixa emun bai txupetako baiña esnerik ez. Umiek debillak egoten zittuan, eta aingeru-kanpaia ixildu barik, ten-ten-ten [...], ten-ten-ten geratu barik.
- Oiñ ez dau sekula joten aingeru-kanpaia; oiñ ez dauela joten aingeru-kanpaia, oiñ ez da umerik hiltten.
- Oiñ jo ez daue itten, baiña biharrik be ez. Oiñ umiek zela hilgo dira ba? Baiña lehenau palo, kuidau, esnerik emun, gero bestela titixa samurraua, emun besterik ez; ha ez baeuen esniaz ba bialekua, lana, eta lana ebitaitegatik, leheningo leheningotik, aiba hor dauken, eta emun titixori, han hutsik. Baiña asko, eta Atxabaltan kanpaia ixildu be ez, ten-ten-ten-ten... Aingeru-kanpaak joten ziren, diferente.

7.32. Gerraostean eskean

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-031/018
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:34:52. **Bukatu**: 00:35:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: "Txinddurri" Altube zen abizenez. Gerraostean bere aita eskean ibiltzen zen Aretxabaletan.

Transkripzioa
- (Loba): bai, famosua izan zan, monumentutxo bat badauko. Andra Marixetan etorten zan hori kantuen.
- Eta ze izen eukan horrek, kantuen itteko?
- (Loba): bera? Altube apelidue. Izena ez dakit.
- Euren izena ‘Txinddurri’ zan, Txinddurrixena. Eta gero aitte be oso elizarakua, batzen ibiltten zan, urtietan, dezentetxo in arte. Gero Errota Zaharrekuak ibiltten zittuan, hik hareik be ez hittuan ezagutuko. Bai?

7.33. Estraperloko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-031/019
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:35:35. **Bukatu**: 00:37:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Estraperloa trenez eta kamioiez ekartzen zuten, lastopean garia gordeta. Antonioren anaia bat eta Akixotarrrak ziren estraperlo maisuak.

Transkripzioa
- Horren aitta-eta ibiltten ziren elizan, batzen, limosnia batzen. Ba orduen dana halaxe zan, batzuk tontokerixia bazan, bestiek bestia bazan, gu halaxe gaz ikasitta, guk besterik ezebe ez dogu ikasi. Hantxe, aurrekaldian fan ta erreberentzia egin, eta buelta in ta…
- Gose urte horreittan estraperlorik-eta itten zeuein? Arabatik estraperlua?
- Bai, estraperluen biheko egin, nik beste pultsa ez dozue in trenari. Honen aitta zan diretoriori, estraperluen.
- Ze itten zeuein, astuakin?
- Bai zera! trenien, trenien, zeraz, Akixo, ha be honozkero hilgo zuan…
- (Loba): jefie-edo izan zana?
- Lehen zerien eguena, Atxabaltatik Eskoriatzara fan zana, Akixo.
- (Loba): ez dakit bizi dan.
- Jefie, zerekua. Hareaz lagun itten zan eta gero bagoie hartu eta pultsaka

ekarten xuan, Laminaziñoko Ororako bidia. Han kaja ahorrosera jauan estraperlu lekuori, eta gero handik Arrasatera.
- (Loba): han kargau ta…
- Olixua-eta, zer ez.
- (Loba): kamioien be bai itten auen.
- Baitta kamioien be asko.
- (Loba): lastua gaiñien eta azpixen garixe.
- Bai, Arrasatera kamionkadak erueten neu be fanda nago ni, anai Endrikekin batera. Horixe. Baiña harei holakotxe zakua hartu eta bixkarka erueten gauen. Eta sarrittan bagoie punta-puntaraiño.

7.34. Hiru aretxabaletar Oiartzunen fusilatu zituzten

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-031/021
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:41:07. **Bukatu**: 00:43:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Akixotar bat, batzokiko lehendakaria zena, Oiartzungo kanposantuaren kontra fusilatu zuten. Isidro Garziaetxabe eta Alberditar bat ere hantxe bertan fusilatu zituzten. Herrian bertan ez zen fusilatzerik izan, baina bost miliziano hil zituzten Santa Lutzian borrokan, Isurieta buruan.

Transkripzioa
- (Emaztia): afusillau, hil in zan, zu, Koldo.
- (Loba): afusillau, klaro, hor Oiartzungo afuzillauen artien bat. Oiartzungo horreik afusillamentu famatu horreittan. Akixo bat ez auen afusillau Oiartzunen?
- Bai, Batzokiko presidentia. Orduen batzokixa zerien jeuan, plaza aurreko han goixan, plazatik Mateon alderako goixan, kantoi-kantoien, […]-ta bizi ziren lekua. Bai, bai, erreskada osua, baiña afusillau, ez zeatik, eta beste bat Isidoro Garzia Etxabe, bixok horreik hil jituen, Frantzika, Patxika, haren gizona Garzia.
- (Loba): bai, horreik afusillau zittuen hor, Oiartzunen kanposantuen kontran afusillau zittuen pilla bat, Gipuzkuako jente pilla bat.
- Hemen ganora barik bi hil, Atxabaltakuak, ezebez, batek egunetan eukan andria libretako ta haren billurrez geratu zuan eta plaust, gero Akixo beste bat.
- (Loba): Alberdi be bai, Alberdi, Amaian-ta aitte.
- Bai, bai, bai, bai, baitte banaka-banaka asko.
- (Loba): Alberdi, horreik hirurok behintzet bai, nik dakidala. Ba herrixen geldittu zirenak eta ez eukien ezebe ta…
- Eta herrixan bertan, egon zan afusilamenturik?
- Afusilamentuak egongo zittuan, muliaz fateko abixauten otsen; muliaz fan ta goizeko bostetan urtenda hemendik, eta topau egik.
- (Loba): herrixen bertan afusillamenturik?
- Ez, ez, bertan ez. Unikamente gauza feue in auen Santa Lutzian, han Santa Lutzi, Isurieta buruan. Hil ziren bost, atakien edo zerien, abanzau euenien, handik kondenetan auen Atxabaleta harrapetako, trena ta dana,

Mugarrittara, oiñ bariaziñua dauen Mugarrittara ataketan auen ta inkomunikauta geratu ziren Atxabaleta eta Eskoriatza eta hori danori. Ha […] hartu ezkero, Isurieta burua hartu ezkero, […] ha hartu auen, asaltau auen soldauek, han pasua egon zedin, ta
milizianuak egozen han, ta haxe zera, bittartia.
- Han hil ziren batzuk?
- Han bost hil ziren.
- Atxabaletarrak?
- Keba!

7.35. Nazionalista izateagatik zigortuak

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-031/022
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:43:58. **Bukatu**: 00:47:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Antonioren izeba baten ahizpari, Mari Klarari, ilea moztu zioten nazionalista izateagatik. Isidro, Pantxikaren gizona zenak, harategian pistola atera zuenekoa. Ganorarik gabeko hilketak egon zirela dio Antoniok. Oñatiko komandanteak Antonioren osaba frantziskotarra begi txarretik hartu zuen, konfesatokitik erregimenaren aldeko propaganda egitea ukatu zuelako.

Transkripzioa
- Milizianuak-ta, kargau mulan, eta Atxabalta oiñ beste ez zan, Atxabalta Arruenetik Porrukoeneraiño, eta hilddako […] darixola-ta, kalien gora behera, ba propagandia, […], gero barriro Maria Clara, zerekua, Enrike eta tio Marianon aiztie, Azatzako Zarbiarteko gizona, Timotio, ha be nazionaletara itten auen, nazionalistia zalako, ulie zero ebagi andriorri ta kalien […]
- Hori Oñatin be in euen.
- […] ulia zero ebagi, Maria Clara. Nire tia zan haren aizta bat; eta andriori biheko ixilddu. Eta Porruen Pantxikan gizona, zerien, maristetan ifini euen zeori, kuartelori, eta hori janen suministrua gero egitteko. Eta fan da karnazerixara okelatan, Ixidruori, eta nazionalisten dirua emun, diru zurixa esaten jakon; eta ha hartu gura ez, ha ez zala dirua eta harek haxe euki, ta “hau ekusten don hau?”, “lagunak, hau ekusten don hau?” pistolia erakutsi. Handik denpora gutxira jo ta garbi eta kitto.” Hau ekusten don hau?” Bata tablan saltzen ta bestia hartzen, eta diru zurixori “[…], hau ikusten don hau?” Eta holaxe, ganora barik matanzak, ez kulpa eta ez delitto eta ezer ez. Orduen galdu in auen asko. Eta guriak be, gure frailia be antzera galdu euen. Gure frailliari oiñ akordau jat barriro. Tio, Arantzazukuari, etorri jaten “komandante de puesto” Oñatin euena, fan frailiana, gure zera, Guardiana Arantzazun, eta konfesonarixuen-ta, itteko propagandia igunduko zerak, esplikaziñuak emun dotso komandantiorrek, Oñatikuak. Eta berak ez doiala han propagandarik itten, ha ez daukola ze ikusirik eta kontestau dotso eta hantxendixek hartu fletxia eta galdu auen tio. Konfesonarixuan eta itteko propagandia ta regimenen alde. Eta gero bestieiri komeni ez, eta argi ibili zirenari eskerrak.

- Hor hasi zan orduen bestien estimua galtzen?

7.36. Gerran habailaz borrokan

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Berraondo, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-031/023
- **Iraupena**: 0:03:54. **Hasi**: 00:47:33. **Bukatu**: 00:51:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- **Laburpena**: Gerra karlistetan parte hartu zuen Antonioren aitajaunak. Honen anaia, berriz, espioi gisa aritu zen garai horretan. Harrika edota habailaz borrokatzen zuten karlistok.

Transkripzioa
- (Loba): Kontau eizu aittajunena, gerra denporakua, karlista denporakuak.
- Karlista denporakua oinguen aldien formala.
- Karlisten gerrak...
- Harek larogeta... nire aittajaun hil zan larogeta beratzi urteaz. Eta oin dabilt karrera bat, gura nizkio, neu zela nauen bakarrik, ba irabazi.
- (Loba): irabaziko jatsu, tio, urte bete falta jatsu. Irabazi eta pasau. Eta tia Benita?
- Tia Benita aurrekua.
- (Loba): ha larogeta hamaika edo larogeta hamahirukin zenbatekin hil zan?, ondiok falta jatsu.
- Ha ibili zan beratzi urte gerran, nire aittajauna. Gerra karlistan. Hemengotxe semia zan, han handikaldeko semia; eta beste anai bat espionaje karlistetarako, orduen espionajia ez auen afusillamenturik. Eta soldau fan bihar auenak, aurreko hagiñak ez beukon librau itten ziren. Kartutxuari tirua jaurti eta pistoia atarateko, -ez auen orduen industria asko aliketak topetako-, ba ha pistoia sartu eta aurretik zakuen bota polboria, sakatu eta puuun! Ta keia, eta [...] ba hurrengoko barriro hagiñak atara in biher. Bata, bata gerrerua zan aittajauna, eta anaie espionajia eukon, ha lehenauko gerria parte, baltzak eta zurixak, harek esaten auen naparrak ziren zurixok eta baltzak gorrixok.
- (Loba): liberalak.
- Liberalak, bai. Ta han ze saltsa edo zela, erueten auen haren anaiek espionajia Araoztik hona, horreiri zela esaten jakok hor, herrixeri...
- (Loba): harutze, Araoztik harutze?
- Ez, ez, Elorrixo edo hau, Elgeta ta hau.
- (Loba): horraiño itten auen?
- Horraiñokua eukon nire aittajaunen anaiak espionajia. Harek espionajia itten auen, ez dakit ba nundik enteretan zan, “bueno, hemen atakia jak”, eta preparetan zittuon harrixok eta zittuon bazterrok ta faten ziranien, kolumnia faten zanien, bestiek gordeta egon, harrika eta harrapaitten zittuenok bota harrika, eta biaje, hanka!
- (Loba): eta abaillia...
- Abaillia be bai, abaillia, erremintta ona eta Mauserra euken. Baiña horreik leheningo abailliaz ekin intsen; gero Mauserra, erremintta ona eta beste bat akordetan ez jatena. Narru baten harrixe batu, bikotxa izaten da eta bateri jare egin eta harek botaten dau bide morduen. Gerriori haretxeaz.

- Guk Oñatin egin gotsan bateri, eta harek esan oskun bere aittajunak kontaitten otsala karlisten gerran makillakin itten euela burruka.
- Makillak, jakiña!
- Ez ezpatarik ezta ezer, makillakin.

7.37. Gerra garaian ere, eskolara eta ganadua zaintzera

- **Hizlaria(k)**: Lasagabaster Billar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-035/007
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:17:37. **Bukatu**: 00:19:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerrak ez zuen eskola gelditu Aozaratza auzoan. Bonbardaketak izan ziren inguruetan. Gogoan du Larrino aldeko zelai batean zegoela bonbek ateratzen zuten zarata.

Transkripzioa
- Gerria hasi zanian eskolia geratu in zan?
- Ez, ez.
- Zuek gerra denporan be eskolan…
- Eskolan, bai, inkluso Atxabaletako nere edadeko neskak-eta, ba Atxabaltan billurra egoteko ta hori ba, bonbardeue itten auen hemendik Murutik-eta, bonbardeue itten auen ta ni akordetan naz Atxabaltako etxe bat noiz erre zan be akordetan naz.
- Gerran?
- Gerran, bonbardiekin, bonbardeuekin, bai, akordetan naz. Ni ganau zain nebillen, ni ganau zain askotan ibilitte nau e? Klaro, umetatik ba anaie ta bixok be bai ta sarrittan ganau zain hola, ta geuken zelai bat han Larriño aldera zelai bat, oin saldute dau baiña ganauek han. Eta akordetan naz ba gerrie, ezta? Eta ba ez nekixen nik gerrie, artien bonbardeorik eta halako gauzek, ba nik ez nekixen, itxuria orduentxe ez dakit ba, gerriori orduentxe urten auen edo zer, baserri bat euen han goixen, eta itten auen hola bssssii… itten auen ta gero bouuun! Eta nik esaten nauen…
- Eta zuek han ganaua zainketan?
- Bai, ni ganau zain, ni ganau zain, eta han baserri bat harutzago e? Kale alderago euen, ta hori itten auen ta, baiña piiii… itten auen hori karretillien erruerien zaratia zala pentsauten neuen nik. Nik ez nakixen hori zer zan.
- Klaro, zuretako ezezaguna…
- Eta ni klaro, neretako ezezaguna zan eta nik pentsau be ez bonbak zirenik eta holako zerik pentsau be ez. Klaro ni handik distantzia bastante haundixa nauken e? Kalera. Baiña horreik kalera bonbardeau itten zittuelako zan hori zaratiori. Eta nire anai bat laminaziñuan lanian auen. laminaziñua oin ez dau esistiuten hor.
- Atxabaletan?
- Atxabaletan. Baiña lehen laminaziñua euen hor, eta inkluso nire aizta bat ezkondu zan nagusixena, horra dendie euen hor Lasagabasterreneko dendie. Hemenguaz, Mondrauekuaz ze ikusixa dauko, e? Zeatik horreik etorri ziren hona gero. Nire aizta nagusixena ezkondu zan horra.

7.38. Bonbardaketa inguruetan; Bernabena baserria erre zuten

- **Hizlaria(k)**: Lasagabaster Billar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-035/008
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:19:52. **Bukatu**: 00:22:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Aita kalera joan zen batean, Espainiako militarrek harrapatu eta behartu zuten eurekin Bedoñara joatera, bidea erakutsiz. Hango baserri batean, morroiak ugazaba salatu zuen, etxean arma bat zuelako. Horren ondorioz, etxeko jabea fusilatu egin zuten, Jesusaren aitaren erreguei jaramonik egin gabe. Fusilatuak 11 seme-alaba zituen. Oso saminduta geratu zen Jesusaren aita.

Transkripzioa
- Eta ni akordetan naz nire anaie laminaziñuan lanien, eta anaia eta etorri ziren, baiña larrittute gero gu, klaro, gero ni etxera etorri nitzenien enterau nitzen zer zan hori, hori bonbardeua zan. Eta orduentxe erre in zan Atxabaletako etxe bat. Ez dakit zela esate otsien be hari, izena, bonbardeuaz orduentxe erre zan etxia be, bai.
- Jenterik hil-edo in zan?
- Bai, uste dot baietz, uste dot baten bat hil be egin zala orduan. Ez dakit nor hil zan be, baiña baietz uste dot.
- Horra Azatza aldera ez ziren jausi bonbarik?
- Bai, Azatza aldera be bai.
- Ze lekutan-edo? Goguan dakotzu?
- Ba Altamiran, Altamirara behintzet bai, etorri zan bonbie jausi zan. Eta beste bat, beste etxe bat Larriñon erre in zan bonbardeuaz, e?
- Bai, bonbiak jota e?
- Bonbiek jota, Berbabeneko etxie. Larriñuko Bernabena esaten jakon hola. Eta aitte ta ama bixek erre ziren barruen. Etxe barruen. Eta ez auen arrastorik be topau, esaten auen orduen ez zala arrastorik be topau, baiña pentsaizu zer eta andrien moñue-edo topau euela esateuen. Gero ha etxie dana barri-barrixe egin zan, guztiz barrixe in zan.
- Francok ez eben pagauko etxiori.
- Francok ez eben pagauko baiña behintzet gero etxiori barrixe in zan. Horko jentie ba, horko, hor jaixotako alaba bat Atxabaletan bizi da, ondiokan bastante gaztia ama ya hil zan, aitte be hil zan, bueno, aittajaun-amandriak ziran horrenak, e? Eta hori etxiori be erre in zan dana e? Eta ni akordetan naz, ni bezinuek-eta igual zeozer ekarten edo, igual fan zera, ba sorora ta hola-ta, ni akordetan naz igual zeozerraz, zera kargaute ezta, igual etorri eta, bsssiiiiii... eta barriro be hasitta bonbardeua ta bilddurrez ta etxien, etxera allau baiño lehen, han ezkiña baten jarten-ta ni akordetan naz horreik gauzok. Klaro, ni oso gaztetxua nitzen baiña...
- Zer ziren, abioiak edo kaiñoiak?
- Abioiek be bai, abioiek pasetan ziren horreik “los cazadores” edo horreik, txikiñok, filakak pasatzen ziren, horreik be akordetan naz. Horreikin ondo akordetan naz.
- Eta zuek artian be eskolara faten ziñain, e?
- Bai, eskolara fan bai, esaten dotsut gero Atxabaltako jentie be batzuk gora etorrri ziren. Gure etxien berrogei lagun egon ziren egun baten, kamaran-ta lo egitten, jentie Atxabaltatik ba bonbardeuaz billurra eukien,

ta gora igote auen, eta batzuk basora be faten ziren, ba harrapau ez daixen.

7.39. Morroiak salatu eta jabea fusilatu

- **Hizlaria(k)**: Lasagabaster Billar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-035/009
- **Iraupena**: 0:03:38. **Hasi**: 00:22:57. **Bukatu**: 00:26:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena**: Aita kalera joan zen batean, Espainiako militarrek harrapatu eta behartu zuten eurekin Bedoñara joatera, bidea erakutsiz. Hango baserri batean morroiak ugazaba salatu zuen, etxean arma bat zuelako. Horren ondorioz etxeko jabea fusilatu egin zuten, Jesusaren aitaren erreguei jaramonik egin gabe. Fusilatuak 11 seme-alaba zituen. Oso saminduta geratu zen Jesusaren aita.

Transkripzioa
- Eta gure aitteri pasau jakon, salbokonduktua be bai, zuri esan dotsu iñok esan salbokonduktua biher zala ibiltteko?
- Trenien ibiltteko.
- Bai. Kalera bajetako.
- Hori esan nostan Mondraueko batek. (...)
- Eta gure aittek, askotan esaten du guk hau. Gure aittek euken, etorri zan kalera eta hor harrapau euen kapitanak-edo, eta gure auen Bedoña aldera lagunketie, Bedoñako auzora. Bedoñako auzua ikusten da, hemendik ikusten da. Bedoñako auzora. Eta aittek hartu auen kapitanori ba hara erueteko, eta eruen auen eta han enkontrau ziren etxurie baserri baten, ez dakit, hamaika seme-alaba-edo beuken. Gero horreik hortik kalera etorri ziren hona Mondrauera bizitten, bajau ziren uste dot. Eta hango gizonak eta kriau bat euken etxien, eta aitteri esan otsen ba laguntzeko, horra laguntzeko ta hori. Eta kriau horrek denunziau in auen armia eukela etxien, arma bat eukela etxien. Eskopetia izango zan segurutik, eskopetia izango zala, ez dakit ba zeatik kriau horrek, ez zan ondo egongo jabiorreaz ez dakit zer, holako zerbait. Eta gizonori afusillau in auen.
- Bertan?
- Bai, hor zerien, Bedoñan, hor fusillauta. Eta gure aittek esate osten ba izteko hari gizonari, hainbeste umekin ta hola, ta ba aitte lagunketan hartu auen, bidien-ta, fan in biher lagunketan gure aitte. Eta fanda ba aitte erreguke ta izteko gizonari eta ez egitteko holakorik, eta hori ez bauen ixilik egoten ez dakit zela esan otsiela be, bera hilgo auela ta gure aitte ixildu in biher, eta gizona afusillau in auen holaxe.
- Eta zeintzuk ziren horreik, gorrixak edo Franconak?
- Franconak, kapitana, kapitana zan aitteri laguntzeko bidien hartu auen, eta hara dirijiutia gura auen, Bedoñara. Eta Bedoñan pasau zan hori kasuori, eta ez dakit zenbat ziren horreik anai-arrebak, seme-alabak, hamaika edo ez dakit zenbat. Aitte hori afusilau. Holaxe afusillau otsien aitta.
- Kriauak denunziauta.

- Kriauak, arma bat eukelako hantxe. Ez dakit zer gehixau izango zan, baiña armiori behintzat, deklarau edo in auen zeozer, eskopetan bat edo zan itxuria ta, ez auen asko biherko ha hiltteko, ez auen asko biherko. Ez auen ezer biher.
- Askotan geizki berba ittiatik be bai.
- Bai, bai. Behintzet holaxe gure aitta izugarrizko peniaz orduan, akordetan naz. Bai, hori sarrittan kontetan dogu, zela hil auen ha gizona, hori ez da ahazketan. Nik ez nauen ezaguketan baiña bere seme-alaba batzuk ezagutu dittut nik, horren gizon horren seme-alaba batzuk. Ba holaxe, gerra denporan holako gauzak.

7.40. Goroetako Mendikurutza baserrian jaioa

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/001
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Pedro Urteaga Arregi Goroeta auzoko Mendikurutza baserrian jaio zen 1931ko urriaren 19an. Lehen jaunartzea egin zuenean, gogoan ditu nazionalen kanoiak etxeko lur-sailetan kokatuta, une berean "gorriak" Murun zeudela. Olaetako don Genaro Unda zen orduan Goroetako abadea.

Transkripzioa
- Esango dostazu zure izena eta apeliduak?
- Pedro Urteaga Arregi.
- Eta non eta noiz jaixo ziñan?
- Korutan, Aretxabaleta, Koruetako auzun.
- Ze baserrittan?
- Mendikurtze.
- Ta ze egunetan?
- “Diecinueve de octubre” oktubrien hemeretzixen, “mil novecientos trenta y uno”.
- (…).
- Nik sei urte oktubrian in biher eta udabarrixen in nittun primera komuniua, eta akordatan naz zera, “los cañones del glorioso movimiento” esaten otsienak eurok, zerok, Koruetara etorri ziren kaiñoi zahar haundi batzuk, bueno, oin “quince y medio”ko kaiñoiak eta han euki zittuen oin Mendikurtzako etxia dauen lekuen, alde baten, ha Ujartekua zan terrenua ta han lau egon ziren hona Kanpazar aldera begira, eta gure terrenuetan, han ardi-txabolia egindda daukie oin baiña han beste lau hona Murura begira.
- Gorrixak Murun egozen, ezta?
- Gorri izenekuok Murun. Eta santuok hemen zerien, eta handik ondiok Untzillako elizieri handik tiratutako zeren bat, granadan bat sartuta han euki bidaue, esaten daue nik hola entzun izan dot, eliziek han daukala onddiok. Hari ez dotzala iñok ekuturik be in, horman sartuta ta zeori.
- Untzillako elizan?
- Untzillako elizan dauela esaten daue. Eta elizako paretan sartuta dauela.

Goixen edo zerien, parajien be halakuen egongo da ta.
- Errebentau barik?
- Errebentau barik egongo da.
- Jaungoikuen gauzia izango da.
- Jaungoikuena bai, Jaungoikuenak halakuak pasetan dira. Eta orduen etorri ziren zerok, gu primera komuniua itten han Koruetan euen abade bat, bueno, artista bat, Olaetako semia, Unda, “Don Genaro Unda”.
- Nungo semia?
- Olaetakue, Olaeta hor, bai, “Don Genaro Unda”, oin be badau emakume famosa bat, hor Unda, Aramaixon, burrukan edo zerien ibiltten dana, zerien be egonda, “en Juegos Olímpicos” edo hor be.
- A, bai, egixa da, medallan bat atara eben horrek, ezta?
- Bai, Undatarrak, hareik oso...
- Eta abade horren parientia da hori?
- Ba Olaetakuak dira danok, eta zeozer izango dira. Bai, zeozer izango dira.

7.41. Goroetako eskola eta maisuak

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/005
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:09:35. **Bukatu**: 00:12:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Goroetako eskolan ikasi zuen, Don Genaro Unda maisuarekin lehenengo, eta Don Bonifacio Arenazekin geroago. Don "Boni"ren jatorri bitxia azaltzen digu. Nazionalek Etxebarri etxean izan omen zuten biltegia gerra garaian. Doktrina eta hiru erregelak ikasi zituzten eskolan. Gerra denboran ez zuten eskola askorik izan.

Transkripzioa
- Esan dozu sei urtekin in zebela leheningo komunixuori, ezta?
- Sei urte in barik neuken artien.
- Eskolan noiz hasitta?
- Eskolan han faten gitzan, makillakada batzuk hartu eta dotriñia eta zera erakusten ta ezebez, faten gitzan abariorreana. Han ibiltten zan orduen abariori danak jo-ta aurrien zittuela, egur baten. Harek astokerixak haundixak itten zittuen, e?
- Zuek zer zekatsuein, Koruetan zekatsuein eskolia ala Azatzan?
- Bai, bai, Koruetako han dau onddiok abadiak eskolia emuten euen lekuori.
- Zela esan dozu abarien izena?
- Don Genaro ha, eta ha fan zanian etorri zan Don Boni beste bat, beste satelite bat.
- (…) eta beste satelitiori zela zan?
- “Don Bonifacio Arenaza”
- Hori nungua zan? Horrek apelidua…
- Hori, guri esaten oskuen moduan zan beori abadien semia, bai, Azatzako abade baten semia zala esaten daue danak, zerekuak, lehenauko zaharrak esaten euen. Lehenago orduen itten etsien ba, beste batzueri enkajetan etsien zeori paketiori.

- Baiña Arenaza ez da hemen inguruko apelido bat?
- Klaro hemengua dana, zerekua…
- Bera bertakua zan orduen?
- Ez euken zera, aitten apelidue ez euken. Gero ba zertu otsen beste zer horren, Arenaza bateaz ezkondu zan zeori ta haren apelidua euken, bai.
- Eta dotriñia eta irakurten eta kontuak itten be ikasiko zeuein?
- Baiña zera, sumar edo restar-edo, gure karreria hola akabo zan, holako zeren batzuk, dotriñia…
- Gerra denporan fan ziñan eskolara?
- Gerra denporan orduen han tiroka ebitzela ez, orduen ez zan han eskolarik egon zerien, orduen egon ziren gure zerien, orduen zeori "quince y medio"ko kañoiek zien holakotxe alturako zerak, granada tzaharrak, han Oñatiko sekretarixuak oin etxia egindda dauken lekuen, han euen Etxebarri esaten jakonari, etxezahar bat, han euki euen almazenori. Onddio be, oin etxiori itten eta pantanua egindda in daue harek etxiori han. Deretxua eukien, behian eukien etxia eta. Han onddiok kajak eta han egozen, granada kaja zaharrok eta zerok e?

7.42. 27 urterekin, kalera bizitzera

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/015
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:33:00. **Bukatu**: 00:35:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- **Laburpena**: Barriara desterratutako abade nazionalista baten kontuak azaltzen ditu Pedrok. 27 urte zituela, Zerrajeran hasi zen lanean, eta kalera etorri zen bizitzera. Jubilatu arte jardun zuen Zerrajeran lanean.

Transkripzioa
-Nire koñatuak esaten dau San Bernarduetan fan zera, hara, Barriara, eta konfesau eta itteko amak, ez dakitzu? Zerien eta, fan da konfesetan eta han abade bat ba gorrixa zalako-edo…
- Abadia?
- Desterrauta euena zerien, Barriara, eta preguntau meza faltia, eta meza faltia zela ba hola eta hola, goittik behera ordu bete baiño gehixau bihar zala eta behetik gora aldatza haundixa eguela eta ordu ta erdi edo gehixau Araoztik Degurixara fateko biher zala, eta zerien ta, hori ez dala pekatu eta holako zera beeguen ez fateko esan otsen horrek. Honek Koruetan euenak entzun baleu hori! Eta gero preguntau otsen, hemen Mondrauen euen e… bera zela zan be bera, preguntau otsen hor euen abadiatik, eta ha frankistia zan eta "fulano hor jak Mondrauen?" "Bai", ta "Ha frankistia dalako han jare eta gero ni hemen nak honeikin moja txatxalokin", nazionalistia nintzalako atzera zeorrek, abadiorrek. […] gaur be esango leke, larogeta zazpi urte egindda dauka baiña, larogeta zazpi, urtia ointxe, hillaren lauen, baiña onddiok burua ondo dauko, bai.
- Zu zeu noiz arte egon ziñan baserrixan, betik bizi izan zara baserrixan edo kalera etorri ziñan?

- Ez, ez, ni fabrikan hasi nintzan eta kalien bizi izan naz.
- Zenbat urtekin hasi ziñan fabrikan?
- Fabrikan hogeta zazpi bat urteaz edo. Gero Zerrajeran ibili nitzan eta Zerrajeratik jubilau nintzan eta berrogeta zortzi urte; baserrixen be egon zan orduen zerbat gure euenak zera pagau, autonomuena-edo, oin Agraria urten dau baiña ordun ez euen, eta han beratzi urte edo pagauta neukan eta gero fabrikan hogeta hemeretzi urte ba, “cuarenta y ocho años”era zera kotizauta Seguridade Soziala etorri jaten zeori papelori.
- Hogeta zazpi urtekin ya baserrittik urten eta kalera etorri ziñan?
- Bai.
- Zerrajeran in zittun horreik jubilau arte?
- Bai, zerrajeran jubilau arte.
- Zu koperatibetan eta ez ziñan ibilli?
- Ez, ez nitzan kanbixau zera.

7.43. Estraperloa zaintzeko, mikeleteak

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/024
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:58:18. **Bukatu**: 01:00:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Pedroren aurretik ere egiten zen Arabatik estraperloa. Mikeleteen lanak zeintzuk ziren kontatzen du Pedrok. Pedroren garaian Guardia Zibilak ez zuen asko estutzen estraperloaren aurka. Ozaeta aldean, miñoiak behin ere ez zituen ikusi Pedrok. Santa Agedan eta Gatzagan ere baziren Mikelete-etxeak.

Transkripzioa
- Bueltau gaittezen estraperlo kontutara. Hor miñoiakin edo guarda zibillakin edo problemarik...?
- Guarda zibillak zerien baiña ez euen hainbeste ataketan e? Leheneau, aurretik egon zan kontrabanduen ardaua ta zerak eta ekarten zittuen eta hor Araba Mendixen be han daz Mikelete etxiak eta zerak, danak han goixen, mendi gaiñien bertantxe be bai, han etxiendako lekua, Usakoetxenetik bertan harutzatxuauan. Nik entzunda dauket Madiñako, nire andrien aittajaunari, etxera etorri eta ganauari ittuan askapeietan eta begira mikeletiak; eta ordun mikeletiak kriston zerak eukitten zittun hor mendixen kriston, esaten daue ordun, guk ez gittun horreik ezagutu ya.
- Aduaneruak edo modura.
- Bai baiña Araotzera eta pentsaizu Arabatik zerien, kontrabanduan zerak, eta han hareik etxiak han goixen indde han egoteko, ze gauza raruak e?
- Han negua gogorra e?
- Bueno! Mikelete etxia. Hareik haundixak eginddakuak astokerixak hor.
- Zeuek ez zindduein sekula harrapau?
- Ez. Baiña orduen guarda zibillak hemen egon zala bestia, baiña ez euen hainbeste ataketan. Arabarrak be zeozer biherko euen ta, baiña hemen ez euen. Hemen gero...
- Ta Araban bertan miñoiakin-eta?
- Araban ez, hor Larreatik, Ozaetatik hasi eta guk miñoiak sekula ikusi

geuenik be ez naz akordetan.
- Klaro, zeatik batzuk arpegi danakin itten euen kamiñotik estraperlua, eta kamiñuan…
- Bai, hemen egoten ziren Gatzagan-ta be, hor Gatzaga gaiñian Marisan aurrekaldien be bai, eta han harutzatxuauen Arabako zerien be bai, han be bi mikelete etxe hor daz; Santa Agedan be bai, hor kontrola.
- Santa Agedan, Aramaixorako zera?
- Bai, hor be kontrola hor be mikelete etxia; oin etxiori salduta-edo, hor maketo bat hemen…
- Santa Agedan be egon ziren mikelete etxiak e?
- Bai, Santa Agedan be bai. Hemen dana kontrolauta egon zan orduko denporetan be.

7.44. Gerra denborako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Azkarretazabal Bengoa, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-041/013
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 00:30:43. **Bukatu**: 00:33:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Arropa beltz eta apain-orraziarekin ezkondu zen Pilar. Udaletxe zaharrean kartzela egon zen. Gerra denboran herritarren arteko ezinikusiak nabarmendu ziren Pilarren iritziz. Bere etxean pairatu zuen egoera hori.

Transkripzioa
-Geuk pe geuriek eitten gauen.
-Erropa beltzakin ezkondu ziñen?
-Erropak eiñ ostien aiztiak eta batek.
-Orduan erropa illunak eruaten ziren?
-Holako peinetia ta horrek. Zela bezinuek gitzen botikakuakin; ta harek peinetia ta, batian errosaixua ta bestien horrek ifiñi ustien eta (ezkondu nintzen).
-Gerra ostian ezkondu ziñen?
-Bai.
-Eta kartzelia gerra ostian egin zan?
-(…)
Semea: ha aurretik ein zan.
-Kartzelia egon zan hor, aiuntamentu zarrian. Zarra esaten dutsen hantxe.
Semea: hamen hiru aiuntamentu ezautu dou.
-Pasau gauen geuriek eta lau ta. Batien hau ta bestien bestia ta.
-Kartzelia ze egin zan, gerra garaixan?
-Gerria izan zan, baiña gerra txarra izen zan; bakizu zer izen zan? Ikusieziñe. Herrixetako ikusieziñak eztakitzu ze izaten den? Más que política, horixe.
-Zelan?
-Eztozu entendiduten?
-Ez.
-Hara! Politikia bada, eztakitzu, bat hangua dala, bestie bestie dala, baiña orduen egoten da ikusieziña, batian harek etxia eztakit zer, ha bestiak

eztakit zer. Horixe izan zan. Nik baakitt gure amak eta aittak pasau auenak.
-Etxia kendu edo egin zotsen?
-Ez, ez.
Semea: baiña aittajauna bialdu ein euen aiuntamentutik, ez euen kobretan, elektrizistia zan. Ez auen kobretan. Batzuk, e, "por nacionalista". Gure amak erderaz ez zakixen. Baiña horrenbeste kuartelera joan bihar izeten zan, hantxe ikasi auen.
-Kuartelian ikasi?
-Kuartelera atzera eta aurrera, kuartelera joan biha zan. Bakitzu zegatik? Batien Francogatik hau esan dauela enterau zala, bestien bestie esan dauela, eta joaten zien beziñak eta esaten gauzak; eta gure amak hango guardazobil bateri, ezauketan auen ondo, hango kabua, eta hari esan otson: "Bueno, ba ezpostazu esaten zeiñ dan, enoia hemendik urteten". Eta azkenien esan otson: "Ba fulana da. Eta zu egoten za bere lagun bategaz, Mariaz, eta zuok bixok ez zare egon bihar". Bat egon biha zan banku baten eta bestia bestian. Banku bat gure etxe parian banku bat oso inportantia zan, danak andra guztiak egoten zien da bankuan-da. Eta gero egun bat ero bakarrik pasau auen, baiña bigarren aldiz, bigarren egunerako ia juntau zien

7.45. Dendan lanean, errazionamendu garaian

- **Hizlaria(k)**: Azkarretazabal Bengoa, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-041/016
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:39:48. **Bukatu**: 00:42:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
  Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Baserritarrak zirenez, etxean ganaduak eta soroak zituztela, ez zuten goserik pasatu. Senarra izango zenak taberna eta "ultramarinos" denda zuen. Pilarrek ere urteetan jardun zuen etxeko dendan lanean. Errazionamendu-liburuxkarekin etortzen ziren bezeroak gerra ostean.

Transkripzioa
-Gure denporia hori izan zan. Bakitzu, gaiñera, zenbat urte? Berrogei urte ein gauen holan da. (...) Franco.
-Eta zuk gosia ez zenduan pasau, ez?
-Guk ez. Guk euki gauen, eztotsut esaten, ase be ez gitzen itten, e, beti orduen gosia zelan zan ba, oiñ krisisaz moruen, danak krisis, krisis, orduen gosia zan da ba hori. Baiña guk zelan gaukun ganauak pe bai, solua be bai, geuretako laiñ nahikua gaukun.
-Saldu ez?
-Saldu keba! Saldu, zazpi aizta, harek pe umiekin-da hori, ta harei emuten batian esnia ta bestiei... Kuartelera be joaten gintzen esnia erueten, pentsaizu. Hango kuarteleko batek umia euki euela ta amaana etorri zan ez eukela titixa ta eztakit zer. Ta hari be esnia emoten.

-Aittak dendia zeukan, ez?
-Ez, nere gizonak, honen aittak.
-Eta dendan ze saltzen zan?
-Harek auken dendia eta tabernia. Aukien harek.
Semea: ze saldu? Dana.
-Dana batera.
-Lenauko estilua, eztakitzu? Dendia, tabernia ta.
-Toki berdiñean?
-Ez, ez. Dendia leku baten eta hori bestien euki auen.
-Eta dendan ze zeuken, janarixa ta holan?
-Janarixa, ultramarinos. Neu be zenbat urtera arte, Pedro Mari, dendia euki gauen? Aitta Copreci hasi zanien (kendu gauen).
Semea: Copreci hasi zanian? Beranduao be bai euki gauen. Coprecin hasi tta bost bat urte ero xei bat urte euki gauen.
-Nere gizona han sartu zan. Coprecin gero sartu zan.
Semea: Copreci da fabrika bat. Eta gero dendia erueten auen nire amak eta aiztak eta.
-Aiztak ez, lobak.
-Zeu be dendan egoten ziñan?
-Dendan? Bai, gero bai. Bihako gura beneuen zerbait. Ni egon nintzenerako ya ondiokan razionamentue auen ezkondu nintzenien. Etorten zien horrek eitten libretiaz: zuri toketan jatzu eztakit zenbat, zuri be bai. Pentsaizu, gobernadore bateri "100 gramos" ipiñi utsien. Zeatik beti periodikuetan ero anunzietan auen batek zenbat daukon. Azukarra igual ehun gramo, bestien ehun gramo. Eta ehun gramoaz ze in bihozu ba? Hilebetian-da, razionamentua.

8. Herria, azpiegitura

8.1. Bidegintza

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/007
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 00:15:15. **Bukatu**: 00:19:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Bidea, gerra hasi baino 2 urte lehenago egin zen. Neguan, bide oso txarrak egoten ziren. Oinetakoak aldatzeko tokiak.

Transkripzioa
- Ta bidie nos ein zan hemen?
- E?
- Bide nos ein?
- Bidie... Hau kamiñuau? Hau kamiñuau ein zan, ba, gerrie urten aurreko urtien edo. Urte bi aurretik edo holaxe ein zan. Hori dana pikatxoiekin ein auen, e! Enee... Orduen, dana. Makiñekin-ta Oñatiko bat ["Upain"] ibili zan eze hemen-- "Upain" esaten otsen. Ha ibili zan. Ha zan kontratistie, Oñatikue. Hak in auen. Ta gero kanbion bat be hak ibili auen. Kanbion bat ibili zan hemen bakarrik harrixekin ta [iragaten] kanteratik.

- Lana gogorra, orduan? Eskuz...
- Bai. Oñatikue zan txoferra be, Juanito edo euken. Ta gero ez dakit Marbellara fan zala edo ez dakit ze esaten eben.
- Denporalia biherko zan eitten...
- Bai. Baiña bastante aguro ein zan, e! Bai. Dana [hemengotxe] baserrittar mutillak-eta ibili zien.
- A! Auzolan estilora edo?
- Ez, ez, ez. Bestela. Jornaleruek, zerak, kontratistiek. Kontratistie Oñatikue zan, [Zelaia], ez dakit zela esaten otsen.
- Bai entzunda [...]...
- [...]
- Ta bideik ez zanien nundik ziher ibiltten zitzien kalerako-ta?
- Ba, bidie euen.
- Bidie?
- Bidie. Ba, orduen automobilla ibiltteko, ez zauen automobilllik be; baiña bestela burdixekin ta jentie, idixekin-ta faten zan. Bidie hortixik euen.
- Ta ze ein euen, zabaldu edo...?
- Bai, zabaldu, zabaldu. Ta lehen erripakin ta zerekin zan, baiña, ba, gero... [kurba...] hemen.
- Oiñez ibiltteko...?
- Oiñez ibiltteko horrek sendak. Beste senda...
- Sendak egongo zien...
- Sendetatik sartzen gitzien.
- Bai, esan [zeuen], baiñuetxetik buelta edo, ezta?
- Baitta, handik baiñuetxetik bueltan sartzen gitzien. Bai. Ta, ba, beste auzokuek, ba, bidiek euken, guk geuken leetxe, ba, handik. Orduen egoten [ziela] neguen lokatzarak. Udan ez, baiña lokatzarak han neguen. Bai, bide txarrak. Baiñe udan ez.
- Siku euenian hobeto...
- Bai, siku euenian...
- Oñetakuek aldaketako ta?
- Oñetakuek-eta aldaketako-ta [... gittuen] hor behealdien aldaketan gittuen, ta aide.
- Zerian, ezta? Hor... Nun [esan zeuen]?
- Hor baiñuetxe ondoko... etxetxo bat euen, ta hantxe eskiñan aldatu ta aide!
- Txabolan bat edo [ze zan]...?
- Ez, etxie zan; bizi zien [...], bizi zien. Ta ate onduen [...] aldaketan gittuen, ta denpora ona auenien, barrez, ez; ez gittuen aldaketan, etxetik faten gitzen oiñetakuekin. Eurixe zanien edo holan.
- Oin beste erropa aldaketako be ez zan [egongo]...
- Ez, ez, ez. Orduen... orduen ez zan egoten horrenbeste zer.
- Han, baiñuetxie ezautu [zeuen] zuk ondio martxan euela, ala?
- Martxan auela... Orduen, ni akordetan naz eskolara faten gitzenien, [...] be egoten zien, baiñe udan bat edo bi egoten zien bakarrik. Gaiñera, gure amak-eta esaten eben, ba, zela egoten zan han jentie ta ez dakit zenbat kriada-ta egoten ziela ta... Baiña ni gutxi akordaten naz. Gero, zerrau ta gero, ba, eurek familixakuek egoten zien han, han bizitten zien. Bai.
- Familixan batena zan hori?
- Bai, familixa batena zan. Zerekuek, Elorrixokuek edo zien izetez, baiña eurenak zien horrek danok, terrenuok eta zerak. Ointxe saldu edo zertu dittue, ta oin ein dittue fabrikak eta...

8.2. Trenaren garrantzia

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/008
- **Iraupena**: 0:04:47. **Hasi**: 00:19:30. **Bukatu**: 00:24:17
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
  Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena**: Trena. Ama umea zela, trenbidea nola egiten zuten ikusi zuen. Felizianaren garaian ordea, kendu egin zuten. Langileak Arrasatera trenean joaten ziren.

Transkripzioa
- Jentiek etortiai itxi otsanien. Zuk ezautu [zeuenerako] gutxi etorten zien, ezta?
- Nik ezautu nauenerako, ba, gutxi etortzen zien, e! Bat edo bi edo hiru edo [...] holan etortzen zien.
- Baiña etorten zienak luzaroko... Hola...
- Ba, luzaroko edo bai...
- Bueno...
- Ni ez naz akordetan, baiña. Ta han behien euen zera, [ondie] edo han beheratxuao, ezta? Hola, etxe bat. Ta han egoten zien, ba, jaten ta gehixao, ni [... nitzanerako]. Han udan egoten zien, ba, dozenan bat edo gehixao igual egoten zien. Ta gero, bi kriada edo eukitzen zittuen han udan. Baiñe baiñuetxia ni [...] ordurako zertuta euen, hiru-laun bat jente, hola, juten zien bakarrik. Orduen ez zan ikusten automobillik-eta be. Ez, ez, ez.
- Etorten zienak, automobillian?
- A! Nik ez dakit zela etortzen zien. Trenien!
- A! Trena...
- Trena euen orduen. Trenien. Bai.
- Trena... zuk ifini zanien ezautu [zauen] ala zu...?
- Ez, ez, ni akordau orduko ifinitta euken trenoi. Nire amak esaten euen, bera gaztie zala, gaztiau, ba, neskatilla gaztie zala, [...] zala, trenbidie eitten orduaintxe eibili ziela. Eskoriatzakue zan nire ama. Ta eurenien egon ziela baserrixen, ba, enkargau edo aintzen [zerak], eta bere aiztiek zela eruten otsen, goxetan haik lehenao juaten ziela obreruena ainketan edo zerien, ta armozue eruten otsela bere aiztiek. [Ta han gora], han goixen ibiltzen ziela igual lanien, han lana nun toketan zan, ta han juaten zala. Nire ama zanien, ama neskatillatxue zanien ifini euela hori zerori. Ta ibili ziela eitten; denpora asko tardau euela eitten. Bai. Gure ama bizi izen balitz oin eukiko zittuen ehun ta hogein bat urte edo holakon bat izengo zittuen, edo gehixao iguel. Bai. Ta orduen hori trenbidioi eitten ibili ziela.
- Zure akuerduan kendu ein zan, ezta?
- Nere akorduen kendu ein zan.
- Jenteik ez zabillelako edo...?
- [Ez dakit]. [... artien be] ibiltten zan, baiñe nik ez dakit zeatik kendu euen. Orduntxe [ekin] zan jentie, ba... baiña artien be zenbat automobil abillen, ba? Oingo... oin beste [...] behintzat! Trenoi kendu zanien, guk pena hartu gauen. Baiña... Vittorixara ta Donostiara ta danerako euen. Obreruek

Mondraura lanera be hortik faten zien goxien zazpi t´erdixetarako. Zazpi t´erdixetan egoten zan Vittorixatik etortzen zan trena. Ta gero atzera illunkaran be seiretan edo eukitten euen gorako. Bai. Goxien, ba, beherakue egoten zan zazpi t´erdixetan; atzera gorakue Mondrauen kruzetan [euen], gorakue egoten zan. Ta beherakue [faten] zan zereraiño, Maltzaraiño. Ta gero atzera hamarretan etorten zan gora trena. Hamarretakue, ha Vittorixara faten zan. Bai. Ta gero ha etorten zan hamarretan... hamabixetan etortzen zan [ha] behera.
- Goguen daukotzu ondio, e?
- Bai. Horrek bai, horrek goguen [...].
- Zeu be sarri ibilittakue igual izengo zara...
- Bai. [...], hantxe fan biher izeten gendun guk.

8.3. Trenaren garrantzia

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/009
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:24:17. **Bukatu**: 00:26:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena**: Merkantzia trena.

Transkripzioa
- Han jentie ala, hola, generue ta be ibiltten zan? Edo jentie bakarrik edo... trenien.
- Generue ta dana.
- Dana, e?
- Bai. Zerien, ordu bixetan... Bai. Ordu bixetan euen merkanzia. Bai. Merkanzia zanian, hak ekarten zittuen. Ta goixien be merkanzia egoten zan. Ganauek-eta Vittorixara-ta, [iguel] karanzeruek erosten zittuen, ta, ba, hantxe trenien eruten zittuen, goxeko trenien. Trenien; besteik ez auen ta. Orduen ez auen eze, kanbionik eta ezebe.
- Orduen goxetan tren bat merkanzia?
- Bai. Peskie be hamabixetako tren... Ez. Hamarretako trenien Donostittik etorten zan. Kajan bat edo ekarten eben, e! Baiñe hantxe, hamarretako trenien. Peskie-ta be.
- Asko erabiltten zan tren hori!
- Bai, bai. Trena asko euen. Goxien zazpi t´erdixek inguruen, gero hamarretan, ta hamabixetan be egoten zan, ta atsaldien lauretan be bai... [Hak orduek auken], ta jentiek [danak ekixan].
- Orduak errespetau eitten zittuen? Garaiz ibiltten zan ala...?
- E?
- Orduak ondo errespetaitten [zien]?
- Bai, bai, ondo. Ondo errespetatzen zittuen, bai. Bai. Ondo ibiltten zan. Ta gero, luzero [ibiltzen]zan... Eibar... Gero ipini zan Eibar-Vitoria. Ha zortzi t´erdixetan. Zortzi t´erdietan ala bederatzietan? Etortzen zan Eibartik, Eibar-Vitoria esaten jakon. Ha etortzen zan goxien, ba, bederatzietan edo, ta atsaldien bost eta erdixetan etorten zan. Hor, bi autobus. [Hareaz ibiltten] zan jentie, Vittorixara oiena, ta, ba, asko, ba... Orduek euken, bai?

Ta Vittorixara oienak eta danak jakiñien ze ordutan [dazen egoten zien].
- Ta gero kendu ta kitto.
- Bai, gero danak kendu ta kitto!

8.4. Ur-gabezia

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/011
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:26:51. **Bukatu**: 00:28:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Garai batean ur falta handia. Etxeetan urik ez.

Transkripzioa
- Hau kunbuau be zure akuerduan in zan, ezta?
- Puf! Hori bai! Hori, zenbat urte da, ba? Hogeta bost-sei urte?
- [Oraiña] da orduan…
- Hori in aurretik uraz txarto ebillen jentia.
- Bai, e?
- Bai.
- Ur faltia euen hemen, e?
- Bai, […] falta.
- Etxietan urik ez?
- Etxietarako ez. Ure baeuen egon, e! Baiña nik ez dakit, urtute edo biher dan moduen zertu ez. […] Mendiolatik euen ure orduen.
- Mendiolan ze euen, depositon bat edo…?
- Bai, ur asko euen, e!
- A! Bai?
- Bai. Depositto haundixe euken hortxe ta, ba, gero… Baiña eskas ibiltzen zien, e, urekin! Ta gero hau ifiñi euen, ta oin ondo. Bete-bete eindda edarto dao oin!
- Baiña lehen etxietara ez euen urik, ezta?
- Ke ba!
- Zure akuerduan karriuan ibiliko ziñein…
- Bai! […] gordeta […] edo zerak […]-ta, ba, hantxe. Hartu barreñoian ta hantxe garbittu. Bai. Ta etxien, ba, pozaderie ta ona guauken, baiña etxien holako txikixak-eta garbiketan gittuen. Pozaderan ondo, baiñe… Ure abundante ez behintzat! Bai. Eurixa asko eitten baeuen, ba, ondo.
- Bueno, neguan ez zan faltarik egongo, ala?
- Ez, ez neguen ez zan faltaik egoten.
- Udia izango zango zan hor…
- Udie, bai.

8.5. Urtegia

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/013
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:32:30. **Bukatu**: 00:36:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Urkuluko urtegia egin zenean, baserri asko galdu ziren. Ingurua asko aldatu zen. Kalean lana, fabrikan.

Transkripzioa

- Hemen pantanue in zanien, hor etxe asko geratuko zien urpien...
- Bai, hemen auzuen zenbat geratu zien? Bat, bi... hemen auzuen be lau, hemen be geratu zien. Koruetan, barriz, zenbat? [Korue, ...], lau, xei... zortzi-edo Koruetan.
- Dezente...
- Bai.
- Asko kanbixauko zan inguruoi...
- Bai.
- Lur onak izan biher hor, gaiñera, ezta?
- Bai, bazien, bazien.
- Lau-laue...
- Bai.
- Laue izengo zan hori... Hor jentiek penie hartuko euen galanta, ezta?
- Penie, bai. Bai. Orduen, ba, badakitzu, baiña, ba... Oin, ba, samurraue. Gaztiek-eta oin baserrittik ez [zauen] zerik eta... Oin holako baserrixetatik ez dao bizimoduik, e! Oin...
- Baiña orduan bai...
- Orduen bai, ordun bai. Orduen ganauek-eta asko ta...
- Orduan baserrixan jente gehixao biziko zan kalian baiño, ezta?
- Ez, kalien gehixao.
- A! Kalien gehixao? Bai?
- Bai, ordureko bai.
- Ordurako bai?
- Ordureko kalie [ketan] ekindde euen, e!
- A, bai, e?
- Bai.
- Baiña horrek jentiorrek terrenuek-eta be biher, ezta? Lanerako eta...
- Bai. Bai, ba!
- Ezebe barik geratu zien...
- Bai, ezebe barik. Oin, barriz, baserrixen lan [...] hor dao, ba, ta zerien, ta, gaiñera, ez dao oin baserrittik ezebez.
- Baiña orduan kalian ez euan lanik, ezta?
- Kalien?
- Bai.
- Hori in zanien?
- Bai, garai hartan, hori da.
- Bai, kalien ordureko lana asko euen, e!
- A, bai? Ordureko fabrikak indda euezen?
- Bai, bai, ordureko ekindde euezen zerori, Mondrauko...
- Kooperatibia.
- ... kopperatibioi-ta. Bai. Ordureko kalie be [bizketan] ekindde euen, e!

- Eta lana eskeiñi xaten, ezta, kalian? Ala…?
- Kalien lana, bai, fabrikan. Ta oin jubilau die, ta, ba, oin jubilaziñuekin, ba…
- Bai, ba. Baiña hola danai bertan behera [isteia] gogorra, norberan etxie [isteia]…
- Bai, orduen pena, baiña oin etorri dan munduko zererako ez euan bizimoduik fabrikiaz, edo… zeraz, baserrixaz. Ze saso´…!

8.6. Argindarra; lantegiak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/020
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:55:50. **Bukatu**: 00:59:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
  Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena**: Argindarra. Lantegiak Aretxabaletan. Kooperatibak.

Transkripzioa
- Serenua egoten zan gabetan?
- Ez. Mondrauen-ta egoten zan, Mondraue haundixaua zan-ta ordurako, baiña Aretxabaletan eta Eskoriatzan ez, txikixak zien.
- Kaleko argixak eta ixutu itten zittuen […], edo…?
- Baeuen argiik?
- A, bueno… Ez euen kalietan argirik, e? Oraiñaokua da hori?
- […] urik be ez euen orduen ta. Romalduenien fabrikia euela, Romaldona, Apotzagakuak euken han, ez dakitzu? Apotzagakuak zien haik, zerak, Romaldonen fabrikia eukenak. Apotzagako zela esaten otsen hari etxiari...
- Romalduena?
- Romaldo zan Apotzagakue! Ta gero euken zerien, Aretxabaletan, zapaterixia edo. Ta hak be udan argirik ez, bai? Ta hamen […] dauken zer bat, ze esaten otsen… tratoria! Tratoria […] makiñan garixa jotekua ta zien, inddarra, haretxeaz, haxe tratoria eruten euen, zera, inddarra zerketako, fabriketarako itteko. Zera, ura euen hortik Bolibartik edo, zera, bai? Eta ure gastetan zan udan, ta inddarrik ez zan egoten argixe itteko. Eta fabrikarako halakotxe […] itten euen fabrikako zera be, urik ez euen orduan ta! […] kalebarrenien fabrika txikiñak. Ta aurretik azen… […].
- Fabrikak eta problemakin ibiliko zien, ez? Inddarra…
- Inddarra falta izaten zan [puntuan], udan sikutia-ta baeuen…
- Zenbat fabrika egozen?
- Aretxabaletan? Aretxabaletan ez dakit, ba, ze fabrika euen orduen; Arruena ta Zerrajerixia be egon zan. Gero hak kiebra in euen ta gero Naparrura edo fan zan. Ta gero halako fabrika txiki batzuk. Ta gero, ba, bakotxak berak […] ein zittun, fabrikak eta, ba, gerotxuao, geruatxuao etorri zien. Lehendik zeuen hori fabrikiori, Zerrajerixiori, be ez auen, hori gero ifiñi zeuen, Aretxabaletan kiebria zela in euen Zerrajerixiak, ba, batzuk juntau bai, eta eurok ifiñi zittuen tallerrak. Gero kiebria edo in euen, e? Baiña… Orduko fabrikak… zeintzuk… Iturbe ta, in euen kiebria, behintzet zerrau zan; zera be bai, beste bat be bai, ta, ba… halaxe zertu zien. Beste batzuk, ba, jarri ein zien ta… […] koperatibak jarri zien…

8.7. Baserritik kalera

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/021
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:59:00. **Bukatu**: 01:02:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Kalean bizi zen jendeak lursailak izaten zituen. Baserritik kalera astoarekin joaten ziren. Kaleetan, astoak lagatzeko uztaiak. Aretxabaletako auzoak.

Transkripzioa
- Kaleko etxietan bizi zan jentiak baeuken terrenorik ala ez?
- Bai, baeuken terrenuak askok, ganauak be askok euken.

- A bai, e?
- Bai, bai, bai.
- Kale-etxien bertan?
- Kale-etxien, bai.
- Oin, kale-etxiak ittuak edo eukiko zittuein.
- Bai, ittuak euken, ittuak.
- A bai, e?
- Bai. Han plaza parien bizi dana, [Akixuna] edo esaten otsenak be, hak be ganauak asko euken. Askok euken hor ganaue.
- Orduan baserriko bizimodua.
- Baserriko bizimodue, han kale barrenien bizi zienak eta, […] eta be danak ganauek euki euen. Nik neuk be ganauak bastante ezautu nittun Aretxabaletan, kalien.
- Gero, astuek-eta lotzeko be zerak egongo zien, ez?
- A bai, astuek-eta lotzeko, kalien. Kale […] txintxak ifiñi ta astuak lotzeko. Orduan ez zan, automobil bat be ez zan pasetan ta.
- Orduan astua aparkau bihar!
- Bai astua, astuakin kalera ta.
- Astuakin ibiltzen zitzen kalera?
- Bai, astuakin.
- Zeozer karriau biher zanien edo holan, edo…?
- Bai, astuakin.
- Ze ipintten xakon astuari kargia erabiltteko?
- Otzarak! Otzarak ifintten jakon, otzarak. Astuen gaiñien kalera ta!
- Oiñez baiño samurtxuao.
- Bai, Ugaztegittik eta be astuakin etorten zien kalera! Lau-bost bat etxe baazen Ugaztegin be, ta.
- Hareik nora eitten die?
- Haik Aretxabaletara.
- Korueta?
- Aretxabaleta. Eskoriatzakuak: Gellao, Apotzaga ta Mendiola ta Bolibar [ei] dia, bestiek Aretxabaletakuak dia.
- Ta haik, Ugaztegi… hareik hemendik fanalditxua dao, ez?
- Bai, fanaldi haundixa […] hamendik gora, behetik gora.
- Horreik aparte? Aparte edo?
- Bai.
- Han bizi da jentia oin, ala…?
- Oin bizi da ta ez da bizi. Ez dakitzu? Oin etxietan, orduan danak kalera edo… oin atzera danak etxiok arreglau ta domeka ta zapatu faten die. Ta ganauek edo badauke, librien edo ibiltten die ganauek eta…
- Baiña zuk ezautu dozu bertan bizi izan dienak.
- Bizi zienak, bizi zienak. Haik Koruetara, haik eskolara Koruetara etorten zien. Bai Koruetako abadia ta…

8.8. Auzoetako jaiak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Lasagabaster, Feliziana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-003/024
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 01:05:15. **Bukatu**: 01:07:03
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa

- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Aisia » Jai-giroa » San Juan
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Erromeriak. San Juanetan, egun biko jaiak. Auzo desberdinetako jaiak. Gonbidautzak.

Transkripzioa
- Eta, orduan, jentia juntau herrixan eingo zan, ezta?
- Bai, elixa onduen juntau ta, ba, kontuek-eta esan han ta…
- Ta erromerixak eta?
- Erromerixak eta, ba, itten zien.
- Nun edo noiz edo…?
- Ba, hamen San Juan, San Juanetan erromerixia, bertako, zera, egun bikue.
- Auzoko jaixak edo?
- Bai, bertako jaixak. Koruetan Santiaguak bertako jaixak; Larriñon San Kristobal bertako jaixak... Ta, holaxen, danak zelebretan zien, ta gero soiñue egoten zan, ta… Bai. Aretxabaletan Andra Marixak; Mendiolan San Juanak... eta danien. Arientzan Andra Marixak, “8 de setiembre”, ta… baiñe auzuen orduen dana zelebraten zan.
- Hemen San Juan, ze egoten zan hemen?
- Hemen San Juan. E?
- Ze itten zan San Juanetan?
- Ba, meza nausixa ta zerak ta… gero, ba, soiñua ekarten euen ta… mutillak, fiestia. Gero, San Juanak eta, ba, basarrixek be leku danien hartzen zien jai. Jai izeten zan ta, ba, jentia, ba, fiestara etorten zan, gaztiek.
- Ta kanpotik-eta jentia etorten zan, ala…?
- Ez, ez, konbidauek orduan, parientiek, egoten zien bazkaitten, eukitten zien.
- Famelixa artekuak?
- Famelixa artekuak. Ta, ba, lagunek edo tratetan dauenak, jentiekin.

8.9. Auzoa; ingurua

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/002
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:01:50. **Bukatu**: 00:02:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Auzoaren, inguruaren azalpena; toponimia. Bideak.

Transkripzioa
- Ta, bestela, bidie hemendik eta Krutzetara, nundi-nora euen? Edo ze bide edo…?
- Hemendik […] Itturbera; Itturbetik Uittetik gora, Asentzio azpittik [hara faten gitzen gu]. Hiru bat ordu inguru eitten gittuen, e!
- Hiru bat ordu bidien?
- Bai. Bueno, geuk ez, e! Ganauekin esan gura dot, e! Burdixaz, e! Ta

Itturbetik honutz errekarik erreka; errekatik etorrialdi bat, beste bat kanpoti, beste bat erreka aldeti ta... [hortxe, hor] beheko — [atzo be esan notsun]— hor beheko errekatik etortzen [gintzen] burdixekin. Ha be gogorra zan, e! Baiña besterik ez euen.

8.10. Baserriko lanak umetan

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/018
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:30:07. **Bukatu**: 00:31:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Itulan nola egiten zen. Antzinako bizimoduaren inguruko kontuak; aldaketak.

Transkripzioa
-Ittaurren edo. Zu ibilitta zaz ittaurren?
-Ni ez. Nik eztot holakoik ezautu.
-Ittaurren ganauen aurrien. Ganauek etxe bakotxien egoten zien pare bi jeneralien egoten zien. Irixek egoten zien. Gurien etzan iririk egoten. Pare bat egoten zan jeneralien ittaurreko barik lan ondo eitten dauenak. Baiñe gutxi ibilittakuek bat aurrien ibilli biher izeten euen, bestela gure euen lekura faten zien. Klaro, ittaurren eittie horri deiketan jakon.
-Mutikuak jeneralian?
-Mutikuak (...), gero ba parien tokaten jakona. Zuek euki dozue suertie zuek, suertie euki dozue.
-Gu berandutxo etorri gintzen eta.
-Guk suerte txarra, goiz etorri gintzelako. Eta gure aurrekuek (...) ondio hobeto ez. Harek txarrao ondiok. Hobeto etzien ibilliko.

8.11. Aretxabaleta: herriaren bilakaera

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/035
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:49:10. **Bukatu**: 00:51:25
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Aretxabaletan kale-baserri asko zeuden garai batean. Baserriko tresnak. Herria nolakoa zen; oso etxe gutxi, gehienak baserriak.

Transkripzioa
-Hor be basarrixak asko euzen Atxabaletan lehenau ta. Hor terreno zatixak eta baukien da hareik lanketan. Goldie ta beste erremintta batzuk. Lurra apurtzeko artaarie ta trillue ta danak erueten zien. Lelengo goldatu ta gero trilluaz apurtu ta...
- Trillotu, apurtu ta gero artariaz apur bat zera eiñ, hauts apur bat iñ patatia sartzeko ta urabarrixan da. Atxabaleta, e, lau etxe euzen bakarrik Atxabaletan nire mutiko denporan.
-Ez euan etxe, kaleko etxe asko. Dana basarrixak zien, hasi behian da goraiño eztakit zenbat dazen be.
-Hortxe erdi-erdixan, zentro-zentruen dazen horretxek etxiok.
-Parte zarra.
-Gerrana ta Zaldukue ta. Zenbat eozen. Hor beetik gora (Pixuenak?) be bai lenao. Hori Eroski, harek jaukenen. Da handi gora be bai. Gero horreik zeranak eta. Ximonenak horrek. Ixa aztuta daukat izenak pe horrenak. Han etxe baten bizi zien haik danak jaukien terrenua. Gaztañaganak eta. Danak eukien, asko edo gutxiau terrenua. Da eurak pa behin bat ero; behin bat ero beste. Da lanketako paraje zera baeukien ba. Baten bati eragin biher, goldan da eziñ eiñ harekin.
-Normalien eukitten auen ba esnie eukitteko etxien. Esnie ta txaltxo bat hazi tta halaxe. Gero basarrikon batei eraiñ lanak, patatie ta babie ta jateko ba landu ta preparau ta gero ba eurek ereiñ.
-Eurek fabrikan lana eindde kaleko gizonok. Fabrikan in lana ta gero libre eozen denporan ba patatie ta hartu.

8.12. Aretxabaletako bainuetxea

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/036
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 00:51:25. **Bukatu**: 00:55:40
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
  Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Bainuetxea. Kanpotik jende asko etortzen omen zen garai batean bertako ur hotzarekin bainuak hartzera. Bainuetxeko jabearen inguruko azalpenak. Bainuetxea nolakoa zen. "Erreberua" gustura edaten zuten kanpotarrek.

Transkripzioa
-Baiñuetxiaz da akordetan zara?
-Baiñuetxia? Bai. Baiñuetxiaz, bueno! Akordau bai baiña orduan etzan jenteik egoten nere akorduan. Etzan jente asko eongo. Bateon batzuk egon bazien be, baiña. Baiñuetxien Madrilletik eta jentie etorritta ta. Horrek uretsa horregaz hor baiñuek hartzen zittuela ta. Baiñuetxien, bai. Han ikusten-da ibilitta nao ni. Hango jentie ezautu neban, hango amandrie Sara, eta haren alaba bat be bai han bizi zan, Maritere ero. Eta gero zera don Domingo; medikua Eskoritzan? Ha horkua zonan.
-Baiñuetxeko jabie zan? Horko jabie?
-Horkue zonan, jabie izango zonan ero. Etxakiñat zela zien horreik. Beste

anai bat be bai. Gero harek gerran etxakiñat zer izan zan. Zeozer da. Etxakiñat nun itten ebela lana, Intendentzia ero etxakiñat zela esaten otsien be. Nunbaitten itten jonan-da. Baiña zeoze pasau jakonan da tuerto geratuta ero egon biha zonan. Fernando ero haren izena, hori Domingo, eta bestie Maite ta. Nik ezautu najittunan horrek. Han egon zienien, ha etxe zarra. Ha be zelako etxie! Dana enauen ikusi baiñe bajue ta ikusten nauen; zelako pasillo zarrak eta zelako zera zan. Lenauko etxie. Otazuanan antzekua. Haundixa.
-Ordurako ia etzan jenteik...
-Jenteik ia ez. Etxonat pentsetan jente zerik egoten zanik ya ordurako iñor. Lenao bai egoten ziela ta. Esnie hartzen da etorten ziela hona. Behixa atara kanpora, batu basora esnie, erreberue ero esaten otsien orduen, esnie, da ha esnie han batu da ha eraten euela. Ta eztait zenbat pagaten auen ba. Orduan asko ez zan izengo. Aztuta daukat zenbat pagate auen basokada bat esne. Baiña bat baiño gehixao lagunak etorri tta ba haxe behixa atara...
- Esne naturala... Oin baiño sanuauek egongo zien, bestela... Espumoso como caña.
-Nire anaiek pe eraten auen, nik ezin nauen eran esnia. Nik ez nauen eraten baiña Jexuxek...
-Esaten dau, berai gustetan jakola, bueno...
-Gozo-gozua izeten don. Ni be probauta bajaukanat . Probauta bajaukanat baiña...
-Neuk eztot probau.
-Holako ontzi txiki bat auen eta harek hartu eskuen da faten zan amaana, behixak batzen da: "Nerie!"; bits horri apur bat eraiñ aldamenera ta, rast! hartu ta emuten utsen da.
-Hari gustetan jakon.
-Egosi barik arriskutsua da.
-Bueno, baiña orduen.
-Kostunbrie da, akostunbrau ein bihok, dana haxena dok. Nik neuk ez.
-Pentsuek eta..., orduen naturalaue. De hecho ba ondo egongo zien, iñok eztau sekula ezer euki. Oiñ geixotasun haundixenak pentsuetan dau.
-Artue ta garixa etxekue ta.
-Lastue ta bedarra.
-Dana etxekue. Asko etxakuen emungo pentsue, baiña emuten jakuen apurre behintzet etxekue.
-Artaberdie eukitten zanien eta artue.
-Baiñu batzuk hartu han, eta hemen esne freskue eran eta fango zien, buenooo!
-Pasiau ta ingo auien da, pasialekuak pe eukiko zittuen da.

8.13. Urkulu ingurua: errekak; toponimia

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-008/001
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
  Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

- **Laburpena**: Urkulu erreka. Inguruko erreka txikiak. Inguruko iturriak; "Barruko iturri". Erreka aberatsa; lehenago karamarroak ere bazeuden. Noiz hasi ziren arrainak urritzen. Kanpoko jende asko etorri zen herrira.

Transkripzioa
- Eta esaten dozu, orduan, erreka haundi hori, edo erreka prinzipala, ze izen zekan?
- Hiztuna 2: Urkulu.
- Urkulu. Bai.
- Eta gero beste errekatxo batzuk...
- Bai. Honek juaten zien, ba, goittik behera datozen errekatxuek izeten zien, juaten zienak, ba, horra.
- Hiztuna 2: Urkulu [...] ta gero hemendik oien beste errekatxo bat.
- Bai, bai. Hemen errekatxuk asko euezen ta han handikaldetik be bai, menditik behera.
- Eta izenak bazittuen errekatxo hauek edo danak zian errekatxuak?
- Ba, errekatxuek, bai. Honeik izenik, ba, ez dakit... Honek errekatxuok hemen juaten zienok nik ez dakit eukiko euen... Ez dakit. Akaso nire [gizonak egon baliez], ba... Ez. Larriñotik batzuk...
- Ez, normala izaten da. Bertakuandako errekatxua.
- Batzuk Larriñotik datozenak ta...
- Hiztuna 2: Larriñotik dator errekatxo bat, [juntatzen] da hemendik...
- Eta gero zela esaten deutsie horri... “Barruko itturrixa”? Ez, zela esaten dotsie honi? “Barruko itturrixa” han behekue da. Honi zela esaten dotsie honi itturritxua hor dauenai? Ezin naz akordau.
- Errekiaz aparte, orduan, itturrixa be bazeuan?
- Itturritxo bat dao, bai. Honeik daukie hartute, Urkulukuek daukie hartute etxerako. Hor kasetatxo bat dao.
- Hiztuna 2: Bai, “Barruko itturri”.
- “Barruko itturrixe” esaten jako horri?
- Hiztuna 2: “Barruko itturrixe”? Bai.
- “Barruko itturrixe”, “Barruko itturrixe”, esango jako, ezta? Bai, hori da “Barruko itturrixe”. Bai, bai, bai, hori da.
- Hiztuna 2: Bai, [...] hortik, beste bat handik ta juntetan die hor behien ta hortik...
- Bai. Eta hor dao —hori da—, hor dao, ba, hartuta kasetatxo baten, hartute dau itturrixe. Itturrixe. Lehenau jente asko juaten ei zan, ba, ni hona etorri baiño lehenau, juaten ei zan, ba, hortik ure erueten ei euen etxera, erateko ta.
- Klaro, basarrixetan ez zeuan urik...
- Ez euen urik, ez.
- Ta itturrira juan bihar...
- Klaro. Bai.

8.14. Lehenago lursail gehienak soroak ziren; basoak aldatu egin dira

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/020
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:37:55. **Bukatu**: 00:40:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Auzoaren inguruko kontuak. Basoak; soroak. Zelai gutxi zeuden lehenago; gehienak soroak izaten ziren: artoa, garia, arbia eta baba ereiten ziren, besteak beste. Basotik ira ekartzen zuten: noiz eta nola batzen zuten. Orbela ere ekartzen zen basotik. Aginaga (Bergara) inguruko basoak. Orokorrean basoak asko aldatu dira; orain gehienak pinudiak dira.

Transkripzioa
- Basuak-eta, hemen zelaixak beti zelai izan dira?
- Lehenau garixe eta artue-eta erein ein biher zan eta labrau eitten zien. Dana labraua zan, bai. Dana ez esateagatik, zeozer ez, baiña onena bai. Hau gure errekie dagon lekue-ta sekula ez zan zelai izengo, beti labrauta zeozer: garixa, hartue, arbixa, babie… Enfin, biher zana.
- Labraua zati gehixena, eta basuak urrintxo geratzen zien?
- Maria: Basuek aparte dauz.
- Basuen eitten zan idie. Ganauen azpixak eitteko hori derrior biher zan. Udazkenien hori lan bat izeten zan formala. Idaak ekarri, bere sasoien heltzen die, septienbrien azken inguruen, eta ekarri. Eta oin orbela be egoten da udazkenien jausitta leku batzuetan, oindio ida barrixak urten barik...
- Maria: Idie gastaute eta orbela ekarri.
- Hori eindde nau neu be.
- Maria: Hemen basuek bastante urrin jausten jakuz. "En cambio" neure… Gontzarrin, ni bizi nintzen lekuen han hurrien geunkazen basuek eta dana.
- Horrek etxe onduen.
- Bentajia, ez?
- M: Bueno! Ide sailla garbi-garbi. Zelaixen moduen ide sailla. Oin danak piñu sartute daz, baiña orduen…
- Eta hor Gontzarri inguruan basuak zer izeten zien, pagadixak?
- M: Pagadixek asko.
- Baiña oin gutxiago egongo da, ezta?
- M: Hango piñuek ba ointxe berrogeta hamar urtetik honuzkuek. Baiña horrek ide saillok garbi-garbixek zienak ba danak piñu daz. Idie ze garrantzitsua zan, garbi zela eukitzen zien. Harek ba azpixak eitteko-ta. Oin gauzak ganbixau die, ta oin, e, dana piñua.

8.15. Erromeria garrantzitsuak inguruan

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/023
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:26:55. **Bukatu**: 00:29:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Inguruko erromeria garrantzitsuak. Koruetako erromeria; Aozaratza; Larrino.

Transkripzioa
-Erromeixak hemen be egingo ziren inguru honetan?
-Bai.
-Zeintzuk zien ezaunenak?
-Koruetan erromeixa famosotxuena. Entzutia.
-Koruetak euken, Koruetara etorten zan erremeixara jentie Golibarti, Mendiola aldeti, zereti be bai, Urrexola aldeti.
-Arientzan be erremeixia izeten zan.
-Arientzan be bai.
-Koruetan izeten zan Santiago. Hemen setienbreko amabirjiñie. Ocho de setienbre. Baiña hemen be erromeixa haundixa eitten zan, e.
-Eta gero tabernaik ez dago eta gero atia jo eta hona etorten zien.
-Bai, etxietan.
-Etxietara, bazkaittan sobrautakuak ezpada jaten. Nik ikusitte daukat Golibartarrak eta hona etorri ta, ba!, zeozer ardaue edo eskaketan auen eta, klaro, euena emun. Pozik.
-Eta gero Azatzan, hemen Azatzan be bai. Karrozie ta eitten auen, eta bueno.
-Bai, Otalako amerikanue.
-Gero urte mordoska baten Larraiñun oso erromeixa haundixa ein zan, ni etorritta gero, e. Hemen Larraiñun.
-Eta Azatzan ze eitten zan, karroza?
-Karrozie eitten euen.
-Zerera faten zien, Koruetara. Karrozie ba hemen baserrittar bat euen esne saltzen astuaz eta karruaz eitten ebana. Ta karruoi lorakin eta ifintten eben eta kamiñuen eitten eben Koruetatik bueltie ta. Soiñue edo hartu karruen eta.
-Egun espezialen baten?
-Bertako jaiegunien.
-Hor San Juan. Bestien, Larraiñun San Kristobal. Baiña oso epoka txarra izeten zan San Kristobal garixe ereitten zan denporan, orduantxe egoten zien gari danak helduta ta. Ta orduan ez dakit ze erremeixa eingo zan. Baiña gero garixok eta danok ahaztu zieniean ondoren erremeixa haundixa eitten urte batzutan jarraittu eban. Eta gero galdu zan eta oiñ ez da eitten ezebe.

8.16. Aretxabaletako hainbat auzotan desagertutako baserriak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-012/002
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:01:00. **Bukatu**: 00:04:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Aozaratza auzoan jaiotakoa Zelaikua baserrian. Urkuluko urtegia egiteko baserria bota behar izan zen; ondoren berria eraiki zuten handik gertu. Beste baserri batzuk ere bota behar izan ziren. Urtegiak, Urkulu baserriaren izena hartu zuen. Desagertutako baserrien izenak Aozaratzan (Azatza) eta Koruetan.

Transkripzioa
- Esaten dozu Azatza auzuan jaixotakua, eta basarrixan izena zein zan?
- Zelaikua.
- Zelaikua basarrixa?
- Bai.
- Eta gitxi gorabehera ze urtetan bota zan? Edo... presia noiz ein zeben?
- Horixe ez dakit.
- Oin dala berrogei bat urte edo?
- Ez, gutxiau. Horixe zeroi in euenien.
- Orduan...
- Presia in euenien bota euen, presiak hartu euen.
- Eta gero [...] barrixa?
- Ta gero hor ein giñuan barrixa, bai. Goixan. Geure terrenue zan, bertako terrenue, ta, ba, [...].
- Eta aittatu zenduan presa... bueno, presia eitteko basarri asko hustu ein bihar izan ziala, ez?
- Bai, bai, bai. Horretxen moduen, bota ta... Han [euroin] atzekaldien da beste bat barrixe eindde, Urkulu. Oin urek, zeak... hori dauko presiek, hori esaten dotse, Urkulu izena, baiña basarrixe hantxe indde dao geurien atzekaldien, Urkulu. Hango izenien, hango baserrixen izenien hor da eindde barrixa.
- Eta zeuen auzuan gitxi gorabehera zenbat basarri galdu zian edo?
- Ba, bat, Zarbiarte bi, [Ogiñekue] hiru, Aldaixena lau eta [Aiñabarreta] bost. Bost basarri.
- Eta beste auzuetan be galdu zan basarririk? Koruetan edo hemen...?
- Koruetan bai, Koruetan asko. Ez, hemen ez, hemen bat be ez, baiñe Koruetan... Aber kontetan dittudan: Iraban bat, Mendikurtza bi, [Gisatx] hiru, [Usaar] bixek bost, [Ziondo] bixek zazpi, Urkulu zortzi, ta gero lurrek hartu otsen zerai Markiteiri, baiña baserrixa han geldittu zan. Baserrixa han dao. Baiña baserrixen iñor egoteko moduen ez. Oseake, jaixetan edo etorten die, baiñe...
- Orduan, Koruetan be basarri asko galdu zian...
- Asko, beatzi.
- Eta hemen, berriz, esaten dozu bapez, ez? Auzo honetan...
- Ez, ez, hamen ez. Hemen ez, ez zan galdu. Eta Barrutikue be bai, beatzi, hamar be bai. Ez dot kontau.

8.17. Iturritik ura eraman behar egunero etxera

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-012/011
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:19:10. **Bukatu**: 00:21:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Iturritik ura ekarri behar izaten zuten egunero. Urkulu inguruan bi iturri zeuden. Bata oraindik bertan dago; bestea desagertuta dago. "Beheko itturrixe". Umetako ibilerak.

Transkripzioa
- Lehen aittatu dozu ura ekartzen zenduala. Hemen Urkulun bi itturri zeren?
- Bai. Bat han dao zeran gaiñekaldian, kamiñuen gaiñekaldian. Baiña guk ekarten gebena…
- Galduta?
- Hartu…
- Eta izenik bazeuken itturrixak?
- Beheko Itturrixa esaten gutsen, guk hartzen gebena. Handik hartzen euen Urkulukuek, gero Koruetak […], horrek laurok handik hartzen euen, handik itturrittik. Eta Azatzan geu, eta geure gaiñekaldian euen, oin azpikaldian da, Etxaluze. Horretxek, geu bixok, besteik ez zan faten. Gero goikora faten zien Sarrialde-Aldaixena, Aiñabarreta (?), horrek goikora faten zien.
Eta zuendako beheko itturriko ura hobia zan?
- Fiñaua. Eukan metal gehixao bestiek, goikuek, oin daonak. Lagunak-eta handik ekarten auen, eta sarrittan juntetan gitzen, eta bertatik. Lelengoko tragua, lelengoko zera aittajaunak. "Goiko iturrittik ekarri dozue!". Barriro bielketan ez giñuenien, pozik, behekotik ekarten. "Goiko iturrittik ekarri dozue!" Ixilik egon biher.

8.18. Klase desberdinetako hileta-elizkizunak

- **Hizlaria(k)**: Arenaza Altuna, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-013/008
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:16:00. **Bukatu**: 00:18:30
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena**: Klase desberdinetako hileta-elizkizunak. Auzoan, lehenengo mailakoak izaten ziren elizkizun guztiak.

Transkripzioa
-Sei abade, zela? Inguruko guztiak etortzen zien?
-Bai. Hoixe.
-Eta zuk entzunda daukazu entierro klase diferentiak?
-Bai.
-Eta sei abade zer izango zan, primerako entierrua?
-Bai. Danak zien primerakuak. Hemen baserrixetan danak zien primerakuak. Zegatik e ez dakit zenbat meza emuten zittuen libiri eta labero, gure aittai ez jakon gustetan.
-Zelan?
-Libiri eta labero esaten utsen.
-Zeri?
-Entierru horri gure aittek-eta esaten utsen, zegatik e aguro hasi eta akabau biher izeten eben mezioi eta zeroi, ez euen eukitten astirik.
-Eta hori zan libiri eta labero?
-Ba hori da ganauek zainketan gebitzela, gu hemen eta beste batzuk han, eta beste batzuk han, eta orduan zerraduraik-eta ezebe ez euen-eta, eta illunkaretan-eta danok, neskatilla-mutikuok ganauzain eskola ostien; eta baten bat ikusten bagontsen ganauak txarto ebixela-edo beste baten zelaixan ebixela-edo, deittu eitten gutsen: "Libiri ta labero, bai ganauzaiñe,

kakaganauzaiña, ganauzaiña logure, ganauek jaten gure aiña".
-Eta gero hori, libiri eta labero, abadiagatik esaten eben?
-Bai, aguro eitten euelako eta zikilimakalia eitten euelako, libiri eta labero esaten utsen. Gure aitten kontuek […].
-Eta esaten dozu […] meza haundixak. Eta entierrua be pagau egingo zan, ez?
-Bai, pagau eitten zan, ez dakit zenbat anega gari… Guk eta Matikuak ez. Gurien ez dakit ze pasaute eozen abadiaaz, ez zan ezer zerketan.
-Baiña bestela?
-Baiña gero ez utsen, ez euen zerik be eitten, e; hola entierrue ein bihar bazan be, hola meza bat emuten eben, ez dait bi abade-edo, laguntzaille, baiña gero ez euen eitten hori entierruoi, e.

8.19. Umetan Gatzagara eskolara

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/003
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:02:20. **Bukatu**: 00:03:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Marin auzoan eskolarik ez zegoen, eta umeak Gatzagara joan behar izaten ziren. Irakaslearen inguruko zenbait azalpen.

Transkripzioa
- Mariñen ez auen eskolaik eta juaten zien Gatzagara; oiñez, e, neskatilla-mutikuak danak. Eta zelako maistra ona eukien; orduan oiñetakuak eta oingo modukuak ez, eta edurra orduan, asko! Eta juaten zienien Gatzagara, ba, hango maistriak kentzen otsien bustitta oiezen galtzetiñak eta abarkak eta horreik, eta domeketan mezetara juaten zien Gatzagara, eta gure amandriak erueten otsen maistriai galtzetiñak-eta sikuak ifiñi daixen han, ta oso maistra ona euki euela eta eskola asko gaiñera ikesi euen gure amak.
- Bai?
- Bai, erakutsiko dotsut gero kuadro bat berak einddakua 7 urtekin, 100 urtetik gora daukena.

8.20. Aretxabaletako bainuetxeak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-014/024
- **Iraupena**: 0:04:40. **Hasi**: 00:31:10. **Bukatu**: 00:35:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- **Laburpena**: Kanpotik jende asko etortzen zen bainuetxera; herriko jende asko egoten zen bertan lanean. Madrildik etortzen zirenak pasioan egiten zuten herrigunean eta inguru hari "Portasol" izena jarri zioten. Santa Agedako bainuetxea; Cánovas erail zuten bertan. Mojen komentua egon zen tokian ere bainuetxe bat egon zen garai batean.

Transkripzioa

- Eta geo baiñoetxien ta be, gure amak esaten euen epokak, baiñoetxera beraniantiek etorten zienien, ta danak madrileñuek, esaten auan.
- Hemen baiñuetxia ta nun egon zan?
- Oin be, oin ez; baiña urte gutxi dala bota daue hori, e? Oin industrialdia ein daue, ez hemen bistan dauena, baizik ezkerretara hartu, oin bidegorrixa-ta hasten dan tokixen. Harek fabrikak ein dienak han, hantxe auen udaletxia, edo baiñuetxia.
- Eta kanpotik etortzen zan jente asko…
- Asko. Eta urte gutxi arte…, bueno, urte gutxi arte, urte asko dia ez datorrela. Ni ia neskatxue eindda e? Etorten zien, Burgaleseneko etxia, hor hirugarrengo pisuen euen pentsiño bat, bai holan, abadiek eta maistrak eta egoten zien lo ta bazkaitten ta holan, ta hara etorten zien andra-gizon batzuk, madrileñuak, holan ia zar-zar-zahartxuek, urtero-urtero, agostuen horraxe, baiñoetxien egondako jentia zalako denpora baten.
- Madrileko jente asko, diñozu?
- Eta jentia gero han eozen, baiñeratan-eta sartzen auenak jentia, etorten ziela kojo-ta, danak muletakin-eta holakotxiak, bai, eta amak esaten auen aide faten ziela osatuta jentia, e. Eta bat, gizonak eozen enplietan zienak udan, holan hartu horrek zerien, eta baiñeratan sartu ta zeatzeko. Ta bat badakitzu zein? Bizi ez da bizi, baiña haren billobak eta bai: honek Etxeberria, oin podologia badago ba hemen, horren aittajauna zan, horren aitten aitta bat, han baiñoetxien enpliauta euena horrek baiñeratan sartu eta holakuak eitteko.
- Lana be emungo zeuen herrixan… Behintzat tenporadaka, baiña langilleak.
- Bai. Eta hemen esaten da Portasol horri, baiña hori dator de "Puerta de Sol", madrileñuek ifiñi utsielako "Puerta de Sol". Handik horraiño fan pasiuen ta hola, eta madrileñuek "Puerta de Sol" ifiñi utsien, eta gaurko egunien be lehengo jentiek danok "Puerta Sol" esaten dou horri.
- Hemen kanpotarra jente asko. Herrixan eragiñik euki zeban?
- Segurutik ez, segurutik ez harek. Ez naz akordetan. Bueno, akordau. Igual entzunda egongo naz, baiña ez dakit hori. Eta gero beste baiñoetxe bat egon zan Santa Agedan, oin Aita Memi ta dagon lekuen. Eta han Canovas ta egon zien, Canovas hantxe hil euen. Eta horrek gauzak.
- Eta horrek kontuok zeiñek kontauta?
- Etxien. Eta Canovas eta horrek gauzok, niri ahaztu jat niri horrek izenok. Gu gaztiek gintzen, eta entzun bai, baiña gero itten dozu holan, eta ya ahaztu eitten da. Eta hemen mojen konbentue dagon lekuen be egon zan beste baiñoetxe bat. Baiña gure amak esaten euen bera ez zala akordetan horko zerakin, baiña horkuekin bai.
- Orduan be jente dotoria?
- Oso dotoria, danak soiñeko luzedunak eta, hamen berriz danak ba, herrixa txiki-txikiña zan. Neuk ezautu dot hori herrixoi, gure tiena, "calle" Otalora, hor bukatzen dan "calle" Otalora, e, Santutxoraiño, hor akabeten

dan lekua, bat, bi, hiru, lau bost, sei... hasi plaza onduen eta geure tiena, akabeten zan. Hemendik eta Eroskira... Keba!, gutxiau, Kalebarrena; eta gero Kalegoixena akabeten zan, honek euki daue ba oingo farmazia honekuak hor lehen, hortxe akabeten zan herrixa. Eta Portasol ta be euen orduen urrin e? Amak-eta ez oskun ixten domeketan ta hara joaten, urrin dauelako. Eta zerien, hamen dauen tokixen, orduen marianistak zeen, gu txikiñak geitzenien, ta nazimentua ifintten auen, ta horrek ikeraitten dauenok. Eta goazan! Eta amakin ta joaten geitzen, holan bakarrik joateko urrin auelako.

8.21. Errege-eguna

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/004
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:02:15. **Bukatu**: 00:03:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena**: Errege egunean opariak izaten zituzten. Aretxabaletan kopinak non saltzen zituzten gogoan du oraindik.

Transkripzioa
-Erregaluak eta eukitzen zenduezen Gabonetan?
-Ez. Erregietan, e, orduan Erregietan. Gure etxien be, gure etxien be diru pillue ez zan egongo baiña beti-betik -eta nik sinistu be haundi eiñ arte sinisketen neuen-. Bueno!, orduen hori deskubridutia aitta ta ama ziela... Enteretan bagintzen be atrebidu be ez beste bati kontetan hori. Haundi eindda. Eta gure amak danoi betik danoi zerbaitt. Eta zapatak ifintten gauen danok eta goixien zerak, erregalutxuak. Igual amak berak josittako kuleruek. Baiña hakixen gantxillotxuakin-eta eitten, eta hemen zeretan gantxillotxuekin eta. Honbre, Gauza zerak ez, baiñe nik ixa betik eukitten nauen muñekia, porke oso muñekazalia izen nintzen eta. Eta muñekie bakitzu nun saltzen zien? Mantxueneko dendan eta Erregenetarako ekarri eitten auen muñekak eta.
-Muñekak zelakuak zien, trapuzkuak edo?
-Ez, ez, ez. Bestelako polittak, e. Begixek ikera eitten euenak eta ez. Baiña oso polittak.
-Orduan Gabonetan erregaluak eta?
-Bai, bai.
-Gabon-kantak eta?
-Ene!, kantetan gauen etxien gabon-kantak. Eta oin be Mikelek-eta datozenien Gabon gabien kanteten dou billazinkuak eta, kanteten dou hemen kuadrilliak.

8.22. Herriko kartzela

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/034
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:57:30. **Bukatu**: 00:58:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena**: Kartzela zaharra, Kontseju azpian zegoen. Loramendi olerkariaren inguruko anekdota bat kontatzen du.

Transkripzioa
-Kartzelarik edo mazmorrarik edo?
-Kartzelia auen, jeneralien mozkortu edo eitten zien orduen, eta hortxe kontzejupien holako kuartoillunen bat edo. Han pentsetan dot auela. Eta zerien, Loramendiko... Bedoñakua zan Loramendi, hori olerkarixa edo ez dakit zer dan, zelan esaten jakon. Eta gerra denporan kendu otsien hari Bedoñan euen lapida bat edo, abertzalia, bueno, euskeraz eukelako gauza guztiak eindda. Eta ez dakit nun topau euen jentiak eta, eta onduen-onduen bakitzu zer euen?, kartzelara eruango dou. Eta egon zan han lapidia urtietan zerien. Eta gero ifiñi auen Bedoñan atzera. Eta hor kartzelan holan domeka gabetan eta pentsetan dot famosotxuenak kartzelan ba, gau guztia ez auen pasauko baiña hiru bat ordu edo bai. Burrukalarixak eta euzen hiru, oso famosuak. Eta persona onak zien. Baiña berotu ta. Bat, gaiñera, bi burrukan eta bera bakiak eitten joan, Eta bera geraketan zan haundi-haundi eindda mosua eta hirurak kartzelara. Eta gero atzera lagunduta urten hirurak. Hori bai, han kartzelia zan, kontzejupien euan leku..., kuarto illunen bat edo zan.

8.23. Aretxabaletako medikuak

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Timoteo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-016/004
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:04:30. **Bukatu**: 00:06:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Antxia Uribe-etxebarria, Jon
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- **Laburpena**: Aretxabaletan egon ziren medikuak gogora ekartzen ditu. Baserriz baserri ibili behar izaten ziren; besteak beste, umeak mundura ekartzen laguntzen. Mediku bat bizikletaz joaten zen baserrietara.

Transkripzioa
-Medikuak-eta hemen Aretxabaletan asko ezautuko zenduzen, ez?
-Aretxabaletan ba, bat nik nire denporan bat egon zan; beste bat mediku zaharra, don Severiano, ha sonbrerotxo bateaz ibiltten zan pasiuen gure mutiko denporan. Eta gero don Tomas Agirre. Kotxeik ez euken eta bizikletan ibiltten zan; eta horra zeara, Urkulure edo, horra deiketan utsen. Gero hara goiko basarrira iguel, eta orduen medikuek ibiltten zien, ta ez

euen kamiñoik. Kamiñua hor baeuen, baiña -lehengunien be esan notsun-. Bueltan badator bizikleta gaiñien, eta hor kalien entradan baserri bat, Basabe baserrixe, txakurrek hanguek urten dotse, eta bera [...] ta txakurrek hasi die burruken eta jausi bueltaka, izterra apurtu medikuorrek. Bai, izterra apurtu. Eta gero, ba, ez dakit ha holan egon zan denporan ba, Eskoritzakuak edo eingo euen, ez dakit. Orduen medikuek, pentsaizu, Aretxabaletan mediku bat. Eta hori Urkulu aldioi ta harako abixue. Orduen andrak be umiok asko eukitten zittuen, baiña ez zien faten oingo moruen maternidadera eta. Umie ein biher euenien, medikuana. Igual handik etorri eta hara goiko baserrirako abixue, andriek umie ein biher dauela eta; goixeko ordu bixetan iguel, bestetik etorritta. Gero barriro handik etorri eta ez dakit norakue. Beste basarriren baterako eta. Kalekuak ba [gauzen] egogi bertan baiñe, baserririk baserri medikuek asko [ibilli biher izeten euen]. Gaurkuek ein biher baleue hori, eneee! Hola zan.
-Mediku bakarra herri guztirako?
-Danerako. Praktikante bat. Praktikante bat gero etorri zan indizñuak edo holan emuteko-edo. Gero etorri zan. Baiña ni txikixe nintzela praktikanteik ez euen hemen. Praktikantie hona lehelengo etorri zanerako nik igual euko nittuen... Oiartzungo bat etorriko zan lehelengo hona, eta nik iguel eukiko nittuen hemezortzi edo...
-Urtiak.
-Bai, urtiek.

8.24. Eskola kontuak Errepublika garaian

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Timoteo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-016/006
- **Iraupena**: 0:04:40. **Hasi**: 00:08:10. **Bukatu**: 00:12:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Baserri ingurua nolakoa zen; kale-baserria zen beraiena. Eskolara, herrira joaten zen. Doktrina ikastearen garrantzia. Errepublika garaian, doktrina eta elizako kontuak eskolatik kanpo utzi zituzten; orduko oroitzapenak.

Transkripzioa
- Umetan hemen basarrixa kaletik gertu zekazuen?
- E?
- Basarrixa kaletik gertu, ezta?
- Bai, gertuen-gertuen geuk, hemen ez euen besterik. Hemen, errekatik honutz, ez euen etxerik bape be. Gertuen geu, geu bakarrik giñan ta.
- Dana dala, orduan etxe hauek be ez zian egongo?
- E?
- Etxe hauek be ez zian egongo.
- Ez, ez, bai zera! Honeik ez. Honeik etxiok ein zien “el año setenta”-edo.
- Orduan, pixkat apartetxuago geratuko zan herrixa, baiña hala ta guztiz nahiko …
- Bai, bai, hemetik laurehun metrora daoz, hortxe, hortxe, bueltia pasau ta… hortxe bertan daoz.

- Eta ume-umetatik eskolara-eta, herrira?
- Herrira, bai, herrira. Ta eskolara baten hara fan nitzen, esan notsun hori, abadiak ze galdetu osten? Eskolara hor goiko… hor dao Izurieta herri bat, San Pedro.
- Ez, ez, ez. Ia, kontau…
- Ba, han euen abade bat ta bialdu nindduen hara, hareana, ta, ez dakit nik, orduko kalera etorten nitzen, bai, irakurten apur bat banekixen, ta dotriñia eruan bihar izaten zan, eskolara, bi dotriña klase, lehengunian be esan notsun, dotriña haundixa eta dotriña txikixa; lehenengo dotriña txikixa ikasi bihar izaten zan dana, eta gero dotriña haundixa. Eta abadiorreana fan nintzen ta, abadiori, iñor be ez euen, abadie kanpora fanda, entierrora, bueno han mutikua han etxoitten dauela, ba, neu bakarrik nenguen, itxuria bestiek faten zienak baekixen ez etorrela ta. Etorri zan abadioi ta deittu osten barrura ta [jarritta ifini nindduen ta]: “Dotriñia ekarri dok?”, “Bai”. Ta erakutsi notsen dotriñioi, ta: “Nun habil?”
- Eta?
- “Nun habil?” Ta nik, ze karajo, orduntxe arte ikusi barik, eta zer esango notsen, ba, nik? Ezebez. Lehelengo-lehelengo galderia ifiñi osten, “sinismena zer da?”. “Hau, hemetik honaiño, hori, bixarko ikasitta etorri!” esan osten. Esan notsun, ba, zela han, han emuten euela etxerako zerreiñoi, lanoi. Eskolan ez, maixuek ez, baiña abadiek bai, dotriñan bai. Siñismena zer dan badakitzu, siñismena zer dan?
- Gogoratzen dozu ondiokan erantzuna?
- Bai, bai. “Ikusi ez deguna, Jaungoikuak hala agertu duelako, egitzat eukitzea da sinismena!”. Ikusi ez doun, ikusten ez douna, ezta? Ba, harek agertu oskun gauzia, ba, egitzat ifinttia sinismena. Ha […] gero, ha ikesten, etxera etorri eta ha ikesten egon nintzen. Ta ordurako irakurteko beste apur bat jakingo neuen, ez dakit. [Ha zan], nun nabillen galdetu osten. Harek baekixen ni iñun be ez nebillela! Baiña mutikuai burla itten oso gauza erreza da.
- Dotriñia, orduan, abadiak emoten zeban?
- Bai.
- Eskolan ez zenduen emoten?
- Eskolan emuten euen, garai hartan artien bai, eskolan emuten euen, baiñe abadiana fan nintzen ni eskolan, holan… ba, abadiorrek, hola, partikular, aparte moduan emuten euen eskolia. Eskolan emuten euen baiña “el año 31” republikiak triunfau [euenien] —egunien edo orduan urtien “el año treinta y uno” uste dot zala republikiak triunfau euela— eta orduan ya eskolatik, honeik, Santo Kristuok-eta kendu zittuen ta elizako zerak eskolatik kendu ein zittuen. Eta gero fan biher izeten zan dotriñia, maixuek ez euen emuten. Nik maixua, neure maixua, negarrez ikusitte dauket eskolan, hareik kendu zittuenien. Ha oso… oso zera zan, elizarako edo, nik ez dakit, akaso hak be pekatuak eukiko zittun geu letxe ta zeu letxe, zeuk be eukiko dittuzu baten batzuk eta! Ez dakigu ezer! Ta negarrez kendu zittuelako, Santo Kristuok eta elizak eskolatik kendu zittuelako. Negarrez, mutikoi holako hitzalditxo bat ein oskun, ta negar itten euen maixu horrek, negar itten euen, e! Kendu zittuelako hak pena hartu euen. Oseake, ha bera zan, ba, beste idea batzuetakua, eta gero, ba, republikiorrek, ba, horreik gauzok, kontra euen republikioi, ta kendu in zittuen eskolatik.

8.25. Herriguneak izan dituen aldaketak

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-018/002
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:01:50. **Bukatu**: 00:05:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena**: Durana kalea ez da batere aldatu. Plaza, 1930 inguruan egin zen. Lehenago plaza txiki bat zegoen, eta aldamenean lur-sail bat zuen. Bertan ortuak eta erdian etxe bakar bat. "Soziedade zaharra" esaten zitzaion. Lehenengo plaza nolakoa zen. Udala ere toki desberdinetan egon da.

Transkripzioa

- Eta kalia asko aldatu da zu umia ziñanetik?
- Ez, ez, hori zatixori ez. Hortik horra bai, baiña horraiño ez.
- Zatitxo hori holan…
- Ezautzen dozu zuk […]?
- Zeozetxo. Ez asko, e?
- Ba, Banco Vizcaya badakizu nun dauen?
- Banco… Bai.
- Ba, pixkat… Bat… Gero denda bat dao —denda bat gauza asko saltzen dittuena, bueno, “artículo de regalo” ta horrek danak—, ba, hurrengo etxia. Eitten dau kantoie eitten dau. Ba, hantxe.
- Orduan, kalia ez da larrei aldatu…
- Ez, ez, ez da aldatu asko.
- Baiña bestela…
- Etxe batzuk, klaro, arreglau ein dira, barrukua ta hori danoi, baiña bestela kalie ez da [hondatu]. Osea, dira etxe batzuk zaharra bota ta barriztu, barriztu in dira, baiña bestela kalia lehengo bezela dao. Ekin hamen plazatik eta ni jaixo nitzan etxerarte, lehenguan moduan, igual-igual dao. Oin, plazia, plazia in zan… plazia ein zan… el año veinti nueve edo treinta edo holakon bat ekin zan. Hemen euan plaza txiki bat —[bueno], orduan Aretxabaletako plazia— eta albuan euan beste —ez dakit fotografixarik… ez daukat hemen— terreno bat. Eta hari terrenuai, […] ortuak-eta euezen eta erdixan auen etxe bat, baiña zera, etxe bat ya apurtuta, eta hari deiketan jakon Sozidade Zaharra. Ez dakit, Karlistan gerlan baten edo apurtu [euen] hori etxiori. Eta milla bederatzirehun eta hogeta hamarrian, hogeta bederatzixan edo hortxe inguruan, bota euen hori danoi eta ein zan…
- Plaza barrixa?
- Plazia, bai. Ez oin dauen bezela ez, e? Bueno, lehelengo arbolak bai ta berjia be bai. Eta hori beste… beste monumentu bat dao hor plazan… hori be ez, ez [auen]. Eskillarak bai, eskillarak ein zittuen alde bixetatik. Alde bixetatik eskillarak eta plazia. Eta euezen arbola asko. Osea, oin daoz illara bi bakarrik ta orduen eozen beste kuadro batzuk, beste illara batzuk eta ez euen etxerik, hona gorarte dana zan plazia. Eta […] euen, bai, holako plaza bat, illara bat arbolak, gero beste bat… eta plazatik harutza euen holako beste triangular… forma triangular batekin beste terrenotxo bat. Han jaixetan-ta han zezena-ta egoten zan.
- Ene! Beira…
- Bai. Bai.
- Orduan, plaza inguru hori be zeuk ezautu zendunetik…

- Bai, aldatuta dao asko. Bai, bai, bai.
- Asko aldatu da.
- Bai. Ta hor… gero zera, aiuntamentuau ein zan… ez dakit [nik…] ze urtetan ein zan… cincuenta y… ez dakit, cincuenta y tres edo cincuenta y dos edo holakon bat. Bai. […]. Oin eskolak dira horrek, baiña lehenengo ein zan aiuntamentua. Lehen zaharra zan, han eskudo batekin badao…?
- Bai.
- Ha. Handik ekarri [eben] hona. Eta gero pasau zan hemetik oin dauen tokira. Eta hau gero ein zan, ba, gero eskolak.

8.26. Herria asko aldatu da azkenengo hamarkadetan

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-018/003
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:05:35. **Bukatu**: 00:08:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena**: Aretxabaleta asko aldatu da, inguru batzuk batez ere. Gasolinera; bideak... Mojen komentua, aurretik bainuetxea izandakoa.

Transkripzioa
- Orduan, herrixa dexente kanbixau da, ez?
- Bai, bai. Eta gero…
- Gaiñera, asko hazi da…
- Ta ni jaixo nitzan etxetik, handik, handik gora hori dana aldatu da. Handik dana aldatu da, bai.
- Ze zian lehen?
- Lehen? Ortuek be bai.
- Ortuak?
- Bai. Gu han bizi… Gero, hor ni jaixo nitzen lekutik juan giñan bizittera beste etxe bat. Gure senidiak in euen etxe bat eta han geukan etxia eta ortuak.
- Orduan, kalian be jentiak ortuak zekazen?
- Bai, bai, bai, ortuak, bai.
- Eta esaten dozu, orduan, zeuen hasierako etxe hortatik gora, hori, ortuak ziala ta… Oseake, jolasteko ta toki asko eukiko zenduen, ez?
- Bai, bai, bai, bai, ortuak. Euezen, etxe batzuk baeuezen, etxe batzuk baeuezen, baiña tartian ortuak eozen. Eta gero hemen behe-aldian be… behe-aldian ez da asko aldatu hemen kaliek, kalia. Bueno, ez dira asko aldatu zati bateraiño; handik behera bai.
- Klaro. Oseake, hemen zentrua edo alde zaharra mantentzen da…
- Bai. Bai, hori hemetik esaten jakona [“Porruena”], etxia, eta ni jaixo nitzen tokira kalia ez da aldatu asko. Hoixe, plazia bai ein zan. Eta plaza aurrekua… ba, hor be ez euen ezer. Sasoi baten gero gasolinera bat jarri zan eta ez, hola arbola batzuk-eta euezen. Arbola batzuk. Baiña ez da aldatu asko. Klaro, gero hor beste bide bat ein zan, beste kamiño bat ein zan. Hor juten dana… hori be ez euan. Ez. Gero monjak euzen, kolegixua euken monjak, osea, zera, monasterio eta monasterio… hori, euken

terreno haundi bat eukan, oso haundixa. Eta gero hori monasterixuoi... Bueno, aurretik hori baiñuetxia izendakue zan. Eta baiñuetxetik gero etorri ziran monjak Mondrauetik, Agustinas, hona etorri zian. Ehun ta… izango dia ointxe ehun ta bi urte edo dira etorri [zienak]. Bai, uste dot ehun ta bi urte, seguru ez nao, baiña uste dot ehun ta bi urte. Eske ez naz akordetan igez izen zan edo oin urte bi izen zan “le centenario”. Bai, ba. Oseake…

8.27. Herrigunea nolakoa zen bera umea zenean

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-018/004
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:08:15. **Bukatu**: 00:10:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Herriko plaza zaharra. Sozietate zaharra; bolatokia. Pilotaleku zaharra non zegoen.

Transkripzioa
- Ta plazia, esan dozu, plaza zaharra, bueno, arbola asko zekazela…
- Bai. Bueno, plaza zaharrian… oin daon tokixan, hor, hemetikaldian, etorri zan, kamiño bat etorren zerera, eskoletaraiño, honek eskoletara. Bueno, eskolak oin daoz […], baiña lehen zan beste forma bat eukan. Eta […] , holan, igoera bat. Eta horixe zan plazia. Eta gero bola-lekua euen be bai, bola-tokixa be hemen. Eta gero hori Sozidade Zaharra esaten jakona. Gero hori danoi bota zanien, ba, dana bardinddu [eben].
- Bai, veintinuve-treinta inguru horretan, esan dozu, ya plaza barri hori ein zala…
- Hortxe, veinti nueve. Bai.
- Eta gerora be, ba, kanbixuak eukiko dittu…
- Orduen, klaro, arbolak-eta orduen jarri zien horrek arbolok eta gero beste nobedaderik... A! Pelotalekua. Pelotalekua euen plaza gaiñian, plaza gaiñian, puskat harutzatxuao. Eta euan… oin badakizu nun daon pelotaleku bat hor?
- Bai.
- Bai? Ba, euan asko be honutzao, baiña kruzauta. Osea…
- Bai, perpendikular edo…
- Perpendikular. Oin dau… oin dau “en dirección norte-sur” edo, ezta? Bestie zan “este-oeste”. Bai. Eta ez euen, hortik ez euen kamiñorik. Hemen euen eskolok eta arbolak eta gero ein zan bolatokixa hor eskolan —ointxe be han dao bolatokixa, baiña lehenao beste tipo bat euan—, eta haren bolatokixan onduan euen, en perpendikular, zera...
- Pelotalekua?
- Pelotalekua. Eta, ostian, ba, zerak, ortuak.
- Orduan, etxe-inguruan eta jolasteko toki asko zekazuen, ez?
- Bai, bai, bai, bai.

8.28. Futbolerako zaletasun handia gazteen artean

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-018/011
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:22:20. **Bukatu**: 00:24:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
  Aisia » Kirola » Futbola
  Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- **Laburpena**: Zaletu asko herri batetik bestera futbol taldea animatzera. Tren espezialean joaten ziren batzuetan. Zaletasun handia zegoen. Neska ugari zegoen zaletuen artean.

Transkripzioa
-Jentia joaten zan inguruko herrixetara ta ekipua animatzera?
-Bai, bueno! Orduan trena be baeuan. Akordetan naz behin, fan giñan Bergarara; tren espeziala, gaiñera, Bergarara. Zan partidu bat, final bat edo ez dakit zer zan, Oñatin kontra edo, ez dakit, holakon bat zan, eta tren espeziala jarri euen, eta fan giñen trenien danok.
-Anbientia orduan?
-Bai, bai.
-Eta egoten zan herrixen artian pikerik? Oñatikuen kontra jokatu bihar dou, eta...
-Bueno, bueno... Orduan, ni ez naz faten oin fubolera, aspaldian ez naz, hogei urte honetan ni ez naz faten fubolera; baiña lehenao, lehenao faten zan jente asko, oin ez dakit zenbat faten dian, zelan ez nazen faten, baiña lehenao jente asko faten zan fubolera. Ta gaiñera, orduen ez auen, e, fubola zan espektakulo bat, gehixao espektakuloik ez auen. Klaro, telebisiñua bai, oin be ifintzen dozu eta..., baiña orduen ez auen telebisiñoik eta prozesiñoik eta; eta fubola zan, buenoo!
-Eta neskak joaten zien ikustera?
-Baitta. Hemen dago argazki bat... [...]
-Jente asko, e. Hau abadia-edo izango da?
-Abadia, bai. Arkarazoko..., ez, Arientzako abadia. Hemen beste abade bat.
-Jente asko.
-Beitu. Neure arreba bat.
-A bai, e? Kasualidadia.

8.29. Durana kalea

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-018/015
- **Iraupena**: 0:04:25. **Hasi**: 00:28:00. **Bukatu**: 00:32:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

- **Laburpena**: Durana kalean zeuden dendak... Pedro Lasagabaster, "Kukuena". Gaur egun Gurea taberna dagoen tokian (ikus mapan) bizargina zegoen, etaabarketagilea ere bazen: kalean bertan lan egiten zuen. Taberna; tela-denda... Sindikatu baten egoitza ere bazegoen kale hartan. Marrazketa linealeko klaseak ematen zituzten bertan.

Transkripzioa
-Esan dozu zu jaio ziñan kale hori ez dala asko aldatu. Akordatzen jatzu ze denda zeren?
-Gure azpixan euen, hor badago dendioi hainbeste saltzen dauena, hor euen denda bat, baiña zan dendia saltzen euena janarixak eta gauza asko, bastante gauza. Eta Kukuena, Kuku. Kukuena. Oin Kukuena Mondrauen dao, denda bat, Lasagabaster, ba haxe zan. Lasagabaster. Horren aittejaunak eukan hemen dendia. Pedro Lasagabaster, Kuku. Bai. Kukuena zan denda, e, bueno, herri guztirako dendia. Kukuenera erosten; oin faten da ba Eroskira, ba lehen Kukuenera.
-Danetik zeuan?
-Bai, bai, danetik.
-Eta beste dendarik bazeuan? Egoten zan baten bat alpargatak egiten?
-Bai. Gero abarketak eitten zittuen, barberixa bat euen, Gurea. Bada ba oiñ Bar Gurea?, ba hantxe euen barberixia. Eta harek eitten euen aparkatak.
-Denpora libria zeukanian?
-Bai, eitten euen kordelak, sokiak..., oiñ badau ba kalian arbola-illera bat, ba handik etxia dauen bittartian, han itten euen sokiak trentzau, aparkatan azpixa eitteko, zorua eitteko. Soka bat ifiñi eta tarraun, tarraun, holako makilla zera, bueltaka-bueltaka trenzau eiten zan, eta buelta-buelta...; aparkaterua.
-Orduan kalian bertan eitten zeban lana?
-Bai, bai.
-Eta zuek ikusi eitten zenduen?
-Bai, bai. Eta gero sokiori eitten zan zorua eitteko. Eta gero bestie eurak etxian, tabernan; oiñ taberna dauan lekuan.
-Eta bestela barberixia zan?
-Bai, barberixie. Eta gero euen han alde baten tabernia. Rokena, "de Roke", Roke Agirre. Tabernia. Eta honutza gatozela euen denda bat eta holako gauzak saltzen zittuena, bera ezkondu zan Oñatiko batekin eta Oñatira fan zien, gerra ostien Oñatira fan zien gero. Eta gero honutzao euen sindikato bat, sindikato obrero-ero.
-SOV edo?
-Euskaldunena zan.
-Sindicato de Obreros Vascos, gero ELA izango zana?
-Bai, bai. Gero ELA izen dana, hoixe.
-Eta zer zeuken, lokala?
-Bai. Eta horra gu mutikotan faten giñenien, emuten zittuen klasiak "de dibujo lineal".
-Bertan?
-Bai, euen delineante bat, hemen Lezama y Compañia, delineantia, eta harek emuten euen klasiak dibujo linealekuak. Illunkaran faten giñen eta han egoten giñen ordubete ero. Puxkat Geometria-ta; orduen guk hamar, zortzi-beratzi urte eukiko gittuen.
-Horrek zer zien. Klase partikularren moduan? Berari pagau ein bihar jakon?
-Ez, etzan..., sindikatuen, afiliauen semiei. Hortarako aitta sindikatuen egon bihe zan.

8.30. Batzoki zaharra; Kurutzeberriko gurutzea

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar

- **Erref**: ARE-018/022
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:46:50. **Bukatu**: 00:50:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Aisia » Kultura » Dantza
  Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena**: Batzokia Aretxabaletan; non zegoen, zer antolatzen zen. Poxpolinak. Nortzuk izaten ziren dantzak erakusten ibiltzen zirenak. Kurutzeberriko gurutzea: nork diseinatu zuen, non montatu zen, nola...

Transkripzioa

-Eta bestela batzokixak lokala nun zekan? Gogoan dakezu?
-Lokala hementxe, plazako eskillarak; hemendikaldekuek ez, bestekaldekuak. Eta hortxe euen, lenengo etxian, bai, hortxe, bigarren pisua.
-Eta ze zittuen han ofiziñak...?
-Ofiziñak be bai ta...
-Beste zeozer eitten zan? Ez dakit, herri batzutan kontatzen dabe teatruak itten ziala...
-Ez. Hemen oso lokal txikiña zan.
-Edo organizatzen zittuela dantzak edo pospoliñak?
-Hori baeuen, bai. Neu izen nintzan dantzari, eta bai. Eta neure arrebia be bai ta.
-Eta halan deitzen ziran, pospoliñak?
-Bai. Orduen nik eukiko nittuen beatzi urte edo; zortzi-beatzi urte. Eta jaixetan-ta itten gittuen dantzak.
-Eta zeiñek erakusten zittuen guzti horrek?
-Haxe bilbotarra, delineantia, esan dotsut emuten ebela klasiak dibujukuak.
-Lezamako delineantia?
-Bai.
-Horrek?
-Bai. Horrek eta gero hemen txistularixak be bai, Iturbek.
-Orduan bixak izaten zian?
-Bai, horrek izeten zien dantzak... Eta hori Bilbokua zan, Aznar zan hori, Bilbokua zan eta handik Bilbotik lehen be ibilitta euen nunbaitten hori be, dantzatan, eta handik ekarten zittuen hau hola, eta bestia eta, hemendik hau eta zera.
-Eta bera hemen bizi zan?
-Bai, hemen bizi zan, bai.
-Persona aktibua orduan?
-Bai, bai. Harek zera ein euen, beitu Kurutzeberriko kurtzia, ha bere proiektua zan, eta Aramaixon beste kurutze bat, Tellamendin, ha be bai. Haik kuruziak ein ziran, Lezaman egitten zittuen anguluak, "angulo en metálico", eta anguluakin eindda daoz horiek danok. Eta proiektua zan Aznarrena. Gero ha ein zan, ha montau zan, uste dot, Beroaneko fabrikan, Arrueneko fabrikan, Beroan. Hori ein zan "el año veintiocho". Akordetan naz, ni ez nintzan juan, lau urte neukan. Ni ez nintzan juan, baiña ama eta aitta joan ziran, ni geratu nintzan, amamakin geratu giñan gu etxian. Lau urtekin, orduen lau urtekin pentsau be ez juateik Kurutzeberrira.
-Orduan gaiñera oiñez joan bihar zan ez?
-Bai, bai. Dana oiñez. Eta kurutzie jaso euen, ez dakit, lau zera, pareja, idi parejak. Gero fotografia [...].

-Eta orduan egun espeziala izango zan, ez?
-Bai, bai. Mezia-ta erromerixia-ta danak egon zian. Oin be juaten gara, urtero juaten gara, setienbrian bigarren domekan juaten gara. Eitten da mezia emun eta gero piskolabis ta gero…
-Orduan mantentzen da ohitturia?
-Bai, bai.

8.31. Garraioak: autoak, gurdiak, dilijentzia

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-018/027
- **Iraupena**: 0:05:10. **Hasi**: 00:57:20. **Bukatu**: 01:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- **Laburpena**: Lehenengo autoak Aretxabaletan. Autobusa; kamioia. Taxiak. Zaldiak tiratutako gurdiak. Dilijentziak. Gatzagara igotzeko idi parea jartzen zitzaion dilijentziari aurrean.

Transkripzioa
-Lehen esan dozu kaliak nahiko libre egoten ziala.
-Bai.
-Auto gutxi.
-Gutxi. Oso gutxi.
-Gogoratzen dozu lelengo autua? Esan dozu hiru gogoratzen dozuzela.
-Bai. Autobusak bazeozen gozian zortzi t´erdietan gorutza; eta gero atsaldien boste t´erdietan beherutza, Eibarrerutz. Eta gero beste kamioi bat, hoixe Bergarako kamioi hori, eta beste hiru edo lau automoil pasatzen zien hemetik, gehixao ez.
-Eta hemen herrixan zeiñek zeukan automobilla?
-Ba egongo ziran bost edo sei. Medikuak-eta, medikuak, gure etxien be bat euen; bueno, fabrikakue, fabrikakue zan, eta Beroanien be bai, Beroanien pare bat edo, eta gero don Antonio, beste batek be bai, gero taxi bi, bata Paulotxona eta bestia, e…, taxi bi; beste hiru, bost kotxe edo xei. A, Romalduena beste fabrika bat botak-eta, alpargatak eta eitten zittuena…, alpargatak ez. Sandaliak-eta botak-eta eitten zittuena, horrek be bai, horrek be baeuken kotxie. Bat, bi, hiru, lau, bost, xei, zazpi…, hamar baiño gutxiao, e, segurutik.
-Eta esan dozu taxisak.
-Ni akordetan naz behin juan giñela Mondrauera San Juanetan suzkurruberak ikusten. Eukiko nittuen nik lau urte-edo; juan giñan Paulotxokin taxisian, bai. Oso automobil polit bat eukan. Eske Paulotxo izen zan txofer Otazuna. Otazu zan personaje haundi bat; hor aiuntamentuan badau ba, horkotxia, horkotxe emakumiekin ezkonduta zan. Eta hori izen zan haren txofer. Bitorixan bizi zien horreik, eta haren txoferra zan, eta harek itxi auenien txofertzia, harek emun utsen automoilla honi.
-Eta gero berak taxi moduan erabiltzen zeban?
-Bai. Eta gero beste bat, taxi bat euen Gorritxo. Eta juan giñen gu, lau urte neukela, juan giñen Mondrauera taxisian; eta ikusi gittuen suzkurruberok

eta horreik danok, eta bueltan etorri giñen kotxian, "coche de caballos", e.
-Hori esan bihar notsun. Aurretik dilijentziak edo?
-Bai. Zaldixan kotxian etorri giñan. Hemen aurretik diligentzia; dilijentzia uste dot pasetan zala Bergaratik Eibarrera-edo. Nik amari entzunda daukat, orduen egon zan hemen sasoi baten, bautizuetan-eta zelan botaten dien karameluak-eta, ez dakitzu zela botaten zien, dirue be bai. Debekatuta egon zan sasoi baten.
-Botatzia?
-Bai. Eske behin eleza aurrian, hortxe botaten ebitzela, pasau zan dilijentzia eta mutiko edo neskatillan bat harrapau euen eta hil ein zan. Eta orduan debekatuta egon zan sasoi askuan.
-Oso memorixa ona daukazu!
-Eta hori diligentzioi juaten zan zerera, Maulandara, Gatzagara, eta han Maulanda euzen idi pare bi, eta hartzen zittuen eta igoten zittuen idixekin, idi pare bikin, Gatzako aldatza goraiño.
-Pixua zekenian edo?
-Ez, ez. Normal. Bakitzu ze aldatza dan ha! Zaldixekin ezin. Eta gaiñera dauko, e, lelengo Maulandatik urten eta dau hirurehun metro, laurehun metro akaso, eta gero bueltatxo bat dao.

8.32. Jatorriaren inguruko zenbait datu

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-019/003
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:09:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Marulandan auzo-eskola zegoen garai batean eta aitak bertan ikasi zuen. Amama inude egon zen Madrilen. Aitajaunak Bizkaia aldean jardun zuen meatzeetan lanean.

Transkripzioa
-Eskolia euan Maulandan. Bakitzu nun dauan Maulanda?
-Bai.
Tabernia bakitzu, taberna bat?
-Bai.
-Ba tabernia baiño lehenao dau etxetxo bat, etxe bat, han hartzen dan bidia Mariñerako; ba ha etxia zan eskolia. Ni akordetan nai eskolia, eta orduan eskolan erderaz erakusten auen, eta akordetan naz, aittak euken letra bat oso politta, nik baiñok askoz polittaua. Eta berak esaten euen hantxe eskolan ikasi auela leidu-ta, eskribidu-ta, danak-eta.
-Eta amak eskolia zeukan?
-Amak hementxe eskolan.
-Bazekixen irakurtzen-eta?
-Bai, bai, bai. Amamak ez baiña.
-Zenbat eta atzerago joan...
-Amamak ez. Amama gaiñera orduen iñuda egon zan Madrillen. Eta ikasi auen zerbaitt erderaz-ta.

-Joan aurretik ez eban jakingo ezer?
-Etxanen bizi zan, Aramaixon, Etxanen. Etxanetik juan zan, orduan etortzen zien ba, oin dauzen moduen, oin be badauz agenziak topetan dittuenak hau eta bestiak, langilliak, inginieruak eta bestiak; eta orduen iñudak be topetan zittuen.
-A bai?
-Bai ba.
-Hori esan bihar notsun, lagunen edo ezagunen baten bittartez edo, ze Madrillera joatia ez da...
-Holaxe.
-Eta orduan baten bat egoten zan jentia topatzen?
-Bai.
-Eta Madriletik, hemengo jentia nahi izaten zeben? Ze gertuago be eukiko zittuen andrak.
-Eztakitt nik, baiña harrezkero be bai, famia euken gallegak be bai, eta hemenguak be bai. Itxuria dauanez, esnia zan hobia-edo.
-Eta orduan Madrillera beste ume bat haztera?
-Bai, eta eztakitt zenbat denpora ein euen, urte bi ero. Eta berak kontetan euen, orduan denporan Alfonso doce-ero, Alfonso docen denporan.
-Bai, ze amama gaztia izateko... Historixak be eukiko zittuan, anekdotak eta.
-Bai, kantuak-eta: "Dónde vas Alfonso doce, -kantuak- dónde vas triste de mí".
-Eta honek relazionatzen zien, hemendik juandako iñudiak-edo?
-Gutxi. Gutxi.
-Umiak zaindu bihar, eta ez eben denpora libre asko eukiko.
-Ez, ez, ez.
-Baiña zelako esperientzia.
-Hori amama, eta aittaitta egon zan zerian, Somorrostro aldian, Ortuella, Gallarta, miñetan, transportista. Ganauak hartu eta zerian, burdixan, materixala, minerala, minetan; han ibilli zan lanian.
-Aittajauna nungua zan?
-Aittajauna zan Eskoriatzakua, Bolibarkua. Aizorrotz bakizu, haretxen azpikua

8.33. Aretxabaletako bainuetxea

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-019/009
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:22:00. **Bukatu**: 00:25:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Aretxabaletako bainuetxeak non zeuden; garrantzi handia izan zuten garai batean. Kanpoko jende ugari etortzen zen eta herrian eragina izan zuten; "Portasol". Herriko jende askok jardun zuen bainuetxeetan lanean. Bainuetxeen beheragada noiz etorri zen; zergatik, eta abar. Santa Agedako bainuetxea.

Transkripzioa
-Esan dozu lehen gudarixak zeukela kuartela Maristetan, sasoi baten

baiñuetxia izan zana. Sasoi baten pare bat baiñuetxe egon ei zan hemen.
-Bai. Hiru. Ez bi. Hori bestioi Eskoritzakua zan, Eskoritzako terrenuan dao, baiña bestela bi. Bata hemen monjetan esaten zana, eta bestia baiñuetxia deiketan jakona, oiñ dau “poligono industrial, Baiñuetxe, hortxe euen beste bat. Baiñuetxe bi eren.
-Eta esan dozun historixa hori, Pilar printzesa edo infantia hil zana, hori zer zan, Eskoriatzakua?
-Eskoriatzakua, bai.
-Baiñuetxiak inportantzia haundixa eukitzen zeban.
-Bai. Beitu, baiñuetxera jentia etorten zan, beitu, baiñuetxia zeuan han poligono industrial dauen lekuan, eta hona kamiñua etorten zan, eta han auen holako plaza bat, eta hari plaziai deiketan jaiko "Portasol", La Puertta del Sol. Eta oin Portasol deiketan jako, La puerta del sol. Madriltarrak eta ebizen asko, eta han juntetan zien, eta eurak ifiñi utsen "La Puerta del Sol".
-Orduan jente asko etortzen zan kanpotik, gehixenak zien kanpotarrak?
-Danak. Esate baterako, danak kanpotarrak zian.
-Eta horrek lan asko emongo zeban.
-Bai. Bueno, sasoi..., orduen hiru hillabete-ero eingo zittuen, uda-denporan. Gero urte guztien ez.
-Itxi egiten zan?
-Bai, bai. Orduan hemen jentiak, hango langilliak, zerbitzen, danak. Eta akordetan naz "maleteros", trena, maletak hartuta, maletak erueteko, maleteruak-eta.
-Baiñuetxiak ze urte inguruan itxi zien? Derrepente danak?
-Hau, hemengua, monjak etorri zienerako uste dot itxitta euela; eta ehunda bi urte-ero dira monjak etorri zienian. Hori bestiori gerra denporan itxi zan, gerra denporan ia itxitta euen; aurreko urtian egon zan Donostiako famili bat; haretxek izan ziran, eurak bakarrik eozen. Zan bat eta emakume bi. Hiru ziran. Neska bi eta gizonezko bat.
-Orduan baiñuetxe guztia eurendako.
-Bai. Ordurako ia "en declive", ia euen.
-Zergatik hori?
-Ba beste ohittura batzuk hartu zien. Orduan hemen baiñuetxian egotia baiño hobeto zan Donostiara juatia, eta plaian-ero, beste ohittura batzuk. Eta gero, esate baterako, beste kategorixa bat euken hor Alzolan baiñuetxiak, eta Cestona-eta. Beitu, hemen beste baiñuetxe bat egon zan Santa Agedan; bakizu Santa Ageda nun dauen? Santa Agedan. Han akaau euen ministro bat-ero. Eta orduan ha be jausi zan.

8.34. Bainuetxeen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-019/010
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:25:35. **Bukatu**: 00:27:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Bainuetxeen inguruko azalpenak; uren ezaugarria.

Transkripzioa
-Zer zeuan baiñuetxetan, ur espeziala?

-Bai, lurrak emuten dau, sulfuro, azufriak.
-Eta baiñuak hartzen zien?
-Baiñuek eozen, oinddio basarri batzuetan agertzen dira horko bañerak. Harrizkuak zien bañerak. Eta ni akordetan naz Mendikurtzan (?) gu egon giñenien gerra-denporan, zerian, han euken bat.
-Baiñuetxeko bañera bat?
-Bai. Eta beste baserri batzuetan be ikusi dot. Baiñuetxiak, ni akordetan naz, ni barruan egonda nenguan, baiña orduan "en declive" zan, eta euen "La sala de baños" eta "El salón de baile".
-Kategorixa haundiko jentia izengo zan, dirua eukiko zeben. Eta erropak be diferentiak izango zian.
-Eta etortzen zien hona, eta eitten auen, pelota-partiduak eta eitten auen, eta jentia handik etortzen zan pelotan ikusten auen, Madillen ez auen pelotan eingo, baiña hemen ikusi eitten euen.

8.35. Txirrindularitzarako zaletasuna

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-019/015
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:40:45. **Bukatu**: 00:43:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
  Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena**: Txirrindularitzarako zaletasun handia egon zen herrian garai batean. Bizikletak alkilatu egiten ziren pare bat tokitan. Orduko bizikleten inguruko azalpenak.

Transkripzioa
-Orduan ziklismorako afiziñua bazeuan hemen?
-Bai, bai. Hemen baeuzen, ziklistak-eta baeuzen hemen.
-Esan dozu batzuk, bata laguna zana, Izagirre... Eta bizikletak zuek umetan ez zenduezen eukiko?
-Bai, bizikletak guk, lantokixen euken bat.
-Fabrikan bai orduan?
-Bai, fabrikan euen. Eta gero euzen, hemen alkilerrak euzen, bizikletak alkilau eitten zittuen. Lehen esan dotsut horrek aparkatak eitten zittuena […], horrek euken bizikletak.
-Eta orduan zela izeten zan, bizikletia alkilau egun osorako?
-Bai. Zuk norabaittera…, Debara juan bihar doula bizikletan; hartu eta "ya está". Zenbat? Pezeta bi-edo; pagau ta…
-Orduan alkilerrak. Gero jentia hasiko zan poliki-poliki bizikletak erosten…
-Alkilerrak. Gero beste alkiler bat egon zan, bi, bi egon zien. Neure lehengusu batek be jarri euen alkiler bat, eta gero, bizikletak oso karuak zian, eta gero ekin zien Orbea eta "La Beistegi" eta bestia eta bestia, eta etorri zan puxkat merkaua merketzera gehixau, eta gero bai, bueno! Gero edozeiñek euken bizikletak. Gure etxien be bi euzen. Arrebandako bizikleta bat eta bestie neuretako.
-Gaiñera diferentiak izaten zien neskiana eta mutillana?
-Bai. Batek euken barrie hola goixan, eta bestiek euken hola.
-Neskenak ez zeban eukitzen…

-Manillarra bai goittik, bestiek behetik, bestiek goittik.
-Baiña atzeko erroberetan…
-Holako zera, kordoi batzukin, mailla bat eindda moduan.
-Ez dakit, "guardafaldas" edo.
- Guardafal… bai, bai, hoixe. Mailla bat moduan eitten zan.

8.36. Lehen autobusak herriz herri

- **Hizlaria(k)**: Gorroño Arregi, Esteban; Zuazabeitia Herrasti, Duni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gorroño, Jasone
- **Erref**: ARE-021/001
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- **Laburpena**: Aspaldi neska bati autobusean gertatutakoa: Zarautzera joan nahi eta autobusak kanpoaldean utzi zuen, tunel baten ondoan. Lehenago autobusak herriz herri joaten ziren herri guztietatik pasatuz, baina gaur egun lehenbizi Donostiara joan behar zara.

Transkripzioa
-D: Eta Zarautzen jatxi bihe zan ha, eta klaro, autobusa geratu zan autopistan Zarauz pare-parien. Eta "A ver los de Zarauz". Neskioi zutittu zan eta han ez euen estaziñoik eta ezebez. Halako tunel bat, eta zubitxo bat eta haretxen onduen zan. Eta esan utsen: "Y dónde está pues, dónde tengo que...?" [...]. Ha Gasteiztik etorren. "Pues mire, pase por debajo de ese puente..." Ez dakit zela esan otsan be, "... y eso es Zarauz". Nun ikusten auen? Baiña maletak, tremendako maletiaz auen, ha etorren hillabeten bat pasetan edo gure dana. Eta han geratu zan neskioi. Eta autobuseko danak, ez dau deretxorik. Horrek neskiorrek ze [ein bihe dau] bakar-bakarrik... Eta herrixa, oin ia etxiak autopistaraiño eindda dauz, baiña oin urtetxo batzuk badie.
-E: Autobusen orduak gutxi gorabehera ipinitta dare eta holakuetan taxi bat edo beste bat holako okasiñueterako...
D: Ba ez dau ezebe. Ez dau ezebe. Lehenao faten zan Eskoritzatik zazpi t´erdietan urtenda faten zan Donostiara, ha herri barrutik faten zan, baiña gaur ezin zeinke fan. Zarautzera fan bihar dozu, edo Oriora edo Usurbilera edo Zumaiara, lelengo Donostiaraiño fan biha zara eta gero etorri ein biha zara atzera honuntza. Hori probintzia barruan eitteko ez da bape...
-E: [...] harutza fan eta honuntza gero etorteko barriro pagau ein bihar [...]
-D: Eta gero atzera bueltarako igual, gauza bat da pagetia, baiña beste bat [...] dozun denporia. Egun baten fanda etorri ezin zeinke ein autobusetan Donostiatik, edo Zarauztik edo. Ez dau beste bideik. Hori oso txarto dau.

8.37. Gaur egungo autobusen inguruko iritzia

- **Hizlaria(k)**: Gorroño Arregi, Esteban; Zuazabeitia Herrasti, Duni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gorroño, Jasone
- **Erref**: ARE-021/002
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:02:05. **Bukatu**: 00:04:20

- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
  Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- **Laburpena**: Gaur egungo autobusen inguruko kontuak eta iritziak.

Transkripzioa
-D: Eta beste gauza bat dauena autobusetan, xeiretan urteten dau doiena Gasteizera Donostian, ezta? Atsaldeko xeiretan. Eta hori Atxabaletatik pasetan da; baiña oin zortzi t´erdietan edo, ez dakit zortziretan edo noiz dan, eta Arrasaten bakarrik geraketan da. Zu Arrasaten geraketan zara. Behin pasau jakun, eurixa Arrasaten [...] gintzenerako, taxirik ez auen, Eibartik datorrena ez dakit pasauta auen edo ze pasau zan. Hori badie..., bastante denpora.
-E: Konbinaziño barik.
-D: Ez dau konbinaziñoik. Ordubetien edo egon bihar gintzen bertan. Eibarren zortzi t´erdietan edo ez dakit noix urteten zan. Euri zaparrara izugarrixa, "aunque sea" goazen taxis bat hartzen. Fan gintzen San Franziskoko eleixara, han egoten die taxisok, lehen behintzat, oin ez dakit egoten dien. Taxi bat be ez auen, danak fanda euzen norabaittera. [Han egonda] ez dakit zenbat denporan, halakon baten etorri zan, etorri gintzen Atxabaletara. Probintzia barruan egoteko, e, Madrillera fatia izen bazan, baiña ein bihar dozu trasbordo eta gauzatan... Eta gero eguakotxetan be zortzirak eta laurdenetan, ha Eskoriatzaraiño doie, baiña aste guztien ez. Eta guk esan askotan Donostian komentarixotan billetiek emuten daben lekuan, aber zegaittik egon ezkero... jenteik ez badao Atxabaletarako, bueno, geratu deilla Arrasaten, baiña egon ezkero baten batzuk Atxabaletaraiño datozenak, aber zelan ez daben jarraiketan [...] Hori udaletxeko gorabeheria dala eta udaletxien kejetako. Hiru bider esan oskuen. Geuri eta beste batzui be bai. "Eso en el ayuntamiento tenéis que hacer algo, es cosa del ayuntamiento". Aspalditxoko kontue da, e. Gu ez goiez aiuntamenture, astero fan biher bada, bien, baiña noizipehiñien fateko ez goiez [...]. Eske ez dau deretxorik hortarako. [...] Atsaldeko xeirak Donostian segiduan etorten jatzu, hala be udan, eta gura bozu herriraiño etorri, hantxe etorri bihar zara.

8.38. Lehen autobusak herriz herri

- **Hizlaria(k)**: Gorroño Arregi, Esteban; Zuazabeitia Herrasti, Duni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gorroño, Jasone
- **Erref**: ARE-021/003
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:04:20. **Bukatu**: 00:05:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena**: Trenak gauza bat du autobusaren aldean: puntualtasuna. Lehenago autobusek denbora asko egiten zuten batetik bestera, baina herriz herri joaten zirenez, errazagoa zen edozein herritara joatea.

Transkripzioa
-E: Trenak gauza bat eukitten juen bastante ona: ordue eukitten juen ifinitta, lehenau nekez etorten zuan, beti, e [...] Sartu Donostian eta Atxabaletara aillegetan hiru ordu eta piku. Hori ondo etorrela. Trenien.
-D: Autobusetan be bai, hori Eskoritzakuoi hiru ordu bat lehenagokuetan behintzat kontau bihe zan, baiña etxeraiño sartzen zan. Baiña hori kendu euen, ez zala.... zela esaten da? Hori, ez zala rentablia, kendu euen eta kitto. Baiña orduen jentia herri guztietakue faten zan, luzie izango zan, hiru ordu pasauko zien, baiña seguru [zauen], herrira fan zeinkien orduan, oin ezin zeinkie fan.

8.39. Josten erakutsi zion laguna

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-027/023
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:45:51. **Bukatu**: 00:46:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
  Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena**: Aretxabaletako lagun batekin ikasi zuen josten. Lagun horren negozioak aipatzen ditu.

Transkripzioa
-Nun ikasi zendun josten?
-Ba hantxe, esan doten lekuen zer bat, nere madrinie fan zan zeera, ezkondu nintzenien madrinie izen zan etxien ikesi neuen, bai. Arangoiti esaten utsena.
-Aretxabaletakua zan bera?
-Bai. Atxabaletakue zan bera. Eta haintxe ikesi nauen josten.
-Lagunak erakutsi zotsun orduan?
-Bai, lagunek. Gero madrinie be haxe ekarri nauen. Oinddio tratatzen dou. Gero zapaterixie euken. Cuatro Viento, Mondraueko Cuatro Vientokua zan. Hamazortzi zien Cuatro Vienton.
-Entzunda daukat hori.
-Eta hamaikagarrena hamaika bihetzekin jaixo ei zan. Eta hangotxie zeukan gizona, eta gero zapaterixia zeuken, eta oinddio be zapaterixie ez dakit ez dakan.

8.40. Karburo bila Elorriora alokatutako bizikletaz

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-027/026
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:48:50. **Bukatu**: 00:51:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena**: Argindarra orain dela 55 urte sartu zen. Lehenago, karburoarekin ibiltzen ziren. Bizikletaz ibiltzen ikasteko, Santa Agedan bizikleta alokatzen zuen eta Elorriora joaten zen karburo bila, Kanpazarretik zehar Aretxabaletara arte. Bizikletaz ibiltzen nola ikasi zuen kontatzen du.

Transkripzioa
-Umetan basarrixan ura eta argixa bazekazuen?
-Ez, argirik ez. Argixe esan detsut ba, oin berrogeta hamabost urte edo; oin berrogeta hamabost urte sartu zan argixe etxera. Zerakin, karburuakin. Karburue bakitzu zer dan?
-Bai, entzunda dakat.
-Kandille barik karburua. Eta zerien, bizikletan ikesi neuen hor zerien hartu eta alkilatzen geuen Santa Ageran eta zeera, fan nintzen Elorrixora karburotan. Karburue Elorrixon eta ha zeeko aldatza pasau, hori zereko hori, Kanpazarko aldapia gora ta behera pasau eta...
-Bizikletan, e?
-Bai, bixetan gora ta behera, ta zeera, Atxabaletara. Eta hartu karburua ta Etxezurire. Handik hiru ordu lauren edo daoz gure baserrira. Ta orduen lokatzie edarra. Eta bizikletan ikesteko orma ezkiña bat jo neuen eta orduentxe ikesi. (Barreak).
-Ibilixan ikasi zenduen, ezta?
-Bai, ibilixen. Zerien, lapurretan. Lapurretan lantzien behin, josten zerien nebillela, josten edo zerien nebillela hartu te, zerien Santa Agedan hartu bizikletoi te ibilli zer bat eiñ eta ikesi; eta orma ezkiñie jo nauen batzuetan eta hurrengo be atzera fan eta ikesi. Eta bueno.
-Alkilau eitten zenduen bizikletia?
-Honbre!, ez euen bestela, alkilau! Alkilau zerien, Santa Agedan eta Elorrixora karburutan eta zeetan. Haik aldapak gora ta behera pasau in biha daue, e!
-Ggorra zu.
-Bai, orduen. Oin belaunok eskasak bajaukanat be, orduan, e.
-Aldapa dezentia dao.
-Orduan argixa..., lelengo karburuakin-eta ibiltzen zinaten?
-Bai, karburuakin-eta. Petrolioik ez dogu, karburua gehixen erabiltzen gauen. Eta kandelie barik karburua gehixen. Argixa orduentxe, ointxe berrogeta hamabost urte.

8.41. Ura etxe azpian

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Bilbao, Leandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ARE-027/028
- **Iraupena**: 0:00:32. **Hasi**: 00:51:53. **Bukatu**: 00:52:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena**: Ura etxe azpian zuten, bonbarekin ateratzen zuten. Argitarako eta gazta egiteko-eta behar zuten.

Transkripzioa
-Eta ura? Urik bazeukazuen?
-Ura bageunken. Etxie baiño berao, beratxuao. ura ona. baiña etxie baiño beherao eta bonbiekin etara bihar. Eta oiñ Urkulukue dauke, oin Urkulukue dauke nahikua. Handik ekartzen daue ta. Ardixendako-ta asko biher, e. ardixendako ta eurendako, euren gauzak eitteko asko biher. Orduen ardixek be gutxiao jauken, eta behixek be bai, ta danak. orduen gure sasoien.

8.42. Auzoak berdin jarraitzen zuen; industriaren hasiera

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-033/017
- **Iraupena**: 0:03:53. **Hasi**: 00:44:37. **Bukatu**: 00:48:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Etxera itzuli eta gero, auzoan ez zuen aparteko eboluziorik nabaritu. Urte osoko zikloari atxikita jarraitzen zuten baserritarrek; aldaketak geroago etorriko ziren. ULGOR eta ARRASATE kooperatibak hasita zeuden Xabier itzuli zenerako. Beroa aluminioan, Zubia giltzatan eta Iturbe eta Agirretarren galdategiek lanean ziharduten. Gaur egun, lantegi horietako batzuk itxita daude. Tubos reunidos ere gogoratzen du, zeinek beste tailer batzuekin elkartuta, Unión Cerrajera sortu zuen.

Transkripzioa
- Karo, auzuen eboluziño haundirik garai haretan ez zan egon, nik uste. Orduen bizimodue nahiko oiñarrittute euen eta zan ba urte guztiko ziklo hori eitten zan, basarrixetan bereziki ba basarrixek berak eraitten auen eta nik uste dot sasoi bakotxaien eitten ziela beti gauza berdintsuek eta. Geruao ia hasi zan aldaketa oso bapatien.
- Eta zu zeu nolabait Atxabaletara itzuli zinanetik, lelengo hamar-hamabost urtietan zein aldaketa daukazu gehixen goguan.
- Bueno, aldaketa alderdi fisikotik esan daigun ondio sasoi horretan ez zan egon hemen aldaketa haundirik. Ze esango dotsut, igual fubol-kanpo barrixa in zala edo holako gauzan batzuk.
- Izango zan fabrikak eta hasten zien zera, ezta?
- Bai, bueno, fabrikak, Atxabaletan, Copreci hasiko zan. Enaz akordetan ze urtetan ondio. Copreci ondio oso txikiñe izengo zan.
- Hona etorri ziñanien bape kooperatibarik baeuen?
- Bai, ordurako ia hasitta eozen. Bai. Ulgor, Ulgor eta Arrasate. Ulgor eta Arrasate izengo zien ordurako indde euzenak.
- Eta beste ze industria euen bertakua?
- Bueno, Atxabaletan euzen ba Beroana, Zubianekue, Beroanien aluminiue eitten auen lana, gero Zubianien giltzak, gero Iturben fundiziñue, gero hemen honek Agirretarrak be baeukien beste fundiziño txiki bat herrixen bertan barruen. Bueno, gero hola taller txiki-txikitxuek ba, famelixako taillertxuek eta baeuzen ezta, baiña.
- Aittatu dittuzun fabrika horreik jarraiketan daue ala ia ez dia...?

- Ba Zubiena ointxe uste dot fan dan astien edo hamabost egun dala edo ia definitiboki itxi eiñ da, uste dot. Hogeta hamaika langille ointxe uste dot langabeziara fan diela, bai.
- ERE baten bidez-edo?
- Ez, ez, itxi ein dala lantegixa. Ez dakit exaktamente ze formula erabilli dauen baiña uste dot itxi ein da. Bueno, hori saldute euen, parte haundi bat behintzet saldute euen beste kanpoko enpresa bati.
- Hori da Azbe?
- Azbe, bai. Bueno, guk Zubiena. Gero Beroa aspaldi itxi zan, oiñ hor ikastolie dagon lekuan. Hor egon zan beste fabrika hori Beroana. Da taillerrik haundixenak Atxabaletan..., a, bueno, gero Tubosekua be bai, Tubos han behien. Hori Zerrajerako, Zerrajerien zera zan. Zerrajerien hasera.
- Hondarrak?
- Ez, aldrebes, Zerrajerien hasierie. Hasierako zerrajerie izen zan "Unión Cerrajera". Horrek bildu ein zien bi edo hiru lanegi, eta bat zan hori, Tubos, Tubos Reunidos uste dot zala. Taillertxo bat dezentie, dezente haundixe zan, eta gero horrek be jarraitu euen lanien, baiña gero Zerrajerie fundau zan Arrasaten hortik hasitta. Hortik eta Bergarako Bergarajauregi, Bergarajauregitarrak eta. Bi edo hiru tailler bildu zien eta horreik eiñ auen Unión Cerrajera de Mondragón.
- Tubos Reunidos itxita dago?
- Bai, oiñ nik uste dot hor ez dauela aktibidadeik.

8.43. Auto gutxi lehen, errepideetan

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Lasagabaster, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-034/011
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:13:39. **Bukatu**: 00:16:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- **Laburpena**: 25 pezeta eman zizkioten Gasteiztik etxera joateko. Dirua galdu zuen bidean, eta Aretxabaletako batek ordaindu zion autobusa. Auto gutxi zebilen errepideetan. Futbolean Errotabarriko bide bazterrean egiten zuten umetan. Bergaresa pasatzen zen, eta ikatza garraiatzen ibiltzen zen Garitano. Apartatu egiten ziren orduan. Koruetan esnedun zebilena, Patxi; jendea eramaten zuen automobilean, bueltan. Gasolina usaina hartzera hurbiltzen ziren mutikoak.

Transkripzioa
-Gero etxera etorteko emun ustien dirue, billetie Bittorixaraiño pagau ustien, eta Bitorixatik etxera etorteko emun ustien, hogeta bost pezeta uste dot ziela. Hogeta bost pezeta uste dot emun ustiela, dana itteko uste dot izengo zala orduan. Eta ez dakit dirue galdu ein naban edo lapurtu ein ustien trenien edo hola, eta aillegau nitzen Bittorixara eta aiba!, dirurik ez. Eta Atxabaletako norbaitt ikusi nauen han autobusen geltokixan edo ta haretxek autobuse pagau usten eta etxeraiño etorri nitzen.
-Auto stopik eta ez zan oindio egingo.
-Ya-ya, keba, ondio ez euan ohituraik auto stop eitteko. Bueno,

automobillek be banakia orduen, banakia. Guk, pentsaizu, Sorbonan gebitzela, ba orduen ya neuken hamar urte, beratzi-hamar urte, fubolien eitten gauen Errotabarriko kamiñuen errebueltan. Errotabarri, bat bertakua zan eta baloia berak eukitte eban han eta, eurok oso futbolzaliek zien familixa dana ta, baloia eukitten eban eta. Errebueltie hola, kamiñue, eta kamiñuen jersiakin porterixak eiñ eta kamiñuen bertan fubolien ibiltten gitzen. Eta, klaro, pasatzen zien Vergaresie, Idarreta zan orduen Vergaresie, Bergarako Altos Hornosera iketz-karriuan ibiltten zan Garitano, eta beste holakotxe kotxe galduren bat noxian behin pasauko zan. Bagekixen noiz etorri bihar zien automoillek. Eta entzun be eitten gittuen urriñetik. Baten bat etortzen zanien jersiok apartau, kamioia pasetan ikusi eta buelta.
--Eta ala!, fubolera atzera.
-Auzuen euen, Koruetan, gu azatzakuak eta aurrerago Korueta, eta Koruetan euen letxero Patxi, haak euken Forrotxo edo deiketan zan kotxetxo bat euken eta gero beste erdi autbus moduko traste bat erosi euen, eta ahrek eiten euen esniek ekarri, inguruko baserrittar askok emute utsien esnie berari; bueno, berari tte Etxazluzekuai be bai, Etxaluzekue ibilli zan astuaz esniek ekarten holako karrotxo bateaz eta astuaz. Gero harek itxi utsanien Patxik jarraittu auen; Patxi aurretik be bai baiña harek bueltan kalera etorten zan jentie errekauek eitten, bueltan gorutze jasoten euen bere autoboillien. Baiña akordetan naz ni ume txikiñek gitzela Patxi pasetan zanien kaletik bueltan, gu takarraran faten gitzen kamiño ondora automoillek botaten euen usaiña hartzen, gasoliña usaiña.
Zegatik?
-Ba nobedadia. Baakiz. Orduen bizi giñen bedar artian baiña. Ha gasoliniak botaten auen usaiña. (Barreak) Zelako gauzak.
-Kotxian keiai usaiñ eittera, e.
-Seguruenik keia botako auen, klaro. Baiña ha guretako zan nobedade bat

8.44. Aldaketak Argentinatik bueltan

- **Hizlaria(k)**: Lasagabaster Billar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-035/019
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:50:03. **Bukatu**: 00:52:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
  Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- **Laburpena**: Bartzelonatik irtenda joan zen Jesusa Argentinara. Argentinan egoera txartuz zihoala, itzultzea erabaki zuen. Aldaketa handiak aurkitu zituen, kotxeena esate baterako. Aozaratzako baserri batean zazpi kotxe zeudela ikusteak harritu egiten zuen Jesusa.

Transkripzioa
- Baiña mariau be itten zara leku batzutan, e? “En el estrecho de Gibraltar”, “el estrecho de Gibraltar” bastante txarra da.
- Baiña nundik fan ziñan ba?
- Barzelonatik.
- Zeatik ez ba Bilbotik? Ez euen linearik orduan?
- Nere anaiak bai Bilbotik, baiña niretako ez auen, ez. Ni Barzelonatik fan

nitzen.
- Hemendik Barzelonara trenez, eta han barkua hartu.
- Ez, kioñatuak eruen nindduan, koiñatue ta aiztie ta lobak-eta.
- Famelixa dana, ezta?
- Abentura, abentura.
- Ez dau geixki, hamaika urte gero, denpora alditxua da, e?
- Bai, bai, nehikue. Nik hango kontuek...
- Zeatik erabagi zeben bueltaittia?
- Ikusten nauen han ez euela ta, gero han anaiek be esaten nosten, “hobeto dozu fatia” ta animau in nindduan berak be ta. Bestie be hil in zan aurretik eta anaiek esaten nosten “hobeto dozu...” berak ikusten auen neretzako hemen hobeto zala ta, horreatik etorri nitzan.
- Hona etorri ziñanian aldaketa haundixa...
- Hemen izugarrixa topau nauen. Kotxie sobretodo. Bueno, baserri bat auen hor Azatzan, zazpi kotxe euzen.
- Ordurako?
- Ordurako, zazpi kotxe, eta sarrittan esaten auen, aittak igual kalera bajetako kotxie falta. Klaro, zan baserrixen han goi-goixen, han presie badakitzu zela dauen, ezta?
- Bai, pozua, bai.
- Eta Larriño aldera dauen etxe bat, han goixen, este Zuatzu Bizkar esaten dotse, ta klaro, nik hainbeste kotxe alde guztietan, esan nauen, gehixen horretxek.
- Zu fan ziñanian bakarrik be ez, ezta? Orduentxe hasten.
- Keba, orduentxe, klaro, eta hori eurek kotxie ta baserrixera kotxie ta; hemen kalien ba bai, ordurako lobak eta baukien kotxie, klaro, etorri nitzanerako.
- Bai, neure aittak be zu hara fan ziñanien zan hirurogeta laua, hirua edo laua, nik bost urte nittuala, nere aittak ondiok motorra euken.
- Klaro, motorra. Ni akordetan naz Errenterixako koiñatue, aserraderue euken, eta nere aiztie horregatik Errenterixan bizi zan, hara faten nitzen ni oin, betik bera zaintzen, eta motorraz ibiltten zan. Ni etorritta nau motorrien Errenterixatik hona be, e? Errenterixatik berakin motorrien jarritte.

8.45. "Txomin Alanbrero" argi kobratzailea

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/016
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:35:33. **Bukatu**: 00:37:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Eskola garaian pilotan jolasten zuten elizpean. Txirikilletan garizuman jolasten zuten. Futbolean kaletarrek gehiago egiten zuten baserritarrek baino. Baserrian Zerrajeraren argindarra zuten. "Txomin Alanbrero" deitzen zioten argi kobratzaileari. Argia oso eskasa zen, baina etxe guztietan jarri zituzten kontadoreak.

Transkripzioa
- Eskola denporan ze jolas klase-ta itten zittuein?
- Ba, jolasak holako ze haundirik ez, orduen mutiko txikiñak gitzanien…
- Baiña pote-poteka-edo…
- Bai, holako zerak bai, eta txirikilletan garizuman eta holako zelebrekerixa batzuk.
- Zuek be txirikilletan garizuman itten zeuein e?
- Bai, zuek be bai hala?
- Nik neuk ez dot sekula ezagutu jolas hori, baiña Oñatin be batzuk esan dostai txirikilla zala garizumako jolasa.
- Bai, garizumako jokua izaten zan.
- Eta txirikilletan, gero pote-poteka eta itten zeuin?
- Ez, tope-tope bai holako… ez naz akordatan holako zerik. Pelotan eta halako zeretan ibiltten gintzan, zeozertan, elizpeien. Eta hemen kalien frontoien zerien.
- Eta fubulian ta bape be?
- Orduen fubulerako ze haundirik ez euen artien hemen, hemengo ze… bai, batzuk itten euen orduen be fubolien, baiña gu baserrittarrok ez geuken kostunbrerik, hemen kalekuak bai, gero akordatan naz ni.
- Zuek arginddarra, zu mutikua ziñanian arginddarra baeuen etxien?
- Bai, baiña argi gutxi itten ebena, zeatik…
- Epurtargixen antzeko zerbait.
- Bai, epurtargixen antzekua. Olatetik euen linea bat ifiñitta hona, zera, ta hor ipurtargixa lakotxia argixori. Gero hemen Bolibartik edo atzera beste zer bat ifiñi euen eta orduan zerbait gehitxuau.
- Leheningo nundik eki zeuein?
- Leheningokua Olatekua izango zan, zeatik…
- Oñatitik ekarten zeuen?
- Oñatitik…
- Zerrajeratik.
- Zerrajeratik, ze hemen ibiltten zan “Txomin Alanbrero” kobretan etxerik etxe.
- Txomin Alanbrero?
- Bai.
- Hori zan elektrezistia?
- Elektrezistia, kobretan, kontadoriei begiketan. Papeltxua in eta zerien, etorri eta kontadoriei begitu ta hainbeste kobrau zeori ta… hori ibiltten zan.
- Halako argi gutxi eukitta eta kontadoria eta dana zeukatsuein?
- Kontadoria eta danak, honbre! Hori debalde sekula ez da hemen ezer egon e?

8.46. Bederatzi baserri urpean

- **Hizlaria(k)**: Urteaga Arregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-036/025
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 01:00:34. **Bukatu**: 01:02:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Hiru errota zeuden Goroeta auzoan. Errotazarra Urkuluko urak ezkutatu zuen. Urkuluko urtegiak urperatu zituen bederatzi baserriak izendatzen ditu.

Transkripzioa
- Neri Udalako baserritar batek esaten nostan eurak itten eueilla, errotak itxitta egon
ziranian, itten eueila astua kargau, zorruok ifiñi astuan, hiru-lau baserrittar alkartu eta faten
zirela gabaz Aramaixoko ez dakit zein errotara…
- A bai. Hori Koruetan be askotan egoten zan, Koruetan Urkulun joten zan ordun, hori pantanuori
dauen lekuen azkenengo etxia behien. Errotia famosua euen. Sasue baten Koruetan hiru errota
egonda egozen; hori zan Urkulu, bestia Errotazar ta bestie urbaltza urteten dauen lekuen,
Goiko Errota. Baiña Errotazar han euen ondiok, Mendikurtzakua zan ha etxia be ta hango
zerak, oingo etxia egindda dauen lekuen onduen, han dau orduko errota harrixak, holakotxe
harritzarrak. Baiña gero…
- Errota etxia bera, jausitta ya?
- Jausittak ez, urak hartu auen azpixen.
- Urak tapauta.
- Hor etxe pillue desapareziu zan e? Hasi han, Mendikurtzakua guria be bai, eta hasi Errotazar
hori esan doten hori, Mendikurtzakua bi, Dixatz hiru, Ziondo bixak bost, Uzar bixak zazpi,
Barrutikua zortzi, eta hor Barrenkuan beratzi baserri ezkutau ziran.
- Urpeian.
- Bai, bota edo kendu, bai.

8.47. Tren zaharrean ibiltzen zen

- **Hizlaria(k)**: Azkarretazabal Bengoa, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-041/002
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:00:46. **Bukatu**: 00:02:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena**: Lurrun-makinadun trena, Gasteizera edo Maltzagara joaten zena, ezagutu zuen Pilarrek. Bergarako Mekolalden, Zumarragarako tren-aldaketa egitea zegoen. Urtean behin Debara joaten ziren trenez.

Transkripzioa
-Trena noiz kendu zeben akordatzen zara?
-Hoixe ez noiz kendu auen, Don Anjel euela zan da.
-Zu jaixo ziñanian trena zeuan hemen, ez?

-Trena bai, bai, trena auen. Trena hori, horrena, ikatzakin-da eztakitzu eitten auena? Horretxek, baiña trena baauen.
Semea: Elektrikua ez?
-Gero ifini auen.
-Eta noraiño faten zan hori trena?
-Betik Bittorixara, guk eukitten gauen Bittorixa ta Malzagara. Hor ibiltten zan trenoi. Gero Mekolalden be egoten zan, Mekolalden be trasbordua egoten zan.
-Hori nun dao?
-Mekolalde?
Semea: Bergako auzo bat Mekolalde. Bergatik pasetan dozu da Plaentxiara aillegau baiño lenau han dago auzo bat, Mekoladen itten zan trasbordua, da handik joaten zan Zumarragara. Handik hartu, Antzuola igo eta Zumarragara.
-Naparrua alderutz ero emuten auen, ha Mekolalde zan.
Semea:Trasborduak euzen bi lekutan, Mekolalden eta Maltzagan.
-Eta erabiltzen zenduan trena?
-Guk trena bai. Gu faten gitzen Donostiara. Donostiara ez, Donostiara ya hamazazpi-hemezortzi urte arte enintzen joan. Baiña horra Bittorixara bai. Bitorixan be tio geukun da orduan tiua nun eukun ba hara faten gintzen.
-Askotan?
-Asko bez baiña..., oye.
-Karua zan?
-Karua ba, ez auen orduen dirurik eta! Han bai; oin urtero-urtero Debara bai. Da amak erueten gauen. Amak eta bezina batzuk eta holan.

8.48. Debara trenez

- **Hizlaria(k)**: Azkarretazabal Bengoa, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-041/003
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:02:50. **Bukatu**: 00:06:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena**: Txartel-zulatzailea etortzen zenerako ume batzuk aulki azpitan gordetzen ziren, txartela ez ordaintzeko. Arrasateraino oinez joaten ziren Debarako trena hartzeko. Geltokietako langile guztiak erdaldunak ziren.

Transkripzioa
-Baiña interbentoria etorten zanien ikusten oskun agua, agora begiraketan oskue.
-Zela?
-O zazpi urte gaukoun, pagau bihar gauen o ez gauen pagau bihar. Interbentoria etorten zanien egoten gintzen agua zerrauta.
-Eta zegaittik ahora begira?
-Abua zerrauta ba eztaixen begiratu. Amak eta etzauen hartu billeteik!
Semea: Lenau zazpi urte (arte) ez euen pagetan billeteik.
-Ez, ez auen pagetan.
-Eta zeozer esaten otsuen?
-Ba guk. Amak eta: "Ez zabaldu agua!". Eta ez gauen zabalketan agua

interbentoria etorten zanian. Eta askotan ba zela gintzen asko, famelixa haundixa gintzen gu, eta bezinak eta danak, faten gintzen Mondraueraiño oiñez trena hartzeko Debarako.
-Zegaittik Mondrauera?
-Ba eztakit ze auen. Orduan Debara itxuria hemendik ez euen erungo ero, handik erueten gauen. Mondrauera faten gintzen Debara fateko. Eta nire aiztia ta beste beziñak eta, klaro, asko gitzen, eta ze itten auen, banku azpixen gorde, eta ama, interbentoria etorten zanien (...), ama ta holan tapauta, holan gona haundixaz da; ta harek: "Ama, urtengot!" eta "Ez, ezta pasau interbentoria ta". Orduen pasetan zanien (...) Eta egoten gintzen ba Debara fateko desietan, pentsetan gauen etxiak pe dziii! ta joan doiazela trenien goiazenien, ganaua be bai.
-Zenbat tardatzen zeban Debara joateko?
-Debarako? Ordu bi ero, eztakit nik zenbat ordu, ordu terdi bat ero eukiko euen debara joateko.
Semea: Eta gero Maltzagan geldittu ein bihar zitzen.
-Eta Maltzagan beste tren bat hartu?
Semea: Tren bat hartu.
-Guretako estaziñue izeten zan, eukitten daue ba gaur mutillek...
Semea: Jolas itteko.
-Jolas itteko ta lekua. Gu betik estaziñuan. Baiña estaziñuan betik egoten zien erdeldunak. Orduen billetie hartzeko erderaz esaten zauen. Bai. Jefia hemengo ingurukua bat ezautu gauen, egon zan apur baten Gatzakua. Gatzako bat, horko hotela dauke ba... Ha egon zan Gatzako bat. Baina bestela danak erdeldunak zien. Mozo de estación, bestiok hori...
Semea: Arabarrak eta asko.
-Arabarrak baiña euskeraz ez zakixienak.
-Orduan trena hartzeko erderaz.
-Trena hartzeko ba klaro ba, aitta ero baten bat juan da "un billete" ero "dos billetes" ero; da hori esaten gauen, bestela ez auen.

8.49. Botikako txakurra trenean dohainik

- **Hizlaria(k)**: Azkarretazabal Bengoa, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-041/004
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:06:03. **Bukatu**: 00:09:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena**: Umeak Debara joaten ziren egunean, nagusiak Kurtzebarriko jaira joaten ziren. Botikako txakurra lehenengo Maltzagara joaten zen, handik Gasteizera, eta gauerako etxeratzen zen dena trenean sartuta. Autobusa baino merkeagoa zen trena.

Transkripzioa
-Eta Debara zenbat urtekin joaten ziñen?
-Debara? Bost ero xei urte.
-Umetan.
-Hemen dau erretratua. Holaxe faten gintzen baiña faten gintzen hiru. Ama ta zien hiru lagunak. (Argazkiari begiratuz) Pentsaizu ze ederrak getzen, e!
Semea: Hau da honen ama, nere amandria, eta hau da bera, neskatilla bat.

Hau da. Zenbat urte eukiko auen? Ba zazpi bat o, zortzi.
-Ze guapa.
-Bai. Hemen daukou kuadrillia. Ez gintzen asko. Zazpi seme-alaba daukot neuk pe, neuk pe zazpi daukot. Eta holaxe, Deban oso, Debara erueten gauen. Esaten euen amak: "Bueno, gura dauenak Kurtzabarrira eta eztauenak gura -Kurtzabarri Eguna hor mendixen, orduan fiestia itten zan da nausixek faten zien hara eta gu txikixok amakin horra-. Baiña agua ez gauen zabalketan, ez auen hartzen dirua, dirurik ez auen da, eztakitzu. "Ez erakutsi, ague zerrauta". Nausixak ez, ia nausitxuauak agua zabalik, baiña guk ez.
Semea: Billetia pagau bihar izeten zan. Ez pagete arren ba...
-Eta egon zan hemen txakur bat, botikarixuen txakur bat, beti-beti-beti sartzen zan trenien eta faten zan Malzagaraiño. Maltzagatik buelta eitten auen da gero igual batzutan Bittorixaraiño, eta gabien etortzen zan hona etxera.
-Txakur bat?
-Txakurra. Eta egun baten gure ama eta beste nire beste aman lagun bat joan zien Bergara eta Bergan sartu zien trenien, eta tas!, txakurrak ezautu auen; klaro, beziñuena zan, Botikakua, onduen bizi gintzen da. Ra!, eta interbentoria. "Ene! Zuen txakurra da hau?" "Ez, ez da guria, botikakua da". "Eske..." Hasi ei jaken hasarreka, egun guztie trenian dabillela. Holaxe ibiltten zan.
-Bakarrik ibiltzen zan?
-Bera bakarrik, atzera eta aurrera. Guk esaten gauen, gero gure ama ta etorri zien. "E, zelako argixa, zelako hori dan, e; pagau barik billetia ibilli eitten da autzera ta aurrera".
-Jabiak bazekixen?
-Jabiak gerora. Jefiek eta esaten otsienien ba ya txakur horri ba hori iñ otsien, baiña ibiltzen zan txakurra atzera ta aurrera.
-Pagau barik.
-Trena politta zan ha gure denporakua. Zegatik Mondrauera be danok trenien, zegatik orduan autobusa karuaua zan.
Semea: Autobusa egon bez.
-Autobusa, Eibar-Vitoria pasetan zan goixian da gero gabien be bai. Baiña trenien horra.

8.50. Trenaren oroitzapen onak

- **Hizlaria(k)**: Azkarretazabal Bengoa, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-041/005
- **Iraupena**: 0:03:39. **Hasi**: 00:09:12. **Bukatu**: 00:12:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena**: Gazteek txartela ez ordaintzearren asmatzen zituztenak azaltzen digu. Pena hartu zuen Pilarrek trena kendu zutenean. Ezkondu zen egunean sartu zen lehendabiziko aldiz lehen klasean.

Transkripzioa
-Ta gaztiak billetiakin-ta eitten utsen interbentoriai erakutsi billetia, ez dakitzu /eztakitzu/? Interbentoria topetan kuadrillia, gazte kuadrillia

Mondrauera [joan bihar eta)], ta batek atara billetia; gero pasau beste leku batera ta. Gero bestiak be bai ta. Interbentoriak honek danok jaukiek billetia. Holaxe, billete bategaz Mondrauera.
-Semea: Batek kuadrillan batek erosten auen, batek bakarrik billetia. Eta harek erosi auenak sartzen zan trenera, pika-pikia euen lekura. Pika-pikia etorten zanian kuadrillara, harek billetia eukenak trote, ra!!!, takarraran. Ze eitten auen? Pasau bagoi batetik bestera ero holan, eta bestiorrek ikusten auenian, pika-pikia haren atzian. Ta joaten zan haren atzien eta harrapetan auenien, erukusten otson billetia, ta ya ordurako Mondrauera aillegauta.
-Nik trenai, bueno, nik pozik... Trena kendu auenian penia, penia hartu nauen, tren(i)a kendu auenien.
-Noiz kendu zeben?
-Hori?
-Gutxi gorabehera?
-Semea: Setenta?
-Don Angel noizkua zan?
-Semea: sesenta y tantos.
-Orduan zu ya nagusixa ziñen?
-Ni bai, bai.
-Ni be trenian ibilitta nau. Neu be denpora askuan ibilitta nau.
-Orduan gaztetan trenian ibiltzen ziñen?
-Baiña Mondrauera ta bai, baiña askotan Mondrauera be oiñez. Ze ez auen dirurik eta. Aber, pagau in bihar zan billetia ta.
-Hemendik zenbat tardatzen da?
-Semea: Hemendik? Ordu erdi bat edo.
-Bestela gaiñera Maltzagan ibiltten gintzen trastornauta. Bilbokua zan bat eta bestie zan Donostiakua ta. Ta gehixenetan Donostiakua hartu bihar, ta hara ta bestera ta. Umiok han ibiltzen gintzen.
-Gaztetan lagunekin be ibiltzen ziñen?
-Baitta horra.
-Eibarrera be bai?
-Eibarrera beti trenien. Eibarrera joaten gintzen lagunekin ez, aiztak. Eibarrera. Eta pozixao! Egoten gintzen Eibarren igual bost, hamabost egun ta, hillebete ta eitten gauen. Eta eurak be bai hemen eta gu be bai eurakin.
-Eta komodua zan trena?
-Pozik gaiñera. Guretako bai. Eta primeria zelako ederra! Elegantia. Puntillakin ta holan ifinitta ta. Trenak primeria eukon, bat. Gu primeran ez gintzen sartzen; ezkondu nintzenien sartu nintzen Vittorixara joateko. Baiña bestela oso elegantia. Primeran gutxi egoten zien, joaten zien pues aberatsenak. Gu bestien. Eta gero beste bat merkantzia auen. Eta merkantziak eukon, eukitten auen bagoi bat.
-Jendiandako?
-Bueno, Bergara. Baiña merkantziak gutxi pasetan zien. Eztakit ba zenbat pasauko zien merkantziak. Gutxi. Baiña harek eukitten auen bagoi bat, bagoi bat joaten zan han. Baiña bagoien joaten gintzen, baten bategaz joan; ni joan nintzen behin bagoi merkantzian, joan nintzen Bergara aittakin, Bergako fiestak zien ta. Hara danak burla eitten otsen aittai: "Merkantzien etorri leike, merkantzien?", eta ez dakit /eztakit/ zer, holaxe.
-Semea: Bagoi bat ipintten otsien.

8.51. Urtegi, zubi eta bainu etxe

- **Hizlaria(k)**: Azkarretazabal Bengoa, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-041/009
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:21:35. **Bukatu**: 00:23:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Urtegia egitea garrantzitsua izan zen Pilarrentzako. Herriko zubi batetik amuarrainak harrapatzen zituzten.

Transkripzioa
-Orduan inportantia izan zan eittia pantanua?
-Bai, bai, ni neuretako bai. Orduan be batzuk esaten auen, eztakitzu?, egon zien kontra ta bai eta bestiek be bai, baiña ni neuretako bai. Behintzat ura bauku.
-Herriko jentiak egin zeban edo?
-Ez.
-Kanpokuak?
Semea: Egon zien, baiña kanpokuak, enpresa kanpokua ta injeneruak eta kanpokuak. Hemengo batzuk egon zien ba parua egon moruen han lanien baiña ez jente asko.
-Errekak pasatzeko zubixak bazeuazen len?
-Hemen? Hemen zubixa ederra euen, zubixa, han zubi bat. Han zubixan amorraiñak pesketan-da, harrapetan-da ibiltten zien.
-Orduan bazeuan zubixa.
-Hor dau zubi bat, ointxe be badau hori zubixa.
-Baiña oin gehixao daoz, ez. Gero zubi berri bat edo ein zeben?
-Arreglau ein euen hori. (...). Gure denporan hau palaziuoi hor dauena, hor Kaja Laborala ero, hori euen, da horrek aukien etxe bat zainketan dauendako ta. Eta ha auen errekan, erreka-errekan ha aukien.

8.52. Bainuetxe ospetsua Aretxabaletan

- **Hizlaria(k)**: Azkarretazabal Bengoa, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-041/010
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:23:23. **Bukatu**: 00:26:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Bainuetxea egon zen Aretxabaletan, uratsa zuena. Larruazaleko pikorrak sendatzeko ona omen da ur hori. Kanpoko jende asko etortzen zen bainuetxera. San Lorentzo jaia, bainuetxera etortzen ziren udatiarrentzako jarri omen zuten. Madrildik etorritako udatiarrak jarri omen zioten herriko auzo bateri "Portasol" izena. Oillarixako ostatua zegoen bainuetxera etortzen zirenentzako. Moja Agustindarrak

daude orain bainuetxe zaharrean. Inguruko beste herri batzuetan ere baziren orduan urats bainuetxeak.

Transkripzioa
-Bainuetxiak zeuazen hemen, ez?
-Baiñuetxiak, bai.
-Errekan?
-Baiñuetxia egon zan hor goixen baiñuetxia. Uratsa. Uratsa.
Gizona: Uretsa badakizu zer dan? Agua sulfurosa.
-Useiñ haundixa botaten dau, da haxe egon zan. Eta harek garbiketan auen (azala).
-Kanpoko jentia etortzen zan, ez?
-Gure amak Eibartik be ekarten auen, Meltxora ta bere lobak eta granuak eta eukenien horrako. Han egoten zan holako untura bat botaten dauena berak, urak. Eta ha emun da hori.
-Usaiña txarra zan, ez?
-Txarra usaiña, bai, oso txarra usaiña. Baiña... Ha esaten euen ona zala erateko ta hori itteko.
-Erateko be bai?
-Baitta. Ta jentia egoten zan, Madrilguak eta asko etorten zien beraniantiak.
-Eta hemen beraneatzen zeben?
-Hemen egoten zien harek. San Lorentzuak, haretxek beranieantiek ifiñi auen fiestia, San Lorenzo. Zien madrileñuak.
Semea: Dago auzo bat deiketan utsen mundu guztiak "Puerta Sol".
-Oin be bai. Noraiño joan zara ta Puerta Soleraiño. Eurak ifiñi auen, madrileñuak egoten zien-da hantxe.
-Ze egoten zien, etxietan, hotela edo?
-Auen balnearixua eta gero beste bat auen fonda bat. (...). Fondan be bai, egoten zien. Oillarixa deiketan otsen, Oillarixakua.
Semea: Hamen ostien monja dauzena, hau izen zan balnearixo bat.
-Hori izan zan inportantiena, mojak hor dauzena, Agustinak.
-Monjak?
-Mojak dauz oiñ, dauke monjak agustinak etxia, eta hori izan zan balnearixo oso inportantia.
-Monjena zan lehen be bai?
-Ez, gero. Ia jentia hasi zanian gutxiketan, gutxiketan. Jente asko oin..., bakitzu zenbat balnearixo dauzen. Len ez auen, hau inportantie zan.
-Norbaitena zan hori? Pagau ein bihar zan edo?
-Bai, bai, bai. (...) Len dana pagetakua, aberatsendako zan. Pobriak, pues...
-Gehixao kanpokuendako?
-Kanpokuendako. Madrileñuak asko eta princesa bat ero hementxe hil zan.
Semea: Hementxe hil zan da orduantxe hasi zan bajaketan.
-Hil egin zan?
-Bueno, nik entzuten nauen neure amai tta aittai tta txarto ekarri auela, hiltteko moduan ekarri auela hona eta gero hil zan. Eztakitzu?
Semea: Canovas be, Canovas be hill euen ba. Hor bazan balnearixua, uretsan balnearixua...
-Santa Agedakua.
Semea: berdin-berdiña zan. Euen Santa Agedan, Aramaixon, Atxabaletan, Eskoritzan, balnearixo pilla bat. Eta gero fan zien ba...

8.53. Aretxabaletako denda zaharrak

- **Hizlaria(k)**: Azkarretazabal Bengoa, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ARE-041/020
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:46:53. **Bukatu**: 00:47:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Lehengo denden izenak esaten digu Pilarrek. Herri azokarik ez zegoen orduan. Baserritarrek Aretxabaletako dendetan eta Arrasateko ferian saltzen zituzten etxean egindako gauzak.

Transkripzioa
-Zeuek egiten zenduen erosketia?
-Pikuek eta okaran-pasak eta, horrek erueten gauen. Horreik erositta.
-Nun erosten zenduazen? Merkatu plazan ero?
-Keba! Hemen ez auen merkatu plazaik eta. Denda batzuk: Mantxuena, Romalduena, Kukuena..., horretxek. Gero gerora ifiñi auen "Dendabarri" deiketan guntsena.
-Eta hemengo baserrittarrek euren gauzak nun saltzen zittuen?
Semea: Mondrauen. Ferixie Mondrauen. Gero eitten zeuena hamengo dendarixei, hamengo dendarixei saldu ta holako... Baiña lenau faten zien Mondrauera.

9. Iritziak

9.1. Lurra lantzea

- **Hizlaria(k)**: Zuazua Urrutia, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-005/003
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:02:30. **Bukatu**: 00:03:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Belar ontzea. Antzina, gaur baino belar gutxiago zegoen; garia, artoa ereiteko soro handiak behar izaten ziren.

Transkripzioa
- Uda partien bedarra ebaten jo-ta egurre! Orduen... oin beste bedar ez zan egoten orduen, e! Orduen oin beste bedar ez zan egoten zeatik landu ein biher zan asko ta! Klaro! Jateko, garixe edo artue, [...] jateko, landu ein biher zan asko. Ta bedar gutxi egoten zan orduan. Ta eskerrak hari! Bestela honezkero akabauta egongo [nitzan]. [Segiaz...]. Oin beste bedar egongo balitze? [Ezin...], hurrik emotekorik be ez!
- Bai, bedar-lanak be gogorrak izaten dia...
- Bai, bai, bai. Gerrixa ondo euki bihar! Oingo modoko gerrixaz [ezin...].

Segiaz ebagi biher dana.
- Hori, gaiñera...
- Onbre! Aber! Besterik ez euen! Makiñaik ez euen oingo moduen.
- Ta zertzuk eukitten zittuen landatute?
- E?
- Garixe ta... Garixe bai? Artue...
- Garixe ta artue ta patatie.
- Patatie be bai?
- Patatie be bai. [...] erremolatxa apur bat be bai, [ta danetik]. Horixe eukitten [...]. Orduen garixe jan ein biher zan, e! Garixe jan eitten zan, e!
- Garixe ez, [...]
- Zeaz eitten da, ba, garixe? Zeiñek daki [...] garixe eitten? [...] ez da eitten garixe.

9.2. Inguruaren aldaketa; lurra lantzea

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/001
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:40
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Ingurua nola aldatu den. Garai batean soro zirenak, orain baso bihurtuta daude. Artoa jorratzeko aitzurra. Lehenago lan asko ematen zuten artoak, gariak... Garia igitaiarekin ebakitzen zen; gerora makinak sartu ziren.

Transkripzioa
- Depositue. Baiña oiñ Urkulukue daukou ta (ez dou biharrik)
- Depositue ondio...?
- Bai, han dau horren etxiorren ostian. Handiko Solua-n esaten jakona.
- Lehenau solue zan eta oin basue.
- Lehenau soluak eta gero zelaixak eta gero. Oin basua, oin dana piñua sartuta dau-ta. Piñua gero oin. Sail galantak zien harek pe. Han artua eraiñ asko ta, gero jorraketako atxurrak ibilli bihar baten batzuk, hartu gura bazan. Atxurra ibilli bihar, bai bai. Lehenau lan asko emuten auen artuak-eta. Danak. Garixak pe bai. Iiteixekin ebaten gari-saillak zenbat lan eukitten auen. Gero hasi zan zeozer, agertu zan baiña. Aiketa zertu arte iiteixaz.
- Gero makiñia, irixekin gero. Aurretik irixekin, e.

9.3. Bilbon egindako egonaldia; zer nolako esperientzia

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-008/011
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:19:05. **Bukatu**: 00:21:45

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena**: Bilbokoa, etxe ona; familia aberatsa. Gauza asko ikasteko aukera izan zuen. Jende garrantzitsua ezagutzeko aukera; horiekin agertu beharreko jarrera; eta abar. Esperientzia gomendagarria; "jendiakin pazienziak hartzen" ikasteko oso egokia. Gaixorik jarri zelako itzuli zen Apotzagara Eulali. "Señoriakin" zuen harremana.

Transkripzioa
-Klaro, zan etxe ona, gauza asko ikesten zeuen, eta jentiekin asko tratetan zeuen, ze jente asko sartzen zan etxie zan. Lehendik, ez dakitzu? Aurretik jente aberats askokin tratetan euen, eta... fan biher zeuen ba puxkat ikasixaz, ikasixaz jente horrekin apur bat tratetako. Ez nik asko tratetan neuelako; zu zatozenien beti ein bihar dozu /bihozu/... Honbre. Gaiñera berak hortan zer haundixe eukitten euen, zela jentie... Berak berba ondo eitten euen, zelan hogei urtekin geratu zan gor, hogei urtekin tinpanuek apurtu jakon, ta geratu zan gor; eta horregatik berak berbetan ondo ekixen. Horregatik berak baekixen, eta esaten euen: halaxe tratau bihar dozu /bihozu/, [...], halaxe berba ein bihar dozu /bihozu/, [...], eta berak erakutsi itten otsun zela jentiekin tratau biher zan. Eta horrek asko esan gura dau. Nik askotan esaten neuen lehenao, danak egon biher leukiela urte paretxo bat holakotxe etxe baten, ikesi daixen jentiekin bizitten, jentiekin pazientziak hartzen; eta beste mille gauze ikesten dozu etxe baten. Asko etxetan ez, asko etxetan etxien baiño txarrao, baiñe etxe on baten bai.
-Orduan zuretako esperienzia ona izan zan?
-Niretzako bai, bai, bai. Ni ez banintzen geixotu, ni ez nintzen etorriko, ez nintzen pentsau be ez gaiñera; medikuek ainddu ustelako handik urten in biher neuela; eta zelan ha ezin leikien egon bateon bat barik, eruen biher izen euen beste bat, beste gazte bat. Baiña hala ta guzti be, hola bankure fan biher zanien, edo berak bisitta holan inportanten batzuk ein biher zittuenien-edo, neuri eskribiduten usten kartie, orduen ez euen telefonorik, ez euen telefonorik, eta hak kartaak eskribiduten bai, e, ra-ra-ra eskribiduko zun kartie, ta kartie etorko jaten, ba zelan gustauko litxakion juatie neu juatie, zegatik ulixai bisitta eitteko eukela, bestie, bestie, bestie, bankure eta horra eta hona, eta neu fan biher izeten neuan interprete, neu fan biher izeten neuan interprete. Eta asko gure izen nustan, asko, e! Asko, asko. Eta neuk be bai, e, neuk be asko.

9.4. Familia-giroa baserrian; gurasoekiko errespetua

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-009/010
- **Iraupena**: 0:04:20. **Hasi**: 00:24:20. **Bukatu**: 00:28:40
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

- **Laburpena**: Errenteroak vs. etxe-jabeak. Garrantzi handia ematen zitzaion baserri- jabe izateari. Maiorazgoa. Familia giroa. Gurasoekiko errespetua; konfiantza handia anai-arreba eta seme-alaben artean.

Transkripzioa
-Egoten zan distinziño haundixa etxejabia izan edo?
-Lehenau bai, e! Honbreee!, horixe bai. Eskerrak horixe bardinddu zana, eskerrak horixe bardinddu zana. Ene!, ni akordetan naz zenbat bider esaten euen batek; ez noia esaten izena, baiña batek esaten euen, gustetan jakon ama, gure ama, oso zerzetie zan, oso pizpiritta, pizpirittia, eta asko gustetan ei jakon ama, gure ama, gure aittaz hasi zanien eta, eztakitzu?, asko gustetan ei jakon gure ama, baiña, aa, pobria, pobria. Gero be ez euen aberatsa hartu, ez politta eta ez aberatsa ez auen hartu. Ez noia esaten, zure pariente artekue da eta ez noia esaten, baiñe ez aberatsa eta ez zera. Haintxe Bilbon egonda, eztakitzu?, pariente artekuekin egonda euela ta hau ta bestie ta. Baiñe gustau ama eitten ei jakon, gure ama gustetan ei jakon.
-Orduan begiratu eitten jakon, pobria eta aberatsa ta...
-Ha, eztakitzu, ha propietarixue eta maiorazkue esaten zana. Maiorazkue, maiorazkue. Orduen hori zan. Maiorazkue. Nahiz eta txakur txikirik euki ez, maiorazkue. Ni akordetan naz Apotzako auzuen, ni bizi nitzen auzuen, maiorazko haundixen zaatakuek, e; zaatakuek ba propietarixuek. Eta gurien artien errenteruek gitzen. Bai, artien errenteruek izango gitzen. Baiña harein aldien ondo bizi gitzen. Errenteruek izen baiña ondo bizi gitzen. Harek juntau bai eta igual bazkaitten edo, eta ezta berbaik be ez batak bestiai berbaik; bakotxak berie jan, ospa!, jan eta ospa! Hori unixuoi falta, eztakitzu?, hori, ezebez, bata bestientzako hori...
-Berotasuna edo?
-Berotasunik ez, berotasunik ez, ezebez. Ezebez, konbersaziño bat be ez, ezebez. Gu juntauko gitzen kuadrilla haundi bat, euena jango geuen, baiña gurien egoten zan armonixie... Gurien egoten zan, euena jan; aitte ta ama jartzen zan holakotxe baten, aitte hor eta beste guztiek; eta guk aitten eta aman aurrien kontauko gittuen "Uu, halako mutillaz dantzan ein dot, badakit zein mutillez, eztakitt zer ein dot, badakit zer ein dot... Aitta eta ama egoten zienien pozik! Guk ez geuken sekretuik aitten eta amandako. Ez geuken sekretuik. Eta eurek be horrexegatik emuten euen konfientzaia, konfiantzaia emuten euen umieiri; baiña geuk be bai eurei, e! Orduan, orduko epokan gutxik emuten euen [hainbeste] konfiantza, zegatik orduen gurasuei ez jaten /etxaten/ emuten hori zeroi, ez jaten /etxaten/ emuten, ta guk bai. Guk, ez dakit zegatik.
Gizona: Orduen gurasuekin ez euen hori konfiantzioi.
-Ez, ez euen hori tratuoi, ez euen gurasuekin tratuoi. Nik honaxe etorritta ikusten dot. Hona etorri nintzenien ikusi neuen. Gure aman eta... Aitte, tira, baiña gure aman aurrian eta... Keba!
-Ezin zan egin berbarik eta?
-Ez, ez, ez. Keba! Ez, ez, pentsau be ez. Ez, ez. Ta guk bai. Gu jarten gitzen armonixa, euena jango geuen, eta domeketan kafie egoten bazan, danontzako egoten bazan danok hartuko gauen; ez baeuen ez. Ez euen aittak eta amak eurak hartu eta umiei emun ez. Ez. Danontzako baeuen hartuko euen, bestela ez euen eurak be hartuko. Baiña hori armonixoi danak. Hamar anai-arreba izen ga baiña danok eruen dou elegante; eruan dou baiña ondo baiño hobeto. Baiña beti interesaute batak bestiakin. Eztakitzu?, ondoez bat badauko edo bestie, betik interesaute. Betik hori esaten dot. Eta gu famauta egoten gitzen gu anai-arrebok eta familixia zela erueten gitzen. Danok. Danok. Ointxe faltau dau bai hiruk: bi anai eta

aizta zaharrena urtebete pasau da ointxe hil zala. Baiña guk eruen dou bata bestiakin, bueno!

9.5. Herria eta gizartearen aldaketa azkenengo hamarkadetan: industria, etxebizitzak, emakumea etxetik kanpo lanean

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/026
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:55:15. **Bukatu**: 00:58:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
  Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena**: Herria zeharo aldatu da. Kanpotik noiz hasi zen jendea etortzen. Lantegiak asko handitu dira; berriak ere sortu, e.a. Emakumea noiz hasi zen lantegietan lanean; gehienbat gerraosteko kontua izan da. Erdararen indarra. Duela urte batzuk inguruko herrietatik ere jendea Aretxabaletara etortzen zen bizi izatera; etxeak merketxoago zeudela edo esaten omen zen.

Transkripzioa
- Orduan Atxabaleta herrixa asko aldatu da?
- Bueno! Ideiaik be ez, ein daben bueltia. Eta aldatzen. Eta edarto doia. Kaliek Atxabaletan bastante formalizau die. Hemen Basabetik Mendiolako kamiñoraino zuzen-zuzen alde bixetara fabrikak, eta etxiek be ein dittue barrixak. Ein da eitten.
- Eta noiz igarri zan kanpotik jente asko etorri zala?
- Gerra ostian laster. Lehenao andraik etzan fabrikara faten, uste dot bapez. Eta hasi zan, e, kastillanuek fabrikara faten ziela, nunbaittetik etorriko zien eta.
- Maria: Lehenau Mondrauen-eta faten zien, e. Banakan bat, baiña bai. Baiña gerraosteko kontuek die horrek.
- Oin berriz esaiozu fabrikara ez fateko. Bueno! Fabrikara edo holako beste puesto bat hartzera. Baiña lehenao, klaro horrek puestuok ez ezen.
- Maria: Lehen behin ezkondu ezkero etxien. Umiek hazi eta etxien andrie.
- Hori desaparezidu da.
- Orduan Atxabaleta hazi zan gerria ezkero?
- M: Ni etorri ezkero. Berrogeta hamar urte.
- Zuk ezagutu zenduan txiki-txikixa?
- Maria: Bai, eta oin kanbixau da. Erdera asko. Oin be erdeldun jente asko bizi da. Baiña umiek ikastolara doiakixuez, eta umiek behintzet euskeraz-eta. Atxabaletan Mondrauen-ta baiño pisuek merketxuago egon die lehen; oin uste dot bardindduta daezela, baiña gazte asko.

9.6. Antzinako bizimoduaren inguruko gogoetak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/035
- **Iraupena**: 0:00:39. **Hasi**: 00:58:56. **Bukatu**: 00:59:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Antzinako bizimodua; etxe guztietako etxeak zabal-zabalik egoten ziren. Harreman oso estua egoten zen bizilagunen artean.

Transkripzioa
-Etxe guztietako gltzak eruaten zittuen baten batek? Aguazillak edo?
-Keba, ezebez. Ez, ez, ez. Keba! Giltzak?
-Baten bat etxera sartu edo.
-Ba, orduko giltzak zien holakotxiak ate guztietakuak, e. Eta gure etxian esan notsuten atzo edo arañeun egon zintzenien, kanpoko atie zabal-zabalik, eskilleretakua zabal-zabalik, sukaldekue zabalik, eta etxe guztietan holaxen. Iñobe ez zan ibiltten.
-Eta etxe batetik bestera relaziño haundixa?
-Bai. Oso haundixa danak, e.
-Bata bestiaren etxera zeoze eskatzera edo?
-Bai.
-Behintzat ezagunak, ez?
-Bai. Bueno!

9.7. Norberaren kontura egindako lanak

- **Hizlaria(k)**: Ayastuy Elorza, Jose Benito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Loidi, Ane
- **Erref**: ARE-024/004
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:06:50. **Bukatu**: 00:08:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena**: Azken orduko lanek nekatzen dutela asko komentatzen dute. Hobe da lana aurrez pentsatutakoa egindakoan uztea, beste ezertan hasi gabe. Lanak ganoraz egiteko goizean goiz jaiki behar da.

Transkripzioa
-Gero personie kantsau horretxik azkeneko orduko lanok eitten juek. Horretxik. Gure tio Gregoriok esaten juan: goxien personiek ein biher jok jaiki eta eguneko plana ein, eta lehenao akabaten badok edo [...] atzerao akabaten badok, ia gaurkua ein juat eta kitto. Zeatik nik behin esan nutsen, bueno, atsaldeko laurak be bazittuan eta, "Bueno, hau akabaute dao eta hori bestioi hasi bihar dogu /bihou/" eta. "Ez, goxien ifiñi doun plana akabau dou bai, eta ni ez naxoiek gehixao itten, in biher bok, heuk ein eik /eiñik/", esan ustan. "Hori lanoi bixerko", esan ustan, "bixer eingo juau", esan ustan. "Errezoia daukotzu. Oin ze in biher dogu /bihou/?", ta: "Hor txintxarra badaukek ba hik, ebai eik /ebaik/ zati pare bat... eta ekarri eik /ekarrik/ eskillarapeko ardau hori, trago bat eingo juau". Baiña oin hasten zanien, ez geldittu zigarro bat erreten. Jo, latigo!, baiña holan kriston belozidadiakin ein biher lana. Ha be goixien zortziretarako eztul baten etortzen zuan eskillara...

9.8. Ganadua moldatu egiten da kanpoko tenperaturara

- **Hizlaria(k)**: Ayastuy Elorza, Jose Benito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Loidi, Ane
- **Erref**: ARE-024/010
- **Iraupena**: 0:05:10. **Hasi**: 00:22:40. **Bukatu**: 00:27:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Jende nagusiak gauzak lehen moduan direla uste du, baina aurrerapen handiak egon dira. Ganadua kanpoan edukiz gero beti, ohitu egiten da kanpoko tenperaturara. Ganaduak euliekin sufritzen du asko. Gaur egun eulien kontrako txapa bat jartzen zaie belarrian. Suitzatik ekarri zioten eulien kontrako produktu baten inguruko azalpenak. Behien inguruko kontuak.

Transkripzioa
-"Lo que pasa que" amak-eta hoixe pentsatzen juek haretxegaz-eta, pentsa eik laixan. Guk laixan iñor ez juau ikusi, "desde luego".
-"Gaur ganauak atara bihar dittut-eta" "Honegaz denboriagaz ganauak kanpora atara?" "Zaloñakuek han daz ba, negu guztie kanpuan; hareik ez daue eztulik eitten".
-"Ya lo creo que" ez. Gurien be ganauek eukitten jittuek gure sukaldien baiño beruautan, baiña ez dok normala han hola egotie, zegatik e Jorgek esaten dauena, makiña bat kanpuen akabetan [jate]. Lasturraldeko (?) txahal txikitxuek, goxien ni kalera etorri nazenien han jeztan harek, gau guztie kanpuen pasau juek harek. Hori dok ba kostunbrien faltie.
-Haik gogorrauak etxian dazenak baiño.
-Asko be. Kostunbrau eitten badittuk holaxe, ez juek bihar hareik barruen-eta epelik eta ezebe. "En cambio" gurien esne-behixek diela-eta ba... baiña bero, e!, gurien kortan egoten dok bero bat! Hik aguentau ez heuke eingo han.
-Baiñe klaro, pasetan dana dok, kanpuen dauen ganauek eitten jok, beste gaiñien kapa bat eukitten jok, holako grasa kapa bat eukitten jok, ulien. Klaro, orduan harekin asko kubritzen dok. Barruen dazenak hori ez jaukiek.

Barruen dazenak hori ez jaukiek, eta harek ba [...]
-Sentidu gehixao.
-Guk ia..., hamabost egunien kanpuen jabitzek, hareik ia bajabitzek. Neure botoz? Neure botoz kanpuen lo ein biheko leukiek.
-Oin gaiñera hotz haundirik...; ba, gaur apur bat goxien bajauan, baiña normalien hotzik etxok eitten oin.
-Ohittu ezkero ez jaukek.
-Oin gordelekue, afrontuekin-eta, gordelekue ona izeten dok. Ganaue ez dok eurixagatik, hotzagatik eta erretirauko. Beruagatik keizpetara fango dok, eulixegatik, e. Baiña bestela ez. Guk [Ametzagainguen?] ibilli geuenien behixek, aittek esan ustan behin: "Harei behixei eixek buelta bat, eulixak hartuta han egongo dittuk eta". Eulixak hartu eta, hori botikioi botata neukan, hori eulixen repelente bat-edo. Oin ez juat topetan hori botika klasioi. Eulirik arrimau be ez. Fan nitzuan eguerdiko hamabixetan eta egun beruekin, danak euzkittan etzindda hausnarrixen. Eta han jaukien atia zabalik [...] nahi [baeben] sartu, eta harek kanpuen. Kriston eurixekin, eta kanpuen. Oin, gaurko afrontuekin eta kontuz; afrontuekin ganauek gordelekue gure izeten jok.
-Afrontue txarra dok.
-Gordelekue gure izeten jok, gordelekue, haxe ezkutuen billa faten dittuk. Orduan, klaro, eukitten badittuk han zerien, ba, ha sufriduten jak.
-Ganauek udan sufridu eitten dabela asko esaten juek, baiña, klaro, heuk esan dokenagatik, eulixegatik, eulixek beti piketan-eta. Barruen be eulixa txarra dok. Gurien bero egoten dok, eta eulixek kontornoko danak pentsetan juat han egoten diela. Eta lehengo egunien be eulittan jauan han! Eta oin ifintten jutsek hola belarrixen holako txapa bat.
-Eulixen kontrakue dok hori be?
-Eulixek faten jatiek, eulixak pillue iguel eukitten juek, baiña pikau ez juek itten, itxurie.
-Repelente bat edo.
-Eulixe mamutu eitten dok.
-Ez jok piketan.
-Gure denporan, ni akordetan nok mutikue nintzenien, eulixekin [ibilli ezin ganauek], hamaikak orduko ia hasten zittuan aiñiketan, eta etxera takarraran. Oin ez dok ikusten holako gauzaik. Ez jakixat, hik esan duena, botikena dan ala zerena dan, baiña oin ez dok ikusten ganaurik holan.
-Gu aspaldixen horregaz gabitzak, eta oso ona dok, guri ondo resultau joskuk txapi horrek.
-Perito batek Suizatik ekarri josten.
-Txapie dok hori be?
-Ez, ez ez. Sobre bat, sulfatadoriaz busti ganauek, eta egun baten barruen euki. Eta harek ez juen eulirik bat euki.
-Eta zenbat denpora aguentetan jok?
-Uda dana. Uda danerako behin botata. Hiru hillabeterako zera jaukan. Harek uda danien ganauek ez juen euli bat euki.
-Merezi jok Suizara fatie ekarten.
-Eta gero harrezkero hamen zertu juat, eta berai esan nutsen, eta ez utsela bialketan esan justen, eta gero hamen ibili nok bille, eta ez juat topau ezer. Egon bajazek oin. Baiña euri-zaparrara bat ein ezkero... Hori belarrikuoi bastante ondo, eulixa eukitten juek, baiña ganauek ez zitxuek molestetan, itxurie eulixa mamutu-ero, bajaukek usain txarren bat edo, zeoze bajaukek eulixentzako.
-Ez dabela piketan esaten juek. Euli asko eukitten juek gaiñien. [...]. Baiña gurien, gaiñera, batzen eta faten gazenien bustaz horregaz, lokatz artien egoten dittuk, eta han giro izeten dok.
-Lotu ez dozue itten buztana?

-Oin arrebiek lotzen jutsek...
-Horrek dindirri gogorra bajaukek, harek bolak perlak moduan.
-Jota bla! Eta belarronduen igual. Eta gaiñera behixei itxi ein biher bakien. Bestela jo ostikuaz-eta. Oin ordeñadoriakin-eta zera, baiña lehenau baldiakin, oo!, zaratan bat atara eta da! jo ostikuaz, eta punta-puntaraiño esne, eta dana hankaz gora.
-Derrior itxi biher bakian.
-Oin gurian ez jak ganaurik, baiña ganauak euzenian [...] buztena hankara lotzen guntsen beti kordel bategaz; batu biher geuenien. [...].
-Plastara bat emun ezkero, giro izeten dok.

10. Natura

10.1. Soroa lehorra; airoplanoen inguruko ustea

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/010
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:16:25. **Bukatu**: 00:18:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Natura » Meteorologia
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Soroko lana. Aireplanoak hodeiak apurtzen zituela eta euria ekartzen zuela uste zuen senarrak.

Transkripzioa
- Lan gehixao souak emongo eben, ezta?
- Beti be souak gehixao. Artua ta asko ereitten zan-ta, gero jorratzen, harek jorratzeko atxurrakin-ta. Gure izeten zen apur bat jorratu-eta, bedarra kendu-eta, eta askotan dana indda be nahikue lan igual. Hurrengo euririk ez euen itten igual-ta, dana siketuta-ta, jo… penagarrixe. Eurixe eske eta euririk itten ez; eta artuek, e, hola, orrixek, e, zertuta, juntauta igual. "Txorrotuta" esan gotsen guk. "Artu guztiek, e, txorrotuta zera jazek sikuukin-ta." Horeixa etorten zala-ta, ta horeixa ba, gaur eingo jok eurixa, horeixa badatorrela-ta, eurixa-ta. Arioplanua pasetan zala beti horeixa euenien. Apurtu eitten auela harek horeixa. Nire gizonak esaten euen, hori esaten euen betik, e: "Horreik arioplanuok etorten die bai, eta horeixa, baetorren eurixa, ta horreik apurtu eitten daue." […]. Baleikien igual apur bat zertzie be.
- Arioplanua pasau ezkero euririk ez?
- Euririk ez gero. Horeixa zertu, atzeratu-edo zertu eitte euela. Ez dakit, zeozer eitten euen. Hak beti esaten auen: "Arioplanua etorten dok, eta eurixa baetorran da, eurixa tantakak eta dana hasitta-eta…" Fuera. Ez dakit bazan edo ez zan, berak hori esaten euen beti.

10.2. Baserriko lana; tresnak

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/022
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:37:45. **Bukatu**: 00:39:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Natura » Meteorologia
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Baserriko lanak. Lurra gertatzeko lan gogorra egin behar izaten zen. Baserriko tresnak.

Transkripzioa
- Basarriko lanak, lurra jo, mazue apurtu, bestien zera ta...
- Lurra gertaketan lan haundixak, ezta?
- Goldiekin itten zen, e, gure danakin, eta gero apurtzen, e... Hareik siketzen zienien, e, gogorrak egoten zien, e; trilluokin, kargau-kargau ipiñi zera-ta, trilluoi edo trastioi-tta, gero harrixekin-ta, zerakin-ta, apurtzen-ta, gogortuta euzenak, e, trilluan azpixen bueltaka bolien moduen ibiltten zien, ta apurtu ez. Bolaan moduen bueltaka, trillopeien. Apurtu ez. Mazuukin jota-ta. Mazuuk be indda eoten zien. Mokillok apurtzeko, mokillok. Behin in zittuen nere gizonak be, ez dait zenbat, zazpi edo in zittuen. Esan nutsan: "Baten batzuei dibertiduteko zera ipintten bazabitz, e, horreik mazo... zeiñek ibiliko dittu ba?". "Txandan, bat apurtzen danien, lurra baiño lehenau apurtuko da bai, hau mazuau, eta bat apurtzen danien ba bestie".
- Gu asko gintzen ta, danentzako bana.
- Mazo pillie. Ein jittunan pilla bat, hamahiru edo ez jakiñat zenbat. "Zer in bihar dozu ba horreikin?" "Honek lurra baiño lehenau seguru apurtuko die erok; lurre gogorra eongo da-ta". Apurtzen danien bat, gero beste bat.

10.3. Eguraldiaren inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/003
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:04:35. **Bukatu**: 00:06:25
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Eguraldia. Elur askoz gehiago egiten zuen lehenago. Izotz-kandelak teilatutik behera. Teilak ere apurtzen zituen izotzak.

Transkripzioa
-Edurrak eta be oingo aldian, e.
-Bai, edurra asko eitteban len, e. Haundixak eta. Izotzak pe bai galantak eta. Teillatutik bera kandelak edarrak egoten zien batzuetan. Atxur kertenan moduan dingiliz behera.
-Klaro, hodixaik etzan egongo teillatu bueltan.
-Ez, ez zauan hodixaik. Daukien pixuaz teillia apurtu eitten auen. Goixan holakotxe sendua egoten zan teillian onduan. Euzkixak urteten auen

atsaldien eta hasten zan edurra urketan, ure tarraaa, ta gero ha ure dana izoztu itten zan barriro segiduan, ya behin laurak pasau ezkero.
-Izoztu. Da gero... Orduen itten zittuen mortalak, e. Edurra be bai tta, izotzak pe bai tta. Oin gutxiaukin igual kejau itten gare, baiña orduen pasau zien. Gutxiakokin kejau igual. Aurten be izotz apur bat eiñ dau, birrittan, hiru bidar ero, izotzak ein dittu, izotzak pe. Haixia egonda gehixao. Buff, zelako putzak! Hemen gogor joten dau hemen bertan be, e. Asko. Horrek bentanok, pertsiak eta itxitta egonda daz, e. Egun baten igual zabaldu barik hori tta hori frentekuoi. Hortik golpe onak! Bestela apurtzeko moduen kristalak eta.

10.4. Mutilen denbora-pasak: txoritan edo errekan

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/017
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:28:10. **Bukatu**: 00:31:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Natura » Fauna » Hegaztiak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
  Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Mutilen jolasak, denbora-pasak: txoritan, errekan arrantzan... Garai batean karramarroak ere egoten ziren. Ezkailoak. Nola arrantzatzen zuten. Txorikumeak nola harrapatzen zituzten. Txori klaseak; izenak. Koruetako erreka.

Transkripzioa
- Mutillak-eta, basora joan eta txorittan ein-edo?
- Maria: Txori-apixetan, bai, neskok ez, baiña.
- Edo errekara joan-eta?
- Bai, zeoze ibilitta nao ni hor, Urkuluko errekan-ta, oin ez dau baiña.
- Maria: Kangrejuek harrapetan.
- Kangrejuek sarrixan batute daukat. Baiña hortik doie ba… Koruetako zikiñek be hortik doiez ta horrek desaparezidu die. Lehen be gutxi euen, e. Koruetako zikiñek orduen ez zien etorten, baiña… Errekie siketu eitten da bai, siketu eitten da.
- Maria: Nik entzunde dauket eskailluek eta harrapetan ziela.
- Bai, bai. Txikitxuek izeten die. Neuk be batzun batzuk harrapaute daukat. Baiña siketu eitten da, eta siketu ezkero peskie galdu eitten da.
- Eta zela eitten zenduen peskan, eskuekin edo saria erabiltzen zenduen?
- Ez. Sarie sartzeko besteko potzue ez igual.
- Maria: Botillia. Botillia ipinitta-ta.
- Botillia? Ez dait. Neuk peskan asko ez dot ein. Gurian ibilli die basomutill, basora lanien etorri Santander aldekuak-eta. Horreik bai, horreik espliketan dotsue peska asuntua. Han iñola be erreka hobaak ezen, eta… Hemen faten zien Urkulura ta harrapau be eitten zittuen. Potzuei igarri eitten utsie gutxi gorabehera nun dauen zerbait. Guk ez hainbeste.
- Eta txori-apixetan egiten zenduen?
- Txori-apixetan bai, ene… Hor ibiltzen gitzen. Txori-apixetan, e, txorixai ikesi ezkero bati ha ixilik euki biher izeten zan, ha bestiek harrapau ez deixen. Gero txorikumak itten zittuen eta haik hartu eta jan, txorikumak.

- Etxian?
- Etxien, etxien. Han etxien be ez zan oillo asko-asko jango.
- Maria: Orduan txorikumak gozuak, gaiñera…
- Bai, bai. Txorixa ikesi, zainddu beste iñok jakin ez deixen, eta gero apur bat lumaketan dienien hartu eta jan.
- Eta ze txori izeten zien orduan?
- Negutia-ta, jilgerue igual-ta, zozue eta bidigarrue-ta; okille, oin ixa gastau da, arboliei zulue eitten dutso, hareik be bai, harek be behin edo behin harrapaute dauku. Ta holaxe, eta honek eskillarasuek eta be baeren zeozer. Txori klase asko.
- Eta errekia esaten dozu ez zala oso aberatsa? Sikatu eitten zala eta arrain asko ez ebala eukitzen?
- Ez, ez. Hau siketu eitten zan. Koruetakue ez. Koruetakuen beti egoten zan zeozer. Urbaltza, Urbaltza da Koruetako errekie, Urkuluko manantial printzipala.

10.5. Txori-klaseak: batzuk ugaritu egin dira; beste batzuk urritu

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-010/018
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:31:50. **Bukatu**: 00:35:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Natura » Meteorologia
  Natura » Fauna
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- **Laburpena**: Txori asko etxe inguruan. Eleiz-txoriak asko ugaritu dira. Hegazti klase asko presa inguruan; gaur egun txori desberdinak ikusten dira. Kukuaren inguruko esaera desberdinak.

Transkripzioa
- Errekia ez, baiña esaten dozu basua aberatsa zala. Txori klase asko?
- Bai, bai.
- Eta zela ikusten dozue, batzuk galdu egin dirala?
- Maria: Txori klase asko gure etxe inguruen. Baiña bandarak, e. Eta zegatik? Ganau pentsuek dabiz, bai. Hola illunkera aldian bueltatxo bat ittera fan bai, eta txio-txio-txio, bandarak. Hola txalo bat edo bi jo ta urteten dabe bandarak.
- Zer da, txori klase bardiña?
- Horreik bai, horrek esaten dauena bai. Elex-txorixak edo esaten jakuen. Eleixetan edo teillatuetan dittue afixak.
- Maria: Ugarrittuta dago hori. Eta nik pentsetan dot igarri eitten debela eskupetaik ez dagon etxie, e. Ze horreik tiro baten bota leikez, e, ehun iguel.
- Esaten dauela batzun batzuk igual… Harrapetako badago sisteman bat. Jana ifiñi faten dien lekuen, da saran bat, hor badao sisteman bat. Kasik ikusi be eitten ez dana. Eta ha joten dauenien burua pasetan daue eta atzera ezin urten. Han zulotxotik, eta orduen dago peskioi, fan eta ra! Ra! Ra! Eta ixten bozu sarie han, katuek be bai, eta jentiek be bai. Baiña ez, hori esan eitten daue, neuk ez dot ikusi.
- Maria: Oin berriz hemen presatik paittie-eta asko dabil.

- Oin bai. Oin bestelakue, txori-klasie, kanbixaute dao.
- Maria: Gure semiek botaten dauenien zelaixetan satsa edo puriñe edo esatekue, atzetik horrek paittok bandaran etorten die. Eta belaak be bai.
- Belaak, buff, zenbat bela.
- Eta esan dozu okilla erdi desagertuta daguela?
- Bai, bai.
- Eta zu umia ziñanian asko ikusten zenduen?
- Bai, hartzen zittuen. Okillak e...
- Maria: Okillak dezente lehenao, oin ez dakit nik.
- Kukue ezta, e, txantxangorrixen afixan arrautzie...
- Maria: Kukuek edozein lekutan. Berak ez dittu ataraten, baiña beste batzui afixan bere arrautzak ixten dutse.
- Nagi arraixue!
- Kukua be ugarixa izaten da?
- Ez hori be lehenau gehixao entzuten zan.
- Maria: Bueno, oin be kukue entzuten da datorrenien, oindio ez jaku etorri.
- Esaeraren bat badago, kukua entzuten danian?
- Bai. Noiz da hori Erromako...
- Maria: Poltsikuen dirua. Erramue eta Erromako zubixa, esaeria. Kukue Erremu Egunien Erromako zubixen pasatzen zala.
- Pasau eitten ei euen. Nundik etorten ete zan?
- Maria: Hori esaeria izengo zan. Eta gero ba honutz etortzen zan, itxuria.
- Baiña Santixautarako ixildu eitten da. Eta da txori...
- Maria: "Gagarrillian mutu", esaten dabe-ta. Garagarrilla berriz "julio".
- Juliuen kantuen ittiari ixten utsa.

11. Ekonomia eta industria

11.1. Fabrikako lanaren inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-006/016
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:26:50. **Bukatu**: 00:28:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
  Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- **Laburpena**: Fabrikako lana nolakoa. Zapatuan ere lan egin behar, "sábado inglés" jarri arte.

Transkripzioa
- Basarriko lana gogorra izango zan, baiña fabriketan be...
- Fabriketan lehenau lan zera, zakarra, lan zakarra. Mailluekin-edo zerak apurtzen-ta, gauzak eta, ba, modu askotakuak. Txarrak lanak. Zapatuetan-ta be lana, inglesoi ifiñi arte, "Sábado Inglés", ez dakit nox ein euen, ifiñi euen-ta.
- Zer izeten zan hori? Atsaldez bakarrik ala egun guztian jai?
- Egun guztian uste dot zala.

11.2. Etxe-jabeak; errenteroak

- **Hizlaria(k)**: Erromaratezabala Faido, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ARE-007/026
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:30:05. **Bukatu**: 00:33:50
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Baserriaren errenta nola ordaintzen zuten; lehenengo gariarekin, geroago dirutan. Arrautzak, oiloak, oilandak... eraman behar izaten zituzten urtean behin. Dirua nondik jiratzen zuten: txahala; egurra, esnea, saltzen zituzten. Etxe-jabeak nongoak ziren.

Transkripzioa
-E rrentia be lelengo garixakin ta gero diruz pagau biher izeten zuan.
- Diruz pagetan jarri zanien gero ondo, ya...
- Errentia garixa bakarrik ala beste jeneron batzuk be bai?
- Bai, beste zeozer be eruan bihar izeten zien. Arrautzak-edo Garizuman edo ez dakit zer, arrautzak, oilluek, eta bazkaixe eukitten auenien oillanda pare bat. Da arrautzak orduen be. Dozenak bat arrautza eta oillandak ez dakit zerendako biha zittuen. Jateko ala eurek jakingo auen, oilluek ipintteko. Oillanda pare bat eta arrautzak.
- Urtero hori?
- Ez auen gure izeten; urtero hori?? Hori urtero izeten zan.
- Eta izentautako egune eukitten zauien hortarako?
- Ba abixau itten auen. Hor izeten zan, nobienbre inguruan izete zan.
- Kapoerik ez? Kapoiak?
- Kaporik ez, kapoiana ez gauen ezautu; dirutan ifinitta euken kapoian zera. Lenao ipini ta harek jarraiketa auen. Zenbat zan be! Errieletan esaten auen gure gizonak. Berrogeta hamar erriel edo ez dakit zenbat. Halakon bat zan. Ta leenao ipiñi hoixe errieletan da ba gero horrek jarraiketan auen. Kapoiek e, ez oiazela kapoiak hazten, lan txarra aukela ta diru pillue bihe zala ta ipinitta eukela.
- Eta dirua atarateko esne saltzetik zuzenketan zan dirua? Dirua be etzan samur egongo orduan.
- Ez hoixe. Nunbaittetik.
- Esniakin-edo?
- Esnia ta, bai.
- Txahalen bat-edo.
- Txahala bai. Txahalak pe egoten zien-ta.
- Txahala ta esnie ta. Gero basuen be lan apur bat itten auen-ta. Egurrek ataraten. Orduen kamioirik ez zan faten, orduen irixekin, gure aitte karreterue zan ta harek egurre ataraten irabazpidia apur bat nunbaittetik jirau.
- Eta hortik eta hemendik.
- Ugazaba nundarra zan?
- Bittorixan bizi zan. Hau zan Arratabe-edo zan. Familixie neskak-edo euki zittuen harek; eta gero ba bi alaba-edo uste dot ziela euki zittuena horrek, Arrataben ze horrek. Enda gero apellidua kanbixau in zan, gero fan zan eta gero zea, Otazu. Oin euki doune guk. Hori bestioi Arratabe lehenaukua, nik haregaz ez dot ezeutu.
- Asike gure etxie erosi zanien Otazuri erosittakua. Horrek hiru, hiru jaixo

zien, hirukixek-edo. Eta hango bat zan gure zera. Inazio-edo izan biha auen izena. Inazio uste dot.
- Hemen Atxabaletan jaixo zien horrek, ezta?
- Jaixo? Bittorixan. Bittorixan jaixo zittunan horrek. Atxabaletan hor euki auen etxe galanta. Gero hor egoten zien udan-ta, egoten zittunan.

11.3. Baserria errentan; jabearekin harremana

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia, Eulali
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-009/008
- **Iraupena**: 0:05:05. **Hasi**: 00:17:50. **Bukatu**: 00:22:55
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Gurasoen baserriaren jabearen inguruko kontuak. Errentaren ordainketa hasieran oilasko eta gariarekin; gerora dirutan ordaintzen hasi ziren. Baserria noiz eta nola erosi zuten.

Transkripzioa
- Basarrixak errenteruak izaten zian askotan, etxejabiak oso gutxi izaten zian. Zeuen auzo inguruan eta zelan zan?
- Geurien be, geu be denpora baten errenteruak giñen geure etxian, neure etxian. Errenteruak giñen. Eta geuken errenteru ona, uezaba ona, oso ona.
- Zan bakarra zeukana?
- Ez, zan aberatsa. Aberatsa askotan honek pobre-aberatsok baiño hoba izeten da aberatsa, eurak hobak izeten die honek baserrittar, ez dakitzu, zerak baiño. Hobak izeten die. Eta guk geuken, ona geuken, uezaba ona. Zan aduanako nausixe. Eta izetez zan Irungue, Irungue zan izetez, eta Eskoritzar batekin ezkondu zan, Zaragueta. Zaragueta oso famosue da, Zaraguetana entzunde eukiko dozu Zaraguetana. Ez dakitt, igual. Aberatsak zien Zaraguetanak.
- Basarrixa zan Zaraguetana.
- Zaraguetana zan, bai. Eta uezaba zan oso ona. Eta denpora baten gure aitte-ta etorri zienien baserrire, igo euenien, errentan jarri zien eta orduen urten batzuetan entregetan utsien errentia diruz ez: oillaskuek, garixe, eta hola. Ez dakitzu? Kapoiek eta orduen. Baiña gurian be ba familixia gehittuixaz, gehittuixaz, ba, klaro, etxien falta eitten euen garixak eta be, eta iñolaz be arreglau zan uezabaz aitte. Aittei, estimau euken aitte. Asko gura utsen aittai. Eta aittaz arreglau zan diruz pagetako. Horrei oillaskuei eta kapoiei-ta itxi, garixai ta, ta diruz pagetako. Eta diruz ifiñi ei euen milla pezeta urtien.
- Orduan asko izango zan?
- Orduen asko ei zan, asko ei zan. Baiñe gurao ei euen hola bestie baiño, ze hala ta guzti be, bestiek baiño hobeto urteten ei utsen, garixe entregaute baiño, eta kapoiek eta oillaskuek eta baiño askoz hobeto urteten ei euen zea pagaute. Baiña urtien txahal bat hazi biher izeten euen errentie pagetako. Pentsaizu, milla pezeta pagetako, urtien txahal bat hazi biher izeten euen. Baiña hala ta guzti be ona. Gero gauzie zela fan zan gora, gora, gora, ba azkenerako milla pezeta ezebezien jarri, ezebezien. Eta gero ba, klaro, anaie ezkondu zan etxera, eta aitte ordurako ba, aitte gazteik, ez dakitzu, bihotzetik jarri zan eta ez zan asko gauza izen. Eta esan utsen,

anaia esan utsen: "Heuk erosi biherko dok etxia. Ni ia ez nok gauze eta heuk erosi biherko dok etxia". Eta holaxe erosi eban, arreglau zan eta erosi euan; ondo arreglau zan. Pagau euen, terreno asko euken gure etxiek, terreno asko euken, pagau euen berrogei milla duro. Berrogei milla duro, berrehun milla pezeta. Pezetatan esanda. Berrehun milla pezeta, berrogei milla duro. Eta, klaro, orduen ez euen emuten, kaja ahorrosera fanda orduen ez euen emuten krediituik eta [...] berakez euken diruik eta. Zorrik be ez, diruik be ez. Lehen esan dotena, zorrik be ez, diruik be ez. Eukiko euen milla pezeta, bi [milla]pezeta, lokesea aurreratuta; edo bost milla o lokesea, ezta, baiña hori ez da ezer. Ba etxeik etxe, etxietan, geuk be emun gutsen, besten batzuk be emun utsien, eta han beziñuek eta emun utsien eta ba erosi euen etxia. Eta gero gauzie holaxe fan zan. Sartu zan bera fabrikan eta amak eta tartian arrebak be etxian bizi zien bi arreba behintzat, eta haik lana eitten euen, eta ganauekin eta holan, eta aitte be artien beti be ondo ibiltten zan eta pusketxo bat eitteko zan, eta anaie fan zan fabrikara eta fabrikan ataraten euenakin eta gero ganauekin ataraten euena, eta hortik eta hemetik berihelaxe pagau euen baserrixa. Urte gutxixan pagau euen, e. Esango neuke bost edo xei urtian pagau euen baserrixe, e. Eta gero orduko piñue be beuken eta baetorkixon piñue be eta hango piñu puxkatxo bateaz eta. Gero berak irabazten euena-ta, zintzue zan anaia; biheko!, eta berihelaxe pagau euen etxia.

11.4. Antzinako txanponak

- **Hizlaria(k)**: Abasolo Askasibar, Patxi; Gallastegi Lamarain, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-011/005
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:02:05. **Bukatu**: 00:03:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena**: Ezagutu dituzten txanponak.

Transkripzioa
-Zuk errialak esan dozu oiñ. Ze diru-klase ezautu dozuez?
-Emaztea: Erriela be bai, peze..., txakur haundixe.
-Ze da, zentimua?
-Zentimo bikue nik ikusi eiñ dot, zentimo bikue ikusitte daukat nik. Zentimo bikue moneda bat zan.
-Emaztea: Txakur txikixa bost zentimo. Kobrezkuak zien horrek. Horrek zien gerra aurrekuak. Gero gerra ondorian horrek aluminozko txapatxuok. Erriel bikue eta txakur txikixa be bai.
-Errial bikue zidarra zan. Erriela zan nikel...
-Emaztea: Bai gerra aurretik, baiña ostien ez, aitta, ostien aluminiozkuak zien. Eta gero handik rubixetara pasau zan.
-Eta orduan gerra aurrekuak zidarrezkuak zien?
-Bai, bai. Pezeta bikue, pezetie, durue, hogerlekue. Hogerlekue da hogei erriel.
-Emaztea: Txakur txikixa ta horrek kobrezkuak.
-Eta aurretik egongo zien beste diru...
-Emaztea: Besten batzuk egongo zien. Guk horretxek ezautu dittuu.

-Guk eztou ezautu. Hola lurrien topauta edo holako zeren batzuk, baiña ez dakit nunguek izango zien be ta.
-Urrezko txanponik eta?
-Urrezko txanponik ez. Por suerte...
-Emaztea: Bueno, urrezkuek daukadaz nik batek erregalauta hamahiru urrezko txikitxo. Seme-alabak danak guriak harekin diruakin ezkondu die.

11.5. Lantegietako sirenak

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/033
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:56:00. **Bukatu**: 00:57:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Serenorik ez du ezagutu. Lantegietan sirenak jotzen zituzten irteteko ordua baino lehen. Gerra garaian, sirenak ere jotzen ziren jendea babeslekuetara joateko.

Transkripzioa
-Serenorik eta ibiltzen zan?
-Ez, ez auen serenoik eta. Ez auen serenoik. Eta fabriketan Zubienien, Beroanien, bestietan ez, bozinie joten zan ordu erdi lehenau langilliak joan baiño lehen. Gero hamar gutxiaotan beste bozina bat -herri guztian entzuten zan, e-, eta gero ordua aillegeten zanien. Eta gerra denporan etorten zala..., esaten auenian badatozela arioplanuak-eta; ez dakit ba nundik hori abixuoi bialketan zan herrixetara, joten auen hori boziñioi gerra-denporan, e, gerria euen denporan. Eta hori boziñioi joten euenian zan ya jente guztia etxeratu in bihar dala eta etxe barruetan. Etorri kale-basarrixak euzen etxietan, gu tianera joaten gitzen, ittugara danok, eta Kalebarreneko jente guztia ittugan. Eta zegatik zan hori? Gaiñien euen kamaria bedarrakin, eta bonban bat edo jausi ezkero, ba pentsaurik harek eutsi eingo otsela beheraiño joan barik edo. Bai. Hori be gerra denporan izeten zan. Haik bozinia joten auenian takarraran danok tianera. Hango ingurutako etxiak geure tianera.
-Orduan sirenekin puxkat jakiten zan ze ordu dan eta.
-Bai.
-Serenuak esan dozu ez zerela?
-Ez, serenoik ez.
-Aittan sasoian be ezta?
-Ez.

11.6. Bizimoduaren aldaketa; kanpotik etorritako jendea

- **Hizlaria(k)**: Zuazabeitia Herrasti, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-015/036
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:59:35. **Bukatu**: 01:02:25

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Boom industriala
  Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Antzinako Aretxabaleta; bizimoduaren aldaketa. Kanpotik etorritakoak uda garaian oporretara nola joaten ziren gogoratzen du. Kanpotar asko herrira etortzen zirenean, "apupilo" bezala egoten ziren etxeetan.

Transkripzioa
-Orduan zer esango zenduke? Aretxabaletan giro politta zeuan herrixan?
-Bai.
-Gero noiz hasi zan aldatzen edo jentia noiz hasi zan etortzen?
-Bakitzu noix hasi zan aldatzen? Gero ya fabrikak-eta geruao ta gehixao, eta ezebe ez dot esaten kooperatibak ifiñi zienien, ta zenbat diru gehixao etxietan ya indibidualauak edo itten da personia. Gutxi dauenien, danok gutxi , danok igual, baiña gero holaxen hasi zan aldaketan herrixa. Nik pentsatzen dot herri guztiak holaxen.
-Gerora haunditzen be joan zan, gainera, gero eta gehixao...
-Klaro, kalro, bai. Ta koperatibak hasi baiño lehenautik be ia honek kanpotarrok-eta etorten hasi zien. Gure aitta hor Kalebarreneko etxe aurrien jarten zan silla baten kontetan zenbat autobus paseten zien. Bakaziñuak orduan bakaziñuak hamabost egun edo holako bat. Eta horrek extremeñuok... Zamoratik, lehenengokuok Zamoratik etorri zien eta. Eta horrek automoillik iñok be ez eta kalien be ez iñok jentiek ez euken. Eta autobusetan juaten zien. Eta gure aitta Mondrauetik oiazen autobusak, Bergaratik-eta paseten zien, kale erdittik hemen, eta gute aitta kontetan autobusak, zenbat autobus pasau zien. Gabien: horrenbeste autobus pasau die. [...] Eta gero jentia hasi zan esaten: "Bat joan die eta bost etorri die". Danak orduko lana topau hemen, oinddiokan kooperatibak hasi aurretik be bai, e, eta danak apopillo ta. Orduan etxietan apopilluak egoten zien.
-Zeoze pagau eta abitaziño bat.
-Abitaziño bat. Nigaz lana eitten auen batek, oso majua da bera. Da Burgoskua. Eta esaten auen Akilinonian egon zala bera apopillo. Eta uhe bi eta lurrien beste koltxoneta bat. Eta han koltxonetan txandaka eitten euela. Eta han ohietan be, estutxo bi, kabidu daittezen hiru persona, e, estutxo bi ifinitta. Eta erdixen beste koltxoneta bat eta hirurak lo. Eta gaur horrek neuk baiño gehixao dauke. Etxia en su tierra, hemen automobilla cada dos por tres cambiando. Ez dakit zer eta badakit zer. Gura dot /gurot/ esatia etorri zien ezebe-ezebe barik, eta holan hemen daozen erdeldun guztiak etorri zien. Ezebe barik. Ezebe barik. Eta gero koperatibak ifiñi zienian, bueno!, asko be gehixao. Gaiñera denpora baten egon zan jefe personal bat hor Ulgorren...

11.7. Politika giroa Aretxabaletan

- **Hizlaria(k)**: Urreta Zubia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ARE-018/025
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:54:10. **Bukatu**: 00:56:00

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
  Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
  Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- **Laburpena**: Sozialista, errepublikazaleak Aretxabaletan. Kanpotik etorritako jende gehiena, errepublikazalea. Centro Republicanoa non egon zen. CNT sindikatua. Politika giroa Aretxabaletan.

Transkripzioa
- Eta hemen sozialistak edo republikanuak-eta?
- Bai, republikanuak [...]. Hemen kanpoko jentia gehixena republikanua zan, bai. Hemen etorri zan jente asko etorri zan lanera, eta hareik kanpotarrak gehixenak republikanuak zian. Republikanuak hementxe euken zentrua, hementxe eleiza aurrekaldian, zea aurrekaldian, hor dau joyería-edo, lehen euen joierixa bat hemen, ba hortxe, lelengo pisuan "Centro Republicano". Eta hor beherao, puxkat beherao, "Sindicato de la CNT".
- Sozialistek-eta bazeken lokalik edo...?
- Sozialistak ez, baiña republikanuak bai, republikanuak hor juntetan zian.
- Eta karlistek lokalik edo?
- Ez, ez euken lokalik. Ez naz akordetan lokalik hola, e. Baiño behin akordetan naz zerbait euki euela hementxe, hor karnizerixa bat dau hor, Etxabena, hortxen goixan zerbait egon zala bai. Baiña bestela lokalik ez euken.
- Eta euren artian-eta pikerik-eta egoten zan, ez dakit, politika kontuan-eta orduan gerra aurretik?
- Ez, ez, ez.
- "O sea que" nahiko trankilla zan.
- Hemen sekula, e...[...]
- Orduan gerora konplikau zan gauzia?
- Bai, gero bai. Baiña gerra aurrian ez euen holako gauza haundirik, ez.

11.8. Gerra denboran, 14 urterekin, Arrasatera fabrikara

- **Hizlaria(k)**: Ezpeleta, Paulo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ezpeleta, Miren
- **Erref**: ARE-022/005
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:09:30. **Bukatu**: 00:11:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
  Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena**: 14 urte bete zituenean Arrasaten hasi zen fabrikan lanean. Beste batek eta biek txandaka lan egiten zuten makina batean: bata goizeko seietatik ordu bietara eta bestea ordu bietatik aurrera. Morteroen 375 pieza egin behar izaten zituzten egunean eta, bete ezean, astean zehar gauez joan behar izaten zuten lanak bukatzera. Gerra denboran ondo kobratzen zuten. Gerraostean makina berean

jarraitu zuten lanean, baina beste lan batzuk egiten eta lau pezeta kobratzen zituzten egunean. Aitak eta aitonak zerra jarri zutenean bera ere hara joan zen lanera. Pinuarekin kaxak eta tabloiak egiten zituzten.

Transkripzioa
-Eta gero hamalau urte ein (gauenian) Unión Cerrajerara, Mondrauera lanian. Gerra ostetxuan zan hori, al año treinta y nueve. Lelengo ibilli gintzen Garagartzako Kartxel eta bixok makiña baten. Bata goxian eta bestia atsaldian. Ta, klaro, relebuan ibili bihar izeten zan. Relebuan fan biher zintzen goxeko xeiretarako, hamalau urte mutikuek, bizikletia linterniaz-edo. Da gero ordu bixetan urten. Da bestia sartzen zan ordu bixetan da gabeko hamarrak arte txandaka, ezta. Baiña ein bihar izeten gauen hirurehun da hirurogeta hamabost pieza morteruenak. Morteruek honek bonbanak. Bakotxak tareia, e. Ta itten ez bazan, astien gabez edo fan eta ein in biher. Da mutikuek gintzen ba, e. Da orduen ba lelengoko zerien bastante irabazten gauen, gerra denporan ba bastante, hogetaka duruak, e, astian. Da hareik derrior ein biher. Da gero akabau zan gerrioi da ipiñi gindduen ba han makiñetan lanien, lengo makiñetan baiña beste lan batzuk eitten. Han lanien gabitzela, aste guztie lana ein da lau pezeta egunian, da zapatua aillegetan zanian, "seis por cuatro veinti cuatro". Hogeta lau pezeta kobrau da etxera. Bidien pintxazo bat ero ein ezkero, han ebizen ajustadoriak, radixuak eta, esaten oskuen baiña: "Baiña zer? Bokadillo bat ezin zeinketzue jan honegaz. Pintxazo bat itten badozue zorrak". Baiña... Da gero ba ipiñi gauen serria, han Mondrauetik urten da ba aittak eta arotzerixia zela gaukien, ba serria.
-Serria zeiñek ipiñi euen?
-Aittajaunak eta aittak. Egurrena, e, ebaittekua. Ta gero ba piñuokin da danok hantxe. Piñuokin da zerien kajak eta ein eta tabloiak eta hola zerian ba, hantxe.

11.9. Baserrian eta kalean lanean

- **Hizlaria(k)**: Lasagabaster Billar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-035/012
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:33:07. **Bukatu**: 00:35:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena**: Ahizpen artean, Jesusa izan zen baserrian gehien egon zena. Ameriketara joan aurretik, Jesusak bere iloba dentistaren kontsultan egin zuen lan Aretxabaletan. Urtebete bat kontsultan lan egin eta gero, 37 urterekin, Argentinara joan zen. Argentinatik itzuli eta gero hasi zen Arrasateko dendan lanean. Lasagabaster dendari izena ez datorkio Jesusaren ahizpagatik, baina bai bere koinatuaren Lasagabaster abizen beretik. 15 urtean jardun zuen Arrasateko dendan lanean, jubilatu arte.

Transkripzioa
- Zuk esan dozu zuek ahizpa danak in dozuela denda horretan lan.
- Bai.
- Aretxabaletan hasitta?

- Ni izan nitzen betik gehixen egon nazena baserrixen, betik ni gaztiena ta betik egon naz gehixau baserrixen. Baiña gero ni fan nitzen, Ameriketara fan aurretik, egon nitzen konsultan lanien apurtxo baten, zeatik honek batek, bat zan dentistie, loba bat. Nik loba bat dauket hiru urten aldia dauko nire loba batek, alaba nagusixenen, nere aizta nagusixenen seme nagusixenak, nereaz hiru urten aldia dauko. Nik hiru urte neukenien jaixo zan ha. Hori da. Eta gero bestiek lau urtena eta hola. Eta bata dau, komerziantia da, komerzioko jubilauta dau. Oin seme-alabak daz dendan, baiña destie dago zerien, Bitorixen, egon zan lehenengo Atxabaletan, ni Atxabaltan neuela konsultan be lana in nauen, apur baten.
- Dentistiakin.
- Bai, dentistiakin be apurtxo baten in nauen, denpora asko ez baiña urte beten bat-edo in nauen, eta gero fan nitzan Argentinara, baiña Argentinara fan nitzanerako baneuken nik hogeta hamazazpi bat-edo euko nittuen.
- Gero kontauko (di)ttu Argentinako kontuak.
- Bai.
- Gero Argentinatik etorri eta jarraittu zeben dendan?
- Eta gero, Argentinatik etorri tte gero, sartu nitzen dendan.
- Arrasaten?
- Bai, bai. Ni Arrasaten, ni Arrasatetik jubileuta nau.
- Eta denda horri izena zeuek emuten xatzue? Lasagabater?
- Ez, eske ez, nere aiztie ezkondu zan beste Lasagabaster bateaz; birrittan Lasagabaster dire. Fermin dauko izena horko nagusixak, nere lobie hiru urtien aldia daukena. Parientiek izan barik, bixak koinzidiu euen bixak Lasagabaster. Oseake horreik birrittan Lasagabaster dire.
- (…) Zenbat urte in zittun hemen, Arrasateko dendan?
- Hamabost urte pasau ingo nittun, pasautxo.
- Hor jubilau ziñan?
- Bai, hor jubilau nitzan, ez nostan balixo zerekuak, Argentinan be in nauen lana be, baiñe ez osten balixo hanguek, zeatik urte gehixao biher ziren, bestela denegau itten otsun.

11.10. Argentinara lanera

- **Hizlaria(k)**: Lasagabaster Billar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-035/014
- **Iraupena**: 0:03:21. **Hasi**: 00:36:13. **Bukatu**: 00:39:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- **Laburpena**: Argentinan bizi ziren bere bi anaia bisitatzera joan, eta 11 urte pasatu zituen bertan. Beroa lantegiarentzako lanera joan ziren bere anaiak, Aretxabaletako "Arrue Zaharrak" bidalita. Beroa itxi zenean, euren kontu jarraitu zuten, baina ez zitzaien oso ondo joan. Anaietako bat bertan hil zen 48 urte zituela. Bestea 1989. urtean etorri eta urtebete hemen egon eta gero itzuli zen, han hiltzeko. Emaztea eta alaba bat utzi zituen.

Transkripzioa
- Eta oin, in dagigun Argentinari buruz berba. Nola demontrez fan ziñan zu Argentinara?

- Anai bi naukelako han.
- Bisittan.
- Anai bi neukan han eta ez nitzan fan geldiketako zerien be, baiña gero geldittu nitzen eta hamaika urte pasau nittuen.
- Argentinan?
- Bai. Bi anai neuken han, neure aurreko bi, ta nire atzekue etxien ezkondute. Eske ni naz bat, bi, itxoin, aber, Lucio, Inazio, Julio, hiru mutillen atzetik, neu, eta gero beste mutil bat neukan atzetik. Ni mutillekin hasi nitzen kasi baserrixen, bai.
- Argentinara orduen bi anae... zure aurretik fanda?
- Bai, nire anaiek fan ziren Beroatik, Beroa badakitzu zein dan?
- Fabrikia.
- Fabrikia, eta entailladoriak ziren, ba entailladore onak ziren ta hor, Ramon Arrue edo etorri zan ta ba batzuk eruen in zittuen. Nire anaie bata eruen euen, gaztiaue eruenda euen bixak segidukuak ziren eta eruen euen lehenengo gaztiena, eta gero bestia han euen eta gero klaro, bata fan zanian bestiari abixau eta zera in otsen ta bueno, gero bestiori be fan in zan.
- Arrue hori ez zan Oñatiarra izango, e?
- Ez, hori Atxabaletarra, Arrue Zaharra, ez dakotzu entzunda Arrue Zaharra? Zelebre samar bat zan. Haren kontuak Atxabaltan asko, kafie hartzen Bittorixara igual faten zan ta, holakua zan, Arrue Zaharra esaten otsien.
- Eta han Beroakin han lana itteko?
- Bai, eta hasi ziren Beroakin lana itten. In auein gaiñera Beroakin, baiña gero pasau zan Beroak itxi edo in auen, eta azkenien Beroan ze hori zerrau edo in zan, itxi in auen berak, eta gero eurak hasi ziren euren kontutik eta ibilli ziren hola puska bat baiña ez jakuen hainbesteraiñoko ondo fan, eta soziuekin eta badakitzu askotan igual ta. Gero ba eurak, ba etxien be taillerra eukien ta, ba, jirau ziren. Gero nire anaia berrogeta zortzi urtekin hil in zan bertan, bai, bestie ez, bestie gero hemen egon zan...
- Baiña gaixorik, istripun baten edo?
- Ez, ez, geixorik, derrepente hil zan, bai. Berrogeta zortzi urtekin. Orduen disgusto galanta euki geuan. Bestie ezkondute, ha solterue zan.
- Eta bestiori han geratu zan betiko?
- Bai, bueno geratu zan, etorri zan hona “el año... noventa y... ochenta y nueve” izango zan? Etorri zanien hona, “ochenta y nueve” zan. “ochenta y nueve-noventa” hor zan. Etorri zan, in auen buelta bat, in zeuen urte bat edo egon zan ta, berriro fan zan eta gero “en el noventa y ocho” bera hil zan.
- Han hil zan?
- Bai, koiñatia bizi da eta alaba bat, eta alabie semiaz ointxe egon da, fan dan udan egon da hemen.
- Badakotzue harremana orduan eurakin.
- Bai, hemen egon dire. Bixek hemen egon dire.

11.11. Argentinan erizain

- **Hizlaria(k)**: Lasagabaster Billar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-035/015
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:39:34. **Bukatu**: 00:42:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa

- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- **Laburpena**: Etxeetan edota ospitaleetan, gaixoak zaintzen jardun zuen Jesusak Argentinan. Espainiatik joandako beste bi lagunekin egiten zuen lan. Ondo bizi zen Argentinan, euskaldun jende asko zegoen bertan. Euskal Etxean elkartzen ziren eta lagun asko egin zituen. Buenos Aires hirian eman zituen 11 urteak. Bera Argentinan egon zen denboran bederatzi gobernu lehendakari ezagutu zituen. Iria eta Aranburu lehendakari izenak gogoratzen ditu, baita Isabel Perón ere.

Transkripzioa
- Eta zeuk han hamaika urtian ze in zeben ba?
- Hamaika urte. Ba, gehixen-gehixen geixuek zainttu in nauen. Bai, egon nitzen denpora danien. Bat asko ezaguketan zan han andra bat, telebistan be urteten auen bat, eta haren ama be zainttu nauen. Beste hemengo bateaz be bai, ospittalen baten be bai, eta ba danera in gauen.
- Hori telebisiñuan urteten eben horrek, hori zer zan, geixo bat?
- Ez, ez, Valentina, ez, bera komunikaziñuen edo telebistan euena, haren ama zainttu nauen, haren ama be bai. Hemengo bateaz, e? Beste asturiania, ez, nungua zan? ahaztu... Josefina euken izena, beste bat moja egonekua be bazan, bueno, bi edo hiru gitzen andra bat zainketan.
- Zainketan zittuen ospittalian edo euron etxetan?
- Ez, etxien, etxien, bai. Ospittalian be bai iñoiz egon nitzen. Azken-azken aldien osppittalien be bai. Baiña ba bueno, hola.
- Hori izaten zan zure... enfemera edo holako zerbait?
- Bai, eta gero anaiekin egoten nitzen eta hola.
- Eta han ze bizimodu klase...
- Bueno, bizimodue ez, txarto be ez, ondo, zeatik bertako jentie asko dago hemengo jentie ta. Euskaldune eta Euskal etxiak eta oso ondo, lagunek asko neuken.
- Zein hirittan edo herrittan edo nun egon ziñan?
- Buenos Airesen.
- Hamaika urtiok?
- Bai, Buenos Aires, nere anaia “Provincia de Buenos Aires” bizi dire, baiña dago oso hurrien.
- Kapitaletik gertu?
- Bai, bertan, segiduen, segiduen dau.
- Euko dozu ba hola pasadizoren bat euko dozu.
- Pasadizo bat? Ba ze esango dotsut, ni han egon nitzen denporan beratzi presidente ezagutu nittuen.
- Hamaika urtetan?
- Oin ahaztu in jat izenak, e? Fan nitzanien Iria euen, baiña beratzi ziren presidentiek.
- Hamaika urtietan; urtien bat baiño gehixago.
- Aranburu be bai, Aranburu entzutia eukiko dozu igual.
- Entzutia bakarrik.
- Hori zela zan, beste famosiori, Isabel ta hori, Perón, Peronistak, hori pasaute euen ni fan orduko, horreik ya pasauta egozen horreik. Gero Isabel bai, gero Isabel egon zan gero barriro beste buelta baten. Baiña Perón eta haren lehenengoko andria, horreik ya pasauta egozen ni fan orduko.

11.12. Euskaldunak Argentinan

- **Hizlaria(k)**: Lasagabaster Billar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-035/016
- **Iraupena**: 0:04:07. **Hasi**: 00:42:15. **Bukatu**: 00:46:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- **Laburpena**: 1975. urtearen bukaeran itzuli zen Jesusa Argentinatik. Txiki eta Otaegi hil zituztenean Buenos Airesko Gernikako Arbolaren ondoan protesta-elkarretaratzea izan zuten hango euskaldunek. Urtean behin Argentina osoko euskaldunek hiri ezberdinetan elkartzeko ohitura zuten. Rosario hirian izugarrizko jende pila bildu zela gogoratzen du Jesusak.

Transkripzioa
- Ze urte zan, goguan dakotzu Argentinatik bueltau ziñanien?
- Ni bueltau nitzen “setenta y cuatru”en-edo. “setenta y cuatru”en akaberan uste dot.
- Zu etorri eta handik gutxira hilgo zan Franco.
- Han nenguen Franco hil zanien.
- Hirurogeta hamazazpixan xan hil zan Franco, edo hamabostien, ez dakit.
- Ez, hamabostien izango zan orduen. Klaro, ni hamabostien etorriko nitzan orduen azken aldera. Hori da, hamabostien azken aldera. Eta Franco hillebete batzuk lehenau hil zan. Ni han nenguen Franco hil zanien.
- Uste dot zemendixan hil zala.
- Eta han nenguen be bai, zela zan? Bestien… hori afusillau edo in euen hori, etxoin, bai, Franco hil zanien seguru-seguru nauan. Eta han nenguen be bai hemen, Burgosen-edo, hil zittuen afusillau zittuein…
-Txiki eta Otaegi.
- …orduen be bai, orduen fan giñan gaiñera zera, Buenos Airesera “el Arbol de Guernica”-ta dauen leku batera, konzentraziñua itten.
- Euskaldun danak hantxe.
- Bai, haraxe fan giñan, akordetan naz, Euskal Etxeko zerak eta euskaldunok. Hara fan giñela protestie itten.
- Bai, hori izan zan urte bat edo bi lehenago.
- Bai, bai. Hortxe izan zan, baiña akordetan naz zela fan giñen.
- Oseake hemendik hara fandako jentiak beukan… bazekitzuein hemengo barri.
- Bai, bai, bueno, horixe! Segidan, pentsaizu, manifestaziñua ta dana in gauen. Ni urte baten akordetan naz, gu faten giñen igual batzuetan ba, zelebretan, honeik, ni anaiekin-ta faten nitzan ta bai, Rosariora fan giñen. Rosarioraiño-ta, han famelixakuak be bagauken, gure aitten aldekuek eta be. Fan eta nere anaiek esaten auen, berrogeta zortzi urtekuek esaten auen, danok fan giñen, koiñatie ta anaie ta danok. Laurok fan giñen orduen, artien neskatillie uste dot ez euela, alabie ez auen artien. Eta danok fan giñen eta nere anaiek esaten auen: “nik Euskal Heri danien hainbeste jente ez dot ikusi batera”, esaten auen. Zeatik geuken, baiña in gauen konzentraziño bat… terriblie eueskaldunek, e?
- A, baiña Rosario horretan…
- Rosario horretan.
- Juntau ziñain euskaldun…
- Juntau giñen euskaldunek.

- Euskal Herrixen baiño gehixau ixe.
- Bai, hori esaten auen nere anaiek. Ixixe Euskal Herrixen baiño jente gehixau ikusi dot, eta hementxe bakarrik. Klaro, euskaldunek, e?
- Bueno, ha Atxabaleta baiño pittin bat haundixagua izango zan, ez?
- Zeatik gaiñera etorten ziren beste leku batzuetatik.
- A? Argentina osotik, ezta?
- Argentina osotik. Ze etorten ziren igual ba Mar del Platatik, o bueno, beste herri batzuetan, zeatik ez auen bakarrik Buenos Airesen zerak. Eurak eukien euren Euskal Etxia eurak bizi ziren lekutik bastante hurrien, eta gero Buenos Airesen beste bat auen, eta gero Rosarion beste bat. Eta ba klaro, konzentraziñua itten auen ba Buenos Aireskuek eta […]-eta ez dakit nunguek, danak.
- Danak.
- Hori da, Euskal Herrittar danak de akuerdo jarri ta, hantxe reunidu ta sekulako…
- Eta hori ze itten zeuein, urtien behin?
- Bai, bai.
- Egun señalau bat izaten zan?
- Bueno, ez dakit, ipini itten auen egunori.
- Ez zan izaten betik egun baten?
- Ez, ez naz akordetan, ez naz akordetan horixe, Pazkuak izango ziren? Pazku aldera-edo? Ez naz akordetan ondo horreaz noiz, baiña hori itten zan. Ba hori sarri. Ni Mar del Platan be egonda nau, hola fanda, e? Holaxe fanda.
- Betik leku baten ez zeuen itten?
- Ez, ez, kanbixau ta orduen, baiña Rosarion egon zanien izugarrixa izan zan.

11.13. Argentinara itsasontziz

- **Hizlaria(k)**: Lasagabaster Billar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-035/017
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:46:22. **Bukatu**: 00:49:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- **Laburpena**: Jesusaren anaiak Argentinara joan zirenean diru gehiago irabazten zen Jesusa joan zenean baino. Bi bider bidaiatu du Argentinara, bietan San Roque izeneko itsasontzian. Neguan irten Euskal Herritik, eta 15 egun itsasoan pasatu ondoren, Argentinara udan iristeko.

Transkripzioa
- Eta orduen esaten auen, nere anaia betik hori buruen eukitten dot, “hainbeste jente nik ezta Euskal Herri danien be ez dot ikusi”.
- Asko fanda orduan, e?
- Bai, jente asko.
- Aurretik fanda be bai.
- Bai, orduen aurretik fanekuek, oin ez doia iñor hara. Oin zela fango da ba? Geruau txarra jarri zan ta.
- Txarretik txarrera fatia be ez da hain…

- Txarretik txarrera; hemen askoz hobeto.
- Bai baiña orduen hemen ez euen ezer ta…
- Hemen gosie jarri zanian, bueno, ni fan nitzanerako be, gauzia txarketan euen, e? Ordurako be txarketan auen e? Nire anaiek fan zirenien esaten auen han sobretan jakuenaz, zela esaten auen harek? Hori da, han sobretan jakuena, hemen irabazten auena zala.
- Kontxo, hori aldia haundixa da, e?
- Hori esaten auen. Bai, orduen bai, orduen bai. Baiña gero, gero etorri zan hor… gero egon biher zitzen betik periodikueri leiduten, aber pesuorrek zenbat bajaten zan egunero, betik horri begire, betik horri begire jentie! Zan ya!
- Golpera galdu eben balore dana, ezta?
- Bai, dana, dana. Betik, esaten dotsut, betik, ez zan besterik, periodikua zabalketan, aber zela dau pesue?
- Zu Argentinara fan zela in ziñan, barkuen edo abioien-edo?
- Barkuen.
- Biaje luzia izango da.
- Bai, eta etorri be barkuen. Eta gero berriz be fan nitzen.
- A bai, e?
- Bai.
- Gauzak ekartera-edo?
- Ez, ez. Bakaziño batzuetan, dendan obrie euen ta esan nosten, lobiek esan nosten, ez dotsu inporta egun batzuk gehixau egoten bazara. Hola fan ta pasau nittun beste egun batzuk barriro.
- Anaia-eta ikusten?
- Bai, klaro, klaro. Bigarren aldixen. Gaiñera fan ta etorri in nauen bixak barku berdiñien. Eta zan barkue “San Roque”. Eta San Roquen fan eta San Roquen etorri in nitzen. Eta azkenengoko biajia esaten auen orduentxe zala San Roqueko barkue ya...
- Gero desguazera?
- Gero itxi zan itteko, honeik itten (di)ttue hola biaje motxak? Zela esaten otsie horreiri? Izen bat esaten otsie ba, faten direnien bakaziñotara-ta…
- A, kruzeruak-eta?
- Kruzeruek. Kruzeruetarako-eta itxi euela gero esaten auen.
- Barku dotoria zan orduen.
- Bai, bai, jente asko gaiñera.
- Zenbat denpora hemendik haraiñoko?
- Ba ziren, zenbat egingo nittuen? Hamabost izango ziren? Egun asko. Hamabost egun uste dot zirela, in gauenak. Hamabost pentsaitten xat. Pentsa eizu, ahaztu itten dire, e? Gauzak, e? Ahaztu itten dire, baiña egun asko, egun asko ziren.
- Aste pare bat itsasuan.
- Bai, Gabonetarako aillegau nitzen hara, akordetan naz. Hara aillegau nitzen uda-udan, hemen neguan urten nauen eta udan aillegau nitzen. Eta bueltan be holaxe etorri nitzen barriro, barriro be han…
- Han negua zala…
- Ez, han udia zala, hona negura etorri.
- Katarrua harrapoko zeben, e?
- Ez, ez dakit, ez naz akordetan katarruaz.
- Hamabost egun itsasuan.

11.14. Buenos Airesen aldean, Aretxabaleta oso txiki

- **Hizlaria(k)**: Lasagabaster Billar, Jesusa

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-035/020
- **Iraupena**: 0:03:21. **Hasi**: 00:52:50. **Bukatu**: 00:56:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- **Laburpena**: Oso txikia iruditzen zitzaion dena Argentinatik itzuli zenean. Han ez ziren hemengo basoak ikusten. Lantegi berri asko zeuden, nahiz eta bera joan zenean Ulgor hasita zegoen. Baina hiri handi batean, etxe artean hainbeste denbora bizi eta gero, dena txikia ikusten zuen hemen. Argentinarrekin ondo konpontzen ziren, baina beti euskal giroan edo Espainia iparraldeko beste herritar batzuengandik gertu bizi ziren, asturiar eta galiziarrak batez ere.

Transkripzioa
- Eta beste… klaro, garai horretan gaiñera zu fan ziñanien, zuk orduen, hemengo fabriketan eta ez dozu in lanik?
- Ez dot nik lanik in.
- Orduan zu fan ziñanien hemen ba gutxi gorabehera hortxe hasi ziren orduen pittin bat kooperatibak eta inddarketan, ezta?
- Bai.
- Eta zu etorri ziñanien ez zeben ikusi izugarrizko fabrika barri pilla bat eta…
- Ba honbre, bai, hori bai. Baiña ni klaro, ni etorri nitzen ta aiztiak esaten nosten han Atxabaletan, Koldon amak eta esaten nosten, zu ez zaue ikaraketan holako zerak, fabrikak eta hemen ikusitta ta hola ta. Ba bai, baiña ni hainbesteraiño, halako leku haundittik etorri nitzen! Dana txikixe pentsatan jaten! Hemen etorten nitzen ta basue dana, ta…
- Han dana launa, ezta?
- Han ez dozu ikusten ezebe holakorik. Eta ni etorri nitzen eta dana, dana etxiek eta dana… Buenos Aires be haundixe eta ni leku haundittik etorri nitzen. “Ez dotsu itten hori?” esaten nosten, holako fabrikak eta Ulgor ta danak hor? Ni fan orduko Ulgor bastante egindda euen e? Ya bastante euen haundixa, gero haundixaua euen etorri nitzanien baiña ez jaten hainbeste ikaraketan.
- Klaro, hain leku zabalak ikusitta.
- Hainbesteraiñoko zabalak. Eta ni fan nitzenien Buenos Airesera ta nik esaten nauen, anaiari eta esaten nosten: “baiña hemen mendixek eta nun dagoz? Zer da, hemen zer da?” Ezebez, aurrekaldekue bakarrik ikusten zauen.
- Bai, bai. (…)
- Eguzkixak nundik urteten auen, hori be lehenengokotik hori be begiketan dozu, ezta? Zein aldetatik-edo, nun zauzen be ez dozu jakitten.
- Igual eguardira arte ikusi ez eguzkixa. Harik eta altu eguen arte.
- Bueno, segun, Buenos Aires baten bai, klaro, ni Buenos Airesen asko egon naz ta. Eurak bizi ziren lekuan ba, apur bat apartetxuau dau baiñe, hurrien dau ta, “Remedios de Escalada”, hareik bizi zien lekua ta. […], eta bestela komenetziak, komunikaziñua-ta ona euen ezta? Ibiltteko-eta ona.
- Han zuek jai girua eta lagun ingurua eta, dana euskaldun artekua zeukein?
- Euskaldun artekue.
- Ez zan sartzen bertan bertako jenterik?
- Gero zerekuak be bai, hemen… Ez baiña betik inklinaziño dana, “a los clubs asturianos” ta, “a los clubs gallegos” ta dana hola, ez dakitzu? Dana

hemengo zera, hango jentiek hemengua hartzen dau, e? Agudo, bai. Eta gero ezer egoten bada euskal zerien, Euskal Etxien, pues hara, horreik be zainttu ondo.
- Batez be euskaldun edo espaiñol giruan bizi ziñain.
- Bai.
- Argentinako bertako jentia-ta…
- Bai, eurakin be bai, baiñe bestie itxi barik, e? Eta geure kostunbriek eta hango kantuek eta hango pelota partiduek eta horreik danak Euskal etxietan, e? Bai, bai.

11.15. Esperientzia ona Argentinakoa

- **Hizlaria(k)**: Lasagabaster Billar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARE-035/021
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:56:11. **Bukatu**: 00:58:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- **Laburpena**: 38 urterekin joan zen Argentinara eta 49rekin itzuli. Esperientzia ona izan zela dio Jesusak. Baserritik joan zen Argentinara. Erdi baserritar, erdi kaletar, erdi dendari eta erdi erizaina ere badela diosku Jesusak.

Transkripzioa
- Bueno, etorri gaittezen atzera honutz. Zu hara fan ziñanien esan dozu hogeita… zenbat urte zeukela?
- Hamasei.
- Hogeta hamasei urte, oseake hogeta hamasei urte arte…
- Itxoin, hogeta hamasei? Ez, pasaute neuken hogeta hamasei, hogeta hamazortzi euko nittuen. Hogeta hamasei beste gauza bateatik akordau jat, baiñe ez, hogeta hamazortzi euko nittuen.
- Urte asko dira hola abenturan fateko, ezta?
- Bueno, baiña anaie neukelako, e?
- Bueno, gura dana baiña artian be haraiño faten atrebiu in bihar da, eta…
- Atrebiu in nitzan.
- Hogeta hamazortzi urtekin.
- Eta gero atrebiu in nitzan etorten be bai.
- Esperientzi bat izan zan, neretako esperientzi bat izan zan.
- Pozik zeu esperientziarekin?
- Bai, ni… gaur hola pentsauta esaten dogu ba, urtetie ona da kanpora, e?
- Bai, beste gauza batzuk ikusi ezta?
- Bai, gauza asko ikusten da ta, personak ezagutu itten (di)ttezu asko eta ez dakit, ni neure izakerarako galdu ez, ez dait ez dot eiñ.
- Eta orduen klaro, hogeta hamazortzi urtekin, ordura arte baserrixan egon ziñan gehixen bat?
- Bai, gehixen bat baserrixen.
- Baserrittik Argentinara fan ziñan.
- Baserrittik esateko, bueno konsultan lana in nauen puskaten baiña…
- Bai, esan dozu. Zenbat egongo ziñan konsultan, urte bat-edo?
- Ba urte bat edo pasautxo edo holakon bat. Ni erdi baserrittarra eta erdi kaletarra eta erdi dendarixa eta danaz. Erdi enfermera be bai.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Kantatzeko zaletasuna (ARE-001/023)

Lagunartean kantatzeko zaletasuna.

2. Jai egunak lagunartean (ARE-001/026)

Jai egunak lagunartean. Otxandiora oinez.

3. Oilo-harria (ARE-001/029)

Oilo-harria. Arrautzaren azala gogortzeko ona.

4. Morokila eta "aixe" (ARE-001/030)

Morokila eta "aixe". Behiak txahala egin ondoren ematen zuen lehenengo esneari, "horitze".

5. Umetako gaixotasunak (ARE-001/031)

Etxean zazpi anai-arreba. Arreba gazteago bat garrotiloarekin hil zen. Medikua oinez baserrira.

6. Umetako jolasak (ARE-001/032)

Umetako jolasak: pote-poteka, kakatorreka...

7. Baserriko larrainean dantzan igande gauean (ARE-001/033)

Igande gauean, Aretxabaletan musika egoten zen; gramola. Baserritik oso ondo entzuten zen musika eta beraiek ere larrainean dantzan jarduten zuten.

8. Lihoaren inguruko azalpenak (ARE-001/034)

Lanaren banaketa baserrian. Lihoak (linuak) zituen lanak. Lihoa jo; osinera eraman eta bertan eduki behar izaten zen 20 bat egunez beratzen. Lihoa ez zen ebakitzen, sustraitik ateratzen zen. Liho-harria. Erabiltzen ziren tresnak: "karrama", "liñu-mazua"; "trangia"; "txarrantxia". Emakumeek egiten zuten goruetan.

9. Lihoaren inguruko azalpenak (ARE-001/035)

Lihoa (linua). Lihoaren inguruko azalpenak. Noiz erein; auzolana zertarako; etab.

10. Hilabeteen izenak (ARE-001/036)

Hilabeteen izenak: "zemendixe"; "ilbeltza". Esaera zaharra.

11. Laietan nola egiten zuten (ARE-001/037)

Laietan nola egiten zen. Baserriko tresnak: "nabarra". Auzo batzuk labrantzarako hobeak.

12. Umetan, ganadu-zain (ARE-001/038)

Umetan, ganadu-zain.

13. Lehenengo autoa Aretxabaletan (ARE-010/006)

Lehenengo autoa Aretxabaletan nork ekarri zuen. Arrue.

14. Baserriko bizimodua umetan (ARE-016/009)

Gurasoen jatorria. Baserriko bizimodua umetan; eskola kontuak. Bizitzarekiko ikuspegia.

15. Umetako kontuak; baserriko bizimodua (ARE-016/010)

Baserriko bizimodua; bizitzarekiko ikuspegia. Baserriko lanak umetan; jolasteko denbora gutxi izaten zuten.

16. Neska-mutilak baserrian (ARE-016/011)

Ume-umetatik baserriko lanetan laguntzen zuten: ganadu-zain... Bizitzarekiko ikuspegia. Neska-mutilen lanak.

17. Umetako jolasak (ARE-016/012)

Umetako jolasak: "azkenka", sokasaltoan...

18. Umetako okerkeriak (ARE-016/013)

Umetako okerkeriak.

19. Gerra aurreko aroztegia (ARE-021/012)

Uztargina non zegoen. Gerra aurretik aroztegia omen zegoen leku horretan. Arotzaren familiaren inguruko azalpenak. Ganadu-tratanteak.

20. Sagardoa egiteko prozesua (ARE-023/002)

Urrian erdi aldera hasten da sagarrak batzen. Lehenbizi lurrera jausitakoak batzen dira. Sagarrak makinara eraman eta matxakatu egin behar izaten dira. Sagardoa egiteko prozesua. Hilabete behar du sagardoak fermentatzen.

21. Bi urtetik behin sagardoa (ARE-023/003)

Bi urtetik behin egiten dute sagardoa, sagarrondoak urte batean asko ematen badu hurrengoan gutxi ematen du eta. Hala ere, gutxi den urtean "prentsakada"-ren bat egiten dute. 30 zaku sagarrek 500 litro sagardo eman dezakete. Lehenbizikoz noiz egin zuten sagardoa. Etxean duten prentsa lehen maristena omen zen, baina gero sozio batzuen artean hartu zuten.

22. Etxerako egiten dute sagardoa (ARE-023/005)

Etxerako egiten dute sagardoa. Saldu nahi izanez gero, botila bereziak erosi eta beste hainbat neurri hartu beharko lituzkete. Honen inguruko kontuak. Sagardoa hasieran oso gozoa egoten da eta denborarekin mikazten joaten da. Botilan sartutakoan asko hobetzen da sagardoa. Sagarrak aprobetxatzearren hasi ziren sagardoa egiten. Lehen leku askotan egiten zen sagardoa.

23. Sagardoa egiteko tresneria; sagar klaseak (ARE-023/006)

Sagardoa egiteko prozesuan erabiltzen duten tresneria: matxakadoria, prentsa, enkortxadorea... Sagarrak denak etxekoak izaten dira. Sagar-klaseak.

24. Barrikaren eragina sagardoaren zaporean (ARE-023/007)

Sagardo ona egiteko sekretua zein den. Sagardoaren zaporean barrikak garrantzi handia du. Azkenengo ekarri zuten barrika Oñatitik ekarri zuten, hango sagardotegi bat itxi zenean. Barriken inguruko azalpenak.

25. Baserriko lan-banaketa (ARE-028/017)

Baserriko lan-banaketa. Amak etxean eta kanpoan egiten zuen lana. Aita asko ibiltzen zen kanpoan, lagunei laguntzen. Gerra hasi zenean, 15 urte zituen anaiak; soldadu joan zen Burgosera, eta hanka apurtu zuen han. San Pedrotan bisitan joan ziren. 17 urterekin, Burgosko katedrala ikusi zuen, eta trenez bueltatu zen.

26. Eskoriatzan ere bainuetxea (ARE-029/019)

Herriko jende askok egiten zuen lan bainuetxean. Eskoriatzako bainuetxera etortzen zen Alfonso XII.aren arreba bat, "Infanta" Pilar. Bertan gaixotu eta hil egin omen zen, gainera. Aretxabaletara kanpotik etortzen ziren bainu-hartzaileak onartuak izaten ziren herrian. Aretxabaletako bainuetxea izen handikoa omen zen.

27. Ur azpian desagertutakoak (ARE-037/002)

Koruetako baserrien izenak. Asatzako baserriak. 16 etxe desagertu ziren guztira ur azpian. Mendikurtza etxeari 11 hektarea kendu zizkioten.

28. Erromeriak eta jaiak (ARE-037/004)

Erromeriak. Araotzera joaten ziren Trinitate jaietan. San Elias egunean ere bai. Santiago egunean ziren auzoko jaiak. Inguruko auzoetako jaiak. Otala zelaian ekaitzak nola harrapatu zituen, erromeria egun batean. Aguazila joan zitzaien. Oinaztuak nola hil zuen neska bat.

29. Otala zelaiko jaia (ARE-037/006)

Otala zelaira araoztarrak joaten ziren jaietan. Arratsaldez izaten zen, Santo Domingo egunean.

30. Kantatzeko zaletasuna (ARE-001/022)

Kantatzeko zaletasuna. Eskoriatzan abeslari oso onak. Pare bat tenore bikainak.

31. Aretxabaletako jatetxeak (ARE-040/002)

Garai hartako tabernak zeintzuk ziren, Zentro Katolikoaz aparte. Aita Arruenean zegoen lanean. Zentro katolikoari buruzko azalpenak. Parean bizi ziren. Senarraren etxera ezkondu zen gero.

32. Alaveseko jokalaria (ARE-040/004)

Bixente futbolean ibili zen Aretxabaletako taldean, eta gero Alavesen jokatu zuen, 1952tik aurrera. Zazpi urte egin zituen han. Lehen mailara igo ziren 1954an, eta gero berriz jaitsi. Granadara joan zen gero, eta lesionatu egin zen. Realeko orduko jokalariak. Realean hasi zen entrenatzen eta handik berriz Alavesera, eta gero Huelvara.

33. Umetako oroitzapenak amona Maritxurekin (ARE-082/003)

Amonak hazi zuen eta erreferente moduan dauka. Oso borrokalaria zen amona: fundizio batean egin zuen lan. "Matriarkatu" moduko batean bizi izan da.

34. Indiana Jones izan nahi zuen; lehen antzezlanak eskolan (ARE-082/004)

Indiana Jones asko gustatzen zitzaion umetan. Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan ibili zen 8. mailararte, eta han egin zituen lehenengo antzezlanak.

35. Arrasaten antzerki ikastaroa, 14 urterekin (ARE-082/005)

14 urterekin AEDk antolatutako antzerki ikastaro batean eman zuen izena. Ikasturte bukaeran antzezlan bat egin zuten, Amaia antzokian.

36. "Iparragirre" antzezlana, 12 urterekin (ARE-082/006)

Kurtzebarri eskolan, Iparragirre antzezlanean protagonista izan zen.

37. Zinemazalea umetatik (ARE-082/007)

Pelikulak erosten zituen ezkutuan. Familian aktorerik ez zeukan, baina "teatreroak" bai.

38. Kazetaritza ikasi zuen Leioan eta antzerkigintza Donostian (ARE-082/009)

Kazetaritza ikasi zuen, nahiz eta garbi zeukan aktore izan nahi zuela. Ondo etorri zitzaion, gerora gidoigile moduan ere ibili izan delako. Madrilera joateko asmoa zuen, baina Donostian ikasi zuen antzerkigintza, TAEn.

39. Madrilera joan beharrean, Donostiara (ARE-082/010)

Kazetaritza amaitzen ari zela Madrilera joatea erabaki zuen, antzerkigintza ikastera, baina ez zuten hartu. TAEn ikastea oso esperientzia polita izan zela dio.

40. Goenkalen hasi zen lanean, aktore moduan (ARE-082/011)

TAEn ikasten ari zela Madrilera joaten saiatu zen berriro, eta justu orduan Goenkaletik deitu zioten. Geratzea erabaki zuen. Lau urte egin zituen Goenkalen. Telebista eskola ona da, baina bizio batzuk ere hartzen dira berehalakotasun horretan.

41. Goenkalen gidoilari moduan ondoren (ARE-082/012)

Goenkalen zegoela sortu zitzaion gidoigile moduan hasteko aukera. Film laburren gidoigintzako ikastaro bat egin zuen, eta "Maritxu" izeneko gidoia eta film laburra egin zuen.

42. Aktore lana nahiago gidoigintza baino (ARE-082/013)

Erraztasuna dauka istorioak idazteko, baina aktore lanetan disfrutatzen du gehien. Bere neurriko lanak idazten ditu, berak antzezteko modukoak. Umorea eta drama, bietan moldatzen da ondo, baina badauka umorerako joera bat.

43. Umoreari buruz (ARE-082/014)

Zaila da mundu guztiarentzat umorea egitea. Hizkuntza bakoitzak mundu ikuskera bat ematen du, berezitasun partikularrak, eta umorean ere igartzen da.

44. Euskaraz sortzea naturala da berarentzat (ARE-082/016)

Aitziber Garmendiaren bakarrizketa bat aipatzen du, euskaraz sortzeari buruzkoa. Euskaraz bizi da eta euskaraz sortzea da naturalena berarentzat, instintiboa. Militantzia puntu bat ere badauka.

45. Euskaraz edo gaztelaniaz antzezten (ARE-082/017)

Erosoago dago euskaraz antzezten, baina testuak gaztelaniaz errazago automatizatzen ditu. Antzezlanak bi hizkuntzatan egiteak ahalegin handia eskatzen du. Hizkuntza aldaketak bi obra ezberdin izatea dakar.

46. Euskalkiak eta batua: orekaren beharra (ARE-082/018)

Euskalkian antzezten sentitzen da erosoen, baina batuan jardutea ere ez zaio kostatzen. Euskara batua arrotza ez gertatzea garrantzitsua da. Euskalkien aberastasuna.

47. Hizkuntza gauzak kontatzeko tresna moduan (ARE-082/020)

Euskalkien aberastasuna. Gauzak kontatzeko orduan hizkuntza tresna moduan erabiltzea polita da. "Mami Lebrun" antzezlanean euskalkia aldatuta aldatzen dira pertsonaiak.

48. TAEn irakasle moduan; talde-lanaren zalea (ARE-082/022)

Kosta egiten zaio bere burua irakasle moduan ikustea. 'Eredu' izatea ez darama ondo, oso zalantzatia delako eta oso gardena. Talde-lana oso aberasgarria dela dio, eta gidoia berea denean irekita egoten da ekarpenetarako.

49. Xake produkzioak (ARE-082/024)

Xake produkzioak sortu zuten Xabier Ormazabalek eta Kepak, "Mami Lebrun" antzezlana ekoizteko (hil berri zen amona baten istorioa, gaztetan kabaret batean lana egindakoa). Arrakasta izan zuen antzezlanak, eta ordutik beste bi antzezlan ere sortu dituzte.

50. Maskulinitateari buruzko antzezlana (ARE-082/025)

"Fadoak entzuten zituen gizona" maskulinitateari buruzko antzezlana da. "Lur", aurreko antzezlana, mutiko transexual bati buruzkoa zen. Adibideak ipintzen ditu maskulinitatearen ereduei buruz.

51. Heziketa sexuala eta fikzioa (ARE-082/027)

Uste du bera gaztea zenetik asko aldatu dela, sexualitatea naturaltasun handiagoz ikusten dela, baina ereduak hor daude.

52. Transexualitateari buruz dokumentatzen (ARE-082/029)

"Lur" antzezlana idazteko transexualitateari buruz dokumentatu zen.

53. Homosexualitatearen tratamendua fikzioan (ARE-082/030)

Homosexualitatea fikzioan nola lantzen den. Goenkalen pertsonaia homosexuala jokatzen zuen, eta hori zen gaia: bere orientazio sexuala.

54. Kantatzea eta gitarra jotzea gustuko du (ARE-082/034)

Hikaren "Txerriboda" antzezlan-kabaretean kantatu egiten zuen, eta beste antzezlan batzuetan ere bai. Gustatu egiten zaio. Gitarra ere jotzen du, baina oso gutxitan publikoaren aurrean.

55. Abaigarren udalekuetan (ARE-082/035)

Abaigarren udalekuetan mozorrotu egiten ziren. Inauteriak ere asko gustatzen zaizkio.

56. Antzerkia terapeutikoa ere bada (ARE-082/036)

Antzerkia terapeutikoa dela dio, eta kontatu nahi duzuna kontatzea ere bai. Lanbide izorratzailea ere bada, Keparen ustez: epaitua sentitzea ohikoa da, eta aktoreen autoestimua kolokan jartzen du horrek.

57. Sare sozialetako 'errealitatea' (ARE-082/038)

Sare sozialetako errealitate birtuala ez da benetakoa. Twiterren oraintsu hasi da, eta konturatu da kontu handia izan behar dela, arriskutsua delako.

58. Dependentzia sare sozialekin (ARE-082/039)

Gaztetxoek dependentzia handia dute teknologia berriekin, eta heldutxoek ere bai. Norbere autoestimua sare sozialen araberakoa izatea arriskutsua da. Begietara begiratzearen eta ukitzearen alde dago Kepa.

59. Antzerkia, zinema eta telebista (ARE-082/041)

Antzerkian egin du lan gehien. Telebistan ere ibili da. Orain ETB1eko "Barre librea" programan dago. Antzerkiak ematen duena aipatzen du. Zinemako lan egiteko modua desberdina da. Telebistan agertzeak aurpegi ezagun bihurtzen zaitu.

60. "Zauriak" eta "Bucle" film laburrak (ARE-082/043)

"Zauriak" eta "Bucle" film laburrei buruz hitz egiten du.

61. Istorio "honestoak" kontatzearen garrantzia (ARE-082/045)

Benetako istorioak, 'honestoak', kontatzeak publikoa harrapatzen duela uste du. Xake produkzioak ez da beraien ogibide bakarra, eta ez dute etengabe sortzeko beharrik.

62. Lanbide gorabeheratsua (ARE-082/046)

Aktore ogibidea oso gorabeheratsua da: lan asko batzuetan eta gutxi beste batzuetan. Gidoilari moduan ere egin du lana, antzeztetik bakarrik bizitzea zaila delako.

63. "Erlauntza" antzezlanaren gidoia (ARE-082/047)

"Erlauntza" antzezlanaren gidoia nolatan idatzi zuen kontatzen du. Garbi zeukan emakume batek zuzendu behar zuela, eta Mireia Gabilondok zuzendu zuen. Film ere bihurtu zen gerora.

64. Aktore izan nahi duenari esango liokeena (ARE-082/049)

Aktore izan nahi duen gazte bati esango liokeena. Lanbide zaila da eta garrantzitsua da kontatzeko grina izatea. Pribilegio bat da gustatzen zaizun horretan lan egitea.

65. Oholtza gaineko sentimenduak (ARE-082/050)

Oholtza gainean jolasten ari dela sentitzen du. Oso ondo pasatzen du antzezten.

66. Umorea egitea konplexua da (ARE-082/052)

Beti egongo da minduko duzun norbait umorea egiten duzunean.

67. Zaletasunetako bat: mendia (ARE-082/054)

Zaletasunetako bat mendia du. Lizargarate da bere leku kuttunetako bat.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2024-03-26

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com